

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Azkoitia



Aurkibidea

Udalerria: Azkoitia

Sarrera



Urola Kosta eskualdeko udalerria. Hizkeraz eskualdeko gainontzeko herriekin parekotasun handia du, baina inguruan dituen Deba Ibarreko herrien eragina ere badu. Eremuz herri handia da eta hainbat auzo ditu. Elosu auzoa Bergarako mugan dago eta hizkera berezia da bertakoa. Martirieta auzoko euskararen ere badira gainontzeko auzoetatik bereizten duten ezaugarriak.

- **Biztanleak:** 11.418
- **Euskaldunak:** %77,4

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **81**
- Zintak: **83**
- Pasarteak: **1.417**
- Transkribatutakoak: **258**
- Audioak: **32**
- Bideoak: **1.332**

Proiektuak

- 101L - Herriz herri
- Azkoitiko ahotsak
- Azkoittiko euskerie
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Ez dago sinesterik zenbat kanbiatu den!
- Fondo partikularrak
- Gazte gara gazte
- Gipuzkoako zuhaitzi motzak
- Hike eizan!
- Urretxu eta Zumarragako ahotsak

Hizlariak

Jose Ignacio Agirrezabal Epelde (1914-2011)



1914an jaio zen Aizpurutxoko Asketa baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama Aittubekoa, Aizpurutxokoa hura ere. Zazpi anai-arreba ziren. Eskolan Aizpurutxon bertan ibili zen zazpi urterekin hasita. Baserritik bizi izan da beti, nahiz eta gaztetan harrobian eta basoan ere lanean aritua izan. 21 urterekin soldadutzara joan zen Palentziara eta horren ondoren Espainia osoan zehar ibili zen gerran.

Kruz Mari Alberdi Alberdi *Poxpi* (1943-2021)



Azkoitian jaio zen 1943an. Gurasoak ere azkoitiarrak zituen: aita Baliaras baserrikoa eta ama Altamira auzoko Tejeria ("Tailleixe") baserrikoa. Bederatzi anai-arrebako familiakoa da. Eskolan mojekin ibili zen, lehenbizi Mixerikordian eta Floreagan mertzedarioekin ondoren. 14 urterekin "mandatari" lanetan hasi zen Juaristi lantegian. Gerora delineatzaile gisa egin zuen lan. Gaztetan Gurutze Gorriko eta Anaitasuna futbol-taldeko lehendakaria izan zen. Musika mundua gertutik ezagutu izan du familian eta berak ere saxofoia, dultzaina eta gitarra jotzen ditu, besteak beste. Anai-arrebekin batera (Ezkerra anai-arrebak izenarekin) hainbat eta hainbat kanta sortu eta jo izan ditu; berak sortua da, esate baterako, [Azkoitiko erlojuaren kanta](#). Erromeria, ezkontza eta bazkarietan era sarri ibili izan da hainbat trikilariri laguntzen, batez ere Lajari.

Carmelo Alberdi Arizmendi (1926-2021)



1926an jaio zen Azkoitian. Gurasoak kaletarrak zituen. Eskolan, besteak beste, mojekin Mixerikordian, Floreagako eskolan, Azkoitiko udaletxean, eta mesedetakoekin ibili zen. 16 urterekin eskola utzi eta Azkoitiko Manzidor lantegian hasi zen lanean; "mandatari" eta "doitzaile" lanetan aritu zen bertan. 9 urte zituenetik akolito lanetan ibili izan da Urrategiko elizan eta oraindik ere lan horretan jarraitzen du. Umetatik izan du marrazteko eta eskulanak egiteko zaletasuna eta hainbat margolan eta irudi egin izan ditu. Urrategiko elizan ere berak egin ditu aldareko hainbat pieza.

Arantza Alberdi Iriarte *Kaska* (1923-2002)

Umetan Misericordian ibili zen eskolan. Abarketak sendotzen egiten zuen lan umetatik. Ezkondu ostean koinatarekin papereztatze-lanetan aritu zen. Gosea ezagutu zuen gerra ostean. Bere aitak herriko musika-bandan jotzen zuen.

Maria Hipolita Aldai Eizagirre (1929)



1929an jaio zen Errezilgo Artxiola baserrian. Aita Artxiolakoa bertakoa zen eta ama Urrestillako Eizmendi baserrikoa. 12 anai-arreba ziren. 10 urte zituela Azpeitiko Elosiaga auzoan ibili zen eskolan urtebetez. 11 urterekin Beizamara joan zen neskame eta han bi urte egin ondoren, amaren jaiotetxera joan zen lan bera egitera. 17-18 urte zituela, josten ikasten ibili zen Azpeitian eta Donostiara ere joan zen sukaldaritza ikastera taberna batera. 20 urterekin Azkoitiko Eginozarra baserriko seme batekin ezkondu zen eta bertara joan ziren bizitzera.

Maria Pilar Aldalur Arcelus (1926)

Azkoitian jaioa, 1926. urtean. Batez ere eskolako kontuak aipatzen ditu.

Julen Aldalur Larrañaga (1999)



Azkoitiarra. Gurasoak ere azkoitiarrak ditu. "Hike eizan!" Azkoitiko hitanoa bultzatzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa Asier Odriozola lagunarekin batera (argazkian, ezkerrekoa).

Maite Aldazabal Larrañaga *Galo* (1923)



Azkoitiko Plaza Berrian jaio zen 1923an. Ama azkoitiarra zuen, Axiri baserrikoa, eta aita Mendarotik etorria. Aita Axiriko Marirekin ezkondu zen eta zortzi seme-alaba izan zituen. Baina gero alargundu egin zen eta, haren ahizpa Julianarekin ezkondu ostean, seme-alaba gehiago izan zituen. Oso bizimodu pobrea izan zutela dio Maitek. Misericordian ibili ezen eskolan, sor Mikaela eta sor Felisarekin. 11-12 urterekin umezain hasi zen. Joxe Gogorza `Galo´rekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituen, baina bat ume-umetan hil zitzaion. "Erreportzaketan" (abarketak josten) lan egin zuen, baita ezkondu ostean ere. Senarraren gaitzizena hartu zuen eta jendeak Maite `Galo´ izenez ezagutzen du.

Angeles Aramendi Aranberri (1934-2022)



Azkoitiko Martirieta auzoko Amusategi baserrian jaio zen 1934ean. Aita Amusatetikoa bertakoa zuen eta ama auzo bereko Arrieta-Arraza baserrikoa. 12 anai-arreba ziren, baina senide bat jaioberritan hil zitzairen. 8 urterekin hasi eta 11 urtera bitartean Martirietako eskolan ibili zen. Baserriko bizimodua ezagutu izan du umetatik; esnea saltzera joaten zen kalera, esaterako. 14 urterekin josten ikasten hasi zen Azkoitian; abarketak josten aritzen ziren etxean diru pixka bat lortzearren. Azkoitiko Intsausti lantegiko akziodun baten etxean ibili zen neskame lanetan bi urtez. Ondoren Zendoia baserrira joan zen bizitzera, bertako Tomas Zubizarreta "Zendoia" soinu-jotzaile ezagunarekin ezkondu baitzen. 5 seme-alaba izan zituzten. Elkarrizketan Tomas senarrak ere zenbait kontu esaten ditu.

Blas Aramendi Aranberri (1927-2018)



1927an jaio zen Azkoitiko Martirieta auzoko Amusategi baserrian. Aita Amusatetikoa bertakoa zuen eta ama auzo bereko Arrieta-Arraza baserrikoa. 12 anai-arreba ziren, baina senide bat jaioberritan hil zitzairen. Zortzi urterekin hasi zen eskolan, Martirieta auzoan bertan. 17 urterekin Burgosera joan zen gaztelania ikastera. Betidanik baserritik bizi izan dira. Okin lanetan ere aritzen zen etxean. Auzo bereko Monte baserriko alabarekin ezkondu zen eta Amusategin bertan bizi izan dira.

Juan Migel Aranbarri Atxa Txitxi (1940)



Gurasoak oporretan zeudela, Zarautzen jaio zen, bertako hotel batean, zazpi hilabeterekin. Aita azkoitiarra zuen eta ama, berriz, eibartarra. Azkoitiko Kale Nagusian bizi ziren. Ume koskorretan jarri zioten `Txitxilito´ gaitzizena eta gehienek `Txitxi´ ezizenez ezagutzen dute oraindik ere. Floreaga ikastetxean ikasi zuen lehenbizi eta gero Gasteizko kolegiara joan zen 17 urtera arte. 18 urterekin "Epelde y Larrañaga" lantegian hasi zen lanean. Bulegoan lan egiten zuen, baina denetarik egitea tokatzen zitzaion. 40 urte zituela, lantegia itxi egin zuten eta beste lan batzuetan ibili behar izan zen. Emaztea Avilatik etorri zen Azkoitiko auzo-eskola bateko maistra lanera. 1982-1986 bitartean zinegotzia izan zen Azkoitiko Udalean.

Jose Mari Aranbarri Elduaian (1931-2020)



1931n jaio zen Urrategi auzoko Zukiazu ("Sukusu") baserrian. Madariaga auzoan ibili zen eskolan lehenbizi, eta Azkoitiko Floreagako salesiarretan gero. Elgoibarko "Anaiak" lantegian lan egin zuen hasieran, eta gerora "Gurelanen" txapa ebakitzen. 20 urterekin soldadutzara joan zen eta Altxoainen eta Huescan egon zen "ingeniero zarpador" karguan. Azkenengo 5 lan-urteak Zaldibarren egin zituen txofertzan.



Fernando Aranbarri Oiartzabal (1947)

Olotza baserrian jaioa.

Antonio Arenas Egibar Txalkor (1915-1995)

Azkoitiko udal txistulari bandako kide izan zen. 1935ean Azkoitiko Xoxote Elkarte sortu zenean batzordeko kide zen. 1985ean Juan Bautista Mendizabalek egin zion grabaketa batzordeko gainontzeko kideekin batera.

Itziar Arrieta Albizuri (1941)



Etkezuri baserrian jaioa. "Hike eizan!" Azkoitiko hitanoa bultzatzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, lehenbizi ahizparekin eta gero alabarekin eta bilobarekin batera.

Olatz Arrieta Albizuri (1943)



Etkezuri baserrian jaioa. "Hike eizan!" Azkoitiko hitanoa bultzatzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa [Itziar](#) ahizparekin eta beste senide batzuekin batera.

Manuel Arrizabalaga Zubizarreta *Sakristaua*

(1924-2009)

Azkoitiko Urrategi auzoko Irizarraundia ("Izer") baserrian jaio zen 1924an; gurasoak Martirieta auzoko Arrietaetxetxo ("Itxetxo") baserrian bizi izan ziren. Eskolan lehenbizi Urrategin ibili zen, eta gero kalean. Gaztetan morroi ibili zen Ipintza eta Landakanda baserrietan. Osaba sakristaua kalera jaitsi zenean, Martirieta auzoa sakristaurik gabe geratu zen; auzoan beste baserri batzuetako semeak lan horretarako hautagai baziren ere, Manuelentzat izan zen postua. Emaztegaiarekin Martirietara joan, ezkondu, eta bertan jarri ziren bizitzen. Ordutik sakristau lanetan aritu izan zen eta hortik datorkio "Sakristaua" gaitzizena. 5 seme-alaba izan zituzten.

Aurora Artetxe Larrañaga (1927-2024)

Azkoitian jaioa 1927an. Aita Itsasaga ("Etxesa") baserrikoa zuen eta ama Urrategi auzoko Azalgorretakoa. Ahizpa nagusiak bi urte eta berak zazpi hilabete zituztela, ama hil zitzairen. Ahizpa Azalgorreta baserrian hazi zuten eta bera Urrategin. Irizarretxetxo baserrian ibili zen eskolan, bertako alabarekin. Gero, pare bat urtez kalean jarraitu zuen, Genara maistrarekin. Urrategiko auzo-eskolako maistra lanean ere jardun zuen bolada batez. Urrategira bertara ezkondu zen eta bost seme-alaba izan zituen. Garai bateko hainbat kontu kontatu zizkigun, bere lehengusina [Pilar Larrañaga](#)rekin batera.



Jaione Azpiazu Larrañaga (1969)

Azkoitiarra. Ingeles irakaslea. Umetatik jaso du hika, eta hala egiten dute anai-arreben edo lagunen artean. Baita bikotearekin ere. Azkoitiko hika bultzatzeko "*Hike eizan!*" proiekturako egin zitzaion elkarrizketa [Araitz](#) alabarekin batera.



Jose Javier Azpitarte Usin *Imuntzo* (1920)



Bizkargi Dorrean jaio zen, zazpi anai-arrebatan nagusiena. Gurasoak Martirieta auzokoak zituen, aita Umansoro baserrikoa eta ama Agirreberrikoa. Miserikordiko eskolan ibili zen lehenbizi eta La Salleko fraideekin ondoren, denbora labur batez Eskola Nazionalean ibili eta gero. Alberdi lantegian lan egin zuen, abarketentzako materiala egiten. Lantegia erre egin zen eta lur-saila langileen esku utzi zuten. Orduan, egur-lanean hasi ziren, Danona lantegiaren languntzarekin. Izotz-lantegian ere lan egin zuen. Bere kabuz irratia konpontzen ere jarduten zuen, urrutiko ikasketak egin ostean. Baztartxo zinema egin zenean, bera izan zen lehena filmak botatzen. Hamahiru urte egin zituen lan horretan.

Kandido Beristain (1922-2000)

Azkoitiko musikari eta konpositore ezaguna. Azkoitiko Udal Musika Bandako kide izan zen 50 urte baino gehiagoan. Udal txistulari bandako kide ere izan zen. 1935ean Azkoitiko Xoxote Elkarte sortu zenean batzordeko kide zen. 1985ean Juan Bautista Mendizabalek egin zion grabaketa, batzordeko gainontzeko kideekin batera.



Rina Cabeza Calderón (2002)

Informatikako ikasketak egiten ari den neska transexuala. Bere esperientzia kontatu digu.

Jose Luis Cuende (1909-1996)

1935ean Azkoitiko Xoxote Elkarte sortu zenean bera izan zen elkarteko lehendakari. 1985ean Juan Bautista Mendizabalek egin zion grabaketa batzordeko gainontzeko kideekin batera.

Mari Consuelo Domenech Arrieta (1938)

Eper kalean (Aizkibel kalea) jaio zen 1938an. Aitaren aldeko amama, Eustakia `Erribera´, Bartzelonara joan zen neskame eta katalan batekin ezkondu zen; harengandik datorkie Domenech abizena. Aita han jaioa zen, nahiz eta gero Azkoitira joan ziren bizitzera. Ama, berriz, donostiarra zen. Bederatzi anai-arreba izan ziren. Amamak martxan jarritako negozioari eutsi zioten urte luzez eta denetarik saldu izan zuten herrian oso ezaguna zen dendan: gozokiak, egunkariak, fruta... Erroskilak, txurroak eta karameluak etxean egiten zituzten. Mendizaletasuna ere aitarengandik zetorkien eta anai-arreba guztiak asko joan izan ziren mendira ume-umetatik. Euren dendan jasotzen zuten Anaitasuna Mendi Bazkunako kide izateko kuota eta mendi-ibilaldi guztietan parte hartzen zuten. Mendi garaietako kanpamentuetara ere joaten ziren eta Europa osoan zehar ibiliak dira. 60ko hamarkadan bere kontura yoga ikasten hasi zen, Pueblo egunkarian aurkitutako azalpen batzuei jarraituta. Hasieran bere kontura eta gero irakasle baten laguntzaz, urte luzez jardun zuen yoga ikasten eta gero nahi zuen edonori klaseak ematera pasa zen. [Maria Angeles](#) eta [Maria Jesus](#) ahizpekin batera egin zitzaion elkarrizketa (Encarna eta Salvador anai-arrebak ere bertan zeuden).



Maria Angeles Domenech Arrieta (1940)

Eper kalean (Aizkibel kalea) jaio zen 1940an. Aitaren aldeko amama, Eustakia `Erribera´, Bartzelonara joan zen neskame eta katalan batekin ezkondu zen; harengandik datorkie Domenech abizena. Aita han jaioa zen, nahiz eta gero Azkoitira joan ziren bizitzera. Ama, berriz, donostiarra zen. Bederatzi anai-arreba izan ziren. Amamak martxan jarritako negozioari eutsi zioten urte luzez eta denetarik saldu izan zuten herrian oso ezaguna zen dendan: gozokiak, egunkariak, fruta... Erroskilak, txurroak eta karameluak etxean egiten zituzten. Mendizaletasuna ere aitarengandik zetorkien eta anai-arreba guztiak asko joan izan ziren mendira ume-umetatik. Euren dendan jasotzen zuten Anaitasuna Mendi Bazkunako kide izateko kuota eta mendi-ibilaldi guztietan parte hartzen zuten. Mendi garaietako kanpamentuetara ere joaten ziren eta Europa osoan zehar ibiliak dira. 19 urterekin, 1959an, Mendi Galdua igo zuen lehen emakume azkoitiarra izan zen. Leize-zuloetan sartzea eta pixka bat eskalatzea ere gustuko zuen. Eskiatzera ere asko joaten ziren. 1960an Donostiara joan zen bizitzera, osabarena zen Arrieta gestorian hasi baitzen lanean. Bolada batez Maria Diolores Agirrerengana ere joaten zen euskarazko eskolak jasotzera. Gaztetatik izan zuen argazkiak ateratzeko zaletasuna eta ahizpa gazteagoari pasa zion gero zaletasun hori. [Maria Jesus](#) eta [Mari Consuelo](#) ahizpekin batera egin zitzaion elkarrizketa (Encarna eta Salvador anai-arrebak ere bertan zeuden).



Maria Jesus Domenech Arrieta (1937)

Eper kalean (Aizkibel kalea) jaio zen 1937an. Aitaren aldeko amama, Eustakia `Erribera´, Bartzelonara joan zen neskame eta katalan batekin ezkondu zen; harengandik datorkie Domenech abizena. Aita han jaioa zen, baina, aitona gaixotzean, Azkoitira joan ziren bizitzera. Ama donostiarra zen. Bederatzi anai-arreba izan ziren. Amamak martxan jarritako negozioari eutsi zioten urte luzez eta denetarik saldu izan zuten herrian oso ezaguna zen dendan: gozokiak, egunkariak, fruta... Erroskilak, txurroak eta karameluak etxean egiten zituzten. Mendizaletasuna ere aitarengandik zetorkien eta anai-arreba guztiak asko joan izan ziren mendira ume-umetatik. Euren dendan jasotzen zuten Anaitasuna Mendi Bazkunako kide izateko kuota eta mendi-ibilaldi guztietan parte hartzen zuten. Mendi garaietako kanpamentuetara ere joaten ziren eta Europa osoan zehar ibiliak dira. 1961ean Azkoitiko Udalean hasi zen lanean administrari gisa eta bertan lan egin zuen 1997an erretiroa hartu arte. Demokrazia garaiaren hasieran, idazkaririk ez zegoenez, berak bete zuen hutsune hori denbora batez. [Maria Angeles](#) eta [Mari Consuelo](#) ahizpekin batera egin zitzaion elkarrizketa (Encarna eta Salvador anai-arrebak ere bertan zeuden).



Xabier Eizagirre Landa (1957)



Santa Kurutz bailarako Jauregi baserrian jaioa. Zazpi anai-arrebatan bosgarrena. Gurasoak ere biak Izarraitzpekoak zituen, Azpeiti aldekoak. Misericordiako mojen eskolan hasi zen 6-7 urterekin eta gogoan du Trino Uriaren eskola partikularretan ere ibili zela. Gero eskola nazionaletan ibili zen, lehenbizi plazan eta gero Floreaga ikastetxe ondoan. Eskola profesionalean 16 urtera arte ibili ostean, Arrasaten egin zituen beste bi urte "maestría industrial" egiten. Bukatu zuenerako, euskararen inguruko kontzientzia piztua zuen eta euskalduntze-alfabetatzean murgildu zen. Gasteizen AEKn urtebete egin eta handik laster IRALEn hasi zen lanean. Bertan lan egin zuen, erretiroa hartu arte. Azken urteetan hitanoaren inguruko ikastaroak eman izan ditu, bai IRALEn eta baita handik kanpo ere. Azkoitiko hitanoaren inguruko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa.

Itziar Elias Uria (1980)



Azkoitin jaioa, aita bertakoa du eta ama Loiolakoa. Aktorea da, eta baita ZuOndoan proiektuaren sortzaileetako bat ere: harrera-familiak ezagutarazteko egitasmoa. Familia-ereduei buruz hitz egin dugu berarekin, eta baita bere aktore ibilbideaz ere.

Ainara Elortza Izagirre (1979)



Azkoitiarra. Gurasoak ere azkoitiarrak ditu. Arte Ederrak ikasi zuen lehenbizi eta geroago Haur Hezkuntza. Gradu Bukaerako Lana hitanoaren inguruan egin zuen eta, hain zuzen ere, Azkoitiko hikaren inguruko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa.

Rafael Elorza (1911-2002)

Juan Jose Errasti Juaristi (1922-2014)



Azkoitiko Izarraitz auzoko Iparragirre ("Epelarre") baserrian jaio zen 1922an. Ama Atanokoa zuen eta aita Iparragirren bertan jaioa, nahiz eta gurasoak Ureta baserritik etorriak izan. Umetan Agirrebasarte ("Agarre") baserrian ibili zen eskolan eta 14 urterekin Apalsagasti baserrian egon zen morroi. Soldadutza Donostian eta Orion egin zuen hiru urtez.

Txomin Esnaola Juaristi (1937)



Santa Klaran jaioa. Bertan bizi izan zen bost urte ingurura arte eta gero San Martin auzora joan ziren bizitzera. Hiru anai eta arreba ziren. Ezkondu arte San Martinen bizi izan zen eta gero Gasteizera joan zen bizitzera. Ezkondu baino urtebete lehenago, 24 urterekin, Gasteizera joan zen lantegi bat martxan jartzera. Sei hilabete pasako zituztelakoan joan zen, baina azkenean bertan geratu. 1961ean ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituen.

Felisa Etxabe Egibar (1918-2021)



Felisa eta Flora ahizpa bizkiak errege egunean jaio ziren. Flora oso txikia jaio zen, eta hura aurrera ateratzeko arazoak zituztenez, Felisa herriko beste familia batek hazi zuen hilabete batzuetan. Gerora, ostera, beti elkarrekin egoten ziren ahizpa biak eta berdin jantzita, gainera: eskolan, zineman, mendian... Gerra etorri bitarte. Gerra etorri zenean, gudariantzat arropa jostera joateko deia egin zuten, eta Felisa joan zen. Nazionalak herrira sartzera zihoazenean, mendekua hartuko zuten beldurrez, herritik ihes egin behar izan zuen. Markinara joan zen, gero Gernikara (bonbardaketak bertan harrapatu zuen), handik Muskizera eta ondoren Bilbora. Azkoitira bueltatu zenean, etxetik irten ezinda egon zen aldi batez. Donostiara joan zen neskame, eta baita Madrilera ere. Azkoitiar batekin ezkondu zen, eta Elgoibarrera joan ziren bizitzera. Elkarrizketatu genuenean 100 urte zituen, eta burua oso argi zeukan artean.

Brigida Etxaniz Aldalur (1914-2006)

Astarbe ("Kukuerra") auzoko Astarbeazpikoa baserrian jaio zen 1914an, baina Martirieta auzoko Agirrezar ("Agarre") baserrian bizi izan zen. 1990ean egin zitzaion elkarrizketa belaunaldien arteko konparaketa bat egiteko eta elkarrizketan bere alaba Inmaculada Azpitarte (1941) eta iloba Begoña Osinalde (1964) ere agertzen dira.

Araitx Etxaniz Azpiazu (2004)



Azkoitiarra. Trikitilaria. Hika etxean asko entzun arren, ez du erabiltzeko ohiturarik izan eta egoera hori aldatzeko asmoz erabaki zuen Azkoitiko hika bultzatzeko "Hike eizan!" proiektuan parte hartzea. [Jaione](#) amarekin batera egin zitzaion elkarrizketa, hikaren inguruko kontuak jasotzeko.

Begoña Gabilondo Etxaniz (1921-2017)



Azkoitin jaioa, plazan. Gurasoak Martirietakoak zituen. Bost senide ziren. Eskola publikoetan ibili zen. Aita batzokiko arduradunetako bat zen, eta gerra hasi zenean, ihesi joan zen. Nazionalak sartu zirenean, ama-alabak herritik bota zituzten, beste hainbat familiarekin batera. Maltzagako frontera eraman zituzten, eta hantxe utzi. Bilbon egon ziren bolada batean. Frantziara joan ziren, Pilton itsasontzi ingelesean. Azkoitira bueltatu zirenean, hasiera gogorra izan zen. Josteko tailerra jarri zuen etxean. Joxe Azkue azpeitiarrarekin ezkondu zen, eta sei seme-alaba izan zituzten.

Juan Mari Garate Unanue (1923-1990)

1935ean Azkoitiko Xoxote Elkarte sortu zenean batzordeko kide zen. 1985ean Juan Bautista Mendizabalek egin zion grabaketa batzordeko gainontzeko kideekin batera.

Jacinta Garmendia Artetxe (1914-2010)



1914an jaio zen Madariaga auzoko Apaizetxean. Aita Bentazarrekoa eta ama Mekoletakoa zituen, biak azkoitiarrak. 12 senide ziren eta Madariaga auzoko abade-etxean bizi ziren, aita bertako auzo-eskolako irakaslea zelako. 11 urte zituela gaixotasun batekin ama hil eta Madrilera eraman zuten urtebeterako. 12 urterekin Getariara joan zen neskame 3 hilabeterako. 15 urterekin hasi eta 12 urtez Hurtado de Mendozako txapel lantegian aritu zen lanean. Ezkondu eta bi seme-alaba izan zituen. Senarra ere azkoitiarra zuen.

Mila Gorostegi Alberdi Mari fruteriñekue (1936)



Azkoitiko Kale Nagusian jaio zen 1936an. Aita lasartearra zuen eta ama Azkoitikoa bertakoa. Eskola nazionaletan ibili zen. Amak janari denda zuen Azkoitiko berdura plazan eta Mila 12 urterekin hasi zen bertan amari laguntzen. Amak Maria zuen izena eta "Mari fruterie" deitzen zioten; hortik bere ezizena ere "Mari fruteriñekue". Bakailao lehorra eta beratua saltzen zituzten eta horixe zen beraien berezitasun handienetako bat. 1970. urtean Urkixo kalean beste denda bat ireki zuten. Orduetik aurrera ama han egoten zen eta berak senarrarekin berdura plazan jarraitu zuen lanean.

Edurne Ibarmia Joaristi (1935)

Baserrian jaiotakoa.

Julian Iruretagoiena Olalde (1924-2014)



Juintorre ondoan jaio zen 1924an. Gurasoak kaletarrak zituen eta 6 anai-arreba ziren. Eskolan, lehenbizi Mixerikordian ibili zen mojekin eta geroago fraideekin ere ibili zen. 14 urterekin eskola utzi eta Arrizabalaga lantegian hasi zen abarketagintzan. 18 urterekin "Epelde y Larrañaga" lantegira joan zen. Soldadutza Burgosen egin zuen 20 urtetik 23 urtera bitartean. Azkoitian ezkondu zen eta 5 seme-alaben aita da.

Ixabel Jauregi Alberdi (1956)



Aita Larrabetzukoa zuen eta ama azkoitiarra. Ama gazterik alargundu zen eta bakarrik atera behar izan zituen aurrera hiru seme-alabak. Alondegi gaineko eskola nazionalean ibili zen umetan, eta gerora mojetan. Magisteritza ikasketak egin zituen Donostian eta, euskal kontzientzia piztuta, euskaraz alfabetatzeari ekin zion. 1983an bertsolaritzaren inguruko ikastaro bat egin zuen Juanito Dorronsororekin eta ordutik bertsolaritzaren munduan murgildu zen. 1987an bertso-eskola ipini zuen martxan Azkoitian. 2000. urtean Erriarraitz Bertsozale Elkarte sortu zuten. Magisteritza ikasketak bukatu zituenerik erretiroa hartu arte irakasle lanean ibili zen Azpeitian eta Azkoitian eta bere irakasle ibilbidean bertsolaritza erabili izan du sarri, euskara lantzeko tresna gisa. Umetatik jaso zuen hika etxean eta hala egin izan du beti etxeokoen eta lagunekin. Senarrarekin eta seme-alabekin ere hika egiten du. Azkoitiko hitanoa bultzatzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa.

Luxiano Juaristi Alberdi Atanillo (1932)



Azkoitian jaio zen 1932an. Gurasoak kaletarrak zituen eta bera ere beti kalean bizi izan da. 7 urterekin osasun-arazoak izan zituen biriketan eta ez zen eskolara joaten. Azkoitian bertan hasi zen lanean abarketak egiten. Gero Soraluzen ibili zen kanoi-fabrika batean, baita Azkoitiko "Epelde y Larrañaga" lantegian ere. Atanotarren familiakoa izanik, txikitatik ezagutu izan du pilotaren mundua eta "Atano X" edo "Atanillo" bezala ezagun egin zen. Pilotako bere garai onenetan Garzia Ariño, Barberito, Soroa eta Retegirekin ibili zen, besteak beste. 42 urterekin utzi zuen pilota. Azkoitian ezkondu zen eta 3 seme-alaben aita da.

Juana Kruzelegi Arozena (1916-2014)



1916an jaio zen Elgoibarko Juaristiaundi baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Aranbeltzekoa, Elgoibarkoa hura ere. Bost anai-arrebaren artean bigarrena da Juana. Baserritik bizi izan ziren bost urterekin aita hil eta kalera, amonaren etxera, bizitzera joan ziren arte. Gerora ama Azkoitiko Madariaga auzoko Kataolatza baserriko mutilarekin hasi zen, eta bertara joan ziren bizitzera. Eskolan Elgoibarren eta Donostiako "Las Josefinasen" ibili zen. Neskame lanetan ibilia da Elgoibarren eta Azkoitian. Azkoitiko Konfiteroneko mutilarekin hasi eta berekin ezkondu zen Azpeitian. Hiru seme-alabaren ama da.

Argi Larrañaga Aldazabal (1933)



Azkoitiko San Martin auzoan jaio zen 1933an. Ama Elgoibarkoa eta aita azkoitiarra zituen eta 10 anai-arrebatan zaharrena da. Misericordian ibili zen eskolan karitateko mojekin eta arratsaldetan josten ikastera joaten zen. 12 urterekin garbitzaile lanetan ibili zen eta eskolara joateko asti handirik ez zuen izaten. 16 urterekin Azpeitian ibili zen josten ikasten. Azkoitian janari-denda bat eduki zuten Baztarrikaldean (Aingeru kalean), "Txantonekoa" ezizena zuena eta umetatik hantxe aritu zen lanean. Azokan fruta eta bestelako gaiak saltzen egon ohi ziren etxeakoak eta bera. 22 urterekin ezkondu zen Azkoitiko Urrategi auzoan.

Pilar Larrañaga Aranbarri (1931-2022)



Urrategi auzoko Azalgorreta baserrian jaioa. Aita Azalgorretakoa bertakoa zuen eta ama Koroategi ("Koatei") baserrikoa. Zazpi anai-arrebatan nagusiena. Urrategiko auzo-eskolan ibili zen lehenbizi eta gero kalean jarraitu zuen, Genara maistrarekin. Azalgorreta baserrian egin du bizimodua. Garai bateko hainbat kontu kontatu zizkigun bere lehengusina [Aurora Artetxe](#)rekin batera.

Ramon Larrañaga Aranbarri Azalkorta (1945-2021)



1945ean jaio zen Azkoitiko Urrategi auzoko Azalgorreta baserrian eta bertan egin du bizimodua. Aita Azalgorretakoa bertakoa zuen eta ama Koroategi ("Koatei") baserrikoa. 6 urterekin hasi eta 10 urtera bitartean Urrategiko eskolan ibili zen. Danobat kooperatiban eta Bergaran "manualetan" ibili zen lanean. Txikitatik egon zen artzaintzako munduari oso lotuta. Artzain-txakur txapelketetan ibili izan zen eta sei aldiz txapela irabazi zuen, gainera.



Yolanda Larrañaga Arrieta (1968)

Azkoitiarra, euskaltzalea. "Hike eizan!" Azkoitiko hitanoa bultzatzeko proiekturako egin zitzaion elkarriketa ama, izeba eta alabarekin batera.

Jose Larrañaga Azcarateaskasua *Katamarrue* (1910-1985)

1935ean Azkoitiko Xoxote Elkartearen sortu zenean batzordeko kide zen. "Katamarrue" ezizenez ezaguna. 1985ean Juan Bautista Mendizabalek egin zion grabaketa batzordeko gainontzeko kideekin batera.

Serapio Larrañaga Azpiazu (1907)

Serenoa. 1935ean Azkoitiko Xoxote Elkartearen sortu zenean batzordeko kide zen. 1985ean Juan Bautista Mendizabalek egin zion grabaketa batzordeko gainontzeko kideekin batera.

Kontxa Larrañaga Ezeiza (1929-2011)



Azkoitiko Astarbe ("Kukuerrri") auzoko Arrietastarbe ("Arritte") baserrian jaio zen 1929an; aita bertakoa zen, eta ama Bidanikoa. 8 anai-arrebako sendia zuen. Eskolan Martirieta auzoan ibili zen 12 urtera arte, eta geroago Kukuerrriko gau-eskolan, Astarbeazpikoa baserrian. Josten ikasten aritu zen Azkoitian. Baserritik bizi izan da beti.

Antonia Larrañaga Gabilondo (1914-2012)



1914an jaio zen Elgoibarren eta bertan bizi izan zen 9 urtera arte. Gurasoak ere elgoibartarrak zituen. 7 urterekin hasi zen Elgoibarrera eskolara joaten eta jaunartzea egin arte bertan ibili zen. Elgoibarren egin zuen jaunartzea eta handik berehala Elgoibarko etxea saldu eta Astarbe ("Kukuerrri") auzoko Letetxo baserrira joan ziren bizitzera. Han bizi zela, Loiolara joaten zen ikastera eta ama-alaba batzuk izan zituen irakasle. Lanean Donostian aritu zen "Duque de Mar" izeneko txaletean, konde baten etxean. Mendizabal baserriko semearekin ezkondu zen Azkoitian eta bertan bizi izan zen ordutik.

Matxo Larrañaga Iturbe *Txanton* (1919-2022)

Santikua etxean jaio zen Maria Gloria edo Matxo Larrañaga 1919an, zazpi anai-arrebatan gazteena. Baztarrikaldean bizi izan ziren denbora batez, baina, berak 8 urte inguru zituela, eraiki berriak ziren San Martingo etxeetara joan ziren bizitzera. Ez du aitaren oroitzapen handirik; amak bakarrik atera behar izan zituen aurrera zazpi seme-alabak.



Miserikordian ibili zen eskolan, baina ume bihurria omen zen eta batzuetan piper eginda jolasean ibiltzen zen kalean. 14 urterekin Intsausti lantegian hasi zen lanean, haria egiten. Handik irtendakoan, abarkak josten aritzen zen. 29 urte ingururekin Madrilera joan zen, han bizi ziren osaba-izebei laguntzera, haiek ez zutelako seme-alabarik. Hogeta hamaika urte Madrilen egin eta gero Azkoitira itzuli zen. 101 urte betetzeko bidean egon arren, garai bateko Azkoitiko hainbat kontu oso zehatz kontatu zizkigun egindako elkarrizketan.

Manolo Larrañaga Juaristi (1927-2023)

San Martin kalean jaio zen, zortzi anai-arrebatan seigarrena. Urtea egin aurretik San Martin auzora joan ziren bizitzera. Gurasoak ere azkoitiarrak zituen. Aitarengandik jaso zuen musikarako zaletasuna. 6-7 urterekin elizako koruan hasi zen eta solfeoa ere ikasten zuen bertan. Handik gutxira Azkoitiko Udal Musika Bandan hasi zen, lehenbizi "rekintoa"rekin eta gerora saxofoiarekin eta klarinetearekin. 1979an Iraurgi abesbatza sortu zuten eta bera izan zen lehenengo zuzendaria. Azkoitiko ikastolaren sorreran ere parte hartu zuen. Pilotari profesionala izan zen.



Jesus Larrañaga Larrañaga *Txikito VI* (1935)

Azkoitiko San Martin auzoan jaio zen 1935ean. Gurasoak bertakoak zituen eta 11 senide ziren familian. Aitita pilota egilea zuen eta aitak (Txikito III) ere harengandik jaso zuen langintza horren jarraipena. Etxean denek ikasi zuten pilotak eta alpargatak egiten, nahiz eta ez zuten lan horretan jarraitu. Aitak tailer txiki bat zuen etxean eta materiala Brasildik ekarri eta haiek landuz egiten zituen pilotak. Pilotari ezagunei eta enpresei egiten zizkien pilotak. Jesus kontzejupean hasi zen pilotan jolasten eta pixkanaka lehenengo mailara iritsi zen aitona bezala.



Leire Larrañaga Sudupe (1981)



Azkoitiarra. Gurasoak ere azkoitiarrak ditu: aita kaletarra, Erromaldo familiakoa, eta ama Zuatzu baserrikoa. Artxamendiko haur-eskolan ibili zen lehenbizi eta gerora Xabier Munibe ikastolan. Bertako irakasle da gaur egun. Nerabezaroan hika erabiltzen hasia erabaki zuen kontzienteki eta, hain zuzen ere, Azkoitiko hika bultzatzeko proiekturako egin diogu elkarrizketa.

Elias Lete Larrañaga Elusukorta (1940)



Azkoitiko Elosuko Korta baserrian jaio zen 1940an. Aita Kortakoa bertakoa eta ama auzo bereko Itsasagakorta ("Etxesakorta") baserrikoa zituen. Umetatik lan egin beharra izan du baserrian; ganadua izan dute beti etxean. 6 urterekin hasita, Elosura joaten zen eskolara. Geroago Zumarragara ere joaten zen eskolaz kanpoko ikasketa-laguntza jasotzera. 18 urterekin Urretxuko "Talleres Urretxu" lantegian hasi zen lanean. 23 urterekin 16 bazkideren artean zabaldu zuten kooperatiba Elosu auzoan eta bertako kargua eduki zuen 28 urtez. 30 urte zituela Kukuerra auzoko Larrume baserriko alabarekin ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituzten. Semea soldadu joan zenean, Elosuko kooperatiba utzi eta baserrira bueltatu zen. Horren ostean, kooperatiba berria sortu zuen Azkoitian.

Irati Lizarralde Alberdi (2004)



Azkoitiarra. Aita ere azkoitiarra du eta ama, berriz, azpeitiarra. Hiru anai-arrebatan gazteena. Azkoitiko hitanoa bultzatzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Leire](#) ahizparekin batera.

Leire Lizarralde Alberdi (1999)



Azkoitiarra. Aita ere azkoitiarra du eta ama, berriz, azpeitiarra. Hiru anai-arrebatan erdikoia. Pedagogia ikasketak egin ditu Donostian. Azkoitiko hitanoa bultzatzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa, [Irati](#) ahizparekin batera.

Jesus Mendizabal Larrañaga "Euzkitza" (1927)



1927an jaio zen Azkoitiko Urrategi auzoko Eguzkitza baserrian. Ama Goenakoa eta aita Eguzkitza baserrikoa zituen eta 10 anai-arrebatan laugarrena da bera. Baserriko bizimodua gertutik ezagutu izan du beti. Eskolara beti joaten ez bazen ere, Urrategiko Irizarretxetxora jotzen zen hasieran eta 15 urterekin, berriz, Azkoitian ibili zen gau- eskolan. Gaztetatik morroi lanetan hasi zen, Elosuko Torre baserrian eta Urrategiko Urrategi baserrian, esaterako. Soldadutza Lesakan egin zuen 1949an eta handik bueltan Legazpiko Patrizio Etxeberriaren lantegian hasi zen lanean; laminazioan eta pleges-ean aritu zen. Legazpin apopilo egon zen kaleko etxe batean lehenbizi eta, ondoren, San Migel baserrian. Ezkondu ondoren Urretxura joan zen bizitzera eta bertako kontuak kontaktzen dizkigu elkarrizketan.

Maria Paula Mengual Larrar (1929-2016)



Azkoitiko San Martin kalean jaio zen 1929an. Eskola nazionalean ibili zen lehenbizi eta miseriakordia mojekin ondoren. 13 urterekin Donostiara joan zen "Perito Mercantil" ikasketak egitera eta han atera zuen titulua. Donostiatik etxera bueltatu zenean klase partikularrak ematen aritu zen etxean bertan, San Martinen. Bere azkenengo lan urteak Azkoitiko Eskola Profesionalean egin zituen maistra lanetan. 20 urtez aritu zen bertan lanean eta horietatik 4 zuzendari gisa egin zituen.

Asier Odrizola Elorza (1999)



Azkoitiarra. Gurasoak ere azkoitiarrak ditu. "Hike eizan!" Azkoitiko hitanoa bultzatzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa [Julen Aldalur](#) lagunarekin batera (argazkian, eskuinekoa).

Pablito Olalde Etxabe (1922-2008)



1922an jaio zen Azkoitiko Kale Nagusian. Gurasoak ere kaletarrak zituen eta 5 anai-arreba ziren. Eskolan Mixerikordian mojetan eta kontseju eskolan fraideetan ibili zen, besteak beste. 14 urterekin, gerra hasi zenean, Eibarren hasi zen lanean. Ondorengo urteetan lan ugari egin zuen hainbat lantegitan. Anaitasuna futbol-taldeko tresnazaina izan zen urte askoan. Ehorzle lanetan ere aritu zen 16 urtez.

Manuel Oruesagasti Gurrutxaga (1946)



Elosu auzoko Bega baserrian jaioa, auzoko hainbat kontu kontatu zizkigun. Santutxoko erronomia eta txondorgintza izan zituen hizpide nagusiak. Elosuko auzo-alkate izandakoa. [Patxi Larrañaga](#) ere elkarrizketatu genuen ikazkintzaren ingurukoak jakiteko; izan ere, Elosun txondorra egiten ari ziren, urte askoren ondoren.

Jose Osinalde Arrizabalaga (1923-2015)



1923an jaio zen Martirieta auzoko Irisarri baserrian eta bertan bizi izan da beti. Ama Irisarrikoa bertakoa zuen eta aita auzo bereko Urteaga ("Urtia") baserrikoa. 14 urtera arte Martirieta eskolan ibili zen eta 16 urte zituela Burgosera joan zen bi urtez gaztelania ikastera. 21 urte zituela soldadutzara joan zen Bilbora, Berangora. Gero Aizpurutxo auzoko Igaran baserriko alabarekin ezkondu zen. Baserritik bizi izan da beti. Etxean ganadua eta ardiak izan ditu beti eta ardi-txakur txapelketetan ere parte hartu izan du. Txapel ugari irabazi izan ditu. Elkarrizketan [Ramon Larrañaga](#) (hura ere artzaina) azaltzen da berarekin batera.

Jon Osinalde Garitaonandia (1961)



Martirieta auzoko Arrietaetxetxo baserrikoa. Zuhazti motzen inguruko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Manuela Oteiza Azpitarte (1938)



1938an jaio zen Azkoitiko Olaso auzoko Kalparsoro ("Kalpartzo") baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama Martirieta auzoko Agirrezar ("Agarre zahar") baserrikoa. 8 anai-arrebatan bigarrena da. Olasoko eskolara joan zen, baina anai-arreben artean zaharrena izanik, umezain egon behar izaten zuen. Azkoitian ezkondu eta Beata ("Bieta") baserrian (Olaso auzoan bertan) jarri zen bizitzen.

Maria Asuncion Plazaola Baztarrika (1917-2014)



Iruñean jaio eta 6 urterekin etorri zen Azkoitira bizitzera. Aita Urretxuko Beain baserrikoa zuen eta ama, berriz, Elosu auzoko Androndegi baserrikoa. 6 anai-arreba zituen. Eskolan Miserikordian mojetan eta plazan ibili zen 13 urtera arte. 15 urterekin Azkoitiko "Epelde y Larrañaga" lantegian hasi zen lanean, zakuak egiteko mazurka betetzen. Azkoitiko jostun batekin ezkondu eta seme bat izan zuen.

Julen Sagarzazu Irureta *Julen txiki* (1920-2011)



Azkoitian jaio zen 1920an. Gurasoak kaletarrak zituen. 3 anai-arrebatan zaharrena da bera. Floreagako salesiarretan ikasi zuen Azkoitian. 14 urterekin eskola utzi eta lanean hasi zen abarkak josten. Azkoitiko dantza-taldeko partaide izan zen; gerora dantzako irakasle ibili zen, baita epaile lanetan ere. Azkoitiko "Izarraitz" futbol-taldean ere ibili zen; gero 21 urterekin Errealak fitxatu eta Donostiara joan zen "interior" postuan jokatzera. Tolosan ere jokatu zuen eta Azkoitiko entrenatzaile izan zen urte batzuetan. Azkoitian ezkondu zen 33 urterekin.

Justino Sasieta Irulegi (1929)



Errebalean jaio zen, dukearen jabetzakoa zen etxe txiki batean. Aita azkoitiarra zuen eta ama, berriz, errezildarra. Bost anai-arreba izan ziren. Miserikordian ibili zen lehenbizi eskolan eta gero Floreagan. 11 urterekin Guadalajarara joan zen ikastera eta hiru urte pasa zituen han. Alberdi anaien Bizkargi lantegian lan egin zuen. Zakuak eta abarketentzako materiala egiten zituzten. Alberdik txapel fabrika erosi zuenean, hara joan zen lanera Justino. Alberdi lantegia erre zenean, lur-saila langileen esku utzi zuten. Orduan, egur-lanean hasi ziren, Danona lantegiaren languntzarekin. Lantegia istean, Arrasatera bidali zuten Justino, Fagor lantegira, eta han egin zituen laneko azken urteak.

Maria Luisa Segurola Otxoa (1933)

Baserrian jaioa. Eskolako kontuak ondo gogoratzen ditu, eta baserriko lanak ere ederki ezagutzen ditu. Azkoitiko euskara aztertzeke egin zitzaion elkarrizketa.

Karmen Uranga Etxeberria (1926)



Madariaga auzoko Arozpide baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa; ama, berriz, Elgoibar parteko Azkaratekoa zen. Bederatzi anai-arreba izan ziren. Etxetik ordubetera zuen Madariagako eskolan ibili zen, baina ez omen zuten askorik ikasten. Madariagazpi baserrira ezkondu zen.

Salome Uria Narbaiza (1945)



1945an jaio zen Azkoitiko Urrategi auzoko Ubegietatxo (Uitetxo) baserrian. Aita Ubegietatxokoa bertakoa zuen eta ama auzo bereko Zabaleta baserrikoa. Eskolan Urrategin bertan eta Azpeitiko jesuitetan ibili zen. Ezkonberritan Nafarroara joan ziren bizitzera, klimagatik, eta 3 urte igaro zituzten bertan. Baserriko lanetan aritu izan da beti eta Urretxuko azokara ere joan izan da fruta saltzera. Senarra Azkoitiko Aizpurutxo auzokoa du eta bi seme-aren ama da.

Juana Uria Sudupe (1923-2009)

Azkoitian jaioa, baserrian. Ondo gogoratzen ditu aspaldiko kontuak. Elkarrizketan bere senarra ere azaltzen da (Rafael Elorza, 1911).

Manuela Zabala Zabala (1914-2008)



1914an jaio zen Azkoitiko Gaintza baserrian. Aita Elgoibarko Aiztiaundikoa eta ama Gaintza baserrikoa bertakoa zituen. Eskolan mojetan ibili zen Azkoitiko mixerikordian, zazpi urterekin hasi eta 12 urtera bitartean. Baserrian bizi izan da beti eta bertako lanetan aritu izan da. 26 urterekin ezkondu zen Azkoitiko Santa Krutz bailarako gizonarekin eta alaba bat izan zuten.



Jone Zabaleta Larrañaga (1998)

Azkoitiarra. "Hike eizan!" Azkoitiko hitanoa bultzatzeko proiekturako egin zitzaion elkarrizketa amarekin, [amama](#)rekin eta haren ahizparekin batera.

Candida Zubizarreta Azkoitia (1936)



Azkoitiko Martirieta auzoko Isueta ("Isute") baserrian jaio zen 1936an. Aita bertakoa zuen eta ama auzo bereko Urteaga ("Urtia") baserrikoa. 8 anai-arreba ziren sendian. Martirietako eskolan ibili zen 6 urtetik zazpira bitartean, baina behi-esnea saltzera kalera jaitsi behar izaten zuenez, Azkoitiko Miserikordian hasi zen gero. Eskola utzi eta josten ikasten ibili zen Ana Mari Atano eta "Kabuenekoa"rekin. Elgoibarko bi tabernatan, Plentziako hotel batean eta Azpeitiko Kiruri jatetxean aritu zen zerbitzari lanetan. Ezkondu ondoren Azkoitiko Uriaenea etxean jarri zen bizitzen eta bi seme izan zituen.

Ramon Zubizarreta Larrañaga Landakanda

(1932-2021)



Azkoitiko Landakaranda kale-baserrian jaio zen 1932an. Ama Elosuko Aroztondo baserrikoa eta aita Martirietako Zendoiakoa zituen. 10 senidetan gazteena da bera. Sei urterekin Azkoitiko Mixerikordian hasi zen eskolan, mojetan. Geroago, Floreagako salesiarretan ibili zen. 12 urtetik 18ra bitartean okin lanetan aritu zen etxean eta gerora tornu lantegian hiru urtez. Handik oilasko-granjara joan zen lan egitera. Anaitasuna futbol-taldean jokatu zuen, erregionaletan, atzelari modura. Gaztetatik panderoa jotzen ibili izan da Pikua, Maltzeta eta Laja soinu-jotzaileekin, besteak beste. Lau disko grabatu ditu Laja soinu-jotzailearekin eta Euskal Herriko txapelketan bi txapel irabazi zituzten. 26 urterekin Elosu auzoko Itsasagakorta ("Etxesakorta") baserriko alabarekin ezkondu zen eta bi alaba izan zituzten.

Luis Mari Zubizarreta Mendiola (1949)



Martirieta auzoko Otsalarre baserrian jaio zen 1949an. Ama Belauntzakoa zuen eta aita Martirietako Zendoia baserrikoa. 10 senide ziren. Eskolan Martirietako Monte baserrian ibili zen lehenbizi eta gau-eskoletan ere ibili zen gerora. Baserriko bizimodutik bizi izan da beti, lantegian ere lan egin izan badu ere. Muno lantegian ibili zen Azkoitian. 1971n Ferrolera joan zen soldadutza egitera, Marinara. Elkano itsasontzian munduari bira eman zioten. Lana dela eta, Txina eta Alemania aldean ere ibilia da makina berriak egiteko.

Zeledonio Zubizarreta Mendiola (1946)



Martirieta auzoko Otsalarre baserrian jaio zen. Ama Belauntzakoa zuen eta aita Martirietako Zendoia baserrikoa. 10 senide ziren. Eskolan Martirietako Monte baserrian ibili zen. Baserritik bizi izan da, kanpoan lan egin izan badu ere.

Javier Zubizarreta Zubizarreta (1955)



Azkoitiko Bizkargi etxean jaio zen, hiru senidetan erdikoa. Gurasoak ere azkoitiarrak zituen. Azkoitiko hika bultzatzeko proiektuaren barruan egin zitzaion elkarrizketa, besteak beste, emaztearekin hika egiteko ohitura duelako, garai batean hori gaizki ikusita zegoen arren. Azkoitiko alkatea da 2015etik. Aurretik Anaitasuna Kirol Elkateko idazkari, diruzain eta lehendakari ere izan zen eta parrokiako koruko partaidea ere bada.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ekonomia eta industria

1.1. Gerra denboran, abarketa "erreportzaketan"

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Iriarte, Arantza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Kerejeta, Arantza
- **Erref**: AZK-002/001
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- **Laburpena**: Gaztetan, Miserikordian ibili zen eskolan; baina, gerra iritsi zenean, eskola utzi behar izan zuen. Aita kanpoan zenez, amari laguntzen hasi zen abarketak josten "erreportzaketan". Geroago, Manzisidorrenean hasi zen lanean, baina abarketagintzari ez zion utzi. Ezkondu ostean, koinatarekin papereztatze lanetan aritu zen.

Transkripzioa

- Kontauko al zenidake zure bizitza nola jun dan?
- Bueno, esango dizut. Bueno, gaztetan, bueno, neska koskorra nitzela, mixerikordixe esaten giñon guk ordun, eskolia. Baiño gero gerria etorri zan ta gerran alde in ber izen gendun gazteik, 12 urte eo eukiko nittun, (...) alde in gendun eskolatik. Gero amakin-ta hasi nitzen abarketak josten, abarketa... erreportzaketan. Hala esaten [zixoen] gure zaharrak.
- Zertan?
- Erreportzaketan. Abarketa josten erreportzaketan. Hamen hola esaten zikon: erreportzaketan. Eta gero, ba, klaro, gerrie, ta falta zin aitte ta danak, ta hartu nittuen lanin Manzisidorrenin. Baiña hara juteako, goizeko xeiretan jaiki ta dozenia erreportzatzen gendun amak eta bixok. Ta handik gero ezkondu nitzen, baiña segiu nixon lanin pixketen. Eta gero anaixe ezkondu ziten ta ordun koñetakin hasi nitzen enpapelaketan ta urte asko hola pasa nittun enpapelatzen. Eta gero urtik etorri zizten, erretirau nitzen ta... holaixe.

1.2. Lantegian emakumeek soldata bajuagoa

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Iriarte, Arantza
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Kerejeta, Arantza
- **Erref**: AZK-002/003
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:02:15. **Bukatu**: 00:03:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

- **Laburpena:** Manzidorreneko lantegiko giroa ona zen eta nagusiekin ere ez zen kexatzen. Hala ere, emakumeek gizonen aldean gutxi kobratzen zuten lan berdina eginda. Euren lana zapatak akabatzea eta abarketei zintak sartzea izaten zen.

Transkripzioa

- Eta lantegiko giroa nolakoa zen?
- Bueno, ona. Lagun onak izen nittun ta ondo, ondo. Manzidorreneko nausixek neretzako txarrak ez zin izen. Osea, lan in ta... Ez hola... diktadura hori ez nun izen. Baiño ein in ber izeten zan; gutxi irabazi ta ein in ber. Pixket gehixo etatzen bazendun, lotsau ez al giñen eitten esaten ziun, gizonan jornalak (...). Destajun ipintzen bagiñuzen, pixket gehixo etatzen gendun, ta esaten ziun aber ez al giñen lotsatzen gizonak bezela jornala etatzen.
- Jornalak ez ziran berdiñak?
- Ke ba! Batzuk gehixo, beste batzuk gutxixo, ikeragarrizko aldekek. Ikeragarrizko aldekek, Arantxa!
- Eta lan berdiña emakumeak eta gizonezkoak...?
- Hoixe! Zapatak akabatzen. Eta zinte-sartzie bazeuen, behin abarketan zinte-sartzea, geratzeke egun osue. Eta askotan gutxiñe eitten zebeñak - beti pasatzen dana- gehixen kobrau. Edo hobik dilako edo nik eztakit zer dilako eo... beak jakingo zebeñ.

1.3. Fresadore, txapa ebakitzen eta txofer lanetan

- **Hizlaria(k):** Aranbarri Elduaian, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-012/008
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:12:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lantegiak
- **Laburpena:** Etxetik goragoan zuten txabolari eta baserriari ijito batzuek su eman zien eta orduantxe hasi zen Joxe Mari lanean. Elgoibarko "Anaiak" lantegian fresadoran bi urtez eta "Gurelan"en txapa ebakitzen aritu zen. Bazkaria ordaintzeko adina ateratzen zuen. Ondoren koinatu batekin Zaldibarren elektrizitate lantegi batean txofer ibili zen 5 urtez eta hantxe jubilatu zen.

Transkripzioa

- Eta gero lanean hasi ziñen, taillerren baten edo?
- Bueno, ni lanien hasi nintzen, bai, etxie erre zanin bai, Elgoibarren ibilli nintzen, Anayanien ibili nintzen.
- Etxea erre egin zitzaizuen?
- Etxia erre ein zan hamen, lengo etxia. Ointxe san Bartolome bezpera gabian erre zan gure etxia.
- Ze pasa zan ba?
- Ez dakit ba. Ze pasau. Hamen ijittuek hor goixen oin ere hantxe dauke txabolie, txabolie zan, eta garoz beteta zauen, eta ijittuak etorri zien hara, eta erre ein ziguen txabolie gabian, garuek su hartute, nahitta ez zan izengo baiña erre behintzet. Guk falta. Eta gero hamen badao beste txabola bat, bazan haure ere, hor [...] aldetik harutz, ijittuak hara alde ein zebeñ goizian

jaikitzen. Bai ba, txabolia erre [...] harek ospa. Eta gero hara aitte ta hamen auzoko beste mutil batzuekin, gu gazteek giñen artin. Eta jun zan eta txabolia erre zebela eta hola eta horrenbeste diru pagau ber zebela. Eta baietz, pagauko zebela, pagauko zebela. Bale. Mando haundi bet zauken harek, eta aittek mando haure ekarri zun, diruakin zatozenin emango zebela atzera eta. Eta geuk juzgue dauku gero haretzek izen ete zien etxiai su eman zixuenak. Bengaizue, holakon bat.

-Eta orduan ibili zinen lanean taillerrean, erre zenean etxea?

-Bai.

-Zertan lan egiten zendun?

-Ba nik fresa baten itten nun, fresadore haundi baten. Harrapau niñun harek´e, makiniak harrapau ein niñun. Eta ezer ez zin in, txarra izen.

-Ze taillerretan ibili ziñen.

-Anaianin, egin nittun bi urte eta. Gureolan´e bai, han txapia ebaitzen eitten nun gillotina baten. Han ibili nintzen.

-Eta? Jornal ona irabazten zendun?

-Bai, jornal ona, bazkaixa pagatzen bagendun konforme. Jornal ona. Gero ibilli nintzen koiñaduakin´e bai Zaldibarren, elektrizistako taillarrin han txofer ibilli nintzen, taillarreko txofer. Han ein nittuen bost urte. Hantxe jubilau nintzen.

1.4. Intxausti lantegian eta abarketak josten lanean

- **Hizlaria(k):** Sagarzazu Irureta, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-015/005
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:05:41. **Bukatu:** 00:07:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak
Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- **Laburpena:** Gerra denboran, eskola bukatu zuenean, Intxausti lantegian hasi zen lanean. Abarketentzako telak, zakuak, etab. egiten zituzten. Etxean ere aritzen ziren joste lanetan. Garai hartan, Azkoitian, etxe atarrietan eta kalean jardun ohi ziren abarketak josten.

Transkripzioa

-Eta lanera?

-Lanera, gerra denboran lanera hasi nintzen Intxusti fabrikan edo.

-Zenbat urtekin? Eskola bukatuta gero?

-Bai. Bestela kalien edo etxien egitten gendun txortan lana; orduen txortan esaten zitxoan.

-Zer zan hori?

-Aulkixe, aulki bat zan. Han jarri eta han josi itten giñuzen. Erreportzaketan´e bai. Eta fubolera ere zera juten giñen. Orduen mutil koskorak, fubolkanpoik eta ez zeuen eta baso(r)a edo Illarra aldera, han baso bat arbola artien edo, eta haraiño jun eta han in, futboleant jokatzeko gendun.

-Lanera esan degu, zer lan egiten zendun?

-Tela edo, erreportzaketako, abarketentzat tela, zakuak eta eitten zittun, Intxausti fabrikan.

-Eta abarketak eitten zittuzun?
-Bai, gero aparte abarketak, gero handik erten, etxera etorri eta etxien abarketak josi.
-Eta nun ikasi zenuen hori, taillarrean ala amak erakusten zizun?
-Ez, etxien. Eta kaleko ataixen ere bai. Garai baten hamen Azkoitixen hor plaza erdiko zera hortan edo jendie erreportzaketan eta txortan eta asko ikusten zan. Banaka-banaka, eta hantxe lan.

1.5. Anai-arrebatan zaharrena izaki, etxean eta kanpoan lan egin behar

- **Hizlaria(k):** Sagarzazu Irureta, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-015/006
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:07:16. **Bukatu:** 00:08:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena:** Pezeta bat edo bi irabazten zituen, baina ama alargun geratu zen eta etxera dirua eraman beharra zeukan. Anai-arrebatan zaharrena zen eta sukaldean bera aritzen zen ama lanean zen bitartean.

Transkripzioa

-Hemen bazegoen lana hortik, ezta? Eta diru asko irabazten zenuen?
-Ez ez, eztakit pezeta bat edo bi edo ze izeten zan. Gutxi. Ama alargun, amak bere lanera jun behar izeten zuen fabrikera eta, ni arreputzaketan'e bai eta etxien ere koziñie zaittu in behar, amak errelebo edo zera itten zun eta.
-Gustatzen zitzaizun kozina?
-Gustau... Hure han zabillen bittartien sue piztute lagatzen nun nik zera eitten eta ni pelotaa, Goiko-losara etorri eta haure abandonate hantxe geratzen zan eta amak nahikue lan, haure puxket abandonau samar, atzera etxera etorri orduko sue emendaute ta.
-Baiña anai-arrebak lagunduko zizuten?
-Ez, ni zarrena nintzen. Eta abarketak puxkau te, eta ama zerantzat lana.

1.6. 18 urterekin Urretxura joan zen lanera, baina tailerrak ito egiten zuen

- **Hizlaria(k):** Lete Larrañaga , Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-019/005
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:06:30. **Bukatu:** 00:08:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

- **Laburpena:** 14 urterekin eskola utzi eta baserrian jarraitu zuen lanean 18 urtera arte. Baina baserria gainbehera zetorrela eta, Urretxura joan zen lanera, hain zuzen ere, ikasle garaian apopilo egon zen etzekoen lantegira, "Talleres Urretxu"ra. Zepiladora eta makinetan aritzen zen lanean baina ez zuen askorik iraun, ez zitzaion tailer barruko lana gustatzen.

Transkripzioa

-Eta eskola noiz bukatu zendun?
 -Orduntxe. Hamalau urte edo eukiko nittun, orduntxe.
 -Eta lanean hasi zinen?
 -Gero baserrixan. Eta hemezortzi urtekin edo baserrixe geruao ta zeroa ta, jun nintzen Urretxure tailler batera, lehen apopillo edo egon nintzen itxe hortakuk tailler txiki bat zeuken eta hareta jun nitzan. Pasau nun urtebete inguru eta ezin nun, ezin nun barruen aguentau te...
 -Zer tailler zan?
 -Talleres Urretxua zauken izena, zera zan, burni-taillerra. Palier asko ta...
 -Eta zuk zer lan egiten zendun?
 -Ha? Ba zerien, zepilladoran eta, limakin eta hola ta. Baserritarra izen, kanpuen ohittutakue izen, etxera etorri nintzen, eta beste zeoze asmauko diau ta. Bai.
 -Orduko laneko soldata ze izaten zan?
 -Esango dizut: lelengue "como pinche" bezela ni, ezta?, ta. "Cincuenta y ocho pesetas" asteko.
 -Eta zer zan orduko proportzioan?
 -Gutxi zan baiño pintxe bezela, artien nik ez nekixen taillereko lan berriik ezer eta bai.
 -Ikaste aldera.
 -Ikeste aldera, hori da. "Como aprendiz" esaten zitzekon, bai.
 -Eta zenbat orduko lana egiten zan orduan?
 -Ba ordun zortzietatik hamabixetara eta gero ordu bat terdietatik xeiretara. Eta gero juten nintzen illuntzittan batzutan, maixu bat bazauen eta harekin pixkat zera ittera, dibujue eta zera ittera han egon nintzen denporan.

1.7. Alpargatei tela josten etxean

- **Hizlaria(k):** Zabala Zabala, Manuela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-029/007
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:12:37. **Bukatu:** 00:13:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):** Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- **Laburpena:** Etxean ikasi zuen alpagatak egiten. Kanean tailerretan alpagaten zorua egiten zuten eta Manuelak eta etzekoek tela josten zieten. Norberak nahi adina egin eta trukean dirua jasotzen zuten.

Transkripzioa

- Ta nola ikasi zendun abarketak itten zuk, hantxe etxen eakutsita?
 - Bai. Bestik eitten zebeñ ta nik´e bai. Guk eztakit nun... lehelenguk eztakit nun ikixiko zun.
 - Ta nola itten zittuzuen abarkak?

- Abarketak!
 - Abarketak nola itten zittuzuen?
 - Esaten dizut, ba, zorue... Kalin taillerrak egoten zin ordun´e, ta han eitten zittoben abarketa formako trentzakin abarketin azpuxe, ta guk gaiñeko tela hori josi. Ta tela haure josi ta hori ekarri atzea.
 - Oseake, kaletikan eamaten zenduen etxea azpiko zorue?
 - Bai.
 - Eta telak eta harixe-ta eman ta geo han guk josi han.
 - Tela-ta beak ematen zizuen?
 - Bai!
 - Eta geo ordaiñetan pagatzen zizuen?
 - Bai, bai.
 - Eta ze izaten zan, eguneroko lana o nola izaten zan?
 - Ba, asko itten bazendun, egunero. Gutxi itten bazendun, bi egunetik behin edo... baiña egunero itteko gurin asko giñen ta... asko, asko josten gendun.
 - Danak zekizuen etxen josten?
 - Bai, danak, amak´e bai.

1.8. Txapel fabrika

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Etxaniz, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** AZK-045/005
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:04:23. **Bukatu:** 00:05:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
 Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
 Ekonomia eta industria » Lantegiak
- **Laburpena:** Txapel fabrika ere inportantea zen. Eskolatik joan ziren ikustera. Txapelak molde batean jarrita egiten zituzten. Zinta jartzen zieten. Gizonak eta emakumeak zebiltzan han lanean.

Transkripzioa

-Eta txapel fabrikari bat´e...
 -Txapel fabrika´re bazeon. Txapel fabrika zeon oin Hurtado de Mendoza zana. Inportantea zan. Ta han eitten zebeñ -gu eskolatik jun giñen ikustea ta badakit nola eitten zebeñ hasieran- hasieran itten zebeñ han´e algodoie bezela zan. Eta gero ipintzen zebeñ molde baten eta han eitten zebeñ, nik ez dakit nola eitten zebeñ, telie bezela, tela bat bezela, borobille. Ta gero [makil] baten formie ematen ziyoben, formie, txapelai. Gero eukitzen du / eukitzeu/ ba hola barrena sartzeko? hure eitten zebeñ. Ta gero beste batzuk eitten zebeñ hari zinta bat ipini. Ta gero batzuk narrue ta bestik ez. Txapel fabrikie. Bai.
 -Ta hor gizonak...?
 -Gizonak eta emakumik, danak.

2. Politika

2.1. Gerra denboran, Miserikordiara jateko bila

- **Hizlaria(k):** Alberdi Iriarte, Arantza
- **Elkarrizketatzailea(k):** Kerejeta, Arantza
- **Erref:** AZK-002/002
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:01:15. **Bukatu:** 00:02:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerra denboran gosea pasa zuten. Aita kanpoan zenean, ama eta biak Miserikordiara joaten ziren eta han beharrezan zeudenei zopa beroa ematen zieten.

Transkripzioa

- Gerra-denboran, berriz, badakizu ze pasatzen dien... gosie ta ostientzekuk.

- Gosie ezagutu al zenuten zuen etxean?

- Bai, gosie nahikue jan be ezautu gendun. Osea... [...] itten giñen, baiño bai, e? Bai, bai, gosie bai. Zeatik aitte-ta etorri zin zeatik ta lanik ezerre ez zixoen eman ta bai, gosie ezautu gendun. Eta ordun juten giñen aitte-ta falta zila mixerikordire -oin residentzixe esaten dixobe, baiño ordun mixerikordixe-, ta han ematen ziguen... Lehenengotik eguardixen Santa Kurutzera, ta han ematen ziguen [...] zopie. Falta zinai... aitte-ta falta zien, pobriek asko juten giñen [zeai] aitte-ta falta. Ta gero illuntzin mixerikordire, hor zopa berue ematen ziguen hola ez gendukenai. Baiñe gosie ezautu gendun, e! Nik ezautu nun gosie. Hori ezautu nun, bai.

2.2. Estraperloan etxe ondotik Madarixa aldera

- **Hizlaria(k):** Errasti Juaristi, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-011/015
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:21:53. **Bukatu:** 00:22:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Mendian egon zen garaian estraperloa ezagutu zuen. Estraperloan aritzen zirenak Joserren etxe ingurutik pasatzen ziren Madarixa aldera mendiz, artean ez baitzegoen biderik.

Transkripzioa

-Estraperloa ezagutu zenuten?

-Bai. Ezautuko ez gendun ba. Estraperlue egon zanien pasarie Azpeittitik, pasadie hementxe etxe [buruen?] dago bidie. [...] gure Aiztiko Potzoaldie du izena. Hortxe dago pasarie Madarixara, danak hortxe pasatzen zien. Gabaz txakur-zaunka hotsak ere bai, ganaue hanka-markan, bidie ebaitten egoten zan estraperlo garaian hor.

-Eta zerena egoten zan?

-Jakín eizu. Ixko haundi bat harrapau ben Madarixan [...]. Hortik pasatzen

zan. Madarixara e(ra)man eta hortik manejatzen zien. Hemen kamiñoik ez zan eta. Hemen akabera gabeko istorixie hortako gauzetan gerra onduan.

2.3. Tropak herrira etorri zirenekoa

- **Hizlaria(k):** Sagarzazu Irureta, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-015/008
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:10:58. **Bukatu:** 00:13:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Goserik ez zuen ezagutu gerra denboran. Tropak herrira etorri zirenean herritarrak kanpora, Bizkaira eta inguruko herrietara aldegin zuten, baina Julen herrian geratu zen. Gerran zeudeneko osabaren inguruko pasadizo bat kontatzen du.

Transkripzioa

-Eta goseik ezagutu zenduen?

-Gosie? Bai, garai hartan hamen gosie; goseik hola esateko, gosia ez baina.

-Eta gerra hemen Azkoitin? Gerra-denboran?

-Ez, gerra-denporie bi-hiru hilabete, ez dakit zenbat izengo zin, gero soldautzara hots ein zebein gero jun in ber izan nun, baiña bestela gerran hamaxei urte baneuzkan nik ordun eta. "Aurrera" esaten zan ordun hamendiken horrea jutie, osea, tropak hona zetoztela gero hamendiken batzuek zeara jutien zien, Bizkeire, eta nik bezperan erabai nuen ba zera eittie, geratzie. Osaba zana, besterik ez neuken etxien, mutilzaharra zan osaba zana, eta bixok erabagi gendun geratzie hamen. Eta ordun esaten zan, herrire tropak sartute eta ez dakit ze indde ta, bata eta bestia, okerrak itten zittuela ta, politikan diferentiek zienai zera izeten zila ta. Ta gero ni orduen, azkenengo kamiona zan hamen herrittiken, jendie ia ihesik, eta osaba ikusi nun, ni plazan pelotan eta etxera nijula. Ene, osaba. "Atzo hola geratu gitxian, ez jutekotan, eta oin hori bazik ba", eta haure bere lagunekin animaute hara jun zan. Haixek uste det in zebela Azka(ra)ten jatxi batzuek eta handiken oiñez Ondarrure. Gero Ondarrutiken hara eta hona. Gero Ondarrutik ta handiken zabaldu ein zien eta Amoribietan geratu zan. Han bere lehengusu batzuk bazeuren eta han geratu zan eta gero handiken etorri. Gero neu jun nintzen hamen, alkatie orduen lehengusue nun, alkate zauena, Irureta, ta hari hitz egin eta jun, eta salbokonduktue ber izeten zan ordun gero trenien ibiltzeko, eta Amoribietara jun eta Amoribietatiken neuk ekarri nun osaba etxera.

2.4. Etxean egindako ogia eta estraperloa

- **Hizlaria(k):** Aldai Eizagirre, Maria Hipolita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-018/004
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:03:41. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**

Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

- **Laburpena:** Idiak golderako, egurra eramateko... izaten zituzten. Ogia etxean egiten zuten, eta, gose denboran, garia, baba... kalera entregatu behar izaten zituzten, eta trukean erosketetarako bale bat jasotzen zuten. Mariaren gurasoek irina eta olioia estraperloan lortzen zituzten. Gerra denboran, patataren ordean, errazionamenduko boniatoa izaten zen, eta labean erreta jaten zuten.

Transkripzioa

- Eta idik aittau dittuzu ta...

- E?

- Idikin aitzen ziñeten lanen?

- Ididiek eukitzen giñuzen lan eitteko: goldan itteko, arto-lurre preparatzeko... ta hoiyetako eukitzen giñuzen ididiek eukitzen giñuzen. Tratoreik ez zeuen ta tratorin toki(re)ko ibiltzen giñuzen. Ta gero karabiye eiten gendun ta karabiyentzako egurre ekartzeko ´re haiyetxek.

- Eta ogiik o itten zenduen etxen?

- Etxin bai, ogiye beti etxin erre. Asteko ogiye. Baiño gose denbora hartan ez zan zeaik, ogiik, eta geuk eman in ber izeten gendun, herrira entregau ein ber izeten gendun garidxe, artue ´re bai ta babie ´re bai.

- Eta diruik ematen zizuen?

- Oso gutxi, tanto por [ziento] zeoze... Orduen diruik ez zan eta txartel batzuk ematen zitueben.

- Eta txartel hoiiek zertako...?

- Txartel hoiyek hantxe gastatzeko. Geo zeoze hartu generue ta gastatzeko. Eta iriñe Naparrutiken ixilik eta abarrien nola-hala gure amak eta aittek ekarri itten zeuben.

- Estraperlon?

- Bai, estraperlun. Bestela ez zeuen. Ta olixue ´re asko estraperlun ekartzen zan. Etxin asko ber! Pamelu haundidxe giñen eta asko ber ta estraperlun ekartzen zan.

- Estraperlon ze eitten zuen aitta-amak [...] ala handik ekarri eitten zun [norbeak]?

- Norbera jun ber. Bueno, ipintzen zituen tokiyek, "holako tokitan pasako da generue", ta kamiñura erten ta hantxe ekartzen zeen pixkie. Ta ordun patatie ´re etxin hartzen zan, baiñe entregau ein ber ta kaletik eamateik ez zan eoten patataiken, e! Moniato.

- Nola?

- Moniato. Gerra-denbora hartan, moniato.

- Ze izaten zan hoi?

- Hori patatien antzeko bat, labin erreta. Jateko gozue zan, ezta miketza ez zan, gozue zan. Baiña bueno...

- Ta hoi nundik ekartzen zendun...?

- Ogiye etxetik, etxin ein, ez zeuen kanpotik ekartzeik!

- Ta moniato hori?

- A! Moniato hori zeretik, razionamentuetan partitzen zeen.

2.5. Nuarbeko errotara oinez

- **Hizlaria(k):** Aldai Eizagirre, Maria Hipolita

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-018/005
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:06:00. **Bukatu**: 00:07:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena**: Gerra denboran, gose handia pasa zuten etxean. Errotara Nuarbera joaten zen gaez, astoa hartuta. Errotara behin joan zeneko anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

- Enee! Orduen mixeri gorriye izen zan, e!
- Gosea pasau zenduen zuek?
- Bai. Gosie pasa gendun guk ogiyana gehiyena. Gaiñontzin, ardixe o txahala eo haragixe beti inguratzen zan, baiño ogiik ez. Ta guk umiek ogiye nahi. "Ama, ogiye eman iezu" ta ogiik ez. Tristie, e! Oso tristie.
- Eta errotaik bazeukezuen?
- Errotie bai, baiño jun ber izeten zan illunpetan.
- Gaez?
- Gabaz. Nik sekula pasau nuen sustoik haundiyena pasau nun ordun. Astuekin banijue eta... illun. Argiik ipintzeik ez zeuen! Jendie nunahi ibiltzen zan, harrapau ezkerro multie genduken... ta ez jakin ze ingo [...]. Beno. Banijue errotaa ta astukin ta [...] zipirri-zaparra hotsa. Adios! "Badiat hemen baten bat"! Ta hasi naiz jiratzen ta ezin jirau! Astua aurrera, "Arre astua!" esan, ta benga aurrera ta benga aurrera ta... Badakizu nora juten nitzen ni ordun? Errestire, Nuarbeko Errestire errotaa. Illunpetan.
- Zenbat bide?
- Ordubete pasa, ordu ta erdi bat ´e bai.
- Eta zeorri bakarrik juten ziñen?
- Bakarrik juten nitzen. Enee! Zenbat ibillera triste! Bueno! Buo! Egunero ogi puxketa bat ez jateko. Egunero ogi puxketa bat ez jateko.

2.6. Estraperloa gaez

- **Hizlaria(k)**: Osinalde Arrizabalaga, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-022/008
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:08:00. **Bukatu**: 00:09:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Gerra ondorenean estraperloa ezagutu zuen; ezin zen toki guztietan egin, baina etxe batzuetan Guardia zibilak lagun egin eta janaren trukean barkatzen zuten. Goizaldera egiten zen estraperloa. Artoa eta garia saldu egin ohi zuten, jendea etxera etortzen zen eroatera.

Transkripzioa

- Estraperloarekin gogoratzen zea zu?
- Ni akordauko ez naiz ba, gerra ondun.
- Zerena izaten zen estraperloa normalean? Iriñena ala beste zeozena're

bai.

-Gauze danana egon, baiña hautan iriñe jeneralien, etxien jateko iriñe. Toki danien ez zeon eitteik, hor'e ez zeon eitteik, baiñe horrek guarzibillak erositta eukitzen zittun, ta guarzibillak sukaldien apaltzen eta asto pilla galanta.

-A bai? Guardia zibillak erosita eukitzen zittuen? Eta hori nola izaten zan ba?

-Haiei eman in ber.

-Ta bildurre pasatuko zenduen ba zuek pixkat?

-Bildurre, bidien harrapau ezkerro dana kendu.

-Ze kastigu ematen zuen bidean harrapau ezkerro?

-Gurien sekula etzan tokau iñor harrapatzeik. Baiño, jakitzen zan ba gutxi gorabehera ze sasoetan edo ze jun eta. Gabien [...], baiñe gabien ibilli ber ba. Gau [...] baiño goizaldera hobe, jendie erretiraute zeon sasoi.

-Eta ogia orduan etxean egiten zenduen. Eta saltzen zenduen kalera?

-Ogiik ez, gutxi, artu ta hori bai, iriñe; garie ta saldu ohi zan etxien sobra zeola irizten bazitzaigun.

-Nora? Feriara?

-Bai zera. Etxera etortzen zan jendia nahikua.

-Etxea etortzen zien?

-Bai, kalien ez zeon, ze esango nuke nik? Basuan moduko ogi zea ematen zuen, haure zerekin inda zeon ez zeon arrastoik emateik.

2.7. Razionamentuko "ogi beltza"

- **Hizlaria(k):** Osinalde Arrizabalaga, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-022/009
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:09:35. **Bukatu:** 00:10:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Razionamentuan, ogi beltza deiturikoa ematen zitzaien herritarrei, baina Joseren etxean gutxitan izaten zen. Txarra izaten omen zen.

Transkripzioa

-Zer izaten zan, "ogi beltza" esaten zaiona?

-Bai, beltza eta takarra.

-Zerekin eginda zegoen?

-Antzemaiozu [...]. Haure baserritarrei eta kaletarrei danei ematen zien eta gurien iñoiz jasotzen zan, baiña gurien haure gutxitten jaso zan.

-Zer izaten zan, garestia?

-Ez garestiagatik, txarragatik. Haure razionamentue, preziue eta danera justo [ipiñite] zeon, baiñe txarra. Eta kaleko jendiek eta, berriz, besteik zela ez zeon hauraxe jan ber.

2.8. Gerra garaiko bizipenak

- **Hizlaria(k):** Osinalde Arrizabalaga, Jose

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-022/010
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:10:11. **Bukatu**: 00:12:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Gerra hasi zenean, Josek Azkoitiko mutilak ihesi ikusi zituen. Azkoititik Kalamua mendira joan zen jendea. Joseren aitak idiekin munizioa hartuta joan behar izan zuen Kalamura. Franco aginduan zegoen garaian, txahalak ere kendu ohi zitzaizkien baserritarrei.

Transkripzioa

-Gerra-denbora ezagutu al zenuen?

-Bai.

-Zenbat urte zeneuzkan?

-[...] Kuarentayunukuek jun zien eta ni kuarentaikuatro naiz, eta ni bittarte hortantxe geratu nintzen harrapatzeke.

-Ezagutu zenuen gerra.

-Hamen tiroik ez zan batere pasau, ezautu bai nik. Egun baten neuen hortxe baso baten ardizai eta hamengo mutillek danak ihesi bazihoazten hor zihar. Azkoittin eta ez zan izen ez tiroik eta ezta ezer´e. Eta gero hor geratu zan Kalamu aldin edo hor, Plazentzia alde hortan edo geratu zin eta hor egon zan denpora askuen tiroteue.

-Osea ke hemendik pasatu egin ziren.

-Bai, hamen zuzenien. Eta baita hamendik baserritarrak ganauekin eamaten zittuen hara, gerrarako muniziuere jasotzera ta. Gure aitek´e bi egun pasau zittun idiyekin junde, soldauntzako trastiek jasotzen mendire.

-Eta etxeko ganaua orduan beldurrarekin ezkutatu egiten zenuten edo?

-Guri sekula ez zaku holakoik tokau. Ordun bi zerak zeuren, bat nazionalistak esaten ziena eta bestiek karlistak. Eta Franco nazionalisten kontrakue zan ba. Bazien orduan´e txahala kendutakuak eta nazionalistai. Holakok zeukak txahala, eta kendu hari txahala, eta hartu ta ekarri, eta reketiek, hamen herittutako reketiek eta egoten zien, haientzat izengo zan haragiye o, nik ez dakit. Baiña nik badakit hamen txahala kendutakuak, nahi bazun eta ez bazun... Eta eaman in ber. [...]. Prancon kontra ez zeon ordun hitzik iteik.

2.9. Barkuan Frantziara

- **Hizlaria(k)**: Gabilondo Etxaniz, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: AZK-045/024
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:24:27. **Bukatu**: 00:26:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena**: Barkuan Frantziara joan ziren, Pilton barku ingelesean. Larritasuna pasatu zuten, Francoren barku bat gerturatu zitzaizkien. Kargaontzi handia zen. Iritsi zirenean, ongietorria egin zieten. "Rouan"era eraman zituzten, eta kartzela izandako toki batean egon

ziren lau familia. Oso ondo egon ziren. Amak-eta egiten zuten sukaldean. Zerbait erostera joan, eta ez zieten kobratzen. Herrian festa egin zuten errefuxiatuen alde.

Transkripzioa

Ta hantxe Santanderren. Ta geo jun giñen Santanderren barkua hartu eta ya Frantzire. Ez geñikiun noa guzen. Izena zuen barkuek Pilton eta zan barko inglesa. Harrapatzen zittuenien, nazionalak, harrapatzen zittuenien itsasuen republikanuek, hartu ta kartzelaa ekartzen zittuen. Ta han guri hasi zikun barkuen buelta-buelta-bueltan banderikin ta gu danak negarrez ta... Baiño zan barko inglesa ta banderie ataa zun belaxe ta ya esta, [...] ez zion utzi. Gero aillau giñenien Frantzire, ba, mille pertsona baiño gehixo, barko haundi bet zan, kargante karga, ta aillau giñenien, zea, nola zan haure? Saint-Nazaire eskribitzen genun, zea, Frantzin. Erten ziuén, hango ohitturie, hamen hilandera jantzitte ertetzen debe ba zeak, hola, aureskue dantzan eitten? hala erten ziguen. Ta geo grupuk apartau giñuzen ta suertie noako tokatzen zitzetzun: batzuk toki batea, bestik beste herrire ta bestiek beste herrire. Ta gu jun giñen Rouan izena zikona, [...] onduen, ta hara eman giñuzten. Geo trenin jun giñen ta sartu giñen etxe baten. Ta zan kartzelien pusketa bat bezela, baiño oso ondo ipinitte. Eta gu giñen lau famili eo, Bizkaikuek eta... oso-osu ondo. Nahi baiño´re hobeto eon giñen, ez dao siñisteik. Danak koziñatzen zebeñ beak, zuri-zuri jantzitte ta. Gure amak-eta esan ziyoben beak kozinatzie nahixo zebela generukin ta, hala, dana ekartzen zebeñ, dana, ta... eon giñen oso ondo. Juten baziñen zeoze arreglo bat eittea -zapatak arreglatzea, akordatzen naiz- ta ez zebeñ kobratzen. Ta gero herriyen, gaiñea, festie in zebeñ “por los refugiados”, egundoko festie. Ta famili bat baneuken nik oso maittie ta ni gelditzeko esaten ziyon amak.

2.10. Bueltan, lanik ez

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Etxaniz, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** AZK-045/026
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:28:20. **Bukatu:** 00:29:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena:** Herritik bidali zituztenak barkamen eske joan zitzaizkien etxera. Lanean ez zuten inor hartzen bueltan. Azpeitian bai, baina Azkoitian ez. Lanik okerrenak egiten jartzen zituzten, harri arteko belarrak kentzen eta. Aita lagun baten txatartegian hasi zen lanean. Gero, Donostiara joan ziren bizitzera gurasoak.

Transkripzioa

- Han hantxe hilde hantxe laga eta gero etxekuk enterrau. Eta gero gu bialdu giñuzten abixuekin gure etxea etorri zana, haren ama etorri zan gure etxea, hola, dotorentzia... herriko hola ondo zaudenak eta, etorri zan ta gure amakin nahi zula hitz ein. Eta esan zixon: ez lukela nahi sekule haren semiei gorrotoik eukitzeik, zeatiken aindute jun zala hare ta... Ta ezetz, gure amak esan zixon lasai eoteko, ta halaxe. Holaxe bizi izen giñen. Geo lanea iñor ez zebeñ hartzen, e! Iñor´e-iñor´e-iñor´e ez zebeñ hartzen, etortzen zinak iñor´e ez. Azkoitin, e! Azpeitin gure gizonan-ta fabriken-ta

mueblenien danak hartzen zittuen, baiñe besteik iñor ez. Handik etorri zana dana lanik gabe. Eta ipintzen zittuen beak hartu eta herrixen lurre garbitzen ta holaxe. Gure aitten lagunek-eta´re ipini zittuen herrixen hola harriye ta harri harren tarteko hautsek kentzen ta. Ta gure aitte bere lagun batek txatarrei haundi bat zeuken eta gerra denboran ondo zeon, gaiñea, eta hara eman zuen lanea. Eta baiñe ahal zun bezela, txatarra biltzen ta ahal zun bezelaxe bizi. Holaxe [...].

- Eta kalia hola kontuak esan eta...

- Eta halaxe lanien eta gero...

3. Familia eta harremanak

3.1. Erromeriatik goiz itzuli behar

- **Hizlaria(k):** Alberdi Iriarte, Arantza
- **Elkarrizketatzailea(k):** Kerejeta, Arantza
- **Erref:** AZK-002/004
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Erromeriararen joaten zen gaztetan, baina goiz etorri behar izaten zuen, amak bestela errieta egiten zion eta. Etxean esango ziotenaren beldur ibiltzen zen.

Transkripzioa

- Eta festa giroak-eta nolakoak ziren Azkoitin?

- Festataa juten giñen, baiño goizo etorri ber. Azpeittire jun festaa San Inazixotan ta, ba!, zortzitako etxea, bestela badakizu ze izeten zan. Behin Aizpurutxoa jun nitzen ta lagun danak lagata etorri nitzen etxea, bildurrez! Etxin bestela zipri-zaprie igual gure amak, ikeragarritzko zipri-zapria, lotsarik eta be(ha)rrik ez gendula ta. Jun harutz ta gurasuek berriz´e [...] geala esango ziune ta... Kitto. Bildurrez! Mutillekin, zea, laguntzea han goraiño, San Martiñen bizi giñen ta haraiño juteko´re bildurrez. Gure amak sentitzen bagiñuzen, "tzst!" [handik...]. Lotsagarri bat, Arantxa, lotsagarri bat.

3.2. Aitak 60 urte egin zituen musika bandan

- **Hizlaria(k):** Alberdi Iriarte, Arantza
- **Elkarrizketatzailea(k):** Kerejeta, Arantza
- **Erref:** AZK-002/007
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:07:05. **Bukatu:** 00:08:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Bere aitak 60 urte egin zituen bandan jotzen eta omenaldia ere egin zioten. 13 urterekin hasi zen musika ikasten.

Musikarako zaletasun handia zuen. Amari, berriz, boxeoa gustatzen zitzaion eta sarritan haserretuta ibiltzen ziren elkarrekin.

Transkripzioa

- Zure aita zana ez al zan bandan aritzen?
- Bai, hirurogei urte in zittun?
- Jotzen?
- Bai, jotzen. Hirurogei urte in zittun. Homenajie ein zixon zeak, Periko "Exkerra" zan ordun alkate, ta ein zixon. Gero "Txanboliñek" nahi izen zixon ta ez zun nahi izen aittek. Eta geo ordun ein zixoben, zeak, dalako... "Txanboliñek"... ordun zein zaon alkate? "Berde" al zan? Ez zan "Berde" egongo... Ein zixoben alkar hartu, eta ze irabazten zun bandan -ez dakit zenbat zien, seis mil edo ez dakit zer zan- hil arte haure ipini zixoen aittei. Ta larogei urtekin hil zan eta... Baiño bittarte osun haure kobrau zun aittek "como"... zea bezela ein zixoben, homenajie ta ein... Ein [...] harek ez nahi, ez zula nahi bigarrenik eitteik, lehenok re lotsaute pasau zula ta. Baiño geo ordun ein zixon zea, haure ipini zixon. Hil arte izan zan. Baiño bere musikikin, harek besteik ez ziñan, harek kitto, musikikin zoraute. Bere musikie, haxe, musikiaatik ez esan ezer e. Alperrik zelebrena jo. Gure ama boxeozaliek zan. Bixek erritan, nola leiken boxeue gustau ta "Nola leike musikie gustau? Beti bat jotze ez deuzte, ba, horra junde? Boxeuk jendie emate(n) (d)u horrek". Bixek eskandaluen. Oso diferentik zien. Baiño harek... hamahiru urtekin eo hasi emen zan musiken ikesten ta geo bizi osun musiken pasau zan. Gaiñea musikie ojo, e! Ez ezer esan musikiaatik, iñoatik.

3.3. Ezkonberritan, Nafarroara bizitzera

- **Hizlaria(k)**: Uria Narbaiza, Salome
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-009/002
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:01:40. **Bukatu**: 00:02:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Sorazu, Amaia
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: 1945an jaio zen Azkoitiko Urrategi auzoko Ubegietatxo (Uitetxo) baserrian. Ezkonberria zela Nafarroara joan zen bizitzera senarrarekin, osasun arazoak zituela eta klimagatik, eta hiru urte igaro zituzten bertan. Anaia soldadutzara zihoala eta, gurasoak bakarrik geratzen zirenez, etxera bueltatu zen hiru urteren ostean.

Transkripzioa

- Bueno, hasteko, hori, esango dozu zure izena eta abizena?
- Salome Uria Narbaiza naiz eta jaxo nitzen apirillen zortzixen, mille beatzireun ta berrota bostien, eta jaio nitzen Azkoitin, Uiteitxo baserrian eta hor bizi naiz. Ezkonberritan hiru urte inguru edo pasau nittun Naparrun bizitzen, eta gero atzera honutz etorri giñen, nere anaiak jun ber zun soldau ta aitte ta ama bakarrik gelditzen zien, eta neu pixket Naparrure jun nitzen..., mutillei eskeiñi zixoben han lan bat ta ni ibiltzen nitzen beti katarrukin de (ta) bronkitisekin de (ta) neumoniakin de (ta), oso geizki eta hara junde sendau nitzen...
- Klimagatik, ezta?

- Bai, gizendu pixket eta sendau, ta gero honutz etorri giñen, eta gero harrezkero berriz hortxe basarrixen.

3.4. Jolaserako asti gutxi

- **Hizlaria(k):** Uria Narbaiza, Salome
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-009/012
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:22:11. **Bukatu:** 00:23:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Sorazu, Amaia
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Umetan futboleant, pilotan eta ezkutaketan ibiltzen ziren, besteak beste. Ez zuten astirik izaten jolaserako.

Transkripzioa

- Bai eta ze jolas eitten zenduen?
- Fuelin (futboleant) asko.
- Bai?
- Bai. Neskak mutillakin ta...
- Ordurako ya modan zeuan orduant?
- Bai jo-ta belaunek danak puskaute dauzket nik fuelin (futboleant)...
prakaik´e ez zan ibiltzen artin ta... Eta ixkuta te billaka ta, pelotan ta, bai.
Bagenun mutil potolino bat, hil zan, zea, lehelengo postien parin jartzen
zan eta handiken ertetzen beti azkeneko gelditzen zan. "Hik ze eitten dixok
hor pelotiei?" Beak tanto asko eitten zun ta zan potolinu ta ez zan asko´re
moitzen ta . "Hik ze eitten dxok pelotiei?". "Efektue eman. —esaten zun—
Efektue eman". Bai. Pelotan, ta gero ixkuta ta billaka ta holako zeatan´e
bai... baiño hola jolasten denbora asko asko, guk ez gendun.
- Asti gutxi, ezta?
- Ez gendun. Bai, errekreo denboria ta...

3.5. Inguruetako erromeriak

- **Hizlaria(k):** Uria Narbaiza, Salome
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-009/015
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:26:56. **Bukatu:** 00:28:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Sorazu, Amaia
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Erromeriara Urrategira, Madarixara, Elusura eta
Irukurutzetara joaten ziren. Orduko neska-laguntzeak aipatzen ditu.
Madarixan helduan egiten zen, baina Martitan sueltoan bakarrik.

Transkripzioa

- Ta erromerie aipatu dezu lehen...
- Erromeire Urrategire bai, ta gero Irukurutzeta egunien hasi eta Arratik

pasau arte, egoten zan bertan gutxi. Irukurtzeta, ta gero San Ixidrotan Madarixa...ta atzea zazpirek eta laurdenin abantau eiñ ber etxea, oiñez etortzeko, eta geuk motordunek edo lagunak billaute euki arren, ba, gaztio batzuk edo izeten zin ta haixekin batera etortzeko. Oiñ, ondo pasatzen genun bidien, egundoko juergak eitten giñuzen. Eta Elosure, Martittea, Madarixaa, hoixetaa. Kurutzetaa eta San Lorentzoa ez. Hoixetan erromeixe oso berandu izeten zan. San Lorentzo aldeko neskak... gu Madarixatik etxera ta haixek orduntxe erromeire juten zien.

- Bai, han amaitutakuan erromerixia, ezta? juaten ziran lehelengo San Lorentzora eta han...

- Ez, ez, ez. Bestera bai, hori mutillek eitten zebe. Urrategin erromeixe bukau, Oxaunea neskiei lagundu eta Kurutzetan erromeixe harrapau. Han beste neska laguntzie behera eiñ, Elgoibar aldea, eta... ta artien San Lorentzon erromeixe harrapau. Motorrakin eta zebiltzenak eta esaten zebe hori. Beti izeten zan berandu Elgoibar aldetik beranduo, zea... eta.

- Bai, eta hori... askotan entzun izan dou, ezta? Madarixan eta Elgoibar aldian agarraua eitten zala ta, ez dakit, zure sasoiaren libre egongo zan...

- Ez, ez. Madarixan gure sasoiaren beti ein zan, eta Martitten ez zan eitten, bakarrik Martitten sueltue eitten genun eta zerien Aizpurutxon´e gure denboran eitten zan, baiñe, aurretik hamen Alberdi edo alkate egon zaniaren, harek zea eiñ zuen, kioskue ta eiñ zittun eta dantzie harek zea eiñ zuen... baiño aurretik Axkoittin ez zan eta...

3.6. Gaztetan segan, ittulan eta behizain

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Zubizarreta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkune, Laxaro - Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-010/001
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Gaztetan Manuel ganadua zaintzen eta ittulan aritzen zen etxean. Hamabi urterekin hasi zen jorran eta segan, gurasoei laguntzen, anaiak gerrara joan ziren eta. Lehenengo aldiz sega hartu zueneko kontakatu du. Behiak zituzten etxean eta umetan ama aritzen bazen ere, behiak jezten bera aritu izan da bizi osoan.

Transkripzioa

- Ganaua [...] ta... ze ingo giñuzen, ba, guk? Ganaua zaittu, ittulan ein ta... Eskolaako gogo haundirik ez gendun.

- Ta gero jorran ta beste...?

- Ez, gaztetan ez. 12 urtera arte ez gendun jorran-ta jardun.

- Ta noiz hasi ziñen benetan lanien, segan ta...?

- Ba, 12 urtekin. Anaidxek gerraa jun zin ta aitte zeakin eukitzen nun, erreumakin-ta, asko sufritzen zun ta, ba, [orduaintxe...], derriorrian.

Ganajatekuak itten-ta hasi giñan.

- Baiño segan hasteako ikisi´re nunbaitten in berko zendun, ba?

- Ikixi...

- Ibiliko ziñaten aprobak iten aurretik...

- Bai, zeoze aprobak itten-ta bai, baiña... ez zeon... ikixi... derriorrak erakusten du hor. Lehelengo neuk segie jota ganajatekotara jun nitzenien,

afanien jun nintzen, ididxe hartute, "Rediez! Ekarki behar diat kriston jornaia!", ta jun nitzen ta hasi nitzen ebaitzen ta bate ez zun ebaitzen. Iñolaz´e, jotzen ai nitzela pitzau o ez dakit ze in nun segie, jasotzen nun gora ta dana belarra. Ta han etorri nitzen ididxe hutsik hartuta atzera etxera.

- Eta geo, bestetik, behiyek jezten ta hola?
- Ba, orduntxe, 12 urtekin.
- 12 urtekin baite?
- Bai. Bestela, haixek, seme edo anaidxe soldau jun zinin amak jezten zittun. Ta ama behi-jezten dana ezin lagako di(o)u ta... hasi giñan nola-hala ta handik aurrera gaur arte beti behi-jezten.
- Beti jeizten... Bai ondo ikisi´re ofiziyua, e?
- Bai, ofiziyua ikixi gero.
- Ardirik-eta ez zenduen sekula euki...
- Ez, sekula ez, ardirik ez.

3.7. Ezkondu ondoren Urrategira bizitzera

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Zubizarreta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkune, Laxaro - Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-010/007
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:11:27. **Bukatu:** 00:12:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Ezkondu zenean Izer baseritik Urrategira joan zen. Osaba sakristaua zuen Urrategin eta hura kalera joan zenean bere etxera joan ziren bizitzera.

Transkripzioa

- Eta hemen gaztetan erromerik eta izango zien, ba...
- Hamen, ba... Hona ezkondu etorri nitzen ni.
- Hau, hau... etorri zien behetik, Izertik.
- Ni bai, ni han behekua naiz.
- Eta honea nolatan etorri ziñen zu?
- Honea? Honea nolatan etorriko nintzen ba! Hamen zeon nere osaba sankristau-ta itten zuna ta haixek Azpeitixen tabernia erosi zeben. Ta haixek alde ein beer zebela ta gure amak, ama bea´re basarri zalie ta basarrikua, "Hantxe ziok..." Hamen anaidxe, ba, gure osaba.
- Alaba: aman anaye?
- Aman anaidxe, osaba, ta... "Hantxe, hantxe daukezu toki earra" ta "hantxe daukezu toki earra". Ta, mekauden, ezkontzeko gogua baiña ez zea dirue ta palta.
- Kanbiyue falta...
- Kanbiyue, bai, ba... Hala-hala behintzet, nola-hala etorri giñen ta baietz hamengo apaizei esan dixo gure amak ta baietz. Ta halaxe.
- Halaxe etorri ziñeten?
- Halaxe etorri giñen hona.

3.8. 1930ean Sukusu baserrian jaioa

- **Hizlaria(k):** Aranbarri Elduaien, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-012/001
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Bere burua aurkezten du. Zukiazu ("Sukusu") baserrian jaio zen eta betidanik bertan bizi izan da.

Transkripzioa

-Ni jaixo nintzen nobienbrian hogeta hamarrekue naiz ni; bai, nobienbrian hogeta hamarrekue.
-Ze urtetan?
-Treintaiunuen.
-Hemen jaio ziñen?
-Bai, bai. Lehen ez zan zeriken, lehen baserrixen bertan, lehen hauek zien lehengo ospitalak eta klinikak.
-Beti hemen bizi izan zera?
-Bai, ni beti hementxe bizi izen naiz.

3.9. 15 anai-arrebako familia

- **Hizlaria(k):** Aranbarri Elduaien, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-012/004
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:04:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 15 anai-arreba ziren. Anai-arreben inguruko kontuak.

Transkripzioa

-Eta anai-arreba danen artean lanean?
-Bai. Hamen ixer... baten bat akaso zerbitzera tabernan batera akaso jungo zan baiña azken samarrera arte gehixenak etxien.
-Zenbat anai-arreba ziñeten?
-Hamalau. Hamabost giñen, nik hamabost ezautu nittuen. Hori Madarixako Jerolimo ezautuko dezu nere anaixe. Tabernako haure ez dezu ezautzen? Ba haure bikixetakue da. Haretxen arreba, hiru hillabetekin hil zan haure, buruko atakiakin edo.
[...]

3.10. 1920an Azkoitian jaioa

- **Hizlaria(k):** Sagarzazu Irureta, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber

- **Erref:** AZK-015/001
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 1920an jaio zen Azkoitian. Gurasoak kaletarrak zituen eta betidanik kalean bizi izan da. Aita zena Julenek zazpi urte zituela hil zen. Hiru anai-arrebatan zaharrena da.

Transkripzioa

- Izena eta abizena esaten badidazu?
- Julen Sagarzazu.
- Ze urtetan jaio zinen?
- "Veinte. Diez de marzo veinte. Mil novecientos veinte".
- Eta beti kalean bizi izan zera?
- Bai.
- Gurasoak ere kaletarrak?
- Bai. Aitte zana nik zazpi urte neuzkela hil zan.
- Eta kaletarra zan?
- Bai, berau ere kaletarra zan. Ama zana alargun geratu zan eta nik zazpi urte, neu zaharrena; eta beste anaia gaztiao eta gero beste arreba, oin moja dao Erroman.
- Anai-arrebak?
- Bai. Hiru giñen.
- Zu gaztena?
- Ni zaharrena, larogeta zortzi urte.

3.11. Eskola orduetatik kanpo, futboleant eta pilotan

- **Hizlaria(k):** Sagarzazu Irureta, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-015/004
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:03:42. **Bukatu:** 00:05:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Eskola orduetatik kanpo harrapaketa eta futboleant jolasten zuten. 14-15 urterekin lagun arteko futbol taldea zuten, Izarraitz izenekoa. Gerra denboran frontoian pilotan ari zela Atano pilotariak ikusi eta Ordiziara eraman zuten binakako partidu bat jokatzera.

Transkripzioa

- Eta eskolatik kanpo ateratakuant ze jolas eitten zittuzuen?
- Geure arteko zerak eta. Fubola´re ez zan hainbeste, baiño, lapurretan ta lapurretan esaten giñon, alkar harrapatzen herrixen iguel ta, hola ibiltzen giñen.
- Eta futboleant?
- Fubolien bai.
- Ekipon baten ala lagun artent?

-Ez, gero lagunek kuadrillie genduken geuk zeran, hamalau-hamabost urte eta kuadrille geure lagun artin hamen osaute, Izarraitz izeneko ekipo bat formau gendun eta hantxe segiu.

-Azkoitiarrak danak?

-Bai, danok hamenguk, herritarrak.

-Eta pelotan ta afiziorik bazendun?

-Pelotan partido bat jokau nun. Praka zurixekin bai. Zera jokau nun, bi partidu, bat Villafrankan. Ordun gerra-denpora edo zera zan, ta hamen frontoin ibiltzen giñan pelotan ta han pelotan gabiltzela [bi] ikusitte, Luxiano Atano esaten giñun, eta harek zeuken kargue zeana, frontoiena, eta haren mende edo ez dakit ze inde, harek organizau zun partido bat eta, Villafrankan.

-Parejata o banaka o?

-Parejata. Eta gureztat haure txarra, neretzat behintzat haure behintzat txarra izen zan, zegatik hamen ohittute geunden lanazko pelotikin jokutzen ibiltzen, ta gero narruzko pelota hoixei, pelota bizixe, eta frontisen zera inde eta indarrrik ez neuken, zea, kaztie ere bai eta aparte ez hola indartsue edo, ta galdu. Gero fubolin ´e bai ibiltzen nintzen, eta gero fubolin.

3.12. Azkoitian ezkondu eta Madrilera eztei-bidaian

- **Hizlaria(k)**: Sagarzazu Irureta, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-015/014
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:23:09. **Bukatu**: 00:24:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: 33 urterekin ezkondu zen Azkoitiko parrokian Azkoitiko neska batekin eta eztei-bidaiara Madrilera joan ziren. Arreba bat lekaimea zuen eta hura bisitatzen izan ziren Tuteran.

Transkripzioa

-Hori eginda gero izan ziñen soldauxkan edo aurretik?

-Ez, soldautzie aurretik. Gerria akabau eta gero fubolien ari geala gero, ordun.

-Eta noiz ezagutu zendun zure andrea?

-Andrea? Auskalo, urte asko.

-Eta ezkondu ze ein ziñen, orduan?

-Ez, ezkondu gerora, hogeta hamahiru urtekin edo ez dakit zenbatekin. Mutil zarra.

-Eta nun ezkondu ziñeten?

-Hamentxe, parrokiten.

-Andrea azkoitiarra?

-Bai, azkoitiarra.

-Nolakoa izaten zen orduko boda, banketea eta?

-Orduen bodie eiñ eta gero tabernara, Alameda edo, plaza erdixen zera baten zegon eta hantxe bazkaldu.

-Eta "Viaje de Novios" a?

-"Viaje de Novios" era zerera jun giñen, Madrilera. Han lagun bat koziñero neukan. Eta haure ikusixaz edo haren inbitazixoz Madrilera [...].

Panplonara hamendik lelengo; arreba monja´re baneuken Tudelan eta haure´re bixitau edo zera eiñ eta gero handiken ba Madridera.

3.13. 1932an Landakanda baserrian jaioa

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Larrañaga, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-016/001
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: 1932an jaio zen Azkoitian eta lau tokitan bizi izan ostean, gaur egun Kukuerra auzoan bizi da. Landakanda baserrian jaio zen. Baserria, okindegia eta errota zen Landakanda. Baserri txikia zen eta ganadu gutxi izaten zuten. Ama Elosu auzoko Arostandokoa eta aita Martiteko Zendoiakoa zituen.

Transkripzioa

- Hasteko, izena ta abizena ta ze urtetan jaio zihen...
- ... orduan jaio nitzen?
- Ze urtetan.
- A! Urtetan?
- Hala´re orduan pentsau det. Urtie, ba, milla bederatzirehun ta hogeta hamabi. Asko da, e?
- Milla beatzirehun...?
- Ta hogeta hamabi.
- Ze egunetan?
- Urrian hemezortzia.
- Ta izen-abizenak?
- Ramon Zubizarreta Larrañaga.
- Eta beti hemen bizi izandu zea?
- Azkoitin bai, baiño hamen ez. Hau det, ba, laugarren lekua bizi naizena. Aurrena, jaio nitzen Landakandan. Gero Landakandan bertan zauen etxin aldemenin inde beste zea bat, beste etxe bat, ta han bizi... jarri giñen ezkontute. Gero handiken Landakanda aurrin beste etxe berri batzuk in zien ta hara pasa nitzan. Handik gero etorri giñen kalea ta kalien han zu hor izen zea, ba, Sagarzazuna junde? Han laugarren pisuen han daukeu guk pisue, [...] ta ez gea han bizi oin. Ta geo hau in gendun ta geo hona etorri giñan, berriz. Oin Kukuherriyan bizi naiz.
- Baiña jaio, kalen?
- Jaio Landakandan. Kaletiken gertun dao Landakanda hori, e? Baiña basarrie zan, basarrie, panadeixe ta errota zin gure jaixotetxia. Basarri txikie zan, bi behi ta hola... bi behi ta beste bi txekor egoten zin ta gero zaldi bat ogixe partitzeko. Ordun karrukin ta zaldixekin [...] ta...
- Ta gurasok´e bertakok?
- Gurasuek, ba, izetez Azkoittiko partekuk, baiñe ama Astondokue zan, Elusuko zea... ta aitte, berriz, Zendoia baserrikua, Martittekua.

3.14. Urrategi auzoan jaioa; gurasoak ere azkoitiarrak

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Aranbarri, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-017/001
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Azkoitiko Urrategi auzoko Azalgorreta baserrian jaio zen 1945ean. Aita Azalgorretakoa eta ama Koategi baserrikoak zituen.

Transkripzioa

- Hasteko, izena eta abizena eta non jaio zinen esaten badiazu...
- Ramon Larrañaga, ta 63 urte inde nao febrerun.
- Ze urtetan jaio zinen?
- 45ien.
- Otsailekoa zea?
- Bai.
- Ta jaio nun, Azalkorta baserrin?
- Bai.
- Eta bizi're bertan beti?
- Bai.
- Eta gurasok, bertakok, Azalkortakok?
- Aitte bai; ama kanpotik etorrittekue.
- Nongoa?
- Koateikue.
- Azkoitikoa?
- Bai.
- Eta bizimodue beti baserritik?
- 20 urte ein nittun enpresan, baiño berriz'e arditaa jun nitzen.
- Oseake,txiki-txikitatik beti baserrian.

3.15. Gaztetatik artzain

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Aranbarri, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-017/004
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:02:26. **Bukatu:** 00:03:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** 6 anai-arreba ziren. Etxean behiak eta ardiak zituzten eta gaztetatik artzain ibili zen. 10 urterekin lanera lantegira hasi zen, baina aspertu eta atzera artzaintzara bueltatu zen.

Transkripzioa

- Zenbat anai-arreba zineten?
- Sei, bi anai eta lau arreba.
- Ta baserrin ganaua zeukezuen?
- Oin aiñe ez, baiñe ordun'e nehikue izeten zan.
- Ze ganau zeukezuen?

- Bost-sei behi ta idixek eta ardi batzuk beti ta... gero [...] nittun ardiik.
- Artzai hasi ziñen geo.
- Hor ibili gea.
- Zenbat urtekin hasi zinan artzai?
- Ni gazte-gaztetik eta geo hogeta hamar bat urtekin atzea saldu ta taillarrea hasi nitzen. Geo berriz´e erten.
- Taillarrea noa hasi zinen?
- Axkoittire. Azpeittin lehenengo pixketen eta geo Axkoittire, epokie etorri ziztenin.

3.16. 1929an Errezilen jaioa

- **Hizlaria(k):** Aldai Eizagirre, Maria Hipolita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-018/001
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 1929an jaio zen Errezilgo Artxiola baserrian eta 11 urtera arte bizi izan zen bertan. Aita Artxiola bertakoa zuen eta ama Urrestillako Eizmendi baserrikoa.

Transkripzioa

- Bueno, hasteko, izena ta abizena ta noiz jaio ziñen esaten badiazu...
- Bai. Ni jaio nitzen... Nere izena Maria.
- Maria, ze gehio?
- Aldai Izagirre.
- Ta ze urtetan jaio ziñen?
- 1929, doce de julio.
- Eta hemen jaio ziñen, Egiñozaharren?
- Ez, ni jaio nitzen Errezilen, Errezilgo Artxiola basarriyen jaio nitzen.
- Artxiolan?
- Artxiola, bai.
- Eta beti han bizi izandu ziñen?
- Ez, han bizi nitzen ni 11 urtera arte, geo neskame jun nitzen.
- Gurasok zer zeuzketzun, hangok? Errezildarrak?
- Bai, aitte Errezilkue ta ama Urrestilkue.
- Aitte ze, Artxiola baserrikoa ?
- Bai.
- Ta ama Urrestillakoa ?
- Ama Urrestilkue.
- Ama´re baserrikoa?
- Bai, Eizmendi basarrikue ama.

3.17. Baserritik bizi ziren

- **Hizlaria(k):** Aldai Eizagirre, Maria Hipolita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-018/002

- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:01:22. **Bukatu:** 00:03:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Baserritik bizi ziren eta gose-urteak pasa zituzten. 12 anai-arreba ziren. Artoa, garia, arbia, etab. egiten zituzten eta behiak eta idiak zituzten etxean. Behi-esnea esne saltzaile batek erosten zien. Txahalen salmentatik ateratzen zuten etxerako diru apurra.

Transkripzioa

- Eta, ordun, han bizi izandu ziñen hamaika urtera arte?
- Hamaika urtera arte. Geo ordun neskame jun nitzen.
- Eta ze bizi ziñeten han baserritik?
- Basarritik! Hoixe! Eta, gaiñera, urte haietan gosiak amorratzen! Ogiik ez zan, rasionamentu denborie! Buenoo! Neri ez zaidazu esan! Bizitzeko gogorra, e! Ta gu hamabi ume giñen.
- Hamabi ziñeten...
- Hamabi giñen. Eta gure amak hamahirugarrena hazi zuen, ama partotik jun zitzakolako, lehengusu bat.
- Eta basarrin zer zeuketzen, ganadue?
- Ganaue. Eta iten gendun laborie dana: artue, babie, garidxe... ta negu partien arbidxe. Hoiiek danak. Hortikintxe bizi giñen. Ta ganauekin.
- Ze ganau zeuketzen basarrin?
- Han egoten zien ordun bost behi, xei... hola. Ta ididxe, tratoreik ez zan ordun ta.
- Eta esne-behie [...] zenduen ?
- Bai, esne-behiyek egoten zien, lau-edo egoten zin. Bat edo bestelakua egoten zan, baiño esne-behiyek egoten zin eta esnie ataatzen zan.
- Ta esne hua saltzen zenduen?
- Bai, esne haura ataatzen zixon Gurelesa... Gurelesa ez ordun, Bidaniko bat ibili zan esne-biltzen ibiltzen zana, [Txapatero] esaten zidxoena ta harek eamaten zitun esniek.
- Ta diruik ateatzen zan esnetik?
- Gutxi, oso gutxi. Geo haiyen txahalak hazi eiten zien, ta haietxen diruekin, holaxe. Holaxe bizitzen giñen.
- Eta berdura-eta kalera saltzen zenduen?
- Ez, berdureik ez gendun saltzen. Mendiyan zan haure, e! Handiken Azpeitire jun ber zan ta beaje haundidxe, ordubete pasa. Ez gendun ataatzen berdureiken.

3.18. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k):** Aldai Eizagirre, Maria Hipolita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-018/022
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:30:40. **Bukatu:** 00:31:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

- **Laburpena:** Mutilek pilotan jolasten zuten eta neskak, tortoloxetan, kaniketan eta primeraketan ibiltzen ziren, besteak beste. Azken jolas hau zertan datzan azaltzen du. Mutilek libertate gehiago zuten; neskak, esaterako, ez ziren tabernara sartzen.

Transkripzioa

-Eta... neskak eta mutilek disziplina iguala jasotzen zenuen?

-Bai, harek berdin, danak berdin jotzen zittun harek. Harek begitten hartzen baldin bazun, ojo kristo!

-Baiño esan nahi det, eskola ta eskolatik kanpoa, neskak eta mutilek tratu iguala jasotzen zuen?

-Ba, ez. Mutilek pelotan ta guk zea, primeraketan. Harriye... primeraketan: arrastuk ein eta harriyekin txintxerriñien, hantxe, hartantxe. Ta geo tortoloxketan. Tortoloxak. Arkumik izeten dittu /izeteittu/ tortoloxak. Tortoloxketan, kanikaketan... ta hola.

-Baiño mutillek [zer zeuken]...?

-Mutillek pelotan

-Libertade gehio neskak baiño?

-Bai, bai. Hori bai. Mutillek libertade gehiyo.

-Zeatik neskak tarbenataa sartzen ´e ez zuen lagatzen ordun, ezta?

-Ez! neskaik tabernaa?

-Baiño mutillek bai?

-Mutillek bai, mutillek bai, eukitzen zebeñ jutie. Ta han tabernaik ez zan ta. Ezta... bueno. Errromeire ´re makina bat biderrez jun giñen, Goietza, Bidanire... ia ze beaje! Beizamaa, Nuarbea, Urrestillaa... hoiiek danetaa ibiltzen giñen. Zelatuna, Herrnixoa... danetaa ibiltzen giñen hoyetaa. Baiño tarbernie...

enataa sartzen ´e ez zuen lagatzen ordun, ezta?

-Ez! neskaik tabernaa?

-Baiño mutillek bai?

-Mutillek bai, mutillek bai, eukitzen zebeñ jutie. Ta han tabernaik ez zan ta. Ezta... bueno. Errromeire ´re makina bat biderrez jun giñen, Goietza, Bidanire... ia ze beaje! Beizamaa, Nuarbea, Urrestillaa... hoiiek danetaa ibiltzen giñen. Zelatuna, Herrnixoa... danetaa ibiltzen giñen hoyetaa. Baiño tarbernie...

3.19. Elosuko Korta baserrian jaioa

- **Hizlaria(k):** Lete Larrañaga , Elias

- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber

- **Erref:** AZK-019/001

- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:12

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** 1940an jaio zen Azkoitiko Elosu auzoko Korta baserrian. Gurasoak ere azkoitiarrak, aita Kortakoa bertakoa eta ama Etxesakortakoa.

Transkripzioa

-Hasteko, izena eta noiz jaio zinen.
-Izena, Elias Lete Larrañaga. Jaio, "cuatro de mayo del cuarenta".
-Kalean jaio?
-Baserrixan, Kortan. Korta baserrixan.
-Nun dago hori?
-Elusun.
-Eta betidanik han bizi izan zera?
-Bai, epoka baten eitten gendun astelejenetik ostirelera arte kalin egon. Baiñe gero ua aitte´re zaharra eta geizki ibiltzen zan gora ta behera, eta bost urte ia fijo bajau´re in be.
-Orain dela bost urte arte beti bertan.
-Lehen baserrixan eta gero urte batzuek almagazien hasi giñenien ba gora ta behera ibiltzen giñen. Astelehenetik ostirelera arte kalien eta gero aste bukaerie goixen.
-Gurasok baserrikoak?
-Gurasuek baserrikoak, bai, eta ama hil zala die, ez naiz ondo akordutzen. Ba... hogeta lau urte edo izengo dia.
-Kortakoa zein zen, aita.
-Aita. Eta ama Etxesakortakue.
-Elusukoa?
-Elusukue baita, bai.

3.20. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k):** Lete Larrañaga , Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-019/011
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:17:56. **Bukatu:** 00:18:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Iribar, Jesus
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Elosun frontoian pilotan, txorro-morroka eta "kaldeonka" jolasten zuten, besteak beste. Jolasen nondik norakoa azaltzen du. Gazte asko ziren auzoan.

Transkripzioa

-Eta ze jolas egiten zenituzten txikitan?
-Ba guk Elusun frontoie izeten zan gure zea, pelotan pixkat eta hantxe. Eta gero bestie txorro-morroka.
-Ze izeten zan hori?
-Bata bestien gaiñera salto eiñ eta txorro-morro-piko-kallo-kes kontau ta azpikuk "bale" esaten zunin aldein eta. Eta bestie izeten zan "galderonka" esaten giñun. Txi(ri)killa eta galderona izeten zan. Holako makilla bi mutur zorrotzekin, eskuen potoluaue, haure jo eta zeñek urrutixo bota.
-Elusun gazte asko zineten?
-Ordun bai. Garai hartan bai.

3.21. Martirietako Amusategi baserrian jaioa

- **Hizlaria(k):** Aramendi Aranberri, Blas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-020/001
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 1927an jaio zen Martirieta auzoko Amusategi baserrian. 12 senide ziren. Aita Amusatetikoa bertakoa zuen eta ama auzoko Arrieta Arraza baserrikoa. Amaren jaiotetxe ondoan lau baserri ziren eta haiek izendatzen ditu.

Transkripzioa

- ... ta noiz jaio ziñen esaten badiazu...
- Blas Aramendi.
- Ta ze urtetan jaio ziñan?
- "Trece de noviembre, 27".
- Eta hementxe bertan jaio ziñan, Amusategin bertan?
- Bai, hala esaten ziaten, hemen jaio nitzela. Ordun hala izaten zien. [Ni gogoratzen naiz..]. Zeatik kamiñurik-eta ez zeuen ta... Geo pasatzen zin okerrak ta klinikara emanda ´re bai, baiña gaurko konturik ez zan orduen. Orduen... haure esplikatzek ez dao hola bertan parin ikusi ez dunak... ez dao... Gu hamabi senide giñen, hamabi seme-alaba, sei mutil ta sei neska, ta bat jaio ta berehala hil zan.
- Ta gurasok hemengok? Amusategi bertakok?
- Gurasuek, aita hemengue zan; eta bestie zan hor gorao, Martitte (Martirieta) baiño, Arrieta Arraza, hor...
- Nola?
- Arrieta Arraza. "Arratsa" batzuk esaten [diue], Arraza. Oin pusku zan etxe hori eta txaleta dao einde batek eta bestie, bee pusketan zaharra, haure ´re zea inde, barritute dauke. Ta lau baserri zien: Arrieta Arraza bi bizitza, Arrieta Muno eta Arrieta Etxetxo bestia zien. Arrieta Arraza horkue zan nere ama, ta aita, berriz, hemen bertakua.

3.22. Pilotan eta "harriketan" jolasten zuten

- **Hizlaria(k):** Aramendi Aranberri, Blas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-020/005
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:07:27. **Bukatu:** 00:08:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Eskolatik irteteen mutilak pilotan eta neskak saltokako joko batean ("harriketan") jolasten zuten. Paperik ere ez zegoen garai hartan. Ogi beltza jaten zuten, etxean ekoizten zuten ogia ere kendu egiten zieten.

Transkripzioa

- Ta eskolatik ateatako garaien ze jolas eitten zittuzuen?
- Han bertan zan frontoi izeneko bat —hor badao, oin´e han dao hare— ta hantxe pelotan. Eta neskak, berriz, hola lurrien zea batzuk in, arra batzuk ein, harriketan esan ohi zien, hanka baten gaiñien da-da-da! aldauez. Hori jenealien izeten zan horko zea. Baloirik´e ez zeguen. Intenziyue bai baloiena, baiña ez zan. Batzuk... hor, hor ez gendun [ebaltzen]. Etxien, papelik´e ez zan orduen, gaur bezela nahi zendun soka klaserik ez zeuen. Gerrie, gerrie zeuen ta egon zan, ba, ze esango dizut? Hamabost urte pasau giñuzen guk ogiye nahikue jan be. Ogi beltza, e! Hori, zea, "pan integral" esaten zakon tankera hortakue, ogi beltza. Ta geu ekoizleak edo, zea, produktorek geu izen, garie etxien eitten genduen eta [puskat] kendu itten ziguen. Eta itxura antzin jan ber genduna, ba... Ogiye´re hamabost urte pasau giñuzen ogiye, ogi beltza nahikue jan be. Eta gaiñontzeko [...] ordun eta lehen esan deana, ba, pelotan jarduten zan. Baloie eitteko, papelakin baloie eitteko´re papelik ez zan ta gaur bezelako soka... Gaur nahi dezun lodierako sokak dauzketzu gaur, ta mehie nahi badezu, lodiye nahi baldin badezu, nahi bezelako... Baloirik´e ez genduen. Baloirik sekule ez guk fubolin nahi [bagendun]...

3.23. 1923an Azkoitiko Irisarri baserrian jaioa

- **Hizlaria(k)**: Osinalde Arrizabalaga, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-022/001
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: 1923an jaio zen Azkoitiko Martirieta auzoko Irisarri baserrian. Ama Irisarrikoa bertakoa eta aita auzo bereko Urteaga ("Urtia") baserrikoa zituen.

Transkripzioa

-Hasteko, izena, abizena eta noiz jaio zinen esaten badidazu.
-Jose Osinalde Arrizabalaga. [...]
-Ze urtetan jaio zinen?
-Veintitres, noviembre. El año veintitres. Mil novecientas veintitresin jaio, eta nobienbrin hoeitahirun.
-Eta bizi?
-Bizi beti baserriyan, Irisarri baserriyan. Hantxe jaio nintzen eta oiñ arte han nago.
-Gurasoak nongoak zenezkan, Irisarrikoak bertakoak?
-Ama bai, aitte kanpokue, Urtiaga baserrikue.
-Urtiaga non dago?
-Martirittatik behera.

3.24. Pilotan, harrapaketan eta "zapoketan" jolasean

- **Hizlaria(k)**: Osinalde Arrizabalaga, Jose

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-022/006
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:05:27. **Bukatu**: 00:06:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Mutilak pilotan eta neskak harrapaketan jolasten zuten; "zapoketan" ere ibiltzen ziren. Ez zuten jolaserako astirik izaten, etxean zain izaten baitzituzten lanerako.

Transkripzioa

-Eta eskolatikan ateratako garaian zer jolas itten ziñuzuen?
 -Mutillek pelotan jeneralien eta, neskak harrapaketan hamen plazan kanpuen ibiltzen zien, hamentxe bertan, eta mutillek hor elizpien pelotan edo.
 -() Etxian [...] "eskolatik ertendakun auro etorri hai ittula juteko!"
 -Bestela zer jolas izaten zien, izaten zien tabakin o jolasak o zeozer?
 -Ez naiz akordatzen. Beste bat "Zapoketan" esaten zitzekona, korron hola jarri te, han batek jo bat eta gero harek ihesi jun, haure harrapau te, holakotxe zera batzuk. Hamen beste [...] gure denboran, o jolasik...
 -Zer egiten zenuten, eskolatik atera eta etxera lanera.
 -Etxera jun ber ba segittun, etxien zain egoten zien ta. Eskolatiken ertendakuen bakarrik ez, baitte mezetatik ertendakuen ´e zuzenien juten zan hamen jendie etxea, ordun tabernan ez zeon geratu beharrik.

3.25. Baserritarrak kaletarrak baino aberatsagoak gose-urteetan

- **Hizlaria(k)**: Osinalde Arrizabalaga, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-022/011
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:12:12. **Bukatu**: 00:13:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena**: Goserik ez zuten sekula pasa etxean, kaletarrak baino aberatsagoak ziren baserritarrak. Kaletarrak terreno puskek erosten aritzen ziren garia landatzeko.

Transkripzioa

-Esan dezu gerra-denbora pasatu zenuela; goseik pasatu zenuen?
 -Ez, hori fanfarreie jotzie izengo da, baiñe gurien gurien goseik ez zan izen; gurien patatie edo ogie edo ardi zaharra nahikua egoten zan, goseik ez behintzet. Kalien zihero geizki orduen, kalien ez zeon jatekoik, eta diruik ez batetik eta jatekoik ez bestetik.
 -Esan leike orduan baserritarrak aberatsagoak ziñetela kaletarrak baino?
 -Ferira eta danera jun eta kolorien ezautzen zan baserritarra zan ala kalekue zan.
 Beste gizona: Kalekuek baiño euzki gehitxuau hartuta.
 -Euzkiagatiken bakarrik ez, bestela ´re [...] mixerable pasau zun ordun kaleko jendiek.
 Beste gizona: Kaleko jendie batzun batzuk patatie ereitten ibili zan.

-Bai, geurien´e sail galantak erein zittuen. Nik hoiiek ondo akordatzen nauk. Hiru urte edo eman giñuen, aittek terrenua, patatie edo nahi zana eitteko. Eta bi urtetan edo ein zen patatia, eta hurrenguen garia in zen, gero orduko ia gauzie mejorau zan ta gariyek eta danak lagata alde ein zen.

3.26. Azkoitian jaioa 1932an

- **Hizlaria(k):** Juaristi Alberdi, Luxiano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-023/001
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Azkoitian jaio zen 1932an. Gurasoak ere azkoitiarrak zituen, ama kaletarra eta aitaren aldekoak baserrikoak. Bost anai-arrebako familia zuen.

Transkripzioa

-Hasteko, izena, abizena eta noiz jaio zinen esaten badidazu?
-Luciano Juaristi Alberdi. Diecinueve de diciembre del treinta y dos.
-Eta nun jaio zinen?
-Azkoittin.
-Kalean?
-Bai.
-Kaletarra zera?
-Kaletarrak gera.
-Hementxe bertan?
-Ez, beste etxe baten jaixo giñen, aitte ta ama bizi zien tokixan.
-Nungoak ziren, azkoitiarrak?
-Aitte ta ama azkoitiarrak.
-Kalekoak?
-Ama kalekoa zan eta aitte berriz, aitte´re kalien jaixotakua, baiñe gure aittitte zan basarritik etorritakua. Basarrixen bizi zien eta handik etorri zien kalera.
-Eta zenbat senide ziñeten?
-Ba gu giñen bi arreba eta hiru anai.

3.27. Anaiarekin bikote modura pilotan

- **Hizlaria(k):** Juaristi Alberdi, Luxiano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-023/006
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:08:39. **Bukatu:** 00:12:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Aisia » Kirola » Pilota

- **Laburpena:** Arboladi batean elkartu ohi zen lagunekin. Pilotan jokatzen zuten gehienek. Luxianoren osabak eta aita pilotan ibiliak ziren. Osaben aipamena egiten du. Kontsejupean, elizpean eta halakoetan aritzen ziren pilotan. Ez zuten maisurik izan. Luxianoren anaia batek afizionatu modura jokatzen zuen eta txapelketa batean Luxiano eraman zuen bikote modura; orduan atera zen plazara.

Transkripzioa

-Lagun koadrillarik bazenuen jolaserako?

-Bai, bai. Lagunek baginuzen, bai. Lagunek oso lagun haundiek ginuen eta. Geinera zeoze genuen, dana jatekue izeten zan ordun, danak e, baten bat izengo zan lagun bat hobetxuau bizi zana, baiña bestela gehixegi bete bee (gabe) ibiltzen ginuen jaten, ta ordun zeoze baldin bazan, ba lagunek, e, geuk tortillie ein edo zeoze ein, baiña ertenda, parkia esaten zigon hamen, bazan arbolategi bat eta hara jun eta, gaztaiñerriek hurrungo ta hola ibiltzen ginuen.

-Ze zer jolas egiten zenuen lagunekin?

-Ba guk pelotarako genun afizixue pixket eta hortxe ibiltzen ginuen, pelotie zan gure zera; fubolien ibilliko ginuen pixket baiña. Gehixena pelotan ibiltzen ginuen, eta geinera herri hontan saso hoixetan eta jentie gehixena pelotan ibiltzen zan. Fubolien ere bai baiña pelotan gehixen.

-Nola hasi zinen zu pelotan?

-Hasi..., hauxe eitten zan hamen eta halaxe ekin ginun.

-Baina etxean bazenuen baten bat pelotaria?

-A bai! Osabak. Eta aitte´re bai. Aitte´re, nik ez nun pelotan eta ezautu, baiñe ezkondu aurretik pelotan Eibarren eta jokatzen ekin zizona, baiñe etzan izengo punte-puntekue eta orduen bizimodue etartzeko lana ein ber eta gero pelotiai laga ein zizon lana eitteko. Baiña osabak eta beti pelotan ezautu ta. Geinera osaba izen zan onena, oso ona. Bat ona, Hirugarrena (III), et bestiek´e Setimo (VII) ta, Cuarto (IV) ta, Segundo (II) ta onak, oso onak. Asko.

-Eta non egiten zenuten pelotan?

-Pelotan? Edozein lekutan. Kontzejupin gehixena, Kontzejupe hori zan oso politte, baiñe orduen e libre baldin bazegon eta zeuk nahi baziñun pelotan mutilkoskorak eta, haundixauak etortzen zienin fuera!, eta bialtzen ginuzen, eta orduen ba beste leku batera. Baiña baitte, elizako pareta bat bazan gure etxe aurrin, eta han´e bai. Edozein lekutan eitten zan pelotan.

-Eta maisurik bazenuten?

-Ez.

-Ez zen? Zeuen kasa.

-Bai, geure kasa.

-Eta noiz hasi zinen pelotan partiduak jokatzen, serio.

-Serixo, neu nintzen oso mutil txikixe nintzen, oso txikixe. Orduen pelotan poliki eitten nula esaten emen tzeben, baiñe anaiek eta jokatzen zeben pelotan, eta geinera afizionau jokatzen zun batek, eta bere, zaharrena zan anaixe, eta bere lagune zun ordun Zumarrako bat, Santz edo esaten zixoena, eta kanpeonatun Legazpin ai zien jokatzen, eta orduen gaixotu zaniien haure, anaiek neu hartu ta eaman nittun hara. Eztakit pa zenbat urte eukiko nittun, hemezortzin bat edo, holakon bat edo. Eta ordun han kanpeon erten genun.

3.28. Pilota enpresak

- **Hizlaria(k):** Juaristi Alberdi, Luxiano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-023/012
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:26:05. **Bukatu:** 00:29:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Luxiano Frantziara eta hainbat lekutara joaten zen pilotara eta enpresak bila joan zitzaizkion. Enpresetako partaide garrantzitsu batzuk aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Eta batzuk sartu zin enpresatara. Enpresatara sartu zien ta; eta neri ez zizten etorri ordun momento hartan, baiñe nik bastante kanpo haundixe neuken, Frantzire juten nintzen, eta hamen herri askotan festatan-eta jokutzen nun, eta ordun ba anaiekin eta nebillen eta neuk artien ez nun pentsatzen pelotan asko eitten nunik, neuk banekixen zenbat eitten nuen, eta baneuken kanpo bat ona ta ordun ez nintzen atrebitzen enpresetaa juten. Enpresak ekin zien: "Benga, etorri ein ber dek eta, etorri ein ber dek eta!". Ez nintzen... Gero eskutik geizki ibiltzen nintzen beti, beti miñez eta geizki ibiltzen nintzen eta. Hango pelotak gogorrouek eta gauze danak eta. Ba ez nintzen atrebitzen juten. Baiñe urtiek pasa ta, urtiek pasa ta, urtiek pasa ta, ni konforme nebillen neure martxa hartan, eta egun batin, gero berak esan ziaben, ba enpresak etorri zizten baten baiño gehixotan abixuke "indirectamente", baiñe ez nintzen juten. Eta orduen batin, gero berak esan zien ze pasau zan, jokau nun Panplonan partidu bat bi-bittera, hamengo lagun batekin. Titin honen aitte eta Nalda, beste bat, eta pelotan ondo eitten zeuben, eta han zeuen partido hori organizatzen eta Eiberko bat, Berrondo, ta hori zan enpresan da [eta] laguna, Eiberko Bidartena eta hoixena, eta orduen han partidua jokau nunin, harek abixau zixuela, berak esan zien, "joño! Ze eitten dezute mutil hori hartu be" edo hola, baiñe ordun urtietan aurrera nijun, ia baneuzken, hogeta zazpi urte pasaute neuzken, hogeta zortzire nijun, eta abixau zien bi enpresa etorriko ziela, Alberto Bidarte eta Joxe Mari Ugarte, Bergarakue zan bat eta bestia Eibarkua, "Empresas Unidas" zin, eta haixetakuek zin. Hoixek zin gehixen agintzen zeбенak.

-Zer izen zuen?

-"Empresas Unidas" zan, orduen zan, Bittorixen zan bat, bestie zeon Donostixen, Dublang, Efisio (Alty) Bittorixen, ta Ugarte Bergaran eta Eibarren Bidarte. Eta orduen abixau zien nerekin egon nahi zebela eta osabakin ia jungo nintzen bazkei bat eittea hamen, etorriko ziela Azkoittira ta. Pentsau nun, ba, bakarrik jungo nauk. Hala jun nintzen, baiñe ez nun pentsaute ez nintzen jun ba ingo nunik tratuik eta ingo nunik ez nun pentsau´re ein. Ba aittuko zabet eta. Hala jun giñen eta bazkaien ai giñen, eta bueno, "gureana etorri ber dek", eta "ez, ez", nik planteau nixon ze problema izeteko ikusten nittun neuk neure burukin, eta ez nijula arrixkatzera neuken kanpo hori, hara jun eta gero bate´e be gerau neikela dana galtzeko ta. Ezetzera ni, eta haixek "bai, etorri ein ber dek" eta. "Ez" eta. Esan zien atzenien ba. "Ze irabazten dek pa, urtien ze irabazten dek?", eta. Nik esan nixon ba, ez nekixen ze irabazten nun arrastoik.

3.29. Eskolan lehenbizi Mixerikordian eta ondoren Floreagan

- **Hizlaria(k):** Alberdi Arizmendi, Carmelo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-025/001
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Azkoitiko Altzibar auzoan jaio zen 1926an. Gurasoak ere kaletarrak zituen. Mixerikordian ikasi zuen bi urtez, eta, jaunartzea egin ondoren, Floreagako eskolara joan zen, La Salleko fraideen eskolara. Gerra denboran, eskola ospitale bihurtu eta udaletxera pasa zituzten. Apaizek ematen zieten eskola, eta hiletaren bat zegonean eskolatik jai izaten zuten.

Transkripzioa

- Izena ta abizena ta noiz jaio ziñen esaten badiazu...
- Bai. Izena Karmelo ta abizena Alberdi Arizmendi.
- Arizmendi.
- Alberdi Arizmendi.
- Ta noiz jaio ziñen?
- Hamentxe. Hamentxe. Esan detana, konbentu horren onduen zan etxe bat, etxe txiki bat zan, ta haintxe jaixota nao ni.
- Hemen, Altzibarren.
- Bai.
- Ta ze urtetan?
- 1926. 26. Febrerun hamalauen.
- Ta ordun beti kalen bizi izandu zea?
- Bai, hamentxe. Hamentxe.
- Guasok kaletarrak zeuzkezun?
- Bai, kaletarrak zien; aitte Carlos ta ama Juana.
- Eta umetan eskolaa nora jun ziñen?
- Ni txiki-txikitten... Mixerikordixe esaten zitzeke ordun, Karidadeko mojak zeukeben eskolia. Eta haixek itten zebe nola mutil ala neska hartzen zittuen. Baiñe gero mutillek, behin lehenengo komunixue -jaunartzie-eitten zanetiken, haixek erten itten zebe eta gelditzen zin handiken aurrera neskakin bakarriken. Oseake, lehenengo urte bat edo bi edo in nittuen han in nittun. Gero komunixue in nuenien, ordun izen zan, klaro, epoka txarra belaxe etorri zan gerrikin ta zeakin, ta hamen Floreagako eskolak -eztakit aittute zauren- ta hori, haure, ein berrixe zan ordun, jaso berrixe, ta hara etorri zien lehenengo-lehenengo "Doctrina Cristiana"-ko hermanuek, La Sallekuek. Eta gero egon zin haixek 37 arte edo eztaikit... ez, 36xen eo holakon baten eo alde in zebe haixek. Eta haixek alde in eta gero, gerra-denporie nola zeuen, orduen frentie Eibarren zeuen gerrako frentie, eta kolegixo hori ein zebe "Hospital de sangre" ipini zebe. Oseake, hango herittuk eta zer danak horra etortzen zien.
- Floreagako eskolaa hoi?
- Floreagako eskola hortaa. Ta gu geunden eskola be. Geo herriko apaizek hasi zien eskolie ematen-ta. Aiuntamentun goiko zerin, pisuen, han ematen ziguen eskolia. Baiña orduen entierruk-eta goiz partetiken izeten zien -ez oin bezela illuntzien- eta, jakiña, entierron bat portunutzen zaniene, haixek entierroa jun ber izeten zebe apaizek ta gu gelditzen giñen eskola be. Gu kalien. Eta hola pasau zan denporia.

3.30. Gaintza baserrian jaioa; umetatik baserrian lanean

- **Hizlaria(k):** Zabala Zabala, Manuela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-029/001
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Azkoitiko Gaintza baserrian jaio zen. Ama Gaintzakoa eta aita Elgoibarko Aizti Haundi baserrikoa zituen. Sei ahizpa eta anaia zituen. Aita hil zenean 12 urte zituen eta berak hartu behar izan zuen baserriko lanetan aitaren kargua, anaiak lantegian baitzebiltzan lanean.

Transkripzioa

- Bueno, hasteko, izena ta apellidue ta nun jaio ziñen esaten badiazu...
- Nik ez dakit ze urtetan jaiotakue naizen. Izen-apelliduk esango itzut: Manuela Zabala Zabala.
- Zabala Zabala?
- Bai.
- Ta ze jaio ziñen, hemen bertan? Klara donean?
- Ez! Basarrixen. Atzo esan zizun, ba, Gaintzen jaiotakue nitzela ta? Hantxe.
- Gaintzan?
- Bai.
- Nun dao Gaintza?
- Nundik esango dizut, ba? Izarraitz... Azuletiken gora juten da. Leheno Azule hor zaon, ba? Handiken gora.
- Azkoitin...?
- Bai! Azkoittixen.
- Eta gurasok e basarrikok zittuzun?
- Bai, bertakua ama ta aitte... ez dakit nungue izango zan, Elgoibarkue edo. Bai.
- Alaba: Hare re basarrixen izena... Basarrixen izena...
- Aizti Haundi.
- Aizti Haundikoa?
- Bai.
- Eta basarritik bizi ziñeten?
- Gu bai, baiño bi ahizpe zabilten Intxaustin lanin.
- Zenbat anai-arreba ziñeten?
- Sei ahizpe ta anaixe: zazpi.
- Eta [anai-arrebak tailerren] eta zuek basarrin lanen?
- Anaixe han basarrixen. Ahizpe bi, bi ahizpe Intxaustin.
- Eta zu zeorri basarrin ?
- Ni basarrin, bai. Aitte hil zan nik 12 urte nittula, eta haren tokirako ni.

3.31. Madariagako auzoko abade etxean jaioa

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Artetxe, Jacinta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-031/002
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: 1914an jaio zen Madariaga auzoko abade etxean. Aita Madariagako Benta Zahar baserrikoa eta ama Azkoitiko Mikoleta Handikoa zituen. Aita eskolako irakasle zen Madariagan.

Transkripzioa

- Bueno, hasteko, izena ta apellidue...
- Ni Jacinta Garmendia naiz.
- Jacinta Garmendia?
- Garmendia.
- Ta bigarrena?
- Art...

- Artetxe?
 - Ez, Martija Artetxe.
 - Eta noiz jaio ziñan?
 - Ni "14 de Enero", hamalauen, zerian.
 - Eta ze urtetan? Akordatzen zea ze urtetan?
 - Catorcen, hoixe, catorcen jaio nitzen ni.
 - Nik uste (d)et... Ez dakit, ez dakit. Urtea 1914? Bai? 1914?
 - Bai.
 - Eta nun jaio ziñen, hemen, Azkoitin?
 - Maarixan bertan.
 - Madarixan?
 - Bai.
 - Basarrin baten eo hola?
 - Ez, ni naiz... Marixan dao Abadetxia, abariintzat in zebeu etxia, obispauko etxia. Taberna eon dan hori, oin taberna dan hori, zeuen orduen zea, Abadetxia ta Abaretzien, ba, beti egoten zan sakristaue, abadie nola etortzen zan mezie ematea eta Marixako San Ixidro esaten zixoen, San Ixidro zan bertako santuik haundiñe. Bai. Lau santu edo zeuren: San Antonixo ta Sagrada Familia ta... hola zeuren elizen.
 - Eta nolatan jaio ziñen, aitte o ama zan hangoa?
 - Ez, aitte jun zan, lehenengotiken aittek zer haundixek, gure aittek eskola ematen zun. Baiñe titulue ez zeuken, e! [Titularre] ez zan ailleau, baiñe lau reglak, lau zeak, ematen zittun. Hori...
 - Nun ematen zun, Madarixan?
 - Maarixan bertan. Eta erakutsi umiei, ba, eskola.
 - Eta berez nungoa zan aitte?
 - Bentazarkua.
 - Bentazar. Nungoa da hoi? Azkoitiko?
 - Azkoittiko Maarixako baillerako Bentazar.
 - Baserrie izango zan...
 - Basarrixen, ordun basarrixen.
 - Eta ama?
 - Ama, bere ama izengo zun...
 - Ez, zure ama. Zure ama nungoa zan?
 - Nere ama Mikoletakua, Azkoittiko Mikoletakua. Mikoleta txiki ta Mikoleta haundi zien, ta nere ama zan Mikoleta txikikue. Ez, aldrebes, haundikue.
 - Mikoleta haundikoa zan zure ama?
 - Bai.

3.32. Aita Madrilgo etxe aberats batean morroi

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Artetxe, Jacinta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-031/003
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:02:55. **Bukatu**: 00:04:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Umetan, aita Madrilgo etxe aberats batera morroi joan beharra izan zuen, ama alargun zuela. 12 anai-arrebako familia zuen Jacintak; bi hil egin ziren jaio berritan.

Transkripzioa

- Eta nolatan Maarixara? Eskola ematen zulako jun zien haruntza bizitzea o... ?

- Ez, lehenengotiken jun zien, nere aitte jun zan -ama alarguna zeuken, ta-jun zan zeara, esto... Madridera, mutil gaztie. Alargune ama ta mutil gaztie jun zan [Macron] esaten zixoen etxe aberats batea jun zan, morroe bezela. Bai.

- Morroi jun zan?

- Bai. Harena periodikue ta dana ataata daude aittenak.

- A, bai?

- Bai, periodikun etorri zan, bearek in zun bizimodukin ta danakin. Ta, ze esango dizut, ba, geroko...

- Ta zenbat anai-arreba ziñeten?

- Gu beratzi.

- Beatzi? Amak lan pixkat hartu zun ordun!

- Bueno, izetex hamabi gea, e! Xei pareja gea, xei mutil ta xei neska. Oin, jaixoberrixek hil zien umiek, e! Bat beratzi hillebetekue hil zan. Haure bai. Harek beratzi hillebete zittula, ya muti... umie hazten ai zala. Ta ama hil zan oso azkar, berrogeta bi urtekin, gazterik oso. Flebitisa harrapau zuen ta...

3.33. Gurasoek Madrilen lanean ezagutu zuten elkar

- **Hizlaria(k):** Garmendia Artetxe, Jacinta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-031/005
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:07:00. **Bukatu:** 00:09:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Aita eta ama biak Madrilen lanean zeudela nola ezagutu ziren eta beraien nagusien inguruko kontuak azaltzen ditu. Madrildik bueltatu zirenean aita Madariagan irakasle hasi zeneko kontuak.

Transkripzioa

- Madridea jun zan, Madridea jun zan ta han ezautu zun Mikoletako alaba. Ta ezautu zebe alkar, etxe batera jun zin ta, gure aitte hango morroe bezela, kriaue bezela, etxe hartan. Oso etxe haundixe zan haure, [Macron] esaten zixoen.

- Ta zure ama han zeon lanen neskame o holakon bat?

- Nere ama ´re jun zan etxe hartaa bertaa. Han azkoittiarra dana nahi izeten zebe. Ta ni naiz Jacinta ta nere ama Mikoletakue zan Jacinta. Jacinta harek hazi zuen etxe haundi hortako, [Macron]-go, semie.

- Eta zer zien, zer zeukean kargu inportanten bat o [Macron] hortako jabe?

- Ez, hara umie haztea jun zan.

- Baiña bertako Macrongo jabe zer zien aberatsen batzuk o...?

- "Inmensamente" aberatsak. Espaiñin hiru o lau esaten zebe horrenbeste aberats izengo ziela.

- Zer zien, nausin batzuk lantegin batekok o...?

- Ez, bestela. Diru... oso aberatsak zien, terreno ta etxe ta... ze ez zeukeben haixek! Madrident behetik goraiñoko etxiek, asko. Asko.

- Ordun, suerteko tokatu zien zure aitte ta ama, toki onea...
 - Toki onea jun zin. Eta gero alkarrekin enamorau zien han bertan etxe barrun, ta ordun in zeben hona etorri eta hemen ezkondu. Ta hamen ezkondata bizi ziela, nere aitte sartu zan lehenengotiken fabriken, baiñe fabrike ez zikon gustatzen.
 - Nun sartu zan, ze fabrikatan?
 - Bizkargin uste det ba sartu zala. Ta...
 - Ez zitzaion gustatzen...
 - Ez, ez zikon gustatzen. Klaro, han urte asko in zittun ta...
 - Ya ohittuta lan hartaa.
 - Bai, ta harek ikusten zun, ba, hango ambiente haure ba, oso galdue billatzen zun. Ta, ez, nik zeozer... [ze zan] ta zeuen Maarixan ordun neu bizi izan nitzen etxe hortan, Maarixako Abadetxe hortan, beste bat zeuen. Azkoittiarra zan beaure, Estraakua. Eta Estraako horrek ematen zuen, gure aittek bezelaxe, sakristau ta hango jirie eitten zun, nere aittek itten zun bezela. Ta, geo, hola.

3.34. 11 urterekin ama hil eta Madrilera bizitzera

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Artetxe, Jacinta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-031/006
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:09:40. **Bukatu**: 00:11:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Jacintari 11 urterekin hil zitzaion ama eta Madrilen lanean ari zen izeba batek bere etxera eraman zuen. Urtebete egin ostean etxera bueltatu zuten, aita hala eskatuta.

Transkripzioa

- Eta zu zeorri eskolan nun ibili ziñen? Madarixan?
 - Nik neuk ikixi nuna bakarriken etxekua, nik eskola gehixo ez det hartu, zeatiken hamaika urte in nittunien, ama hil. Ama hil zanien nik hamaika urte bakarrik. Eta, orduen, Madriden neuken tia, beste ahizpe bat, Macrongo etxe hortan neskame, neskame zeuena. Bi´re baneuzken, bi tia. Tia haixetako batek esan zixon aittei, nola geratu giñen ume txikixekin eta beratzi umekin nola geratu zan aitte —beratzi zittun sano, natural zeudenak —,...

- Bai, eta etorri in zan honea tia?
 - Bai. Ta tiak eman nittun Madridea, bere etxea, urtebete baten bada´re ni han egongo nitzela. Edade txarriin. Baiñe Jacinta nitzen, hango umia hazi zunan biloba, ta geo hortiken buelta, ba...
 - Ta Madrideo kontuk akordatzen zea, han egon ziñeneko garaiek?
 - Bai. Geo berriz Madrid repetidu in nun berriz´e. Oseake, hogeta zazpi urtera allegau nitzenien... Lehenengotiken hango urtie pasau nunien etorri nitzen etxera. Aittek ez zun nahi bere umeik kanpun, danak etxeatu. Bai. "Bueno, ein dezu urtie" ta ume txikixe hazi arte... Ume txikixe, jaixoberrixe, ezin ba [...] etxien, ez zan hazten, ta eman zeben umie zeara...
 - Madridea.
 - Ez, hona, Kamiñeroko hor etxe baten hazi zan.
 - A! Atzea buletan esaten dezu...

- Ume txikiñe, jaixoberrixe geratu zan ta. Umeik ez zan hazten bularrik be, ta haure hola hartu zebeñ.

3.35. Eskolara Aizpurutxora

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Epelde, Jose Ignacio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-032/003
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:04:20. **Bukatu:** 00:06:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Zazpi anai-arreba ziren familian, Inazio gazteena. Eskolan Aizpurutxon ibili zen zazpi urterekin hasita; apaiz bat zuen irakasle.

Transkripzioa

- Ta zuek zenbat anai-arreba ziñeten?
- Gu zazpi giñen ta bost bizi giñen geroko zerien. Bat hil zen zazpi urtekin hil emen zan, hirugarrena, eta nik eta anaie zaharrenak gendun hamasei urten aldia. Haure zaharrena ta ni gaztena. Eta gero, hare bat [...hil...] eta gero bestie hil emen zan. Nik ez nittun ezautu harek, ni gaztena nola nitzen...
- Zu ziñen gaztena?
- Ni gaztena.
- Eta hala [zea inda], bueno, kitto. Eta geo bost hazi giñen. Ta danak jun zien ta ni hemen nao.
- Ondo, gaiñea.
- Ja! Ondo, ondo...
- Sasoiko oaindik.
- Bai... Makiña bat nazkagarrikeri in det nik, e! Buoo... Suerte txarra izen det.
- Suerte txarra izan al dezu?
- Bai, esan leike. Eskolaik ez zien erakutsi.
- Hoi galdetu behar nizun. Eskolara nora jun ziñen zu?
- Aizpurutxon egoten zan abade bat eskoliakin.
- Abade batek erakusten zun?
- Abadiak ematen zuan eskolia. Ta beak [zeuzkenak]. Ta jenealien emakumie maittiao [izeten da], izeten zeate. Ta hari're maittiao neskak zittun. Ta nere edadeko neskak bazien bat edo bi edo, ta harek ondun hartu sillen ta leziyuek hartu ta harek [lanak] eitten zizkoen ta nolako azpiko gonie zeuken ikusten ta gu [mutil...] begire egoten giñen.
- Honbre, entretenimentue nunbaiten behar...
- Entretienidu bai gu...? Artien ze, ba? Zazpi urte, sei edo zortzi urte edo ta... Eskolie ez gendun ikisten, baiña haretxei begire.
- Zenbat urtekin hasi ziñen zazpikin eskolara?
- Bai zea! Ni eskolara lehelengo bialdu niñueneko zazpi urte eukiko nittun. Ta bittartien batez, "Aitte gurie" ta erakusten zizten amak eta.

3.36. 1949an jaioa Martirietako Otsalarre baserrian

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Mendiola, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-034/001
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 1949an jaio zen Azkoitiko Martirieta auzoko Otsalarre baserrian. Ama Belauntzatik Kukuerriko "Agarregoikoa" baserrira joan zen bere familiarekin bizitzera eta handik Otsalarrera. Aita Martirietako Zendoia baserrikoa zen.

Transkripzioa

-Hasteko izena eta apelliduak esaten badidazu.

-Luis Maria Zubizarreta Mendiola.

-Eta ze urtetan jaio zifnen?

-Berrogeita beratzien, "cuarenta y nueve".

-Hilabetea eta eguna?

-Dies de agosto, agostun hamarren.

-Hemen Otsalarre baserrian jaio zinen?

-Bai, bertan, bertan jaio nintzen.

-Zer zenituen, gurasoak hemengoak?

-Ez. Gurasuek nittun ama..., Tolosako herentzikuek gea gu, guk Tolosako euskerie dauku. Gure ama-ta etorri zien familiye Tolosatik Kukuarriko Agarregoikora basarrire, ta uste'et gure ama zan senideetan gaztiena, eta haure ez tdkit jaiota segittun edo Kukuarran jaiyo zan. Berak ez zun garbi, duda eitten zun. Liburu bat badakau, familiko danak hamen baillarako danak atara zebeñ, eta ipintze'u Tolosan jaiyua dala, baiña berak esaten zun hemen jaiotakue ete zan. Belauntzako razie gea gu; eta aitte gendun Zendoiakue. Martirittako Zendoiakue aitte. Hoiiek etorri zien Kukuarrittik, Kukuarriko Agarregoikotik etorri zien Otsalarrera, eta Otsalarrekuk jun zien Mendizabalera bizitzera. Bat hona etorri eta bestiak hemendik alde ein zebeñ.

-Kukuarriko Mendizabalera?

-Ez, Martirittako Mendizabalera. Martirittako Mendizabalgoo fraillien eta bestekuek, aitte zana zan hemen jaiotakua. Hemen jaiotakuak zien haiek. Haiek alde ein zebeñ Mendizabal hartute, eta gero etorri zien gure ama zana ta ba honea etorri zien bizitzea. Hau baserrie ez zan, e. Haiek esaten zebenez, txabola zahar bat. Baiña orduan halaxe zan gauzie. Eta hola funtzionatzen zun.

-Zenbat anai-arreba?

-Gu zortzi. Hamar emen giñen; bixkia hil ein emen tzan, jaiota edo, ni baiño zaharrauk zien eta nik ez nittun ezautu. Ez nittun ezautu. Baiña nik beti ezautu dittutenak zortzi gea, zazpi anai eta arreba bat. Gero, anai-arrebak, bixkiek, hil eiñ emen zien. Hala konta ziguen guri.

3.37. Umetako jolasak pilota edo "zapoketa"

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Mendiola, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber

- **Erref:** AZK-034/008
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:13:30. **Bukatu:** 00:15:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Aisia » Kirola » Pilota
Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- **Laburpena:** Umetan pilotan aritzen ziren frontoian eta baita "zapoketan" edo ezkutaketan ere. Garai hartan ez zen baloirik izaten eta korrika edo bolatokian boletan aritzen ziren. 40 baserri inguru ziren Martirieta auzoan.

Transkripzioa

-Eta zer jolas egiten zenuten?

-Orduan ibiltzen giñen korrika, orduan baloirik-eta ez zan. Pelotan eitteko bazan holako zera txiki bat, frontoe moduko txiki bat, eta han pelotiikin-te, hola pasatzen giñen. Pelotan eo bestela korrikan-ta; zeatan'e, hola zapoketan edo itxuketan edo ixkutaketan-edo, nola esaten da hori?

-Zapoketan zeri esaten zenioten?

-Zapoketan, itxuketie, zapoketie hemen esaten zitzakon gure gazte-denporan, asko zan esaera hori, ixkutaketan edo oin nola esaten zako; izkuta ta gero billatzen eta hola ibiltzen giñen. Zapoketie zan (nagusiye) gure ume garayen.

-Eta kanikak-edo?

-Kanikaik eta ez, guk ez gendun hortakoik.

-Eta puxtarririk eta tabarik-eta ere ez?

-Ez, ez. Eta jaitan'e juntatzen giñan hemen goiko baserrietako geure lagunek, hor auzuan bazan bolatoki txiki bat, umientzako motx bat bola txiki batekin eta han boletan-ta pasatzen gendun jai atsaldie. Aurrena biltzen giñen sei-zortzi lagun edo hemen goiko baserrikuek, hantxe boletan-ta, hola pasatzen gendun jaia, jai atsaldia.

-Baserri asko dira hemen Martirittan?

-Ez dakit, ez dakit hori xeguru esateko, baiñe, berrogei bat baserri-edo izengo die, edo gehio iguel. Ez dakit, momentuan ez dittut, baiña bai, bai. Bai, berrogei bat izengo zien.

3.38. Asterako ogia aitak egiten zuen

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Mendiola, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-034/010
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:19:25. **Bukatu:** 00:22:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Aita Landakanda okindegian ibili zen okin lanean gaztetan. Etxean aitak egiten zuen ogia astean behin. Ogia nola egiten zen azaltzen du.

Transkripzioa

-Gurasoak etxetik kanpora lan egiten zuten?

-Ez, etxian, etxian. Gaztetan gure aitte-zana panaderue zan, Landakandan, Landakandako panaderue zan gure aitte-zana. Gaztetan. Eta baserriyen ogiye berak eitten zun. Ogiye eitten zun, garbi esango dizut -itxekua famatzia ez da gehiegi ona izeten-, baiña edarra ogiye eitten zun. Baserriko ogiye eitten zun. Bai, aldien bi. Haure ikisittako, baakizu, gurien hola ogi biribille eitten zan.

-Molderen batzuk egoten ziren?

-Ezta ezerre, harek ez zun molde beharrik sekula. Eitten zun masie, masa haundiya, hori baakizu, famili haundiya ta ogiye azkar gastatzen zan. Masa haundi bat eitten zun, eta harek kutxilluakin da! puxketie, baakizu nola masia ebaitzen dan. Bi puxketa hartzen zun eta bi eskukin bana, dra-dra-dra, eta tak!, tirau..., jata kolpien-da. Ertetzen ziyon ogiye? Ni harrittute egoten nintzen harekin. Harrittute. Eta sekule pixau biharrik ez masa puxketa hori. Baiña ogiye danak iguala.

-Zer egiten zuen asterako?

-Asterako, asterako. Oiñ'e asterako eitten deu.

-Eta zer izaten zen, oraingo baserriko ogiaren...

-Bai, bai, igual-iguala. Oingo basarriko ogi konpleto-konpletue.

-Sulaberik bazenuten?

-Bai.

- Labesue?

-Bai, labesua; harek jeneralien eitten zun ba ostirela. Gero baakizu aste bukaeran ogi bigune izeteagatik edo. Ostirelan-edo hola eitten zan jeneralin.

-Labesua nolakoa izaten zen?

-Nola labesue? Zuk labie badaukazu, sartzen dezu egurre, egin behar izeten du bere tenperaturan berotu. Ogiye ondo erre behar badezu, tenperaturie zaittu beharrekue da oso. Eta harek, ba al dakizu, haren bertasune neurtzeko ze izeten zan? Tak!, eskua sartzen zun aurreko zulo hartan eta, "ba!, ointxe zeok puntuan", esaten zun. Harek antz ematen zion ba hari! Ordun ez zan beste zeraik, beste aparatoik ez zan ordun, eskuukin. Ta makiña bat aldiz bai, eta egurrek erre berri samar eta, "Ez, berogi zeok oindik!"

-Egurra baten bat espeziala behar izaten zen edo edozeinekin ondo?

-Ez, ez. Egurre garbiye, garbiye izen deilla, pago-egurre edo haitz-egurre edo lokesea, baiña garbiya. Eta harek eitten zun beti, labesue ateratzen zunin, labia egurrez bete. Berue nola egoten dan, gero igar-igar-igarra jartzen zan ba egur haure. Igartu eitte'u beruuk. Eta gero su ematen zionin askoz'e errezo erre ta gehio berotzen zun.

3.39. 1938an jaioa Olasoko Kalparsoro baserrian

- **Hizlaria(k):** Oteiza Azpitarte, Manuela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-036/002
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:00:14. **Bukatu:** 00:01:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** 1938an jaio zen Olaso auzoko Kalparsoro baserrian. Aita Kalparsorokoa bertakoa zuen eta ama Martirieta auzoko Agarre-zahar baserrikoa. Zortzi anai-arreba ziren.

Transkripzioa

- Izena eta abizena eta noiz jaio ziñen esaten badidazu?
- Manuela Oteiza Azpitarte.
- Ta noiz jaio ziñan?
- Eneruen hoeta hamarrin.
- Ze urtetan?
- Ez naiz akordutzen ointxe.
- Zenbat urte dazkatzu?
- Hirurogeta hamaika ein ber hil honen hogeta hamarrin.
- Eta nun jaio ziñan?
- Kalpartso(ro) basarriye hortxe dao auzun.
- Kalparsoro?
- Bai. Kalpartso.
- Eta nun dago hori? Hemen Olason?
- Olaso, bai auzun, hortikaldien do.
- Eta zer zittuzun, gurasok horkok o?
- Aitte horkue, eta ama Martirittako Agarrezarkue.
- Eta zenbat anai-arreba ziñeten?
- Zortzi.
- Zu zenbagarrena anai-arrebatan?
- Bigarrena.

3.40. Txerri-hiltzea

- **Hizlaria(k):** Oteiza Azpitarte, Manuela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-036/006
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elxpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Baserrria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Txerria nola hiltzen zuten eta txerria hiltzeko mahaia nolakoa zen azaltzen du. Amak odolkiak egiten zituen eta auzora banatzen zituzten. Arantzazuko fraideak baserriz baserri joaten ziren babarrun eskean.

Transkripzioa

- Txerri-hiltzearekin eta akordatzen al zara?
- Akordauko ez naiz ba.
- Nola izaten zen txerri hiltzea?
- Txerri hiltzia? Ba gantxu sartu okozpien eta, gero heldu beste bi edo hiru lagun edo lau, zenbat zien, heldu hankatetik eta, ipiñi aulki gaiñin eta, sartu kutxillue, gantxue lelengo eta gero kutxillue sartu eta halaxe.
- Zenbat laguneren artean hiltzen zen txerria?
- Bueno, segun ze indar zeuen, gutxi samar bazeon lau lagun igual eta, bestela hiru te.

-Etxekoak ala auzokoak lagunduta izaten zen?
 -Jeneralin etxekuk. Etxien bazeon behintzet.
 -Esan dezu aulki gaiñean. Zer izaten zen, mahai espezialen bat txerria hiltzeko?
 -Bai.
 -Nolakoa izaten zen?
 -Hortxe dao atayen harriya. Ataiko atea junda erakutsi iozu nolakua izeten dan.
 -Esplikau.
 -Bueno, handik honaiñokue, holakotxea gutxi gorabehera, kuadraue, hormigozkue.
 Gizona: baiña egurrezkue lehen.
 -Bueno, hormigozkue [...]. Haretxen geiñea bota eta hantxe. Gero odola beste batek hartu eta odola zertu itten da, loritu itten da, eta erain in behar izeten zaku odolkiek eitteko [...] baldin badu.
 -Osea ke loditu egiten da eta eragin egin behar zaio?
 -Esnie kortaute geratzen da ba, mamie eitten da ba eraitten ez bazako, odola, eta erain ein ber izeten zaku.
 -Eta odolkiak eta egiten zenituzten?
 -Bai.
 -Amak egiten zituen?
 -Odolkiak eta mondejuak ere bai?
 -Mondejue zer da?
 -Mondejue guk esaten diogu zuriari.
 -Txuririk ez, ez zan itten txuririk.
 -Eta gero ohiturarik bai auzora banatzeko?
 -Bai. Auzora. Oin baiño gehio banatzen zan.
 -Zuek eramaten zenituzten eta gero beraiek ere hildakoan buelta.
 -Bai, beraiek´e bai buelta.
 -Eta medikuari eta apaizari eta eraman behar al izaten zitzaion?
 -Ez. Medikuei eta apaizei eta ez.
 -Hoiiek eskien etortzen zien, gero hoiiek arrautzie edo gaztaie edo oillaskue edo, hoiiek eskien etortzen zien. Arantzazuko prailiek´e babarruna eskien, zaku maunezko urdin bat atzea eta aurea bota, eta gero zulue babie botatzeko, eta kamiñoik eta ezer ez zan eta oiñez ibilli ber izeten zebe.
 -Eta Arantzazutik etortzen ziren eskean?
 -Bai, Arantzazutik etortzen zin eskian.
 -Eskean etortzen ziren eta zuek emandakoa zaku horretan sartzen zuten?
 -Bai, babarruna eske, babarruna esaten zebe haiek. Guk babia esaten diogu normalien, baiña babarruna esaten zebe haiek.

3.41. Azkoitiko San Martin auzoan jaioa

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Aldazabal, Argi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-039/001
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Azkoitiko San Martin auzoan jaio zen. Ama Elgoibarkoa eta aita azkoitiarra zituen. 10 anai-arrebatan zaharrena da.

Transkripzioa

- Ez zekinat 75... Ez zekinat... sekule ez zonet zea eitten. Zeuzkenat, hirurogeta hamabost urte zeuzkenat. E? Aurten hamasei ein ber ditxiñet, baiña hamabost zeuzkenat oin.
- Ta nun jaio ziñen?
- Azkoitixen.
- Kalen?
- Ez, San Martiñen.
- Baserri baten ala...?
- Ez. Ez, San Martingo etxik bazauren, ba?
- Bai. San Martingo etxetan?
- Bai.
- Eta izen-abizenak?
- Nere.... Bueno, ez zekiñat. Leheno eitten ziñebenana Maria Luz, badakin, ez zaonan zeriken, ta gero bizi guztixen Argi. Entendidu danak Argirekin entenditzen diñebe. Oin, badakin... Oin, karnetin ta hoixetan Maria Luz. Badakin, ez niñen kendu ta halaxe segiu...
- Bai, garai hartan... Ta abizenak ?
- Apelliduk? Larrañaga Aldazabal.
- Eta gurasok, hemengok? Azkoitiarrak?
- Bai. Bueno, gure ama, izetez, Elgoibarren jaixotakue eo, baiñe geo honutz etorri zila ta... gure ama... Bai, ez zekiñat nik...
- Elgoibarren jaiotakoa?
- Elgoibarren jaixotakue. Ta aitte hemen jaixotakue.
- Aitte San Martiñen ala kalen?
- San Martiñen jaixoko hunen haure. Hoixe sekula´re ez detena, badakin, zeatu.
- Eta zenbat anai-arreba?
- Zein? Geu zenbat? Hamar gitxiñen, zaharrena neu.

3.42. Aurkezpena

- **Hizlaria(k):** Aramendi Aranberri, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-040/001
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Bere burua aurkezten du: non eta noiz jaio zen azaltzen du. Gurasoak nongoak ziren aipatzen du. Baserriko bizimodua zuten: ganadua, basoa eta soroa. 11 anai-arreba ziren etxean.

Transkripzioa

- Izena eta abizena esaten badidazu.
- Angeles Aramendi Aranbarri.
- Ze urtetan jaio ziñen?
- Mila beratzirehun de hogeta hamalauan jaioko nintzan.
- Hillabetea eta eguna?
- Oktubrian biya.
- Nun jaio ziñan?
- Amusategi baserriyan.

- Hemen Martirittan, ez?
- Bai. Azpikaldeko etxen.
- Zer zenun, aitta edo ama bertakoa?
- Aitta.
- Eta ama nungua zenun?
- Arrieta-Arrazakua, hamengotxe baillarakua. Hortxe dao. Atzo[...] izen ziñan. Eskubitaa tontor-tontorin Arrieta hortxe dao. Hantxe jaiio zan nere ama.
- Hemendik bide puxka bat bai harutza.
- Bai. Kilometro bat pasatxo. Asko gehio ez. Nik egunero harrapatzen det kilometro haura. (...)
- Sasoia.
- Sasoia bai; beharra ez da asko hobia.
- Zuek baserriko bizimodue egingo zenuen, ganadue ta bazenuen.
- Bai, ganaukin-da. (...) Basuan da souen bizimodue hortan eman deu guk. Bi urte neskame ein nittun aberats-etxe baten baiña.
- Zenbat anai-arreba ziñaten?
- Gu hamaika.
- Sail earra.
- Bai. Gaur ez dao holakoik.
- Amak lan puxkat ein beharko zun.
- Bai.
- Gaur bat eta bi.
- Geuk e bost hazi dittuu.

3.43. Garbiketak nola egiten zituzten

- **Hizlaria(k)**: Aramendi Aranberri, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-040/013
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:19:14. **Bukatu**: 00:20:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- **Laburpena**: Lehen dena eskuz garbitzen zuten. Zorua garbitzeko espartzua, ura eta xaboia erabiltzen zuten. Lurzoruari distira ateratzeko, alanbreak erabiltzen zituzten, eta argizariaren bidez lustrea ematen zioten.

Transkripzioa

- Gaur danetik dao, baiño ordun garbiketak itteko ta nola moldatzen ziñeten?
- A! Eskuz! Ordun ez zeon besteik! Eskuekin dana garbi uzten gendun. Klase danetakua, oaintxe bezelaxe, klase danetaku erropi dana eskukin garbiu, eta...
- Zorua eta nola garbitzen zenuen?
- E?
- Zorue nola garbitzen zenuen?
- Zorue garbitzen gendun zeakin, eskobillekin, o espartzukin o zeakin, urikin ta jaboikin. Ahal zan bezelaxe. Oin bezelako produktoik ez zeon, eta...
- Izaten zenuen zepillun bat o zeoze, o...?

- Zepillue bai, zepillue ibiltzen zan; baiña, oin bezela, baldosak eta zeak eta diferentik zin. Suelue, pasillo haundiyek eta, hanka azpiyen alanbri hartu, ta harekin jardutzen gendun guk ze a itten; ta geo eman lustrie, ta geo atzea zepillo haundi bat hankapin hartu, ta harekin brillo ateatzen.

- Lustrea ematen ziñuen?

- Bai, lustria ematen giñun.

- Ze lustre izaten zan?

- Potek eta nola eoten zan lustria, oin'e eoten da pote ze a batzutan lustria. Ta ordun, berriz, argizaye zan. Makillen punten argizayekin, harekin lelen goz, lelen go alanbrau, argizaye eman, ta geo atzetiken hankekin brillu ataa.

- Argizaria zeakin ematen zan?

- Makillakin. Eske makille zan, geo bi ze a zeuzken, ta erdiyen sartzen zitzakon, tornillue lotzen zan, ta harekin ematen zitzakon. Bizimorue holaxe jun da guria.

3.44. Neskak eta mutilak erromerietan

- **Hizlaria(k)**: Aramendi Aranberri, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-040/022
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:28:36. **Bukatu**: 00:29:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Erromerian, mutilei kobratu egiten zieten dantza egiteagatik. Taberna bazegoen Martirietan; baina neskek ezin zuten sartu, bekatua baitzen.

Transkripzioa

-Erromerira juten ziñetenean dantzara, kobratzen zizueten zeoze dantzan egiteagatik?

-Guri ez.

-Mutillei.

-Gizonezkoei,

-Ze kobratzen zuen?

-Ze kobrau? Enaiz (...) Bi pezta. Orduan pezetia asko zan da. Gero azkeneako, nik utzi nionerako bost duro bakoitzin.

-Hogeta bost pezeta. Orduen dirue zan garai hartan.

-Nik orduen bi milla pezta (...) jai goizian.

-Hemen taberna zeon?

-Bai, taberna. Taberna beti izen da hemen. Guk ezautu gendun, taberna beti izen da.

-Neskak ezin zenduen sartu.

-Ez, ez. Neskak tabernan sartzie pekatue zan.

-Zuek zer egiten zenuten, kanpoan egon eta mutillak ateratzen zizueten edatekoa.

-Edatekoa? Ez edatekoik eta ez ezer.

-(...)

-Zu zenbat urtekin hasi zinen soiñu jotzen?

-Ni hamalau-hamabost bat urte eo. Etxien soiñua nauken osabana.

-Osaba soinujolea zenuen?
-Osabak puxket jotzen zun-da. Haure Eibarren eitten zun lana ta hara juterakuen askotan (...). baiñe gero antzeman zion alperrik ai zala (berak baiño) nikhobeto jotzen nula, ta gero halaxe.

3.45. Umetako jolasak

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Azkoitia, Candida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-041/023
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:28:00. **Bukatu:** 00:29:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena:** Bere lagunak Martirieta bertakoak ziren. Hala ere, ahizparekin jolasten zuen gehienbat trapuzko panpinekin. Ardizain ere joaten ziren biak, eta txokolatea eta ogia ematen zien aitak horren trukean. Jolasteko leku berezi bat bazuten.

Transkripzioa

-Zuk lagunak Martirietakoak zittuzun?
-Bai, hantxe bertakuk. Urtiagakue, Urtiagaxokue, Urtiagaberrikue eta bestie Kortaberrikua, eta neu. Bost lagun ero bagiñen.
-Eta ze jolas ero ze egiten zittuzuen?
-Jaietan-da ez giñen gu juntatzen. Neu te ahizpe ta. Nik banun ahizpe bat, ta oiñ e badauket, neuregandiken ba bi urte ero gaztiaue, eta harek eta nik pa geuk pasatzen gendun jolasien denboria. Eitten giñuzen geure kasatan muñeka trapuzko batzuek. Ordun etzan muñekak eta erosteko-eta diruiken, eta geuk eittten giñuzen muñeka trapuzko batzuk, eta amai harrapatzen genizkon tela-puxketa batzuek bearek erropak einde ero zeuzkenak eta, haiekin soiñekuk eiteten muñeka haiei ta. Ondo pasatzen gendun. Klaro, igual ardizai re agintzen zigun aittek. Ardi batzuk egoten zien, eta haiek oin bezela hesiekin itxitte ta bakoitza bere lekutan etzien egoten, da zaittu beharra iguel da, ardizai re jutun giñen da txokolate ta ogiya ematen ziguen iguel ardizai juteatiken. Bestela igual ez gendun eukitzen txokolate ta ogirik, e. nahikue ez zan izeten oin bezela ta.
-Bazeukazuen tokin bat jolaserako?
-Ba hantxe, etxetiken alboa. Bat gendun partikularra, arbola zar haundi bat zan etxe ondun, da zittun zulo asko. Perrejenplo sillak ipintzeko moduko zuluk eta bazittun; eta haure ipinitta eukitzen gendun: hau kuartue izengo da, hori sukaldie izengo da, beste haure zea izengo da ta. Ahizpek eta biok ba han ondo pasatzen gendun

3.46. Ibaian jolasten

- **Hizlaria(k):** Mengual Larrar, Maria Paula
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-043/008

- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:13:10. **Bukatu:** 00:14:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Ekonomia eta industria » Lantegiak
- **Laburpena:** Lehen Azkoitian ez zegoen frontoirik, eta ia ez zen pasatzen autorik. Ibaian ere jolasten zuten, baina ez beti, kolore ona zuenean bakarrik. Izan ere, goraxeago txapel-fabrika zegoen, eta txapela zer koloretakoa egiten zuten, kolore hartakoa izaten zen ibaia. Ibaian bainatzean, soineko zahar bat eta abarketak janzten zituzten (baita uretan sartzeko ere), horrela ibaiko harriek minik ez emateko.

Transkripzioa

- Frontoirik bazan ordun, garai hartan?
- Frontoie bai, baiño gutzako ez zaon /etzaon/ frontoie.
- Ez zineten juten?
- Ez, keba.
- Kalin?
- Kalin, kalin.
- Kotxeik´e ez zan pasauko ordun...
- Gutxixo. San Martin kalin, kalin itten gendun guk txintxerriñen. Dibujuk itten giñuzen eta hantxe zapata kajikin. Oso... ene! Eta gero gure plaixe izeten zan ibeixe. Zeatik ibeixe pasatzen zan ba han San Martin kalin ondun eta haraxe juten giñen, jantzi soiñekuk eta hantxe baiñue. Gure Zumaixe haure zan.
- Ibaian?
- Ibeixen. Segun ze kolore zeuken zeuken urek, e! Zeatik txapel fabrikie zeuen ba han, pixket goraotxuo eta txapel gorririk itten bazittoben ur gorririk ertetzen zun ibeire. Gaurko eguneko zerik ez zaon /etzaon/. Txapel berdik itten bazittoben, berdie. Eta guk ikusten gendun ze kolore zauen, ta ze kolore... ona baldin bazeuken, ordun juten giñen baiñure. Baiñe gure ibaixe haure zan.
- Bainura juten zinetela esan dezu.
- E?
- Ze bainujantzi ibiltzen zan ordun?
- Ze jazten gendun?
- Ze bainujantzi egoten zien ordun? Nolakoak zien ordukok?
- Ze jazten gendun?
- Bai.
- Soiñeko zahar bat.
- Ta soinekokin bainatzen zineten? Ordun "trajebañoik"-eta ez al zan izaten?
- Hemengo ibaireko ez behintzet, danok gure etxik gertun genduzken ta. Jantzi soiñekue eta gero haure pega-pega-pega einde etxea, aldatze. Abarketak jazten giñuzen behien, harririk miñik eman ez daixen... eta gure baiñue ordun haure izeten zan.
- Abarketak ibiltzen zittuzuen?
- Abarketak, bai, honbre! Eta baitte uretaa juteko´re!
- Uretara ere bai abarketakin?
- Bai be, harririk zauden ta! Ta hankan miñik ez emateko. Haure izeten zan gure zea.

3.47. Azkoitiko aisialdia

- **Hizlaria(k):** Mengual Larrar, Maria Paula
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-043/035
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:40:15. **Bukatu:** 00:41:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
Aisia » Kultura » Zinema
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena:** Lehen ez ziren Azkoititik beste herrietara joaten. Zinea bazegoen, eta bazuten hara joateko ohitura. Film batzuk ezin izaten zituzten ikusi, debekatuta baitzegoen. Baina batzuk Frantziara joaten ziren haiek ikusteko.

Transkripzioa

- Hemen Azkoititikan mugitzen zineten inguruko herritara?
- E?
- Inguruko herritara mugitzen zineten? Ala Azkoittin gelditzen zineten?
- Juten al giñen...?
- Bai.
- Ezta pentsau´re! Ba al zauen juteko? Ezta pentsau´re! Hamentxe!
- Bertan?
- Kalin gora ta kalin behera, kalin gora ta... pasadizo bakoitzin: "aio", "aio", "aio"...
- Dana ezaune. Eta zinea o?
- E?
- Zineik?
- Zinie bai, Olinpian.
- Hemen Azkoitin?
- Axkoittin, bai. Oin ya botata dao Olinpia haure, oin ya etxik-eta eitten ai die han.
- Bazenuen harutza juteko ohitturaik?
- E?
- Zinea juteko ohitturaik bazenuen?
- Bai, eske noa jungo giñen ba? Beste ezer ez zauen ta! Bai, zinea-eo jaixetan. Baiñe...
- Eta ze pelikula zien?
- Ze pelikula? Ikusi ein ber karteleran ze ipintzen zeben! 3R ipintzen baldin bazun, jai.
- Nola jartzen zuen?
- 3R ipintzen baldin bazun, ez zauen juteik. Ya... "blanca", "rosa" eta 3R o ta... Bueno, `Gilda´-ta´re bota zittoben, baiñe nola jungo giñen ba, prohibiute zauen ta. Gaiñea, kongregazixotik fuera botatzen zittoben dixkuratzen baziñen! Eta hori ez ba nahi.
- Kongregaziotik botatzea garai hartan...
- Bai...
- ... pekatu larrie izango zan.
- Bai, gure aldien jente haundixe gero Frantzire juten zan ikustea, baiñe gure aldien zaharrak, e.

3.48. Umetan San Martinen egiten zituen bihurrikeriak

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Iturbe, Matxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AZK-061/003
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:00:37. **Bukatu:** 00:02:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Baztarrikaldetik San Martinera joan ziren bizitzera, berak 8 urte inguru zituela. Ume bihurria omen zen. Eskolatik piper egiten zuen. Trenaren zubiko petril gainetik batetik bestera pasatzen zen. Argi posteetara igotzen zen. Behin, errieta egitera zihoala, ama erori egin omen zen.

Transkripzioa

- 7-8 urtekin San Martiñera juan ziñan bizitzera.
- Bai. A! neure zea nahi al dezu esan? San Martiñea. Ta han neska koskorra gaiztue nitzen, hola mu... Nei esaten zieben nere anaixek ber zula neskie ta ni mutille. Ni, zea, ibiltzen nitzen, han bada San Martiñen -oin etxie einde dao- San Martiñen relojun behien, han zeuen aldapie ta ni beti hantxe. Piperrak eitten nittun!
- Iloba: Nundik? eskolatik piper?
- Kar,kar,kar...
- Eskolara juan barik?
- Bai! Ni oso gaiztue nitzen.
- Iloba: Gaiztue ez.
- Gaiztue ez, trabiesie.
- Iloba: Trabiesie .
- Baiii.
- Iloba: [...]
- Ta gero zan zubixe´re bai, trenan zubixe. Ta han bazeuen hola, tren zer bat. Han gaiñin´e batetik bestea kruzau eitten nitzen. Ta beti saltoka ta. Ta geo zeuden argixen post... zea, postiek, ta han esaten zieben neure... mutil-koskorak eo neskak, kuadrillen: "Ezetx ixo horra gora" ta ixo eitten nitzen. Gure amak ni hala ikusten nittunin drotin etortzen zan ta eroi´re bai baten ein zan, nereana zitorrela erritaa, beure eroi. Ni nitzen trabiesie.

3.49. Etxe Beltzekoekin harremanik ez

- **Hizlaria(k):** Aldazabal Larrañaga, Maite
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AZK-065/014
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:18:02. **Bukatu:** 00:19:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Eliza aurrean dagoen Etxe Beltza (Idiakes Dorrea) dukearena zela dio. Udarantortzen zen familiarekin, neskame eta guzti. Hemen zeudenean, kale alderako atea zabalik egoten zen. Ez

zuten haiekin harremanik, gaztelaniaz ez zekiten eta. Ez omen zituzten janzten hain arropa dotoreak.

Transkripzioa

- Han elizataitik ezkerrera daon etxe haundixe esaten det, etxe beltz haundi hori. Hori jauntxon batena edo ez zan?
- Dukiina hori.
- Eta etortzen al zan dukie Axkoittire?
- Ordun bai! Ene! familixekin eoten zan haure hamen. Bai, bai, bai.
- Ze etortzen zan uda partian o?
- E?
- Udaran etortzen zan?
- Uderan etorriko zan.
- Ta familixekin ta neskamik-eta eukiko zittun?
- Danak, neskame ta guzti etortzen zan haure. Han kale aldea zeuken ate haure eoten zan zabalik. Badakizu, kalea... bestie alboa dauke. Haure beti zabalik hamen zaudeniin. Bai. Holaxe herrixen.
- Baiña zuek harekin traturik eukitzen zenduen?
- Ez! Erderaz jakin´e ez guk ordun, jakin´e, ta haixek erderazkuk zin.
- Ez zian euskaldunak?
- Ez.
- Kanpokuk zin izetez orduan?
- Hala izengo zin, bai, hamenguk ez behintzet. Eta guk kontuik ez gendun esaten, erderaik ez gendekiun ta.
- Eta erropak eta, dotoriek ekarriko zittuen, ez? harek...
- Ez, holako... ez zien holako puntetekuk, ez, ez zien holako puntetekuk.
- Eta, zea, kotxerik edo bazeken? Kotxia o ze ibiltzen zebeñ?
- Eukiko zittuben, garajie hantxe daukebe ta.

3.50. Parrokian ezkondu eta ezkon-bidaian Bilbora

- **Hizlaria(k):** Aldazabal Larrañaga, Maite
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AZK-065/017
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:21:57. **Bukatu:** 00:25:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Ezkondu zirenean, autobusean Elgoibarrera joan ziren eta handik trenaz Bilbora. Ostegunean ezkondu eta iganderako bidaiatik bueltan ziren. Hango taberna batean egin zuten lo. Zinemara ere joan ziren. Elgoibarrerako autobusa gorri-gorria omen zen. Mareatuta iritsi zela gogoratzen du. Parrokian ezkondu ziren goizeko 10:30tan eta senarraren etxean bazkaldu zuten. Orduan ez zegoen dirurik.

Transkripzioa

- Ezkondu giñen, kotxeik ez gendukan ezta aztarranik´e, autobusin sartu ta Elgoiberrea. Elgoiberren hartu trena eta Bilboa. Ostegunin ezkondu ta jaixen etxea.
- Buelta. Osea ke "viaje de novios" en Bilboa.
- Bilboa, bi eguneako. Oin bezela... ?

- Eta Bilbon nun in zenduen lo?
 - Enkargaute genduken!
 - Hotela?
 - Taberna bat, hotelik ez, hotelik ez, taberna bat, baiñe ederki, oso ederki eon giñen, bai.
 - Bilbo ordurako haundixe izengo zan Azkottin aldien.
 - Guk kale bat ikusi gendun bakarrik eta... Gero zinea jun giñen, bai, e? zinea. Ta gogun nun nik zine haure eta oin ez naiz akordatzen.
 - Osea ke Bilbora, eta esan dezu autobusez Elgoiberrea.
 - Autobuse Elgoiberrea; Olaberriñeko aurrien hartu eta Elgoiberrea. Han trena hartu ta Bilboa, marea-marea einde alleau nitzen.
 - Nolakue zan autobuse, orduko autobuse?
 - Gorri-gorri bet.
 - A, bai?
 - Bai, autobus gorri bat.
 - Oso haundixe ez zan izengo, ez?
 - Bueno, bai. Autobuse, bai. Ba, hantxe. Pentsaizu guk zenbat diru eukiko gendun! Hantxe, Elgoiberreaiño, eta gero trenin sartu ta Bilboa.
 - Ta autobus horrek hemendik Elgoibarrea juten denporie eingo zun... Azkaratetik hor buelta ta buelta...
 - Bai, ez naiz akordatzen detaille horrekin-ta, baiñe... Zorakei bet.
 - Eta trenin ibilite zaunden aurretik?
 - Ke ba!
 - Lehenengo aldixe?
 - Trena? Loiolaiño jun bagiñen... eta bertaa oiñez jungo giñen. Ta, gaiñea, mareau eitten nitzen ta eneee! dana marea-marea einde aillau nitzen.
 - Eta ezkondu, nun ezkondu ziñazien?
 - Parrokixen, 10:30etan.
 - Goizin...
 - Gizonan etxin bazkaldu gendun, eta ez dakit ze orduten autobuse eukiko gendun, autobusin sartu ta Elgoiberrea.
 - Eta orduan inbitatzen zian familixakuak eta hola bodara?
 - "Lo justo" ,"lo justo".
 - Anai-arrebak-eta iguel...

3.51. Umetako jolasak Plaza Berrian

- **Hizlaria(k)**: Aldazabal Larrañaga, Maite
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: AZK-065/032
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:46:20. **Bukatu**: 00:48:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Umetan Plaza Berrian jolasten zuten. Soka-dantzan. "Txintxerriñen" aritzeko, harriekin egiten zituzten markak. "Zapoka" ere ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Umetan, neska-koxkorra ziñenin, jolasin nun ibiltzen ziñen?
 - Plaza Berrixen ibiliko giñen, hanguk giñen, hantxe jaixo giñen ta.
 - Gaiñea anai-arreba asko ziñeten ta.
 - Hoixe! Nahi aiñe!

- Ta ze jolas eitten zenduen?
 - Jolasa? Soka-dantzan ta. Txintxerriñen ta.
 - Ta txintxerriñin eitteko, dibujua itteko ze?
 - Hoixe, bilatzen giñuzen harri zea batzuk.
 - Hoixekin?
 - Ze eitteko esan dezu? Markak eitteko ?
 - Bai.
 - Bai be!
 - Harrixekin?
 - Zer zien? Han bilautekuk behintzet. Oin ez dauzket burun.
 - Ta soka-dantzan ze kantatzen zenduen?
 - Oi ene, auskalo ze! Gero bestie zapoka, badakizu zer dan?
 - Zapoka bai, ixkutatzen, ezta?
 - Bai, ixkutatzen.
 - Ta nun ixkutatzen ziñazien? nun ixkuta?
 - Hantxe iskilleratan gora junde, ganbara ertzien, makina bat aldiz eon ta behetiken "ikusten haut!!". Itsu tokau zanak: "Ikusten haut, hor hao!!"

3.52. Umetako jolasak; edozein paretatan pilotan

- **Hizlaria(k):** Sasieta Irulegi, Justino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AZK-068/002
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:00:34. **Bukatu:** 00:02:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
 Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Mutikotan "txirringola"rekin jolasten ziren. Futbolearen eta pilotan ere aritzen ziren, baina orduan soka-dantzan eta "txintxerriñen" gehien. Neska askok jokatzen omen zuen pilotan orduan. Edozein paretatan aritzen ziren. Kontzejupea busti egiten zuten, meza zegoenean, inork pilotan egin ez zezan. Herrian zehar "se prohibe" kartel asko zegoen, pilotan jolastea debekatuz.

Transkripzioa

- Ze jolas eitten zenduen mutikotan?
 - Mutil koxkorran... txirringalia. Ba al dakizu zer dan txirringalia?
 - Entzunde nao, bai.
 - Potie hartu ta alanbrikin ibili ta harekin Loiolaa "o lo que sea" jun. Txirringalikin.
 - Bai? Loiolaiño?
 - Bai. Ta oin bezela pelotan ta... pelotan ta fubolin, zea, trapo zaharrakin ta zeakin... Jolasa [...]. Ordun asko eitten zana soka-dantzan ta txintxerriñen. Gure denboran. Soka-dantzan ta txintxerriñen. Ta baitte...
 - Neskak eta mutillak batera, ala aparte?
 - Eee... batzutan bai. Bai hola zean, baiña bestela ez. Bestela... Pelotan-ta neska askok jardutzen zebeñ ordun, gaur batez hamen Azkoitixen, baiña...
 - Eta pelotan nun jarduten zenduen, Kontzejupin o bestela han e bai?
 - Edozer paretatan. Ta dana zeun, Azkoitixe zeun dana beteta... Aittu: lehen -oin ez dakit- Kontzejupie busti eitten zebeñ, elizan mezie bazeon meza nausixe bazeun, pelotan ez eitteatik, busti.
 - Nahitte, e?

- Iñok ez daixen ein.
- Beittu...
- Bai. Eta erderazko hitz asko: “Se prohibe”, o gauze asko, pelotan, paretatan. Ez euskeraz, e? “Se prohibe”.

3.53. Bere burua erakusteko beldurrik ez

- **Hizlaria(k):** Cabeza Calderón, Rina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** AZK-074/004
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:06:52. **Bukatu:** 00:08:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGTBIQ+
- **Laburpena:** Umetan oso itxia zen. Rina zela esan zuenetik bere buruarengan konfiantza handiagoa dauka eta ez dauka sozializatzeko arazorik. Bere burua den bezala erakusteko beldurrik ez du orain.

Transkripzioa

- Eta, esaten dozu, lehen lotsatixagua ziñala, eta igual prozesu honekin bai iriki zarela eta... igual lagun gehixago be badakazu oin? edo beste era batera sozializatzen zara?

- Bai, ni txikittetik izen naizela pertsona itxi bat, lotsati bat. Ez? Ba klasin nere betiko hiru lagunek nauzken, ta hortik aparte ba iguel gehixo ez. Ba ez dakit. Iguel bai, ez? Ba gai honekin lotute neu´re ez nitzelako irikitzen hainbeste, ez? Nik beti esaten det /esatet/ ba prozesu honen hasieratik, ba, zabaldu naizen momentutiken, gizartiei Rina bezela adierazi naizen momentutiken, ba, ez dakit liberazixo bat sentiu detela eta neregan konfiantza askoz gehixo. Ordun, ba, ez dakit, esan leike, ba, sozializatzeko arazoik ez dauketela. Ba, ez dakit, ya jendik ikusten nau ni naizen bezela, esan nahi det, ba, bueno, nere gauze txarrak ta nere gauze onak dauzket, ez? baiño, bueno... ez dakit, bai.

- Ya beldurrik ez...

- Hori da.

- ... igual zu zaren moduan erakusteko, ez?

- Hori.

- Zure burua erakusteko.

- Bai.

3.54. Amatasuna bakoitzak bere erara

- **Hizlaria(k):** Elias Uria, Itziar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** AZK-086/023
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:47:31. **Bukatu:** 00:49:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

- **Laburpena:** Amatasuna bakoitzak ahal duen moduan bizi duela dio. Bikote berria parte hartzaileagoa dela kontatzen du eta bera ere partekatzen ikasten ari dela. Berak ez du presiorik sentitu ama izateko.

Transkripzioa

- Eta zuk amatasuna... hau igual ya da beste gai bat, e? Baiña... Amatasuna ta aitatasunea berdin irakurtzen dira? Ala ama izateko presioa, "arroza"ren kontua... eta hori zuk nola...?

- Eee... ez dakit, ez die igualak. Bueno, nik nere kasun, nik nerie esango det /esangot/, nik nere akatsakin, nik ama... "todoterreno". Osea ni, neri gustatzen zaizkitela gauzak ematie. Ta askotan akatsa iten det /itet/ hortan, osea, nik... neri gustatzen zatelako kontrolatzie gauzie ta askotan neuk akaparitzen det /akaparatzet/. Ta beste gauz batzutan pues ez naute hainbeste lagundu, ta beste batzutan bai. Ez dakit. Osea, azkenin bakoitzek, ez? esaten genduna, nahi duna ta ahal deuna diferentia dala, ez?

Ez dakit nola esplika hau. Nik neuri nere umin gauzek gustatzen zaizkit kontrolatzie. Hori dudeik ez dauket, ta gaiña naiz zoriontsu hola. Ordun, oin bikote berrixekin ta hola, pues, adibidez, hori, ba, bea´re oso parteartzaillie da ta ikisten ai naiz partekatze hau. Eta ez da errex. Ez da errex. Osea, ohittu in ber zea ta ikixi in ber dezu baitte partekatze kontu hau. Ez bazaude ohittuta, hola da. Kriston earra, ez? Badauzke... berez hola izen berko luke ta earra, baiña zu baldin basea holakue, zeuk ein beherekue dana, kostau eitten da /eittea/ hori baitte. Ez dakit. Nik ez det sekule euki... estereotipotan ez det xinisten, ordun, ez det euki roxa ta istorixek kontuten sekule ez dittut euki eta, ez dakit nola esan, ez naiz ikusi... ez naiz ikusi derriortute ama izatea, ez derriortute ni bakarrik nere umin gauzek nik kontrolatzea o zea. Neuk gustoz in det eta ama izetie nik erabaki nun ta gustoa erabaki nun ta umin gauzek ematen´e ta beaxen kontuk zea eittie o irakaslikin hitz eittie o bestie gustoa itten det /ittet/. Osea, gustau itten zat, gustoa nao umiekin ta gustoa bizi izen det.

4. Baserria

4.1. Neska eta mutil San Martinen "txortan"

- **Hizlaria(k):** Alberdi Iriarte, Arantza
- **Elkarrizketatzailea(k):** Kerejeta, Arantza
- **Erref:** AZK-002/005
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:05:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Aisia » Kirola » Pilota
Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- **Laburpena:** Bere anaiak "txortan" egiten ikasi zuen. "Txortan" egitea zer den (abarketei zoru ateratzea). Neska eta mutil egoten ziren aulkietan jarrita San Martinen "txortan". Bere anaiak pilotan ere jokatzen zuen eta handik ere ateratzen zuen diru apur bat.

Transkripzioa

- Gero anaixe pelotan. Haure´re, klaro, zean ibili zan... fraile papar txuritten

hor, baiño gerra-denboran kitto hoixek´e eta gero ikixi zebe txortan. Bueno, batzuk txortie badakizu zeri esaten dioxen, baiño txortan.

- Hori esplikatu didazu zer dan?

- Aulki gaiñien jarri ta txortie. Zoruek ipiñi ta gero txortan. Eztenakin, hola, zoruk eitten. Txortie. Hola, aulki gaiñin. Badare, ba, erretratuk Kutxan-ta badare ta zean´e bai, Laboralin ez dakit ez ete daon. Eta geo jartzen ziñen zu, ta geo hola ipiñi, hola, zea inde ta zorue eitten. Hola zea batzuk etortzen zin, urdidute esaten zioxen ordun -urdiketie beste batzuk eitten zebe- eta geo ordun etortzen zien txortak bezela eta zuk zorue etara ber, abarketa zorue etara ber harekin, formie. Haure txortan.

- Hori mutillen lana izaten zan?

- Bai, ta baitte emakumina´re, e! Askok ein zebe. Nik neuk ez nun ein, baiño asko ein zebe emakumik´e Azkoittin. Hor Mutrikunekuk badie, ba?

- Bai.

- Haixek-eta danak txortan eitten zebe beti. Txortan errezo eitten zebela edo... Neuk ez nun ikixi, baiño Migelek-eta bai. Hoixek asko eitten zebe han San Martiñen, gain baten, mutil koskor kuadrilliek asko eitten zebe txortan. Gero pelotan hasi zan ta pelotan irabazten zun zeoze. Zesture pelotaa, jokatzea. Ta zeoze emanda´re poza. Ezkonduta´re segiu zun. Geo [Azulin] lanin hasi zan ta geo handik juten zan Zesture jokatzea. Eta, bai, hola gustoa. Baiña haure bittertekue izeten zan diru haure ta gustoa egon zan. Holaixe izen da gure [...] hori.

4.2. Azokara saltzera

- **Hizlaria(k):** Uria Narbaiza, Salome
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-009/013
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:23:05. **Bukatu:** 00:25:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Sorazu, Amaia
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Baserrian behizain edo babak, intxaurrek eta sagarrak biltzen aritzen ziren. Ganadu batzuk bazituzten eta garia egiten zuten. Fruitu-arbola asko zituzten. Kalera saldu eta diru gehien ematen zuen produktua arrautza zen. Oilaskoa eta esnea ere saltzen zituzten Azpeitiko azokara. Gerezi-arbolekin izaten zituzten arazoak kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Ta ze lan eitten zenduen umetan basarrixan?

- Behizain ta, babak bittu ta, babak bestik haundiñek bittu ta ondoren gelditzen zienak. Eta intxaurrek bittu ta, sagarrak eta, danetik.

- Ta ganaduik bazeukezuen etxen?

- Bai, hogei bat edo egoten zien, asko ez. Bueno, asko ez, oiñ daude gehixo, baiño orduko dexente zan, zeatik nekazaritzie eitten zan gehixena, garixe ta artue... bai, nekazaritzie haundixe eitten zan. Eta gero baratzan ta, hori gutxixo, ta frute arbolie asko.

- Ta kalera saltzen zenduezen frutak?

- Bai... bueno, arrautzie ta hori, arrautzie´re asko. Gu txikixek giñela

arrautzie zan dirubideik onena, osea, dozena bat arrautzekin egun guztiko mutille pagatzen zendun. Osea, oiñ hamabost mille pezeta... Morroie ez, morroie baiño, gurin Euzkitzekue ibiltzen zan, hogetaxei urteko mutille, sasoi onenekue, ta haure zan etxeko bat bezela. Haure jutun zan mendire bakarrik iguel, zea... eta sueldue oiñ hamaxei mille pezeta balixoko balittu bezela, zeak, arrautze dozena batek. Ordun, arrautzie zan nahiko diruitturri bat, zea... geo oillaskue ta holakuk hoixek azoka ematen zien Azpeitire... esnie ta zea hona. Keixie ta ´re bai lehen lehen, geo Zubillaga jarri ta kitto keixek. Zubillaga jarri ta hogeita hamar hamabost urtin ez da keixeik izen gurin.

- Baiña ez dabelako emoten edo...? Esan nahi dot, keixia ez dao...

- Loriei eitten zixon Zubillagak botatzen zebeñ zerbaittek kaltie eta gero hor biltzen hasi zienin... Geo erraustei zea hauen kontra daude jende danak, baiño, bentajie ekarri zun. Oiñ ´e jutun da keie, baiño, zea, iñ eitten dittube bittu ta, onbre, Oñederran egotien partez Asteasun baleo, nahixo nik baiño...

- Bai, bai.

- Baiño oiñ bittu eitten dittube ta oiñ bai, oiñ izeten da atzea, baiño, hor hogeita hamar, hamabost urtien ez da izen.

4.3. Morroi Azkoitiko Ipintza eta Landakanda baserrietan

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Zubizarreta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkune, Laxaro - Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-010/003
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:04:23. **Bukatu:** 00:04:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Maristetan hasi eta berehala eskola utzi eta morroi joan zen Azkoitiko Ipintza baserrira. Han bi urte egin eta handik Landakandara joan zen beste urtebeterako.

Transkripzioa

- Ta geo behin 15 urtera... ba! 16 urtekin, morroe eskolie lagata!

- Nora jun ziñen morroi?

- Morroi? Ba, Azkoitire, basarri batera.

- Landakandara, ez?

- Ez, Ipintzea.

- A! Ipintzea? Lehenengo Ipintzea?

- Ipintzea. Han in nittun bi urte ta geo handiken, handiken Landakandaa berriz. Ta han beste bat ein nun.

- Beste urtebete?

- Bai.

4.4. Baserrian ganadua zaindu eta soroko lana

- **Hizlaria(k):** Errasti Juaristi, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-011/002

- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:01:04. **Bukatu:** 00:01:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Etxean ganadua zuten: ardiak, behiak, behorrak, etab. Artoa, garia, orbela, eta baserriko beste zenbait lan lantzen zituzten.

Transkripzioa

-Ganaurik eta bazeukazuen?

-Ganaua. Dana ganau artien ibilli naiz ni neure denpora guztixen. Beste lanik ez det ein. Lana bakarrik. Ostientzien ezer ez.

-Artzai edo?

-Danea. Ardixek beti eki dittu(g)u te, bihorrak´e bai te, behixek´e bai te, idixek´e bai te. Lehenoa baakizu, tratoreik ez zan eta holaxe, idixekin gustora.

-Ze lan egitten zittuzuen ba?

-Artue sail galantak, arbi-sail galantak, eta gari saillek´e bai. Garue ekarri te, egurretan´e bai te, orbela´re bai te. Dana, baserriko lana bete-betian.

4.5. Azkoitiko Apasagasti baserrian morroi

- **Hizlaria(k):** Errasti Juaristi, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-011/008
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:09:10. **Bukatu:** 00:10:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** 14 urterekin bi urtez morroi egon zen Azkoitiko Apasagasti baserrian. Beti ganadu inguruan ibiltzen zen Juan Jose.

Transkripzioa

-Eta gero esan dezu baserrien ganadue zeunkazuela eta. Eta zer egiten zenduen, soroa eta baserrie eta eskola, danak batera?

-Bai, eskola. Mutil-koskorra, ni amorraue nintzen irixekin eta orduen´e, eta hamentxe. Batzuetan eskolaa eta bestien geratu eta holaxe, segi. Perpezixoa haundirik ez, holaxe ibili. Gazte-denporia holaxe pasau. Gero hamalau urtekin bi urte morroe hor baserri baten pasau nittun. Hamalau urtekin jun eta hamaxeira arte.

-Ze basarritan?

-Hortxe, Apasagastin. Hortxe ganaderixa dagona, hortxe bertan.

-Emaztea: bi mutil zeuzken eta bixak gerrara eramán.

-Haiek gerrara eaman eta ni egon nintzen gero. Bestela beti Epelarren, eta hementxe, ardi, bihor, eta jairik´e ez askotan.

4.6. Etxeko jeneroa etxerako

- **Hizlaria(k):** Errasti Juaristi, Juan Jose

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-011/009
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:10:02. **Bukatu**: 00:10:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Etxean lantzen zutena etxeko kontsumorako izaten zen, fruituak bakarrik saltzen zituzten azokara.

Transkripzioa

-Eta soroa lanik egiten zenuten kalera saltzeko?
 -Kalera saltzeko? Kalera saltzeko soroko lanik ez, etxerako garixe eta artua ta. Hori dana etxerako. Kalera saltzeko frutie. Sagarra eta holakue bai puxket orduan ´e, afezixo haundixe nun, danerako nun afezixue.
 -Azokara juten ziñen?
 -Gero-gero bai baiña ordun ez. Azokan hau ibiltzen zan, arkumak saltzen eta eta hau eta hau, txanponak honek manejatzen zittun danak. Ni morroe.

4.7. Udaberrian mendian artzain, txabolan

- **Hizlaria(k)**: Errasti Juaristi, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-011/014
- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 00:17:48. **Bukatu**: 00:21:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Gerra ondorenean gosea pasa zuten, baserrian hala ere hobeto bizi ziren. Mendia atsegin zuen, ardiak jeztera hara joaten zen. Orduko janzkera aipatzen du. Udaberrian mendian txabola zuen eta bertan lo egiten zuen. Esnea bizkarrean ekartzen zuen, alabek laguntzen zioten.

Transkripzioa

-Gerra onduen hamen urte kaskar samarrak izen zin. Gosie ta gerra onduen, bai. Gosie baserrixen hainbeste ez. Eitten zunak zeoze, eitten dunak beti eukitzen du zeoze. Eta baserrixen eitten zunak zeoze beti eukitzen zun. Eta kalien eitten ez dunak gutxi eukitzen du, e. Holaxe baserrixen gu beti holaxe defendiu. Lan asko, ganau asko ta. Neu ´re mendizalie ikaragarri te, mendixen bizi naiz baiña mendire juteko kriston gogue eukitzen nun hala ´re. Bai, juten nintzen mendire ardi jaztera, artajorran jardun eta ardi jaztera illuntzin. Erropak zikindutte, izerdixekin eta bakizu artajorran eta ukuillun eta; bota danak eta garbixek jantzi. Hori bai. Eta lepun medailla txiki bat, eta katikin medailla txiki bat.
 -Zer erropa jazten zen orduan?
 -Holakotxe prakak eta abarkak eta. Alkandora garbixe. Bai ba, hoixe. Abarkak, abarkak. Oin ere abarkakin ibiltzen naiz ia beti. Kalin eta ez, baiña hamen baserrin bai. Abarkak, eta mendirako garbixek, abarkak eta galtzetak holakuek garbixek mendireko beti. Hori bai, mendire sekula ez hemengo zikiñekin. Beti garbixekin. Akordatzen naiz mendire medaillie,

azkenerako galdu ein nun, zillarrezkue galdu ein nun, kastau itten zan, lanien eta eten eta laga ein nion. Baiña beti mendire, pausuen, dan!, dan!, dan!...

-Zer ematen zizun ba medailla horrek?

-Dotorezixe. Dotore gustatzen zitzaten pixket.

-Presumidua ziñen orduan.

-Pixket bai. Bolara baten dezente.

-Mendira jutea afizio bezela?

-Mendira ardi jaztera jun. Udaberrixen lo ere mendixen, udaberrixen hillabete pare bat lo eitten nittun.

-A bai? Eta nun egiten zendun?

-Txabolan, txabolan. Neuk egurrekin ein kamaifñie eta zeoze eman, manta zahar batzuk, eta hantxe lo.

-Zuek egindakoa txabola?

-Txabolak bai. Txabolak badauzket oiñ'e. Estutzen bazea etorri, hiru badauzket mendixen.

-A bai?

-Bai, estutzen bazea etorri zu ere. Hiru badauzket illeran txabolak. Eta terrenuek ere bai galantak hartute. Eta hantxe. Alabak´e bastante askotan. Gero gaiñez bizkarrien ekartzen nittun. Eta gero alabak gogortu zienin, hau astuekin eskolatik laga zixonin, eta astuekin bazkalonduen junde, ohittute, ohittu ein zien ba, eta jatxi te, zuzentzen zittuen ardiek eta ni lo eittera. Bakarrik ez zeon lagatzeik eta. Han lo egin, jun eta lo egin, goizien ardik jetxi te behera. Gero astuekin ondo, baiña lenengotik bizkarrien. Esniek´e. Eta neuk jan ber nuna´re bai. Ontzixek garbitzekua edo, bizkarrien gora, marmittek eta. Kristonak eindakue.

-Eta bakarrik egoten ziñan edo anai-arrebak batek lagunduko zizuen.

-Han mendixen?

-Bai.

-Bakarrik. Bakar-bakarrik. Ezta nahi ere. Ni ordun zerekin billurtuko nintzen ba. [...] ez zegoen ni billurtzeko. Gogorra nintzen ni. Neuk esatie ez da ederra baiña. Billurto? Beti, kerziak beti izete du, gabien eta beti izeten da. Txakurrek´e zaunkatzen zuen gabien iñoiz eta bidie Azpeittitik neuk lo eitten nun txabola aurrera, horra Aittola aldea, bidie, jentie pasatzen zan bidien eta txakurra zaunkaz, eta billur antza bai, billur antza bai.

4.8. Baserriko lanak eta ganadua

- **Hizlaria(k)**: Aranbarri Elduaian, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-012/003
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:03:15. **Bukatu**: 00:04:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Baserrian belarretan eta ittulan aritzen ziren, besteak beste, eta eskolara joan gabeko egunak izaten ziren. 20tik gora behi izaten zituzten etxean.

Transkripzioa

-Eta eskolatik etxera etorritakoan?

-Belarra ebai eta ganajatekuk ekarri behar astuakin. Bai, hola izeten zan

gure kontua. Eta egualdi ona bazan, ezta pentsau´re eskolaa juteik, ittulan ein ber. Txarra bazan eskolaa.

-Ze lan egiten zenuten etxean?

-Ene!, ittulie ta, jesus!, zenbat lan! Gari-ereittie ta, artue eta arbixe ta, [...], eta garotie ta, ze ez len! Bueno, bueno!, bai.

-Eta ganaurik bai etxean?

-Bai. Beti hogetaka ganau egoten zien. Bai.

4.9. Elgoibarko azokara saltzera

- **Hizlaria(k)**: Aranbarri Elduaian, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-012/007
- **Iraupena**: 0:00:28. **Hasi**: 00:09:22. **Bukatu**: 00:09:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Ama eta arrebak Elgoibarko azokara joaten ziren etxeko produktuak saltzera.

Transkripzioa

-Baserrian esan dezu ganaua eta eukitzen zenutela, eta azokara saltzera eta?

-Elgoibarrera eta Azpeiture ta azokara hemendik juten zan. Ama zaonien ama eta ama hil zaniene arrebak zarrenak eta juten zin Elgoibarrera.

-Zer eramaten zenuten saltzeko?

-Ba, arrautzak eta, gaztaiek eta, holakuek. Porrue bazan porrue eta, zortzixan behiñ hori. Eta hola ibiltzen giñen.

4.10. Astoa lagun, azokara saltzera

- **Hizlaria(k)**: Aldai Eizagirre, Maria Hipolita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-018/003
- **Iraupena**: 0:00:32. **Hasi**: 00:03:09. **Bukatu**: 00:03:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Fruta garaian, azokan saltzen zituzten. Astoa hartuta jaisten ziren plazara saltzera.

Transkripzioa

- Oin, fruta-denboran sagarra, keixie, arana ta hortakue hoiyek danak saltzen giñuzen. Patata-denboran patatie´re bai.

- Kalera saltzen zittuzuen?

- Bai, haiyek plazaa ematen zin.

- Ta nola jaisten ziñaten kalea?

- Oiñez! Astuukin. Astue ipini kargauta aurrien, ta oiñez.

- Biajetxoa...

- Bai, bai, bai, bai. Egunero haundiye, geo etxea astun gaiñin juten giñen. Harekin asko arintzen zan, baiño bestela beaje haundidxe.

4.11. Artoa eta taloa jaki nagusi

- **Hizlaria(k)**: Aldai Eizagirre, Maria Hipolita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-018/006
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:07:47. **Bukatu**: 00:09:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Garia
Baserría » Baserriko lanak » Artoa
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Amak astero lau bat ogi eta hiru arto egiten zituen eta artoa eta taloa ugari jaten zuten. Otorduetako jakiak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Gure amak ogiye astero labe-sua itten zun: lau bat ogi ta hamar bat arto. Artue, artue jaten giñun. Ta artue ezta txarra. Eskerrak hari!

- Talok eta?

- Talue. Goizien talue eta esnie. Hori beti. Eta eguardien artue. Ta illuntzin ´e talue eta esnie.

- Orduko otordutako jana ze izaten zan ?

- Orduen izeten zan etxien hartzen zana: babie. Babak egositte eta azak. Ta gaiñin baldin bazan... gaiñin baldin bazan eo ardi pusketak bat eo txarriyen pusketie eo txahalan pusketie o baldin bazan, ondo. Sagar erriek.

- Eta txerrikia ta ´re...

- Txarrikiye hortxe. Geo arratsaldin meriendatzen ´e hirugiharrie jeneralien nahi izeten gendun, ta haura erre hirugiharrie, gero arto pusketak ebai, xerradak ebai mehe-mehiek ta olixotan pasau ta oso edarrak geratzen die. Halaxe meriendie iten gendun.

4.12. Jakiak kontserbatzeko, gazi kutxa

- **Hizlaria(k)**: Aldai Eizagirre, Maria Hipolita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-018/007
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:09:02. **Bukatu**: 00:09:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Hozkailurik ez zegoen garai hartan eta haragiari gatza ematen zioten gazikutxan kontserbatzeko. Aitak hiltzen zuen txerria etxean.

Transkripzioa

- Zeatikan ordun kongeladoreik-eta etzan izango...
- Ez kongeladoreik eta ezer-ezer ez!
- Nola mantentzen zenduen haragie?
- Gatza emanda, gazitute.
- Kutxatan o nun gordetzen zan?
- Lehelen gazitu kutxan, gatza eman ta gazitu eta gero ixiki. Gatzitzen zanién ixiki, garbiu uretan ta ixiki. Zezeñie. Holaxe manejatzen giñen.
- Txerri-hiltzea eta etxen itten zenduen?
- Bai, aittek. Txarri-hiltzen beti. Ta han ingurun bailleran´e beti aittek hiltzen zitun txarridhek. Bai, hori bai. Ta gosie, ogiyen gosie, gaiñontzien... ta erropaik ez jazteko. Hori ze... Buenoo !

4.13. Zakuzko arropa

- **Hizlaria(k)**: Aldai Eizagirre, Maria Hipolita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-018/008
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:09:44. **Bukatu**: 00:10:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Ganadu pentsuetan hartzen zuten zakua erabiltzen zuten janzteko; neskek ez zuten prakarik janzten.

Transkripzioa

- Ze janzkera ibiltzen zenduen?
- Ordun? Nik zakue ibili nun asko.
- Zakue?
- Zakue. Zakue etortzen zan, ganauen pentsuten zaku onak etortzen zien. Haidhek gorde ta haiyekintxe. Eta nere anai batek´e bai, zakuzko prakak eta. Amak josi. Zakuzko prakak-eta jazten zitun. Eta ordun zeoze tela pusketie baldin bazan eo koltxoi pusketie zala eo zeozen tela pusketie baldin bazan, eo batentzako soiñekue ataatzeko edo bestintzako prakak ataatzeko, dana jasotzen zan.
- Baiña neskak galtzaik ez zuen ibiltzen....
- Ez, ez, neskak ez prakaik. Prakak gizonezkunak ziin ta ez gendun jazten.

4.14. Baserrian behiak, txahalak, ardiak...

- **Hizlaria(k)**: Lete Larrañaga , Elias
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-019/002
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:01:12. **Bukatu**: 00:02:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

- **Laburpena:** Baserrian behiak, txahalak, ardiak eta abar izaten zituzten. Hasieran larre-behiak eta gero esnetarakoak izan zituzten eta kooperatibara saltzen zuten esnea, kamioia joaten zitzaizen jasotzera. Hiru anai-arreba ziren.

Transkripzioa

- Eta baserrian zer zeneukaten, ganaua?
- Ganaue. Beti euki deu ganaue ta, ba lehen ardixe ta danetik. Oin azkenaldi hontan txahalak bakarrik.
- Eta behiak eta eukitzen zenituzten?
- Bai. Behixek lelengo ni gaztia nintzala larrekue egoten zan, baiña gero esnetan jardun gendun, esnie etaratzen gendun. Eta gero esnetakuek kendu eta larrekuek euki genduzen. Eta gero hamen almazenien hasi giñanin behixek kendu ein genduzen.
- Eta behietatik ateratzen zenuten esnea kalera saltzen zenuten?
- Zentralerako etaratzen gendun. Mundraorako, hor egon zan kooperatiba bat LANA izena zuna ta harea saltzen gendun.
- Zeuek eramaten zenuten esnea hara ala etorri egiten ziren?
- Ez, etorri itten zan kamiona. Oin beste adelantu ez zauen, ordun kantiñetan eamaten zeben, bai. Berrogei litroko ontzixetan kamionak.
- Eta ze prezio zeukan garai hartan?
- Ene... hoixe txarra neri galderia, nik ahaztuta daukat hori [harrezkero]. Merke. Baiño orduko bizimodua haurexe zan, eta zerbaiti heldu bihar zitzakon eta haretxi.
- Zuek baserritik egingo zenuten.
- Baserritik, baserritik, baserritiken.
- Zenbat anai-arreba ziñeten ba?
- Gu hiru anai-arreba.

4.15. Gaztak egin eta kalera saltzen zituzten

- **Hizlaria(k):** Lete Larrañaga , Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-019/006
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:08:04. **Bukatu:** 00:11:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Ama ibili ohi zen artzain eta ardiak eskuz jezten zituzten. 55-60 ardi inguru izaten zituzten eta gazta egin eta saldu egiten zuten. Gazta nola egiten den azaltzen du. Gerora prentsa erosi zuten eta aurrerapen handia izan zen gazta estutzeko. Etxearen azpian bodega deiturikoa zuten eta gaztak ketzeko tokia jarri zuten. Orduan ez zen hozkailurik eta etxeko tokirik freskoenean jartzen zituzten gaztak.

Transkripzioa

- Eta baserrian behiak eta zer gehiago?
- Behixek, ardixek eta... Ardixe beti egoten zan gurien.
- Artzai ibiltzen ziñen?
- Ama. Gurien zan artzaixe ama. Gaztaie oso edarra itten zun eta ama zan gure artzai prinzipala. Jatxi´re harek itten zittun gehixenien. Bueno, nik

laguntzen nixon eta aittek´e bai baiño. Guk "más bien" behixek eta.

-Eskuz jazten zuen amak?

-Dana eskuz, bai, dana eskuz. Artien ez zauen gaiñera makinaik eta hamen hola.

-Artalde haundia zeneukaten?

-Ez, gehixena egon zienien egongo zien berrogeta hamabost-hirurogei.

-Eta gazta? Esan dezu egiten zenutela. Kalera saltzen zenuten?

-Kalera saltzen zun bai, dendataa ta. Gero partikular ere behin ezaututa asko etortzen zitzakun gazta billa.

-Gogoratzen zera gazta nola egiten zuen? Zuk egin duzu sekula?

-Honbre. Lagundu´re egin izan nixon, bai. Iguel epoka batzutan eingo zittun hiru batera ta ordun laguntzen nixon.

-Nola egiten zen?

-Gaztaie ba, esniek behar du bere temperaturie, ezta? Ematen zixon gatzarixa, ordun "kuajorik" eta ez, gatzarixakin, eta gogortzen zani, laga tenplätzen, ezta, eta dana puskau ein ber izaten du. Dana haustu. Eta ordun eskukin poliki-poliki dana batu behera mamiña. Ez zauen ordun aparatoik eta ezer. Eskuekin batzen zun. Eta gero batzen zunien mamiñe ontzixetan ipiñi. Ontzixetan. Eta gero eskuz estutu. Eta azkena bearek ematen zixon baiña estutzen eta laguntzen nixon. Azkenengo urtetan holako prensa txiki bat ekarri gendun, bai. Eta harekin asko lana ebitatzen zun. Ipiñi prensatan eta bearek estutzen zun. Gero keie ematen zixon, eta harek...

-Nola keetzen zituen?

-Ba esango dizut: lelengo beheko suen parien, karrerie esaten zitzekon, gaztaiena, eta han ipiñi eta tximinixen gora keie junez, han. Baiña gutxi hartzen zittun han aldiko eta peligosue izaten da su hartzen bazun beheko zerak, berotu eta gaztaie pitzau itten zan. Eta ein gendun leku bat etxien azpixon bazauen bodega izeneko bat, itxi dana tabikaz eta suelorasoz, ta bueltan apalak. Eta gero erdixan keie emateko lekua. Eta harekin kriston soluzixua. Gaurko ridikulue, baiña orduko kriston soluzixua.

-Eta zenbat denbora euki behar da gazta saldu aurretik? Hala segituan saltzen zenuten?

-Ez, ez, ez. Einde lelengo pixkat azala ein arte keerik ez zako ematen. Pixkat azala itten zitzakonien gaiñea, egun biriz bat edo, pixkat trapue pasau, porke lizune itten zako bestela. Porke ordun ez zauen ez frigorifikoik eta hola tratamentuik ez zauen.

-Eta orduko frigorikoa zer izaten zan?

-Ahal zanik lekuik preskonien ipiñi baserrixan.

4.16. Soroko eta egurretako lanak idiekin

- **Hizlaria(k)**: Lete Larrañaga , Elias
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-019/007
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:11:03. **Bukatu**: 00:12:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
 Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Idiak beti izan zituzten etxean ezkondu zen arte. Soroko lana idiekin egiten zuten eta gogoko zuen. Garia, arbia, artoa eta abar

egiten zuten. Neguan egurretan ere idiekin egiten zuten,
Aizpurutxoraino jaisten ziren.

Transkripzioa

-Esan degu behiak bazenituztela. Idiak?
-Idiek ´e bai. Beti idiek. Idiek kendu giñuzen neu ezkondu nintzen urtien.
Idiek kendu eta tratorie ekarri gendun. Bai.
-Eta idiekin soroan ibiltzen ziñen?
-Ibilliko ez nintzen ba! Bai, bai. Idiekin. Eta haure gaiñea izeten zan
gustoko lana idiekin souan ibiltzia.
-Ze lan egiten zenuten?
-Idiekin souen eta? Eske orduen dana labratzen zan. Itten zendun garixa,
itten zendun arbixa, gero artue; eta etxien zenduzken terreno onak danak
labrau itten zien. Labrau izeten da ba hazixa erein zera eitteko. Idiek lan
asko itten zebeñ. Gero negun egurretan. Egurretan bai, trongotan eta. Nola
ez zauen kamiñoik, ba hor sortzen zien egurrek danak Aizpurutxura bajau
ber izeten zien.
-Eta nola bajatzen zenituzten?
-Burdiekin. Eta trongo haundiek baldin bazien, esaten zitzekeñ
"zaldiburdixa", eta izeten zan burdi motz-motza, eta hari engantxau
atzetik, muturra jaso bakarrik eta tarrasien.
-Bide puxka bat egongo da ba Elusutik.
-Honbre, guretik Aizpurutxura junaldixa. Bai.

4.17. Ikatza egin eta saldu

- **Hizlaria(k):** Lete Larrañaga , Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-019/008
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:12:27. **Bukatu:** 00:14:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Urtero ikatza egiten zuten mendian, 3 txandatan. Ikatza
egin eta gurdian Soraluzera eramaten zuten; handik diru mordoxka
ateratzen zuten. Baserri gehienetan egiten zen ikatza eta diru garbia
izaten zen handik ateratzen zena.

Transkripzioa

-Eta hori baiño gehixao esango dizut. Geuk itten gendun iketza mendixen.
Urtero itten zien. Urte baten hiru txendor, hurrunguen lau, urtero. Eta han
itten zan iketza, han repetidoriek eta badaure ba, goixen, ba inguru hartan
daure ba txarak, osea, iketza eitteko lekuk, eta handik ba al dakizu ze itten
zan? Kargau burdixek eta jutun zien Plazentzira iketzakin. Auzuek alkarri
laguntzen zixoen, auzolana esaten zitzekeñ eta. Bueno, bati tokatzen
zitzekeñien...
-Ikatz hori eramategatik pagatzen zizuten?
-Bai. Ba esango dizut, ordurako iketza eittie zan pixkat soluzixue, porke
neguen preparatzen zendun egurre, gero udaberrixen [negu-negue txarra
da mendireko, ikezgiñien egoteko ta], eta hor maiitza inguruen, egualdixa
mejorau o eta, egune luzatu, eta ordun egosten zan, iketza esaten giñun
guk egosi. Eta egosten zienien, etaa ta zakutan kargau ta auzoko beste bi

edo hiru o ekarri irixekin ta kargau ta Plazentzira [eaman]. Haura zan diru bat kostatzekia. Negun itten zendun eta, esaten dana, diru garbixa, esaten giñun guk. Haure garbi-garbi, kostatzekeko dirua. Etzan diruik ordun eta.
-Eta asko saltzen zan?
-Bai. Ixe basarri danak itten zebeñ iketza. Gure alde hortan bai, asko asko.

4.18. Aizpurutxoko errotan garia eho eta etxerako ogia egiten zuten

- **Hizlaria(k):** Lete Larrañaga , Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-019/009
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:14:02. **Bukatu:** 00:17:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Garia
 - Baserría » Baserriko lanak » Errota
 - Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Ogia egiten zuten. Errota Aizpurutxon zuten eta astoa hartuta joaten ziren errotariarengana, garia ehotzera. Gerra ondorenean, gose urteetan, ez zuten errotan ehotzen uzten eta gauez ezkutuan joaten ziren. Gari eta okela estraperloa ezagutu zuten. Ogia etxerako egiten zuten, ez zuten saltzen. 1943 inguruan errazionamenduko ogi beltza izaten zen.

Transkripzioa

-Eta lehenago aitatu dezu artoa eta. Ogia egiten zenuten etxean?
-Bai. Beti. Eta ogixe geiñea ordun ez zan pentsatzen garixe itten ez bazendun ogirik jango zendukenik´e. Izeten zan garixe ein barik geratzie, pentsau´re ez.
-Errotarik bazenuten?
-Bai, errota zauen Aizpurutxuko kamiño onduen.
-Eta errotaraiño oiñez?
-Astukin. Bueno, idixekin iguel jungo ziñen baiña jeneralien bi astokin ba. Batek garixe eta bestiek artua edo, trukutzen zan.
-Eta nola egiten zenuten errotan?
-Errotan? Errotarixa egoten zan fijo bat. Eta hor zien batzuk sozixuek, gu ez giñen sozixo. Baiña danei igotzen zixuen juten zana. Eta zu juten ziñen goizin eta zuk nahi zendunin garixekin, eta iguel pronto bazeuken bete emango zun, bestela igo arte egon in ber. Bai. Ekartzen zendun igota bakarrik, eta gero etxera ekarrittakun bahie izaten zen pasatzeko, zaixe apartau eta iriñe ogixe itteko. Gerra ondorenin, ni akordatzen naiz, ni artien mutil koskorra, baiñe gurien morroie bazauen eta ordun gose-urtia, eta kontrabandun, eta ez zebeñ lagatzen errotan igotzen, eta itten zebeñ gabien ordu bixek aldien edo jun, morroie juten zan, akordatzen naiz ni gabien berandu nola juten zan, eta egune zabaltzerako iriñe ekarri.
-Kontrabandoa ezagutu zenuen.
-Bai, alde hortatik bai. Pixket bai bai; hor geizki ibiltzen zien, hor goarzobillek noiznahi juten zien eta, egunez eta ez zauen zera eitteik.
-Zeren kontrabandoa izaten zan gehiena?
-Ez zauen libre, ez zauen libre ordun garixa ta manejatzeik.
-Zerena izaten zan kontrabando haundiena?
-Garixena. Ostien hor apartekoik ez. Ni artien oso txikixa. Akordatzen naiz

pixket aitek eta bere koiñedu batek eta txahala hiltzen zebeu baserriren eta gero gabien ematen zebeu Plazentzira ta okelie. Gosie zauen ordun gosia. Nik garbi esan, neuk goseik ez naiz akordatzen pasau nunik, porke ogixe beti egoten zan.

-Ogia kalera saltzen zendun?

-Ez, etxerako. Joño, kaliin ogirik ezin zuzendu izeten zebeu ordun, "ogi beltza" edo esaten zixuen, holakue egoten zan eta norberan amistadekuei edo senidiei edo, aitek bere arrebari edo ba etxien egindako ogixa eman bai, saldu ez.

-Zergatik deitzen zitzaion "ogi beltza"?

-Beltza zan eta. Ez dakit zerekin indakua izeten zan, moniato [boniato] beste izenen bat zun. Ni(k) hainbeste ez naiz akordatzen horrekin.. Hori epokaik txarrena uste´et egon zala cuaretayunotik hor cuarentaidos-tres, hola. Behin gu zera giñenerako ia pixkat...

4.19. Garitan hainbesteko bat herrira entregatu beharra

- **Hizlaria(k):** Lete Larrañaga , Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-019/010
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:17:04. **Bukatu:** 00:17:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Ardientzako ez zen gaur bezala kanpainarik izaten. Baserriarrentzako diru-laguntzarik ez eta, gainera, garitan hainbesteko bat eman behar izaten zuten herrira.

Transkripzioa

-Ardiei kanpaiñarik eta horrelakorik egiten zitzaien?

-Keba! Ez, ezer ez. Eta ardixentzako ba guk ematen giñun betenaixuek zera inda, norberan kapritxoz, gibelak garbitzeko eta holako pastilla gorri bat izeten zan, bentaja itten zixoela eta holako zerak, baiña ez.

-Markarik edo izaten zuten?

-Keba! Ezta ezer´e. Zuk bazenduzken hogeta hamar edo hiruroge hatamar edo larogei, igual-igual. Ordun ez zauen, ez zauen.

-Baserriarrak laguntzarik jasotzen zuen nonbaitetik?

-Keba! Ez, ez. "Al contrario", garixe ta entregau in ber izeten zun hainbeste kilo. Eskau itten zixuen entregatzeko ta.

-Eta nora entregatzen zen?

-Herrire. Gero nora juten zan, hoixe ez dakit. Baiñe herrire entregau.

-Obligazioa?

-Bai, obligazioa.

4.20. Etxean ganadua zuten; esnea saltzera kalera

- **Hizlaria(k):** Osinalde Arrizabalaga, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-022/002

- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:02:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Betidanik ganadua izan dute baserrian: behiak, idiak eta abar. Esnea kalera saltzen zuten astoan hartuta etxez etxe. Etxeko emakumeak joaten ziren saltzera. Zortzi anai-arreba ziren familian.

Transkripzioa

- Eta baserrian ganadua euki izan dezue beti?
- Bai, ganaue dana, beste gauza haundirik ez da guretan egon.
- Ze ganau mota izan dezue?
- Ardiek eta behiek. Eta txarriek´e bai. Oin txarriek ez du asko balio ta. Idiek beti.
- Esnea ze saltzen zenduen, kalera?
- Orduen kalera; gero urte batzuten ibilli giñen Gurelesaa ataritzen´e. Horrek´e laga in diyo eramatiei, eta oin batez.
- Eta nola saltzen zenuten kalean esnea?
- Astun hartu ta eaman astakada esnie eta han partidu in ber etxetaa. Hala´re oingue baiño hobie zan haure.
- Bide dexente egongo zan ba.
- Bidie luzie, bai. Hemendik Azkoittire egongo die lau kilometro pasa, bost iguel.
- Eta ze juten ziñen, zu bakarrik?
- Ez, ni ez, andran bat juten zan, emakumen bat.
- Zenbat anai-arreba zineten?
- Zortzi. Zazpi anai ta arreba bat.

4.21. Artzaintza gertutik bizi zuen

- **Hizlaria(k):** Osinalde Arrizabalaga, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-022/003
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:02:13. **Bukatu:** 00:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Joserren aitona ibili ohi zen artzain eta harengandik ikasi zuen. Aizarnara joaten zen aitona ardiekin berak 8 urte inguru zituela.

Transkripzioa

- Eta etxan ardik eta bazeuzkezuen? Ardik bai etxan?
- Bai, gure etxien sekula ez da palta gure etxien ardiik.
- Eta artzai zeu ibiltzen zinen?
- Artzai askotan, aittitte hil zan, aittite zan prinzipala ta, ordun ez zan txakurrik-eta oin bezela, ta pare bat [...zar] juten giñen, harek agindutakue in ber guk.
- Nora juten ziñeten ardiekin?
- Aizarnara bai sasoe baten, baiñe ya hori ni umie nintzela, baiña oin aspaldiyan iñora´re ez etxetik.

-Aizarnara? Eta nola joaten zineten, oinez hemendik?
-Oiñez jun ber ba.
-Zu eta zein gehiago?
-Ni artien ez nintzen juten, aittona juten zan ordun. Zuzen juten zien behin dunbak erantzi ezkeo.
-Zu akordatzen zara nola joaten ziren?
-Bai, bai, akordauko ez naiz ba.
-Nik zortzi bat edo eukiko nittun, eskolan banabillen behintzet eta. Zortzi bat urte eukiko nittun.

4.22. Gose denboran etxean ogia egitea salbazioa

- **Hizlaria(k)**: Osinalde Arrizabalaga, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-022/007
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:06:21. **Bukatu**: 00:08:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Artoa, garia eta etxerako adina ogi egiten zuten. Gose denboran etxean ogia egitea salbazioa zen. Irina asto gainean hartu eta Martirietako Monte baserrira joaten ziren errotara. Errota asko ziren inguruan.

Transkripzioa

-Eta etxen...Ganaduekin esan dezu ibiltzen ziñetela eta... baratzen lanik egiten zenuten?
-Bai, hori beti, beti, gutxi edo gehio baratzen eta. Laborie, artue ta garie ta danak ordun. [...] Etxerako lain ogi, garie etxien ein ber. Bai, baserrittan gose-denpora hartan eskerrak baserri pixkat bazan behintzet etxerako ataratzen zan nahikue ogi te [ta].
-Zuek ogia egiten zenuten etxean?
-Bau. Baita gaur´e.
-Zuk egiten zenuen ogia?
-Ez, ez, ez. Nik jan bakarrik. Behiñ´e ez det in. Len amak itten zun eta oin andriek eitten du.
-Eta nondik ateratzen zenuten irina?
-Irina? Zorrue hartu te errotaa jun ber asto gaiñien hartute.
-Eta nungo errotara joaten zineten?
-Toki askotara. Orduen errota asko zan hamen.
-Nora joaten ziñeten?
-Jeneralien "Monte" edo zan baserri bat itten zune. Gero hor [Aldatxabarren] edo beste bat bazeon hor, han´e bai ta.
-Eta zuek Urrategitik nora?
Beste gizona: Guk xei etxek edo soziedadie einda zeuren, han beheko errekaaldien urekin ibiltzen zana, errotie; haraxe.
-Hamen errotie asko zan garai baten, nunahi.
-Eta errotaraino astoan?
-Dudaik ez ba. Astua edo behorra edo. Askotan behorra nahio. [...]

4.23. Ikatza egin eta saldu egiten zuten

- **Hizlaria(k):** Osinalde Arrizabalaga, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-022/014
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:22:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Sekula lantegirik ez zuen probatu, ezta gustatu ere. Ikatza egitera Zumarragara joaten zenean, han lagunak lantokian ikusi eta haietaz errukitzen zen. Ikatza nola egiten zuten azaltzen du. Saldu egiten zuten ikatza.

Transkripzioa

-Soldaduskan egon eta handik bueltatu ziñenean berriz ere baserriko lanetara?

-Berriz ´e etxera.

-Sekula lantokian lanik egin zenuen?

-Ez, ezta gustau ´re, sokiakin lotuta jun ezien kaleko lanik. Ikezgiñan eta hola ibiltzen giñen. Iketza eitten gaztetan. Eta baten jun nintzen kamioikada iketzekin Zumarrara, Orbegozonera. Eta hamengo nere lagun batzuk eta ikusi nittun han nola ai zien lanin. Handik ez zeon burue jiratzeik ´e. Di-da!, di-da! Hantxe lanien [...], burdiñie sartu ta sartu. Eta esan nion neure buruai: hola lan in ezkeo baserriyan ´e biziko gaittuk.

-Inbidiarik ez zizun ematen?

-Ez. Gero beste anaiek ´e han zebiltzen, beste sei anai edo bazien ta.

-Esplikau ikatza nola egiten zenuten?

-Iketza? Bai, erreza esplikatzen iketza nola eitten dan. Jeneralien udean edo astiunetan udazken aldera edo, ipintzen gendun egurre txikitute; ipini pillak, pillak, pillak. Eta gero negun lanik gutxien ordun egoten zan, eta orduen, txondorra izeten da batan bestien geiñien egurre ipiñi. Egur pilla haundi bat.

Beste gizona: tolostau. Erdixen ardatza edo ze ipintzen zenduen?

-Erdiyen sue eitteko zulo bat. Gero zulo hartan bera botatzen zan sua, eta gero handik egurrak ia danak hartzen zun. [...]. Baiñe egur haure in ber zun lelengo, zoie, zoie esanda entenditzen al dezu? Zoie lurre, zelaiko azal hori. Haekin dana egur haure tapau in ber zun, surik ez du kanpora erten ber, dana barruen. Dana barruen, hantxe [zeola-zeola-zeola] egurre egosi itten zan eta hauraxe iketza.

-Eta ikatz hori etxerako, kalerako?

-Ez, ez, saltzeko. Baitte butano edo zea ibiltzeko, kamionak edo zera bazien ordun iketzakin, ibiltzen zienak oxigenuekin ("gasogenuakin" esan nahi du).

-Ikatza zer zen, garestia?

-[Pagaartenak] hala esaten zun baiña guretzat ez zan hain garestie ´re izeten. Lan asko izeten du iketzak. Gero gau ta egun han eon ber dezu.

-Gau eta egun egoten ziñeten bertan?

-Bai, baten bat egon in ber.

-Nun egiten zenuten ikatza?

-Basuen, mendien, egurre zeon tokin, etxeko terrenotan.

-Nola saltzen zan kalera, etxez etxe?

-Ez, ez, ez. Baten batek eskatzen zun. Burdika eaman gero behera, oin bezela kamiñoik ez zeon ordun eta. Burdikarie hartu te segi.

Beste gizona: hau baiño gehio irabazten zunen bat egongo zan almagaznen bat.

-Baitte zerak´e, suteiye zaukenak eta ere behar izeten zien, eta haiei. Eta gero Orbegozonien asko iketza.

-Ikatza egiteko urte-sasoiren bat egoten zen?

-Astie dagonin in behar iketza.

-Ez zegoen urte-sasoirik?

-Ez, ez.

Beste gizona: Baserrien lanik gutxiña neguen izen ohi zan eta orduen.

-Udea da earrena iketza eitteko. Gaba motxa egoten da, eta euririk batez igual, eta euriye txarra da iketzantzat; esan leike ona dala, baiñe sue berotu eitten du euriyek, gaiñetik euriye eitten badio, indarra hartzen du azpikuak. Eta ude da onena. Baiñe oin danak kastau die hoiek. Oin ez da hamen iñor, lehenoko zaharren bat ez badao ez da iñor eongo txondorra itten dakienik´e.

4.24. Pilotak nola egiten zituzten

- **Hizlaria(k):** Juaristi Alberdi, Luxiano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-023/008
- **Iraupena:** 0:06:36. **Hasi:** 00:15:17. **Bukatu:** 00:21:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Txapelketa batzuk aipatzen ditu. Orduko frontoiak asko betetzen ziren, pilotarako zaletasun handia zegoen eta. Pilotak motelagoak izaten ziren eta aurrerago jokatzen zuten. Azkoitian Luxianoren osaba batek eta Txikitotarrak egiten zituzten pilotak. Luxianok eta lagunek ere egin ohi zituzten etxean. Pilotak egiteko ilea bustiz gero, pilota moteldu egiten zen eta bustitakoan labean sartzen zuten. Profesionalen pilotak deskribatzen ditu.

Transkripzioa

-Orduan esan dezu partidua jokatzeraz joan anaiarekin eta irabazi egin zenuela.

-Irabazi ein gendun eta gero "Interdistritos" esaten zan hamen, zona batek bestien kontra, bestien kontra jokau eta gero izeten zan ba "Campeón de Gipuzkoa" ertetzen zun handik. Gehixena, ondona, gehixenak irabazten zittunak atzenin finala, gero "Campeón de Gipuzkoa". Haure etaa gendun eta haxe izen zan nere hasieria.

-Nolakoa izaten zan orduko frontoia?

-Orduko frontoia earra izeten zan gaurkuen aldin. Zegatik afizionau jokatzen ai giñela´re jentie beteta kanpuen sartu eziñik eta egoten zan eta. Ni gehixena hola tristuraik haundiña eman izen ditena da gero ikusi, geu erretiraute gero, ta beti pelotia jun ta pixka-pixkat bada´re bajau, bajau, bajau; ta ordun ikusten zenunien frontoiek hain jende gutxikin te [eta], pelotari onak jokatzen ai ziela, orduan apreziatzen genun gure sasoiene ze suerte izan gendun, hainbeste jente jutia.

-Garai baten orain baiño jende gehiago?

-Bai.

-Eta frontoiak berak?

-Ba berak iguel samarrak zien. Bai ba. Ze gaur dabiltzen fronto(e) bat edo beste arreglaute egongo da; Eiber arreglaute do, Bergara ´re bai, baiñe beste fronto(e) asko igualak segitzen dixoe ordun einda zeurenak. Gero berrin batzuk ein ein die, zeatik guk jokatzten genunien Donostixen Grosa zan eta gero berrixa ein zeben, Anoeta, haure bota in zeben eta. Ta ganbixo oso gutxi izen da frontoian, ganbixue izen da pelotakin. Pelotak daure ba askoz ´e bizixauek, eta orduen lengo frontoiek hogeta hamalau metro, hogeta hamabost metrokuek errebotera, atzeko paretara oso gutxik etaatzen zeben, pelotari batzuk sekule ez zeben etaatzen, eta beste gutxi izeten zien etaatzen zebenak, eta gaur berriz pelota bizi hauekin frontoiek pixket ahal diela, ahal baldin badue, atzeatzen ai dia bizixak dielako eta edozeiñek etaatzen dulako atzea. Hor ganbixau da asko pelotak bizixauek [...].

-Eta pelotak nondikan edo zeinek egiten zizkizuen orduan?

-Pelotak eitteilliek ordun bazin, gure osaba bat ´e bazan hamen Azkoittixen pelotak eitten zittuna, eta besteek pelotak eitten zittunak Barakaldon zan profesional eitten zittunak enpresantzat pelotak. Eta beste banakai batzuk ´e, Txikito, Azkoitixen bazan bestia, Txikitotarrak ´e, haixek eitten zittuen, eta pelotak eitteilliek beti izen die nik ezautu dittuten sasotik.

-Garestia zan pelota?

-Ba beti garestixe eta ordun garestiña, zeatik gu mutilkoskorretan ibiltzen giñen sasoiñ hamen fabrike bat bazan harixe ta eitten zittuenak, eta nik ez dakit nolabait inguratzen genun hango hari-zaztarra edo zeoze, eta harekin geuk eitten giñuzen pelotak, ikisi giñuzen eitten, eta gero josi ta danak geuk eitten giñuzen.

-Zeuek?

-Bai, kanika barruan ipini pelotiai hots hobia etaa zeixen. Bazien, limonada esaten giñun guk, gaseosa, hamen fabrike txiki bat edo, tailler txiki bat bazan, eta harek honenbesteko botilla batzuk, txiki batzuek betetzen zittun gaseosakin, ta harek ematen zun bi presixukin ixteko behetik gora, kanike bat barrun, eta harek ixten zu. Eta haixek nundik topauko ibiltzen giñen, puxkatzen bazan botilla haura pelota eitteko harekin. Zeatik hots hobia etaatzen zun pelotik paretan jotzen zunian da [eta]; eta harekin.

-Eta besteek normalean materiala berdintsua erabiltzen zuten pelota egiteko?

-Guk ibiltzen genun pelota itteko bai, zeatik lania izeten zan, eta gero izeten genun txarrena izeten zan ba lana horrekin bustitzen bazan pelota moteldu eitten zan eta orduen etxea ekarri eta labien sartu eta atzea sekau berriz pelotaa zera eitteko, eta hola ibiltzen giñen. Baiñe beste pelota profesionalana diferentia da. Haure da ba lelengo goma bat. Hori estranjeritiken ekarriko zeben, pentsatzen det, hamen ez dakit, [ez det] uste, latexa. Gero izen zan, baiñe horren aurretik beste goma bat, totxuek bezela holako pusketak etortzen zin, eta guraizekin ebaitzen zeben mehe-mehe haure pelota eitten zebenak, eta gero mehe-mehe ebai eta tira haixek juten zien zera itten, pelotia bezela biribilla eitten. Eta orduan eitten zanian tamaiñe bat, ez dakit zenbat izengo zan, zenbat gramokue, zeatik zenbat eta haundixo haure ipintzen zan, pelota bizixao izeten da. Eta orduen tamaiñe bat harekin hartzen zixoen pelotie normala izeteko, gero lana bat ipintzen zixoen flojuaua haren geiñetik, eta gero beste lana bat ipintzen zixoen ondiken tiesuo, fuertiaua geiñetiken, ba fuerte haure lotzen zixoen. Eta gero narrue ipintzen zixoen geiñetik hari, narro bat. Esaten zeben zala ahuntzena, ahuntzen narroa. Eta gero ahuntzen narro haure ebaitzen zeben "ocho" bezelako dibujo batien. Berak plaka batzuk bazauzkeben eta harekin ebaitzen zeben, bustitzen ipintzen zeben narru haura hobeto tirtzeko, eta ordun josten zeben, handik etaata. Eta gero

gelditzen zan oso tieso. Eta gero hamen pixkatien ibiltzen zien biguntzeko, fronto kontzejupe hortan, oso ona zan pelotie biguntzeko, harrixe aproposa zegoen, oso suabie eta ona, eta han izeten zan pelotak preparatzia, gero ibilli zeixeben profesionalak edo pelotarixek.

4.25. Astoarekin errotara; ogia etxean

- **Hizlaria(k):** Zabala Zabala, Manuela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-029/002
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:01:37. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Garia
Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena:** Baserrian denetik ereiten zuten. Errota Olabarrin zuten (Azkoitian) eta hara joaten ziren astoa hartuta. Eramaten zuten zakutik hainbesteko bat kentzen zieten. Ogia etxean egiten zuten etxeko kontsumorako. Ez zuen errazionamendua ezagutu.

Transkripzioa

- Ta zer zeuketzen basarrin, ganadue?
- Danak, gauze danak. Leheno garixe, artue, babie... dana eitten zan, ba? Guk danak eitten giñuzen.
- Ze eitten zenduen... errota bertan zeukezuen, etxe inguruan?
- Errota Olabarrin.
- Etxetik gertu?
- Aingeru Guarda inguruan, hantxe pixket goratxuo.
- Eta haruntza juten ziñeten.
- Haraxe jun ber iriña ekartzea. Garixe o artue hartu ta haraxe jun ta ekarri.
- Ta nola juten ziñeten, oiñez ?
- Astuukin!
- Astoa hartuta?
- Berko oiñez jun! Ordun ez zaon automobilik!
- Alaba: Etxin ez [zauken] ez argiik ta ez urik.
- Astoa hartuta?
- Astuukin errotaa.
- Eta han ze ein ber izaten zenduen? Pagau ein ber izaten zenduen zeoze?
- Bearek kentzen zun ematen zendun zorrotik. Lakie kentzen zun.
- Nola? Lakie?
- Bai. Bai be, harek kilue edo eztakit nik zenbat kentzen zun. Zorro hartatik kentzen zun harek, guk ez giñon dirurik ematen baiñe... holan eitten gendun.
- Eta ogia eitten zenduen etxen?
- Bai.
- Zuk itten zendun ogie etxen?
- Bueno... etxin zaonak!
- Alaba: Artue ´re bai, ez, ama ?
- Artue ´re bai batzutan ta... hola, artue ta esnie jan ta...
- Eta etxen indako ogie kalea saltzen zenduen?
- Ez, ez, ez, etxeako lain.
- Garai hartan ogie ze izaten zan, rasionamentukoa?

- Ez. Gero zin rasionamentukuk! Gero. Guk nahikue ogi eukitzen gendun erosi ezkeru.
- Eta soron-ta ze lan eitten zittuzuen?
- Soruun? Esan dizut, ba! Artue ta babie ta garixe ta... izeten zin gauzak. Oin garixe ahaztuta dao, baiña guk beti itten gendun, urtero-urtero.
- Eta haik kalea saltzen zittuzuen, azokaa o nunbaittea?
- Ez, ez, ez, etxeako.

4.26. Errenteroak ziren; etxejabearekin harremana

- **Hizlaria(k)**: Zabala Zabala, Manuela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-029/003
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:03:50. **Bukatu**: 00:04:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Etxean errentan bizi ziren, eta hura ordaintzeko ere garia ematen zioten nagusiari. Etxejabea Bergarakoa zen. Urtean behin ordaintzen zen errenta.

Transkripzioa

- Eta haik kalea saltzen zittuzuen, azokaa o nunbaittea?
- Ez, ez, ez, etxeako. Ta errentie´re pagau ein ber ta... garixe ematen zan, ba, lehen. Ez dakit zenbat ematen zan, ni gaztena nitzen ta nik gutxiña jakitzen nun.
- Errentero ziñeten etxen...
- Bai, gero erosi gendun.
- Etxea zer zan azkoitiarren batzuna?
- Bergaran zauken nausixe, ez dakit zein zan. Ni gutxi enterautakue naiz, atzena naiz ta.
- Eta, ordun, garie-ta entregatzen ziozuen o... soroko zea, errenta pagatzeko? Hillen hillekoa o nola izaten zan hoi?
- Ez, urtin behingua.

4.27. Kalera esnea, fruta eta menda-sortak saltzera

- **Hizlaria(k)**: Zabala Zabala, Manuela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-029/004
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:04:32. **Bukatu**: 00:08:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Baserrian behiak izaten zituzten. Esnea kalera saltzen zuten astoa hartuta. Menda-belarrarekin sorta egin eta saldu egiten zituzten, etxea garbitzeko erabiltzen ziren eta. Fruta-arbola ugari izaten

zuten etxe inguruan eta azokan saltzen zituzten frutak. Frutak biltzeko urte-sasoia aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Eta baserrin esan dezu ganaue zeukezuela... ze ganau zeukezuen? Ardiak o ze eukitzen zittuzuen?
- Ez, ez, behixek. Behixek eta txahalak, bai; ardiak ez, ez gendun eukitzen ardiak. Ni txiki-txixike nitzela baziin, baiño geo kendu in zittuben ardixek eta geo ganauekin.
- Zer zien, esne-behiak?
- Ba! Danetakuek, batzuk pixket gehixo, bestiik pixket gutxixo... Ez oin bezelako esne-behi haundi hoixek, e!
- Baiña etxeako esnea...
- Bai, etxeako ta kaleako´re bai pixket eta...
- Saltzen zenduen kalea?
- Bai, bezerueri. Esnie eman ber gendun tokixen atie irikitte egoten zan ta sartu barrura ta ontzire bota esnie ta atie itxi ta alde atzea. Guk hori itten gendun.
- Eta astoan juten ziñeten ordun´e ?
- Astuekin, bai. Astuekin nahi ez bagendun, eskun eman ber, marmitt bi hola hartu ta... in in ber.
- Ta bakarrik juten ziñen ala anai-arreban batekin?
- Ez, ez, bakarrik, kalera zetorrena bakarrik. Etxin ein ber zun bestik lana.
- Eta diruik ateatzen zan esnetik?
- Ez dakit nik ze ateatzen zan, handik bizi giñen ta...
- Dirutxo pixkat ordun ateatzen zenduen, bizitzeko lain...
- Bai, saiaute, saiaute. Bueno, ze esango dizut, ba, nik? Iluntzi bitzen ta ibiltzen giñen ta, pentsaizu, iluntzixe zenbat izeten zan, ba, txakur haundixe?
- Nola esan dezu, iluntzea?
- Iluntzixe. "Erratza" esango´zu zuk? Ez? Ez dakizu zer dan?
- Ez, esplikau pixkat.
- Zer in egoten die, zelaixetan-ta. Menda useidun bat egoten da.
- A! Belarra da?
- Bai. Ta haura bittu ta in ederra iluntzixe eta saldu ta gero harekin...
- Iluntzixe zenei esaten diozu, sortai?
- Bai.
- Ta hue saltzen zenduen?
- Bai.
- Eta zertako ibiltzen zan, ba, hue?
- Etxia garbitzeko kalin. Ta erosi itten zebeñ, ta guk saldu.
- Ta hoi nora saltzen zenduen dendataa ala etxez etxe?
- Ez, ez, plazan! Plazan. Eskau ezkeo etxea bezeruei-ta ematen giñon, baiño bestela plazan.
- Alaba: Beti keixie ibiltzen zebeñ asko.
- Fruta-arbolak eukitzen zittuzuen?
- Asko. Sail haundixek zien, zatarrak die, baiñe sail haundixek zin.
- Eta ze eukitzen zenduen, keizak?
- Keixek eta aranak eta sagarrak eta melokotoie ta mixurkak eta danetatik.

- Eta hoiek´e plazaa saltzea?
- Bai, ederrenak. Batzuk ederrauek, bestik zatarrauek ibiltzen zin madarixak´e. Ahal zan modun.
- Eta zein ibiltzen zan landara haik landatzen? Zu ibiltzen ziñen ala...?
- Arbolak landatzen? Behin landau ta kitto.

- Lehendikan zeuden landauta?
- Bai. Bestela berrixe sartu ta hazi arte laga in ber, [...] hasten zin arte.
- Eta ze garaietan biltzen zittuzun keixak-eta? Ze sasoieta biltzen die?
- Ba, lehelena San Isidron ingurun goizaokuk keixak eta handik aurrera gero.
- Eta melokotoiak eta hoiek´e berdin?
- Bueno, batzuk lehenuo eta haixek´e... zea, denborie eukitzen ze ben. Ta halaxe. Arbola asko egoten zan ta... danetatik pixkana.

4.28. Sagardoa egiten zuten etxean

- **Hizlaria(k)**: Zabala Zabala, Manuela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-029/005
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:08:17. **Bukatu**: 00:10:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Etxerako sagardoa egiten zuten; nola egiten zen azaltzen du. Sagar-arbolak etxean zituzten eta sagarrik onena geza-sagarra deiturikoa zen sagardoa egiteko.

Transkripzioa

- Sagardoik o itten zenduen etxen?
- Etxeako lain barrika bat o eitten gendun, baiño zatartu eitten zan atzenin e(d)ateako ta batez. Haure´re ein ein ber izeten zan, jota.
- Nola eitten zenduen sagardoa?
- Sagarrak...
- Tolareik eo bazenduen etxen?
- Ez. Bai, barrika txiki bat eitten gendun ta haure eitteko tolarie nola eukiko genduen, ba? Eitten zan sagarra bilddu ta txikiu ta ontzi baten sartu o eztakit nun, ta estutu, ta hari ertetzen zixon ure barrika baten sartu. Ta gero denbora pixketen euki, honenbeste denboran eo, ta gero e(d)an.
- Ordun etxen ze e(d)aten zan? Sagardoa e(d)aten zan o ardoa´re izaten zan?
- Gure etxin ez.
- Ez?
- Alaba: Aittittentzat.
- Gure etxin etzan izeten.
- Baiña hori zeatik, garesti zeon orduan ardoa-ta garestie izaten zan?
- Garesti etzan egongo, baiñe diruik´e ez.
- Bueno, sagardoa bazeukezuen behintzat eta...
- Bai, baiño haure zenbat denboraako? Ure! Ta ure´re...
- Alaba: Ekarri in ber.
- Ure´re urrutittik ekarritte zaon.
- Sagarrak... etxen al zeuzkezuen sagar-arbolak?
- Bai, bai.
- Ze sagar eukitzen zenduen?
- Danetatik: errezile ta gezie ta urtebixe ta... danetatik.
- Eta sagardoa itteko hoitatik edozein izaten da ona?
- Bueno, guk ez gendun sagardo asko eitten, barrika txiki bat.
- Baiña ze izaten da, errezil-sagarra sagardoa itteko?
- Ez, geza-sagarra onena. Sagar gorri bat izeten da, ba? Haure da earrena.

4.29. Oleta mendira artzain

- **Hizlaria(k)**: Agirrezabal Epelde, Jose Ignacio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-032/005
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:09:53. **Bukatu**: 00:10:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
 - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Baserrian behiak eta ardiak zituzten eta Inaziok eta arrebek egiten zituzten etxeke lanak aita eta anaia trenbidera lanera joaten ziren bitartean. Ardiekin Oleta mendira joaten zen eta etxetik goragoko bordara erretiratzen zen.

Transkripzioa

- Eta esan dezu baserrin bizi ziñetela eta, zer zeukezuen, ganaue baserrin?
- Ganaua, ganaua. Ta aitte bi semekin, egunian durua ematen ziu en harei trenbidien lanien, harea juten zien eta arreba eta ni etxeke lanak itten.

- Ze ganadu zeukezuen etxen?
 - Lau o bost behi hola egoten zien, ardiyek ere bai. Ta ardiyek nere kontura. Mendire [juten...] iluntzen ekarri in ber, 6-7 urtekin [mendire].
 - Nora juten ziñen ardikin?
 - Oileta aldea.
 -Ta bide pixkat egongo zan, ezta, Aizpurutxotik?
 - Eez, bidie... bai, pixkat bai, baiña, oain, ni ordun txakurra bezela ibiltzen nitzen. Halako ibilperie baneuke oin...!
 - Bazeukezuen txabolan bat Oleta alden edo?
 - Oleta aldien ez, baiña etxie baiño goratxuauen txabolie eta hara erretirau. Ta gero ardiyak jatxi in ber izaten dia zerien. Ta ama edo erreñe edo jungo zan harei ittea eta nik ardik inguraute behintzat hara. Eta holaxe gure [eskolie].
 - Zenbat ardi zeuzketzuen, asko? Artalde haundie, edo?
 - 30-40 bat edo hola egoten zien. Haretzek nere kontuak, haretzek zien nere eskolak.

4.30. Gazta egiteko prozesua

- **Hizlaria(k)**: Agirrezabal Epelde, Jose Ignacio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-032/006
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:10:57. **Bukatu**: 00:13:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-
 mugimenduak
- **Laburpena**: Ardiak eskuz jezten zituzten eta gazta egiten zuten amak eta koinatak. Gazta nola egiten zuten azaltzen du. Gatza estutzeko ontziak burdinazkoak izaten ziren. Larunbatetan kalera saltzen zuten gazta. Orduko diruak eta haien balioa aipatzen ditu. Zapatuetan esnea saldu eta etxerako erosketak egitera joaten zen arreba.

Transkripzioa

- Ta garai hartan ardi-jezteko makinak-eta ez zan egongo ta...?
 - Bai zera! Eskuz. Neuk´e ardi-jazten gazteik ikixi nun. Gero gaztaie itten zuen.
 .- Etxen gazta itten zuen?
 - Etxien gaztaia. Bueno...!
 - Zuk itten al zendun?
 - Ez! Nik mamiya harrapauta jan bai!
 - Zenek itten zun gazta, amak?
 - Amak edo koiñetak, anaiyan andriek. Ta hantxe.
 - Akordatzen zea nola itten zuen?
 - Akordauko ez naiz...? Bai, bai.
 - Esplikau pixkat aber nola itten zuen...
 - Gatzagiye botatzen [zaioe]. Gatzagiye badakizu ze iziten dan? Haure urakin pixkat zea inde botatzen zendun ontzi baten ta esnie epeltzera juten zaniyan haure bota ta gero gogortzen zaniyan eskuekin batzen zittuen ta... Geo gaztanontziye izeten zan, pote bat. Hara sartu ta eskuekin...

- Ze izaten zien egurrezko potek?
 - Ez, ez, ez, txapie. Ta txuluk inde ta handik ertetzen zan gatzori zea ta... Eskuekin estutu-estutu-estutu in ta gero ipintzen zuen ta han.
 - Keetu o itten zittuen?
 - Batzuten bai kolorie itteatik, baiña ez, bestela indekue edarraue, ke gustue izeten du bestela harek.
 - Eta kalera saltzen zenduen gaztaik edo?
 - Bai, arreba´re beti juten zan, harek zapatuen... Oso maittie nindun ni harek. Eta esaten zien menda [igurtziyek], mendie izaten da, ba, ta usai ederrakin kuartuk garbitzeko. Ta [...] 10 zentimo izeten zan dirua. Bostekuak´e bai, 10 zentimo´re bai, gero bi erriel... Bi errieleko hori izeten zan duro zillerra bezela, txikiye izetie. Eta bestie zan txapie... Nola esango dizut, ba? Txakur haundi hori, 10 zentimo balio zittun harek, eta bostekue bestie, harek txikiñek. Oin zentimue ibiltzen dan bezela, orduen 5 zentimo eta 10. Ta 10 zentimoko harek 10 behar zin pezetie itteko. Ta bestiekin bi erriel, pezetien erdiye.
 - Eta diruik ateatzen zan gazta saltzetik ordun?
 - Bueno, nere arreba....
 - Esnea´re bai?
 - E?
 - Esnea´re saltzen zenduen?
 - Esnia´re bai, bai, esnia´re bai. Zapatutan juten zan gure arreba haura askotan kalera. Esnie zeukenien esnie ta gero patata [berrie] hasten zaniien patata [berrie] ta astue kristo bezela kargaute juten zan. Ta bera ezkontzeko zebillen orduan eta beretzako arriua [plantau] zun harek [iñon dañoik] itteke. Etzan haundiye izengo, baiña... basarri batera ezkondu zan.

4.31. Ordu erdiko bidean azokara esnea saltzera

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Epelde, Jose Ignacio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-032/009
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:14:43. **Bukatu:** 00:16:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
 Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Arreba zapatuetan astoa beteta azokara joaten zen esnea saltzera. Etxetik Azkoitira ordu eta erdiko bidea zegoen. Inguruko baserrietako jendea joaten zen azokara. Ganadu azoka Andra Mari jaietan egiten zen.

Transkripzioa

- Eta esan dezu feria juten zala arreba eta ze juten zan, astoa hartuta?
 - Peria, azoka zapatuan egoten zan azokie hemen ta zortzi kilometro etortzen zan astue kargauta hona: menda-inuntziye ta zestuk beteta, esnien marmittek 10 litrokuk o hola zea, patata puskat, gero gaiñien lotzen gi(ni)zkon menda-inuntzi hoiiek eta tapa-tapa astuakin.
 - Bera bakarrik?
 - Bai, bai! Bakarrik? Bueno...! Haura zezena bezelakoxie zan.
 - Ta zenbat denborako bidea zan?
 - Zortzi kilometro zeen kamiñuan ta, ba, ordu ta erdi bat ber etortzen, ta

juten [...]. Axkar-axkar junda, e!
 - Beharko, atzera azkar bueltatzeko...
 - Bai. Ta gero segi lanien ta hentxe. Gero trenbidie akabau zan inguruen ezkondu in zan.
 - Azkoitira azokara ze etortzen zan hemen inguruko jendea saltzera?
 - Bai, bai, bai, hemengo baserritakuek tratuakin ondo ertetzen zuen. Handik etorritakua urriñao izeten da hori ta lan asko.
 - Kanpoko jendeik etortzen zan?
 - Bueno, kanpokuek asko ez. Azpeiti hobia hau baiño traturako ta Azpeiti, Elgoibar... ta [hortxe] danien. Zumarragan jaiyen itten zan jeneralien, ta hemen zapatuen.
 - Ganaduik egoten zan azokan?
 - Ez, ez. Ganaua, ba, Andramaietan ta hola izeten zan ordun ere oin itten dan bezela, antzera edo. Zumarragan Santa Ixabaletan ta Bergaran Erramu zapatu badakizu nola izeten dan? Ordun periya haundiya han´e. Ta holaxe zea izeten die.
 - Asike, ganaduik ez zenduen ekartzen saltzeko azokara, ordun?
 - Ez, bestela ez, ez, bestela ez.

4.32. Artzain-lanak; ardi-esnea

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Mendiola, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-034/009
- **Iraupena**: 0:04:25. **Hasi**: 00:15:00. **Bukatu**: 00:19:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Betidanik baserritik bizi izan dira; ardiak, behiak eta ahuntzak zituzten. Anaia zaharrena geratu zen etxeko lanetarako eta besteak lantokietan hasi ziren lanean. Luis Mari ibli ohi zen artzain lanetan, 70 ardi inguru zituzten. Ardi-esnea plazara eta denda batzuetara saltzen zuten eta gazta ere egiten zuten. Gazta nola egiten zuten azaltzen du.

Transkripzioa

-Eta esan dezu baserritik bizi izan zerala beti.
 -Bai bai.
 -Baserrian ganadurik bazenuten?
 -Bai, ardiye eta behiye ta asko. Asko edo..., bai, dexente.
 -Ardiak eta behiak?
 -Bai. Beste ahuntz mordoxka bat´e bai-tte, hola bizitzen giñen. Eta beti kanpora lanera, behin, esan dizut, eskoliai utzi ezkerro, behiñ hamabi bat urte ezkerro anaiekin batera. Anai zaharrena geratu zan etxian etxerako, ta bestiek Zumarrara ta hasi zien lanera, Orbegozonera ta bata ta bestera, beste bat obratan´e bai-tte.
 -Anai zaharrena geratu zan etxerako?
 -Bai.
 -Behiak esan duzu zenituztela. Esne-behiak?

-Ordun ez, gero jarri giñuzen baiña ni mutikua nintzanien artian ez. Mendiko behiek.

-Eta ardiekin etxe inguruan?

-Mendira, mendira. Horra, Oleta, Samiño, horra juten giñen.

-Zu ibiltzen ziñen?

-Beti. Ni mutil-koskorra nintzen orduko. Aittek esaten zin: “No!, ardik falta’ittuk, ekarri!”. Xei-zazpi urte, zortzi urte, eta jun in ber! Haiek ekarritte.

-Txabolarik bazenuten?

-Ez, ez, ez. Etxera, etxera. Etxera ekartzen giñuzen. Goizian mendire (jare itten?) giñen berriz’e.

-Artalde haundia?

-Hirurogeta hamar bat edo hola eukitzen giñuzen guk. Ez. Oiñ gehitxuao daukau baiña orduan ez.

-Eta ardi-esnearekin eta zer egiten zenuten, saldu?

-Gazta, gazta. Bai, etxien’e jan bihar izeten zan zeoze eta gero bezero batzuk eta eukitzen zittuen, zapatuan eamaten zittuen plazara, eta gero juten zizkon bere kliente batzuk eta haiek eamaten zeben.

-Gazta zeinek egiten zuen, amak?

-Amak, amak.

-Gogoratzen zara nola egiten zuen?

-Bai.

-Esplikau pixka bat.

-Ni ikusi einda nao, oiñ atentzio gehiegi ez nion hartzen. Ipintzen zun esnie hola kazuela haundi baten, eta bere tenperaturie behar izete’u; gaztaie ondo eitteko tenperaturie da inportantia. Hotzegiya txarra da, beroegiya’re bai. Bere tenperaturan. Gero arkumin gatzaiye ipintzen zan, katillun baten- edo ipintzen zun, ta gatzai puxketa bat ur puxkatekin botatzen zun hara, haure zukau...

-Urtu.

-Urtu eitten zun, gero botatzen zion esniai eta handik hamar bat miñiture haure gogor-gogor einde egoten zan. Gero eskukin zera eitten zun, gatzure apartau zeian eta gaztanontzi, ikusi eitteitut ointxe’re.

-Hori galdetu behar nizun. Nolakoak izaten ziren?

-Zera, hojaleta mouko hortako zerakin einda izeten zien.

-Hojalatarekin?

-Bai, hojaletakin eindakuak izeten zien. Zulo txiki batzuk bazeuzkan, hara sartzen zan, eskukin pixkat estutuz estutuz ure ataratzen zion eta gero, zuk ez dezu jakingo “karnaie” zer dan.

-Nola?

-Karnaie.

-Karnaie?

-Karnaie esaten zien gure ama zanak eta, hori hango zeatik etorritakua da. Hola ezkiñetan eukitzen zun bi makillakin, hola mahai honen erdie bezela, listoi-listoi-listoi eukitzen zittun, zumitze-edo, eta haren gaiñien eukitzen zittun.

-Gaztak?

-Gaztak. Karnaie zan hori.

-Toki espezialen bat izaten zan haiek jartzeko, kuartoren bat?

-Bai. Hantxe sukalde baztar-baztarrien egoten zan hori.

-Eta ketu?

-Ez, ketu ez gendun sekula eitten. Sekula ez gendun ketzen. Baiña gaztaa, ez etxien egindakua zalako, baiña gaztaa politta eitten zan. Gaur prentsatan-ta eitten debe; gaur’e eitten da gurian gaztaia; oindikan eitten da.

-Orduan dirurik ateratzen zen gazta saltzetik?

-Gaur baiño gehiyo esango nuke. Baserritik gaur oso triste dao. Ordun asko ez zun emango, porke hemen gastu haundiya egoten zan-ta, familie haundiye danak, eta danak baakizu. Danak bizi giñen ba gurasuen konture bezela. Dana danok eitten gendun, baiñe... Baakizu. Haiek saltzen zeбен gaztaie, esnie, zerak, eta dirua haiek hartzen zeбен, eta gero umiei ba jatekua eman ein behar.

4.33. Garia, artoa eta "patxetako" sagardoa

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Mendiola, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-034/014
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:27:13. **Bukatu:** 00:29:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Etxe ondoan baratzea zuten eta denetarik hartzen zuten. Garia eta artoa ere hartzen zituzten. Garia igitariarekin mozten zuten. Sagar eta gerezi arbolak ere bazituzten eta "patxetako" sagardoa egiten zuten. Zer zen eta nola egiten zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- Eta zeaik bazeukezuen, baratzaik bazeukezuen?
- Baratzie bai.
- Bai?
- Baratzie beti.
- Eta gariik eta...?
- Gari asko eitten genun, gari asko; gariye ta artue ta,erremolatxak eta danak. Gu laboretik bizi izen giñen beti, laborie asko itten zan. Oin, gariye generalien ez zan on-ona izeten, ez zan /etzan/... porke lastue´re haundiye hazten zan ta gero haizie o egualdi txarra o beti... beti eroi itten zan gurin. Oin, artue-ta ona izeten da /izetea/. Zan. Ona izeten zan. Baiño gariye askotan frakaso antza ematen zun azkeneako. Bai. Eroi itten zan. Ta iteyekin ebaitzen giñuzen guk ordun, e!
- Iteyekin.
- Iteyekin. Iteyekin gaur´e ebaiko nuke nik gariye! Mutil-koskorra artien ta tak! anaiekin-ta batea, hartu iteye ta han illeran jardun ber izeten nun nik, e! bero galantakin. Ordun ez zan bakazioik izeten, oain bezela gatzik ez zien...
- Beharko!
- Ez giñen ordun... Bueno! Ordun... ordun gogor... gogor hezi giñuzen gu, gogor. Ta gure aurrekuk eta gogorro oindik.
- Fruta arbolaik-eta bazeukezuen?
- Sagar pixket izeten zan eta keixe batzuk, ostin ez zan frute arbola asko gurin.
- Sagardoik-o itten zenuen etxen?
- Patxetakue, patxetakue
- Zenei esaten ziozun patxetakue?
- Patxetako sagardue, basarriyen patxetako sagardue izeten da /izetea/. Zan, izeten zan, oin gauzek kanbiyaute daude oin ekarri eitte deu. Baiñe... eitten gendun: aska bat zan, aska luze bat, botatzen gendun sagarra hara eta hola kertendun mazo batekin jo-ta zapaldu...
- Zapaldu.

- Zapaldu. Eta haure zapaltzen zanin, ba, barriken sartu ta urez bete. Hainbeste sagar; [berriz´e], konparaziorako, 200 litro ein ber badittuzu, oin ez naiz momentun akordatzen zenbat sagar izeten zan, baiña hainbeste sagar sartu barriken eta gero urez bete ta han eoten zan haure irakitten denborale baten. Baiño haure eraten gendun gustoa.

- Sagarra, ze sagar klase?

- Harrapatzen zana. Errezille askotan eoten zan gurin, errezillekin eitten gendun guk. Pixket bizitxuo ertetzen du /ertetzeu/ horrek.

4.34. Soroa landu eta ganadua zaintzen

- **Hizlaria(k)**: Oteiza Azpitarte, Manuela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-036/004
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:04:05. **Bukatu**: 00:05:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Baserritik bizi ziren: ganadua zuten eta soroa ere lantzen zuten. Behiak eta ardiak izaten zituzten; neguan etxean eta udan Izarraitz mendian egoten ziren ardiekin.

Transkripzioa

-Ordun etxan egoten zifien umezai?
-Etxien umezai, eta zeoze lapikue egosi edo koziñie ein edo, hau edo hori. Etxin.
-Amak eta aittek nunbaiten lana egitten zuen?
-Ez, basarriyan, baserriko lanetik.
-Baserrin zer zeukazuen, ganadue?
-Ganaue ta, artue ta, babie ta, gariye ta; garaiyen garaikuk eitten zan.
-Ze ganadu zeukazuen etxan?
-Ez dakit nik orduko kontuik, oin hainbeste ez naiz akordatzen. Asko ez zan egongo, bost-xein bat behi edo txahalakin.
-Idik eta're eukitzen zittuzuen?
-Ez, idirik ez. Ez genun eukitzen.
-Eta ardik?
-Ardiyek bai, ni txikiye nintzela eukitzen [...].
-Zu artzai ibilitakoa zara?
-Beno, ondoren ibiltzen giñen behintzat.
-Hemen bueltan ala mendira eramaten zittuzuen?
-Ez, neguen itxien eta udan mendiyen.
-Mendin ze, hemendik gertu?
-Izarraitzen, goyan.
-Txabolaren bat edo zeozer bazeukezuen Izarraitzen?
-Ez.
-Zer egiten zenuten, haruntza eraman eta iluntzerako buelta?
-Ez. Hantxe, gabin udan ez debe eukitzen txabolan egon beharrik. Kanpuan egoten die.
-Eta esan dezu baratzako lanak ere bai.
-Bai, baratzan´e bai.

-Artoa eta baba eta?

-Hoiiek souan. Baatzan letxugie ta tipulie ta porrue ta baatxuriyek eta hazie ta illerra ta, gauze asko, koniflorie ta, gauze asko.

4.35. Berdura eta esnea saltzera azokara

- **Hizlaria(k):** Oteiza Azpitarte, Manuela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-036/005
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:05:55. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Berdura eta esnea Azkoitiko plazara eramaten zuten saltzera. Etxetik Azkoitira ordubete inguruko bidea zegoen eta ama joaten zen normalean.

Transkripzioa

-Gero berdura horiek kalera saltzen zenituzten?

-Bai. Etxien behar zana [gaiñerakoa] kalea saltzen da.

-Eta nora eramaten zenituzten?

-Plazara.

-Azkoitira edo Azpeitira?

-Azkoitira.

-Azkoitiko plazara. Eta oinez joango zineten ba hemendik?

-A bai. Astukin, dana oiñez.

-Astoan eramaten zenituzten?

-Bai, astun, astun. Orduan etzan kotxeik.

-Asto-zestotan sartuta?

-Bai.

-Eta hemendik Azkoitira zenbat denborako bidea?

-Hamen ez, handikan. Bueno, hiru bat ordularen edo.

-Zu juten ziñen saltzera?

-Ez, ama ibiltzen zan.

-Eta esnerik eta holakorik?

-Esnie´re bai batzutan. Bolarie zanin bai.

-Eta esnea ere plazan saltzen zan ala etxez etxe?

-Plazan.

4.36. Txerriak gatz-kutxan mantentzen zen

- **Hizlaria(k):** Oteiza Azpitarte, Manuela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-036/007
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

- **Laburpena:** Txerriak gatzak emanda mantentzen ziren gatz-kutxan eta txorizoak oliotan jartzen zituzten lapiko batean. Txerriak lehertzeko piper-hautsa ematen zitzaion.

Transkripzioa

-Txorizoak eta odolkiak eta nun mantentzen zenituzten, txerriak.
 -Txarrikiye gatzak emanda mantentzen ziran. Eta txorixuek sekatzaren zientin oliotan sartzen ziran ordun, oliotan sartuta mantentzen ziren.
 -Oliotan nun sartzen zenituzten, kutxaren batean edo ontziren batean?
 -Ez, ez, ontzi, lapiko haundi, portzelanazko haundi bat izeten ziran, eta han sartzen ziren txorixuek eta, saihekiyek eta solomue´re bai.
 -Eta gatzak emanda esan dezu?
 -Urdaie eta urdaizpikue eta hoiak gatzak eman.
 -Haiek kutxan baten?
 -Bai, kutxan; gazi-kutxie esaten ziran.
 -Eta gero behin gatzak...
 -Gatzak hartzen zebaitan uretan pixkat gezatzen eukitzen giñuzen eta gero piper-gorri hautsekin ein geiñe eta sekatzaren ipiñi. Sekatzaren egoten ziren.
 -Piper-hautsa ematen zeniotenean, zertarako izaten ziren, sekatzeko edo denbora gehiagoan mantentzeko edo?
 -Ohituria edo nik eztaikit pa ze izeten ziran.

4.37. Labesuan egindako ogia

- **Hizlaria(k):** Oteiza Azpitarte, Manuela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-036/011
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:17:15. **Bukatu:** 00:19:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Amak erakutsi zion ogia egiten eta nola egiten zuten azaltzen du. Labesuan egiten zuten ogia.

Transkripzioa

-Ogia etxean egiten zenuten?
 -Bai, ogiye etxien.
 -Nola egiten ziran, esplika puxkat.
 -Azkarriye beti egoten ziran eta. Azkarriekin eitten ziran; iriñe eralgitte ipiñi mahiyen, eta gero ure ipiñi baldakarie tamaiñuen hozberuen eta gatzak bota pixket eta gero azkarriyekin iriñe.
 -Zeiñek erakutsi zizun, amak?
 -Eta zer zeneukaten, labesua bazeneukaten ogia egiteko?
 -Bai, labie ogia egiteko.
 -Nolako labea izaten ziran, egurrezkua edo?
 -Eez! Egurrek sue hartzen du, suekin eitten da! Haure izeten da ladrillue, eta iruliek edo igeltsue edo, bueltan-bueltan-bueltan-bueltan, goie itxi eta atia ipiñi hola eta ate hartatxetiken sartzen da barrura. Hor labadoran sartuko balitz bezelaxe.
 -Barrura?
 -Barrura. Garbi plaza haure lelengo, illuntziye bittu kanpoan eta ein eskobak, asune edo illuntziye edo, garaian garaikukin, labie garbi-garbi-

garbi ein, hiru bat ein ber izeten die hola garbitzeko.
-Zerekin garbitzen zan?
-Entenditzen al dezu, illuntziye eiñ. Illuntziye ba al dakizu zer dan?
-Zeri deitzen diozue iruntziye, belarrari?
-Erramue edo, mendie edo, entenditzen?, asune edo, holakukin. Hiru bat ein, lelenguen haundiak [...] kendu, bigarrenien gehio eta hirugarrenin garbi-garbi eiñ. Oiñ ´e bai, e. Ordun bakarrik ez, oiñ ´e bai.

4.38. Ardi-ilez egindako koltxoiak

- **Hizlaria(k)**: Oteiza Azpitarte, Manuela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-036/013
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:20:30. **Bukatu**: 00:21:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Anai-arreba asko zirenez, ohean binaka lo egin behar izaten zuten askotan. Koltxoiak ardi-ilez eginak izaten ziren eta maindireak lihozkoak.

Transkripzioa

- Eta zuen etxean, hainbeste anai-arreba izanda, lo eitteko-ta nola moldatzen ziñaten?
- Bueno...
- Bi lagun ohe baten ala bakoitzek berea bazenduen?
- Bi lagun iguel baten ta bestiek bakarka ta... danea.
- Orduko ohiak nolakuk izaten zien?
- Bueno, oingotxe antzeakuk ordun ohiek, bai.
- Koltxoiak zerekin inda?
- Koltxoiek... ardiyek bazeuden ta ardi-ilekin einde.
- Zeuek eitten zittuzuen ala erosi eitten zittuzuen?
- Telie ointxe bezelaxe eoten zan ordun ta geo etxin ein. Amak eitten zittun.
- Eta haiek zee in ber izeten zien gero, astindu?
- Haiek gero, urtin behin-eo, koltxon-azalak garbiu, beaiek dana harrotu eskukin edo makillikin jo ta gero eskukin harrotu eta berrittu beti, urtero berrittu.
- Eta izarak?
- Izerak ze? Izerak esan dizut leheno ´re iturrire eman ta garbiu.
- Baiño izarak zer izaten zien, linuzkok o...?
- Liñuzkuk ´e bai, bai. "Ehunezkue" esaten zikon, liñue, hoiek ´e bai, bai. Ordun bai, garai hartan bazin.

4.39. Gazta nola egin

- **Hizlaria(k)**: Oteiza Azpitarte, Manuela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-036/033
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:50:05. **Bukatu**: 00:51:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena:** Etxean Manuelak egiten zuen gazta. Nola egiten zuen azaltzen du.

Transkripzioa

- Gaztaik-eta eitten zenduen etxen?
- Etxeako [...].
- Zenek eitten zun gazta? Zuk eitten zendun gaztaik?
- Bai, etxeako gaztaie beti eitten [zan, hemen ardiyek zaudela].
- Nola eitten zendun gazta?
- Gazta eitten da /eittea/ ba... Ardiyek jatxi ta bere temperaturie ber izeten du /izeteu/, gatzagie eman ta orduerdi baten eo lagatzen zako gogortzen ta gero mami hori puskau o dana zertzen da ta geo alkarrena juntau ta bittu ta gaztanontzire. Trapu bat ipini ta gero harekin dana sakaute ipini. Ikusitte al zare?
- Bai, ikusita banao, osaba bat badet nik artzaie ta hare ikusita nao. Baiña zurea jakin nahi nun! Ta gero zeatzen zittuzuen, keetzen zittuzuen gaztak?
- Keetu ez etxin, jateko ette gittugun da.
- Keetu ez, etxin jateko eitten gendun ta keetu-ta ez.
- Keetu ez... Keetzena zertako izaten zan?
- Kolorie emateko eo.
- Aa... kolorie emateatik?
- Egurre, haltzakin eindekue, haltz gustue batzui gustau eitten omen zate. Nik ez dakit...

4.40. Esnea etxez etxe banatzen

- **Hizlaria(k):** Aramendi Aranberri, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-040/002
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:01:46. **Bukatu:** 00:04:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Baserrian behiak edukitzen zituzten eta esnetan ibiltzen ziren. Lortutako esnea Gurelesara bidaltzen dute orain; baina txikitan, herrira eramaten zuten egunero, eta etxez etxe banatzen zieten esnea bezeroei. Igandetan mezara ere joaten ziren. Marmitatan eramaten zuten esnea, eta litro/litro erdi inguruko ontzietan banatzen zuten.

Transkripzioa

- Basarrin ganadue zeukazuen. Ardik?
- Ez, behi... ganaua, ganaua. Ardik lehen, baiña aspaldiko urtetan ardiak ez det nik ikusi. Ez leno etxin, ta hamen'e [...] etxin hona etorrira're. Ta geo berrogeta hamar urte pasa dittut hemen.
- Behiek eukitzen zittuzuen?
- Bai, behiak eukitzen giñuzen. Leno esnetan ibiltzen giñan, eta gero bi behi. Bi behi ta bi txahal besteik ez dauzkau. Nahikua dittugu.
- Esneta, esnea noa bialtzen zenduen o?

- Gurelesa.

- Eta ze etortzen zan, bea?

- Bai.

- Biltzea?

- Bea etortzen zan. Bea etortzen zanin, bera herrira jeisten zan, baiño gero etxea etortzen zien. Tankie jarri zien ezkeo, etxea etorri zien.

- Zu ume ziñela're, eak etortzen zian?

- Ez, ni ume nintzela ez zan esnetaik. Orduen, herrira ematen zan.

- Aaaa, geroa jarri zan hoi?

- Bai, geroa jarri zan hoi. Astuakin esneta juten nintzen ni.

- Esnea noa eramaten zenun?

- Herrira, herriko, herrian bezeruek eoten zien ordun.

- Etxez etxea?

- Etxez etxea esnia partitzen gendun, baita jai goizin zortzitako mezeta jun, eta etxez etxe esnie partitzen gendun guk.

- Bakarrik juten ziñan?

- Bai! Goizeko zortziretako mezeta gaiñea bakarrik astuakin.

- Baiño ze, egunero?

- Egunero? Jaien zortzitako mezeta, astien berandutxo. Baiña egunero jun.

- Mezeta astegunen ez?

- Ez, astegunen ez. Jayen bakarrikan. Astien ez, astien ez giñen juten mezeta.

- Eta nola itten zenduen, zu jeisten ziñan esnea hartuta, ta geo bazekizun...?

- Nik banekiyezen zeneta noa eaman ber nun, eta jun, ta neurtu, ta haik'e esne danak hustu, ta etxea, zea, astuakin marmittak hartuta.

- Ze ontzitan, o nola eamaten zenduen?

- Marmittan.

- Baiño gero partittu?

- Gero partitu? Litroko zeakin, litroko... Eskurauko genun litroko neurri hortako litro zeak ez det izan, ontziye ez det izan. Litrua, litro erdi. Halaxe zea itten gendun, partitzen gendun.

- Eta diruk ateatzen zan hortik?

- Bai, pixka bat. Garai hartan dirue gutxi zan ta... Ni ez naiz konturatzen zenbat, litrua zenbatea itten zuen. Momentun ez zat akordatzen behintzat. Euroik ez zan ordun ta.

4.41. Esnea plazan saltzen

- **Hizlaria(k):** Aramendi Aranberri, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-040/003
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:04:04. **Bukatu:** 00:06:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Etxeetan saltzen ez zuten esnea plazan saltzen zuten. Plazan egunero egoten zen feria esnea saltzeko. Inguruko baserrietatik joandako baserritarrek saltzen zuten esnea. Plazan saltzen egoten ziren bitartean, astoa non lotzen zuten azaltzen du. Dendatan ez zuten saltzen esnea.

Transkripzioa

- Zenbat bide hemendikan kalea oiñez? Zenbat denbora?
- Lau kilometro hemendik behera daude. Ordun'e...
- Ta oiñez zenbat denbora pasatzen zenun? Zenbat denbora?
- Zea, ordubete bat behar.
- Ordubete?
- Bai, ordubete gutxinez, ba. Sasoie're ordun hobia: nahiz lokatzatan belaunetaño sartu, ordun erten'e errex itten genun.
- Ta jun in ber derrigor?
- Bai, ba, jun in ber gaiña: elurre bazan'e bai, ta zea bazan'e bai.
- Beti jakiñekua izaten zenun eamandako dana salduko zenula, aurretik...?
- Ez, beti ez. Plaza're eamaten genun sobratzen zana. Geo, oain baiño esne gehio plazan saltzen zan. Oain oso jen... gutxio... bat'e ez, oain ez da saltzen esneik esateko.
- Plazan saltzen zan. Postun bat eo eamaten zenduen?
- Bai, bai, puesto, ordun zea itten zin. Baiña gaur ez dao holakoik.
- Noiz izaten zan ferie, o plaza noiz eamaten zenun esnea?
- Ferie egunero eoten zan feriya o zea, esni saltzeko zea.
- A bai? Egunero izaten zan?
- Bai, garai hartan bai, egunero zea itten zan.
- Ta zenek saltzen zun, hemen inguruko...?
- Hamentxe, basarritatik jundako zeak saltzen gendun guk esnie.
- Baiño zu zeu eoten ziñen plazan?
- Aber! Bai, ba! Ni eoten nintzan esni saltzen. Ta geo etorri, eo botillakin eo ontziyekin eo etorri, eta neurtu, ta ez naiz akordatzen oain prezioyuna, baiño ordun asko ez zan izengo... prezioy zan.
- Astoa nun uzten zenun?
- Ahal zan tokiyen! Kiruriñin.
- Kirurin?
- Kiruriñin. Zeatiken eliza ba al dakizu nun dauen, Axkoittin?
- Bai.
- Eliza horretxen parin, beste aldetiken, oain koperatibi do... Hantxe, basarri o ikulu hartantxe sartzten genun astue.
- Kiruri izena zun baserri horrek?
- Bai, Kiruriñekua esaten giñon, ta hantxe eukitzen gendun. Astotegi bat zeuan, simaurra ta zea itten zin, hantxe baztarrai lotu, ta hantxe eukitzen gendun.
- Danok uzten zenduen...?
- Bai, astukin juten zin, ta haure zan asto-lekua.
- Kobratzen zizuen han uzteagatik?
- Zeoze bai! Uste det hillin zeoze... hiru kartoku o ez dakit... hiru kartokua, ez dakit zenbat. Ordun'e kobrau itten zan, oaintxe bezelaxe, iñok ez zun debalde [...]. Eta gero hasi giñen ya hori kendu zabenian, hamen sagarra, hona sartzeko gasolineratik badao poste zean? Hor, berriz, posteta lotuta're eukitzen giñuzen. Poste batian lotuta hiru asto o hola eukitzen giñuzen hor.
- Ahal zan bezela!
- Bai, bai, bai. Oain bezela ez zegon kotxeik, eta aparkamentuik eta istoriik, eta hantxe.
- Dendata're saltzen zenduen?
- E?
- Dendata're saltzen zenduen?
- Ez, dendata esni gutxi saltzen gendun guk, ez. Ez, denda, ez det behiñ'e

ez det uste saldu genduniken. Plazan. Bezerua eta geo plazan zea itten zana. Denak oain bezela ez dan eoten ordun aukeraik, eta...

4.42. Otorduak etxean

- **Hizlaria(k)**: Aramendi Aranberri, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-040/007
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:10:41. **Bukatu**: 00:12:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserria » Baserriko lanak » Artoa
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Otorduetan babak eta patatak jaten zituzten. Ogiaren orde, arto hotza; eta horrez gain, taloak eta morokilak ere bai. Taloen eta morokilen artean zer alde dagoen aipatzen du. Otorduetan guztiek ontzi bakarretik jaten zuten; eta azkarren jaten zuena zen gehien jan zezakeena.

Transkripzioa

- Otordutan ze jaten zenuen gehienbat: arto-zopak eta...?
- Otordun, babak eta patatak. Eta ogiik eitten, gariye eitten zan; baiña erraye kendu itten zun. Ta ordun eitten genun ogiyen partez arto hotza jan. Gu gaztetan arto hotza jandako pertsonak izan gea, askotan gaiña.
- (Senarra) Talua're bai, pixkat...
- Talu're bai, morokille're bai. Zuk ez dezu jakingo morokille zer dan?
- Ze diferentzi dago talo ta morokillan arten?
- Talua beti ariñagua da. Morokille da urekin eta artairiñetan zea bat, masa bat. Eta hau're da, esneta bota, ta haure jaten zan. Ta artua eitte, berriz, nahi izanez geo edozerrekin jan eitten zan artua. Eta geo, arto-zopak esneta're bai. Baiña haure ogiyen aldin diferentie da: hotza ta txarra.
- Zuek hamaika anai-arreba izanda...
- Hantxe erdi goseik hazi galantak gu.
- Danak ontzi batetik jaten al zenuen?
- E?
- Danak ontzi batetik?
- Aber, ordun bai. Ordun hala jaten zan. Iguel hamaika o zea baldin bazauden, iguel bi ontzi izango zin; baiña danak batetik jaten zan. Ordun geyena jaten zuna zan abillena, zeatiken...
- Azkarrena moitzen zana?
- Azkarrena moitzen zana. Hoetxek izan ditteu.

4.43. Miserikordia

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Azkoitia, Candida
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-041/009
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:08:10. **Bukatu**: 00:09:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Berak Miserikordian ikasi zuen; baina gaur egun mojek gaixoak zaintzeko bakarrik erabiltzen dute egoitza hori. Esnea banatu eta ikasi ahal izateko hasi zen Candida Miserikordian ikasten.

Transkripzioa

- Gero eman dezu Martirittako eskola utzita gero...
- Mixerikordiara. Mixerikordia esaten zitzakon ordun. Oiñ Residentzia esaten zako. Oiñ, gaiñera, haiek eztee eskolaik ematen, oiñ monja haiek geixuekin bakarrik zera eitte-ye. Geixuak eta etxeik eztaukenak, jasota dauzkenak eta. Han ingresauta dauzken jentiaikin bakarrik zera eitte-ye. Baiña ordun eskolie eman eta gero gaiñea bat enfermerie ere bazan, enfermeriko sala txiki bat ere bazeuan, kanpotik jundakuei kurek eta, belarriek garbiu ta holako gauzek e itten zittun monja batek.
- Zu hasi ziñen Mixerikordiara, zeatik? Esnea eraman...
- Bai bai. Kaletiken esnia, lalea guk esnie ekartzen giñuzen bezeruei, ta bestela amak eo baten batek etorri in ber izaten zun haura eittea, eta gu puxkat hasi giñenien haiek eitteko modukuk eo hasi giñenien ba guk itten gendun esniek ekarri, bezeruei eman eta eskolaa jun. Bi lan tiro batekin, esate-an bezela.
- Hori da.
- Hola ibili giñen.

4.44. Etxeko egoera ekonomikoa

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Azkoitia, Candida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-041/016
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:18:55. **Bukatu:** 00:20:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- **Laburpena:** Etxean ondo hartu zuten kanpora lanera joan zenean. Izan ere, senide asko ziren, eta diru asko behar zen denak aurrera ateratzeko. 18 urtera arte, irabazitako jornaletik zerbait soberan gelditzen bazitzaien, etxean ematen zuten.

Transkripzioa

- Etxean ondo hartu zizuen kanpora lanera jutea?
- Bai. Senide asko geunden eta, danentzako diru asko behar zan eta. Gero ezkondu eo zeoze ein nahi bazendun zeoze preparau ein ber zendun-da. Etxien ez ziguen sekule galain (gal eragin) kanpoa jutia.
- Eta irabazitako jornaleta etxean entregatzen zen?
- Irabazitako jornaleta, ni ie hemezortzi urte nittula, hamazazpi pasaute o; baiña ordun genduken guk ipinitta amak eta ba sobratzen bazitzakun hemezortzi urte arte ba etxera entregau eo berai emateko. Baiña hemezortzi urtetik aurrea geuk nahi gendune eitteko ta geuk nahi gendun

bezela administratzeko.

- Garai hartan askok entregatzen zuen etxean? Falta ere izango zan.
- Hoixe ba, hoixe ba, esan dizutena, zortzi ume-ta, falta ere bai tta. Ez, gu hemezortzi urte, nik ez nun asko entregau, denporaik ez nun izen. Da beste danak e ertetzerako; umia ziñela re ez zendun ertetzen. Guk ez gendun behintzet erten-da, hola pasau giñun. Gero hogeta zazpi urtekin-edo ezkondu nitzen da, bittarte hoiek danak pasau nittun hor da, hoixe. Handik hona hementxe, umiak hazi ta, gizonai kaso ein ta...

4.45. Baserriko bizimodua

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Azkoitia, Candida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-041/017
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:20:12. **Bukatu:** 00:21:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Beren baserría ez zen behartsuenetakoa. Berak ez zuen goserik ezagutu. Beste baserri batzuetan larritasun handiagoa bizi izan zutela gogoratzen du. Ganadua bazeukaten, garia eta artoa egiten zuten, baratzeko gauzak landatzen zituzten... lan asko egiten zuten baserrian.

Transkripzioa

- Zuk baserriko bizimodue ezagutu zenuen.
- Bai, bai, bai, bai. Baserriko bizimodue ezagutu gendun.
- Nolakoa zan zuen baserría?
- Ze esango dizut nik. Ez zan pobreenetakua ez zan. Lana ein ezkeo jatekue ertetzen zun. Batzuek esate debe ba ez zaukela terrenoik eta, nahiz da berak lana ein ez ziela ailegatzen. Nik goseik ez nun ezautu. Ez, goseik ez nun ezautu. Oin, oin bezela bihar ze jangou, gaur hau jan deu ta, bihar ze jango ete deu-ta. Holako esplikazioik ez zan egoten, baiña goseik guk ez gendun ezautu.
- Zuk gerra ondoren hura ezautuko zendun.
- Bai ba, hori, baiña ni txiekie nintzen-da, ez naiz akordatzen. Oin, gurien egon zien beste bi ero hiru lehengusu-re, beraiek familiyek bost o xei ume eo ta, ez ziela ailegatzen, kalian zeudenak eta, aitten arrebak eta, haien umiek eta ez zeukelako etxien jatekoikan-ta, egon ziela akordatzen naiz ni. Baiña aberatsak ez giñen baiña nik esaten dizut /esateizut/. Askok esaten deen bezela, "gu gosiek bizi izen gitxean", guk goseik ez, ni ez naiz goseik akordatzen.
- Baserrikoak beti ere...
- Bai, hoixe, etiketa handiik bee bititze'a baserriyan.
- Ganaduik bazeukazuen?
- Ordun? Bai!, ordun asko egoten zan ganaue-ta. Gero gariye ere eitten zan jateko ta, artue re bai tta. Jateko re bai tta, oilluentzat eta ganauentzat eta. Ta lan asko itten zan ordun baserriyan, e.
- Garie eta artoa ereitten zan?
- Bai, bai. Ta patatie ta. Baratzako gauzie dana jateko zana-ta. Holaxe

4.46. Artoa eta garia

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Azkoitia, Candida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-041/018
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:21:55. **Bukatu:** 00:24:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Garia
 - Baserria » Baserriko lanak » Artoa
 - Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena:** Garia eta artoa nola egiten ziren azaltzen du: goldearekin lurra jiratzen zen, eta orduan hazia botatzen zen. Artoa apiril-maiatzean egiten zen; eta garia azaro inguruan. Lurra ez zen berdin prestatzen artoa eta gariarentzat. Garia udan biltzen zen, eta artoa udazkenean. Nola biltzen zituzten azaltzen du. Arkatan errotara eramaten zituzten asto gainean, eta harekin irina egiten zuten.

Transkripzioa

-Nola ereiten zan garia ta artoa eta. Esplikau.

-Ba, goldiakin. Goldiakin jirau terrenuek eta gero haziya bota ta holaxe.

-Urte-sasoi diferenten bat beharko da, ezta.

-Bai, bai. Artue itten zan apiilletik maietzea bittarte hortan hola. Ta gariye ba nobienbrien normalin. Igual dizienbrien akabatzen zien zeure terrenuek porke terreno haundiyek egoten zien da. Giruek ez bazizun laguntzen o haregatiken-honegatiken, beti etzien zortzi egunien eitten.

-Berdin preparatzen zen lurre gariantzako eta artuentzako?

-Ez, berdin etzan preparatzen. Gariantzako preparatzen zan goldie esate'yuena, zea haundi bat, botatzen zan lur pusketa haundi bat. Eta artuentzako ba burdiñariakin o beste arrastillo txiki batzuk izete zien eta haure igual bi aldiz eo pasau ber izeten zan artua eitteko. Ta hola.

-Gero noiz biltzen zien?

-Bildu? Ba gariye udan. Ta artue udazkenin. Eiñ e holaxe eitten zien, bata udaberriyan eta bestie udazkenien da gariye udan bitzen zan.

-Eta nola biltzen zien?

-Ba lelengotiken iteiekin ebaitzen ziela ezautute nao. Baiña haure zan oso lan nekosue ta atrasaue. Ta gero hasi zien segiakin ebaitzen. Ta gero makinia ere uste'et izen zala ebaitzen zuna. Nik makinaik gure etxien enun ezautu. Segie bai. Eta gero guk azaoketie esaten giñon. Pilloxkak eiñ, pilloxxkak eiñ, hola mordoxkak eta haiek lotu itten giñuzen jasotzeko. Gero jaso ta sekau ta preparatzen zienin, gari-ale haure etara iten zitzakon; garie, souan bitzen zan lasto hari. Gari-ale haura etaa ta haura aprobeztatzen zan jateko ta lasto haure ganauentzat.

-Nola aletzen zan? Zakutara?

-Ba jo makiña batekin zera itten zan, jotzen zan, jotzie izeten zan. Ta makiña harek botatzen zun lurrera. Ta gero paliekin ero. Eta gero pasatzen zan tornue ero esaten zitzakona. Beste makina baten. Eta harek...

-Harek zer egiten zuen, txikitu?

-Ez, ez, garbiu ondo, garbiu ondo. Eta garbiu ta zakun o kutxa haundi batzutan, guk arkak esaten giñon, bi kutxa haundi genduzken, arkak esaten zitzetanak, eta han sartu eta gero errotara astuakin eamaten zan, zakua ipiñi zakukarie, astuai lotu gaiñien, errotara ta errotan iriña eiñ. Da gero handiken ogiya.

4.47. Errotak

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Azkoitia, Candida
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-041/019
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:24:34. **Bukatu**: 00:25:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Baserria » Baserriko lanak » Garia
 - Baserria » Baserriko lanak » Artoa
 - Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Errotak non zeuden aipatzen du. Azpeitiko errotan makina zegoenez, irin hobeza egiten zuen. Eta horregatik, hara joaten hasi ziren.

Transkripzioa

-Errota nun zenduen?

-Errota Monten guk gehien-gehiena juten giñena. Gero geruauen ba (Irantzuin?) e ipiñi zeen. Hara artue ittea juten giñen, garie ittea juten giñen gero zea, Azpeittiko Goiko Errota o. Hor earraue itten zala iriñ, makiñia, errota ez, makiñia zan hor Azpeittiko Goiko Errota hortan. Monten-da lengo errota-harriekin ibiltze'an hori, baiña Azpeitti hortan makiñie, eta horrek iriñ earraua itten zula ta gero hasi giñen horra Azpeittira etortzen astuekin han baserrittiken iriña eamatea. Ta Irazura juten giñan arto-iriñe earra itten zula taluek itteko ta, artue jateko ta, hortaako ta, Irazura-re juten giñen artue igotzera, artue errotan pasatzera.

-Azpeitira buelta.

-Bai, buelta dexentia, dexentia bueltia, guretaten da. Martirittetatik kalera bajau, geo kaletiken Goiko Errota nik eztakit nun zan e. Ni izenda nao baiñe nik ez nuke esango Azpeitiyen toki haure nun zan e.

4.48. Baserriko lanak

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Ezeiza, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-044/005
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:10:38. **Bukatu:** 00:11:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Gau-eskola bukatu zuenean, baserrian jarraitu zuen lanean. Baserriko lanez hitz egiten du: berak ardiak jezten laguntzen zuen; amak gazta egiten zuen, eta azokara joaten zen saltzera, normalean bakarrik.

Transkripzioa

-Eta gau-eskola bukatu zenuenean?

-Bukatutakun lanea.

-Lanea hasi ziñen?

-Bai.

-Nora hasi zinen lanera?

-Etxien, baserriyen. Baserriyen gero ahizpe. Eta harek'e umiek eta badakizu-ta, lagundu in ber hari're ta, danak.

-Lehen esan dezu artzai ere ibili zinela.

-Bai.

-Ardi-jaisteko makinarik?

-Ez. Eskukin. Nik eutsi ardiyei. Nik eutsi eta beste ahizpek jatxi.

-Bi laguneren arten.

-Bai.

-Nora jaizten zenduen?

-Baldara, ontzira. Eta geo haiei eutsi eta eskolara jun ber artin.

-Bi lan?

-Bai.

-Eta gazta ere eitten zendun zuk?

-Gazta're, amak eitten zun gaztaie. Ta azokara juten zan haure astukin.

-Azkoitira?

-Azpeitira. Bera alde hartakua zan-eta, Bidanikue zan-eta. Horra gustoa juten zan.
-Zuek laguntzen ziozuen azokara?
-Ez, gutxi, zeoze berrie erosi ber gendunien edo amakin juten bagiñen.

4.49. Gaztagintza

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Ezeiza, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-044/006
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:11:54. **Bukatu:** 00:13:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena:** Gazta egiteko ontzi txiki batzuk egoten ziren. Gaztak apal batzuetan edukitzen zituzten, lehor zitezen. Gazta batzuk keetzen zituzten, eta nola egiten zuten azaltzen du.

Transkripzioa

-Gazta egiteko ontzik-eta izaten zien ordun?
-Bai, ontzi txiki batzuk izeten zin. Egoten zin ordun'e gaztaie itteko.
-Ze izaten zan?
-Ze esango dizut ba nik. Klase ona ez zan /etzan) izengo.
-Egurrezkoa?
-Ez, ez, ez, bestelakuk. Oñ egoten dien tipokua izeten zan, eta hantxe ein-eta.
-Bazenuten gazta-tokirik?
-Ez, holakoik ezerre ez zan /etzan/. Nunbaitten sekau eta saldu. Eta berrie nahi izaten zun, gaztae berrie jendik nola nahi izaten zun, sukuldien edo sekatzekuk egoten zien; han sekau han...
-Apalan batzutan?
-Bai, ta han ipini ta.
-Zenbat denboran eukitzen zien gaztak sekatzan?
-Sekatzan? Hamabost egunien eukitzen bazendun bazijuan haura.
-Eta keetu egiten zenuten?
-Keetu, batzuk bai baiña beste batzuk ez.
-Nun keetzen zan? Nola?
-Keia? Sua eiñ, eta bueltia hola tapau keia bertan egon zeiyen.
-Zerekin tapatzen zan?
-Zeozar, sira bat edo bueltan hola ipinite, bai; sira bat edo ipinite barrun sue ein eta keie bertan geratzen zan eta han egoten zien gaztaiek izerditten. Beruen eta keiak kolorea ematen ziyuen. Plazara, azokara eamateko; amak eitten zuena hori.

4.50. Soroko eta baratzeko lanak

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Ezeiza, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-044/007
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:13:21. **Bukatu:** 00:14:10

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 Baserria » Baserriko lanak » Garia
 Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena:** Barazkirik ez zuten saltzen azokan, baina baratzean egiten zuten lan. Soroak bazituzten: erdia garitarako eta beste erdia artotarako erabiltzen zuten.

Transkripzioa

-Berdura eta saltzen zenuten plazan?
 -Ez, ez, berduraik edo holakoik ez.
 -Baratzako lanik eitten zenuen?
 -Bai.
 -Ze?
 -Porrue ta, tipulie ta. Dana holakua.
 -Garirik eta artoik eta?
 -Bueno! Souak. Garie einda izeten zin. Garie ta eitten zan lehen. Enda...
 -Soro asko zeukazuen etxe inguruan?
 -Bai. Souek txandan ibiltzeko lau egoten zin. Garie ein ber zaneako bi zati iguel, eta artue ein ber zaneako geo beste bi.
 -Diferenteak izan behar zuten, lur diferenteak?
 -Lurre igula izengo zan. Iguala izango zan.

4.51. Garia eta artoa egiteko prozesua

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Ezeiza, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-044/008
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:17:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko lanak » Garia
 Baserria » Baserriko lanak » Artoa
 Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena:** Garia egiteko prozesua azaltzen du: lurra nola prestatzen zuten, zer tresna eta animalia erabiltzen zituzten hartarako, nola botatzen zuten hazia, noiz jasotzen zen garia… Artoa gariaren antzera lantzen zen. Artoari eta gariari zikina etortzen zitzaientean, jorratu egin behar izaten ziren.

Transkripzioa

-Nola eitten zan garie?
 -Goldau, goldau eta gero haure atxurtu ein ber. Entenitzen al dezu? Atxurrakin. Haure atxurtu ein ber izeten zun dana, gozau, eta gero arie pasau hari.
 -Goldatzeko garaien berdin zan nola goldatu?
 -Bai, bai, igual igual ziyon.
 -Bai?
 -Bai, ondo goldau ezkerre zeak ertetzen zun, earki lurra bueltatzen zan.
 -Gero atxurtu?

-Gero atxurtu, beharra bazaon. Eta beste lur batzuek soltau eitten zin danak xamur-xamurrak. Eta harek bate atxurtu berrik ez zun eukitzen. Baiña beste batzuk hola brillukin beste lur batzuk ertetzen dee, enda gero harek lan haundiyo eukitzen zun, jota atxurrin jardun...

-Eta atxurtuta gero area pasau?

-Gero arie pasau.

-Aria zer izaten zan?

-Hortz batzuk eukitzen zittun, hortzak azpiyen, eta hortz haiekin-ta zeau.

-Area zer izaten zan, harrizkoa?

-Harriya ipintzen zitzakon gaiñien, egurrezkoa eta burnizkuk hortzak. Ia hortzak burnizkuk. Eta burni haietan erdiyen harriya ipintzen zitzakon.

-Edozein harri edo...?

-Ez, ez, zeuri goguak ematen zizun harri bat. Eta gero haure ganauak nola ibiltzen zun, juten zan eta eraiñez kertenetiken, earki eitten zun.

-Hue izaten zan lurra berdintzeko.

-Lurra berdintzeko eta gozatzeko.

-Eta zuek zerekin ibiltzen zenuten area, idiekiekin edo behiek edo?

-Zeona, idiyek egongo zin, nere sasoin idiyek.

-Eta gero behin lurra preparatzen zan garaien?

-Lurra preparatzen zanin, haure ondo ipintzen zendunin, haziye bota. Haziye bota eta haure nahastu berriz ariekin.

-Berriz'e nahastu.

-Bai, berriz'e nahastu haure ariekin. Hauxe. Eta artue're haziye bota, eta earki etorriko zan, eta gero jorrau ta holaxe.

-Zenbat denpora behar izaten zun gariak etortzen. Noiz jasotzen zan?

-Gariye jasotzen zan, noiz esango dizut ba,?ze sasoe? San Jun ingurun edo. San Junak baiño gerotxuo.

-Eta hazie bota?

-Oin neguan. Neguan hazia bota.

-Eta artoa ere berdin?

-Artue beste zea baten, artue eitten zan; noiz esango dizut arta-haziya? Seguru-seguru're ez dakit ba, oin hola ez zat burure etortzen, lehengue da ta, baiña artue're holaxe. Eitten zendun bere sasoi en eta earki etortzen zan haura. Eta gero ein ber zendun jorrau. Gariyek'e bai. Zikiñe, gariyei're zikiñe etortzen zikon eta gero zikin haure bittu itten zikon. Ta gero artuei're nola belarra ta zea ertetzen ziyon, haure jorrau eitten zan.

4.52. Garia nola jaso

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Ezeiza, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-044/009
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:17:29. **Bukatu:** 00:18:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko lanak » Garia
 Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena:** Garia ebakitzeko bi modu zeuden: makinarekin ebaki zitekeen edo bestela igitaiaz ebaki eta azaoak egiten ziren. Garia jaso eta handik denbora batera, gari-jotzea izaten zen.

Transkripzioa

-Eta gero artuei ere nola belarra-ta zea ertetzen zion, haure're jorrau eitten zan.

-Nola jasotzen zan garie eta nola jasotzen zan artoa?

-Nola jasotzen zan gariye? Ba gariye eitten zan makiniakin igul ebai.

Entenitzen al dezu? Makiniakin ebai. Baiña dana narrastu eitten zun makiniek. Bestela hobie igeteiekin ebaite. Igeteiekin ebai ta azaua bla! botatzen zendun.

-Azaua zeri esaten ziozuen?

-Gariye ebaitzen dezu eskukin ieteiekin eta botatzen zendun hola mordo puxket eindakuen, azaua, haiek eitten zien gero lotu. Eta geo haure lotu eta geo garijotzie izeten zan. Haure bere sasoiari jasotzen zanin garijotzie.

-Jaso eta euki egin bihar izaten zan ala jaso eta segittuan?

-Ba jaso ta puxkaten euki, etxia zea einde. Hola pillia einda. Sekatzen edo puxkat eon dailla.

4.53. Gari-jotzea

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Ezeiza, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-044/010
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:21:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Garia
 - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 - Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Garia nola jotzen zuten azaltzen du. Gari-jotzea lehen etxeetan egiten zuten, eta orduan jatorduak izaten ziren (batzuetan baita musika ere). Zenbat eta lan gutxiago egon, orduan eta gusturago joaten zen jendea etxe batera. Horrelako egunetan zer jan ohi zuten azaltzen du.

Transkripzioa

-Gero gari-jotzia.

-Gero gari-jotzia. Eta edarra izeten zan haure, e, gari-jotzia.

-Nola eitten zenduen haure?

-Bai, bai, etxetan. Etxetan eta danien; txandan, dana jendie junez. Eta geo han jatordue-ta egoten zien. Eta leku batzutan soiñue-ta ere bai. Eta haure earra izeten zan, e.

-Nola gogoratzen zera zure etxeko garijotzeekin?

-Ni akordatzen naiz nola kuadrillia juten zan, garia sartu eta ataa eittea, entenitzen al dezu?, makiñan.

-Makinan?

-Makina sartu ta ataa, sartu ta ataa. Eta egoten zien parejak eta nahi izeten zuan pareja bat jutia, bestie jutia, zeatik ondo itten zuna zalako.

-Maiña beharko zan hortarako ere, ezta?

-Hartaako mañie ber. Eta oso earrak egoten zien, e. Raaa! raa-raaa, jota goor. Earki zea eitten zuen.

-Sartu ta atera. Gero?

-Garie ertetzen zun eta. Gero beste batzuk kutxetara ta.

-Kutxetara sartzen?

-Bai, gero kutxara. Eta haure earra izeten zan, e, jendiek jun nahi izeten zun.

-Zer izaten zan, egunez?

-Bai, egunez. Jendiek jun nahi izeten zun etxe batzutaa. Beste batzutaa ez, e.

-Otorduagatik seguru asko.

-Otorduagatik edo lana gutxi baldin bazeuan hara gustoago. Gero beste leku batzutan asko ein ber-eta.

-Doble ein behar eta...

-Bai. Egune pasatzekuak'e bai te. Haure haundie izeten zan.

-Ze otordu eitten zien gari-jotzetan?

-Gari-jotzetan? Lelengo zopie. Neri haure akordatzen zat. Oillukin einde oillo-zopia. Bat. Oillozopie ta geo piperrakin xarradak edo, piperrakin oillue edo. Gero arrozkoletxe.

-Egoten al zan orduan ere arrozkoletxe?

-Bai. Hola plater sakon haundi batzuk izeten zin, eta arrozkoletxe han ataatzen zan.

-Danak bertatik.

-Hori bai, kotxarakin danak. Aizu, zuretzako hau, neretzako hau, bestientzako, eta kotxarakin danak.

-Eta espabilatzen zanak harek gehio.

-Bai, bai. Zopie ta dana jateko, e, dana plateretan. Etxetan leno hori, baiña horrek alde ein zun. Oin danak bakoitzek plater bana eta; diferentetu.

4.54. Eskolatik etxerakoan ardiak batu behar

- **Hizlaria(k)**: Uranga Etxeberria, Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: AZK-062/011
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:09:52. **Bukatu**: 00:11:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Artzaintza
 Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
 Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Garai bateko bizimodua oso desberdina zen. Ardi asko izaten zuten etxean. Eskolatik etxerakoan, mendian ardiak bildu eta etxera eraman behar. Ardi-esnearekin mamia egiten zuten. Goizean taloa eta esnea gosaltzeko.

Transkripzioa

- Eneeeeeee! Diferentie da, orduko bizi izetie ta oingue oso diferentik die, oso e! Buenoo...! Ordun talue ta esnie janda etorten giñen; mamixe... Ardi asko eukitzen gendun ta, zea, geo, eskolatik etxeakun ardixek etxea eman ber izeten giñuzen ta hor menditik hartu ta... Ta etxeakun jatxi geo haura. Etxin artajorran-ta lan asko eukitzen zebeñ ta. Ta guk, eskolatik etxeakun, ardixek eman ber etxea. Ta geo han jatxi; sartzen zittuen... Mamixe jan ta...

- Haura zeuanian gustora, gaiñera, ezta?

- Bai, talue, talue ta esnie goizien, talue ta esnie. Gaztaiakin talua ta gero esnia. Baaaai... orduko zea buenoooo...! oso diferentie lehendik.

5. Iritziak

5.1. Gazteek ez dute lehengoek beste maxixatzen

- **Hizlaria(k):** Alberdi Iriarte, Arantza
- **Elkarrizketatzailea(k):** Kerejeta, Arantza
- **Erref:** AZK-002/011
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:13:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena:** Herria asko aldatu dela dio, baina batez ere lehengo elkarrenganako konfiantza galdu dela pentsatzen du. Hala ere, gazteek gauza asko erakutsi dietela nagusiagoei uste du. Lehen ohitura handia zegoen elkarrengatik gaizki esaka aritzeko eta gazteek ez omen dute hori egiten. Laguntasuna emateko ere prest egoten dira gazteak.

Transkripzioa

- Asko aldatu al da herria azken urte hauetan?

- Bai, lehendi bai, lehendi bai. Nik esango nuke, bat: lehengo alkarren arteko konfiantza hori-tte... guk hola ezautu genduna alkarren etxetaa-ta junda ta hola izen ohi zan ta, eo zeoze ber bazendun ta dana... baiño oin lagundu bai alkarri, baiño aldaute. Oin gaztia asko, e! Ni gazte alde. Guk izen gendun alkarreatik jarduteko beti gauze bat, baiño oingo gaztik hori eitte(n) (d)u hori moztu. Oingo gaztik eitte(n) (d)u, ba, beai gustatzen bazako eo nahi ba(d)u bearek dauke, eo gaixo batzuei laguntzen... Lehen gaixuk zean ibiltzen zin, silla de ruedasin ibiltzen zienin-eta etxin egoten zin, ezta er ten´e. Eo laguntzen haixei eo... gazte batek familia baten esperun baldin badao laguntasune. Eundoko aldie gaztik, e! Gauze asko erakutsi diu gaztik gu giñenetik hona. Guk, ba, hizketie ibili, baiño guk laguntasun hori ez deu sekula ein, baiño gaztik ein eitte(n) (d)u hori ta gaztik hori asko erakutsi du. Oin, dila batzuk zelebrik eta? Hori bizi osun izengo (d)ie, bai lehen, ta bai oin ta baitte gero´re. Baiño hori erakutsi du asko gaztik. Ez die metitzen, beren bizitzen bizi ta... Nei hori ikeragarri gustatzen zat, garbi esanda. Lehen izeten zan dana maxixau, lagundu berrin, jardune, ta bajau, izeten zan, persona haure geatzen zan kitto inde. Baiño oin beste jira bat dao hori. Hori, hori gaztik earra dauke.

5.2. Anai-arrebek arropak elkarri utzi behar

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Larrañaga, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-016/032
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:49:28. **Bukatu:** 00:50:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Garai bateko eta gaurko bizitzaren arteko ezberdintasunak aipatzen ditu. Orduan arropa anai-arreben artean txandaturaz janzten zuten. Honen inguruko anekdota bat aipatzen du.

Transkripzioa

- Bizimodue asko aldauta ikusten dezu lehengo garaietik honea edo...?
- Bai, oin asko kanbiaute dao.
- Bai?
- Bai. Jendie ondo bizi da oin, e! danak ezetz esaten debe /esatebe/, baiñe jendie ondo bizi da oin. Nik gure gazte-denporan aprobauaziko nixoke askoi oin, ia atzea ikusten deben ia zer dan haure. Haure oin sinisteik ez dao bestela probau ez dunak. Ta nik esaten det /esatet/ guk ez giñula goseik pasau, e! Oin, esaten dizut, jazten-ta ordun? Nik esaten nun askotan, zeau, gaztena nitzen ta beti bestin erropie, bestiei txiki eindekuen nei pasatzen ziben. Askotan luzegi [...], txikiñe neu geldiu nitzen danetan ta, anaietan, ta. Ta esan nixon baten holaxe -ez dakit zenbat, hogeit urte o zer nazken ordun, ta-: "Ba! Azkenin Francok ein ber zik nei lehelengo traje berrixe". Traje berrixe ematen zeuben ba soldau junde ta "Francok eingo zik lehelengo traje berrixe nei". Gure ama zanak hartu zun hoi "a pecho"... ein ein ber nula, traje berrixe eittea azkar, jo-ta eman nittun zeau, enkargatzea trajie ta "Ez det jantziko - esan nixon- ez det jantziko, alperrik ai zea, beana jantziko det /jantzikot/ lehenengo, aurretik burle ein dizue ta" esaten nixon. Jesus! Azkenin nearrez hasi zitzen, ia jazt... -han, mobiu ein det hori- jazteko zeau, zea hori. Ta halaxe jantzi ber izen nun kongregazixoa juteakun traje berri hori. Baiñe ein nun Francona estreiñau lelengo, danai esateko geo, soldau juten nitzenin Francon trajie estreiñauko nula. Ordun bata bestin erropak pasaiez benga, beti, segi!

5.3. Garai bateko bizimodua; familia handiak baserrietan

- **Hizlaria(k):** Uranga Etxeberria, Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AZK-062/014
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:14:12. **Bukatu:** 00:16:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Garai batean ez zen dirurik eta etxeko gauzeekin konpondu behar. Aitak baserrian lan egiten zuen. Orduan baserrietik inor ez zen kalera joaten lanera. Azkoitian "abarketan" (abarketak josten) lan egiten zuen jendeak. Baserrietan familia handiak ziren garai batean; 10 umetik beherako etxe gutxi. Beraiek ere 9 anai-arreba izan ziren. Sukusu baserrian 14 senide ziren. Larraskandan 15.

Transkripzioa

- Diruik ez zan ordun. Oingo moduan? Diruik ez.
- Bueno, baiña etxeko gauzeekin arreglau, ezta?
- Bai, etxeko gauzeekin arreglatzen zien, bai. Hartzen zan apurra ere gorde eo, nik ez dakit, ostien zeozetako izengo zan.
- Aittak ze eitten zeban, basarrixan eitten zeban lan?
- Bai, ba, bertan lana eitten zun ta, aittek, eta...
- Nun eitten zebala?
- Alaba: Bertan, etxien.
- Etxien, etxien. Ordun... Oin tallerretaa-ta ihesi juten da jendie, baiño ordun ez zan tallerrrik!
- Gaiñea, urruti handik, ezta?
- Bai, ta abarketan. Azkoitixen abarketie zan dana. Dana abarketie. Ta

abarketan ta holaxe jendie. Basarritik ez zan ordun iñor juten. Kuadrille galantak basarrixetan egoten zien orduen! Pamilixe galantak.10-11 ume ez dan etxeik ez zan egoten, ta pentsaizu... ze? Ittota jendiekin! Ittota!

- Zuek zenbat ziñazien?
- Gu geu´re beatzi-o bagiñen. Bai, bi edo hiru hildekuk izengo zien, baiñe beatzi euki zittun gure amak´e. Bai.
- Bai, garai bateko emakumik´e... pentsau, beatzi ume ta...
- Bai, ba. Bai. Ordun´e izengo zan zeoze!
- Gaiñera etxian jaiotzen zian, gaiñera.
- Ene, ene, ene...Xukuxun´e izen ziñen, e?
- Xukuxun?
- Xukuxu.
- Bai, nere lagune...
- Haek´e 14-o bazien. 14. Ta hemen Larraskanda goikuan 15.
- 15, pentsau...
- Bai, lehen 10 umetik beherako etxeik... bat´e ez. Telebisixoik ez zan ordun ta...

6. Euskara

6.1. Azkoitia eta Elgoibar aldeko hizkera

- **Hizlaria(k)**: Uria Narbaiza, Salome
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-009/001
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Sorazu, Amaia
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Kaleko eta baserriko euskararen artean ezberdintasunak aurkitzen ditu. Urrategi auzoan bertan Uxaun aldekoek Elgoibarko hizkera erabiltzen dute. Martitako, Elgoibarko eta Azkoitiko hizkera aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Ta aldia igartzen dozu kaleko euskeratik basarrira?
- Hitz batzuten bai. Eta gu Urrategin alde batekuk gea ta Oxaun aldekek "zelakue" ta... han amak bi etxetan Elgoiber aldekek, hiru etxetan...
- Kanpotik etorritakuak dialako.
- Ez oso urrutitik e, hortxe Elgoiber mugatik, baiño... hitz batzuek, ya ezagunek eitten zituen, amai ikasittekuek bai.
- Ta geo hor Martitte aldian...
- Hor "ye"... guk ogixe... iguel ez... Kanpokuek "xe" gehixo eitten debe..."xe" zea gutxixo pronuntziautekue bezela da gurie.
- Bai ta hamendik, Azkoittitik Elgoibarrera be ya aldia igartzen da euskeran, ezta?
- Diferentie da, oiñ bestaldetik ikusten da baitte... Axkoittikuk joskeran edo badaukela antza esaten debe , bai Elgoiber, ta bai bizkaierikin´e badaukela... hori azpeitiar batek esaten zun zera Altuna..., Axkoittiko hizketie nahiko ona zala esate zun, nahiko aberatsa ta nahiko ona ta euskera batuekin nahiko ondo zetorrela ta ba lehelengue zea azpeitiarra Axkoittiko hizketie famatzen duena, esan nixon, beti piken ibiltzen gea ta... behintzet esan zeozer txarra eiñ ber... hori gaiñera nahiko jakintsue zan gai hoixetan ta...

6.2. Erdaraz etxean ikasi zuten

- **Hizlaria(k):** Uria Narbaiza, Salome
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-009/007
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:15:45. **Bukatu:** 00:17:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Sorazu, Amaia
- **Gaia(k):**
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 - Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Salomek etxean ikasi zuen erdaraz. Etxera neskame bat joan zitzaian zaintzaile lanetara eta hark erakusten zien. Morroi bat ere izan zuten eta hari entzunda ere ikasten zuten.

Transkripzioa

- Guk etxin, erderaz etxin ikixi genun guk. Nik bost urte neuzkela jaixo zan nere anaixe eta ama beti kanpun ibiltzen zan lanien, eta amama pixket delikau ibiltzen zan osasunetik, eta neska gazte bat ekarri zebe, ta harek ez zekixen zea...
- Euskeraz ez zekixan?
- Ez zekixen... Eta nere ahizpek esaten du, ni ez naiz hainbeste akordutzen, beakin lo eitten genula ta beakin kuartun lo eiñ ber, ta beakin zea ta... kantuk´e lehelengo erderazkuk ikixi genuzen etxin... "si" ta "vamos" emen zekitzen nere ahizpek esaten du eta zea, haure etorri zanin, beak eukiko zittun xei urtetik zazpira o hola, "si" ta "vamos" ta handik bi hillabetea eskolako danak baiño gehixo emen zakixen, beti beakin beti beakin...
- Egunero egunero beakin berbetan, ezta?
- Eta zea, "en el monte Gorbea" ta erakusten zizkuben eta gurin zeuen morroi bat Orduñatiken eta hor ibilitakue, aitte ta ama hilde, Orduñan hazi, ta gero morroe ta ibilitakue ta, "aupa Urretxu" esaten zun batek eta

“aupa Amurrio” esaten zun bestik. Guk Urretxu gutxi gorabehera bageñekiun hor bazeola, baiño Amurrio, harek esaten zulako. Baiño hola ikixi giñuzen guk abesti hoixek. Eta ordun guk ez genun hainbeste sufriu iguel erderaz ez jakitte horrekin. Nere lagun batzuk esaten debe, “jo, ezin ulertu” ta...

- Orduan jentandako...

- Problemak eittie baiño, ulertzie zaillao izen zebela beaixentzat, guk ez genun hori izen...

6.3. Ia dena euskaraz ikasten zuten

- **Hizlaria(k):** Errasti Juaristi, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-011/005
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:04:53. **Bukatu:** 00:05:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Euskaraz egin ohi zuten eta erdaraz ezer gutxi ikasi zuten eta horren gabezia sumatzen du.

Transkripzioa

-Euskeraz edo erderaz?

-Hortxe faillue. Hortxe faillue izugarrixere. Euskeraz. Erderaz ez gendun ikisi. Soldautzen, gero aittauko deu soldautzia, faillo ikaragarrixere. Euskeraz beti, erderaik ez zigun erakutsi.

-Eta euskeraz hitz egitea ez al zegon debekatuta?

-Orduan, gu txikixak giñanin? Be! Orduen ez zeuan holako..., gero zien kontuak hor. Orduen ez zeon holako kontuik. Dana euskeraz eitten zun. Erderaz erakutsi baligu bai hobe, baiña failllu ikaragarrixere erderaz ikisi eza. Hamen bertan ointxe´re faillue billatzen det erderaz ez jakiña.

6.4. Eskolan euskaraz egiten zuenari zigorra

- **Hizlaria(k):** Alberdi Alberdi, Kruz Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-014/002
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:02:33. **Bukatu:** 00:05:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolan mixerikordian mojekin eta Floreagan mesedetakoekin ibili zen. Eskolan ikasten zituztenak azaltzen ditu. Erdaraz egiten zuten derrigorrez, euskaraz egiten zuenari zigorra jartzen zioten eskola garbitzen. Mutilak eta neskek banatuta joaten ziren eskolara. Gau-eskolan ere ibili zen, lanera hasteko asmoz, tornuan etab. ikasten.

Transkripzioa

- Eta eskolaa ta? Nun ibili ziñen eskolan?
- Eskolaa? Eskolan ibili nitzen ni Miserikordixen, mojakin. Ta gero, Florian, hor goixen, Floreaga, merzedarixukin, merzedarixuk.
- Zer izeten zin hoiek?
- Merzedarixuk zin... prailik. Abarik mezie ematen zeбен, klaro. Haixek auskalo nundik etorri zin! Valladolid aldetiken hortik Toro ta badiz hor herri batzuk. Ggorrak zin haixek... dios!! Haixekin jolasik ez zaon.
- Eta ze ikasten zenduen?
- Dana! Ikasi...praktikamente dana. Relijixue...
- Dotriña-ta gehiago ala matematika ta holako gauzak ´e bai?
- Matematika ´re bai! Matematika bastante... bastante eitten genun. Gramatika eitten genun. Gero, berriz, isturixe. Bueno, isturixe nei Don Quijoten zeak eta eitten [zizkun]. Bueno, ta berko ikixi!
- Eta euskeraz ala erderaz?
- Erdera totala! Erdera totala. Porke, gaiñea, guri eitten zigun, euskeraz hitz eitten bagenun alkarri, dak! ta ordun makille bat, holako makille zea bat zan, haure entregatzen zigun euskeraz eitten zunai, ezta? Ta gero hartzen genun ta zai, besten batek aber eitten al dun. Ta ordun, harekin gelditzen zana zauken eskolie bukautekun porroie, zerrautse ta eskobie, ta es...
- Kastigauta.
- Kastigaute eskola garbitzen. Eunero gelditzen zana makillikin... Han ez zauen interina berrik. Ta gu, berriz, erderaz ez gakixen ta beti makilla puñetero hori eskun akaberan.
- Eta neska ta mutil danok batea juten ziñeten?
- Ez, ez, neskaik ez, mutillek bakarrik. Mutillek, mordue! Han zauden "primera", txikiñek, "segunda", "tercera" ta "cuarta" zauden. Ta zu juten ziñen urtin-urtin mailla bat aurea. Ta gero "cuarta"n, hamahiru urtekin juten ziñen "cuarta" a, ta eskola profesionala ipini zeбен gabaz, ta gero hara juten nintzen eskola profesionala: limen, tornun...
- Gau-eskola izengo zan...
- Gau-eskola bezela, ta hantxe ibiltzen nintzen. Ikixi nahi zeoze, azkar alde eitteko lanea. Ordun diruik ez zaon ta dirue, dirue ber eskun... San Pedro!

6.5. Euskaraz hitz egiten zuenari zigorra

- **Hizlaria(k)**: Sagarzazu Irureta, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-015/003
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:01:47. **Bukatu**: 00:03:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolan matematika, gramatika, doktrina, etab. ikasten zuten. Erdaraz ikasten zuten, euskaraz eginez gero zigorra izaten zuten. Mutilak eta neskak aparte ibiltzen ziren. 14 urterekin, eskola bukatzean, komertzioa eta batxilerra ikasten zuten eta hauek ordaindu beharreko ikasketak izaten ziren.

Transkripzioa

-Eta eskolan ze ikasten zendun garai hartan?

-Normal, eztaikit nola esan'e, normal.

-Dotriña edo?

-Dana, dotriña eta kontuk ataratzan eta Gramatika eta dana. Onak zien orduen zerak, "Hermanos de las Escuelas Cristianas" edo esaten zitxoan eta. Haixek onak zien.

-Maixu onak?

-Bai, onak.

-Ze ikasten zenuten, erderaz ala euskeraz?

-Ez, erderaz izeten zan eskolie. Eta euskeraz ez hitzeiteagatik, gero guk kostunbria hamen genduken ba euskeraz hitzeittie; errekreora ertetzen gedunien orduan izeten zan ba aro bat edo anillo bat ematen zan bati, eta hari [haure] ibiltzen zan ume artien bille aber zenek hitzeitten zun euskeraz, osea ordun erderaz hitz ein behar zan. Eta faltatzen zunak ba ematen zixon anillue eta harek beste baten bille eta harek gero eskolara sartzen giñanin ba eskolan: aber, zenek euki du anillu? Eta eskue jaso eta gero puntuek edo zera... Eta gero hurrungo hillebete edo hillebete terdire hona Madarixara edo Urrategire jutun giñen eta ordun haxe zeukena, horrenbeste bider zera zeukena ba etzan jutun. Kastigo hori ematen zeben.

-Eta neskak eta mutillak danak batera?

-Ez, orduen mutillak aparte. Han danak mutillak ibilli zien Florida zeran edo, danak mutillak. Eta gero hamalau urte arte, eta gero hamalau urtetik gora batzuek komertzixue, batxillerra eta komertzixue. Hori izeten zan pagautako eskolie. Eta beste danak, hamalau urte arteko beste korrientie ba debalde izeten zan.

6.6. 17 urterekin Burgosko jesuitetara

- **Hizlaria(k):** Aramendi Aranberri, Blas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-020/002
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:01:22. **Bukatu:** 00:01:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Betidanik Amusatagin bizi izan da, baina 17 urterekin Burgosko jesuitetara joan zen. Erdaraz ikasi eta okin lanetan aritu zen bertan. Gero, soldadutzan egin zuen beste urte eta erdi.

Transkripzioa

- Eta jaio eta bizi beti hementxe? Beti Amusatagin?

- Bai. Zea egon nitzen, urtebete pasau nuen, ba, hamazazpi urtekin hamen eskolaik ez genduen ta Oñan —Burgos hori—, Burgosko herri txiki baten. Hor jesuitak zeuden. Loiola baiño haundiyaua zan; zaharro, baiña haundiyaua zan. Ta zeoze ikasi nahi ta urtebetin ez dao... Lana iñez han, okiñe o zea... ogiye iten jarduten nun gehienian. Hitz batzuk hantxe ikisi giñuzten. Geo, berriz, soldaduskan beste urte ta erdi pasa giñuzen.

6.7. Burgosko komentuan erdara ikasten

- **Hizlaria(k):** Osinalde Arrizabalaga, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-022/012
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:13:34. **Bukatu:** 00:15:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Erdaraz ikastera Burgosera derrigorrean bidali zuten gurasoek. Apaizak eraman zituen eta gaizki pasa zuen bueltatuko ez zirenaren beldur. Ganadua zaintzen aritzen zen hango komentuan. Bi urte egin zituen han eta behin bakarrik etorri zen etxera.

Transkripzioa

-Eta eskolara hasi ziñela zenbat urterekin esan dezu?
-Nik zazpi urte, zazpi urtekin komunua. [...]
-Eta eskola utzi zenuenean...
-Hamalau urtera arte ibilli nintzen ni hamen.
-Eta Burgosa juteko zera hori nola etorri zen?
-Erderaz eta; bai, nere bototik ez nintzen ni jungo, bialdu.
-Derrigorrean?
-Hamen apaiz bat zeon jesuittekin edo zeoze eukitzen zune partie, ta harek bazekiyela nun zeon eskolan ikesteko tokia ta; eta ama guriak: jun ber dek ba, jun ber dek ba, hala harek eaman ninddun.
-Nola joan zinen hemendik Burgosa, trenean?
-Apaizek berak eaman giñuzen haruzkun. Eta handik bi egunera jakin banun bidia, atzera etorriko nintzen etxera [makalaatik].
-Gaizki pasatu zenuen han?
-Ño! Ein nittun negar edarrak. Bideik ez nun billauko, haregatik gerau nintzen han, bestela... Gero handik aurea ondo, oso ondo, oso ondo!
-Ze egiten zenuen han?
-Ni bakeriyen egon nintzen.
-Nun?
-Bakeriyen, ganauteiyen; eta guk jaten gendun nahi gendun bezela eta nahi gendune.
-Ganaduekin ibiltzen zineten?
-Bai, han behiek jatxi ta jaten eman eta.
-Baserrin baten edo?
-Ez, ez, komentu baten, bakizu, Loiolan eta akordatzen al zera, jesuittanak behiek, eta harako esnie jesuittantzat. Orduen, oin ez da hainbeste egongo, baiña orduen bazeon han jesuittetan! Euliyek bezela!
-Zenbat denbora egin zenuen han?
-Han bi urte.
-Tarte horretan etorri gabe?
-Baten etorri, baten etorri nintzen bakarrik.
-Ez zizuten permissorik ematen?
-Bai, nahi izen ezkeru, baiña zertako etorriko nintzen ba, atzea jun in ber eta.
-Zer egiten zenuten, dena erderaz?
-Bai zera, erderaz, euskalduna zeon han´e asko eta gutxi.
-Hemen inguruko jendea tokatu zitzaizun?
-Bai, hamenguek, jesuittak´e danak euskaldunek eta; danak ez baiña asko, hamen bertatik jundakuek´e bai te, mutillek lanera ta. Guk saiau bagiñen ikisko giñiken erderaz baiña, beti...

6.8. Eskolan erdaraz

- **Hizlaria(k)**: Mengual Larrar, Maria Paula
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-043/003
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:04:18. **Bukatu**: 00:05:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Eskola nazionalean dena erdaraz ikasi zuten. Horregatik, gaur egun, zaila egiten zaio euskaraz idaztea eta irakurtzea. Saiatu izan

da euskaraz alfabetatzeko klaseetara joaten, baina utzi egin izan du beti. Hala ere, Bilbon euskarako azterketa batean "notable" atera zuen, ahozkoa baitzen.

Transkripzioa

- Zuen eskola garai hue, nazionaletan, dana erderaz?
- Bai, dana erderaz! Hori daukeu guk penie, ez dakigula euskeraz irakurtzen, ta idazten gutxixo. Dana euskerie ta euskerie ta euskerie ta dakigu hori "a la perfección".
- Erderaz...
- Ni akordatzan naiz azterketa batzutea... Bueno, profesionaletik bialdu giñuzen euskerie ikistea "con sueldo pagado y todo". Ta hasi nitzen ni bi o hiru biderrez juten, baiñe laga in nixon derrepente, nere burun ez zan / etzan/ sartzen. Nola ba? Txikittetik ez ikisitte...
- Beti beste aldea ohituta...
- Ta, sin embargo, jun nitzen Bilboa "a unas oposiciones" eta han notable ataa nun. Baiñe ahotsez indeko konbertazixue. Baiñe idazten...
- Bai, idaztea beti ´re zaillo da.
- Idazten ta irakurtzen... nei kosta itten zat. Ta askotan pentsatzan det / pentsatzet /: "Irakurri ber diat, ba!" ta jardutzen det /jardutzet/ irakurtzen ta bi o hiru biderrez irakurri ber ulertuko baldin badet /baldimat/ zeoze.

6.9. Umetan dena euskaraz

- **Hizlaria(k)**: Elortza Izagirre, Ainara
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: AZK-077/002
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:00:37. **Bukatu**: 00:02:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Xabier Munibe ikastolan ibili zen. Umetan den-dena euskaraz egiten zuten eta gaztelaniaz ia ez zekitela dio. Floreaga ikastetxean ba omen zegoen D eredu ez zen beste eredu bat eta bere adin inguruko batzuek ez zutela euskaraz ikasi dio. Adin horretatik beherakoek eskolan ikasi dute euskaraz. Familia erdaldunetakoek Floreaga ikastetxera joateko joera zuten.

Transkripzioa

- Eskolara nora joan zinan?
- Xabier Munibe ikastolan ibili nitzen, bai.
- Eta ikastolan, zu umia ziñanian, umien artian harremana euskeraz?
- Dana euskeraz, dana, dana, gure gelan ez zaon iñor´e... bat zauen iguel ama zaukena erdaldune, baiño eske... ixer ez gakinun erderaz! Bai, dana euskeraz zan, bai. Bai, bai, bai, oso giro euskaldune zan. Danok, bai.
- Eta kanpotik etorritako jendiak... hemen euskaldundu ein izan da edo...? zu umia ziñanian, adibidez?
- Nik hor ikusi det, garai hartan, ni ibiltzen nitzenin, oindiken gu azkenengo urtetakuk izengo giñen, baiño Florian oindik bazauen... ez dakit ordun A eredu zan edo nola, baiño erderaz eitten zan... ta, ordun, bazauden famili batzuk eta nere edadeko jendie badao ez duna eskolan-ta euskeraz ikixi eta hoixek beti jarraitu debe... Batzuk zailtasunek eta dana dauzkebe.

Nere edadekuk gehixenak nik uste det euskeraz eitten debela /eittebela/ azkoittiarrez, ba, zu ta ni bezela. Baiño oindik badaude batzuk, gutxi batzuk, ez debenak ikasi. Bai. Baiño, bueno, nik uste det hortiken aurrea, hortik beherakuk bai euskaldundu dila, jakin badakibela; ibili ya beste gauze bat da. Ohitturana... ohitturan arabera.

- Ta orduan bazauan D eredia ez zan beste eredu bat?

- Bai, bai, bai, bai. Azkenetakuk izengo giñen gu, e! Baiño nere edadin badaude batzuk o ni baiño urtebete, bi, zaharro dinak-eta badaude eskolan ez zeбенak ikixi. Bai.

- Eta diferentziarik bazeuan ikastolatik... Hori, bueno, esan dozu, adibidez, Florian, ba, eskola bat... beste eredu bat zaola.

- Bai.

- Baiña bestela ´re antzematen zan aldie?

-Bai, ze famili erdaldunek askoz gehixo juten zin, Floriakin harreman gehixo zakeben. Bazauden famili erdaldunekuk ikastolan umiek, baiño gehixo zien... famili erdaldunekuk nik uste det ordun gehixenak Floriara juten zila. Florian bazauden famili euskaldunekuk ´e, e? baiño ordun ´e oso nabarmena ´k zin kuadrillak: zien famili euskalduneko kuadrillak askotan juntatzen zin eta erdaldunekuk zinak beaixen artin juntatzen zin. Bai.

6.10. Hitanoa kantetan

- **Hizlaria(k)**: Elortza Izagirre, Ainara
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: AZK-077/017
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:34:19. **Bukatu**: 00:35:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Tratamenduak
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena**: Kantei dagokienez, badira hitanoa erabiltzen dutenak, baita noka darabiltenak ere. Oskorriren bilduma aipatzen du. Kanta batzuen bertsio berrietan hika-tik zuka-rako aldaketa egin da. Kantetan azaltzen diren hika arrasto txikiek umeak hitanora ohitzeko balio dute.

Transkripzioa

- Eta kantuetan ikusten da hitanorik?

- Bai, kantu zaharretan da azaltzen da /azaltzea/. Bai, ze hor badaude zea batzuk, Oskorrik adibidez bilduma bat ein zun umien ipuin... oi, ipuinek... kantu zaharranak ta hola, tea hor bai azaltzen da. Bai, "Maria goikoa zer dun bekoa" ta hola ta noka eitten debenak ´e bai. Eta nere amak adibidez guri txikittetik kantau izen dizkun kantuk-eta, ba, "lelengotxu hori..." ta hor nere amak-eta hitanue ibiltzen zeбен. Baiño gero ikusi dittut askotan bertsixuk, eta zenbat eta berrixo, galdu in da, osea, ya "zu"rea bihurtu da; kantu berdiñe, ba, igual mantendu da, baiño ya "zu" esaten da, ez da esaten "hi".

- Bai ta, azkenian, detalle txiki batzuk dia, baiña, bueno, igual hor aldatuta eta hori, ez?

- Bai.

- Aukeria dao, ba, ume txikixak behintzat entzuteko.

- Entzuteko. Entzuteko ta ibili... Entzuteko ta ez gauza raro zea baten

bezela o ipuin mitologiko baten o beaxen errealidadetik kanpo daon gauza baten, baizik eta egunero, egunerokotasunin.

6.11. Hitanoaren genero-marka, errespetuz erabili beharrekoa

- **Hizlaria(k):** Elortza Izagirre, Ainara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AZK-077/020
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:36:47. **Bukatu:** 00:38:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Tratamenduak
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena:** Hitanoaren genero-markak eztabaida sortu dezake, genero-markak kentzen ari garen garaiotan. Baina bakoitzak hautatu dezake berari toka ala noka zuzentzea nahi duen. Errespetuz erabiliz gero, ez dagoela arazorik iruditzen zaio.

Transkripzioa

- Ta, gaiñera, dakan berezitasun hori, ez? Genero-marka hori eta...
- Bai. Bai, genero-marka hori eta, gaiñea, hor dao beste zea bat, beste gai bat, ez? osea, gen... beste eztabaida bat dao hor baitte, ez? genero markie. Oin genero-markak kentzen ai gean hontan, zea, gizarte hau hain binarixue ez dan hontan, eta... ez? Eta esaten dezu /esatezu/: ta oin, gaiñea, hika jarri? ez? lehen, "amigo, amiga" ta oin dauden diskuzixo hauek danakin erderaz, ez? eta guk euskeraz ez daukeula hainbeste, oin guk sartu? Ez? Baiño hitanue beti da biren harteko gauze bat. Hori, hori inportantie da. Ze zu talde bati ai baldin bazea, "zu" esan... ee.. ezin dezu "hi" esan, berez, hola, ez baldin baie danak emakumik eo. Ordun, biren arteko gauze bat da, ordun birek erabaki laikebe. Nik erabaki laiket zuk... zuri "hi" esan, "aizan", baño hi sentitzen baldin bahaiz "Ez, ez nik nahixo diñat nei mutille bezela eittie", "ordun nik mutil bezela ingo diat". "Ez, ez, eske, ba ez zaukenat garbi" o edozer gauza, ba, "zu" aukera hori hor dao.
- [...] "Ba nei toka ein" edo "noka ein".
- Hori da.
- Bakoitzak erabaki leike, ez?
- Bai, bai, bai, hori da, ba, "nei toka", "nei noka"... osea, biren arteko...
Ordun, errespeto bat baldin badao biren artin, ez, ordun nik uste det hor arazue ez daola. Ta, gaiñea, dudie baldin badao, zuka beti hor dao. Ez? Ordun, nik nere lagunekin nik badakit beakin ze harreman dauketan o ze. Ordun, nik harekin badakit, gertutasun hortan, badakit toka o noka ein ber dixotan o gure artin erabakiko deu, ez? Beti errespetutiken. Eta, bestela, ba, dudie badao, "zu".

6.12. Nondik dator nokaren beherakada?

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Sudupe, Leire
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AZK-078/013
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:20:20. **Bukatu:** 00:22:54

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Tratamenduak
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena:** Ez du entzun inoiz hikaren aurkako hitz txarrik, baina nokaren beherakadaren atzean zerbait egon behar dela iruditzen zaio. Bere etxean, esaterako, anaiari hika eta berari zuka egin izan diete eta berak normaltasunez jaso du hori. Berari hika hasteko kontzientzia piztu zitzaion, baina beste askok ez dute pauso hori ematen. Neska gazteagoek gutxik darabilte hika.

Transkripzioa

- Eta hik entzun al den inoiz hiken kontrako jarrerarik? Hike zatarra dala edo zakarra dala edo?
- Entzun, hitzez, behin´e ez dinat entzun. Baiñe bai sentiu diñat holako jarreran bat eon ber dula barru-barrun, hor, hainbeste emakume azkoitiar gazte, ingurun mutillek hika, eta beaixek ez eitteko. Ez? Ze nik esan nun bezela “nahi diñat holaxe harremandu eta neuk´e hika ein”, beste askok ez ziñabenen hautu hori ein, hori erabaki. Zeatik da hori? Hor atzin izen leike... hor daola.
- Neri batek esan zin berak negar eitten zula umetan anaixek hika eitten zixobenian.
- A! Beittu!
- Bai, ez zikola gustatzen.
- Beittu! Ya...
- Eta, hori, igual izango hunan aitzen zulako ez zala emakumina edo...
- Bai, bai. Nik neuk aittu ez diñat ein behin´e. Eta behin´e... ez, hori ez diñat behin´e jaso. Baiño bai hasi pentsatzen: zeatik da hau dana? zeatik familitan´e, geurin bezela, semiei, anaixei, ein zako naturalki hika eta neurri ein zait beti zuka? Nik hori atzenin holaxe jaso det eta, gehixegi kuestionatzeke, ba, “bueno, ba, batez, neure zuka eingo det /eingot/ eta listo”. Eman nixon arte bueltie: “ba, ez, ba, nahi det ba! nik´e hika zeatik ez ba? Aberatsa da, neurie da, geure hizkuntzie da hori”. Baiño hor bai, bazion, batez´e emakumin artin esango niñan hori.
- Bai. Hori da, ez? Ba ya hire generazixotik beherako neskak, emakumezkuak, hike...?
- Gutxi. Neure ingurun hola pixket zea, baiñe beste saltotxo bat gehixo ein ezkeo, ez zakinat zenbat eitten deben /eitteben/, e! Neure dudek ya. Baiño hogeta piko urte bueltan, hogeta hamar urte bueltan ya hainbeste... ez diñat uste.

6.13. Azkoitia, herri euskalduna

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Sudupe, Leire
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AZK-078/029
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:44:58. **Bukatu:** 00:46:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Azkoitia herri euskalduna izan da beti eta hala izaten jarraitzen du. Euskaraz bizi daiteke herrian. Hala ere, zaindu beharreko

kontua iruditzen zaio, ez dagoelako ziurtatuta beti hala izango denik. Askotan, gainera, gaztelaniaz egiten digutenean halaxe erantzuten dugu, besterik gabe. Berak orain kontzienteki lehen hitza euskaraz egiten du beti.

Transkripzioa

- Euskerien egoerie Axkoittixen nola ikusten den? Orokorra.
- Nik uste diñat, orokorin, beti izen gea herri euskaldun bat eta hala izeten segitzen deula. Egixe esan, nik nahi izen ezkeo, herrixen euskeraz bizi leiket, erderaz eitteke. Hori da adierazgarri bat neretzat oindik posible dala jun haragixe erostea eta euskeraz eittie, okindegixen´e bai... alde danetan. Hala´re, beti zaindu beherrekue iruitzen ziten. Garai baten nik [esan bezela] “uf, Axkoitti, uf, aseguarte %100 euskeraz, ederki”. Aaa... oin ya... ez hainbeste. Bai. Honbre, kanpotik´e jende asko etorri den azken urtetan. Bueno, bai. Geuk´e iguel, pentsau, bankure jun o ez dakit nora jun eta erderaz ein geuri eta guk´e iguel erderaz erantzun, ez? Ba hori eitten badigue, guk´e erderaz. Osea, kontzientzi hori. Ni geroa hasi nitxiñan: “Euskeraz ba al dakizu?”, lehenengue behintzet euskeraz ein, ez, beari: “Euskeraz ba al dakizu?”. “Ai, bai, bestie, gutxi...”, “Bueno, ba, poliki eingo dizut”, o bestela, “Bueno, ba, erderaz eingo dizut”, baiño hasieran behintzet. Bai, holako gauzekin konturau naun. Bai. Orokorin ona esango niñan, baiño zaittu beherrekue´re bai.

6.14. Neska batzuekin hika eta beste batzuekin zuka

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Zubizarreta, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: AZK-080/004
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:06:20. **Bukatu**: 00:07:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Tratamenduak
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena**: Anai-arreben artean hika hitz egiten zuten umetatik. Gurasoekin zuka. Mutilek hika jarduten zuten elkarrekin. Geroago, neskekin harremanetan hasi zirenean, neska batzuekin hika eta beste batzuekin zuka. Ez daki zein den horretarako arrazoia; lehen hitza nola egiten den edo. Eta hizketa-ohitura hori urteetan mantentzen da gero.

Transkripzioa

- Eta, orduan, hika, esan dezu mutilenartian beti, txikittetik...
- Beti, beti.
- Eta etxin? Anai-arreben artian?
- Bueno, anaixekin beti hike, eta arrebakin´e bai, arrebakin´e hike. Bai, guk etxin aittekin ta amakin zuke, baiño, bestela, hirurok hike jarduten gendun.
- Eta gurasuak zueri “hi” eitten zetsuen?
- Hasarautakun, amak diar eitten zunin, hasarautakun, baiño, bestela, zuke, zuke.
- Bai, gurasuak zuka, baiña zuek ya txikittatik “hi” eitten zenduen...
- Bai, bai.
-Ta arrebai´re bai. Orduan ya neskan “hi” hori...
- Bai, arrebakin ordie, arrebakin, gero ezin zin... ez zauen. Gero, egixe da, behin kontakto gehixo daukezunin ba neskakin eta abar eta iguel ekintzen

batzuten-eo parte hartu bazu, ez dakit nola gertatzen dan, baiño iguel ekintza hartan konpartiu baldin bazu lau neskakin, birekin hike hasten zea eta segitzen dioxu /segitzexozu/ oiñ´e, eta beste birekin toki berdiñien eon gea, baiño “zu” esan dixou beti. Eta ez dakit zeatik gertatzen dan! Baiño hala gertatzen da, hala gertatzen da /gertatzea/. Eta neure ibilaldixen´e badauket Axkoittiko parroikiko abesbatzan´e eta ya pertsona helduokin esango deu, baiño neska batzugin hike eta beste batzugin zuke, ta ez dakit zeatik. Ez dakit zeatikan, baiño hala gertatzen da.

- Bai, holaxe ohitturie hartu eta... Ielengo hitz hori nola eitten dan...
- Bai be. Ta gero segiu...

6.15. Bere buruari hika

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Zubizarreta, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AZK-080/021
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:24:04. **Bukatu:** 00:24:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Tratamenduak
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena:** Bere buruari hika egiten dio. Beharrezkoa dela tarteka nork bere buruarekin hitz egitea eta animoak ematea dio.

Transkripzioa

- Zeure buruei nola eitten dioxu...?
- Hike, hike. Tartin norberan burukin´e hitz ein in ber izeten da, ez dakit illunpin, ixiltasunen o ispilluen aurrin, ez dakit, nola ein ber izeten dan eta ez dittut danak momento indartsuk eukitzen. Maille danetan, e?
Bizimoduko maille danetan, e? Eta ordun jarri in ber da eta esan: “Benga, hi, animo, e! Hamendik... hau atarako diau ta benga! Hau ez dek ezer´e ta... hainbeste bahaiz” eta... pixket autoestima bat ein ber zako pertsonai. Ta beti hike, nik nere buruei beti hike, beti, beti.

6.16. Hika bizitzen ohituta

- **Hizlaria(k):** Azpiazu Larrañaga, Jaione
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AZK-081/002
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:00:42. **Bukatu:** 00:03:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Tratamenduak
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena:** Gurasoek hika egiten zioten eta anai-arreben artean hala egin izan dute beti. Ume-umetatik egin izan du hika eta horixe iruditzen zaio ohikoena. Bere alabek edo herriko gazteek elkarrekin zuka egitea xelebrea iruditzen zaio.

Transkripzioa

- Hika nola hasi ziñen edo noiz hasi ziñen hika?

- Nik ba ez dakit noiz hasiko nitzen, baiñe nik betittik uste det /ustet/ ein izen detela. Etxin-eta behintzet guk anai-arrebak-eta alkarri hika eitten dixou /eittexou/ ta amak-eta´re danak hika... eta nik, ba, betittik, betittik ein izen det. Bai.

- Zenbat anai-arreba zarie?

- Xei. Xei anai-arreba, bai, lau neska eta bi mutil.

- Eta esan dozu, bueno, gurasuak zueri...?

- Baitte, hika. Bai, bueno, aitte ez naiz akordatzen, aspaldi hil zan, baiñe, gaztie nitzela. Baiñe bai, amak beti-beti hika. Eta guk beorri zuka.

- Eta aittitta-amamak eta tia edo tioren batek?

- Ba tiak eta tiok-eta´re bai, aman aldeku. Bai. Eta aitten aldeku´e bai, hika, hika eitten digube. Guk beoixei zuka, baiñe beoixek guri hika ein izen digube beti.

- Eta, orduan, zuek, anai-arrebok, alkarren artian “hi” beti?

- Bai, bai.

- Bai neska eta bai mutil?

- Bai, bai, bai bai.

- Oso ondo. Etxetik azkenian...

- Bai, bai, ta betittik, txikittetik, bai.

- Eta gurasuak elkarrekin?

- Bo, ez naiz akord... baiñe elkarri ez dauket nik horren... horren zea, rekuerdoik elkarri hika eitten zixobenik, ez, zuka, bai.

- Zu umia ziñanian Azkoittixen zenbat hika edo...? Nola eitten zan hola gehixen bat, ze iruitzen zatzu?

- Ba, nik ez, eske nik nola bet-beti ein izen detan, oso gauza gertukue. Oso... normala, normala iruitzen zat nei eittie. Ez dakit. Eske betittik hitz ein izen det, eta ordun ez dauket hola... ez zat ezer´e hola xelebri o rarue iruitzen eittie edo... Ez dakit. Iguel bai eitten zatena da gaztik beauen artin zuka aitzen dittutenin, hori bai xelebrie eitten zat, porke nik gehixo hika eitten nun igual gaztetan eta. Badauzket lagun batzuk iguel zuka eta hori, baiñe... Adibidez: bi alaban artin, bi ahizpen artin, elkarri zuka eittie, ba, ez dakit, ba, holaxe ohittu die eta bale, baiñe guk beti nola hike ein deuen... hori bai eitten zat pixket hola... hola, xelebrie, baiñe... Nei, ez dakit, beti oso naturala iruittu zat nei beti hike, beti... beti ein izen det eta beti aittu izen det eta.

6.17. Lehengusuekin toka; nokarik ez du erabiltzen

- **Hizlaria(k)**: Azpiazu Larrañaga, Jaione; Etxaniz Azpiazu, Araitz
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: AZK-081/024
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:24:13. **Bukatu**: 00:25:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Tratamenduak
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena**: Hika badaki, erabili ez arren, eta egingo lukeela iruditzen zaio. Hala ere, ahizparekin baino errazago hasiko litzateke lagunekin. Lehengusuei toka egiten die, nahiz eta haiek zuka erantzun.

Transkripzioa

- Hika... amak esaten du /esateu/ badakizula.

- Araitz: Bai, jakin bai.

- Burun daukezu, ez?
 - A.: Bai.
 - Baiña gero igual erabiltzia... hori, ez dezu erabili izan...
 - A.: Ez.
 - Ze iruditzen zatzu, aldaketa hori egin ahalko zendukela? Hike hastie oin...
 - A.: Nik uste baietz.
 - Eta ahizpekin, adibidez?
 - A.: Ez dakit, eske ez dakit ahizpek ba al dakixen.
 - Jaione: Bai, jakingo ez du /eztu/ ba. Gu... etxin aittu du behintzet eta...
 - A.: Bai, baiño...
 - J.: Bai, eta esan dezuna, guk etxin eta gero guk lagunartin´e hika eitten deu erabat. Ordun... jakin badaki. Aittute badao behintzet ta azkenin... bai, jakin... jarri ezkeo, bai. Nik uste det.
 - A.: Bai, baiño nik uste det errexo hasiko nitzela lagunekin ahizpekin baiño. Egixe da nik lehengusui, zuk esan dezun bezela, iguel baitte zu aittu zaitutelako, lehengusui zea eitten dixot, lehengusu mutillei hika eitten dixot. Beaixek nei ez, baiño nik beaxe bai. Iguel baitte ama aittu detelako beti beaxe hika eitten. Izen leike.
 - Osea ke, orduan, eitten dezu hika pixket?
 - A.: Bai.
 - Toka bakarrik. Ez?
 - A.: Beaixek nei ez, normalin
 - J.: Baiño iguel txikixo dizenak. Ez? Zeure edadeko lehengusui´e bai?
 - A.: Bai. Baiño beaixek nei ez. Beaixek nei zuka beti.

6.18. Gazteen hizkeran herriko hitzak gutxituz eta erdarakadak gehituz

- **Hizlaria(k)**: Azpiazu Larrañaga, Jaione; Etxaniz Azpiazu, Araitz
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: AZK-081/039
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:39:48. **Bukatu**: 00:42:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Euskara » Euskararen egoera
 Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Jaionek gaztelaniaz egin zituen ikasketak. Hala ere, ez omen ditu inoiz erabili gaur egun gazteek erabiltzen dituzten moduko erdarakadak. Azkoitiko hitzak galtzen ari direla ere konturatzen da eta sarritan kargu hartzen omen die alabei. Hikak saltsa eta gatza ematen dio hizkerari Jaioneren ustez.

Transkripzioa

- Azkoittixen euskerien egoerie nola ikusten dezue?
 - Jaione: Ba Azkoitin euskerien egoerie, aber, nik e... nik hauei erritan askotan eitten dixobet. Nik erderaz ikixi nun. Monjatan erderaz. Ta nik gero, nik dana e... nere ikasketa danak erderaz izen die. Iguel ikasgain bat euskeraz eta zea, baiñe dana erderaz in nun. Eta nik ikusten dittut oin hamen ibiltzen dittobela /ibiltzettobela/ erderaka batzuk guk ibiltzen ez giñuzenak. Osea, nik nere bizixen ez det esan "gordue". Ez det nere bizixen esan. Erderakadak ibiltzen dittut, ba, pillie azkenin. Ba, bueno, asko ibiltzen dittou /ibiltzettou/, baiñe erderakadak...
 - Araitz: Bai, batzuk...

- Jaione: ... guk ibiltzen dittounekin konparaute, baiñe... hitz batzuk, baiñe... hola... Eta gero, hamen bertako hitzek, ba, galtzen ai die. Nere ustez galtzen ai die. Nik aitzen detan /aitzetan/ "aita" "aitte" esan beherrin eo "portala" "bebarrue" esan beherrin, eo "munizipala" "merixue" esan beherrin...

- Araitz: Hori zuk beti...

- Jaione: Eta ya "korrika", joe, ba, "antxintxike" esan beherrin...

- Araitz: Hori beti esan izen diguzu zuk; beti "korrika ez, antxintxike", eo "portala ez, bebarrue". Beti. Eta, hola, hainbeste... zuk hainbeste esanda, oin ahizpek esaten dunin /esateunin/ "portala", oin neuk esaten dixot: "portala ez, bebarrue".

- Jaione: Eske neretzat iuel hori ai da galtzen, hori ai da galtzen, eta ez ez dakizutelako, guk holaxe hitz eitten deu ta. Guk ez deu esaten "munizipala", o ez deu esaten "portala", ta hauek bai. Ta "aita", guk "aitte". Ta gauze hoixek iuel bai ai die galtzen. Eta gero hori, erderaka batzuk, bueno, guk erderaz ikixitte bizixen ibili ez dittouenak.

- Baiñe iuel erderakada hoixek eitten dittube, hola, grazixe eitteko edo... ez? Gaztien arteko...

- Jaione: E... ez dakit ba.

- Araitz: Bai, iuel hola hasi baiño gero...

- Jaione: Gero hor geratzen die /geratzeie/, e!

- Araitz: Gero hor geratzen die /geratzeie/ ta beti hola.

- Broma bezela hasten da, baiña gero...

- Jaione: Bai, gero hor geratzen die /geratzeie/.

- Araitz: Ta gero... ta gero ohittu hortaa.

- Ta hori askotan esaten dabe herri askotan gazte-hizkera falta dala edo gaztien arteko saltsarako... eta iguel izan leike baitte hike horrekin...

- Jaione: Baitte. Bai, hitek beste saltxa bat dauke, bai, lehen esan deun gertutasune, konplizidadie... zea hori, nik hori ikusten dixot. Eta bai, iuel bai, beste zea bat dauke, beste gatz bat dauke.

6.19. Trikiti-giroan hikarako joera

- **Hizlaria(k)**: Etxaniz Azpiazu, Araitz
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: AZK-081/043
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:46:30. **Bukatu**: 00:47:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Tratamenduak
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena**: Araitzek dio trikiti-giroan mutil zaharrago batzuek noka hitz egiten diotela. Izan liteke parranda-giroan edo giro alai horretan hikarako joera nagusitzea.

Transkripzioa

- Batek esan zin neri iguel segun ze girotan iguel hike gehixo erabiltzen dala. Ba iguel trikiti eta bertso munduan...

- Araitz: Bai, nik... egixe da trikiti mundun trikitilai batzuk hola eitten dibe, baiño beti're mutillek. Baiño... bai. Hori bai, noka eitten dibe /eitteibe/. Hoixek bai, noka.

- Bai, ez? Eta zure adin ingurukuak ala zaharraguak ?

- A.: Ez, zaharrauek. Baiño... bai. Bai, trikiti mundun badao ohitture hori

hike eitteko. Bai,
 - Eta hortik kanpora esan dezu beste...?
 - A.: Ez...
 - ... gutxi aitzen dezula.
 - A.: Bai, gaiñea, hori, hike zaharrauek. Nere edadeko ta... trikiti mundun nere edadekuk ez, normalin ez.
 - Hori izan leike baitte igual zea batzutan, ez, esparru batzutan gehixo erabiltzen dala edo...?
 - A.: Bai, izan leike.
 - Jaione: Edo lehen esan deuen girue´re ze giro...
 - A.: Hori da.
 - J.: Zertako dan giro...
 - Parranda girua edo...
 - J.: Hori da, giro alaixo ta hola beste zea bat, beste saltsadun... Bai.

7. Ohiturak eta bizimodua

7.1. 14 urterekin josten ikasten eta gau-eskolan

- **Hizlaria(k)**: Uria Narbaiza, Salome
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-009/004
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:04:20. **Bukatu**: 00:07:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Sorazu, Amaia
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
 Lanbideak » Sastreak, jostunak
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
 Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena**: 14 urterekin etxera bueltatu eta baserrian lanean jarraitu zuen. Abendu inguruan hasita arratsaldeetan josten ikastera joaten ziren Azkoitira. Neska ugari joaten ziren. Tabernetara ez ziren sartzen. Institutora ere joan zen neguan kalean geratzen hasi zirenean, denbora libre betetzeko; gau-eskola modukoa zen. Maila altua nahi zuenak kanpora joan behar izaten zuen ikasketak egitera. Lagun baten inguruko ikasketa kontuak.

Transkripzioa

- Gero, hori, gero etxea etorri nitzen hamalau urtekin, hamalau urte t´erdi edo hola, ta gero berriz basarrixen eta gero... hor abendu inguruan hasi ta jostea etortzen giñen arratsaldetan, ondo pasatzen genun, lagunartie eitten genun ta josten ez dakit zemat ikixten genun baiñe behintzet gustoa ibiltzen giñen... eta horren ondoren, ba...
 - Zeiñekin ikasten zenduen josten, hemen bertan Azkoittin?
 - Bai. Kapañanekue, hor neska pillo bat pasau da hortiken.
 - Bai orduan izaten zan, ezta, neskak jostera...
 - Hil da bea.
 - ... biharrezko moduan edo, ezta? Gehixenak juaten zian ez josten ikastera?
 - Bai neguen ta hola, eta kalin neskame zeudenak eta umezain zeudenak´e eukitzen zebeñ atsaldin bi ordu edo hiru ta jostea juten zin generalin ordun, bai. Tabernatan ez giñen sartzen ta libre kalin zeudenak´e jostea jun ber ordun eta gero bolara batzuten hemen Institutun´e zea hemen

bazeuen akademi bat oin San Martingo soziedadie dana eta horra ere jun izen nitzen, baiñe hori izeten zan pixket neguen kalin gelditzen hasi giñenien, gazte-gazterik ez, gero hogeit urte ingurukin edo, eta nola illuntzien denbora bat genduken libre ba illuntzin aprobetxau horra akademi horta juteko.

- Zer zan gau-eskola moduen edo, arratsaldetan?

- Bai, illuntzin, illuntzin zan bai. Taillerretatik eta jutun zien ta, orduen titulukin ez ziren hasten, osea oiñ ez dakit ba, Altuna y Urian gerenten bat, beste banku bateko zuzendari ta hoixek gurekin batera zebiltzen han zean eskola batxillergo ingurutiken ateratzen zienak ta gero kanpora jutun ez bazien ikastera, hor gelditzen zien.

- Hemen mailla altuagorik ez zeguala bertan, ezta?

- Ez, kanpora jun ber zan, ta profesional maillie lehelengo hasi zanin hemen zan profesionala baiño Maestria bakarriken, gero Peritajie eiñ ber zan kanpun ta Maestria ere lelengotik ez, Maestrire Arrasatea lelengo jun zienak jun zien, gu baiño pixket gaztiouek zin haixek eta... gure lagun bat baiño urtik pixket pasauteko onduen hasi zan hemen, zea, Angelesen ta lagun bat zan eta, hori hasi zan ikasten profesionalin, lelengo hemengo profesionalin te gero profesionalleako preparau zan ta hor segitzen dixo, oiñ jubilau ez bada behintzet, oiñ jubilau, hor zeuen.

7.2. Jaunartze txikia eta handia egin zituenekoa

- **Hizlaria(k):** Uria Narbaiza, Salome
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-009/023
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:48:45. **Bukatu:** 00:52:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Sorazu, Amaia
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Eskolan ez zuten doktrinarik ikasten. Urrategira hilean behin pasionistak joaten ziren eta haiekin ikasten zituzten errezoak. Orduan kristautasun otoitz giroa etxean ikasten zuten. Orduko kontuak kontatzen ditu. Zazpi urterekin jaunartze txikia eta hamarrekin handia egin zituen. Jaunartzeko arropen buruz hitz egiten du. Neskek eta mutilek batera egin zuten jaunartzea.

Transkripzioa

- Eta lehen eskolan eta ze ikasten dan eta komentau dozu, eta dotriñiak orduan inportantzia haundixa zekan, ez? Edo...

- Ez, baiño guk ez genun...

- Aurretik igual gehixao.

- Dotriñie guk eiñ gendun... eskolan "religi3n" ikixten genun, dotriñiak ez, eta gero... Urrategin bertan jaunartzeko zeakin eta apaizekin zea, baiño ez dakit e... ta etxien ikixiko gendun baiño ez dakit erreza. Eske etxin eitten zenun bizitzie. Oiñ nere illobak, ordenadorien, hiru urtekin, ya ordenadorien xague nere aldien errez ibiltzen du. Hori egixe da. Ta oingo umiek zemat dakixen. Bai, hortan bai. Baiño erresaixue, ordun Pasionistak etortzen zien, zea beste Pasionistan zea bat eon zan, eta Urrategire hillien behin eo etortzen zien Pasionistak. Eta erresaixo... Pasionisten erresaixue

izeten zan bost Gloria ta Agur Maria, bost Gloria ta Agur Maria. Ta nik bestie ez nun errezatzen, letanik eta ez nakixen ta, baiño lau urtekin nik errezatzen nun errosaixo txikixe ta, gaiñea, gustoa, zea amamak eo famako nittun batematek seguru asko. Ez naiz oin akordatzen. Ta ilusixukin bezela. Ta klaro zertan ai zean, pues haure ikixten dezu. Guk dotriñikin ta...

- Afalondoren edo iguel eukiko zenuten ohittura...

- Errosaixue beti errezatzen genun, errosaixo txikixe´re bai. Ordun, ez dakit, ordun... kristautasun, otoitz giro hori eta bizi eitten zan. Ordun ez zan propixo ikisten, ez dakit guk dotriñie ta...

-Etxian ikasten zana igual...

- Bai, ilusixukin bezela gehixo, zea, ta nei akordatzen zat letanixek ta hori bai, hori ya eskolan errosaixue errezatzen zanin eo zapatutan, ez dakit nola zan baiño gehixo... batzuk, “nik ez dakit” esaten zeben, baiño “nik ez dakit” ez esateatik, maestrik eskatzen baziun errezatzeko, “nik ez dakit” ez esateatiken, hori nei akordatzen zat, bazkalondun eo bestik xiestaa juten zinin jarduten nuela letanixek eta ikixten.

- Ikasten...

- Bai ta ikasten, nere ahizpa zan askoz azkarro ni baiño. Ta nei gehitxo gustatzen ziten ta nik jarduten nuela akordatzen zat hola zea, baiño bestela komunixue ta zea ta hori ez.

- Zenbat urtekin ein zenduan komunixua?

- Zazpi urtekin ta gero bestie beatzi-hamar urte.

- Bi, ezta? Haundixa ta txikixa.

- Bai eta gerokue ein nun ber baiño lehenuo berez, eta... artin gaztie nitzela eo esan zixon apaizek gure amai eta, ez bestie kalea hasi zan eskola ta kalea haste ezkerro, osea, bertan segitzeko zea ta baiño dotriñie ta berdin segiko dixo ta ni gustoa juten nitzen zea...

- Ta zelan jantzitta eitten zan komunixua, normal?

- Ez... Madrirtik ekarritako bordau bat genun zeana aiña eondako batek, gure tia baten amak, aiña eondako baten bordau haundi bat, haure azpikogona zan.

- Garestixa izango zan, ba, haura?

- Ez dakit nolakue zan, baiñe zea behiñ “hoixe azpikogona earra daukezula” ta zazpi urtekin Don Anastasio hemengo apaiz batek esan “azpikogona hoixe dotorie”.

- Apaizak.

- Bai, ta “hau lotsabeie” pentsau nun, ixilik baiño, “hau apaiz zahar lotsabeie, hau” pantsau nun.

- Atenziñua deittuko zetsan.

- Bai, eta bigarren komunixoako akordatzen zat zea burukue holako... ta altie eongo nitzen eo, ez dakit, nobia ematen nuela ta jardun ziela... zea... ta ez dakit. Bai ordun, artin komunixoko jantzita ibiltzen zan... zea... Eta gero gonbidauek etxien, ordun tian bat eo etorriko zan launtzea etxin, gurasuk eta juteko elizea ta baiño.

- Ta neska ta mutil danak batea komunioa?

- Bai, ta haundi ta txiki batea danak, batzuk zazpi urtekuk ta bestik zea, bai.

7.3. Mezara Urrategira

- **Hizlaria(k)**: Uria Narbaiza, Salome
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-009/024
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:52:53. **Bukatu**: 00:54:24

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Sorazu, Amaia
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena:** Mezara Urrategira joaten ziren igandero eta meza ondorenean doktrina egiten zuten. Apaizaren inguruan hitz egiten du. Orduan ez zuten konfesatu beharrik. Salomek gozatu egiten zuen errezo eta eliz inguruko ekintzekin.

Transkripzioa

- Eta mezatara ta Urrategira?
- Bai Urrategire normalin beti, bai.
- Jaiero?
- Bai, bai jaixetan bakarrik eoten zan han, bi meza ta... goizeko mezetaa jun ta gero dotriñie baldin bazeon, meza ondun dotriñie ta hoixetxek .
- Ta zein zan apaiza ordun?
- Guk txikitten Don Esteban euki genun, hori zea... geo Martittea eman zebena zea... kamiñue ein zanin, eta zea zan oso zuzena ta oso zea...
- Ta pekatuik eta konfesau berrik eta izaten zenuen?
- Ez dauket nik pekatuk... batzuk esaten debe inpresixo hori pekatu kontun. Hori batzuk etxetiken´e, gurin aitte´re zan oso fede haundikue zan, oso sakona ta zea... baiño ez hola detailletan ez, jarrerikin gehixo, iguel oingo kristautasunekin gehixo lotute ta ni neuk ez dauket. Gero Jesus y Mariatan´e hori, karo, monjan komentue zan ta baiño ni pozik zea eitten nintzen, bai mezetaa egunero juteko ta bai abestixek zea... Bai, bai, gozaten nun , nei oiñ´e Jesus y Mariatako elizie... gustatzen zat.
- Ta errezuak eta hori euskeraz ikasi zenduen ala erderaz hori be bai?
- Euskeraz.
- Euskeraz.
- Euskeraz, erderaz´e bai ta latiñez´e bai ikixi, baiño ahaztu xamartu zatxit. Oiñ Erromaa ta jutun geanin, errez eitten deu latiñez guk´e, inglese ez baiñe... zea eta... ez geo Jesús y Mariatan´e hori elizkizunek eta egunero eta hori, baiño bestela.

7.4. Eskolara Urrategiko Izer-etxetxora eta maristetara

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Zubizarreta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkune, Laxaro - Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-010/002
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:01:45. **Bukatu:** 00:04:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Eskolara Urrategitik beheragoko Izer-etxetxo baserrira joaten ziren neska zein mutil denak batera. Katona zen ikasgai nagusiena, alfabeoa ikasten zuten. Gerora gerra-denboran nazionalak sartu zirenean debekatu bazitzaien ere, orduan euskaraz ikasten zuten. Gerra amaitzean, 14-15 urterekin, kalera hasi zen eskolara, maristetara, eta haiekin ikasi zituen matematikak.

Transkripzioa

- Eskolaa nora jun ziñen?
- Eskolaa? Han geuretik albut, Izer-etxetxon (Irizar-etxetxo) zan eskolie.
- Izerrin?
- Izer etxetxo. Hor Urrategitikan beherako basarri hartan. Ta han ibiltzen giñen. Maistrie... Maistrie zan.
- Nungue zan?
- Bertakue, basarriko bertakua. Bai, bertakue zan.
- Ta han neska eta mutil, danak batera?
- Bai, neska eta mutil, danak batera.
- Zenbat lagun edo?
- Ba, gu han ibili giñan 24 bat edo hola, 24tik 30era bittartien.
- Hor baillerakuek?
- Bai, bertako baillerakuek. Ta gu ixte kale ondokuek izen ta hara juaten giñen, Urrategi ondora. Ta gero Urrategi aldeakuek danak.
- Ta ze ikesten zenduen?
- Ze ikesiko gendun... katona! Katona, zuek ez dezue jakingo zer dan katona. Katona. Hori ikesi gendun.
- Ta han zer zeuen?
- A-e-i-o-u ta zer hoixek ta... hoixek ikixi [ezkero justu] samarrien in gendun.
- Baiño "sumar" ta "restar" ta hoyek ikasiko ziñuzten?
- Guk nola ikasiko [giñuzen], beak ez zekiten ta!
- Ta dana erderaz o...?
- Eez! Dana euskeraz!
- Euskeraz?
- Euskeraz! Buenoo...! Erderaz? Erderaz guk aittu´re ez gendun ein saso(e) hartan erderaik.
- Euskeraz hitz eittea ez al zan debeku ordun?
- Euskeraz hitz eittea debekua? Eeez! Arten ez. Gero! Gu han ibili giñenin ez, baiña belaxe hasi zan zer hori. Euskeraz hitz eitten zunai hola zea bat ematen zixuen, [hiru kantoko] moduko bat, zea bat, burni pusketa bat, eta azkena haure zeukenak kastigaute
- Txanpona?
- Txanpona. Alkarri eman ein ber. Zuk beste bat euskeraz eitten ikusten bazendun, hari eman txanpon haure.
- Hori Urrategiko eskola hortan´e bai?
- Bai, itten gendun. Bai. Gero, e? Gero. Gero hamen nazionalak sartu ta gero hori.
- A! Gerra ondorenien, ordun?
- Bai, bai. Ordun.
- Eta, orduan, "sumar" ta "restar" ta hoyek noiz ikisi ziñuzen zuk?
- Hoyek geo. Geo zeara hasi giñen, kalea, gerrie akabau zan inguru hartan.

- Zenbat urte?
- Ba, nik ordun ez dakit ba zenbat, 14 o 15 eo... 14 eo holakon bat. Ta han Florian (Floreagan) zea hoixek zin, nola esaten [diou]? Babero txuridun hoyek, maristak edo.
- Maristak o salesianuk o zer zien?
- Ez, ez, ez, ez.
- Maristak?
- Maristak, hala izango zin. Hayekin, haidxekin pixkat, haitxekin pixkat ikixi gendun zeoze.

7.5. Erdaraz ikastera Comillasera, osaba jesuitarengana

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Zubizarreta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkune, Laxaro - Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-010/004
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:04:56. **Bukatu:** 00:06:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Erdaraz ez zekiten tutik ere. Osaba jesuitak erakutsiko ziola eta, 19 urterekin Comillasera joan zen. Bidean gertatutako anekdotak kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Gero handik, erderaz ez genikin, ba, batez, hitzik´e ez, zer zan o zer zan ´e ez genikin ta, zea, osaba gendun jesuittie ta harek esan ziun — [bakaziuak] ittea etortzen zan haure ta—: "Nik erakutsiko dit erderaz" esaten zian, erderaz erakutsiko [dit]. Ta hala, ba, jun nitzen gero,19 urtekin jun nitzen, zeara, harena, Comillasea, erderaz ikistea.

- Erderaz ikastea?

- Bai. Jesus!

- Bai ikasi´re...

- Ikasi? Ikasi? Ikasi? Haure zan ona!

- Esplika itzazu Comillasko zeak...

- Esplikau... [bidin] zan earra! Klaro, ez nekixen ba nik erderaz ezta hitzik´e ta anaixek lagunduko zila. Ta anaixe hartuta hare laguntzen ta jun gea ta allega gea Santanderrea ta Santanderren kolegixoa bazkaltzea. Ta han zea zeon etorritte, Comillastik etorritte rasionamentue emateko kamiona, ta harek bat eamateko zera bazeukela, permisua bazeukela, baiña bi ezin zeizkela eaman. Ta... mekauden! Anaidxek buelta etxera ta ni han, ze esaten zeoben arrastoik be! Ta hala jun nitzen Comillas hortaa. Allegau giñen behintzet eta...

- Nola-hala adieraziko ziñon nora jun ber zendun.

- Bazekidxen haidxek, anaidxek esanda bazekidxen haidxek nora jua. Hara jun ber zeoben beaidxek´e! Bai. Gero hara jun ta han allegau ta baja gera ta rediez!, iñor ez han euskaldunik. Ta halako baten azaldu dek gure osaba hori ta ño! haure zan poza! Haure zan... Hitz eitten orduntxe hasi!

7.6. Comillasen neskei gutunak idazten

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Zubizarreta, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkune, Laxaro - Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-010/006
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:11:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

- **Laburpena:** Comillasen zegoela, gutunak idazten zizkieten neskei. Orduko pasadizoak.

Transkripzioa

- Ta hor "Sakristaua" izena o ezizena o nundik dator, ba?

- Hori...

- Hor badauke beste kontu bat ondik esan ez duna: hor andregaia´re hor in zun bide hortan... Comillasen zebilela, hor badie kartien kontua ta´re...

- Bai, bai... Comillasera jun giñenen ta andregaixa ez, baiña neskak bai, bagiñuzen ba ezaunek neskak eta kartia eitten giñien ta kontestatzen zebeñ ta ze eitten ziuen? Letuta ematen ziuen, letu beaixek ta letuta ematen ziuen. Ta [...], "Hau ezin letxekek, ba!". Bi zea etortzen zin, bi peoe edo hara lanera etortzen zin ikuluk garbitzera ta, ta esan nixon bati: "Hi, señaak, señaak eman ber diztek", "Ze?" ta "Señaak. Hola ta hola, zea, neskan kartak letuta ematen zizkuk eta...". Gero, hala, eman zizten señaak eta gero hareña, hara juten zin nere kartak. Nere kartak hara juten zin gero ta haure ikulura goizien argi etortzen zan, kartie hartu eskun ta "Neska, neska" inde han etortzen zan.

7.7. Eskolan Agarre baserrian, Azkoitian

- **Hizlaria(k):** Errasti Juaristi, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-011/004
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:03:07. **Bukatu:** 00:04:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolan Agarre baserrian ibili zen, Azkoitian. Inguruaz azaltzen du. Doktrina ikasten zuten, baita geografía, matematika, etab. ere. Juan Josek ondo ikasi zuen idazten eta irakurtzen eta beste umeei doktrina erakusten aritu zen. Neska eta mutilek elkarrekin ikasten zuten.

Transkripzioa

-Eta eskola ta?

-Eskolan? Agarren. Agarren eskolan. Hori dao Santakruztik bela, hortxe Agarre. [...]. Agarren ibilli giñen Trinokin.

-Eta ze ikasten zenuen eskolan?

-Ze ikesi? Je-je, dotriñie, errezatzen eta hola. Erakusten zun. Baiña ume zarrak askotan tulie egin ber zala eta jun ez eta hau eta hori tte; baiña erakustez erakusten zun, Geografixe ta Gramatike eta kontu-ataratzen, dividir eta hoixek ikesi giñuzen. Oiñ izkribitzen´e bai, iskribitzen nik ondo ikisi nun. Pentsaizu, sankristixan ibilli bihar izeten zan ordun dotriñie eitteko, dotriñia ikesteko komunixue eitteko. Maixu eon nintzen dotriñie erakusten bestiei, eta letzen dezente ikisi nun. Oiñ´e letze(n) (d)et baiña oiñ asko atrasaute. Letzen eta izkribitzen ondo ikesi gendun orduko.

-Neska eta mutil danak batera?

-Baitte. Haure hantxe ibili zan. Ordun ein nun lagun.

-Eskolan batera. Neska eta mutill batera.

7.8. Soldadutzan Donostian eta Orion

- **Hizlaria(k):** Errasti Juaristi, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-011/006
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:05:33. **Bukatu:** 00:08:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Soldadutzan Donostian eta Orion egon zen hiru urtez. Lehenengo sukaldarako egur-txikitzen eta ondoren sukaldari lanetan aritu zen. Juan Jose "primera compañía"-koa zen eta gerra ondorengo garai hartan, Frantziatik Nafarroara etortzen ziren makiak harrapatzera joan behar izan zuen negu batean.

Transkripzioa

- Eta soldautzara jun giñanien berriz, soldautzara jun arte Donostiara ez dakit sekula jun ete nintzan.

- Nun egin zendun soldaduska, Donostin?

- Donostin banderia jurau arte eta gero Zurai gaiñin (Zudagarai), Alto de Orio, Aiako kruzie badago, hantxe ein gendun. Banderie jurau gendunin hara etorri giñan eta hantxe ein gendun soldautzie. Ixe dana.

- Eta ze rekuerdo dauzketzu soldaduskakok?

- Soldauskakuek, lenengo egon nintzen, banderia jurau eta etorri eta egur txikitzen kozinan. Gero kozinero jarri nintzen, ta bi urtin kozinero egon nintzen. Eta ondo. Neure burua famatzie da, baiña oso langille egokixe nintzen, eta kozinan ´e, "oin ez dezu asko eitten" esaten diabe, baiña kozinan ´e asko ikisi gendun, asko. Kuadrillako bat koziñeru konpletue. Han askotan bertan ikesittakuek izaten die koziñeruk, baiña berez koziñerue zana Corellakua. Oso zera ninduen, hartue, eta harek asko-asko erakutsi zin harek. Bestela ´re, lelengotik gosie egon zan, baiña gero ofizialak eta txandan, konpaiñie batak, txandan eitten zebe hillekue, ta batak baiño bestiek hobeto ematen hasi zien, eta jesus!, ze koziñek ein biher izeten genduzen guk, ze koziña. Baratxuri tortilliana eittera aillegau giñen eta pentsa eizu. Tortillie ez emakumiek eitten deben moduen, hartu ta bli-blat-blat eta fuera! Koziñeruk bezela, beharko ikisi.

- Eta zenbat urte in zittuzun soldauskan?

- Hiru. Gero hortiken makisetara ´re jun giñen.

- Noa?

- Makiseta. Zuk ez al dakizu oin ETAkuek, nik kontu asko dauket, ETAkuek esaten da ba oin, ETA. Ordun gerra ondue zan haure, eta makisek Frantzitik etorri eitten ziin Naparrura. Ta hadxek harrapatzera, "Primera Compañiakua" nintzen ta Naparruara bi neguten edo gure konpaiñidxe jun zan. Ni baten jun nintzen, baiña bestiek jun zien. Baten jun nintzen, lelenguen, eta bigarrenien ez nintzen jun zeatik batailloie zeuen eta ni neon koziñero aurrien eta, ni alde eginde ba batailloien akats ikeragarriye, ez zeula zera eitten, [...] berak arreglauko zebela baiña nik geratu ein ber nula. Eta halaxe geratu nintzen Oriyon.

7.9. Barrakoietan lo egiten zuten

- **Hizlaria(k):** Errasti Juaristi, Juan Jose

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-011/007
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:08:16. **Bukatu**: 00:09:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena**: Soldadutzan barrakoietan lo egiten zuten. Etxera etortzeko baimena izan arren ez zuten etxerako ilusiorik izaten, gustura pasa zuen soldadutza eta gainera beharrezkoa zen hango sukaldean.

Transkripzioa

-Eta halaxe egon nintzen, hantxe, jangoiku bezala, nahi nun moduen egon nintzen. Lana bai, baiña bestela han alboko kuartel batel lo ein eta, barrakoie, barrakoitan eta, ez listaik eta.

-Kozinatik aparte ze lan itten zendun?

-Ezar ez, ezta ezar'e. Ez perolaik garbiu; ipiñi bakarrik.

-Eta batere permisurik bai etxera etortzeko?

-Bai. Batzuetan egoten zan permisue. Ni ez nintzen askotan etortzen. Eske han ze haundixe eukitzen nun, eske haundixe. Palta haundixe eitten nun alde ein ezkeo ta, gutxi etortzen nintzen ni, eta gaiña gustoa egoten nintzen hor. Ez nun eukitzen batzuek bezelako tirririken etxea etortzeko ta. Andragairik ez neuken eta horregatikan´e trankillago egon´e bai han. Eta halaxe, bai.

7.10. Eskolara oinez

- **Hizlaria(k)**: Errasti Juaristi, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-011/010
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:10:40. **Bukatu**: 00:11:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskola garaian inguruko baserrietako umeak elkartzen ziren, Juan Jose Agarren ibili zen eskolan. Inguruko baserri-izenak aipatzen ditu eta etxetik eskolarako oinezko ibilera.

Transkripzioa

-Eskola garaian jolasak egingo zenituzten ba.

-Eskolan jolasak? Pendiz mutur batetik bestera saltoka eta, egin behar bai. Ez hola, partikularrik ez.

-Ze juntatzen ziñaten, ume asko?

-Bai, hemen albokuek eta, horkuek bi etxe. Oiñ haustuta dare bixek, Errekalde eta Aldako, eta hau [...] eta; eta gero Goitxeta esaten zakon lau etxe badaude ta, ume mordue juntatzen giñan.

-Eta eskolara nora juten ziñeten?

-Agarrera, Agarrera.

-Zer juten ziñeten, oiñez?

-Honbre! Zaku zarra, zakue burutik hartute. Zakue burutik hartute eurixa zani. Aintxintxike [Mala...tik] pasatzen gendun mutilkoskor zarrak, aintxintxika. Eta, dios!

7.11. Soldadutzan sukaldari lanean

- **Hizlaria(k):** Errasti Juaristi, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-011/023
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:34:05. **Bukatu:** 00:35:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Soldadutza garaian bizimodu ona izan zuen. Kapitainak oso estimatua zuen eta erdaraz jakin izan balu, Jose bertan geratuko omen zen. Kapitainak bere etxera eraman nahi izan omen zuen sukaldari lanetara, baina ez zen joan.

Transkripzioa

-Ez ba, ez ibili, ez ba. Soldautzen´e... soldautzen´e pusilakin tirue baten eo bitten beste... zea, zeara junde, tiroa junde, bestetan ez nun sekule pusilik hartu´re in nik! Soldautzie aberatsak bezela pasau nun. Lana einde, e!

-Baina soldaduska ona.

-Lana inde, e! lana inde. Bai. Estimau izen nitzen oso soldau, baine lana inde. Ta lehen´e aittau deu ta, erderaz ondo jakin banu, ez dakit etorri´re ingo ote nitzen.

-Ez? zu gustoa eon zinen ordun.

-Ni jundeko lekun ohittu. Kapitanak bere etxea eman nahi izen nindun.

-Kozinero lanetaa?

-Kozinero lanetaa. Danetatik apartau nindun. Haure eon zan ba nei beire noizpaitten! bere etxea. Ta alaba earrak, neska gazte earrak´e bazauzken. Ta...

-Ta jun zinen?

-Ez. Ta... bere asistentie bialdu zin: "Hi, kapitanak -gizon ona zan ta- hau eta hau esan dik, ia jungo al hitzean bere etxea", ta... erderaz´e paillue...

- Emaztea: Batez.

- Bat´e bai!

- Emaztea: Gutxi ordun.

- baiñe... pallue, han ikisiko nian, baiñe... Ta... esan nion hemen gustoa naola ta ez dauketela aldeiteko asmoik, eta halaxe geratu. Bestela, bestela ez dakit ze ingo nun, hantxe igual geratu.

7.12. Eskolan Madariagan, Olaberri baserrian eta Floreagan

- **Hizlaria(k):** Aranbarri Elduaian, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-012/002
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:00:35. **Bukatu:** 00:03:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolan Madariagan, Olaberrin, Floreagan eta gau-eskolan ibili zen. Doktrina, matematika eta erdara ikastea ziren eginkizun nagusiak. Ezagun baten inguruko kontuak. Eskolara ordubete inguruko

bidea izaten zuten eta autobusa hartzen zuten. Irakasleak Salesianoak ziren.

Transkripzioa

-Eta gaztetan eskolara eta?

-Eskolara, Jesus! Madarixan ibili nintzen ni, Olarren (Olaberrin) ere bai, Florian (Floreagan) ere ibili nintzen, eta gabeko eskolan Pedritokin Azkoitixen ere bai; danien.

-Zer ikasten zenuen orduan?

-Ordun erderie ikestia zan printzipala, eta bera ez gendun asko ikisi eta eskolia ere antzera.

-Zer ematen zenuen, dena erderaz?

-Bai, be(ha)rko ein, euskeraz ez zebe amezitzen len. Izena ere euskalduna bazenduen kanbixau eitten zizuen.

-Lehen, bueno, Francon sasoe hartan, zer ez. Gu ordun Florian eta, ordun kontu-ataratzen eta zera, nola esaten zake horri? Matematikasen.

-Eta Dotriña ematen zenuen?

-Bueno! Drotiñak eta?, ene! Bestenik eta esan ahal leike nik eze?

-Esan esan!

-Hamen Olantxo Joakin edo, gizon zera zan, oso argixe eta; komunixo txikixe eitteko drotiñe txikixe ikesi ber izeten zan eta. Zuk hori igul ezautuko zendun. Eta ikisi du te. Gero haundixa eitten zan berriz, bigarrena ere bai hamaika urtekin, ordun haundixe. Eta, je!, "gure alabak atzo mekauben dios! esan dik". "Ze ba?" eta. "Lehen dotriña txikixe ikesi eta oin haundixe ikesi ber dala berriz". Arrazoia ere bazaukan.

-Derriorra zen?

-Bai, derriorra, derriorra.

-Eta eskolara zer juten ziñeten, neska eta mutill danak batera?

-Bai, mixto zan. Florian egon zien Salesianuek, oin salesianuek daure, baiñe gure denporan salesianuek egon zien lehen ere. Han egoten giñen eskolan. Goizian oiñez jun eta oiñez etorri. Eta guri amak etzigun esaten sekule goizo etortzekoik. Esaten zigun horrebeste astokada belar ekarri ber dezue illuntzien, zeuk pentsau noiz etorri.

-Bide luzea hemendik eskolara?

-Ba... Gu azkar juten giñen eta baiña ordubete behar hala ere. Hor behera "echando leches". Eta etorri berdin. Hemen ibilli zan autobus bet Elgoibarrera Azkoititik, Azpeititik erteten zun baiña autobus bet. Eta hari atzeko eskillaran katiante eta, uda aldien eta guk eiten giñutzenak. Ene! Jata gaiñera ixo ere bai atzetik eta. Eta Anton Balda edo kobradorie badakit nola ibili zan eta. Jata alboko leixotik erten harek eta gu [...] bialtzen eta ibiltzen zan.

7.13. Neskak tabernara sartzea bekatu

- **Hizlaria(k)**: Aranbarri Elduaian, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-012/006
- **Iraupena**: 0:00:34. **Hasi**: 00:08:48. **Bukatu**: 00:09:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

- **Laburpena:** Tabernetan mutilak bakarrik sartzen ziren, neskek debekatua zuten. Ardo txikitoa edan ohi zuten tabernan.

Transkripzioa

-Tabernara juten zinatela esan dezu. Neskak juten ziren?

-Ez, ez, neskaik eta etzan juten tabernara len. Len pezta baten ardua edo bi edo len hola egoten zan. Oiñ txikitua edo baso erdixa. Len etzan, basokarie bete-bete etarutzen zebe len. Eta mahixetan'e bai lenao basua puntaraiño bete bihar zan e! Basuak puntaraiño beteta. Oiñ ez, oiñ ia trago baten erateko laiñ betetzen (d)a, pixkat, alde hobia da hori. Hor adelantau ein da.

7.14. Luistarren kongregazioan hilean behin konfesatzera

- **Hizlaria(k):** Aranbarri Elduaian, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-012/010
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:13:28. **Bukatu:** 00:14:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** Mezetara eta konfesatzera joan behar izaten zuten. Luistarrak zeritzen kongregazioan sartuta zeuden. Hilero konfesatu behar izaten zuten, baina Joxe Marik sekula ez zuen dantza lotuan egiten zuenik konfesatzen.

Transkripzioa

-Elizara eta?

-Elizara jun ein ber ba! Esan dizut ba, elizara eta, kongregaziuak lehen. Luistarrak izeten zien, hillero-hillero jun ber konfesau eta jaunartzera. Eta gero dantza lotue ein gendula jakitten bazebe handik'e bota eitten zebe. Baiña sekule ez det dantza lotue ein dedanik konfesau behintzet.
-Konfesau jaiero egin behar izaten zenduen?
-Hillero. Eta sekula ez et nik konfesau dantza lotue ein dedanik abadi. Sekule. Eta kezkaik ez daukat harenik. Pekatue guk? Gure pekatue bat izen da: ein eziñe pekatue.

7.15. Jaunartzea Madariagan, marinel jantzita

- **Hizlaria(k):** Aranbarri Elduaian, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-012/012
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:14:47. **Bukatu:** 00:16:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena:** Etxean arrosarioa errezatzeko ohitura handia zuten. Jaunartzea Madariagan egin zuen, marinel trajez jantzita.

Transkripzioa

-Eta etxian errosarioa errezatu behar?

-O, berko erresaixue, egunero. Eta [kreaizotako?] denporan belauiniko. Eta orduan akordauko zitzun munduan dien zerik txarrenak.

-Lanean ari ziñetela igual, arto-zuritzen eta.

-Bai, arto-zuritzen ari giñela ere. Eta gure ama, haura ez badao zeruan, nik makiña bat aldiz esan det, gu alper-alperrik ari gaittuk. Haura beti errezatzen egoten zan. Hamabost misterixoko erresaixuak igual eta. Guk txistie do neska-kontue edo hortakua aittu nahi eta, bai, letxiak, harekin ez zeuan holakoik.

-Komuniua nun egin zendun?

-Madarixan komunixue, Madarixan. Madarixan ein gendun komunixue guk.

-Eta nola izeten zan? Oin bezela?

-Be... elizako kontuek oingo antzera. Oin aiñe lujo ez, baiña len izeten zan traje marino edo, oin itxesuen ibiltzen dien hoixen tipora, hamendik hola kordoe bat jantzitta eta holakuakin te [eta]. Zaharrenak eitten bazun, ona geratzen bazan hurrenguantzat ondo iguel eta. Batekin iguel lau-bostek urtien illeran. Gu illerakuek gea danok eta, haretxekin. Eta gero ordun ze, komunixue inde etxera bakoitzen zera. Oin bezelako zera hoixek? Ene, ene! Oin ez dao lengo kontuik. Baiñe oin lujue gehixegi dagola.

-Orduko aldean bai.

7.16. Soldadutza Altzoain, Huesca eta Biescasen

- **Hizlaria(k)**: Aranbarri Elduaian, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-012/015
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:17:22. **Bukatu**: 00:18:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena**: Soldadutzara 20 urte zituela joan zen Altzoainera (Nafarroara) eta handik Huescara. "Ingeniero zarpador" postuan aritu zen alanbre-hesiak jartzen, besteak beste. Lau hilabete etxean egin permisoarekin eta gero kantinero modura Biescasen.

Transkripzioa

-Eta nun egin zendun soldauska?

-Bueno, instruzixuek ikasi giñuzen Antsoainen. Antsoain badakizu, Planpona baino lehentxuaio dao hori. Eta banderia jurau gendun eta bakoitzek destinue euki gendun eta gu jun giñen Huescara, Piriniosetara, Candanchú. Hor ibilli giñen gu. Ondo ibilli giñen. Soldautzie?

-Ze puesto tokau zitzaizun?

-Gu zerakin ibilli giñen, "Ingeniero Zarpador" edo, hoixetakuk. Kantuek ere banittun nik hoixenak.

-Zer izeten zan hori?

-Ba, alanbradak ipintzen eta, holako zerak eta. Pistak in ber bazin harek´e baitte. Baiña nik lau hillabete etxien ein nittun permisuakin. Eta soldautza ona pasau nun nik. Gero azkenengo denporie gaiñera kantinero egon nintzen. Ordun Biescas-en egon nintzen kantinero.

7.17. Soldadutzako pasadizoak

- **Hizlaria(k):** Aranbarri Elduaian, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-012/017
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:22:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Soldadutzako txerria hil zuteneko pasadizo bat kontatzen du. 13 hilabete egin zituen eta tartean gezurrak esan behar izaten zituztenez pasadizo bat kontatzen du.

Transkripzioa

-Txarri bet, txarrikume txiki bet ekarri zien eta hauraxe gizentzeko karguen eman zien eta hasi nun galanta txarrix. Eta hil gendun haure ere hantxe. Zu, honek esaten du: zu, zuk ez dezu ezautuko Elias, Eibarren bizi da, Elias Aranbarri Bolasenekua edo.

-Ez.

-Zu ez zera Azkoittiarra zu?

-Beasaindarra.

-Eta haure zauen kapitanan asistente, eta txarri hori ein zan berrehun kilo bai. Eta kapitanak esan zun, danok formaute, ia iñork txarrix hiltzen zakixen, eta iñork´e ez zeraiken eta. Eliasek esan zin: Hi, Joxe Mari, hik txarrixak hil dittuk ba lehen´e makiña bat aldiz. Eta bai. Eta guk hilko ginikek ba hori. Bai, hilko ez ginikek ba? Eta hala esan nixon kapitanai, "primo" esaten giñon alkarri harek eta nik. Bixok Aranbarri giñen, eta han galdiek eitten dittue harrapatzeko, e! Aber ze nola giñen primuek eta. Aittak giñutzela anaixak. Aitta edo ama esan ezkerro jodiduta genden, apeillidua kanbixatzen zan. Eta aittak giñuzela anaixak eta. "Primo" esaten ziguen handik aurrera. Eta halaxe txarri haundi hori hil gendun. Eusteko soldadu nahikue bagendukela txarrixai eta hiltzeko hamen eitten gendun bezela. Eta halaxe ein gendun, sangrau gendun eta lasto mordo bat juntau gendun eta eman genion su txarri horri eta: "Je, je, los vascos van a comer el cerdo enseguida, ya están quemando". Esaten ziguten.

-Sekula ikusi gabe igual.

-Han sekula zeriken ez. Beste tipo batera eingo zeбен. Eta hala behintzet. Ondo erten zun eta ondo.

-Zenbat denbora egin zendun soldauskan?

-Ba soldautzie nik´e hamahiru hillebete eta etxien lau ein nittun; gitxi.

-Baiña rekuerdo onak.

-Bai, nik soldautzie. Ene! Zenbat gezur sartzen nixen nik ofizialei eta. Baten akordatzen naiz, bageunden meza-kanpainan Antsoainen, meza-kanpaiñan bagaure eta, hainbeste denporan firme, baiñe ni mobidu nintzenik ez nion iritxi baiña... Etortzen da sarjentue eta belarrixan onduen esan zien: "Aranbarri, por qué te has movido en la formación?" Eta han ez da esateik egoten ez zeala mobidu, e, laste hurrengo kontestazixue harena badakit nik ze izengo zan: "Y encima me dices mentiroso" esango zin. Ixilik. "Después de romper filas, veinte vueltas alrededor del patio" esan zin, eta. Hala jun zan eta neure artian pentsau nun: "Ez dakik asko zeñekin habillan. Nik hogei buelta hemen eman? Ez diat pentsatzen. Hala "rompan filas" ein zienin jun giñen barrakoira eta, barrakoiek literak eukitzen zittun bat eta bi eta hiru, eta goikun tokatzen nintzen, eta han goixen hola atzea samar jarri ezkeo ez zan behetik ikusten, eta etorri da sarjento hori ta,

kuarteleroak nobedadie eman ber izeten du sarjentue etortzen danién:
"Compañía, sargento!", eta danak firme jarri ber, eta. Hori nere billa etorri dek, neri ez zixek ikusiko horrek. "El que he dicho que haga veinte vueltas es de esta compañía, si sale ahora no le va a pasar nada, pero si no ya veré yo". Eta bai, egon hadi, hik ez nauk ezautzen ni oindik. Hala bota zun azkenego desafixue, ondo ezautzen niñula eta ikusiko nula, berak pentsauko zula ze in nerekin eta. Hala, handiken atie zuzen zauen bere despatxora eta ikusi nun nola jun zan. Ointxe dek nere sasoie. Ointxe jungo nauk ni horrena. Jun nintzen, bidien akordau ziten ze esan, eta atie jo nixon eta, "adelante" esan zin. "Eh, eres tú el el que he dicho yo que haga veinte vueltas". "Sí mi sargento, me han dicho en la compañía que usted ha estado preguntando por mí allí, me ha tocado limpiar la perola y cuando he ido allí me han dicho que ha estado usted allí." "Vale, vale, no haga ninguno". Oin txupau itzak hori, pentsau nun.

7.18. Floreagan ibili zen eskolan 14 urtera arte

- **Hizlaria(k)**: Sagarzazu Irureta, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-015/002
- **Iraupena**: 0:00:39. **Hasi**: 00:01:08. **Bukatu**: 00:01:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolan Floreagan ibili zen "Hermanos de las escuelas cristianas" zeritzanean. Gerra hasi zenean eskola itxi egin zen eta hura utzi zuenean, 14 urterekin, lanean hasi zen alpargatak josten.

Transkripzioa

-Eta gaztetan eskolara eta?

-Eskolara Floridan, "Hermanuk" esaten giñun, "Hermanos de las Escuelas Cristianas" edo. Han.

-Hemen Azkoitin?

-Bai. Gero gerrie sortu zan eta gero gerrie sortute gero ba haretzek aldeñ in zeber eta, aldeñ edo bialdu edo zera in zittuen.

-Orduan nora jun ziñeten?

-Nik ez, ni gero hamalau urtekin laga eskoliai, garai hartan hamalau urte arte izeten zan eta eskoliai laga eta lane(r)a abarketak joste(r)a.

7.19. Soldadutza Lizarran eta handik frontera Montejurrara

- **Hizlaria(k)**: Sagarzazu Irureta, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-015/007
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:08:19. **Bukatu**: 00:10:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

- **Laburpena:** 18 urterekin soldadu joan zen Lizarrara eta handik frontera terzio Montejurrara Rekete moduan. Soldadu raso kargua zuen eta beste soldadu bati laguntzen ari zela, bera zauritu zuten. Gerra amaitu zenean ama alargun izateagatik libratu zen, baina anaiak 18 urte bete zituenean, haren jornala nahikoa zela aurrera ateratzeko eta berriz ere soldadu bidali zuten. Soldadutzara ez joateko belarriko arazoak alegatu eta urtebete besterik ez zuen egin.

Transkripzioa

-Eta soldaduska?

-Gerra. Gerran izan nintzen, hemezortzi urtekin eta erittu ere hantxe ein nintzen.

-Nora jun ziñen?

-Soldau jun giñen baiña gero soldautzetiken eman giñuzen rekete bezela.

-Ze tokitara?

-Montejurra. Baiña Estellan ein gendun soldau eta gero Estellatik eman giñuzen frentera, eta frentien zera zan "Tercio de Montejurra", eta han baja asko izen zien bi mendi hartzen edo zera itten, eta baja haixek kubritzea gu soldau giñenak gero Rekete bezela edo hala eman giñuzen.

-Eta zer kargu zeukazun zuk?

-Ezerrez, soldao raso. Eta beste bat ataaten ari nintzela, haure erittute zauen, eta haure ataaten ari nintzela neu jo niñuen besuen.

-Ze rekuerdo daukazu gerrakoak?

-Gaztiak giñen eta horrela rekuerdo partikular... Gero gerrie bukau zan eta gero gerrie bukau zanienean ama alargunez librau nintzen; "por hijo de viuda" librau nintzen, eta gero anai zanak, harek hemezortzi urte edo, lanien hasi zan haure, eta harek dirue irabazten zula, harek mantendu zikela ama eta atzera ni soldautzara hots ein zebe. Eta ni soldautzan alde batera neure faltaz edo izan nintzen, zegatik han soldautzatik etorritta nere edadeko lagun bat ikusi nun kalien eta, "Hi ze, ze pasatzen zak Joakin, hi ez haiz jun?", eta, "Ez, belarritik hola eta hola zeukat, supurau ta, zikiñe ta, miñe eta zera zeuzkeat, eta hori alegau nian", eta hori alegau zulako haure librau ein zebe, eta pentsau nun, bai, nik ere okasixue izeten baldin badet esango diat, eta berriz hots in zianin alegau nuen belarrittik eta orduen "auxiliar" eman tzin eta ia libre. Eta nere kintiek xei edo zazpi urte, edo ze esate-ben, ein emen zittuen eta ni haregatiken behintzet ia libre.

-Asi ke zenbat urte egin zittuzun soldauxkan?

-Nik gutxi. Nik frentien eta abar ba zenbat, urte bat, bi..., holakotxen bat.

7.20. Kongregazioak: Luistarrak eta Mariaren alabak

- **Hizlaria(k):** Sagarzazu Irureta, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-015/015
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:24:21. **Bukatu:** 00:26:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** Kongregazioan egon zen, Luistarretan. Konfesatzera astero joan behar izaten zuten eta bekaturen bat eginez gero, kongregaziotik botatzen zituzten. Emakumeetan "Mariaren alabak" deiturikoak izaten

ziren. Txapel gorriak jaztea reketeei parre egitea zela eta, urdina jantzi behar izan zuten Luistarretan.

Transkripzioa

-Eta elizakin lotura haundia zenuten zuek? Konfesatzera eta?
-Orduen bai, orduen kongregazixue esaten zitxoeren, baina Luistarrak.
-Ze izaten zan hori?
-Luistarrak, kongregazixue.
-Eta ze izaten zan hori?
-Luistarrak izaten zan hillien behin jaunartzera jun, eta kongregazixuen mutil danak edade bateko, ez dakit zenbatera arte, eta orduen dantza heldurik eitteik ez zenduken. Dantza heldue eitten ikusi edo eitten bazan ba...
-Kastigua?
-Kendu itten zan.
-Kongregaziotik?
-Bai.
-Eta derriorra zan hilleroko...
-Bai. Derriorra bezela. Kongregazixuen behintzet derrior... apuntaute ez zan itten zenbat, baiña...
-Konfesau eta egin behar izaten zenuten?
-Bai. Orduen konfesau astero ixte izeten zan. Orduen ikusi ein ber izeten zen zera, Don Domingo eta hoixen konfesonaixo aurrie dana beteta. Edadeko jendia, gure edadeko eta danerako jentia.
-Dan-dana ez zan konfesauko orduan ere.
-Gehixen-gehixena, orduen elizara jendie. Umiek giñen artien esate baterako ta, gurasuen mende eta.
-Komuniua nun egin zendun?
-Hamen bertan elizan. Esan dizuena, kongregazixue izeten zan, zortziretan edo zeran dana, ez dakit zenbat ume jungo giñen, mutillek, aparte neskak eta mutillek. Bestiek "hijas de María" izeten zien, emakumiek, eta gizonezkuek Luistarrak. Eta Luistar hoixetan, konparazixo batera, dantzan'e leheno pikie politikan nola zan edo, eta ez zebeu amititzen, guri behintzet, ordun nazionaliste papelada hola, grupue ez zebeu amititzen, eta ordun detallie ba txapel gorrixe, ordun pixket politikamente ez giñenak zerak, txapel gorrixe ibiltzie ta reketiena zala eta, joño! Eta gero Luistarrakin txapel urdiñakin.

7.21. Urrategiko eskolan erdaraz

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Aranbarri, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-017/002
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:00:56. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolara Urrategira joan zen sei urterekin hasi eta 11ra bitartean. Doktrina ikasten zuten. Irakasleak kanpotarrak ziren eta erdaraz egin behar izaten zuten, bestela zigorra jasotzen zuten eta.

Transkripzioa

- Eta eskolan?
- Eskolan Urrategin, ez urte askun, baiñe...
- Zenbat urtera arte ibili zinen eskolan?
- Ni xeikin hasi ta hamar-hamaikakin o hola.
- Ta ze ikasten zenduen?
- Asko ez.
- Baiño dotriña eta holakoak?
- Bai, hori bai, dotriñie ikixi beherra zeon ordun, komunixue eitteko ta.
- Eta maisuk-eta bertakok?
- Ez, hasi zin laga giñoneako kanpotik etortzen maisue eo maistrie eo. Oin ein ber omen zako bati omenajie
- Maisu izandako bati?
- Maistra izendakuei, 80 urte pasata omen dao ta.
- Ta eskola garaian ze eitten zenduen, dana erderaz?
- Bai, ahal zana bai, bestela hau eoten [zan].
- Bestela kastigue?
- Bai, kaskarrekuk eta.
- Eta erderaz dana ordun?
- Ikixi ein ber pixket.

7.22. Eskolara Elosura eta Zumarragara

- **Hizlaria(k)**: Lete Larrañaga , Elias
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-019/003
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:02:36. **Bukatu**: 00:05:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Eskolara Elosura joan zen eta adin ezberdineko neska-mutilak batera ibiltzen ziren. Gero Zumarragan ibili zen 14 urterekin partikular. Elosun irakasle Nafarra izan zuen. Matematika ikasten zuten gehienbat eta dena gaztelaniaz. Doktrina apaizarekin ikasten zuten; apaiza gogorra izan zuten. Astean bitan joaten ziren doktrina ikastera.

Transkripzioa

- Eta eskolara nora jun ziñan zu?
- Eskolara Elusure. Gu ibilli giñen eskolan Elusun, akordatzen naiz, berrogeta zazpi batera. Hamalau urtekuk eta xei urtekuk danak batera, maistra batekin, bai.
- Eskola etxetikan bertan ez?
- Bueno, etxetiken, ba gurera ba hogeit minutuko bidia. Eta gero ibilli nintzen Zumarran negu baten partikular, pixke-pixket zea eitteko, hamalau urtekin edo junda, bai.
- Zenbat urterekin hasi ziñen eskolan Elosun?
- Elusun? Xei urtekin. Bai. Xei-zazpi. Hortxe, bai. Ordun holaxe hasten zan.
- Eta neska eta mutil danak batera?
- Danak batera. Eta txiki ta haundi. Gure maistriek merituek zeuzken.
- Noungoa zeukazuen maistra?
- Guk prinzipal ibilli genduna zan Magdalena Vega zan izena eta zan

naparra izetetz, uste det, uste det Fitero aldekie zala, ez naiz ondo akordatzen.

-Eta ze ikasten zendun?

-Ba, Matematika prinzipal. Eta gero lekturak´e bai, baiña Matematika prinzipal, bai. Historia eta asko ez.

-Eta dana erderaz?

-Erderaz, erderaz, bai, bai, erderaz. Maistrie zan gaiñera erdelduna, erdeldun purua. Bai.

-Errietarik eta ez zizuen itten?

-Bai. Gu ez giñen zihero zuzenak´e, ta pixkat koskortutekuek eta alkarrekin, eta azken baten jarri zan, ezin aguentau izeten zun eta hiru-lau bat kalera ertetzen zittun.

-Euskeraz hitz egitteagatik?

-Ez, alkarrekin jolasten giñalako edo.

-Baiño euskeraz hitz egiteagatikan...?

-Ez, ez zun harek euskeraz ittearren, sekula ez. Gu hasi in giñen beste batekin, haure, akordu txikixe dauket harekin. Baiñe haure gogorra zan, harekin "Cara al sol" kantau te, haure gogorra zan.

-Eta dotriña?

-Dotriñie ematen zun apaizak. Aparte haure.

-Eskolatik kanpora?

-Bai. Eskolatik kanpoa. Ta apaize tokau zitzakun hola... militarra esateko modukua. Oso gogorra, bai.

-Zer egin behar izaten zenduen, dotriña...

-Dotriñie ikisi eta gero harek...

-Zenbatero juten ziñeten?

-Ez naiz ondo akordatzen, baiña astien bi aldiz edo. Eta gero ba galderak. Dotriña ikisi in behar izeten zan, berko ikisi; harek galderak zorrotzak gero...

7.23. Zumarragara ikastera; astea bertan pasatzen zuen

- **Hizlaria(k):** Lete Larrañaga , Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-019/004
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:06:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- **Laburpena:** Elosun eskolaz kanpo irakaslearengana joaten ziren iluntzetan gehiago ikastera. Irakasle ona izan zuen. Zumarragara ikastera trenez joaten zen eta astea han pasatzen zuen.

Transkripzioa

-Esan dezu gero Elusutik Zumarragara joan ziñela?

-Bai. Zumarran ibilli nintzen negu baten partikular pixkat zera itten.

-Elusun zenbiltzala ala?

-Ez, gero, utzitte gero. Gero Elusun gebiltzela illuntzien juten giñen maistriengana beorrana ordubete, ordu t'erdi aparte. Eta ordun asko erakusten zigun. Bueno, guk sekule ez gendun ikisi asko, baiño bai, partikular ordun hartute, asko.

-Zer izaten zan, gogorra?
 -Bueno ez zan..., neretzat..., ordun ez gendun pentsatzen, baiña neretzat maistra haure zan oso ona. Hainbeste umekin eta harek abuentia eta haren... oso ona zan. Gutxi bezelakue. Esango dizut gauza bat. Harrezkero hari Elusun homenajie ta danak ein giñezkon. Gero, urte pillara, bai. Mereziz zulako.
 -Eta Zumarrara joaten zinenean eskolara, nola joaten ziñen?
 -Zumarrara jun eta han ezaun batzuz etxien jarri eta bertan lo ein eta astea pasatzen nun, bai.
 -Eta Zumarragara nola joaten zinen?
 -Trenien, Aizpurutxura bajauta. Elusun kamiñoik eta ez zauan ordun eta. Urolako trenien. Bai, astelehenien jun eta larunbatien etorri.

7.24. Jaunartze txikia eta handia, neska-mutilek batera Elosuan

- **Hizlaria(k):** Lete Larrañaga , Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-019/012
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:18:44. **Bukatu:** 00:20:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Elizara joan behar izaten zuten. Hilean lehenengo ostiralean konfesatzera joaten ziren eta apaizari beldurra zioten. Jaunartzea Elosuan egiten zuten auzoko neska-mutil guztiek batera. Bi jaunartze egiten ziren orduan: txikia zazpi urterekin eta handia, berriz, hamaika urterekin. Jaunartzean praka motzdun trajea eta medaila eramaten zituzten.

Transkripzioa

- Elizara joaten zineten?
 - Elizara ordun txintxo. Oiñ ez baiñe ordun bai. Ordun hillen lelengo ostiralien konpesatzea ta, hori ia fijo. Eta Paskukue ein eta.
 - Elusura apaiza kanpotik etortzen zen ala?
 - Fijo, fijo bertan. Bai, lehen esan dizutan hori zauen ordun. Nik, eta nere moduan gehixaok esango luke, ta apaiza ikusteko ordun, garbi esan, billurre eukitzen nun. Hain tzan gogorra, bai, hain tzan gogorra. Bai.
 - Eta komunioa nun egin zendun?
 - Elusun. Gu Azkoitti partekuk gea izetez baiña beti Elusure izen izen gea elizez.
 - Komunioa txikia eta haundia?
 - Bixek. Zazpi urtekin txikixe eta hamaikakin haundixe.
 - Eta biak berdina izaten zien?
 - Ez, haundixek beti izeten zun grazia gehitxua.
 - Baina egiten zena berdina.
 - Berdiña, berdiña, bai.
 - Eta neskak eta mutillak danak batera?
 - Danak, danak eitten zebeu batera.
 - Ze jantzita joaten zineten?
 - Ordun zera, trajia izeten zan, trajia, praka motzakina eta artien baiña;

trajie eta gero medailla haundi bat hola...

- Eta trajeak diru puxkat balioko zuen ba?

- Balixoko zun edo, eztakit. Hori amak jakingo zun gehixena baiño, baiño ordurako bai. Eta zapata berrixek eta orduntxe izeten zien, komuxiue eitteko.

7.25. Ura bai, baina argindarra urri

- **Hizlaria(k):** Lete Larrañaga , Elias
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-019/025
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:40:19. **Bukatu:** 00:42:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
Baserría » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena:** Ura beti izan zuten etxean. Argia ez zen iristen etxera udaran, errotatik iristen baitzen. Janaria gazi kutxetan mantentzen zuten eta jaki nagusiak taloa, porru-patatak eta baratxuri-zopa izaten ziren.

Transkripzioa

- Eta lehen hor ez dizut galdetu, baino ura-ta etxean bazenduen?

- Bai, ure bai, ure beti. Horrekin suerte haundixe, ure... nehikue, nahi beste ure. Ondo, gaiñea. Bai, etxekue. Bai.

- Etxean bazan?

- Etxekue. Guk asko sufriu gendun argixekin, Iberduero sartu zebe arte.

- Nola moldatzen zineten?

- Argixe eoten zan lehen esan dizuten errota hortatik. Baiño udaran, ure gutxitzen zanién, zona haundixe zaukeben, basarri asko argixe emateko, ta ez zan aillatzen. Ta illuntzien ordu t´erdi iguel argixe ta goizin beste pixket ta punto. Gero iriñe´re han eitten zebe, haure´re eittie komeni, nik konprenditzen det, dana batea ezin zala ta... Ta ordun ez frigorifikoik ta ez... ezer ez.

- Haragie-ta ze eukitzen zenduen gazi-kutxatan sartuta?

- Esakto, bai. Txarrixeta, badakizu, hil ta gatzi-kutxan, urdaiazpiko ta hoixek konserbaute ta.

- Jan... jaki nagusie ze izeten zan etxen?

- Jaki nagusixe? Baratzui zopie, urdaixe, hirugierrie o hori, baba gorrixek...

- Talok?

- Baitte, taluk baio, taluk bastante, bai. Eta, esaten dizut, porru-patatak eta, bueno, hortik ez zan eoten prolemaik, patata sobre izeten zan etxin. Baiñe jateko lujoik ez. Ta ni akordatzen naiz ondo. Ama kalea juten zanin, astukin Aizpurutxoa jun ta gero Aizpurutxotik etxea. Ta gu mutil koxkorrak ta ño! ama noiz etorriko zai. Ta ze izengo zan erregalue? Mandarinan bat eo. Baiñe gustoa harekin, e!

- Zuentzako nobedadea igual?

- Honbre! Hoixe! besteik ez zeon ta.

7.26. Martirieta auzoko eskola

- **Hizlaria(k):** Aramendi Aranberri, Blas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-020/003
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:01:57. **Bukatu:** 00:05:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Eskolan Martirieta auzoan bertan ibili zen. Jaunartzea egin eta berehala hasi zen eskolara. Ezkioko irakaslea zuten. Maisu gogorrek izan zituzten, jo egiten zituzten. Idazten, matematikak eta abar ikasten zuten. Neskak eta mutilak batera joaten ziren. Eskolatik kanpo alpargatak josten aritzen zen maisua. Gerrarekin batera nazionalista zela-eta bidali egin zuten.

Transkripzioa

- Eskolan esan dezu ta... eskolan hemen ibili zifien?
- Eskolan hor Martirieta edo hor zan eskola, baiña gu hasi giñan maisue, ba, zea zan, kojue, hankamotxa. Motza edo... bai, hanka [puntek gaiñien] noizonoiz paralisise pasaute edo holako zerbait izango zun seguruasko. Eta nunbaiten bizimodue atera ber ta... Haure hor Goierrikoa zan, Ezkia edo horkue zala uste det. Bai, ekarri, bestiek baiño zeoze... erderaz-ta hitz batzuk bazekitzen. Eta hala hasi nitzen eskolaa ta eskolaa hasi nitzen ni, ba, lehenbiziko jaunartzie in ta handiken zazpi-zortzi hillebetea.
- Zenbat urtekin hasi zifien eskolaa?
- Eskolaa... eukiko nitun zortzi bat urte eukiko nittuen. Ta zazpi ta... inguru hortan lehelengo jaunartzie in genduen. Jaunartzeko otoitzak, berriz, hemen zeon apaizak. Bai, gu... gurasuek erakutsi zizkun guri, bai. Zea, katezismo zea hori, dotriña o kristau ikasbidea ordun esaten zitzakona ya eskolaa hasteako etxien hiru zaharrenak behintzet gehiyena ikisi genduen.
- Eskolan ze ikasten zenduen, dotriña?
- Dotriña, geo pixkat irakurtzen eta geo idazten, diktado edo hori´re... Diktado esaten zitzakon. Eta gero beste... kontu ateatzia, zea, "multiplicar" ta nik ze esango dizut? Problemak. Gaurko egunin problemak esaten zate; ordun kontuk atea esaten zitzaion. "Sumar, restar, multiplicar" ta "dividir", hoyek izeten zien, hoyek ikisten baldin bazan, ba, ordun [doktorauta] jartzen zifien.
- Eta ze juten zifieten neska eta mutil, danak batera?
- Bai, danak batea ibiltzen giñan, ilara baten mutillak eta besten neskak, bi aulki illara zien.
- Ze moduzkoa zan orduko eskola, gogorra?
- E?
- Orduko eskola ze moduzkoa zan, gogorra?
- A! Bai... maisuk-eta belarrondoko earrak-eta [emango zizuen]. Neri neuri ez zien asko eman, baiña bazien batzuek, bat neska bat hala´re bazan, haure ikusi ta errukiya ematen zien. Burugogorra zan ta [zea] ematen zizuen ja-ta bli-bla! Ta ezta malkoik´e! Beltz-beltz jarri ta neska [haek] ez zun malkoik ateatzen. Oso gogorra. Ta hori, ba, lehen esan deana: hor eskolan zeoze erakutsi ta bere bizimodua ematearren, bere hankie edozein tokittan lana itteko ez zeon erreztasunik. Ta geo eskoliez aparte itten zuen, zea, aparketa zoruek, "suelas" eo hoyek, hoyek josten. Berak prepaatzen

zittuen: ekarri trentza edo esaten zakon hoietako soka, bittu... eta hortan jarduten zuen. Eta ni hasi ta —nik ez dakit ba zenbat denbora izengo zan— urtebete ez dakit in nun, nazionalista o politika [zeukela], gerra orduntxe [zan] hona etorri berriya eta kendu in zuen hortik hori.

- Eta euskeraz ta erderaz ikasten zenduen? Euskeraz ta erderaz o erderaz bakarrik o...?

- Euskeraz ta erderaz, biyetaa itten zan. Guk erderaz ze ikixiko gendun, ba... Lehen esan deana: etxian. Lehen gurien maistria izen ber zuan ta dikzionaiyo hoitako zean batzuk bai, hiztegia [...] dikzionario hoitakuek [bazeuden]. Haundiyez ez zien, baiña hantxe. Lehelengo: jainkua "dios", aita "el padre", semea "el hijo", espiritu santua "el espíritu santo", egillea "creador". Hola hasi ohi zan zea hori, illeria, sokia esaten. Ta handitxik hitz batzuek, berbuek eta arbolan izenak eo beste animaliyen, abereen izenak eta. Zeoze holaxe hasi giñan.

7.27. Martirietako eskolako irakasleak

- **Hizlaria(k)**: Aramendi Aranberri, Blas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-020/004
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:05:25. **Bukatu**: 00:07:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Aurreko irakaslea bidali zutenean, gurasoak bildu eta Azkoitiko kaleko neska bat eraman zuten Martirieta auzora irakasle lanetara. Baina hark ere ikasturte bakarra egin zuen. Gehienbat doktrina ikasten zuten.

Transkripzioa

- Gero hori bialdu zeen eta hemen gurasuek —nere aita zana´re bai eta beste guraso batzuk hemen ingurukuk—jun zien, ba, nahi [zuen] zerbait, zea, maisue edo maestra nahi [zuen] ekartzie ta Azkoitiko kaleko neska bat hemezortzi-hogei urte ingurukue, baiñe kurso bat bakarrik ein zun harek´e.

- Ta zure gurasok ekarri zuen?

- Bai, nere gurasuek eta beste guraso batzuk, alkartuta jun zien, [herrira] jun zien, alkatiena jun zien. Ta kurso bat ein zuen, zea, badakizu, beatzi hillebete izeten die hoiyek gutxi gorabehera, ta haure´re aspertu, telefonista hasi ber zula eo hola. Ta eskola pixkat, harek pixkat bazekiyeen, baiña lehen esan dean zea horrek, kojo horrek, horrek ez zekiyeen. Horrek "libro de maetsro" esaten [zion] haietatiken kontabilidadie edo dana handik ipintzen zun beak. Tableruen eskribiduta ipintzen zuen ta arrastoik ez, esplikazioik ezer ez ta zenek antzeman askok haure nola zan? Ta geo, zea, plastatakoa hartu behar ta ikasi... zeozer, zeozer ikasten zan. Gehiena ikasten zana dotriña izaten zan. Dotriña... nik ia jauna hartzeako, ba, dotriña pasauta [...], batetik bestera dana pasauta [...]. Eta oin´e hango zea asko esango nituzke.

- Ta erderaz hitz eitten bazenduen ez zan debekue ordun?

- Erderaz hitz eiñazi eitten zeen erderaz ikistearren, ta euskeraz eitten bazun, anillue bihetzian.

- Bai, aldrebes esan det, euskeraz hitz eittea ez al zan debeku...

- Orduen, ba, gerrie zea in zanién, erderie sartu zan, zea, frankistak nagusi jarri zien ta euskerie, ba, atzeratu o ze esango dizut ba? Ta hori nazionalista... ez zuen harek euskerie gaur bezelako euskerako zea hori, baiña bere politika [antza] zeukenak hortako [...] zun seguruo eta behintzat bialdu o kendu in zeen hemendiken. Eta lehen esan dean beste kaleko neska hori ekarri zeen eta horrek in zitun beatzi hillebete, kurso bat, esateko. Baiña harek puskat bazekiyen, harek maisu horrek baiño... Eskolan ibilitta zeon bera ta ikisitte, dezente ikisi...

7.28. Gurasoek Burgosera bidali zuten gaztelaniaz ikastera

- **Hizlaria(k):** Osinalde Arrizabalaga, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-022/004
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:04:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Eskolan Martirietan ibili zen 14 urtera arte eta gero Burgosera bidali zuten gurasoek gaztelaniaz ikastera. Doktrina eta katona deituriko liburu bat ikasi behar izaten zuten. Maisua bertakoa zen eta Franco garaian hura bidali zutenean bukatu zen Martirietako irakaskuntza.

Transkripzioa

-Eskolara nora joan zinen?

-Jesus! Eskolan toki askotan ibilli eta batez ikesi. Lelen-lelenguan Martiritten ibilli nintzen hamalau bat urtera arte edo. Eta gero aittek eta amak bidali nindun Burgos aldera erderaz ikisi ber zala ta. Han´e bi urte in nittun eta etorri nintzen.

-Zenbat urterekin joan zinen Burgosa?

-Hamaxei urtekin jun eta hemezortzi urtekin etorri. Hemezortzi inde.

-Eta hemen Martirietan eskolan ze ikasten zenuten?

-Hamen dotriñie eta katona, besteik etzan ezer hamen.

-Zer izaten zen katona?

-Katona liburu bat, katona zun izena, liburu bat. Eta segi, aurrenetik atzenera letu eta azkenea aillegatzen danin berriz´e hasi aurretik eta segi. Eta gero dividir eta multiplicar eta hoiek bai, hoitxek.

-Eta maestrak hemengoak zenezukaten?

-Maixu bat zeon. Eta hamen gerra denporan haure etzan izengo Prankon alderakue edo, eta hamendik bialdu ein tzuen haure eta ordun gastau zan hamengo eskolie. Gero hamen bertako neskak eta zeoze umei ematen zien baiña ia pulamentu haundirik etzan hamen geratu ordun.

Beste gizona: Hamen sasoe baten apaizetxie, eta apaiza bertan egoten zan.

-Bai, apaiza neskamiekin de [eta], formal egoten zan hamen.

-Maixu berdinak ibili zenituzten?

-Hau beste aldekoa da eta.

Beste gizona: Urte askon aldia daukagu guk.

7.29. Doktrina derrigorrezko ikasgaia

- **Hizlaria(k):** Osinalde Arrizabalaga, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-022/005
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:04:37. **Bukatu:** 00:05:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** Eskola gogorra ez bazen ere doktrina derrigorra izaten zen. Doktrina euskaraz izaten zen. Bere garaian gaztelaniaz ez zuten hitzik egiten eta neska-mutilak batera joaten ziren.

Transkripzioa

- Gogorra izaten zen orduko eskola?
- Gogorra ez. Jakineko gauzia dotriña, eta hoixe. Eta pare bat lezio ematen zizun dotriñen eta hauraxe ikisi behar. Eta dotriña azkeneraiño bukatzen zaniengana berriz aurrenetik. Nik oiñ´e dotriñie erdie baiño gehio esango nuke.
- Buruz?
- Bai, larogeta bost urte ie badauzket baiño, majo ikisi gendun guk dotriñie.
- Dotriña hura zen zen, euskeraz ala erderaz?
- Euskeraz, euskeraz.
- Erderaz egiten zenuten Martirietan eskolan?
- Ez, gure denporan batez. Gero gure umiek hasi zien zeoze hamen maistriekin hitz batzuk ikisten eta, baiña. Hamen erderaik tantaik'e etzan aitzen.
- Eta neskak eta mutillak danak batera?
- Bai, danak koadrilen.

7.30. Soldadutzan etxera noiznahi etortzeko baimena

- **Hizlaria(k):** Osinalde Arrizabalaga, Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-022/013
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:15:58. **Bukatu:** 00:18:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** 18 urterekin etxera bueltatu zen eta laster soldadutzara joan zen Bilbora, Santanderrera eta Baztanera. Nahiko erraz pasa zuen hango egonaldia, astero zuen etxera etortzeko baimena, nahi izanez gero.

Transkripzioa

- Eta handik bueltatu ziñen zenbat urtekin?
- Handik hemezortzi urtekin etorri etxera. Eta gero soldautza bittartien hamen ibili nintzen etxe aldin.
- Soldauskara joan ziñen?
- Gero soldau jun giñen eta han'e eskolie tokau berriz'e.
- Nora joan zinen soldauskara?

-Toki askotara; lelengo Bilbora, Berangora. Gero handikan goiko... ez zait akordauko esaten. Goiko punte batera. Igul da, han behintzet. "Artillería". Ta gero handik Santanderrera berriz. Gero han puxkat ibilli, eta oin ETAkuek bezela ordun makixek zien.

-Makixek?

-Makixek esaten zien, eta haiei ihesi ibiltzen zien eta hona frontierara Baztan aldera. Eta hortxe haik eta lizentziau arte.

-Zuk zer lan euki zenuen soldauskan, zer egiten zenuen?

-Kabo eon nintzen eta, baten bat guardien zeona aldau te. Txarren-txarrena jentie formau te, haren nobedadiak sarjentuei eman eta eittie, erderaz gutxi. Je, je, je. Hauxe txarrena.

-Soldadutzako ze rekuerdo daukazu, gogorra izan zen?

-Ez nun txarra soldautzie, ez. Lelengo [...] txarrena baiña gero behin... [...]. Gu sasoi txarrenian. [...]. Gerran ibilittako danak han zeuren gu jun giñenian. Gerran ibilittakuak artian lizentziatzen zeren eta, puf, haiek bai txar [...], haiekin aguentau zak!

-Eta han izan zenuen etxera etortzeko aukerarik, soldauskan zeundela?

-Bai, bai. Sarri, sarri. Hamen Baztanen egon nintzenien nahi izan ezkeo astero etorri.

-Eta kalabozorik probatu zenuen?

-Hoixe ez. Zihero txintxua izengo nintzen seguru asko.

7.31. Eskola partikularrean ibilia

- **Hizlaria(k):** Juaristi Alberdi, Luxiano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-023/003
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena:** Eskola partikularrean Azkoitiko gizon batengana joan zen. Ez da ondo oroitzen, baina ez zuela askorik ikasi dio.

Transkripzioa

-Eskolara ez zinen batere jun ordun?

-Gero partikular edo pixket ibili nintzen, gerora pixket, baiñe eze haundirik ez.

-Nun ibili ziñen?

-Hamentxe, Azkoitain; hamen bazan Euzkitze, oin telebistan pelota-ta ematen dittu ba? Horren, ba, ez dakit, tio izengo zan edo. Edo aittitte zan, ez dakit seguruik. Harek ematen zun partikular illuntzetan eta, ta hantxe pixket ibili nintzen.

-Zenbat urterekin hori?

-Ezta, ez naiz ondo akordutzen, baiñe gaztetan oso.

-Ze ikasten zendun han?

-Ba, eze asko ez naiz akordutzen, baiña sumarretik aurrea ez dakit asko ikisi genduen.

7.32. Manjonianoak, salestarrak eta merzedarioak Floreagan

- **Hizlaria(k):** Alberdi Arizmendi, Carmelo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-025/002
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 00:02:43. **Bukatu:** 00:07:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Gerra denboran, Floreagan zeuden reketek eta soldaduekin ikasten ibili ziren. Lehenbizi "Ave María"-koak, manjonianoak, etorri ziren Floreagara, baina gerra atera zenean batzuk fusilatu egin zituzten, beste asko frontera joan ziren... Haien ondoren, salestarrak egon ziren 1937tik 1947ra bitartean. Salesiarrek bokazio handia sortu zuten herrian, baina gerraren eraginez gutxi geratu ziren eta haiek ere alde egin zuten. Salestarren ondoren merzedarioak egon ziren denbora batez, baina 1982an salestarrak bueltatu ziren berriz ere. Salesiarrek eta mixerikordiakoek (mojek) bat egin zuten eta eskola mixtoa jarri zen Floreagan.

Transkripzioa

- Gero gerra-denporako zeak, reketik eta soldauek eta zea hoixek eta hamen portunatzen zianian, klaro, haixen artian bazeuren batzuek eo seminarixuen estudiatzen zeurenak eo haixek´e berdin han zebiltzen, ba, eta haixekin´e ibili giñen pixketien. Geo, gerrie akabau baiño lehenuo etorri zien 37n etorri zien Salesianuek hona. Ez! Geizki esan det, geizki esan det. Etorri zin lehenengotiken haixek alde in eta "Ave María"-kuek etorri zin, manjonianuek. Manjonianuk etorri zien. Eta haixek etorri eta...
- Ze izaten zien o nungok zien hoiek?
- Hoixek Floreagan. Esan detana...
- Baiño eak nundarrak o zer zien?
- Haixek beaixek behekiek zin, erdal... erdeldunek zien. Ta zien seglarrak zien, eta abade bat zeukeben apaiz, kapillau bezela. Haure zan naparra, don...
- Eta apaizak ematen zizuen eskola?
- Bai, apaizek eta bestik´e bai ematen zeuben. Geo sortu zan gerria, ta gerrie nola 18 de julio-n erten zuen, eitten zeuben bakazixo denporan batzuek jun etxetaa, beren etxetaa, bakazixuek pasatzea egun batzuek eta bestik gelditzen zin kolegixun. Haixek etortzen zienin gero, hamen geldiu zinak juten zeuben... trukie eitten zeuben. Eta hamendiken jun zien lehenengo txandako zer hoixek ta bete-betin gerrik harrapau zun zea hori eta han geldiu ber izen zun. Ta bat hantxe afusilau zeuben, Kordoban eo, eztakit nik, Granadan eo nun, hor behintzet, Andaluzikue zan haure. Ta han bertan afusilau zeuben haure. Eta bestik hamen geldiu zien, baiña hamen geldiu zienak frentie-ta hotsein zixoben, ta berriz´e geldiu giñen artzairik be gu, galdute bezela. Ta geo haixek jun ahala, ta haixen ondorenin etorri zien 37n etorri zien Salesianuek eskola hortaa, ta 37tiken 47a bittertien eon zin hamen. Ta gero, jakiña, gerra ondorenen-ta asko hil in zizkoen eta ezin kubriu plaza danak eta alde in zeuben hamendiken. Ordun sekuleko disgustue izen zan. Bai, ba, ordureko ya herri dana bolkaute zeukeben berekin eta zer haundixe izen zan ordun. Eta gero etorri zien, haixen ondorenen etorri zien Merzedarixuek Floreagara.
- Ta hoiek´e kanpotarrak?

- Mercedarios Descalzos. Bai. Hoixek´e Leonen ta Toron ta hor zeuzkeben beren zeak. Eta gero, jakiña, hamen Salesiano zea hoixek sekuleko arrantzue in zeben bokazixukin. Izen zien urtiek txandaik hartu ezin meza berrireko jaixetan ta aurretiken hartute. Udean eman nahi, ba, e? Ta udeko jaixek eta ´re okupaute, ta oso zea izen zan. Eta geo etorri zien, esan detena, Merzedaxo hoixek etorri zien. Eta Merzedaxo hoixei galdetzen zitzekobenian: "Nola haixek hainbeste bokazixo ta zuek ez?" ta, "Ez"... Hamengo umie, itxuria danez haixek han zeuzkeben kolegixuek eta zeak, eta beak ikusten zeben aldaketa haundixe pasako zitzakoela hamengo umie hara junde hango izitikin. Haixek ez zeben bate bokazixoiken hamendiken etaa. Eta geo haixek alde in zebenien, geldiu zan berriz´e eskola be, eta berriz´e denporia aurrera zijula, 82en, Aitte Santue Loiolaa etorri zan urtien, berriz atzea bueltau zin Salesianuk. Eta handiken ondiken ´e hor daure. Handiken ondiken hor daure. Eta gero, esan detena, gu lehelengo ibili giñen Karidadeko... Mixerikordiko eskola hortan eta Salesianuek bat ein zeben kolegixue eta ipini zeben oin daon kolegixue da "Colegio mixto", nola neska ala mutil. Danan zea da.

- Eta orduarte beti banauta neskak eta mutillek?

- Bai, bai. Lehenengo aldiz hor ipini zan. Ta geo hor 16 urtea arte egoten dia zeak, eskolauek, ta gero ya bakoitze bere zeretaa, eo Profesionalea o hara o hona eo... hortikan zabaltzen dia.

7.33. Etxe ondoko fraideei esker erdara ikasi

- **Hizlaria(k):** Alberdi Arizmendi, Carmelo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-025/003
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:07:04. **Bukatu:** 00:08:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Eskolan liburu bakarra erabiltzen zuten ikasgai guztietarako. Azkoitiko umeek gaztelania gutxi zekiten, baina Carmelok, etxe ondoko komentura joaten ziren fraideei esker, erdara gehiago zekien.

Transkripzioa

- Eta ze ikasten zenduen eskolan? Esan dezu diferentek pasau zittuzula, bai Floreagako eskolan, bai Mixerikordian mojetakoa... diferentek zien danak ala berdintsu ikasten zan danetan?

- Orduko eskolie ez zan oingue bezelakua. Ordun zan zer bat... Nola esaten zitzekon hari? Liburu bet. Enziklopedia! Eta harek eukitzen zituen gramatika, aritmetika, geometria, historia, historia de España, historia sagrada... danak eukitzen zittun harek, ta harekin konpontzen giñen. Oin aiñe liburu ta zerik ez. Ta orduko euskerie o zea ´re... Geo, pasatzen zana zan hamengo umiek erderaz oso ´re oso gitxi zekixeben. Ni bestiek baiño azkarro nitzelako ez, baiña hamen, esan detena, konbentun ondun nola geunden, horra etortzen zin praillikin-eta, badakizu, pittinke bada ´re pixket gehixo saltaute neuen. Baiñe hamendiken Salesianuek-eta etorri zienien, lehenengo urte haixek fatalak izen zien. Klaro, Salesianuk beaixek euskerie

ez zekixeben, umiek erderaz ez zekixeben... eta entendiuerazteko ta zerin. Baiña halaz ta guzti´re dana bolkau zan herrixe haixekin. Bai. Oso. Ene! Badakit juteakuen...

- [Haiek] onak zien, ordun...

- Bai, bai, bai, bai. Ene! Haixek... hara, in zittuen marabillak in zittuen hamen.

7.34. Eskolan mojekin 12 urtera arte

- **Hizlaria(k)**: Zabala Zabala, Manuela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-029/008
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:13:52. **Bukatu**: 00:15:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Eskolara mixerikordiarra joan zen 12 urtera arte. Neskak eta mutilak ez ziren elkarrekin joaten. Eskolan gauza gutxi ikasi zuen. "Mentor" deituriko liburu batetik ikasten zuten dena. Erdaraz ikasten zuten. Irakasleak moja kanpotarrak ziren.

Transkripzioa

- Eskolaa nora jun ziñen?
- Eskolaa? Mixerikordire.
- Mixerikordira? Zenbat urtekin jun ziñen?
- Hamabi urtekin atzena.
- Zenbat urtekin hasita?
- O! Ez dakit. Nik ez dakit... zazpi eo... ez dakit zenbat izengo zin.
- Eta ze juten ziñeten, neskak eta mutillek denak batea ala neskak bakarrik?
- Gu neskak giñen ta neskak juten giñen. Mutillek...
- Alaba: Ez, esan nahi dizu...
- Eskolan neskak eta mutillak batea?
- Ez, neskak bakarrik, neskak bakarrik, neskak bakarrik.
- Eta ze ikasten zenden eskolan?
- Jo...! Ezer ez nik behintzet.
- Alaba: Leitzen ta eskribitzen ikixi zendun behintzet. Zer...?
- Nik ezer ez behintzet.
- Baiña matematika o geografia o ze ematen zan ordun?
- Bai... Mentor.
- Nola?
- Alaba: "Mentor" esan du.
- Mentor.
- Ze izaten zan hori?
- Liburu haundi bat.
- Eta dana han sartzen zan?
- Hantxe. Danantzat hauraxe.
- Eta euskeraz edo erderaz?
- Erderaz. Mojak erdeldunak neuzken ta nik ez nun ikixi.
- Mojak zer zien kanpotarrak?

- Bai, bat katalana ta bestie, Sor Maria, gaillegie. Ta sor Isidora ta hittunan, baiña ez zekiñat nunguk zin.
- Eta erderaz.
- Erderaz, dana erderaz.
- Eta errexa al zan hue eo...? Errexa izaten ala zan?
- Ez zan izengo, nik ez nun ikixi.
- Baiña ez zendun ikasi, zeatik? Etxen lana ta eskolaa ezin zendulako jun o...?
- Ez izen hitzeitteillie neu, ez ertetzen.
- Eta euskeraz hitz eitten bazenduen, ze itten zizuen, errita?
- [...] baiña nei iñok ez zin ein. Danak esaten zeбен euskerie ez zabela ametitzen, baiña nei danak ametiu ziben.
- Kalen lehen jendeak erderaz itten zun ala euskeraz?
- Euskeraz, euskeraz.

7.35. Aita Madariaga auzoko irakasle

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Artetxe, Jacinta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-031/004
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:04:32. **Bukatu**: 00:07:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Astero igande bezperan apaiza joaten zen Jacintaren etxera. Aitak jesuitetan ikasi zuen eskola eta titulorik atera ez bazuen ere ume asko joaten zitzaizkion inguruko baserrietatik ikastera.

Transkripzioa

- Eta baserrin, baserritik bizi ziñeten zuek Madarixan?
- Ez, baserriik ez, gure etxin baserriik ez zan, zeatik elizeko...
- A, klaro, Abadetxea.
- ... Abadetxie zan ta. Eta astero-astero juten zan abarie jai bezperan gure etxera. Ordun, gaiñera, mendiz. Ni jaixo nitzenien ta nik ezautu nunien, nik hamaika urtera arte kamiñoik ez nun ezautu, dana mendixe. Ni ez nitzen mobidu´re itten handiken; ba, umiek giñen ta...
- Baatzaik edo bazeukezuen?
- E?
- Baatzaik o bazeukezuen?
- Ez zun aittek nahi izen. Esaten zuen ixkin in zixoela obispaukuk ixkiñ in zixoela, baatza bat euki [...], baiña... Bearek pentsau zula: "Ni beti bakien biziko nauk neuk ezer eukitzen ez badet, lanaandik aparte. Ni neure maisutzie..." ta maisutzie itten zuen. Ume asko eukitzen zittun, hirurogei umetaraño-ta eukitzen zittuen, orduen ume asko zan etxe danetan ta. Baillerako danak bere eskolie ikistea.
- Eta nun ikasi zun beak eskola emateko?
- Harek? Jesuitten morroe egon zan mutilkoskorretan, mutilkoskorra zala, eztakit ba zenbat urte... urte gutxi... Gutxikin o, ordun hamabi-hamahiru o berko zin juteko. Ta jun zan ta hantxe aprobe txau zun, atea zixon jugua ondo.
- Garai hartako haundie izango zan maisu izatea...

- Maisu izetie... Titulue [justutsua] da, baiñe zenbait titularrek aiñe in zun harek, ta lana in zun bertan. Haundixe. Ume danak dana ezjakiñe ta...
 - Bai, ba, ta mendi puntan, gaiñea, kalera ezin jeitsi...
 - Juten zizkon hainbeste baserrittatik. Baillerik zittun hamabi basarri ta basarri hoixetatiken etortzen zien umiek. Ta gure aittek emandako eskolikin haixek lau regla zeak: sumar, restar, multiplicar, dividir...
 - Ta garai hartako asko hoi jakittea ´re...
 - Bai, ta, gaiñea, nahi izen ezkeo "problemas" ematen zittun. Oso listue zan oso. Ta zan, ez dakit nik, asko jakiñe.

7.36. Neskek debekatua zuten hanka-besoak bistan ibiltzea

- **Hizlaria(k):** Garmendia Artetxe, Jacinta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-031/011
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:22:05. **Bukatu:** 00:23:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Blusa eta gona janzten zuten neskek; manga motzak eta prakak debekatuta zituzten. Izebak eta gurasoen nagusiek arropa bidaltzen zioten Jacintari etxera. Normalean alpargatak janzten zituen.

Transkripzioa

-Ze arropakin ibiltzen zineten? Nola jazten zineten ordun?
 -Ordun? ez holako jazkera elegante asko ez zan, asko ez zan /etzan/.
 -Ze izaten zan, blusak o gonak o...?
 -Jazkerak ordukiek? ba blusie ta gonie, bai, bai, horrenbeste, horrenbeste bai.
 -Emakumezkoak galtzaik ezingo zun jantzi ordun, ez?
 -Eeez, ez, ez, ez, ez nik ez det ezautu.
 -Debekatuta eongo zan...
 -Gaiñea! ta manga motzik ´e ez.
 -Ez?
 -Ez. Buenoooo...
 -Besoik-eta bistan ezin ibili?
 -Abadiak "fregadera, fregadera" hots eitteko esaten zixoben umiei eta manga be batenbat azaltzen bazan, "fregadera, fregadera".
 -Abixua.
 -Ta danak, bueno, haure zaintzearren...
 -Eta hankatan, alpargatak?
 -Abarketie.
 -Abarkata ibiltzen zenduen.
 -Bai, abarketie. Nik sandaliak-eta ibiltzen nittun. Madrildik etortzen zizkun guri erropie ta. Guri...
 -A, klaro .
 -... nausi haixek, han aitte ta ama eon zilako...
 -Haiek bialtzen zizuen.
 -Han famili haundi bat zan ta famili harek sandaliak eta... dotorik.
 -Dotorea izango zan orduko, e?
 -Dotorie, [...]. Bai, be, handik etortzen zan erropie. Ta holaxe.

7.37. Irakasleari eskolan egindakoak

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Epelde, Jose Ignacio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-032/004
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:06:13. **Bukatu:** 00:09:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Bi jaunartze egin zituen; lehenengoa bederatzi urterekin eta bigarrena hamaikarekin. Eskolan erraztasun handia zuen ikasteko, inork irakurtzen zuena gogoan hartzen zuen. Euskara hutsean ikasi zuen. Apaizari ikasterakoan egiten zizkion tranpak aipatzen ditu. Eskolako umek barre egiten zioten "eskolarik" ez zuelako.

Transkripzioa

- Eta gero 9 urtekin bi komuniyo in ber izeten zin. Bi komuniyo hoiyek izeten zien, ba, beratzi urtekin bat, komuniyo txikiya, eta gero handik aurrera 11 urtekin edo komuniyo haundiya. Ordun trajia´re ahal bazan ingo zan ta zapata berriyek ekarri´re bai ta... haundiye iteko. Txikiye iteko anaiyanakin ta...

- Eta eskolan ze ikasten zenduen? Ze izaten zan ordun?

- Ordun ikixi, ba...

- Matematikak o ze izaten zan?

- Zakiyenai begire egoten nitzan eta nik burua nuan -neuk esatia...

baiña...-, buru ona, gauzie entenditzeko o zereako. Bestiek altutik hitz eitteko esaten zioen abadiak, altutik hitz eitteko, alkarri erakutsi in ber zitzakola ta. Gero´re beste batek, gero kalera jun zien, ni gero ezkondata jun nitzen etxien bestekua, ta lagunak giñen ta haure urte bat zaharro o hola ta harek leitzen zuan ta nik buruan hartu. Haretxen onduen egoten nitzen. Nik liburue bai, baiña letra bati bestie erakusten ez nun nik ikixi. Primarik´e ez nun ikixi. Mundu guztiyai bueltia eman diyot eskolaik bate be.

- Eta ze ematen zizuen eskola euskeraz ala erderaz?

- Euskeraz! Bai, erderie? Bai, erderarik ezta pentsau´e izen zeikienik´e. Han...

- Ez zenduen erderaik ematen?

- Ez, ez, batez.

- Batzuk izaten die euskeraz hitz eitten ez ziela uzten ta esaten duenak ta...

- Bai, baiño ordun erdeldunek... hor... Trenbidie zan nik beatzi urte nittunien Urola orduentxe in zan. Eta, jakiña, ganauek zaitzen, ardiyak zaitzen ta etxien lana eta egualdi ona zaniene batez. "Eskolara jun in berko da euriya ai du ta hemen ez dao girorik eta", bueno, [...] jungo nitzen, baiña [...]. Eta gero abadiak, buruhaundi demonio harek, [atzetik etorri] leziyua hartzera ta nik... harek galdetzen zun: "Letra hauek eta ze esaten due?" eta nik bestiek esandakotik eta "hauetxek izango dittuk". Esan itten nik.

- Eta asmau itten.

- Harena, hari aittutakua. Hari aittutakua. Ta mekauen "la leche"! Halakon baten [...] zan: "Honek nola ikisten ditzik hoiyek eta hauek?" eta erakutsi zizten: "Letra hauek ze esan nahi due?" ta "Nik ez dakit", "Eta nola ikisten dittuzu, ba, hoyek?", "Bestiek esaten duna", "Ahí va la leche!".

- Harrittuta bea?
 - Harrittute bea. Hauxe. Ta geo umik izaten duna da, ni mutilla ia ointxe [...] altukue izango nitzen hamabi-hamahiru urtekin -klaro, orduen baiño lehenozan hori, baiña...- eta umiek [izen arren] txikiyek pixkat ikesten zuen harek burla itten ziguen. [Beste bat...] antzekua. Burla itten ziguen: "Mutil haundiye eta tontuk zeate zuek" eta ez dakit-ze ta... Joe! Ta haure aittu baiño nahiyo zea ta... ez jun nahi [...]. Aittek eta amak hortan [...] haundiye zuen, pertsona onak zien, baiña eskolaik be laga giñuzen. Eta danok giñen eskolaik bekuk, senide danak.

- Eta dotriñaik ikasten al zenduen?
 - Dotriña ez, ba! Letra bati ez nion bestia zea itten!
 - Baiña dotriñaik ematen al zun abade harek?
 - Bai, ematen zittun harek dotriñie, baiña... Hantxe ikisten zuena eta nik aitzen nuna. Han ´e pusketa batzuk aittu itten nittun nik, haure leitzen [...] ta hauxe [... buruen].

- Dotriña ´re ze izaten zan euskeraz baita?
 - Euskeraz, euskeraz dana.
 - Hor eskolie pixkat hartu ber zuen, ba, kaleko eskolataa Mixerkordire ta batea-beste hola jutun zien ta geo toki [haure jutun zanak] ikixi itten zun. Nik ´e ikixiko nun, buru txarra ez neuken ta, baiña neri ez zien bialtzen ta hor ziok, ba!

7.38. Eskolan Martirietako Monte baserrian

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Mendiola, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-034/003
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:03:34. **Bukatu:** 00:06:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Eskolan Martirietako Monte baserrian ibili zen. Maistra valentziar bat zuten irakasle eta erdaraz ikasten zuten; apaizek indar handia zuten, doktrina derrigorra izaten zuten. Neska eta mutil batera joaten ziren eskolara, goiz eta arratsalde.

Transkripzioa

-Eta umetan eskolara nora?
 -Montera. Monte baserriyen dao, hemendik gertu; gertu eo, bai.
 -Martirittan?
 -Bai. Ta hara eskolaa, ez gendun bate ikisi baiña ibiltzen giñen behintzet zeoze. Han etorritzen zan maistra bat euskeraz ez zekiena, balentzianie edo ez dakit zer zan, esaten zebe. Eta harek euskeraz tutik ez zekien eta guk erderaz tutik ez. Eta ze ikesiko gendun ba, nola ikesiko gendun ba? Gure garaian zan oraziue eta dotriñie. Eta maistriek baiño apaizek gehio agintzen zebe ordun. Martiritten apaize eta harek beste gauzaik ez zun. Elizara, oraziue, dotriñie-ta. Guk hari kaso in ber, porke gurasuak, baakizu, apaizek engaiñau eitten zittuen dana garai hartan. Eta nik askotan...
 Montera jutun giñen zortzi bat urtekin hasi ta hamar bat-edo, hamaika-edo. Behin hamaika bat ezkeo basarrin lana ein ber izeten zan. Bateko ittulia edo besteko ardizaitzie edo besteko astuakin ganaujatekotan lagundu

anain bati edo bestiai ta. Hola zan gure bizimodue.

-Eskolara anai-arrebaren batekin joaten zinen?

-Bai, nere aurreko anaiekin, beste anaiekin juten nitzen.

-Neska eta mutil batera egoten zineten?

-Danak batera, txiki ta haundi eta neska eta mutil danak batera. Goizian jun, eta garbi esango dizut, ipintzen zigun hola enziklopedia haundi batzuk zien, eta hola ikexteko puxketa bat ipintzen zigun, hoja puxketa bat. Eta, puf, letun poderioz, baakizu, erderaz ez gendun batere entenditzen-ta, letun poderioz zeoze hartzen gendun eta juten giñen maistrina eta esan eo hola (ataskatzen) gendun, eta gero dotriña. Atsaldien'e berdin, atsaldien'e eitten gendun hiruretatik bostetara. Baakizu, oin arbelak badaure, lehen pizarria esaten giñun guk, pizarrara, bat hara ataatzen zun txandan, ta diktadua eo zera. Haura eitten genduanin dotriña berriz'e. Guk ez gendun ezer, bate ikixi eskolan! Juxtu-juxtu izena eta apellidua eitteko lain esango dizut nik. Bate bate ez gendun guk eskolaik ikisi.

-Dotriñatik aparte...

-Dotriña eta dotriña. Dotriña esango nun nik hamabi urtekin aurrenetik azkenera buruz bai. Eta euskerie oso errez ikesten nun nik. Oso errez.

-Euskeraz ikasten zenuten?

-Euskeraz, dotriña euskeraz. Eskolan hitzik ez euskeraz. Ezta hitzik'e. Penia da ba, e!

-Debekua?

-Bai ba. Kantuek eta, guk eskolan illuntzien arteeran-ta, ze kantu! Cara al Solak eta ez dakit ze ta badakit ze ta.

-Eskola goiz eta atsalde?

-Bai, goiz ta atsalde.

-Eta bazkaldu?

-Bazkaldu etxera, etxera etortzen nintzen. Hemendik Monte baserrira etortzen nintzen ni ordun laurden baten edo hamar minutu, ordu laurden bat.

7.39. Zertifikatua ateratzera gau-eskolara

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Mendiola, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-034/004
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:06:47. **Bukatu**: 00:09:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena**: Eskola baserrian ematen zen, ganbaran. Azkeneko baserrietakoak Montera eta gainontzekoak Martirietara joaten ziren. 13 urte zituela, gau-eskolan ibili ziren Martirietan, zertifikatua ateratzeko. Luis Marik eta beste askok lagun batek azterketa beteta gaingitu zuten , eskolan baino jolasean denbora gehiago pasatzen zuten eta.

Transkripzioa

-Eta eskola zer zegoen, baserri baten?

-Baserriyen. Baserriyen zeon ba, ganbara bati puxketa bat itxi eta bere banku eta zerak-eta ipiñita zeuren. Gero Jesusen Bihotzeko zera haundi bat, zerakin igeltsukin eindako bat aurrin eta bere banderie ta dana egoten zien han.

-Baserria baten batena zan?
 -Bai, bai. Monte dultziñeruek eta ezautze'ittuzu ba?, haietxena.
 -Nolatan jarri zuen ba eskola?
 -Orduen basarri askotan zan hemen eskolie. Martiritten'e bazan, baiña hemendik nola urruti eitten giñen ba hemen goiko, Epele soiñujolie eta danak alkarrekin ibilittakuak gea gu eskolan.
 -Goraldekuak Montera?
 -Bai, goraldekuk Montera, behekuk Martirittara, eta behe-behekuk kalera juten zien.
 -Maestrak erdaldunak orduan?
 -Danak erdaldunek. Gero hor bazan beste zera bat, taillerrien eta lanian hasi behar bazan-ta, zertifikaue behar zala eta ez dakit zer zala ta ibilli giñen, eta gero Monten ez zeola zerik, Maistra horrek ez zeuela guri emateko tituluik, ez dakit zer, Martirittara jun giñen gau- eskolan, zortzietatik hamarretara edo ez dakit zer zan, baillerako danak.
 -Zenbat urtekin?
 -Nik orduan zenbat eukiko nittun ba, hamahiru bat. Holakotxen bat eukiko nittun, zortziretatik hamarretara, baillerako danak. Neska-mutil danak. Eta gu juntauko giñan igual, ez dakit seguru esateko, baiña berrogei edo, berrogeta hamar edo neska-mutil; eta neu, ni gaztietenetakue; gaztena. Ni baino neska bat ibilli zan ni baiño urtebete gaztiao, hementxe Epelde Behekue. Beste danak zaharrak. Edadetuek eta ze, hogetaka urtekuak-eta. Guk ze ikesiko gendun ba han?
 -Bestelako eskolak.
 -Bestelako eskola bai. Maistra zahar-zahar bat zeuen. Harek guri atendi ordun?
 -Maestra hemengoa?
 -Ez, kanpotarra zan, erdalduna zan haura're; eta zahar-zahar bat, hirurogeta hamar urte eukiko zittun-da; harek gu dominau?
 -Gau-eskola ze ordutan izaten zen?
 -Zortzietatik hamarretara illuntzin. Bi ordu. Batzutan aspertuta Martirittara junda frontoera junda pelotan eta ibiltzen giñen, ze eskola eta ze letxe. Gero (pasau zan) hala kalera jun behar zala zertifikau hori ataratzera. Eta hartu zittuen hamabost urtetik gorakuak edo kalera jun zien esamiñatzera. Eta gu geratu giñen gaztiak giñelako Martirittan. Eta nik lagun bat baneuken frailletan egondakua, ni baiño, nire edadekue edo ez dakit zer zan, ta bi urte frailletan pasauta harek maistriak baiño doblie zekien eskolan'e. Harek betetzen zizkun guri papelak danak eta gu geratu giñen, elegante geratu giñen. Atara gendun behintzet eta han dao. Hola, hola korridu zun.

7.40. Hilabeteko lehenengo igandean kongregaziora

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Mendiola, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-034/005
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:09:40. **Bukatu**: 00:11:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kongregazioak
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Doktrina
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

- **Laburpena:** Ostegun arratsaldeak eskolatik jai izaten zituzten eta egun horretan eta igande goizean apaizarengana joaten ziren doktrina ikastera. Apaizaren aipamena egiten du. Mezara igandero joaten ziren eta hilabeteko lehenengo igandeetan kongregaziora; goizean konfesatu eta gero jauna hartzen zuten.

Transkripzioa

-Esan duzu dotriña apaizak ematen zuela aparte.

-Bai, aparte.

-Baina Monten bertan?

-Ez, ostegune, juten giñen ostegun arratsaldie, eskolatik libre eukitzen gendun, dotriñara Martirittara. Ostegun atsaldie eta jai goize. Astien bi egunetan apaizena dotriñara juten giñen.

-Apaiza zer zan, hemengoa?

-Bai, kaleko..., ez dakit dakizun (Martil) Zaharreneko zapatadendie, zu (kasingotik) behera bazoaz kalerdin behera, eta eskubittara hola arko baten dao zapateriye, lehengue, oin dala, nere akordu guztien zapateriye izen da haure. Hango semie zan. Baiñe holakue, e, “como la candela”, esaten dan bezela. Oso gogorra zan, gogorra. Eta beharko, eta jaietan-eta, “funtziyue” esaten giñun guk, errezariue eta elizkizune eta zuzen jun ber, juten ez baziñen hurrengun sermoia galanta eitten zun harek. Bai, oso rektue zan, oso gogorra zan.

-Igandero joaten zineten mezatarra?

-Igandero. Eta hillen lelengo jaiyen kongregaziora danak, neska ta mutill. Lepoko zintak eta jarri. Oiñ’e nunbaitten kaja zarren baten hor (egongo die neriak). Bai. Ta kongregaziora. Goizien konfesatzera ta gero jauna hartu te, hillen lelengo jaien.

7.41. Eskolako zigorrak

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Mendiola, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-034/006
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:11:15. **Bukatu:** 00:12:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- **Laburpena:** Belauniko jarri eta liburuak eskuetan zituztela beso zabalik egotea edo kaskarrekoen bat izaten ziren ohiko zigorrak.

Transkripzioa

-Eskolan euskeraz egin ezkerro kastigua zer izaten zen?

-Ez dakit kastiguik eman zigun geure artian euskeraz hitz eiteagatik, ez dakit. Ez det uste. Bestela bai makiña bat aldiz. Alkarrekin hola ikusten giñuzenin belaunbiko jarri ta besuak zabalduete han egon ohi giñen ordu erdi igual. Bueno!, belaunbiko, dak!, bere aurrien. Maestria hola erdien mahai baten egoten zan, eta haren aurrian jata belaunbiko besuei eutsi ezinda han danak nekaute-ta.

-Batzuek esaten dute reglarekin jo-eta.

-Gu ez asko. Ez giñuzen asko jo. Batzuten bai, porke pasatzen zana zan, ume txiki bat euki zun harek, illoba edo ez dakit ze izango zun; txiki bat, neska koxkor txiki bat, eta haure han ibiltzen zan eskolan, eta baakizu,

umiekin entretenidu ere errez eitte'a, eta hari zeoze o, haure juten zan eta iguel zera ein giñolako-edo ematen zizkun kaskarreko batzuk, baiña ez, jo deula esateko ez. Askok ez.

7.42. Zakua buru gainean aterkiaren lekuan

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Mendiola, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-034/007
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:12:25. **Bukatu:** 00:13:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Aste osoan arropa bera izaten zuten. Euririk eginez gero zakua hartzen zuten, orduan ez baitzen aterkirik izaten. Abarkak erabiltzen zituzten gehienetan.

Transkripzioa

-Eskolara jantzita nola joaten zineten? Uniformeren bat?
-Ez. Uniformia? Guk aste guztia arropa batekin ibiltzen giñan gu. Praka motxak, abarka-galtzetak, eta euriye bazan zakue burutik. Ez zan guardasolik eta ezerre ordun.
-Ez zan izaten aterkirik-eta?
-Ez, ez, ez. Ez zan izaten. Zakue. Gu mutil koskorretan beti zakue, eta gu bezela gurekin ibilli zienak. Zakue burutik eta aste guztian erropa..., oin bezela egunero-ta?
-Ze izaten zien, maunezko galtzak?
-Bai, jeneralian bai, jeneralian hala izeten zien.
-Abarkak larruzkoak?
-Ez. Ni hasterako gomia, gomazkuak zeuren.
-Eta txapela?
-Ez, txapelik ez. Sekula ez gendun txapelik ibiltzen guk.
-Ez zen ohiturarik?
-Ez zan ohituraik. Gazteak ez, zaharrak, aittonak-eta danak. Gazteak ez.

7.43. Eskolara Olasora

- **Hizlaria(k):** Oteiza Azpitarte, Manuela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-036/003
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:01:36. **Bukatu:** 00:04:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolan Olaso auzoan ibili zen; herriko maistra bat zuten. Adin ezberdineko neska-mutilak batera ibiltzen ziren eskolan. Erdaraz ikasten zuten; euskaraz eginez gero, liburuak eskuetan zituztela

belauniko jartzen zituzten, zigortuta. Anai-arrebatan zaharrena zenez, askotan tokatzen zitzaion etxean geratzea.

Transkripzioa

-Eta eskolara nora jun ziñan?

-Hamentxe Olason.

-Olason ibilli ziñan?

-Bai.

-Zer zeon, maestran bat o...?

-Bai, herriko zea, Manolita edo esaten ziyoena, herriko zea bat etorri zan.

-Azkoitiarra zan?

-Azkoitiarra. Olason ematen zun harek eskolie.

-Eta zer zegoen, zer zan, apaiz-etxe bat?

-Ez, barriyun baten bat zeratu in ber eta hantxe ipiñi zeven kuarto bat edo hola zea bat eta hantxe.

-Eta neska eta mutil danak batera?

-Danak hantxe batera barriyokuk.

-Zer juten ziñeten, edade diferentetakok ala...?

-Baaai. Diferentetakok.

-Eta ze ikasten zenduen ordun?

-Ze ikisiko genun ba. Je, je, je. Ni ez nintzan, askotan etortzeik ez nun izan, neskatan zaharrena nintzen eta ama ta aitte soora edo ama kalera plazara tratukin juten zan eta umiek zaitzen etxin jeneralin.

-Baiño eskolara juten ziñen garaietan ze ematen zenuen, matematikak o ze izaten zan, dotriña o?

-Bai, dotriñie txikiye ta haundiye danak.

-Eta ze izaten zan, euskeraz ala erderaz?

-Erderaz. Euskeraz eitteik ez zan egoten. Erderaz.

-Eta deskuido baten erderaz hitzik iten bazenduen?

-Kastigue.

-Ze kastigu izaten zien ordun?

-Bueno, belaunbiko edo, eskuk zabalik liburuk edo, zeoze beti kastigua izeten zan.

-Eta lagunekin eskolan erderaz eitten zendun baita, ala diximulon, ixkutun euskeraz eitten zenduen?

-Auskalo ze itten giñutzen guk. Je, je, je, je. Euskeraz´e iguel ingo gendun, ta harek harrapau ezkeo kastigau.

-Eta etxetikan eskolara zenbat denborako bidea? Zer zeukazuen, gertun?

-Ez, gertu-gertun ez. Ba hoge bat minutu edo, ordu erdi [...] batzuten. Ze giro zan eta.

-Zer juten zizen, zure anai-arreban bat zukin batea juten zan eskolara, ala ez zien zurekin batea jun?

-Ni arratsaldetan eta, ama goizin kalien izeten zan, eta harek astiye baldin bazun etxin egoteko, ta ni oso gutxitten ibilli nintzen eskolan.

7.44. Arropak garbitzera Aitzako albergara

- **Hizlaria(k)**: Oteiza Azpitarte, Manuela
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-036/008
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:11:10. **Bukatu**: 00:13:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Manuelari ume-zain egotea tokatu zitzaion etxean. Arropak garbitzera Aitzako iturrira joaten ziren, alberga baitzegoen bertan. Xaboia pastiletan izaten zen. Arropak eta oheko jantziak bereizita garbitzen ziren. Astoan edo bizkarrean eramaten zituzten arropak.

Transkripzioa

-Eta orduan zuk umezai egon behar izaten zenuen etxean?
 -Bai, normalien bai.
 -Zer zineten, oso segidakoak anai-arrebak?
 -Bai. Orduen hola izeten zan.
 -Eta haiekin zer ibiltzen zinen, hemen etxe-bueltan ala kalera-eta jaisten zinen?
 -Bai zera! Etxien. Kalera? Oiñez hainbeste bidien umiekin? Ez, ez. Oin bezela etzan.
 -Eta arropak garbitzeko eta nola moldatzen zineten?
 -Iturrirre. Aitzako iturrirre esaten giñun, etxetiken bos bat minuture zan, eta hara juten giñen erropak hartute. Eta han alberga haundi bat. Eta Aritzakuk eta Agiñakuek eta gu ta Urkalekuk ere bai, kuadrillie haraxe.
 -Eta zer zeuneukaten, erropak astintzeko-eta tokiren bat bazenuten han?
 -Bai. Potzo haundi bat [...], potzo haundi bat zeuken, sukalde hau ta baiño haundiaue, potzo haundi bat harriyekin; harri gaiñien ipini arropak eta han jabondu te, han zeatzen zien, garbitzen zin zuritzen zin, eta gero zuriyek barreñoi haundi baten lejiatan ipiñi, lejia-uretan.
 -Lixiba egiten zenuten?
 -Bai.
 -Jaboirik eta izaten al zen?
 -Bai, jaboie izeten zan, jabon-pastillie izeten zan. Lagarto edo Chimbo edo, jabon-pastillie izeten zan.
 -Eta oheko izarak eta holako prendak eta erropak jaztekoak batera garbitzen zenituzten ala aparte?
 -E(ra)man batea eittten giñuzen eta aparte garbiu.
 -Eta gero atzera handik etxera bizkarrean hartuta erropak?
 -Bizkarrin hartuta, bestela astukin.
 -Bide asko zenuten albergatik?
 -Bost bat minutu edo. Barreñoikarie burun hartuta bai makiña bat bidarrez, oiñ hor kanpokuk ikusten dien bezela.

7.45. Janzkera eta oinetakoak

- **Hizlaria(k):** Oteiza Azpitarte, Manuela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-036/009
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:13:30. **Bukatu:** 00:15:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Neskek soinekoa eta jertsea janzten zituzten eta neguan abrigoa. Oinetakoei dagokienez, udan abarketak erabiltzen zituzten eta

neguan kaleraino abarkak eta han zapatak janzten zituzten. Zapatak iganderako izaten ziren.

Transkripzioa

-Eta erropak? Ze erropa jazten zenituzten?

-Oñ aiña erropa etzan ordun.

-Neskak nola jantzita joaten zineten?

-Soiñekue jazten genuen normalien. Eta jertsen bat, eta neguan abrigua.

-Soineko luzeak?

-Ba, ez luzia, ez motza, hortxe tamaiñukua.

-Hankak bistan eramatea eta...

-Hankak bistan ibiltzen zien, bai.

-Ez zen pekatu...

-Belaunetik gorakoik etzan. Mangak normalak, ez oin bezela tirantedunik eta orduen etzan.

-Eta hankatan, alpagatak edo abarkak edo zer?

-Beno. Alpagatak udan eta normalin hala ibiltzen zin; eta neguen abarkakin juten giñen kale ondoraiño eta gero han ganbiyau zapatak, eta atzera berriz etxera etortzerako, kaletik ertetzen genuin ganbiau eta zapatak eskun ziela etxea.

-Eta nun uzten zenituzten?

-Abarkak eta?

-Bai.

-Bueno, txokon baten, beti izeten zan nunbaiten tokiya ta.

-Eta gero kanbiau eta etxera.

-Gero ganbiau eta etxera.

-Abarkak ze izaten ziren, gomazkoak?

-Bai. Narruzkuk´e, gu txiki-txikiak ginela narruzkuk ezautu nittun nik, narruzkukin´e ibiltzen giñen.

-Eta zapatak?

-Zapatak´e bai. Zapatak oin bezela etzan aukeraik, baiña zapatak´e bazien.

-Haiek igandetarako?

-Bai, bai. Etxien ibiltzekoik ez, e! Etxien ibiltzeko eta ez.

-Etxean normalean abarkekin ibiliko zen.

-Abarkakin, abarkakin etxien.

-Eta neskak bazenuten ohiturarik painoloa jazteko buruan edo? Painoloa eramateko edo?

-Ez, holakoik etzan.

-Eta mutilek?

-Mutilek´e ez.

-Mahonezko galtzak?

-Bai, maonezko galtzak ibiltzen zin, normalin maonezko galtzak.

-Eta txapela? Bazuten ohitura mutilek txapela eramateko?

-Ez.

-Batzuek esaten dute: denak eramaten zuten txapela. Beste batzuek ezetz esaten dute eta.

-Normalien ez. Edadetuek bai.

-Zaharrak gehiago?

-Bai, edadetuek bai. Baiñe gaztiek hola normalien ez.

7.46. Otorduetako jakiak

- **Hizlaria(k):** Oteiza Azpitarte, Manuela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-036/010
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:15:52. **Bukatu:** 00:17:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Eguneroko otorduetan babak eta porru-patatak jaten zituzten. Arrain gutxi izaten zen, bakailaoa tarteka.

Transkripzioa

-Eta puxkat baserrira bueltatuz, lehen esan dezu baratzen hartzen zenituztela baba eta artoa eta. Eguneroko otorduetan zer jaten zenuten, zer izaten zan?

-Jeneralin babie izeten zan eta porru-patatak´e bai. Baiñie zeon garaien baiñie´re bai. Babie asko jaten zan, edo zuriye edo gorriye edo.

-Eta arraiñik eta haragirik?

-Oin bezela ez. Diruik ez zan eta. Diruik ez daonin ez do.

-Ze arrain jaten zan orduan, jaten bazenuten?

-Bakaillaue edo, holaxe.

-Eta hori zer izaten zen, asteburutakoa edo astegunetan ere...

-Baa... Astegunien ez zan holakoik. Asteburutan izeten zan jaireko edo holaxe.

-Eta haragia?

-Jaireko edo holaxe haure´re

-Oillaskoa edo?

-Oillaskuek etxien hazten zien eta saldu. Dirue behar zan eta.

-Eta haragia zer izaten zan, jaten bazenuten?

-Xerrara, jeneralin, normalin xerrara.

-Eta postreak, fruta? Edo izaten zan postreren bat etxekoa?

-Bai, han frutie asko zan gure jaiotetxien eta frutie beti egoten zan nahi aiñe.

-Sagar erreak edo?

-Bai, bai. Sagar erria edo. Garaien garaikue beti egoten zan.

7.47. Mojekin ikasi zuen Mixerikordian

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Aldazabal, Argi
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-039/002
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:01:35. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Eskolan Mixerikordian ibili zen mojekin, baina goizetan interina lanetan hasi zen 14 urterekin eta, arratsaldeetan laborea ematen zutenez eskolan, ez zuen askorik ikasterik izan. Neskak bakarrik

ibiltzen ziren mojekin; mojak kanpotarrak ziren. Gaztelaniaz ikasten zuten dena.

Transkripzioa

- Eta eskolaa nora jun ziñen?
- Ni ibili nitxiñan Mixerikordixen. Leheno Mixerikordixen. Badakin, jun gutxi. Badakin, kuadrillie gitxiñen gu eta beti badakin ze pasatzen dan. Hamabi urtekin gero hasi nitxiñen ni interina bezela. Hamabi urte. Oin pentseizan, hamabi urtekin, e! Eta goizin ez nitxiñen juten ta geo atsaldin juten nitxiñen bakarriken.
- Maestrak zer zittuzun? Zer zien?
- Mojak, mojak, Karidadeko mojak, badakin, tokadun zea hoixek Mixerikordixen.
- Eta ze ikasten zenduen?
- A! Ze...? Badakin, ezin asko ikixi, ez? Goizetan ez jun, atsaldin laborie itten hunen... ta ikixteke ezerre. Hamalau urtekin, berriz, badakin, leheno geratu itten hunen... iñorako´re ezer ez...
- Baiño ze izaten zin matematika ta holako kontuk o...?
- A! Bai, bai. Lehengue oso diferentie. [...]

7.48. Eskolako kontuak

- **Hizlaria(k):** Aramendi Aranberri, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-040/009
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:12:09. **Bukatu:** 00:14:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Doktrina
- **Laburpena:** Martirietako eskolan ikasi zuen. Bai irakurtzen, bai matematiketan, oinarrizko kontzeptuak ikasi zituzten; doktrina, ordea, hasieratik bukaerara ikasi zuten. Eratzunaren zigorra izaten zuten eskolan, euskaraz hitz egin ez zezaten. Katona ezik, beste liburu guztiak erdaraz zeuden, eta beraiek ezin izaten zituzten ulertu horrela. 'Viva España' abesten zuten, zer esaten ari ziren ulertu gabe. Zortzitik 11 urtera bitartean ibili zen eskolan.

Transkripzioa

- Eskolan nun ibili ziñan?
- Eskolan? Hamentxe, Martietan. Hementxe, behien zan, oain ganauteye badao ba? Horren aldemenien, hortxe zan, zan...
- (Senarra) Hiru ahizpe, ta hirurek eskolie... Honen eskoli ze? Eskribitzen ta letzen ta [...] pixkat [...].
- Oin gehinketak ta kenketak egoten dia, baiña ordun "sumar" ta "restar" ta zea zin, letzen... Dotriñia oso ondo ikexi gendun; abemariya bezela ikexi gendun nik dotriñia: hasi ta bukau.
- Apaizak ematen zun, ala maistrak?

- Ez, maistrak ematen zaben. Geo apaizak gaiña beste eskola bat ematen zun. Eo komuniyua iteko ta beste preparatibuak itten zittun, baiño bestela hamentxe. Hamen gaiña berrogeitaka eskolan ibiltzen giñen gu. Hoixe, anillua, [...] medailla bat, eta okerra itten zunak haura. Ta horrei [...] kastigauta.

- Ze medailla zan, santun baten...?

- Bai, santun bat zan, zea, medailla bat zan. [...] katikuk ateatzen zitzakon, ta okerra iten zuna hari eman.

- (senarra) Euskeraz itten zuenai ordun...

- Ta erderaz ikasten zenuen dana?

- Erderaz, euskera... euskaldunak giñan gu, baiña liburua erderaz. Guk ze entendi ber genun erderakuakin? Eske katona o zan bat, ta haure zeoze euskerie. Baiño besten dana erderazkua. Eske kantau're "viva España" kantatzen genduan, "arriba España", pues ba al dakizu ze? Guk bagiñakiun ze kantatzen gendun? Ez giñakigun zer zan, ta hala...

- Hoixe in ber zala ta...

- Hoixe in ber zala, ta hoixe in! Ta halaxe izen zan, ta halaxe [...] gendun, ba. Ta guk eskola haundiik be, zortzi urtekin hasi, ta hamaika erten nun. Aber ze ikexiko nun bittartin?

- Zortzitik hamaiketa ibili ziñan?

- Zortzitik hamaiketa ibili nintzan ni eskola.

7.49. Josten ikasten

- **Hizlaria(k):** Aramendi Aranberri, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-040/010
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:14:01. **Bukatu:** 00:16:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Ekonomia eta industria » Lantegiak
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena:** 11 urterekin lanean hasi zen. 14-15 urterekin josten ikastera joan zen Azkoitiko jostundegi batera. Denetik ikasi zuen han; eta nola ikasi zuen azaltzen du. Hainbat eratako josteko makinak zeuden han, baina berak hankarekin eragin behar zitzaion makina erabiltzen zuen. Arropak josi nahiz erosi egiten zituen.

Transkripzioa

-Hamaikakin lanen etxen. Eta gero hasi nitzan hamalau-hamabost urtekin josten ikastea.

-Nora jutun ziñen?

-Azkoittire, herrire, oiñez. Lau kilometro. Ordun errez ibilli're itten zan-da.

-Dendan baten edo nun?

-Ez, ez. Jostunteian. Han ikixi gendun.

-Zein zenduen maestra?

-Josten berak erakusten ibiltzen zienak; kuadrillie ibiltzen giñen gu ta.

-Baiña maestra zein zan, azkoitiarren bat?

-Bai, bertakua zan. Aspaldi hil zan haure.

-Ta ze labore ero zer eitten zenduen?

-Erropie dana, klase danetatikan. Nahiz gaizki josiko gendun, behintzet

nasten ikixi gendun.

-Ze izaten zan, zuentzako gero?

-Ez, norberantzat gerotxuo hasi zan; lelengotikan ez, lelengotikan besten erropie josten gendun. Itten gendun papela atea patroietan lelelengo eta gero haure markau eta gero haure josi. Lelelengo papela josten ikesten gendun eta gero erropia josten.

-Pepelean egiten zenuen?

-Kortia papelai ematen giñon, gero papel haure josten gendun eta gero han erraia hartan berriz tela ebai eta gero harekin itten gendun.

-Josteko makinaik eta ba al zan ordun?

-Josteko makinak? Bai.

-Nolakok?

-Hankakin eranda ibiltzen zienak. Da beste batzuk zien holako txiki batzuk eskukin erain de zera eitten zuenak; baiña nik izen nun beti hankakue. Hankan plato zea batekin. Oin badaure, gaiñea iguala, makiñie berdiña, josten zuna, baiñe hankiakin eraiñ da gero korrea bat eukitzen zun eta harek eraitten zion.

-Etxean bazenuen josteko makinaik?

-Bai. Etxian'e euki gendun. Zahartu zan-da uste'et bota zala azkenien. Baiña nik umien erropak eskuz, josi nittun eskuz, umiak izenda gero ere. Oiñ holakoik eztao, oiñ nahikue jositta dao ta. Baiña trapuzarra sobrian do. -Erropak, zuen erropak zuek itten zittuzuen edo erosi itten zittuzuen kaletik.

-Batzutan erosi itten gendun baiña josi're bai. Nik neure erropak eskutan asko josi nittun.

7.50. Apaizen jarrera egoeraren arabera

- **Hizlaria(k):** Aramendi Aranberri, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-040/021
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:27:12. **Bukatu:** 00:28:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Apaiza zorrotzagoa zen neskekin mutilekin baino. Neskek ezin zuten edozer jantzi: beti tapatuta joan behar izaten zuten. Herri batzuetan dantza lotua onartzen zuten, baina Azkoitian ez.

Transkripzioa

- Apaizak beti're neskak gaiñea okerro ikusiko zizuen igual, ez? Neskanganako zea gehio eukiko zun, apaizak esaten det. Mutillei librexeo utziko zien igual baiño...

- A, bai! Hori bai, neskak eozar jantzitta're ibiltzeik ez zan eoten, baiña bestela...

- Taberna juten ta're ez zien uzten ta!

- Zer?

- Guk ez gendun, edozer jantzitta ibiltzen'e, ordun apaizak ez zeuben uzten.

- Ze jantzi behar izaten zenduen?

- Zea, tapauta ordun. Ordun ez zan ez tirantaik, eta ez manga gabe ez.

Ordun ez zeon holakoik ametitzeik. Baiña, halaxe ohittu giñen, ta halaxe bizitzia eman deu. Ta gaiñea ez gendun ikusten ordun ezeren... Oin diferente ikusten deu [...].

- [...] herrin, herrira batek ekarri zuen dantza lotua, ta hamen harek ez zun ametiuko.

- Ahalegiña in zun.

- Azkenien ba al dakizu ze in zuen? Nik sueltua jotzen nun, baiñe aurrien jarri ta heldutik. Ta etorri ta apuntatzen ta jardun zun apaiz horrek, harek kasteillanoz [...] zituala, ta [...]. Herrin dana libre, ta ta hamen...

Aizpurutxon dantza lotua, han Urrategin dantza lotua, ta hamen ez? [...], baiñe...

- Ez, haiek'e ordenie zaukeben obispauetiken orduen eukiko zebeñ ta.

7.51. Etxe erre eskea

- **Hizlaria(k):** Aramendi Aranberri, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-040/031
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:39:51. **Bukatu:** 00:40:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Baserriren bat erretzen zenean, lehen diru-batzeak egiten ziren laguntzeko. Bildutako dirua udaletxeak, baserritarren batek edo sozietateren batek gordetzen zuen.

Transkripzioa

-Basarrin bat erretzen bazan edo, dirun bat botatzen zenuen etxe bakoitzak gero hari laguntzeko?

-Bai, garai baten izen zan hori. Garai baten.

-Nola eitten zan hori?

-Hori? "Etxe-erre eskie" ero zan, ibiltzen zien, eta gero bitzen zan dirue zea baten.

-Nola deitzen diozu?

-"Etxe erre eskie" zan eta gero bitzen zan dirue baserritar batek edo bestela aiuntamentuk eo bestela hamen bertan soziedade batek ero eukitzen zan. Eta ordun gero etxia erre ero zerbait zertzen zanin hari eman eitten zitzakon.

7.52. Baserritarrak eta kaletarrak

- **Hizlaria(k):** Aramendi Aranberri, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-040/034
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:43:16. **Bukatu:** 00:44:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** Lehen orain baino nabarmenagoa zen baserritarren eta kaletarren arteko aldea. Kaletarrak hobeto jantzen ziren, eta errazago bizi ziren. Hala ere, beraiek ez ziren lotsatzen baserritarrak izateaz.

Transkripzioa

-Antzematen zenuen kaletarrak baserritarrak ziñatelako parre egiten zizuetenik ero?

-Egongo zan igual garai hartan beti izen zan. Baserritarra beti zen da kalekuengandik diferentie. Azkenengo urtietan etzaio aldeik billau baiña len bai, len garai baten bai. Herriko jentia beti zan gu baiño hobeto jantzitakua eta errexo bizi zana. Hori behiñ ero beste ikusi gendun -Taillerrien-da dirue irabazi...

-Baiña sekula lotsaik sentitzen zenuen baserritarrak ziñatelako?

-Ez. Lotsaik ez, baiña (gabezaik?) hori eztao ataatzek ezekin-da. Diferentie zan da.

7.53. Santa Ageda eskeak

- **Hizlaria(k):** Aramendi Aranberri, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-040/035
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:44:00. **Bukatu:** 00:46:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- **Laburpena:** Santa Ageda eskeak baserri baserri eta egunez egiten ziren. Tomas eskusoinuarekin ibiltzen zen, eta beraiekin batera bertsolariak joaten ziren. Baserrietara iritsi, abestu, eta diru dezente ateratzen zen horrela. Etxeren batean bateren bat hiltzen bazen urte hartan, errezatu egiten zuten. Apaiza agintzen saiatzen zen; baina azkenean, soltea jo eta lotuan dantzatzen zuten. Ezin izan zuen hori galarazi.

Transkripzioa

-Hemen Santa-eskeik eta itten al zan?

-Bai.

-Ze eitten zan, basarri basarri?

-Basarri basarri. Azkenerako (...).

-Santaa-eskea ze izaten zan, gauetik eitten zana?

-Ez, egunez, egun guztian.

-Goizetik hasita?

-Bai.

-Eta zu ibiltzen ziñan soiñuakin?

-Bai. Ni tta beste bat'e bazan han, bi ibiltzen giñan, bi kuadrillatan.

-Bestea zein zan?

-Torbio izengo zan han-da, (Ixar') ere bai puxkat ibiltzen zienak.

-Eta bertsolariak ibiltzen zenuen?

-Bai. Zea ere iizenda dao (...)
 -Zeberio?
 -Zeberio.
 -Eta baserritan atea jotzen zenuen?
 -Baserira aillegau ta kantau.
 -Eta diru asko botatzen zan?
 -Bai, dezente bitzen zan azkeneako. Baiña orduen jentiek bakizu ze afan zeukan? Orduan ez zan oin bezela txuletie tabernan-da jaten. Eitten gendun bitzen gendun diruakin (...) Gero (...) bazkai bat kuadrillan.
 -Etxen baten bat baten bat hil bazan urte hartan?
 -Errezau.
 -Jendeak estimazioa eukiko zun zuek etxea juteko. Zai egongo zan jendea.
 -Bai. Azkena izeten zan, (...) hor goikuek azkena. Han neska asko zeuren orduan danetan da haraxe; garaiz erretiratzeko da garaiz erretiratzeko eta eztaikit ze ta; han berandu arte egoten giñala ta; harek zai egoten zien da. (...) Nik sueltuan jo eta bestiek agarrauan hasi. Eta eginalak ein zittun baiña etzuen (galazi).

7.54. Martirietako eskola

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Azkoitia, Candida
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-041/003
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:03:15. **Bukatu**: 00:05:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: Maistrak zein izan zituen azaltzen du. Eskolan neskak eta mutilak denak batera ibiltzen ziren. Lehenengo komunioa ere han egin zuen 6-7 urterekin. Lehen orain baino gehiago erakusten zen errezatzen eskoletan. Kalera joan zenean, Miserikordiako mojekin ikasi zuen. Han ere doktrina dezente irakatsi zieten.

Transkripzioa

-Nungo maestrak zenuen?
 -Han bertako alabak. Juli eta Mari izen nittun nik maestrak. Haiek zien han Sankristauko bertako alabak. Oingo sankristau horren baiño aurretik egon zan familiena. Oingo sankristau hori baiño lehen beste famili bat egon tzan. Ta haure, alde ein tzun azkena geratu zanak eta haura famili haure gastau ein zan. Gero hori etorri zan, andriekin eta bere familiakin zera in zun, hartu zun hori, eta horren aurretik egon tzan familieko alabak zien, gu maistra euki giñuzenak.
 -Bertakok?
 -Bai, bertako alabak. Martiritten bertako alabak.
 -Eta eskolara neska ta mutil denak elkarrekin.
 -Danak batea neska ta mutil. Ta komuniyue re haintxe ein gendun, komuniyue ein nunien-da ni haintxe negon. Ordun xei urtetik zazpi urtera uste-et itten zala lelengo komuniyue, ta haintxe geunden-da. Erakutsi ba... Don Benigno izen zan gu han geunden epokan hango abadia, eta bearek iguel elizeko kontun batzuk ero zoeze baiña. Gero oin baiño gehio

errezatzen-da holako kontuten, oin baiño gehio erakusten zen ordun eskolatan e. Oin holako gauzaik ezta erakusten baiña ordun erakusten ziguen.

-Maestrak?

-Maestrak. Bertan zeudenak. Ta igual egongo giñen bost urten diferentzikuk baiña danok batea. Neskak eta mutillak.

-Ze ikasten zenuen, dotriña?

-Ba haintxe ikixten zana. Ta geo kalea etorri nntzenien, Mixerikordie esaten giñen guk, oin Residentzie esaten zako monja hoiei, Residenziko monjak esaten zate, baiña ordun Mixerikordiko monjak esaten ziten residenzi bezela zeon itxe hari, eta haiek eskolia ematen zeon monja haiek, eta haiek dotriñie guri ematen ziguen. Monjak zien, elizkoiek eta gauzak zien, eta dotriñie haiek e ematen ziguen guri.

7.55. Martirietako gau-eskolak

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Azkoitia, Candida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-041/004
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:05:05. **Bukatu:** 00:06:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Martirietan beste eskola batzuk bazeuden. Han kanpoko maistrak egoten ziren: apopilo egoten ziren, eta gau-eskolak ematen zituzten. Candida gau-eskolara zergatik ez zen inoiz joan azaltzen du.

Transkripzioa

-Martirietan beste eskolan bat ere bazan, ezta?

-Beste eskolia?

-Baserrin baten ez al zan eskola ematen baita ere?

-Bueno, Munukuan-ta ere [...] Gero hoietan gero hasi zien maistrak kanpokuak etortzen, eta kanpoko maestra hoiek hoietan egoten zin apopillo bezela o bertan hartute egoteko tokiya. Eta geo haiek ordun eskola bezela gau-eskolak eo ematen zittuen haiek. Gau-eskolak eo, ez hola eskola. Maartiitan ematen zen eskola zea hori eta igual gero han beraiek zeuden etxien gau-eskolie o ipintzen zeon. Irabazteagatiken ero izengo zan haura.

-Zu sekula joan zinen gau-eskolara?

-Ez, ez nitzen /enitzen/ behiñ'e jun. Geo gure etxetiken puxkat aparte're bazeuden etxe hoiek eta gabien jun ber-ta, hau ta hori ta bestie, ta gero nere anaie're ni baiño zarrua kalera etortzen zan eta hari ez zikon / etzikon/ interesatzen gabeko hango eskolara jutie eta ni neu're ez ez nitzen jun gaueko eskola hoietaa behiñ'e.

7.56. Eskolako diziplina

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Azkoitia, Candida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber

- **Erref:** AZK-041/006
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:06:20. **Bukatu:** 00:07:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Maisu-maistren diziplinari buruz hitz egiten du: bera ez du inoiz haietako inork jo, eta ez du beste inor jotzen dutenik ikusi; baina esaten zen oso gaiztoak zirela, eta zigor gogorak jartzen zituztela.

Transkripzioa

-Ze izaten zan, diziplina haundie eskolan?

-Neretzako ez zien /etzien/ izen txarrak eta. Batzuk esaten debe makillikin jotzen zeela ta ez dakit ze ta. Ni ez naiz /enaiz/ akordatzen haiek iñor´e makillikin jo zebeñik. Neu ez behintzet, eta besteik jotzen zebeñik´e ez. Oñ esan ohi zeen kojo zahar bat eo Amustegikue o, Amustegin eoten zana o, maixu haure zala gaiztua, baiña nik ez nun haure ezautu´re iñ. Baiña beste maestra hoiek ni sekula ez ninduen /eninduen/ jo eta besteik hola geizki tratau zeenik ni ez naiz /enaiz/ akordatzen. Eta Mixerikordiko monjak, e, kastigu batzuk belauñiko ta igual holako txutxeri batzuk eta, baiña jo ta gu ez giñuzen iñok ein. Ni ez nau /enau/ iñok jo. Eta nere bisten besteik hola tratu txarrik ez diyo iñorri in.

7.57. Eskolan erdaraz egin behar

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Azkoitia, Candida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-041/007
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:07:11. **Bukatu:** 00:08:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena:** Erdaraz ikasten zuten, eta euskaraz egitea debekatuta zegoen. Martirietako eskolan, ez maistrek ez berak ez zekiten erdaraz; baina kaleko mojek bai. Nahitaez erdaraz hitz egin behar izaten zuten, nahiz eta ulertu ez. Askotan, buruz ikasi behar izaten zituzten gauzak.

Transkripzioa

- Euskeraz ikasten zenduen?

- Ez, erderaz ikesten gendun. Ta euskeraz eittie prohibidute gaiña. Eta, pentsaizu, nik enekin erderaz, ta Martiittan guri eskolia ematen ziguen bertako alaba haiek ez zekien erderaz, eta erderaz ein bihar izeten gendun. Oin, kalera etorri giñenin Mixerikordian zeuren monja haiek, haiek bazekien erderaz, eta igual batzuk zien gaiñera euskeraz ez zekienak, kanpotik etorritakuk-eta zien da. Baiña ez giñikigun, erderaz ez giñikigun eta erderaz ein ber izeten gendun. Holaxe. Sumie ta hoiek numeruek eitten giñuzen hoiek entenitzen giñuzen, baiña askotan liburu batzuk letuta ta, liburu haiek..., han letu gendunak ze esan nahi zun ezta aztarranik e. Buruz

7.58. Miserikordiako eskolak

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Azkoitia, Candida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-041/010
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:09:15. **Bukatu:** 00:11:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Miserikordiako eskolak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Mojekin erdaraz ikasten zuten, baita otoitzak ere. Doktrina-liburu bat erosi zuen, baina galdu egin zuen. Errezatzeko eta abesteko zer ohitura izaten zituzten aipatzen du.

Transkripzioa

-Miserikordiako eskola nolakoa zan?

-Ba!, etzien eskola zatarrak. Bi lagunetzako mahaitxo bat egoten zan, bi silla txiki, jaso ta bajau eitten zan, oin frontoietan-da egoten dien holako jaso ta bajau itten zien holako zera batzuk; ta geo mahi txiki bat eukitzen zeben eta barruan kajoia, tapa harekin tapauta kajoia. Han eukitzen giñuzen geure trastiak. Hola ibiltzen giñan, etzan txarra haura. Oiñ aiñeko lujoik-eta etzeen iñok etxietan eta eukitzen-da; ta gu haure ba guk etxien genduken baiño eskaso etzan, etxien bizi giñen baiño toki eskasaua.

-Monjekin ere erderaz?

-Bai, bai, bai.

-Eta haiekin orazioak eta ikasi beharko zenituzten.

-Bai. Eta erderaz ikixi giñuzen guk oraziuak, eta dotriña ere erderazkua kalera etorri giñenin. Martirittan egon giñenin euskerazkua. Dotriña txiki bat. Eta gero kalera etorri giñanin haundiaue ere bazan eta haure erderazkua. Eta nik haura ez ahazteko erosi re ein nun neuk neurekin eukitzeko betireko ta, eztakit nun galdu zaten. Eztauket oiñ. Baiña kariño nion dotriña hari.

-Zer egin behar izaten zenuten, eskolara sartu eta segittuan errezau?

-Kalien bai. Martiritten eztet uste hola errezau ta itten zanik. Kalien errezau lelengo. Gero ertetzerakun kantau.

-Ze kantatzen zenuten?

-Hori "Cara al Sol" ero hori tta neri ahaztu re ein zat, batzuk goguen dauke baiña ni ahaztute nao. Hori kantatzen gendun eta holakuek pai. Eta zera errezau, eta erresariue ere guk gehienin errezatzen gendun arratsaldetan-da monjetan. Zeoze eskulana o jostekua o holakue ipintzen gendun, ipintzen ziguen, beraiek erakutsi eitten ziguen lana eitten, punto kruz da, bainikie ta holako gauza txikiek eitten, eta hori eiñez ba errezau eitten gendun. Ta maietzien-da amabirjiñiai kantuk eta eitten giñizkon, da holaxe izen zan.

7.59. Hoteleko lanak eta uniformeak

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Azkoitia, Candida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-041/015
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:17:20. **Bukatu:** 00:18:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Asia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- **Laburpena:** Hotelean zer lan egin behar izaten zituen azaltzen du. Uniformea eramaten zuten hotelean; tabernatan, ordea, igandetan bakarrik. Uniformea nolakoa zen deskribatzen du. Ezkondu ostean, Kirurinekoan egin zuen lan, eta han ere uniformeak eramaten behar izaten zuten.

Transkripzioa

-Diferentia izango zan oso Elgoibarko tabernakoa ta...

-Bai, bai, oso diferente zan.

-Ze egin behar izaten zenuen han?

-Ba han zerbitzen, eta gero habitaziuek bazeuzken, eta habitaziuek eñ itten giñuzen goizetan. Gero egoten giñen ba, eztakit, zortzi-beratzi neska ero egoten giñen, haundie re etzan hotela. Eitten gendun goizien jaiki tte batzuk habitaziue ein, beste batzuk komedorie preparau, beste batzuk almortzuk eman, da hola. Ta gero eguardien berriz e zerbitzea. Da arratsaldien e terrazak-eta haundiek zeuzken da terrazan-da zerbitzen ibiltze giñen. Gero gero afariek eta holaxe juten zan eguna. Ondo.

-Eramaten zenuen jantzi espezialen bat?

-Uniformie? Bai, han bai. Tabernatan, jaietan bakarrik tabernatan. Jaietan jazten gendun soñeko beltza tabernatan e. Han ez, han diferente euki gendun. Zerbitzeko beltza eta lanak eitteko beste morexka bat, hotelien diferente. Baiña beti.

-Nolakoa izaten zan, ze izaten zan, batan bat ero?

-Batie ta mantala. Mantala gerrittik beera ta batia. Kuello esmonkin batekin.

-Kofiarik ibiltzen zenduen?

-Kofiaik ez. Geo ibilli nintzen, Kiruriko(r)a juten nintzen geo, ezkondate gero, zapatuten-da, jaietan-da, bodak zerbitzea ta. Hor uniformia ta kofia, hor bai. Oiñ eztet uste eamaten duenik, e. Baiña ordun eamaten gendun kofia. Baiña bestela hotelien-da sekula ez gendun eaman; etzan hola, etiketa haundiko hotela re etzan.

7.60. Baserriko sinesmenak

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Azkoitia, Candida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-041/020
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:25:40. **Bukatu:** 00:26:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Natura » Meteorologia

Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

- **Laburpena:** Bere etxean ez zaio inoiz begiratu ilargiari baratzeko lanak egiteko. Baina beste etxe batzuetan bai. Gaitzen aurkako gauza gutxi erabiltzen zituzten: zetorren bezalaxe zetorren. Tximistaren kontra konjuruak egiten zituen apaizak.

Transkripzioa

-Gero illargiari begiratzen ziozuen baratzako kontuak eta?

-Gure etxian, toki batzuten asko beitzen zako gauze horri, baiña nik neuk behiñ e ez tet hori ezautu asko beitzen. Gure etxien ez tet asko ezautu nik gauza horri inportantzia ematen. Batzuek asko beitze'yoee gauza horri baatzako lana eitterakun-da, etaratzarakun-de, jasotzerakun-de, ipintzerakun-de, hortan, baiñe nik gure etxien hori gutxi ezautu'et. Baitta batzuek hola belarra ebaitzerakuen-da ere beitzen dioe horri. Nik horri ez nion inportantziaik haundirik, gure etxien etzioen behiñ e eman horri.

-Eta gero gaitzen kontra zeozer jartzen zenduen?

-Oiñ aiñe kontu etzan ordun izeten. Gaitzen kontra ba izurratzen bazan ba izurrau; baiña gaitzen kontra oiñ aiña... Gorrientzako eta mamarruentzako ta oin beste kontu nere denboran etzan izen.

7.61. Konjuruak egitearen ordainak

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Azkoitia, Candida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-041/022
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:26:40. **Bukatu:** 00:28:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Konjuruak egiteagatik, apaizari oparia ematen zitzaion: etxe bakoitzak oilanda pare bat (apaizak nahiago baitzituen oiloak baino), eta gurdikada bat egur neguan sua egiteko.

Transkripzioa

-Eta tximisten kontra ta?

-Tximistan kontra ta konjuruek eta hoiek zien.

-Konjuroak?

-Konjuruek. Abariak eitten zun etorritta. Etortzen zan sankristauekin-da abaria-ta berinkatzeko zea horrekin-da; e-ue-e!, ta orazio bat ero bi ein-da, bereinkau ta, gero hari erregalua eman ber izeten zitzakon (...)

-Geroa apazai erregaloo?

-Apaizai, erregalua izeten zun. Ha mezie ematen zulako balleriai eta konjuro hoiek eitten zulako ta izeten zittun oillanda parie Gabonetan o. Ta geo sue itteko urtien burdikara egurre ere bai. Itxe bakoitzak, e, itxe danak itten zittuen hori.

-Ondo ordun konjuroak.

-Gariye e bai, gariye ere eamaten zitzakola esaten (debe); ni enaiz akordatzen gariye eamaten giñonik. Oillandak. Oillasko paria izeten zun baiña oso exigentie zan abare haura. Don Benigno. Oso exigentie zan-da.

Oillanda, oillaskuek paiño oillandak jugosuo izete ziela ta oillandak nahi izeten zittun hilde jateko. Oillandak eta gurdi-egurre, hotza, negun su itteko beraiek eukitzeko. Eta harek beti egurre earra eukitzen zun. Gure amak eta baiño egur earraua eukitzen zeen haiek.

7.62. Apaizaren eragina

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Azkoitia, Candida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-041/025
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:31:11. **Bukatu:** 00:32:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Dantza lotua ez zen libre Martirietan; Zumarragan, ordea, bai. Hala ere, bera baino gazteagoek ez zuten errespetatzen apaizak esandakoa, eta dantza lotua egiten zuten. Apaiza sutan jarri zen, desesperatuta kasurik egiten ez ziotelako. Bere garaian, apaizari errespetu handia zitzaion.

Transkripzioa

-Dantza lotua libre al zan Martirietan?

-Etzan libre, etzan libre. Oletan egoten zan horrekin hola jokue. Oleta zan Zumarrakue ta Azkoittikue berdin samar, ta Zumarran bazeon dantza-lotue, baiña Azkoittin ez, da Martirittan-da ezta pentsau re. Ta Oletan batzuk ein tzela ta beste batzuk etzela ta. Gero Martiritten gu baiño gartziaue...; abarie egoten zan horren kontra ta, horrek etzeukela ezerre ta, abariai (Gala...) kontra erten da eiñ ein zeen-da, abare hori desesperauta bere zeraik etzeela errespetau ta. Ze!, ie suzidatzeko modun, billurtute, etziuela barkau te.

-Orduan etxe danetan fede haundia egongo zan eta apaizai...

-Bai, bai, errespetua haundiya. Mezetaa jun gabe gerau te ordun? Bai. Pekatu haundiya, pekatu mortala mezetara ez jutia ordun zan. Oin berriz jutia uste'et dala. Ez jutia oin dotoriaue uste'et dala jutia baiño.

-Kanbiau da ziharo.

-Bai, majo! Holaxe ibilli giñen.

7.63. Eskolako kontuak

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Ezeiza, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-044/003
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:08:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- **Laburpena:** Martirietako eskolan ibili zen. Baserritik hara bide luzea zegoen, eta goizean euria egiten zuenean, egun osoa eman behar izaten zuen blai eskolan. Eskolara bere adineko beste mutil batzuekin joaten zen. Askotan, ezin izaten zuten garaiz iritsi, eta zigorra jartzen zieten. Martirieta bertako bi ahizpa izan zituen maistra: irakurtzen, idazten, eta oinarrizko matematikak egiten irakatsi zieten. Maistrek euskaraz hitz egiten zieten, eta erdara gutxi ikasi zuen txikitan. Goiz eta arratsalde egoten ziren eskolan, eta etxetik eramaten zuten bazkaria: bi arrautzako tortilla, eta bi ontza txokolate. Nolako zigorrak jartzen zizkieten azaltzen du.

Transkripzioa

-Nun ibilli ziñen eskolan?

-Martiritten.

-Martirittan? Kukuerritik Martirittara bide puxkat egongo zan ba.

-Hoixe ba, hoixe ba. Eta gero han ibiltzen giñan gaizki. Gero pasatzen zikun euriye, hguardasola puskau, busti, burutiken goittik behera guardasola puskautakun busti-busti einde jun ber eskolaa. Eta egun guztia halaxe pasau ber.

-Bai eginda.

-Bai.

-Ze juten ziñen, bakar-bakarrik eskolara?

-Ez, beste bi mutil gazte eukitzen nittun neure modun neure edadekuk.

-Auzokon batzuk?

-Bai. Gero beste etxe batetik ertetzen zizkun beste pare bat edo, eta Martirittara juten giñan.

-Noizko juten zineten?

-Beatziatarako jun ber eta ezin jun. Eta gero erritia, blastiua igual.

-Zein zendun maisu?

-Maistre?

-Bai.

-Zea, Zelertxokua bat. Martirittakuak biek. Martirittan bertakuk biek. Gero ezkondu ein zien horra. Baiña biek Martirittakek zien, bi ahizpe.

-Eta ze rekuedo daukazu eskolakoak? Ze ikasten za?

-Ikixi, haiek zekittiena gehiyena ikisitta gerau giñen. Zea, letzen ikixi gendun eta izkribitzen'e ikixi gendun eta kontu etaatzen'e bai. Sumarretik hasite dividir eta hortako zeak danak. -Maestrak euskeraz egingo zizuen?

-Bai, euskeraz eitten zun.

-Izan zan zuen garaian euskeraz hitz egiterik ez zeola edo?

-Nik egia esan ez nun /enun/ batee ikixi. Oiñ, enteniu eitten det, e., enteniu itten det erderaz enteniu. Horrek hau esan nahi dik, horrek hori esan nahi dik, horri emango nitxokek bueltia baiña eziñ eman. Oiñ haxe. Hitz batzuk bai baiña bestela ez.

-Eskola gogorra zan?

-Bai. Orduko eskolia zan, ñooo! Zu dana bustita geatzen zea eta han amaik eztaukazu, han eztizu amak kasoik ingo. Bustitzen zea ta sartzen zea eskolan, igual hankak dana bustita, zeu igual zaude dana bustita, eta hantxe egune pasau in ber.

-Goiz eta atsalde egoten zineten?

-Goiz eta atsalde.

-Eta bazkaldu?

-Geuk eamaten gendun.

-Etxetik?

-Bai. Poltsia eamaten gendun; amak ipintzen zigun bokadillua, bi arrautze tortille eindda. Igul zeoze nahastute eukiko zun harek. Beste bi ontza txokolate. Hoiiek dauzkat burun. Bi hontza txokolate eta bi arrautzakin einde tortillia egun guztireko.

-Egun guztirako?

-Egun guztia haretxekin pasatzen gendun.

-Eta kastiguik izaten zan?

-Bai, kastiguk'e bai.

-Ze kastigu jartzen zizuen?

-Ze kastigu ingo zuen ba (jotzeko imintzioa).

-Bai? Jotzen zizuen?

-Igual jo, zapiue igual. Eta baitte baba-aliek ipinita'ere belaun azpiyen. Eta besuk hola ipinite ere bai ta, puxkat goratxuao jaso behar eta. Puxkat goratxua ta, nekau egiten zin eta, behera ta. Hoiiek danak.

-

7.64. Eskola eta gau-eskola

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Ezeiza, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-044/004
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:08:55. **Bukatu**: 00:10:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Aisia » Kultura » Irakurtzea
- **Laburpena**: Eskolatik irteterakoan, errezatu egin behar izaten zuten. Katona erabiltzen zuten eskolan, eta 12 urtera arte-edo ibili zen han. Horren ondoren, gau-eskolara joaten hasi zen Astarbera.

Transkripzioa

-Eskolan errezau beharrik eukitzen zenuen?

-Ertetzerakun bai.

-Eta ze errezatzen zenuen?

-Zeoze errezauko gendun; ze ez zat /etzat/ akordatzen oiñ ze errezatzen gendun, baiña zeoze errezauta alde eitten genduna... Gustoa ertetzen gendunin.

-Libururik izaten zenduen?

-Liburuek? Bai-bai-bai. Katonak.

-Zer zan hori?

-Liburua.

-Eta zer eukitzen zun harek, danetik?

-Bai-bai-bai.

-Ikasten zenduen dana liburu hartatik ikasten zeduen?

-Bai, handik edo.

-Zenbat urte arte ibili ziñen eskolan?

-Ni zenbat urte arte?

-Bai.

-Dozenan bat urte arte edo. Hamabi urte arte do. Geo gau-eskolia hasi zigun geure etxe, auzuun hasi zigun gau-eskolia. Eta, bakizu, gaztiek

puxkat goorrauak eta gau-eskolaa gustoa juten giñen. Enda gazte batzuk gau eskolaa juten giñen.

-Nun zeon gau-eskola?

-Gau-eskola hoi Astarben, Astarbe Azpikuen.

-Eta bertakon bat zenuen maixu?

-Neskan bat kaletik jungo zan-eta. Hauraxe gau-eskolie edo ematea.

-Noiz juten ziñeten, gauen?

-Illuntzin.

-Eta han zer zen, estudio gehiago?

-Bai, zeoze gehio zekiyena edo izengo zan.

7.65. Eskolan, eraztuna

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Etxaniz, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** AZK-045/012
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:11:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
 - Euskara » Euskararen egoera
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskola nazionalera joaten ziren gehienak. Azpeitian denetik zuten, baina Azkoitian ez zegoen aukera handirik. La Salleko fraideak etorri ziren gero. Neskak eta mutilak aparte eskolan. Eta dena erdaraz: eraztuna zuten, euskaraz egiten zuenari emateko; harekin geratzen zena, zigortuta. Hala ikasi zuten erdaraz.

Transkripzioa

- Guri "regla de tres" ta danak erakusten zizkun, pentsau, denbora hartan, gure aittek. Bai, holaxe.

- Ta zu eskolara nora jua ziñan?

- Hantxe, eskola bat zegon Axkoitiyen. Oso parregarri zan kontu hortan.

Zan eskola nazionala eta gero beste bat mojana zan, baiñe ez holako...

Eskola nazional... hara gehienak juten zien, gehienak. Ta gero bai, gero

ipini zittuen. Ordun ba emen zan lehen moja frantses batzuek hor

zeudenak, baiño herriyek ez ziyoben nunbait bat´e lagundu, ta... eskola

aldetik ez zan behien´e behin´e izen ondo. Azpeitiye hurrien eon arren,

beti mojak eta danak zeuzkeben han eskolak, baiño hor ez.

- Ta hor nazionaletan...?

- Nazionaletan danak, neska ta mutil, neska ta mutil, danak. Geo ein

zittuen... ein zebe kolegiyo bat eta etorri zin marianistek. Marianistek uste

det, hola, kuellodun haiek ze izeten die /izeteie/?

- La Salle?

- La Sallen etorri zien ta haiek [...].

- Eta zuek gelan neskak eta mutilak elkarrekin?

- Ez, ez, ez, mutillek zauden eskola bat eta gu bestie.

- Eta maistrak zer ziran bertakuak, ala...?

- Bai, gehienin euskaldunek, gehienin euskadunek, bai.

- Eta eukeraz ikasten zenuten?

- Bai, bai. Ez, ez, ez! eskolan dana erderaz.

- Dana erderaz?

- Ta, gaiñea, eukitzen gendun eskolan anillo bat, e? anillo bat. Eta ikusten

gendunin euskeraz hitz eitten zuna, hari eman, eta harek beste bat ikusten bazun, hari eman ta azkena zein geratzen zan, kastigada geratzen zan eskolan.

7.66. Azpeitiko plazara, oilasko eta arrautzekin

- **Hizlaria(k):** Aranberri Etxaniz, Elisabeth
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** AZK-059/014
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:18:58. **Bukatu:** 00:20:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Azpeitiko plazara joaten ziren oilaskoak eta arrautzak saltzera. Berdurak eta gaztak etxerako izaten ziren, lagun asko baitziren. Elisabethen amona joan ohi zen plazara; behin amonak asto batekin izan zuen gorabehera kontatzen du.

Transkripzioa

- Gaztaiok eta saltzeko zittueiñok, Azkoittiko plazara, edo...
- Ez, geuk jaten giñzen, asko ber gendun urtin halako famelixa haundixak.
- Saldu apenas itten zebein?
- Asko ez saldu gaztaia.
- Eta etxeko gauzarik plazara eruten ziñuein?
- Bai. Oillaskuk eta arrautzak eta bueno!
- Nungo plazara, Azkoittira?
- Aizpeitira.
- Bai. Aizpeitira juten zan orduan jente dana. Bueno! Akordatzen zat bat, behin, bi-hiru asto eongo zien baiña norabaittera ezkutauta jango bazeben zeoze biziko bazian. Atara berko zien ta billau ez!
- Astuak?
- Astuak ta ez zeuela astoik eta han ingurun bazebillela bat. Ekarri ta harekin jun zan gure amama difuntia azokara ta bueltan ix-ixa etxera aillegauan traste zahar danak bota ez dioz ba? Zenbat holako!
- Astuak berak?
- Bai, hezi beia izengo zan ta, hoixe! Jaso in bihar apurtu ez zienak eta, bale!
- Ta oillaskuak eta beste zer, berduraik edo frutaik edo eruaten zebein?
- Ez, berduraik eta ez. Oillaskuak eta arrautzak eta. Eske, berduria etxin jaten zan. Azak eta baba beltzak eta sailla einda baiña hainbeste lagunek...
- Bai bai.
- Urtien pare bat txarri baiña egunero jan ber izeten da zeoze, e?

7.67. San Martingo dutxak eta uraska

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Iturbe, Matxo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AZK-061/009

- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:06:16. **Bukatu:** 00:08:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Eliz ataria nolakoa zen. San Martingo etxeak egin zituztenean, dutxak ipini zituzten eraikin batean. Bere ama egoten zen han eta bertan dutxatzen ziren. Bestela, erreka, hankak garbitzera. Anaiaren bizikletarekin ibiltzen zen bebarruan. Uraska ere bazegoen San Martinen. Txanpañaneko amak arropak nola garbitzen zituen.

Transkripzioa

- Gero han bazan zean, eliz ataixen, relijiosuek zien, etxe haundi bat bazeben, han ixkilletan gora zemat bider ixotzen gendun. Ez dakit ze ze a zien, relijiosue k.

- Eliz ataixen?

- Ta zubixe´re ez zan ordun.

- Eliz ataiko zubixe?

- Ta ez zeaike... San Martingo etxik ein zittobenin ipini zebe ze a, dutxatzeko. Oin badoo sozidadie? Han zeuen. Gure ama zana eoten zan han, ze a eitten, atenditzen ta hantxe dutxatzen giñen. Bestela, errekaa juten giñen. Zeriin, "calle Angel" in bahunan erreka bat.

- Iloba: Portureko presan?

- Hara´re juten giñen hankak garbitzea ta. Bestela ez. Eta gure anaixek bizikletie zeuken etxin, ni zemat bider ibiltzen nitzen, bebarruen, heldu barandiei eta leña! bizikletan.

- Eta etxian urik bazekazuen orduan?

- E?

- Ura etxian, bai? Ura bazekazuen etxian.

- Bai, bai, etxe hoixek ein zittobenin, bai, bai.

- Baiña baiñatzera erreka joaten ziñazien?

- Gu errekaa, errekaa, bai.

- Iloba: O baiñuetxea, San Martiñeko baiñuetxea.

- Albergie´re bazan San Martiñen ordun. Han aldapa txiki bet badao kurutzeta hartzeko. Hantxe zan. `Txanpaña´neko amak erropak garbitzen zittunin, uste det /ustet/ San Martin osue enteratzen zala. Harek ematen zizkon zinbi-zanbak! Puskau´re bai! Ta holaxe.

7.68. Elurra zen batean prakak jantzi zituelako, isuna

- **Hizlaria(k):** Uranga Etxeberria, Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AZK-062/030
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:36:50. **Bukatu:** 00:39:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Mutilen garai bateko janzkera. Alkandora eta brusa. Mutikoek prakak motzak erabiltzen zituzten, baita neguan ere. Neskak

beti gonarekin. Behin Agiña baserriko emakumea prakekin joan zen kalera, elur handia zegoelako, eta isuna jarri zioten. Abadeek sotana erabiltzen zuten, baina azpitik prakak. Emakumee, ordea, ezin prakarik jantzi!

Transkripzioa

- Neska koskorrak, zuek esan dezue, zakuekin egindako soifnekue edo gonie eta mutilek ze?

- Mutillek´e ez dakit nik, halako xamarrak ibiliko zittuen edo, nik ez dakit nolakuek ibiltzen zittuen. Antzekuek ibiliko zittuen. Alkondarie...

- Brusan bat edo...?

- Brusa, brusa´re bai. Brusaakin alkondaie einde ta... ahal dan moduen.

- Ta praka luziak edo motzak?

- Praka motzak, mutil koxkorrak praka motzakin beti.

- Neguan´e bai?

- Bai, neguan´e bai. Ta geu´re halaxe ibiltzen giñen, e! Gona motzak jantzitze. Prakaik... prakaik sekula ibili ez.

- Hori be pekatua izango zan.

- Pekatua! Azkoitixen elurre einde, Agiñakua, Arantxa, haura prakak jantzitze jun, elurra haundixe ta, zeera, kalea, ta multie ein zixoben!

- A bai?

- Bai! Multie ein zixoben. Ez zan... Emakumiek ez zun jantzi ber. Ta abariik... abarik´e han eukiko zittun ba azpixin prakak? Beak eukiko zittuen haixek prakak, baiña.... sotanie jantzitze ibiltzen zian.

- Eta multia zeifnek ein zetsan, abadiak? Edo...

- E?

- Zeifnek ein multia? Abadiak eingo zetsan?

- Hori herrixek aiuntamentuk eingo zixon, aiuntamentuaandik eo. Nik ez dakit zeifnek... baiña multie. Ja! Ez zan gehixo iño... prakaik jantzi jendiek berriz´e, prakaik pe. Ta gero dana prakie! Emakumiek´e danak prakakin! Aber... Ta alde earra!

- Klaro! Hor laneako-ta´re bai, ezta?

- Bai, bai, bueno, bueno...! Hotzakin...

- Garotara juateko ta...

- Hotzak ixa akabauan etxea. Jantzi gona motzak eta segi hortxe ahuntzak bezelaxe!

- Gero, esan dezu, neguan elurra haundixa zala eta orduan, gaiñera, negua gogorraua izaten zan, ezta?

- Bai, ba, negu gogorra, negu gogorra zauen ta prakakin jun zan itxuria. Baiña... ala! Kastigua! Hori ez dao ondo, baiña... Basarrittik jun ber ta... kalea ta... holakotxe jendie lehen. Aber...

7.69. Auzoko bidea Madariagaraino bakarrik; telefonoa ere bertan

- **Hizlaria(k)**: Uranga Etxeberria, Karmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: AZK-062/052
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 01:13:23. **Bukatu**: 01:14:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikuak
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Heria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Heria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

- **Laburpena:** Mediku gehienek izango zuten kotxea garai batean, baina baserrietaraino ezin joan, biderik ez zegoen eta. Orduan Madariagaraino bakarrik zegoen bidea. Telefonoa ere hantxe bakarrik zegoen.

Transkripzioa

- Medikuk automobilla gehidxenak eukiko zebeñ ordun´e, baiña mendire-ta ezin jun! oiñez jun ber!

- Klaro, klaro, biderik ez zan egongo ta...

- Madarixaa etorriko zan, baiña oinez ibili ber gero. Bai, ba, ez zan-ta kamiñoik eta... Gaur basarri danetaa dao, berriz, kamiñua, baiña ordun ez! Ordun ez zan.

- Klaro. Ordun ze zeuan Madariagaraiño bakarrik bidia?

- Madaridxaraiño bakarrik. Ta telefonua´re bat. Madaridxan bakarrik. Eta baten bati hots ein ber baziñon, Madaridxara jun ta... Madaridxara jun ber.

- Ta bazeuan hor telefonua, e?

- Bai, bezauan. Hor bazauan. Egoten zan hor telefonua, Bai. Baiña ostien kitto, ez zan telefonoik iñun´e, Madaridxaa jun ber.

- Alkarri abisua pasatzeko, orduan, hona etorri bihar.

- Bai. Bai.

7.70. Ikastetxe eta irakasleen jarrera hitanoarekiko

- **Hizlaria(k):** Elortza Izagirre, Ainara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AZK-077/038
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:58:44. **Bukatu:** 01:01:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Euskara » Tratamenduak
 - Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena:** Berak Gradu Bukaerako Laneko proposamena Floreaga ikastetxerako egin zuen. Ikastetxean ordurako mahai gainean zuten hitanoaren gaia eta interesa ikusi zuen. Ikastetxeko euskararen erabilera. Ikastetxe publikoetan irakasleak asko aldatzen dira eta irakasle askok ez dakite hika. Alabaren irakasleak hika egiten die. Irakasleen artean interesa piztu beharko litzatekeela uste du.

Transkripzioa

- Ikastetxien aldetik zer jarrera ikusi zendun zuk? Ikusi zendun...?

- Bai, nik uste det ikastetxik-eta badaukebela hori... hori mahai gain... Ni ikastetxea gai honekin jun aurretik gai hori mahai gain zauen ikastetxin. Osea, ai zien horrekin, udaletxikin´e gaiña hasitte zauen proiektu hau pixket bultzatzeko ta hola ta... ikastetxik beaxen aldetiken´e bai. Oin, eske kriston zailtasunek dauzkebe baitte. Ez da erreza, ze... Bueno, gaiña, Florian (Floreagan), adibidez, haur hezkuntzan erderaz... ni harrittute gerau nitzen umik eta. Bai, ze daude kanpo... kanpotik etorrittekuk-eta asko daude euskeraz etxin ez dakibenak, famili erdaldunetatik... Florian bertan famili erdaldunek... bueno, iguel Axkoittixen jaixotakuk dienak gurasuk, e, baiña attitte eta amama Extremaduratiken edo Zamoratik etorri zienak eta

hola, ta ohiturez erderaz ein debena-eta asko daude. Ta, ordun, beaxek daukebe lan pillo bat euskeraz eittikin, osea ya hikakin hasteko. Oin, ez dao aukerau berrik ezta, ez? Osea, zuk hasi leikezu euskeraz ya hitanua sartuiez, hasi leikezu baitte. Ordun, ein leike. Baiñe interesa badao. Nik uste det badaukebela, bai. Ikastetxetan pasatzen dana /pasatzeana/ da gero baitte, batizbat publikotan-ta, ba, ordezkapenak-eta´re asko eitten diela /eitteielala/ ta, ordun, jende asko ez da herrikue´re ta, ordun, fffffuuuu... ez daki! Seguruna irakasle askok ez dakibela.

- Hori esaten zendun, ez? Publikuan izango balitz... kasu hontan Florian irakasle danak zian noka erabiltzen zebenak.

- Bai.

- Publikuan izango balitz, ba, lehelengo hor...

- Bai, lehelengo irakaslik in berko lukebe. Oin, adibidez, nere alaba dabil zean, ikastetxe publikun dabil, eta bean andereñuk noka eitten dixobe.

Osea, hitanue eitten dixobe umiei eta neskai noka eitten dixobe. Bai.

- Beittu ze ondo.

- Bai. Azpeitiarra da andereñue ta ya badauke bere adin bat... ba, bueno, harek bizi osun eingo zun eta umiei eitten dixobe. Ordun, batzuk badaude, irakasle batzuk, ba, ya badaukebenak kezka hori o hola ta... bai, badaude batzuk. Oin, gero nik uste det /ustet/ daudenak´e gehixo aprobetxau... "aprobetxau" leizkela. Bai. Igual konsziente izen ezkeo beaxek o iguel ikastaro batzuk ein beaxek´e, ba, ez bakarrik noka ikasteko, baizik eta zeatiken ein noka o ze ai dan pasatzen o horri buruzko hausnarketa bat eingo balitzeke... ba, bai.

7.71. Eskolan hikako adizkiak irakasten al dira?

- **Hizlaria(k):** Azpiazu Larrañaga, Jaione; Etxaniz Azpiazu, Araitz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AZK-081/032
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:32:45. **Bukatu:** 00:33:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala Euskara » Tratamenduak Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena:** Araitzek dio mutil gazteek jakingo dutela noka ere badagoela, eskolan landu izan dutelako. Beraiek aditzak ikasterakoan ikasi izan dituzte hitanoko aditzak. Ahizpa gazteagoak, ordea, hikako aditzak ez zituztela ikasi behar esan zion. Jaionek ere entzun izan du ikastetxe batzuetan jada ez direla ikasten hikako formak.

Transkripzioa

- Askok jakingo ote dabe neskai desberdin ein bihar jakuenik be, ez? Mutil gazte askok jakin be ez.

- Jaione: Bo, auskalo.

- Etxian ez bedetse esaten...

- Hori da.

- Araitz: Baiño nik uste det /ustet/ jakin bai, ze eskolan-eta zea eitten deu eta beti esaten digube: "Akordau bixek jartzie, toka eta noka", azterketetan eta. Baiño gero hitz eitteako ordun ez.

- Eskolan, esan dozu, hori, lantzen dozuela hika?

- A.: Bai, guk bai. Baiño lehengun ahizpe ari zan lanak-eta eitten ta

galdetzeko aditzek. Ta galdeu nixon "hi" aditze ta ezetz, hori ez zakobela sartzen, hori ez debela eman ber. Ta ez dakit...

- J.: Eske ni 're hori ikusitte nao, e? Hitanoa ez dala erakusten eskolatan. Eskolan batzutan-ta ikusitte nao ni hori. Ta, bueno, ba, hori...

- A.: Guk bai. Guk ematen hasi giñenetik, bai, eman izen deu hike, baiño harrittu ein nitzen, esan zinin ahizpek ezetz, hori ez zebela zea ein ber, ez zebela ematen.

- Lantzen dozuena da, ba, aditzak lantzerakuan, "hi" be ba hor daola sartuta. Ez?

- Bai, bai.

- Baiña aparte ez da lantzen... ezer berezirik ez da...?

- Ez, ez.

8. Herria, azpiegitura

8.1. Ura etxe ondoko presatik hartzen zuten

- **Hizlaria(k)**: Uria Narbaiza, Salome
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-009/026
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:56:08. **Bukatu**: 00:58:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Sorazu, Amaia
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena**: Ura presatik eramaten zuten etxera; argia ere hango urarekin lortzen zuten. Telebista bateria bidez ikusten zuten. Arropak etxean garbitzen zituzten eta atariko askan astintzen zituzten. Herriko ura ere etxe ondotik pasatzen zen.

Transkripzioa

- Ura esan dozu etxian, ezta? Gastatzen zala...

- Ure genduken Euzkitzetiken presa bat zea... ta presa hortatiken indarretxin argixe hortik sortzen zan ta oraintxe arte euki deu hori zean, oin lubizi batzuk jun die ta azkena eukitzen genun txarrixentzako. Eske frigorifikuk eta eukitzeko ez zan ona argi hori ta gero iberduero sartu zanin guk mantendu genun, Euzkitzekuk eta guk mantendu deu hori txertuk eitten ta argixe eitteko. Baiñe trilladorie ta danak beakin ibiltzen zin zea hari garbitzekue o traste danak beakin ibiltzen zin. Bakarriken frigorifikue, telebistantzat txarra. Guk lehelengo telebista ipiñi gendun, argixekin ezin zan ondo zea ein, eta baterixe kargatzen genun etxien, argittik baterixe kargau eta baterixekin telebista ibili, bai nahiko problematikue hortako zan argi hori. Baiño bueno ni jaixo nitzenien eo eindako presie zan hori.

- Ta arropak garbitzea eta haruntza joaten ziñeten?

- Ez, etxin... bai gure aittitte ezkontzeako, lehen 'e ondun, etxe ondun eongo zan, baiño goixen jaixotzen dan tokittiken tuberixe sartu eta etxe barrun fregaderak eta zeak eta ipiñi ein emen zebe gure attitte ezkontzeako, zea manantial zea dao, gaiñea, potentie dao oso zean Urrategin, zea Oittekue, Oitteko... kaleko jendie ta jutun zan hara ure eranez lehen oñez ibiltzen zin Urrategittik bueltan, oso manantial ona da, ta ugerixe da gaiñea eta ez... Ordun etxin garbiu ta gero astintzea ataire, ataxen zan aska haundi bat eta bi etxetakuek, gu bi etxe alkarren ondun ta bi etxetakuek kontuk esan eta erropak garbiu ta, bueno, garbiu, han astindu eitten zien. Ez, urekin ez, ardue batzutan ahaztute ta ibiltzen gea

baño ure, hor ez dao urekin problemaik, gure alde hortan, ur askoko tokixe da hori. Gero herriko ure´re bertatik pasatzen zan, hortxe, erreka hortan gorauen, gure presie hartzen zan baño gorauen hartzen zan herrireko ure´re ta gure etxe aurretiken pasatzen da ur hori´re.

8.2. Bidea egin zutenekoa

- **Hizlaria(k):** Errasti Juaristi, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-011/016
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:22:47. **Bukatu:** 00:24:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena:** Bidea egin zutenekoa eta nola egin zuten kontatzen du. Ez zuten inoren laguntza beharrik hura ordaintzeko.

Transkripzioa

-Hemen kamiñua nola egin zenuten, auzolanean?

-Ez, makiñekin. Lelengo egin zan, behie egin zeuben lelengo, ta harakue. Eta gero Errekaldeko hoiak suerte txarrekuak eta, nik geruao ein nun nik, hortik kruzetik honakua geruo. Hori ein nun makiniakin, kutxariakin. Eta asko kosta zan. Errekaldekuk oin ez die bizi eta ordun´e ez. Hala artian bai? Haixek hara bittartien puxkat lagundu baiña bestela bakar-bakarrik.

-Eta dirue nundik ateratzen zenuten, zeuen poltsikotik ateratzen zenuten?

-Bai. Larogeta hamar ganbionkada eskoria, Lorentxo zanak. Ekarri itzak, illeran e! Nik ointxe zeukat astixa eta akabau arte; larogeta hamar ekarri zittun. Eta hemen ataxie ta kaskille zan leheno, eta puxkat zabaldu eta eitteko. Beste hamar, ehun ganbionkada eskoria badie hor azpizen. Eta gero eskoria txilindrua pasauta eta dana ondo ipiñi nun eta gero brea bota genduen hobie zala eta. Eta brea bota zun, laguntasuna orduan bai brea botatzeko.

8.3. Auzolanean egiten ziren lanak

- **Hizlaria(k):** Aranbarri Elduaian, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-012/009
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:12:24. **Bukatu:** 00:13:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Basoan auzokoekin apeak egiten eta auzolanean aritzen ziren. Idiekin egurretan, gari ebakitzen, garotan, etab. Kaletar eta baserritarren arteko bereizketarik ez zuten jasan.

Transkripzioa

-Taillerrean eta etxean bitan arituko ziñen batera.

-Batera ez, baiñe egune zortzi orduken partez hamabi-hamalau orduke eittia egune. Eta basuen´e bai, e, hamen auzokuekin eta apeagiñen eta

ere. Bueno! Hamen inguruko lanak danak itten giñutzen guk eta artian ez giñen nekatzen, ordun sasoie zaon.

-Auzolanian eta ibiltzen ziñaten?

-Bai, auzolanien eta, bueno.

-Zer egiten zenuten?

-Idixekin junda igual trongotan eta, danera. Gari ebaitzen ´e bai, auzolanien ebaitzen zien len garixek ´e. Eta jo ´re bai, dana holaxe. Garue ebai ere bai. Lehen hola ibiltzen giñen.

-Kaletarren eta baserritarren artean diferentzia haundia notatzen zenuen?

-Bueno. Be... Basarritarrak beittu eta ezaun izaten du nunguek gean, hor ez dakizu, ze trajie...

-Diferentzie eitten zizuen edo?

-Ez.

-Kaletarrei hobeto baserritarrei baiño?

-Ez. Geu ´re ez giñen azian lelengo azpiko ostrue, e! Geu ´re ez giñen.

8.4. Azkoitia lehen eta orain

- **Hizlaria(k)**: Olalde Etxabe, Pablito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-027/024
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:58:54. **Bukatu**: 01:00:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena**: Azkoitia nola aldatu den; garai bateko industria, baserri eta kaleen aldakuntza.

Transkripzioa

- Asko kanbiatuta ikusten dezu Azkoitiko kalea eta...
- Bueno, kalie... Beti, beti kanbixau die kalik. Beti.
- Baiño oso diferentea da orduetik?
- Ez, [...] iguel xamarra zan, herri [...]. Oin, albuk. Hemen fabrikie zan; oin dana etxez beteta dao. Hor´e fabrikie zan; dana etxez beteta dao. Fabrikek zin, [...].
- Emaztea: Goixen´e bai.
- Han goixen´e bai.
- Ze industri zeon Azkoitian? ze lantegi zien?
- Abarketa-telak eta abarketa-zorue ta txapelak eta... eta zakuk-eta´re eitten zin. Dana holakue.
- Eta kalean kale-etxeak baino baserri gehio zien? Hemen baserri asko zan kalean?
- Bai, baserri asko. Hemen baserri asko.
- Esan nahi det kale ingurun...
- Kale ingurun?
- Mendi aldera jo gabe, kalean baserri asko zien?
- Bai, banan-banan izeten zien asko. Oin... hor bazan beste bat, hor erdixen, basarri bat. [...]. Kanpofubola´re bazan hor. Kanpofubola. Ni mutil-koskorra nintzela, kanpofubola danak.
- Kanpofubola hemen zan?
- Hemen, kalin, lehenengo. Gero han Altziberren. Gero hor. Ta ni hasi nitzen han, Altziberren.
- Altziberren?
- Gero hor, hogetaka urtin. Ta han´e asko.

8.5. Arropak garbitzera edo ur bila iturrira

- **Hizlaria(k):** Zabala Zabala, Manuela
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-029/006
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:10:07. **Bukatu:** 00:12:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- **Laburpena:** Urik eta argirik ez zuten etxean bera umea zenean. Ura beheko iturritik eramaten zuten marmitetan hartuta. Arropak garbitzera putzura joaten ziren. "Eskumuturre jaboe" esaten omen zuen bere amonak. Argia kandlekin egiten zuten. Argimutila erdian jarri eta "erreportzaketan" (abarketei telak josten) aritzen ziren.

Transkripzioa

- Eta esan dezu ude urrutitik ekarri behar zala, etxan ez zeukezuen urik?
- Ordun bai. Gero bai. Lehenoz ez. Ni txikixe nitzela batez, ez urik eta ez argiik.
- Eta nundik ekartzen zenduen ude?
- Han beheko toki batea junde.
- Itturrie ala zer zan?
- Bai, itturrie. Oindik hantxe zan, ez dakit oin kendu deben.

- Itturrie o erreka?
 - Itturrixo, itturrixo. Ta haren bille... Haure han behien zaon ta gure saille goixen zaon, ta han [... guztien] hasi zerien, gure etxin, ta ure goixen ataa ta geo handiken etxie bertan zaon, urriin, eta [emango zala ta]. Aitte hantxe hil zan, ta kitto.
 - Eta ze juten ziñeten, marmittak hartuta?
 - Bai.
 - Eta marmittetan ude ekarri. Eta erropak garbittu ta?
 - Erropak garbiu te? Han beheko potzoa, itturri haren ondun potzue, ta haraxe junde.
 - Ta zekin garbitzen zien erropak? Jaboiik o izaten zan ordun?
 - Ba, pixket. Eskumuturre jaboe esaten zun amama gurik. Jaboiien partez eskumuturrek ein ber lana.
 - Ez gaur bezela, e, hainbeste adelantukin.
 - Ez hoixe! Aberatsa ordun zan baiño gaur pobrie hobeto bizi da.
 - Eta argie? Ez zeukezuen etxen argiik ordun?
 - Ez. Eztakit nik zenbat urte nauzken argixe sartu zanin. Botuk [inde sartu zan], botuk emanda.
 - Eta nola moldatzen ziñeten argiik ez zeon garai hartan? Kandelakin o ze...?
 - Ooo... Kandelie hartu bakutxek bertaa ta segi haraxe ta honutz te... Ta hori baiño haundixaue! Argimutulle ipini erdixen ta ipini kandelie han ta abarketan danok.
 - Argimutulle?
 - Bai.
 - Zeni deitzen diozue...?
 - Ba, haritxi. Hola egoten zan, ta ipintzen zan egur bat hor ta hamen gaiñien hola txaplata bat, ta haren gaiñien argixe, o kandelie o petrolio edo dana dalakue. Ta...
 - Ze ibiltzen zan petroleoa ´re bai?
 - Bai. Bueltan jarri ta erreportzaketan. Badakizu zer dan?
 - Abarkak itten?
 - Ez! Abarketak josten! Abarketai zorukin telak josten.

8.6. Martirieta eta inguruko zenbait auzo

- **Hizlaria(k)**: Zubizarreta Mendiola, Luis Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-034/002
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:02:37. **Bukatu**: 00:03:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Otsalarre baserria kokatzen du, eta inguruko auzoak aipatzen ditu.

Transkripzioa

-Otsalarre ze auzo da, Martiritta ala beste bat?
 -Martiritta, Martiritta auzua, bai.
 -Martirittak auzo gehiago badauzka ala ez? Otsalarre ez da Martiritako auzoren batekoa?
 -Ez, Martirittakue da, Martiritta eitten da. Baita Aittube ta ´re Martiritta

eitten dia. Gero bestiak baakizu, Aizpurutxo eo beste barriotara eitten dia baiña. Agiñeta hurrao daukau Martiritta baiño. Agiñeta baakizu nun daon.
-Bai, bai.
-Guretik, baserritik Agiñeta hurrao dao Martiritta baiño, baiña beti ein gea Martirittara. Gero beti eskolara ta bataiau ta dana Martirittan, komuniuek eta dana Martirittara.
-Hau zer da, Martirittako azkenengo baserria?
-Bai, azkenekue, azkenekue.

8.7. Garia lantzen

- **Hizlaria(k)**: Aramendi Aranberri, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-040/005
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:08:46. **Bukatu**: 00:09:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserria » Baserriko lanak » Garia
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena**: Garia auzolanean egiten zen. Garia horitzen zenean, ebaki egin behar izaten zen: lehen igitaiarekin, gerora makinarekin. Azaoak nola lantzen zituzten azaltzen du.

Transkripzioa

-Gari eta artoa eitten zenuen garaien, auzolanean eitten zan?
-Bai, asko bai. Bueno, artuukin ez, gariukin bai. Gariye eitten zan lelengo eta gero burutu ta heldu eitten zanian, horizten zanian gero ordun ebai in ber izeten zan, ta lelen-lelengo gaiña iitaiekin ebaitzen zan. Da gero makinak azaldu zien, baiña geo gariye zea eitteko, alie atatzeko makiñie ber zan, gero hasi zien lastue lelengo burukin alie atea burue eta gero lastuakin txikiu te, lasta txikie gero ganauentzat zera eitten hasi zan. Baiña gero halakotxe lastue. Azaorik aittu al dezu behiñ'e?
-Bai.
-Guk azaun lotzen gendun da.
-Azaoa nola izaten zan, bola itten zenuen?,
-Azaoe? Holaxe mordo bat hartu da gero zera ein, lotu, da atzera buelta ein da berai sartu. (...)
-Eta azao hoiek zertako?
-Azao hoiek geo itten zien makiñan, danborrien, zera itteko makinakin, han burue kentzen zitzeten da azao haiek osoik geratzen zien. Da haiek danak (batzen zittuen). Ta artue berriz, artue, oilluek baldin bazeuren lurriin, da bestela errotara eaman eta iriñe ein da etxin artue erreta jan; da bestela ganauei eman iriñ haure ta. Artaburue're bai ta artalie're bai ta.

8.8. Arropa-dendak eta alpargatak josten

- **Hizlaria(k)**: Aramendi Aranberri, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-040/011

- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:16:12. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena:** Kanean lehen ere baziren arropa-dendak, ugari gainera. Lehen arropak piezan egoten ziren, ez josita. Alpargatak josten ziren Azkoitian, eta bera ere horretan ibilitakoa da. Josten diru pixka bat ateratzen zuten.

Transkripzioa

- Kalen bazan erropa-dendaik?
- Erropa-dendak? Bai, ordun bai. Garai hartan erropa-denda dexente zeon kalin.
- (senarra) Hamen auzoko bat badao oain'e [...].
- Ze... ze denda zien? Izenakin o akordatzen zea o...?
- Ordun erropa-dendan izena Aldalurreneku ta Bernabeneku ta... bestie Iñexiotarreneku, ta... erropa-dendak zea itten zittuenak. Ordun erropa asko zea itten zan. Piezan eoten zan, jositta oain bezala ez zan eoten ordun erropaikan.
- Alpargatak'e eitten zien Azkoitin ezta?
- Bai. Alpargatak josten jardunda nao ni. Hementxe itxin, alpargatak josten. Lehen jayo nintzen etxen'e bai, eta honea etorritte're jardunda nao ni apargatak josten.
- Dirue nunbaitteako izaten zien alpargata hoik, o zuentzat...?
- Ez, ez, ez. Dirua josten gendunan diru geuretzako zea itten gendun ordun.
- Baiño esan nahi det, kalea nunbaittea entregatzen zittuzuen?
- A, bai, bai, bai! Hori bai. Zean, Jesus, Txantoneneaku zan abarketak o zea itten zigunak; ta guk eiten gendun etxea ekarri, geo telie josi, ta atzea eaman. Ta ordun asko ez zebe paatzen, baiño zeoze paatu itten zebe, ta zeozer jornala atea itten zan.
- Ordun etxe danetan ia alpargatak josten, ezta?
- Hamen leku batzuten bai, danetan ez.
- Baiña Azkoitin bertan, hala're...?
- Axkoitin herriyen bai, baiña baillara hontan ez zan itxe askotan josiko abarketikan.
- (senarra) Abarketak gure alabak'e asko josi zitun.
- Bai, gero bai.

8.9. Lehenengo autoak

- **Hizlaria(k):** Aramendi Aranberri, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-040/033
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:41:46. **Bukatu:** 00:43:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena:** Bidea egin eta laster hasi ziren autoak bertatik ibiltzen. Beraiek ere orduan gertu erosi zuten autoa. Gidabaimena Azkoitian atera zuten. Orduko azterketak nolakoak izaten ziren aipatzen dute. Inguruan ere jende askok ekarri zuen autoa, eta orduan hasi zen jendea mugitzen.

Transkripzioa

-Kamiñoa egin zen garaien belaxe kotxen bat hemen auzoan?
 -Bai, laster ekarri gendun, geuk laster erosi gendun.
 -Eta aurretik bizikletak. Motorrik bazenuen?
 -Ez.Karneta ateratzie kosta zitzakun guri're, bakizu, eskola gutxi tte. Karnetak atara giñun, nik lelengo ta gero honek eta. Biok kotxiakin ibiltzeko modun.
 -Nun atera zenuen karneta, Azkoitin?
 -Bai. Auto Escuela Etxaniz.
 -Eta orduko esamine nolakoa izaten zan?
 -Orduko esamiñie ointxe bezelaxe. Kamiñoko zeak, seiñalik. Igual. Karneta atatzeko berdiña da.
 -Lehenengo kotxea ze izan zan?
 -Simca. 2200 Simca bat.
 -Orduan kotxe eukitzea...
 -Bai. Dezente ibili zan orduan kotxiakin.
 -Kamiñue ein zanian bateko kotxia eta besteko motorra, danak (...)
 -Hemen kotxe asko.
 -Gazte-jente haundie zeon ba. Bakizu, hogetamaxeie baserri die. Ta geo berriz, iñora lanera ere kotxez ateatzen zien. (Batzuk ateatzen zien baiña) artien basarrin, batzuk morroi (...)
 -Orduantxe mobidu zan jendia, kamiñua ein zanin. Asko hamengo gazte jendia. Asi ke bestela oiñez. Nere anaia ta oiñez juten zien.

8.10. Elgoibarren eta Plentzian lanean

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Azkoitia, Candida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-041/014
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:14:08. **Bukatu:** 00:17:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Udan Plentziako hotel batera joaten zen josten ikastera. Hasiera batean, Elgoibarko taberna batean neskame ibili zen. Garai hartarako mutila bazutenez, denbora libre gehiago nahi izaten zuten. Eta hotelean diru gehiago irabazten zen denbora gutxiagoan. Horregatik joan zen hara lanera. Hiru urte han egin ondoren, berriro Elgoibarren egin zuen lan taberna batean, ezkondu zen arte. Azkoititik

Elgoibarrera korreoa (autobusez) joaten ziren. Tabernako lan-baldintzei buruz hitz egiten du.

Transkripzioa

-Esan dezu udan...

-Udan hotelien.

- ... hotelea juten zinela.

-Bai.

-Noa?

-Plenzian egon nintzen hiru urtin eo.

-Plentzian?

-Bai.

-Eta nolatan?

-Ba politte zan hotela ta jente asko ibiltzen zana ta.

-Baiña nolatan jun ziñen?

-Ba jun nitzen, lenao neskame ibiltzen giñen, neskame taberna baten egon nitzen, lau urte ein nittun han.

-Plentzian?

-Ez, Elgoibarren, neskame Elgoibarren. Eta gero ba, neskame ordun etzan oin bezela orduak ein da libre izeten. Orduen goizien bertan lo eitten gendun, goizien jaiki zazpiretan da gabien tabernie itxi arte. Da astien arratsalde bat, ezer etzeuan arratsalde bat libre.

-Ze taberna zan?

-Ba lelengo Arriolanin da gero Leonardonin. Bitan egon nitzen. Hotelea jun aurretiken eta hotelea jun da gero. Eta gero nahi gendun ba tabernan egoten giñenin, nobiua ta bagenduzken da puxkat gehio ibiltzie nahi behintzat, ertetzia nahi pixkat gehio. Ta pixkat gehio ertetzeko ta libertadie izeteatiken ba esaten zeen hotelien irabazten zala holako tokietan urtebetien aiña ba hiru hillabetien. Ta gero ein gendun ba hotelien lana ein da diru hori hartu hotelien, da gero neguen hamen ibiltzen giñen, jostera jun o, baserrien lana eñ o, ta libertade gehio izeteatiken da hola ta. Plenzian egon nitzen hotelin.

-Elgoibarko taberna hoietan jaten ematen zenuen?

-Bai, bai. Bietan jaten ematen zeen. Eta geo hiru urtien egon nitzen da ba geo berriz engaiñau ein giñuzten berriz hotelea edo tabernaa neskame jartzeko ta, han gero beste bi ero hiru urte ein nittun da gero ezkondu nitzen da gero handik hona hementxe. Hementxe beti bizi naiz.

-Nola juten ziñen Elgoibarra?

-Auto..., korreua zan, goizien, eguardiyen eta illuntzien juten zan. Gu jun-eterri asko, azkenekuen bai, baiña lelunguen egon giñen toki hartan esate'izutan bezela ba, ez gendun ertetzen da hantxe. Bakarrik pelukerira jun ero eitten gendun, ordu batzuk jai eukitzen giñuzen-in-da. Tabernan daon jendie beti loguriek egote'a. Eo bestela siesta eñ eo holako gauza bat eitten gendun. Baiña jun-eterria hortxe itten giñuzen, Korreuen. Hiru buelta itten zittun eta hantxe. Ondo. Jutie ondo eukitzen gendun, jutia ta etortzia.

-Korreua zer zan, autobusa?

-Autobus zahar bat, bai. Autobusa zan, Balentin Olanona.

-Azkoitiarren batena?

-Bai, bai, azkoittiarrana. Hola ibiltzen giñen, hoixe izen zan.

-Eta han ukatu zenuenean Elgoibarkoa, Plentziara jutearena nola okurritu zitzaizun edo zeinek eman zizun abisua?

-Hamengo haiek zien, hotel hartako etxekoandria zan hemengo alaba. Eta gero haren etxien hartzen emen zittuela. Hamendik juten zien beste batzuk e hotel hartaa, ta han etxekoandra haren etxien hamendik jun (...)

abixuak eta hartzen zittuela ta, hortitxik hasi giñen da holaxe jun giñen. Ondo pasatzen gendun han e.

8.11. Izen-abizenak eta ogibidea

- **Hizlaria(k):** Gorostegi Alberdi, Mila
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-042/001
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Azkoitiko Kale Nagusian jaiotakoa. Aita Lasartekoa, ama Azkoitiarra. Berdura plazan saltzaile ume-umetatik

Transkripzioa

-Bueno, hasteko izena eta abizena ta non jaio ziñen esaten baiazu?
-Ni, hoeta hamaxeixin, "el treinta y seis". Milagros Gorostegi Alberdi.
-Nun jaio ziñen?
-Axkoittin.
-Kalen, Azkoitiko kalen?
-Bai, bai kalien.
-Ze kaletakoa zea?
-Kale Nagusia, oin botata dao etxe hori; botika onduen zan hor etxe bat, eta hor jaio nintzen.
-Gurasoak, hemen azkoittiarrek zittuzun?
-Ez, aitte Lasartekue; ama azkoitiarra.
-Eta betidanik eon zea hemen, plazan? Saltzaile bezela?
-Bai, gure ama eote zan; nere ama eote zan, hobeto esateko, leno. Ta ni hamabi urtekin hasi nitzen, beari laguntzen hemen.
-Beti izan zun hemen, Berdura Plazan hontan, denda?
-Hemen eta gero daukeu beste denda bat han, Julio Urkijon, baiño haure ya geruo iriki zan.
-Eta hau zer zan, zuen denda bat balitz bezela, ala...?
-Aiuntamentun puestuek.
-Aiuntamentukoa zan.
-Bai. Ta oin´e bai. Oin´e bai.
-Eta azoka hemen itten zan?
-Beti, beti.
-Eta azoka hemen etten zan?
-Beti

8.12. Ura etxean

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Ezeiza, Kontxa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-044/016
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:28:48. **Bukatu:** 00:31:50

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Ura etxean bazuten. Arropak garbitzeko dena eskuz egin behar izaten zuten, eta lan txarra izaten zen hori. Garbiketa-prozesua pausoz pauso azaltzen du. Beren burua garbitzeko, etxeko harraska erabiltzen zuten. Gerora, komuneraino luzatu zen ura, eta askoz errazagoa zen bainatzea.

Transkripzioa

- Eta ure bazenduen etxen?
- Bai!
- Bai?
- Bai, ure ´re bagendun.
- Bueno, suertea pixket bai ordun, ura baldin bazenduen...
- Bai.
- Ez zuen etxe danak izango. Eta nola moldatzen ziñeten garbiketak eitteko eta?
- Ai ene, ene, ene... garbiketie? Garbiketie eskuz ein ber! haure txarra! garbiketie dana eskuz in ber. Ta han ´e umik zeuden, aizu, ta eskolaa jun ber eta ein ein ber. Berriz hona etorri nitzen ta berriz hemen ´e hoixe.
- Berriz ´e in in behar?
- Eskuz in ber hemen ´e. Soun ein ekinaldiye, e? ta erropa zikiñek goizin-eo bittute ipini ta jun potzure ta jaboie eman haiei -albergie badao hor-, jaboie eman ta laga, geo illuntzin eo sorotik etorritekun ta gero jabondu ta zea iteko.
- Nolako jaboia zan?
- Ba jaboie onak eoten zin, jaboie kozkor onak eoten zin.
- "Trozo"ko jaboia?
- Bai. Ta gero jaboie-hautsa hasi zanin, ba! jaboie-hautsa ´re... jaboie-hautsa ´re ona. Han jaboie-hautsetan euki uretan baldan ta gero astindu in ber.
- Nun astintzen zendun?
- Potzuun! Harriye hortxe dao oiñ ´e, jotzekue, bai. Geo kentzeko hasi zin harri hori ta aittek eztez esan zun "ez eizu kendu hori, hori lehengue dek eta!" esan [...] eta nik uste nun botako zebela, baiño oindik botatzeke dao. Hor dao oindiken harriye.
- Hoixe, garai bateko...
- Bai, hor dao oindiken.
- Eta zeok garbitzeko ta?
- E?
- Zeok gorputza garbitzeko eta? Errekaa?
- Gorputza garbitzeko?
- Ala arraskan?
- Hamentxe, garbiu o zea eitteko... Bai. Gero itturri... zea ipini zebeu kuartoaiño zea bat ipini zebeu ta han garbiu ta ondo.
- Ya beste gauza bat... Alde earra gero...
- Bai.
- Diferentzie.
- Alde haundiye. Ene! Gaiñea, garbiketikin oso geixki ni etorri nitzen behintzet. Oso txarra. Haiek eskuk... prakak zikin-zikin-zikiñek eta, aizu... haiek eskuz garbitzen, zu, zepillukin hor ja-ta pasatzen-pasatzen zikin haundi-aurkiye. Ta nik ez dakit nola ibili giñen.
- Baiño moldau ziñeten?
- Moldau giñen behintzet.
- Atea ziñeten aurrea behintzet eta...

- Bai, umik´e hazi behintzat eta... Bi, gaiñea, hauek hemen izen dien hauek, bikiyek... bikiyek ez die hauek, lanin ai da beste horren biki-lagune; hau apartekue, bestie. Bai.

9. Aisia

9.1. Korostietan eta Madariagan erromeriak

- **Hizlaria(k):** Errasti Juaristi, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-011/012
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:12:22. **Bukatu:** 00:15:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Korostieta baserrian putzu baten inguruan egiten zen erromeria eta Madariagara ere joaten ziren. Soinua izaten zen eta dantzara joaten ziren. Azkoitian ez zuten dantza lotuan egiten uzten, baina hala ere saiatzen ziren. Neska-laguntzeak eta gaztetan izandako neskalagunaren inguruko kontuak kontaktzen ditu.

Transkripzioa

-Eta hemen ingurun festaik eta?

-Festie? Hamentxe, hortxe, mendibarren baten, Korostitten edo eitten zen erromeixe.

-Zer da, ermittan bat edo?

-Ez da ezer'e. Potzu haundi bat eta baserri bat ondun eta gaintxo bat. Eta hantxe eitten zan. Erromeixe bolada baten kristona eitten zan. Eta soldautza aurrien erromeri gehixenien Madarixara. Badakizu nun dagon, Madariaga?

-Bai.

-Haraxe. Kintto aurrin. Holaxe. Horra batzuetan eta bestietan hara.

-Eta ze festa eitten zan ba?

-Soiñua.

-Besteik, herri-kirolik edo?

-Ez, herri-kriolik eta hortakoik ez zan izeten. Soiñue eta dantzie ta. Lotun ein nahi jentiek eta hemen Azkoitixen ez zebeñ lagatzen. Eta hor mendi-erromeixie eitten zan, mendi-erromeixek eitten die oiñ´e. Xoxotetik albora Zamalekue izena dun leku baten, eta hango egune. Eta soiñujole bat Zamalekun eta paretie dago mugie Azpeittikue eta beste aldetik beste soiñujole bat, eta baltsiuan han eta. [Malaatik?] pekatuen billurragatik jentie juten zan hara. Danak alde, lotun egin nahi. Gero esaten debe pekatuen billurrez egon ziela, hori dana gezurre da.

-Elizak bazuen orduan indarra.

-Elizek bai, baiña hara lotun eittera pekatuen billurrik balebe ez zien jungo. Danak hara, neskak´e bai, Azpeittiko partien libre eta Azkoittikuen ez zebeñ lagatzen. Hamen mendixen.

-Eta gero erromeritik neska-laguntzera.

-Batzutan bai, heldu gerrittik eta.

-Nola izeten zan hori?

-Zaittu in ber. Batzutan aurretik zitie einde dantzan edo abar. Gero etorriko naiz edo, hau-hori. Gero zaittu noiz alde eitten zun eta atzetik junde.

-Bide-sail edarrak egingo zittuzuen ba neska-laguntzen.

-Bai, batzutan bai. Larraskandan euki giñun soldautza aurrin, gaztetan, eta pentsa eizu hemendik Larraskandara. Aittu al dezu behin ere Larraskanda?
-Bai. Aittuta nao.
-Aillegau're iguel?
-Ez.
-Larraskandan euki nun, Tomaxa. Makiña bat aldiz etorri nintzen, neskie gustatzen zin..., neska jatorra zan, pareja ederra eitten gendun, eta, esto, egualdi txarrakin de, elurra igul eta lokatzia igul eta, neuk, "sekula gehixao ez diat etorri behar, kristaurik ezin dek hemendik ibili eta". Pasau haure eta berriz'e jun.

9.2. 17 urterekin soinua jotzen hasi

- **Hizlaria(k)**: Errasti Juaristi, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-011/013
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:15:10. **Bukatu**: 00:17:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Jose 17 urte zituela soinua jotzen hasi zen, eta Sakabirengana joaten zen ikastera, baina etxeko lanak zirela eta astirik ez eta anaiari eman zion. Anaiak Intxuzabalekin ikasi zuen eta soinu handiarekin ere ibili zen.

Transkripzioa

- Ta etxen zuek, erromerie aittau degu eta zuen etxen soiñue, bazala soiñujolea zuen etxen ez?
- Neu hasi nintzen lelengo. Ni hasi, haserie nik eman niyon.
- Umetan?
- Umetan ez, koskortute. Orduko hamaxei-hamazazpi bat urte bai. Eta ikesten pixket hasi ere bai. Bihetz gogor, eskue ez nun gozue. Sakabiri ikesten pixkaten ibili nintzen. Eta piezie konpleto hartzen nun nik jundako bakoitzin.
- Zer juten ziñen, Sakabin etxera?
- Bai. Eta gero ezin gozau soiñue. Astirik ez hemen behin ere, gure etxien astirik izan al da ba! Hemen beti artalde haundixe eta ganau asko egon da, beti. Halaxe, be!, nazkauta laga eta, hori, "aiba soiñue, nahi dekana ein zak", anaiai. Ni baiño hamaika urte gaztiao da hori.
- Eta etxean soiñue nundikan erosi zenduen ba? Erosi in zenduen?
- Kandidoi soiñu zaharra, gerran ta danien ibillitakua. Gerra ondoko kontuek. Gerran eta danien ibilitako soiñua. Kandidoi erosi giñun. Eta nahi dekana ein zak soiñuakin. Eta hori [Mutxi?] artistie da hori, eta belaxe hasi zen blibla-blibla, belaxe kristona, ta afezixue kristona eta ikisi zun, azkar ikisi zun. Eta gero euki zun Intxurzabal, Intxurzabal aitzerie, ta haure hemen egon zan erakusten batzutan, horrek primeran ikisi zun soiñu jotzen, abilla zan hori oso soiñu jotzen.
- Zuek gaiñera dana belarriz ikasiko zenduen?
- Bueno, bestiei aittuta; harek asko erakutsi zigun, Intxurzabalek. Eta gero, soiñu estimazio..., oso ona zetorren hori, eta gero soiñu haundixan inbidixe ein zitzakon. Eta soiñu haundixakin trastornau zan. Harekin puxkat ikasi zun baiña. [...]. Eta atzera txixixakin hasi zan. Eta txixixakin atzea ondo

jarri zan berriz´e. Baiñe behar bezela ez.
- Orduan soiñua garestia izango zan ba?
- Garestie ez. Prezioik ez dakit nik ordukoik baiña garestie ez. Soiñu zaharra zan eta. Oindik soiñu hori bizi dala uste det. Hortxe Atanon omen dago. Gerran ta danien ibilittakue haure soiñua.

9.3. Erromeriak Gurutzeta eta Madariagan

- **Hizlaria(k):** Aranbarri Elduaiein, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-012/005
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:04:52. **Bukatu:** 00:08:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena:** Erromeriara Gurutzetara eta Madariagara joaten ziren; azkenengo honetan dantza lotua debekatua zegoen. Orduko erromerietako kontuak.

Transkripzioa

-Erromerietara eta juten ziñeten gaztetan?

-Jungo ez giñen ba. Bueno! Baiña gure erromeixe motxa zan, esan dizut ba, beti jatekotan geratute, beti hurrengo jairako pozakin egoten giñen gero.

-Nora juten ziñeten ba?

-Kutzeta (Gurutzeta) badakizu nun dagon hor?

-Bai.

-Horra´re bai. Madarixara´re bai, baiñe Madarixan dantza lotue debekaute zauen, eta Kutzetan libre, eta hara. Igul samar zan guretzat, guk ez gendun dantzan pekatuik itten, ezta zanik ere gaiñera. Eta berko ein! Gure amak, gurien bi arreba zaharragiek nik eta, esaten zixuen: "Honek erromeien dantzan eitten al din?", eta: "Ez du ba in". "Hi, erromerire junde dantzan ez dekala eitten hurrengo jaixen aitzen baet, hurruneke jaixen ez dek ertengo. Han junde begira bestei egotea? Hortara ez dao zetara junik". Akordatzen naiz San Ixidrotan jun Madarixara eta, frontoia badakizu Madarixan, egonda egongo zera zu, jun giñen, eta hautse bai, eta haure dana beteta dantzan jentie. Ene, hamen ez zeok dantzaik eitteik. Datorren jaien etxien egon biharrien nauk, pentsau nun. Orduntxe ein. Hasi nintzen hasi banintzen. Kitto, harrezkero jaiero alkondarie bustitte dantzan.

-Nola izaten zan? Faborez edo nola eskatzen zenduen?

-Eingo deu edo zeoze. Perrie iguel edo, nola esaten zion horri, kalabazie edo. Neskaguntzea junda´re bai perrie edo kalabazie. Ordun modan zan baiña, lehen ez zan oin bezela, e. Oin nobixo-nobixak dauzkenak hasi eta hiru egunerako ia ezta soltau´re ez die itten. Baiña lehen ez, lehen nobixuak eta nobixak zeuzkenak´e etxera jun arte hantxe eitten zebedan dantzan. Etxera abantatzen zienien jun laguntzera. Baiña oin ez da hola. Oin parejante berak, eta nik ez dakit ba, bestiek harrapako ote dixuen bildurre edo, nik ez dakit ze eukitzen deben oingo hoixek, lehen ez zan holakoik.

-...

-Keba! Nik lehen, zu soiñuan eta ibiltzea zea, nik ikuste(n) (d)et, baltsio

txikixa zer da? Ez dakizu zuk.

-Agarrauai esango zai?

-Bueno baiñe nola eitten da hori? Edarrena hori zan Kutzetan. Ba bueltako denboran, trikitixe, bueltako denporan heldute eitten zan. Eta hori oin ez det ikusten nik. Jo iguel ingo dezue ba?

-Bai, berdin-berdin.

-Eta oin ez da itten hori.

-Ordun gehio kostauko zen heltze hori ta.

-Ez zan horregatiken. Halaxe usatzen zan ordun, guk ez gendun gauza berri(r)ik ezer´e ipiñi. Guk ez gendun ezer´e ipiñi gauza berri(r)ik. Eta bueno. Baiña guk [...] giñen, ezer ez.

-Erromeria bukatutakoan neskalaguntzera.

-Bai, epokaik bazendun neskalaguntzera eta bestela berriz trago txikin bat in eta etxera. Eta etxera hamarretako etorri ber, hori ez zan asko hobia.

-Eta erromeria ze ordutan bukatzen zan?

-Ba, illun istantzien. Eta hurrengo jaixen ez jun amai preguntatzera. "E?, hi atzo hamarretarako ez hintzen etorri eta ez daukat kontestatixo... heuk daukak heure buruantzat. Jakiñin hengoan". Eta "ya está". Eta mezetara jaixen juten ez baziñen ez zauen zera eitteik, erromerira juateik jaixan. Akordatzen zat neri baten, kriston burukomiña goizian eta: "Oin mezetara juteko ez zeukat ba nik holako zer haundirik baiña. Eta atsalderako burukomiña pasatzen bazat? Gero erromerira juteke egon ber. Igul dek ba, ez nauk gauza". Atsalderako ez zin burukomiñak aldein eta ondo. Baiña aldau banintz etxiin egon ber. Mezetara jun ezik etxiin egon ber. Zenbat holako! Len!?

9.4. Dantza lotua debeku

- **Hizlaria(k)**: Aranbarri Elduaian, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-012/011
- **Iraupena**: 0:00:37. **Hasi**: 00:14:10. **Bukatu**: 00:14:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- **Laburpena**: Irukurutzetako erromeriako kontuak. Dantza lotua egiten zutenei jarritako kantua aipatzen du. Dantza lotuan eginez gero bi duroko multa izaten zuten.

Transkripzioa

-Ostien hamen lengo kantu bat bada, zuk hori kantatzen´e jakingo zu baiña. Hamen Irukurutzetan erreimeixe, maietzan [bigarren jaixe?] edo eitten zan erreimeixe Iruku(ru)tzetan urtero, eta Azkoittiko mutillek, Azkoitixen kongregazixue ta, jun die eta ein debe dantza lotue eta enterau die, eta kantu bat da:

Irukurutzeta eguna

Señaladamente,

Azkoittiko mutiko-mutillei

Duro biña multe

Dantza ein dutelako

Neskiai heldute.

-Zu kantu hori aittute egon zera?

-Ez neuken aittuta. Kastigue?

-Kastigue, duro biña multe. Hori gu baiño..., ba gu gaztiek giñanin pasautakue hori.

9.5. Dantza taldean herrian eta herritik kanpora

- **Hizlaria(k)**: Sagarzazu Irureta, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-015/010
- **Iraupena**: 0:04:19. **Hasi**: 00:13:04. **Bukatu**: 00:17:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Dantza
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Eskolan hasi zen dantza ikasten, Epenekoa ezizeneko irakasleak erakusten zien. Nazionalistek ere, 'Bizkaitarrak' zeritzenek, taldea bazuten eta haiek Donostiatik etorri ohi ziren Azkoitira dantza erakustera. Orduan karlistak eta nazionalistak zeuden eta era ezberdinean erakusten zuten dantzan. Poxpolin jantzita aritzen ziren; eta, gerra hasi zen egunean ere, Madarixan ari ziren dantzan. Kanpora joaten ziren. Donostiako Atotxa futbol-zelaian dantzan aritu zirenekoa eta anekdota bat kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Eta gazte denboran erromerietara juteko ohiturarik bazenuten?
- Gutxi. Orduen edade zera genduken eta gaztiek giñen artien erromeri..., ordun ez, artien gaztiek giñen eta. Bestela mendixen eta bai ibili, bestela mendixen asko ibiltzen nintzen. Fubola, mendixe eta hortxe.
- Dantzan ere noizbaiten hasi zinen, ezta?
- Dantzan gazte-gaztetatiken. Eskolatik hasi giñen. Eta eskolan dantzan, eta hantxe.
- Eskolan dantza erakusten zuen, eskolan bertan?
- Nik ez, baiña neuri bai.
- Baiña erakusten zuen ordun?
- Bai.
- Eta zein izan zenun maixu?
- Oin ekarriko du erretratue. Ia ezautzen dezun. Hermanuek, hamen ikusten die... Bat... ez da paparra ikusten. Hamen dao bat hermanue esaten giñona, ta hamen herritarra 'Epenekua' edo, zera zan Epe, Epe esaten giñon, Epeneko harek erakusten zigun. Eskolan ibili nitzen denporan haure ibili nun maixo. Gero hamen alde batera, eskola haure eta beste bat zauen hamen, nola esango dizut nik, nazionaliste edo hola zea zan ordun, 'Bizkaitarra'-edo esaten zikona. Eta han ´e grupue formau, dantzan eta, eta guri orduan donostiar batzuk etortzen zien hona erakustea. Eta han ibili nitzen, han ´e. Eta hamen ´e eskolan ´e bai maixu ze honekin, eta bestie aparte. Eta ordun politika, bi bando bezela zeuren, karliste eta nazionaliste bezela edo, eta batzuei, maixo batzuek honek zera erakusten zun eta bestiek bestera.

- Parejaka ala?

- Ez, bestela, grupue. Nik eztakit, dantzari bizkaitarrak eta esaten zebeñ ordun. Eta bat karliste edo zana, hareandiken Florian eskolan ibili nintzen, harek´e erakusten zun haure´re zea zan. Eta gero bestie, beste grupue aparte, politika bezela edo zea jarritte, eta han azkottiar batek erakusten zun, Antton Aldako zan haure, erakusten zuna, eta donostiarrak´e etortzen zien erakustea; eta hantxe. Eta grupue formaute. Eta gero orduan hamen 'pospoliñek' esaten zan, eta emakumien grupue´re bai, neska-mutillek. Gerrie erten zun egunin´e gu Ma(da)rixan ari giñen dantzan. Eta gero han esan ziguen kalera bajatzen giñenin ahal degunen aldau eitteko eta baezpadare.

- Nola jazten ziñeten?

- Zuri. Dantzari bezela, baiña baezpada´re ordun erten berri zan eta batzuek karlistek, bestiek bestera. Hori esan ziun behintzet, kalera bajautakun aldau eta zera eitteko.

- Eta inguruko herrietara ta juten ziñeten dantza eittera?

- Ba artien hainbesteraíño. Donostin eta izan giñen, Donostin futbol kanpuan, Atotxa zan orduen eta dana beteta, dantzari hamengo Gipuzkoko zera zan, dantzari, futbol kanpo dana beteta egon zan. Neska-mutillak edo. Eta han, beti hori akordatzan zat, anekdota edo nola esaten da, kontue, eta kalien pasieran gebillela emakume batzuk bazetozen eta gu´re bai espaloian pasieran giñozten eta, eta hala esan zixon batek, gu baiño zahartxua: "Quítate de la traba!". Esan zun, eta denda batea jun giñen eroatera "pan de leche" edo zea zan eta, "pan de las diez céntimos".

9.6. Realeko jokalaria izatera pasa

- **Hizlaria(k)**: Sagarzazu Irureta, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-015/011
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:17:23. **Bukatu**: 00:19:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena**: Izarraitz lagun arteko futbol taldetik Anaitasunara pasa zen, eta handik Donostiara eraman zuten, Realera, 21 urterekin. "Interior derecha" postuan jokatu zuen. Ez zuten dirurik irabazten gaur bezala, norberaren gastuetarako adina soilik.

Transkripzioa

- Eta futbol ekipon esan dezu leno ta...

- Hamen ibili nintzen, lagun artien ibili neu lelengo, kuadrille, bi kuadrille edo kuadrille batek ekipue formaute. Izarraitz izena.

- Gero ibili ziñen Anaitasunan edo nunbaitten?

- Bai, gero Anaitasunan. Gero Donostire eman nittuben hamendiken, eta Donostin hantxe jokatzen hasi nintzen, hemezortzi-hemeretzi-hogeta bat urtekin-edo.

- Realen?

- Bai.

- A bai?Ordurako haundia izango zan ba hori ezta?

- Bai, guretzat, Realen jokatzeagatik eta zera eitteatiken, pagau ez zebeñ eitten, justu-justu.

- Ze puestotan jokatzen zendun zuk?
- Nik "interior" esaten zan ordun, "interior derecha" edo. Ematen zuen pagatiken ein ber zendun biajie, fabrikeko jornala galdu eta bazkaldu handikan ein ber, osea hillie pasatzeko're nahikue justo. Ordun oin bezela ordun ez zan fitxajeik eta hola, garai hartan hainbesteraíño zera eitten. Eta gaiñera tratue itterakuen hori bestie gogorra; tratue eitterakuen zer da ta, ni konparazixo batera zer esango dizut, sukaldien, eta beste nerekin jun zienak beste bi haixek tratua itten, osea ni aparte nintzela, osea ze tratu in ze ben ere ez nun han zerik. Ein zani en tratue gero orduen hola eta hola eta.
- Konformau egin behar.
- A bai. Orduen Donostiraíño jun eta jokatzeagatiken eta ere guretzat zera zan, gauza haundixe zan.

9.7. Atzerritarrak fitxatu nahian atzetik, baina etxean bere beharra

- **Hizlaria(k):** Sagarzazu Irureta, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-015/012
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:19:15. **Bukatu:** 00:21:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena:** Realean bi urte egin eta bidali egin zuten; orduan Tolosako taldean hasi zen eta han Realean baino soldata hobea zuen. Hiru urte egin zituen eta beste talde atzerritar batzuetatik eskaera ere izan zuen baina ama alargunak bere laguntza behar zuela eta atzera egin zuen.

Transkripzioa

- Ta gero han bi urte, bigarren urtera edo bialdu in nittuen. Eta gero jun nintzen Tolosara. Eta Tolosan bertan ´e gehixao pagatzen ze ben Realien pagatzen zien baiño gehixao pagatzen zien.
- Eta Tolosakua ze talde zan?
- Tolosa; eta han bi-hiru urte edo, eta han nabillela Alikantera hots ein zien. Eta Alikantera jun nintzen, eta Alikanten bale bezela, baiñe ama alarguna, haure nere behar zan eta. Han bai, han oso, garai hartarako behintzet, eta hamen ingururako han oso ondo. Hara jun bai baiña ez nun fitxau. Gero ama nere behar nola zan ba...
- Bueltau egin ziñen.
- Bai. Ordun izan nittun beste hiru edo lau ekipo´re bai ondoren. Maestranza Aérea edo esaten zixoen bat, haure Huescan edo zera zan eta, han [...], Kanpo Abiazixue, abiadoriek edo ez dakit zer zan. Hola zan ekipue zeukena eta, neuk nahi nun ofizixue erakutsiko ziela eta han pagie ere Donostixen aldien behintzet ba...
- Eta ze ofizio eskau zendun?
- Ez nintzen geratu. Alikanten zera ein nintzenin ez nintzen jun, ez zien laga. Lehen esan de(te)na, amak lotu, amak behar eta ama, haure atenditzeagatiken ba...
- Fubolista ona izango ziñen?
- Ez dakit. Hamen herrixen egon nintzen eta hala izengo nintzen herrireko eta hola zera itteko baiñe, pagau hola gutxi eitten zan.

9.8. Futboleko entrenatzaile eta Anaitasunako aholkulari tekniko

- **Hizlaria(k):** Sagarzazu Irureta, Julen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-015/013
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:21:13. **Bukatu:** 00:23:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena:** Gerora futboleko entrenatzaile lanetan aritu zen Azkoitian eta horretarako, titulua atera baharra izan zuen Donostian. Anaitasunako aholkulari tekniko ere izan zen.

Transkripzioa

- Eta futboleko presidente egon ziñen?
- Ez. Futbolista hamen ibilli nintzen gerora entrenadore. Eta hori titulue atera gendun behintzet Espaiñiko kanpeon atara gendun.
- Nun ateratzen zen titulu hori?
- Kursillue ein ber entrenadorien kursillua.
- Nun, Azkoittin?
- Ez, Donostian, eta eman ziaben. Gero hoixek bi titulo edo zerak die, batzuek hamengo ekipuekin eta zera eitteko, berriz beste batzuk kategoria haundixagoko. Nik txikixa atera nun, haundirako ez nintzen presentau´re ein.
- Ume gaztek entrenatzen zittuzun?
- Geure edadekuok edo, futbola´re kategorixek ba, profesionalen zera hoixei, eta [...], eta ni gero hamen hasi nintzen herrixen eta kanpeon atera nun.
- Eta bitartean lanean jarraitzen zendun?
- Lana, bai. Gero direktibo´re egon nintzen, "asesor técnico" esaten zen hori´re egon nintzen Anaitasunan. Ordun Nanclares edo beste bat zeon entrenadore, eta harekin terzerara edo ixo zan; eta hari lagundu, eta Atotxan jokau gendun Hernanin kontra.
- Zer lan egiten zenun?
- Hari lagundu. Harek berak egiten zun, haure maixu zan, hamen umien maixue.
- Eta hari laguntzen.
- Bai.

9.9. Pilotan sakeko botea garrantzitsua

- **Hizlaria(k):** Juaristi Alberdi, Luxiano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-023/007
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:12:02. **Bukatu:** 00:15:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

- **Laburpena:** Luxianoren ustez berezkoa behar du izan pilotariak, erakusle eta botileroekin ez du federik. Argazkietan begiratuta ikusten zuen bere postura eta jokatzeko modua nolakoa zen. Pilotan, sakeko botea oso garrantzitsutzat jotzen du.

Transkripzioa

-Maixun bat bazenduen bittarte hortan [...]?

-Ez. Hamen izeten da lagunek pelotan ta pelotan ein ta, maixue ta esan eitten dittue, ta bai, bai, ez da txarra izengo, txarra, baiña nik hola gehixei ez det sinisten erakuste kontu hoixekin, zeatik oin'e botillerue beti izen da erakusten egoten dana partidu inportantetan bestiei erakusteko sillen jarritte eoten da, botillerue esaten zako. Ordun nik ez det sinisten horrekin. Nik beti esaten nun ba, botillero. Nik tanto bateatik bestiei emango nitxokek neure botillerue, beti hori esaten nun jokutzen nunin pelotan. Eta iñok ez zin ematen tantoik. Eta atzenin esaten nun: "bueno, lelengo sakia ematen badit, bixek bestientzat", eta orduen ez zien hori're ematen, eta asko ez du balixoko botilleruek. Erakustia ez da erraza, zeatik nik telebisixue ta argazkik, guk erretratuk esaten dixou, erretratuek izan ez balia, nik neuk nittun posturak eta ez nittun jakingo nola eitten nuen pelotan. Pelotan eitten zenula bai, baiña eittetiken ikustera nola itten zenuen alde haundixe dao. Ikusten baldin badezu pelotan nola eitten zuen, ba hain da zaille hola in ber dek eta hala in ber dek eta. Hori esaten erreza da. Zeatik hain erreza izengo baldin balitz, hola in ber dek eta hala in ber dek, on asko izengo litzeke, ta hor berezkue ber du zeoze, aittek eta amak ematen dizuena, handiken haundittu berko da jakinduri hori. Baiña erakutsi... Nik gauze bat, neri esango balie, zer erakutsiko hixoke, este, pelotari bati? Bat ikusten det garbi erakusteko modukua: sakatzera juterakuen, ikusten det botie itten alde haundixe daola hobeto sakau edo geizkixo sakatzeko. Batzuek itten didxoe botie haundigixa, eta haundigixa itten zakonien botia, zuk jotzeko lekutiken gorago jutun baldin bada pelota haura, gero goitti behera plomun jatxi ber du harek, eta orduen goitti behera plomun jaixterakuan, pelotiek pixue ´re haundixaue ekartzen du, ta zuk eskuen jo ber dezun tokixen jotzen zaillo da pixu gehixao daukelako eta azkarrao etortzen dalako. Baiña eitten badixozu botia zeure jo behar dezun parekua, orduen pelotiak izeten du momentu bat geldiu itten dala leku hartan, eta gelditzeko momento hartan jotzen baldin badezu, askozez karga gutxixo eta ondo jotzen errezo da.

9.10. Pareta latzak pilota harrotzen du

- **Hizlaria(k):** Juaristi Alberdi, Luxiano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-023/009
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:21:53. **Bukatu:** 00:23:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Frontoiko pareta zenbat eta latzagoa izan, pilota harrotu egiten du eta ez da ona izaten. Partiduetan praka zuriak eta gerriko gorri edo urdina eramaten zuten. Luxiano anaiarekin aurrelari modura hasi zen jokatzeko.

Transkripzioa

-Harria esan dezu. Frontoiak behar du material espezialen bat hobeto jokatzeko?

-Ba hobeto jokatzeko ez, baiñe pelotie kargu eitteko bai. Zenbat eta paretan latzo (latzago) egon harrixe, narrua, edozer moduan, badakizu, jotzen badu latzien, harrotu eitten zako, eta orduen ez du, behar bezela ez da pelota ibiltzen, pelotiek gaiñeko narru haure behar du oso suabie bere tamaiñuan korridu daixen lurrien jotzen dunien, eta baldin badauke harrotuta narrua ba orduen gutxixo korritzen du, lurrek eutsi eitten dixo ta.

-Eta jazkera ta?

-Ba jazkera ordun zan zurixa dana, eta gero ibiltzen zan, diferentiek bi, parejak baldin bazien edo, manimano jokatzen baldin bazan, ba ibiltzen zan zinturo bat, batek gorrixo eta bestiek urdiña, gerrikua.

-Eta zuk anaiarekin jokatzen hasi ziñenean, zer hasi zinen, aurrelari ala atzelari.

-Aurretik jokatzen nun. Anaixek atzetik jokatzen zun eta nik aurretik jokatzen ekin nixon ordun. Bai.

-Eta anaiarekin denbora askoan ibili zinen, kanpora eta...?

-Bai. Kanpora ta bai. Gero pasau zikun ba, ikaragarritzko zera pasau zikun, guri pasau zizkun gauze danak. Ba afizonauek geundela ba dirue eskintzen ziguen; lelengo ez zan eze kobratzen, kanpeonatuten afizionau zabilhela ez zeuen asko pagatzeik´e ta. Neri beti eitten zien pagatzen, ez dakit zegatiken, pagatzen ekin zien; txikixe nintzelako edo ez dakit zeatiken; behintzet danetan ematen zien zeoze espeziela.

-Ona ziñelako?

-Bai zera ona, ona, artien ez nintzen. Artien, famie eman zien azkar eta asko, baiñe nik banekixen zenbateraiño nintzen eta horretxek salbau nittun.

9.11. Afizionatuek kobratzerik ez

- **Hizlaria(k):** Juaristi Alberdi, Luxiano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-023/011
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:24:28. **Bukatu:** 00:26:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Afizionatuek ezin zuten dirurik kobratu partiduak jokatzeagatik eta federazioak alde egiteko edo bota egingo zituztela eman zien abisua. Luxianok eta beste hainbat pilotari ezagunek bota aurretik eurek alde egitea erabaki zuten eta enpresa ezberdinetan sartu ziren.

Transkripzioa

-Eta ordun ba behintzet han jokatzeri juten giñen leku batera eta bestera eta bestera eta; dirue eskintzen zien eta ba profesionalak askok kobratzen zeben baiño gehixo iguel ematen ekin zien dirua, eta gero bestiek´e, neure lagunak eta ere kobrau itten zeben, danei pagatzen zigun, eta ordun ailegau zan momentu bat federazixuek eta ba kobrau eitten genula eta, itxurie dagonez reglamentuek esaten zun afizonaue baldin bazera ez daukazu kobratzeik. Eta guri dirue ematen ziguelako "vista gorda" ein

zeben pixketien, urte bat edo bi edo hiru edo lau edo bost, eta gero atzenien ba erabai zebeu ba bota edo geuk alde eitteko. Eta ordun onen samarrak [gendenak], oin Ezkurra remontien jokatzen dun Koteto horren aitte ta, Etxabe XI eta Del Val eta, hola onenak zeuren mordoxka bat erten ein genun, bialdu eingo giñuzen bestela eta. Eta hori ekin zixon, prensak´e asko ekin zixon horren kontra, eta izena ipini zixoen "marronismo". "Marronismo", ez dakit ze esan nahiko zun horrek, [...] hori ipini zebeu eta ordun in ziuen ba bota baiño lehen geuk alde ein genun.

9.12. Floreagako patioan Espainiako mapa

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Arizmendi, Carmelo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: AZK-025/004
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:08:37. **Bukatu**: 00:10:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Floreagako patioan Espainiako mapa bat egin zuten erliebe eta guzti Manjonianoen garaian. Irakasle batek nola markatu zuen mapa klarionarekin eta nola egin zuten azaltzen du. Izarraiztik astoekin eramandako harriekin egin zituzten mendiak. Gero salestarrak etorri ziren. Salestarrek beraiek egiten zituzten umeentzako jostailu edo entretenigarriak.

Transkripzioa

- Eta gero, esaten detena, oin ez dakit Floreagan behiñ´e izenda zauren... Patixuen, patixo bat baiño gehixo dauzke, baiñe patixo baten dao lurrien oso ederra dao Espainiako mapia alto reliebikin ta zeakin. Eta ein zaniene, haure ein zebeu zean denporan, "Ave Maríakun" denporan ein zan. Ta oin...
- Zer zan hori?
- E?
- "Ave Maríakoak"?
- Manjonianos edo hoixen denporan ein zan hori. Ta akordatzen naiz nola maixu batek, don Josek, garbiu patixua ta klarionakin mapie markau zuen nola zan. Eta gero, bertako seme batek trongue ebaitzen dan bezelaxe, aixkurikin ebai zuen itsasuk etaatzeko. Ta zeak´e bai, esto... han dauren mendi-tontor haixek-eta Izarraiztiken ekarrittekuek die. Eskolan haundiñek, urtitan aurrera zijuztenak, astuk hartute jun zin harri hoixek ekartzea ta haixekin in zan mendixen zea. Ta mendi azpittiken dauke ure ertetzeko zea. Oseake, oin hustute egongo da, baiñe, orduen, ein zan zea hartan, oso zan politta. Gero itsasue o zea hartan arrai gorrixek ipini zittuen. Oseake, zan umintzat entretenimentu ikeragarrixen zan haure. Bai. Ta gero etorri zien, esan detena, Salesianuek. Ta Salesianuek gero jun ta oin dauren hauek dia 82en etorritta daurenak. Esaten detena, orduen haixek beaixek´e enpeiño haudixe hartu zebeu eta beak -jakiñe, oin bezelako adelantuik eta zerik ez zeuen, eta- beak eitten zittuben umik entretenitzeko zeak... konparazixo batea, zankuek eta zeak beak itten zittuen. Ein ta "Carrera de zancos" ta ipintzen zittuen. Ene! Ze...!

9.13. Madariagako erromeria

- **Hizlaria(k):** Garmendia Artetxe, Jacinta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-031/017
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:34:07. **Bukatu:** 00:36:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Madariagako frontoian erromeria jartzen zuten eta soinu-jolea eta jazbana aritzen ziren. Madariagan helduan dantza egitea libre zen eta jende ugari joaten zen inguruko herrietatik. Iluntzean anjelus kanpaia jo orduko etxera joaten ziren.

Transkripzioa

- Ni neska koskortu nitzeneako, zea haundixe ipini zebe, jazbanak eta oso gauza modernuek. Bai be, ordureko... pentsaizu, urte asko [zaba], nik dauzketan urtikin, [nere gazterixe].

- Erromeria jartzen zuen ordun ´e?

- Bai.

- Marixan?

- Bai, soñue.

- Soñue. Ze soñujole izaten zan?

- Soñujole, mm... gu bueno...

- Akordatze zea?

- Bueno, bai, ointxe jotzen deben /jotzeben/ hola sentzillo-senzillo hori.

- Ta soñujoleak zein zien, ezaunek al zien?

- Bai, haixek zien... ba Elgoibertik etortzen zan bat.

- Elgoibartik?

- `Gelatxo´ esaten zixoben.

- `Gelatxo´?

- `Gelatxo´. Bestie zer zan...? `Gelatxo´. Geo jazbana ´re ekartzen zebe Marixaa.

- Eta jendea jute al zan kaletik erromeira?

- Marixaa asko juten zan! Hamengo ilusixue izeten zan gazterixena haraxe jutie, ta han gaiñea, lagatzen zebe baltziuen eitten.

- Hori galdetu behar nizun: han "agarrau"en uzten zuen?

- Bai! Ta juten zan jentie...

- Ta jendea horreatik jungo zan?

- Hareatik! Bueno, ba, han eitten zan bakarrik haure ta. Hamen ez zaon haure eitteik eta han bai ta, bueno, hare zan baillara alegrie oso.

- Noiz hasten zan erromeria, atsalden o iluntzen o?

- Erromeixe eitten zan arratsaldin. Ta gero kanpaie. Ta kanpaie jotzen zanin illuntzie izeten zan ta erromei haure dana hantxe akabatzen zan. Eta gu, berriz, haure akabatzen zanin ta angelusek jotzen zebe-nien, guk [aitteandiken] danok etxin eon. Angelusek jo ezker, kanpun iñor ez; gure etxin, danak, neska danak behintzet etxin.

- Ohitura horixe?

- Bai, eon beherko.

- Ta nola izaten zan? Ze eoten zien mutillek alde baten ta neskak beste alden ta dantza eskatzen zien alkarri eo nola izaten zan hori?

- Bai, bai, danak nahastien ez zin eoten.

- Ta suelton-ta eitten al zenduen dantza?

- Eitten zan sueltun ´e.

- Zuk eitten al zendun?

- Uuuuhhhh...
- Bai?
- Bai!
- Abarketak urrau arte?
- Azkarra nitzen, gaiñea. Dantzaixe nitzen. Iherra nitzen ba, iher-iherra -oin
´e hala nao ta- ta holaxe.

9.14. Martirietako erromeria

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Azkoitia, Candida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-041/024
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:29:42. **Bukatu:** 00:31:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** 14 urterekin Martirietako erromeriara joaten hasi ziren, baina ordura arte etxean egon izan zen gehienbat ahizparekin. Erromeria igande arratsaldetan izaten zen, eta iluntzerako bukatzen zen. Han gustura ibiltzen ziren, eta jende asko elkartzen zen han. Beste bailara bateko erromeriara joateko, urrutiago zegoen batera, 16 urte izan behar ziren.

Transkripzioa

-Gero Martirittera erromerira hasi giñen.

-Zenbat urte?

-Hamalau urte ber izeten zien erromerire hasteko. Hamalau urtekin hasi giñen. Baiña guk hamalau urte artekue gehiena etxien pasau gendun. Ahizpek eta biok jolasten giñen da. Holaxe ta. Gero Martirittera hamalau urtekin da gero hara jaietan.

-Noiz egoten zan erromeria?

-Jaietan egoten zan. Illuntze baiño lehen akabatzen zan, illuntzeako etxea juteko morun. Ta han pasatzen gendun arratsaldia ba ordu pare bat ero hiru bat ero. Ez asko ere. Puxka bat berandu jutun giñen. Neguan-ta abendun-ta hola amabirjiñien hillin-ta elizeko puntziuek-eta egoten zien eta orduen lentxuao jutun giñen. Baiña bestela holakoik ez zeonien / etzeonien/ ba soiñojole kaskar batzuk egoten zien, han bertako soiñojole izeneko batzuek, ta haiek soiñu jotzen zebeu eo zeoze ta han bertako jendie ta juntatzen giñan, mutillak eta neskak eta. Mutil batzuk igual alboko baillera batzutatik etortzen zien ta. Gu gustora ibiltzen giñen haintxe. Ta gero kanpoa, porejenplo izeten da /izetean/ ba hola beste baillera bateko erromeiye eo, puxkat urrutigora jun beharra eo ta; hara hamaxei urte baiño lehen ezin zendun jun. Hamalau urtekin han bertan bai baiña kanpoko erromei hoietara juteko hamaxei bat izen ber ziñuzen. Hola pasau zan gure denborie.

9.15. Mutil-lagunarekin zinemara

- **Hizlaria(k):** Kruzelegi Arozena, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber

- **Erref:** AZK-046/033
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:44:40. **Bukatu:** 00:45:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Zinema
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena:** Elgoibarko zinema zaharra zen eta ez zen joaten. Mutil-lagunarekin hasi zenean, igandero joaten ziren Azkoitiko zinemara. Ezkutuan jartzen ziren muxuak emateko. Ia 30 urtez ibili ziren nobiotan. Ezkondu zenean joan zen Azkoitira bizitzera.

Transkripzioa

- Ta zineik bazan Elgoibarren? Zineik bazeon?
- Bai, bazan, baiñe zine zahar-zahar... lokala behintzet itxurebeie. Lehenao.
- Juten ziñeten?
- Ni "nunca".
- Ez?
- No.
- Ez zeukezuen ohitturaik zinea juteko?
- Ez, batere ordun.
- Eta antzerkiik o...?
- Geo, en kanbio, hemen, mutille hemengukin hasi nintzenin, ezkondu nintzenekin, gu jaiero-jaiero juten giñen zea... Nola da hemen... Gurea?
- Gurea?
- Jaiero juten giñen zinea. Ta han atzin zeak, palkuek, geo matxuk emateko egundokuek, earrak haixek.
- Ixkutun jarrita, e?
- Bai be. "Los besos, los besos es lo más bonito para mí. No sé, para mí sí".
- Eta, ordun, mutil horrekin hamobost urtekin hasi ziñen eta gero beste bat billatu zenun?
- Ezz, ni "con el primero que empecé...".
- Harekin ezkondu ziñen?
- Haretxekin.
- Aaaa. Eta Azkoitia noiz etorri ziñen?
- [...] ibili giñen, ordie? "Al menos treinta años anduvimos".
- Bai? Ta Azkoitia noiz etorri ziñen bizitzea?
- Ezkondu giñenin.

9.16. Zumaiko flysch-a bisitatzeko lehen ibilaldia

- **Hizlaria(k):** Domenech Arrieta, Mari Consuelo; Domenech Arrieta, Maria Angeles; Domenech Arrieta, Maria Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane
- **Erref:** AZK-070/017
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:31:18. **Bukatu:** 00:33:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena:** Zumaian lehenengo aldiz flysch-a bisitatzeko txangoa antolatu zenean, Maria Jesus eta Mari Lurdes ahizpa gazteena joan ziren. Egunkarian iragarri zuten eta izugarrizko jende pila azaldu zen. Antolatzaileak beldurtuta geratu ziren. Mari Lurdesek dena grabatu

zuen bideoz. Zer ibilbide egin zuten. Marea behean zegoela hasi zuten ibilaldia, baina bukatzerako batzuek busti egin ziren. Ibilbide gogorra izan zen. Gehiago ez zuten era horretan antolatatu.

Transkripzioa

- Maria Angeles: Zeana ´re oso politte, hori guk bota giñuna, zea, Zumaikue.
- Maria Jesus: Flysch-ena .
- Flysch-e. Lehenengo aldixe ein zanin flysch-en eskurtsixue ta beaixek bildurtute geldiu zin.
- M.J.: Bai be, pediodikun anuntziau zebe-ta flysch-ea eskurtzitxue eingo zala. Ta han jun giñen haure ta ni, bixok. Zea... onbre...
- M.A.: Pelikule osue.
- M. J.: Ta jendie... jendie hilaxe juntau zan! Ta bildurtu ein zin Zumaiko jendie...
- M. A.: Bildurtuko ez zittunan, ba?
- M.J.: ... organizau zebe-nak. Ta baiño oso gogorra zala ta oso gogorra zala.
- Mari Consuelo: Oiñetako onak ber ziela ta zea ta...
- M. J.: Oiñetakuk-eta ber zala ta jendik iñok kasoik ez.
- M. A.: Ezta kasoik ´e, danak ertetzeko pronto .
- M.J.: Gero hor ikusten da, baiñe... jendie...
- Hori lehenengo aldixe ein zana?
- M. A.: Lehenengo aldixe ein zana. Oin eitten debe /eittebe/ ya,...oin diferentie da, baiño baiño lehelengo aldixe ein zanin...
- Encarnita: Gaiñea, marea alta zauen ta jaisten...
- M. C.: Ez, aldrebeska, ixilik egon hai, marea baja zauen ta.
- M.A.: Marea baja, gero altatu.
- M.J.: Mendiz jun, ta...
- M.C.: Sakonetaa jeitsi...
- M.J.: Sakonetaa jeitsi eta handiken Zumaire flysch-etiken.
- M.C.: Itsasotiken.
- M.J.: Itsasotiken. Dexente gogor izen zan, baiñe batzuk geixki allegau zin.
- M.A.: Bueno... pelikulen ikusten den /ikusten/, pelikulie asko...
- M.C.: Aaa.. akaberan hiolaxe eitten du /eitteu/ batek.
- M.J.: Ta geo, gaiñea, karo, marea baja. Porke haixek kontun hartu zebe-urtin bajuna ordun zala ta egun hare aprobe-txau zan hori eitteko. Ta ailleau giñeneako...
- M.C.: Ixotzen!
- M.J.: Karo, jendie nekau ta ya ure ya haitz-artetaa ure etortzen.
- Batzuk larri igual?
- Bai! Larri ez, baiño ba... ba... baiño gehixo ez zebe ein hola, e! Gehixo ez zebe ein. Ez zin atrebiu gehixo eitteik.

9.17. `Erlauntza´ filmean noka

- **Hizlaria(k)**: Lizarralde Alberdi, Irati; Lizarralde Alberdi, Leire
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Erref**: AZK-076/024
- **Iraupena**: 0:00:36. **Hasi**: 00:19:19. **Bukatu**: 00:19:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Zinema
Euskara » Tratamenduak

Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

- **Laburpena:** Hitanoko erreferentzia gutxi dago eta dauden apurrak toka. Leirek dio berari asko gustatu zitzaiola `Erlauntza` filmean noka entzutea eta halako erreferentziak behar liratekeela uste dute.

Transkripzioa

- Hitanoaren erreferentziarik badagoela uste duzue?
- Irati: Gutxi.
- Leire: Gutxi. Ni akordatze naiz...
- Irati: Ta, eotekotan, mutillena.
- Leire: Jo, akordatzen naiz, ordie, `Erlauntza` filma ez dakit ikusi zenuten...
- Irati: Bai.
- Leire: Bueno, ni jun nitzen ikustea ta neretzako gozada bat izen zan. Gero askok eztabaidau zebe nola ibili zebe, pelikula baten ibili ber dan o ez, baiño neretzako jutie Baztartxo ta pelikula bat osoik hitanoz aitzie, neskak beaixen artin noka, nik pilla bat disfrutau nun. Ta zan ez gaudelako ohittute hori entzutea.
- Irati: Bai, ta holako gauzek laguntzen debe /laguntzebe/. Esan nahi det...
- Leire: Bai, baiño ez da ohikue.
- Irati: Baiño ez da ohikue.

10. Lanbideak

10.1. 12 urterekin eskola utzi eta okin lanetan etxean

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Larrañaga, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-016/002
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:01:52. **Bukatu:** 00:03:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** 10 senideetan gazteena zen eta okin lanetan jardun zuen 12 urterekin hasi eta 18ra bitartean. Sei urterekin eskolan hasi eta 12 urterekin utzi zuen anaia gerrara joan eta haren lekuan okin lanetan hasteko. Lan ugari izaten zuten eta morroia ere bazuten etxean. Morroiaren inguruko kontuak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Eta baserriko bizimodue eitten zenduen? Baserritik bizi ziñeten?
- Basarritikan... bueno, gurien basarritikan bakarrik etzan bizi, gurian errota ta panadeie zien zeak. Gero basarrie, basarri txikixe zan ta han jardutzen genun. Hamar senide giñan ta ni gaztena. Ta gero, ba, handikan ahal zunak ahal zun lekura erten ber lanea.
- Ogie-ta eitten zenduen?
- Ogie? Bai, asko. Nik panadero jardun nun hemezortzi urte arte etxin, hamabi urtekin hasitta. Eskolara hasi nitzen sei urtekin ta hamabi urtekin eskolatik geldiu. Nola anai bat soldau jun zan Afrikaa, ta geo haren lekure sartu in ber nun panadeira. Dana etxekuk eitten giñun. Geo morroie´re egoten zan zean, Landakandan, artin, pentseizu, bertakuk asko giñan,

baiña gero ezkontzen hasi zienin batzuk, ba... Martitten sakristau daona´re gurin morroe egondakue da. Haure nere lehengusue da, haure nere anai bat bezela izendakua, alkarrekin lo asko in giñun. Haure gurin egon zan, ba, aurrena morroi; gero, berriz, gurien apopillo egonaz lanea hasi zan kalea, ta zazpi urte edo pasau zittun gurin. Ta ordun, badakizu, senide asko ta ohiek gutxi zin ta bakoitze biñaka lo itten giñun ohien ta "Sakristauak" eta nik lo asko in giñun alkarrekin.

10.2. Arrandegi bateko errekadista

- **Hizlaria(k):** Juaristi Alberdi, Luxiano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-023/002
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:01:10. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Ez du gogoan eskolara joan zenik. Zazpi urterekin Azkoitiko mediku ezagun batengana eraman zuten eta birika bat zikinduta zuela esan zioten. Eskola utzi eta bere burua zaindu behar izan zuen. Arrandegi baterako enkarguak eramaten aritu zen umetan.

Transkripzioa

- Eta eskolara eta txikitan?

- Hortxe jo dezu punto fuertena. Ba ni esateko ez naiz akordatzen eskolara jundakoik, zegatik zazpi urte nittula edo, zeoze banula, banula zeoze eta mediku batena eaman nittuen hamen, Azkoittidxen, Artzuaga zan hamengo mediku onen samarra orduan, ta harek ba radidxuen ikusi ta pulmoie mantxaute neukela, ta eskola ta batez eta jan hobeto eta deskantsua; osea ke itxurie daonez haure izengo zan orduko medikamentua gaixuk sendatzekua, zeaittik sanaterixuek eta´re hamen´e bazeon bat, San Martiñen edo.

- Zer?

- Petxutiken esaten zigun orduan pulmoie mantxatzen zigonai, eta haidxek ematen zittuen leku batea, eta hamen zeon, hamen relojue daon toki hontan, ba San Martiñen, sanatoixu o esaten zion, eta han ematen izkoen jatekuek eta bere lo ta dana ta, han ibilliko zin. Ba nei esan zin hoidxe. Basarri batea o eamaten banittuen arnasa ona hartu, jan hobeto, deskantsue, ta nere eskolak han gastau zin. Ordun egon nintzen, ez dakit be, bi urte edo hola, eta gero amak bialdu nittun egun batin hamen arrandeira, arraixe ekartzera o, antxoak edo ez dakit ze izango zien, eta han esan tzien: "eamango al dezu holako tabernatara?" ta; eaman nun eta gero etorri nintzenin beste leku batea eta, etxeako arrain pixket emango ziin, ta "bihar etorriko al zera?", ta hala pasau nittun han beste bi-hiru urte edo lau urte. Eta nere eskolak han akaau zin.

- Gaixo zenbat denbora pasatu zenun?

- Gaixo, gaixo, ni neu ez naiz akordatzen ohien ta egondakoik. Baiñe deskantsue, ta geo gaiñea medikuek´e ikusi nittun egunen batian pelotan edo, ta ez eitteko ero amai errita, ba deskantsu behar nula eta hola. Gero Donostira aman lagun batzun bittartez eaman nittuen, han Urbina edo bazan, ta harena, ta haren bittartez medikue, ta haren bittartez ba gero

sendaiko nintzen. Nik eztakitt iñok esan zin sendaute neunik edo ez neunik, baiña. Gure eskolak han akabau zin. Handik aurrera izen zan betik zeoze lana eittia.

10.3. Bizikleta alkatu eta mojej arraina eramatera

- **Hizlaria(k):** Juaristi Alberdi, Luxiano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-023/004
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:04:40. **Bukatu:** 00:07:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Arrandegitik aberatsei etxera eraman ohi zien arraina Luxianok. Bizikleta alokatu eta mojej arraina eramatera joaten zen. Arraina gutxik jaten zuen orduan; bi gizonen aipamena egiten du.

Transkripzioa

-Esan dezu arrandegian aritu zinela lanean?

-Bai. Arrandeixen enkarguak eitten, orduen ematen zan arrandeire diru pixket zeuenak edo tabernak ta, enkargatzen zeuben arrandeire ta handiken bialtzen zan baten batekin, eamaten zan baitte etxe partikularretara ´re, bazien Azkoittin orduen sasoe hartan ondo xamar bizi zienak, jeneralien izete zan, eta haixena etxera eamaten ziun arraixa eskatzen zebera.

-Eta ze joaten zinen, oinez?

-Bai, bai. Gero zera bai juten nitzen, gero atzenengo orduen, arrandeixe eguerdi aldera juten zanin, orduen legatzan kokotie esaten zigon, gutxik jaten zeuben orduen, eta buzten antza´re bai, haixek gutxio jaten zin, edo mendreska atunena, eta orduen haixek danak otarra batien ipini ta monjataa eamaten zin, baiñe monjataa etzan debalde amaten e, eamaten zan ba, merke bai, besten aldien merke, eta orduntxe juten nintzen, bizikleta bat alkilau itten zeuben leku batian, eta biziklita haure hartu ta monjataa, pixkat apartiao egoten zan haure, eta haixei eamatea juten nintzen, bai.

-Eta dirurik ordaintzen zizuten?

-Ba pezetan bat bi edo hiru bai, baiñe haundiñe zan ordun jatekue eamatie etxera, eta jatekue ematen zien. Osea ke ematen zun, ba lehen esan dizutena, monjataa eamaten genun tipokua, zea, kokote-antza legatzana eta buzten antza eta pusketak sobratzen zienak, haixek etxeako ematen zittuen eta; orduen gauze haundixe zan etxea eamatie danantzat jatekua.

-Arraia orduan gauza preziatua izango zan.

-Bai. Preziatue. Orduen, nik eztakitt, jaten gutxik zekixen. Azkoitixen jaten zekixenak ni akordatzen naiz orduen, gizon bat, "Makarra" esaten zixuen, oiñ Ibarria ta taladruek dauzken hoixen aitte zan, eta oso aurreratue zan gauzek eta etaatzen eta bere gauzek eitten, kotxe zaharrekin berrixek in eta zea ta, beti aurreako, zea hortako adelantua bazun, esaten zeuben geiñera argixe ´re Azpurutxon edo baserrin batin lelen berak ipiñi zula urekin edo zeoze, eta holakuek. Eta jaten, ni beti akordatzen naiz, gehixenak zekixenak Azkoittin haure eta bestie Patateronekue Ziriako bazan azpeittiar bat, hamen surtidoretakuekin ezkondata, ba haixek bixek zin orduen iñrk, danak despreziau edo bajuenak gelditzen zien legatz-kokote-a mendrexka-ta jaten zittuenak, gero fama haundixa hartu zebernak.

10.4. Arraina dirudunen eskura soilik

- **Hizlaria(k):** Juaristi Alberdi, Luxiano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-023/005
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:07:38. **Bukatu:** 00:08:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** 3 urte inguru egin zituen arrandegiko lanetan. Goizean 8 eta erdietarako iristen zen arraina trenean eta Luxiano ordurako joaten zen bila. Arraina dirudunen eskura zegoen soilik.

Transkripzioa

-Eta zenbat denbora pasa zenuen han?

-Ez naiz akordatzen, baiñe hiru bat urte edo pentsatzen det pasau nittula.
 -Eta gustora?
 -Ba gustoko lana zer zan´e ez [giñugun] ordun, hori ein in ber zala eta ein. Goizin jaikitzi pixket kostatzen zizten ohetik, zortzitterditan aillegatzen zan trena eta ordun arraidxe ekarri eta ordun jun ber izeten zan hara eta beti presaka ibiltzen nintzen.
 -Trenen ekartzen zuen?
 -Arraidxe trenien ekartzen zeбен. Bertako nausixe Donostira jutен zan bezperan, ta berak apartau ta arraixek hartzen zittun eta gero hurrungo goizin trenien etortzen zan zortzitterditan.
 -Azkoiti inguruko etxe pila bat pasauko zittuzun.
 -Ez. Ez eizu pentsau etxe asko. Etxiek oso kontautakuk zin, zeatik e ondo samar bizi zana, zeatik diru gutxi zeukenak ez zeuken "bialdu izek" eta berak ipinittako prezixue izeten zan eta gauze danak. Eta gutxi zeukenak bera junde´re nahiku lan bazun ordun.

10.5. Neskame zeneko bizimodua

- **Hizlaria(k):** Aramendi Aranberri, Angeles
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-040/014
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:20:38. **Bukatu:** 00:21:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Neskame zebilen bitartean, etxera igande arratsaldetan bakarrik etortzen zen. Urtean 50 duro irabazten zituen, eta etxean ematen zuen diru hori. Gurasoak baserritarrak ziren, ez zuten kanpoan egiten lan.

Transkripzioa

-Etxera etortzen ziñen neskame tokitik edo han lo eitten zenune?
 -Ez, han lo eitten nun. Etxea etortzen nintzan jai arratsaldien, eta illuntzin nahiz udara izen nahiz negue izen zortzitterdietan etxea, (...)
 -Jornal ona irabazten zenun?
 -Jornal ona? Bai. Berrogeita hamar duro urtin. (...) Duruk. Harekin ze ein ber zendun?
 -Irabazitako hura etxean entregatzen zendun?
 -Bai makiña bat bidarrez. Gero gastatzeko zeoze (zeten gendun) baiña ordun gurasoek diruik etzeukeben da entregau ein ber. Oin bezela ezta, oin irabazittakue peztie berak dana, berak dana puxkatzeittu, baiñe ordun gurasoek baten batei emateko behar zeban-da.

10.6. Josteko tresnak eta gauzak

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Azkoitia, Candida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-041/011
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:11:22. **Bukatu:** 00:12:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena:** Josten ikasi zuen, eta zer gauza egiten zituzten aipatzen du. Josteko erabiltzen zituzten tresnak deskribatzen ditu. Makinan bordatzen ikasten ere

Transkripzioa

-Josten ere ikasi zenuten orduan?

-Puntera hoiek eitten. Bestela prendaik eta ezkendun eitten, ezkendun josten prenda osoik eta. Oïñ, izerai letrak ein-da, zizkako izera txiki batzuk adornau ta, holako gauza txiki batzuk eiten giñuzen, paiñoluak eta, hola; puntera hoiek eitten ikesteko.

-Eta ze traste zeuzkazuen haiek eiteko, ze tresna ibiltzen zenduen?

-Ba ordun izeten zan, "estuche de coser" ero, hola estutxetxo kuadrautxo bat izeten zan hariyekin, titeriekin; jostarratza, beste guraize txiki batzuk; holakotxe batzuk. Haure ba igual erregietan eo noizbaittien ekartzen zizuen da. Poz haundie haura ekartzen zebenien e.

-Eta bordatzeko?

-Bordatzeko izeten zan bastidoria, esaten giñon. Eukitzen zun holako zer bat; sartu han zea, telie, ta gero beste bueltako batekin estutzen zan tela haure. Bi bueltan goien erdien. Eta gero azpittik eta gaiñetik, azpittik eta gaiñetiken bordatzeko. Hauraxe.

10.7. Non ikasi zuen josten

- **Hizlaria(k):** Zubizarreta Azkoitia, Candida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-041/013
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:13:10. **Bukatu:** 00:14:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena:** Makinan bordatzen ikasteko, Ana Mari Atanorengana joan zen. Udan hotelera joaten zen lanera; eta neguan Azkoitiko jostundegi batean (Kabuenekoan) ikasten zuen soinekoak eta josten.

Transkripzioa

-Josten, makiñan josten ikasten...

-Makiñan bordatzen ikesten ibilli giñen.

-Kalean nun ibilli ziñen?

-Geo josten, makiñan bordatzen ikestea juten giñen Ana Mari Atanona. Oïñ denda haure itxitte dao, neskaxahar bat dago oïñ. Mariano Atanon alaba. Gero josten, eskuko erropak eta josten ikesten uden hotelea juten giñen, eta geo negun etortzen giñenin ba ez gendun eukitzen... Ba baserrien lana egoten zan baiña ya baiña beste zeozer e in giñikien. Eta jostundei batea jun giñen erropak josten ikisteare. Soinokuak eta holakuak.

-Azkoittian.

-Bai, Azkoittin bertan. Kabuenekue zun izena.

-Kabuenekue?

-Bai. O Kamiñeronekue, biek esaten ziyuen. Kabue ta kamiñerue ere bat die ta.

11. Bestelako kontuak

11.1. Ospe handiegia ematearen kaltea

- **Hizlaria(k):** Juaristi Alberdi, Luxiano
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** AZK-023/010
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:23:57. **Bukatu:** 00:24:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- **Laburpena:** Behar baino lehen ospe handiegia emateak ekar ditzakeen kalteak.

Transkripzioa

Gaur deportien asko pentsatsen det galtzen diela bidian ematen zakuelako neri eman zien bezelaxe fama haundixe eman eze ez dan bittartin artin, eta berak sinistu haura eta orduan zaille da gero aurrea jutia. Behar du, zeu zenbateraiño zean jakin behar dezu lelengo zeoze izen behar baldin badezu. Eta pentsatzen badezu dana zeala, orduen gutxi aurrera eitten dezu.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Eskolarako gogo gutxi (AZK-001/001)

4 urterekin hasi zen eskolan, eta zer orrazkera eramaten zuten azaltzen du. Eskolarako gogorik ez zuten izaten. Behin, piper egin zuten, eta baserri batean jaten eman zieten. Etxerakoan, ordea, berriro bazkaldu behar, eta lagunak botaka egin zuen. Azkenean, egia esan behar izan zuten etxean. Eskolan zeudenean, edozein aukera aprobetxatzen zuten kalera joateko.

2. Laneko bizimodua (AZK-001/002)

15 urterekin fabrikan hasi zen lanean. Goizeko 04:30ean jaiki, eta 09:00ak arte egoten ziren han. Horren ostean, abarketak josten zituzten. Igande goizetan mezetara joaten ziren: arratsaldetan, mendira joaten ziren; han mutilekin barre egiten gustura egoten ziren.

3. Mutilarekin (AZK-001/003)

Mutilarekin ateratzen hasi zen, eta 7 urte eman zituzten nobio gisa. Igandetan bakarrik egoten ziren elkarrekin, eta asko jota larunbatetan ere. Zer-nolako planak izaten zituzten azaltzen du.

4. Eztei-bidaia (AZK-001/004)

Eztei-bidaian hilabete eman zuten, eta nondik ibili ziren azaltzen du: Espainiako hainbat hiri bisitatu zituzten, haietan familiartekoak baitzituzten. Bidaia hartan, denbora asko moja artean eman zuten.

5. Bi mutilen abenturak (AZK-001/011)

Erromeriara neska bila joan ziren bi mutilen istorioa kontatzen du. Han zeudela zaparrada izugarria bota, eta inguruko etxe batean eskatu zuten gauerako ostatu. Arropa guztia bustita zutenez, biluzik egin zuten lo, eta hurrengo goizean neskameak hala ikusi zituenean, beldurtu egin zen.

6. Andra Mari jaiak (AZK-001/013)

Andra Mari jaietan zer ohitura izaten ziren azaltzen du. Behin, korroan dantzan, mutil batek azazkala haragian sartu eta zauria egin zion.

7. Soroko lanak (AZK-003/003)

Soroko lanez hitz egiten du. Auzolanak aipatzen ditu, eta nora joaten ziren gari jotzera. Gari-jotzea nola egiten zen azaltzen du.

8. Garia eta artoa, ogia eta taloa (AZK-003/004)

Garia eta artoa zertarako erabiltzen zituzten azaltzen du. Ogia egiteko prozesuaz hitz egiten du: errota, labea, noiz egiten zen... Baserriko ogia eta orain saltzen den ogia alderatzen dituzte, eta garai hartako ogia non egiten zuten ondo aipatzen dute.

9. Euskara batua eta ikastola (AZK-003/012)

Euskara batuari buruz hitz egiten dute, eta beren hizkerarengandik zertan bereizten den azaltzen dute. Herriko ikastolaren sorrerari buruz hitz egiten dute.

10. Eskolan ikasitakoa (AZK-003/014)

Eskolan gutxi ikasi zuten. Eskolan erdaraz egin behar izaten zuten, baina kalean dena euskara egiten zuten.

11. Herriko lantegiak (AZK-003/017)

Azkoitian lehen hiru tailer bakarrik zeuden. Fabriketan zer lan-baldintza zeuden azaltzen dute.

12. Baserriko bizimodua umetan (AZK-004/001)

Baserriko bizimodua txikitan: eskolara gutxi joaten ziren ordubeteko bidea zegoelako haraino, baserriko lanetan aritzen ziren, 11 anai-arreba ziren, hanka hutsik ibiltzen ziren...

13. Baserriarren arteko liskarrak (AZK-004/002)

10-16 urte bitartean, etxeko lanak egiten ibili zen. Artzain ibili zen, eta behin tiro-hotsak entzun zituen, gizon batzuen arteko liskarra zela eta. Izan ere, garai hartan, baserriarren artean eztabaida zegoen: batzuek ganadua mantendu nahi zuten; besteek, ordea, pinuak jarri eta ganadua kendu. Azkenean, pinudiak jarri ziren, eta Maria Luisaren etxeko egoera ekonomikoa okertu egin zen.

14. Ezkondu aurretiko bizimodua (AZK-004/003)

16 urterekin neskame joan zen. Orduan irabazten zuen dirua pozik ematen zion amari. Garai hartan zer-nolako bizimodua zuen azaltzen du: erromeriak, mezak, bizipoza gauza xumeetan izaten zuten... 20 urterekin ezkondu zen.

15. Arratera txangoa egitean, dirua pixkanaka gastatu (AZK-004/004)

Neskame zegoela, Arratera joateko 25 pezeta eskatu zizkion amari. Dirua pixkanaka nola gastatu zuen azaltzen du.

16. Ezkon-bizimodua eta baserrirako bidea (AZK-004/005)

Bere senarrarekin ezkondu zenekoa kontatzen du. Haren familia ez zen aberatsa, baina gustura bizi izan da Maria Luisa han. Etxerako errepidea egiteko dirurik ez zuten, baina auzokoek ez zieten lagundu. Azkenean lortu zuten ordaintzea, eta bai senarrak bai berak autoa gidatu zuten urte askoan.

17. Autoak gidatzen zituzten emakumeak (AZK-004/006)

Garai hartan, emakumeek gidabaimena izatea gauza arraroa zen. Gidatzen zekiten emakume bakanak zein ziren aipatzen du. Maria Luisak land roverra gidatu zuen 13 urtez, eta gerora beste zenbait auto erabili izan ditu.

18. Aurrerapenak baserrian ez uste bezain miragarriak (AZK-004/008)

Bigarren haurra izan zuenean, senarrak garbigailua oparitu zion, baina ez zen nahi bezain mirarizkoa: garbitu bai, baina arropen inguruko gainerako lanak ez zituen egiten. Beren etxean gurdia zuten, eta hori ere aurrerapena zen ingurukoan aldean.

19. Neskame zeneko eta baserriko lanak (AZK-004/010)

Neskame egon zen etxean gustura egon zen. Han zer lan egiten zituen azaltzen du. Auzolanei buruz hitz egiten du.

20. Katekista lanetan irakatsi eta ikasten (AZK-004/014)

14 urtean ibili zen katekista. Zergatik hasi zen azaltzen du. Irakatsi bai, baina ikasi asko egin zuen.

21. Familia eta lana nola bateratu (AZK-004/015)

Etxetik kanpo egiten zuen lan eta 7 seme-alaba zituen; hori aurrera eramateko asko lagundu izan dio beti koinatak, berekin batera bizi izan baita beti etxean. Emakumeak etxetik kanpo lan egiteari buruz hitz egiten du.

22. Umea zeneko bizimodua eta aldaketak (AZK-006/001)

Baserriko lanetarako tresnak asko aurreratu dira. Eskolan lan gutxi izaten zuten, etxean izaten zutelako lana.

23. Baserriko lanak egiteko, auzokoek elkarri laguntzen (AZK-006/002)

14 urtetik aurrera, etxean lanean ibili zen. Soroko lanak nola antolatzen zituzten azaltzen du. Garia ebakitzeko auzokoek elkarri laguntzen zioten, eta lan-banaketa nola izaten zen aipatzen du. Egun haietan pozik egiten zuten lan.

24. Gari-jotzeko eguna eta prozesua (AZK-006/003)

Gari-jotzeko, soroan ihartzen eduki behar izaten zen garia. Ondo lehortzen zinean, metak egiten ziren, eta garia jotzen zen. Gari-jotzea egiten zen eguna nolakoa izaten zen, eta lana nola banatzen zen azaltzen du.

25. Gari-garbitzea eta basoko lanak (AZK-006/004)

Gari-garbitzeaz hitz egiten du. Baserri inguruan garo asko bazeuden, baserri ona zela esaten zen. Garorik eduki ezean, mendira joan behar izaten zuten. Noiz eta nola joaten ziren azaltzen du.

26. Etxeko lanak baino nahiago mendiko lana (AZK-006/005)

Berak nahiago izaten zuen mendira joan etxean geratu baino. Etxean zer lan egoten ziren azaltzen du.

27. Behiak gauzez galtzen zirenekoa (AZK-006/006)

Udan, behiak iluntzean ateratzen zituzten larrera. Urik ez zenez etxean, putzu batera eramaten zituzten ura edan zezaten, baina iluna zegoenez, eta bide pixka bat bazegoenez haraino, behiren bat han geratzen zen beste guztiak etxera itzultitakoan. Orduan, haren bila ibili behar izaten zuten. Nolako behiak izan zituzten azaltzen du.

28. Jaietako planak: zinera joatea edo paseatzea (AZK-006/007)

Jaietan zer egiten zuten azaltzen du: beren baserria kaletik erromeriatik baino gertuago zegoenez, kalerako joera handiagoa zuten. Neguan, zinera joaten ziren eguraldi txarra zenean; eta, bestela, kanean gora eta behera ibiltzen ziren, emakumeak ezin baitziren tabernatara sartu. Behin zinean argia joan, eta beranduago itzuli ziren etxera; etxean, ordea, bizilagunak errieta handia bota zien berandu iristeagatik.

29. Udako erromeriak eta haietara joateko bideak (AZK-006/008)

Udan, batzuetan erromeriarara joaten ziren. Oinez joaten ziren, eta zer bide hartzen zuten horretarako azaltzen du. Errepidean ez zen ia autorik ibiltzen.

30. Apaiz eskuzabalaren istorioa (AZK-006/009)

Don Domingo abadeak kontatzen zuen istorioa kontatzen du: apaiz batek zuen dena ematen zien pobreei, eta batzuetan beretzako ezer gabe gelditzen zen. Horrelakoetan, lagunak etxera joaten zen jatera, eta nola jaten zuen kontatzen du.

31. "Deabruak" sagarrak lapurtu zitueneko istorioa (AZK-006/010)

Abadeak kontatutako istorioa kontatzen du. Kanean baserrian baino gose gehiago zegoen garaian, bi gizon baserri batera joan ziren sagarrak lapurtzera; eta baserritarrak harrapa ez zitzaizkien, trikimailu bat erabili zuten.

32. Liburu txarrak erre behar zireneko istorioa (AZK-006/011)

Abadearen istorio bat kontatzen du. Behin ba omen zen abade bat bekatuaz hitz egin zuena: dena zen txarra, dena zen bekatua, eta fededunei eskatu zien etxean liburu txarrak bazuten, erretzeko. Haietako batek, hori entzunda, etxeko liburu txarrena erretzea erabaki zuen: zorrak apuntatzeko liburua, hain zuzen ere.

33. Pilotak egiten belaunaldiz belaunaldi (AZK-007/002)

Familian belaunaldiz belaunaldi nola erakutsi izan duten pilotak egiten azaltzen du.

34. Pilotak nola egiten ziren (AZK-007/003)

Pilotak nola egiten ziren azaltzen du pausoz pauso. Materiala Amazonasetik eta Asiatik ekartzen zuten.

35. Pilota bakoitzaren nortasuna (AZK-007/004)

Pilota bakoitzak bere nortasuna daukala aipatzen du. Zer-nolako pilotak egoten ziren, eta nola egiten ziren azaltzen du.

36. Eskuko pilotak nola egiten ziren (II) (AZK-007/005)

Eskuko pilotak nola egiten ziren azaltzen jarraitzen du.

37. Erremintako pilotak (AZK-007/006)

Erremintako pilotak desberdinak izaten ziren. Eta haiek egiteko, material desberdina erabiltzen zuten.

38. Pilota goxoak (AZK-007/007)

Pilota goxoak aipatzen ditu. Partidua zenean, eskuak berotzeko erabiltzen ziren pilota horiek. Pilota horiek deskribatzen ditu.

39. Piloten tintea (AZK-007/008)

Piloten tinteari buruz hitz egiten du.

40. Abarkak egiteko prozesua (AZK-007/011)

Abarkak nola egiten zituzten, eta zer tresna eta material erabiltzen zituzten azaltzen du.

41. Pilotari buruzko beste sekretu batzuk (AZK-007/012)

Pilotaren beste sekretu batzuk kontatzen ditu: pilota beratzen uzten zuten, lehortu egiten zen, eta pilota hura bat egiten zen. Horregatik, pilota biziagoa izaten zen.

42. Pilota erabiltzeko egiten zutena (AZK-007/013)

Pilota erabili egiten zen gero. Frontoia nola hartzen zuten kontaktzen du, eta pilotak saltzeko nola egiten zuten.

43. Gaitasunen araberako pilotak (AZK-007/014)

Bakoitzak norbere gaitasunen araberako pilota eskatzen zuen.

44. Frontoia eta pilotaren garrantzia jokatzeko garaian (AZK-007/016)

Frontoia, pilota eta materialaren arabera aldatzen da jokoa. Lehengo jokoa eta oraingoaren arteko aldeak aipatzen ditu.

45. Pilota partidako jokaldiak lehen (AZK-007/017)

Pilota partidaren lehen egiten ziren jokaldiak azaltzen ditu.

46. Pilota partidako lexikoa (AZK-007/018)

Pilota partidako lexikoa eta haren esanahia aipatzen du.

47. Joko motak lehen eta orain (AZK-007/021)

Zer joko mota dauden azaltzen du. Lehen eta orain egiten ziren jokaldiak alderatzen ditu.

48. Botileroaren zeregina (AZK-007/023)

Botileroaren zeregina zer den azaltzen du.

49. Piloten tintea (AZK-007/028)

Piloten tinteari buruz hitz egiten du.

50. Abarkak egiteko prozesua (AZK-007/031)

Abarkak nola egiten zituzten, eta zer tresna eta material erabiltzen zituzten azaltzen du.

51. Pilotari buruzko beste sekretu batzuk (AZK-007/032)

Pilotaren beste sekretu batzuk kontaktzen ditu: pilota beratzen uzten zuten, lehortu egiten zen, eta pilota hura bat egiten zen. Horregatik, pilota biziagoa izaten zen.

52. Pilota erabiltzeko egiten zutena (AZK-007/033)

Pilota erabili egiten zen gero. Frontoia nola hartzen zuten kontaktzen du, eta pilotak saltzeko nola egiten zuten.

53. Gaitasunen araberako pilotak (AZK-007/034)

Bakoitzak norbere gaitasunen araberako pilota eskatzen zuen.

54. Frontoia eta pilotaren garrantzia jokatzeko garaian (AZK-007/036)

Frontoia, pilota eta materialaren arabera aldatzen da jokoa. Lehengo jokoa eta oraingoaren arteko aldeak aipatzen ditu.

55. Pilota partidako jokaldiak lehen (AZK-007/037)

Pilota partidako lehen egiten ziren jokaldiak azaltzen ditu.

56. Pilota partidako lexikoa (AZK-007/038)

Pilota partidako lexikoa eta haren esanahia aipatzen du.

57. Joko motak lehen eta orain (AZK-007/041)

Zer joko mota dauden azaltzen du. Lehen eta orain egiten ziren jokaldiak alderatzen ditu.

58. Botileroaren zeregina (AZK-007/043)

Botileroaren zeregina zer den azaltzen du.

59. Botileroak nola laguntzen duen (AZK-007/047)

Botileroak nola laguntzen dion pilotariari azaltzen du. Funtzio psikologikoa du, baina taktikaz ere jakin behar du.

60. Bertako irakasleak eta maistra nazionalak (AZK-009/005)

Urrategiko eskola oso gogoko zuen; bertako maistra zuten. Hasieran, inguruko jendea izaten zen maisu, baina gero maistra nazionalak etortzen hasi ziren. Erdaraz egiten bazuten ere, euskaldunak ziren. Maistra haietako bati buruzko kontuak.

61. Dena erdaraz ikasten zuten (AZK-009/006)

Orain baino azkarrago ikasten zuten eta dena liburu batetik. Nazionalak ez ziren irakasle gogorak; batek euskaraz hitz eginez gero, jatekoa kentzen zien. Dena erdaraz ikasten zuten. Ahizpa baten pasadizoa eskolan euskara eta erdara zela eta.

62. Gurasoak Urrategikoak; eskolatik irteteen jolasera (AZK-009/010)

Aita Ubegietatxokoa eta ama Zabaleta baserrikoa ziren, biak Urrategikoak. Eskolatik ateratzean etxean lan ugari bazuten ere saiatzen ziren etxeratu aurretik jolasean.

63. `Herri Gaztedi´-ko kide (AZK-009/019)

`Herri Gaztedi´; taldean ibili zen Salome. Orduan bost lagunetik gora biltzeko eliz giroko talderen batean izan behar omen zen. Hainbat talde zeuden: "Acción católica rural", "Juventud católica obrera"... Bilerak egiten zituzten gau-eskola lortu edo auzotarrei laguntzeko. Herri txikietan indar handiagoa omen zuen `Herri Gaztedi´&k.

64. Azkoitiko parrokian ezkondu eta Lovainara bidaiari (AZK-009/020)

Ezkondu zirenean, Lovainara joan ziren Salome eta gizona. Lagun katalan batzuei buruz hitz egiten du. Azkoitiko parrokian ezkondu ziren. Seminariotik ikastera joandako gazte ugari zegoen Lovainan eta lagun ugari zuten bertan; haien etxeetan pasa zituzten egunak. Anekdotak bat eta ezkon-bidaiako kontuak aipatzen ditu.

65. Urrategiko bidea auzolanean; gari-jotzea (AZK-009/025)

Urrategiko bidea auzolanean eta eskuz egin zuten. Martitatik etorritako jendeak ere laguntzen zien. Bukatu zenerako Salomek 15-16 urte zituen. Gari-jotzeaz eta ondoreneko otorduez hitz egiten du.

66. Soldadutza Donostian; gosea (AZK-010/005)

Soldadutza egitera Donostiara joan zen. Baina aurretik, 23 hilabete egin zituen kolejioan, etxera etorri gabe. 70 bat behi izaten zituen ukuiluan, eta lau lagun aritzen ziren haiek zaintzen. Handik 21 urterekin soldadu joan zen; gose izugarria pasa zuten. Orduko pasadizoak kontaktzen ditu.

67. Sakristau egon zeneko kontuak (AZK-010/010)

Manuel sakristau lanetan aritu zen eta beste sakristauekin batera txangoak egiten zituen. Lekeitiora egindako txango bateko kontuak kontaktzen ditu.

68. Lotuan dantza egiteko debekua (AZK-010/012)

Dantza lotua egiten zuena deskomulgatu egin ohi zuten; zigorra kongregaziotik botatzea izaten zen. Kongregazioan hilero konfesatu behar izaten zuten. Orduko pasadizo bat kontaktzen du konfesioen inguruan.

69. Jaunartze txikia eta handia (AZK-010/013)

Jaunartze txikia zazpi urterekin eta handia hamaikarekin egin zituen. Jaunartzea egitera baraurik joan behar izaten zen. Pasadizo bat kontaktzen du.

70. Santa Ageda eskerako ohitura (AZK-010/015)

Santa Ageda eskean kantuan ateratzeko ohitura handia zegoen, baina Manuel ez zen behin ere atera. Egun osoan ibiltzen ziren eta bildutako diruarekin hurrengo asteburuan bazkaria egin ohi zuten. Soinujole batzuk izendatzen ditu.

71. Azpeitiko azokara oilaskoak saltzera (AZK-010/017)

Azokara ama jaisten zen Azpeitira oilaskoak saltzera.

72. Auzolanean errepidea egiten (AZK-010/019)

Martitako eliza XIII. gizaldian egina da. Auzolanean bidea egiten aritu ziren 27 baserrietako jendea. Mendiz ibili ohi ziren.

73. Lantegiko asteko soldata 100 pezeta (AZK-010/023)

Azkoitiko Intsausti lantegian aritu zen lanean 4 urtez ezkondu aurretik eta ondorenean. Kamioiarekin karga-deskarga lanetan aritzen zen. Orduko pasadizo bat kontaktzen du. 100 pezeta izaten zuen asteko soldata, litro bat oliok balio zuena garai hartan.

74. Arkumea erretzen nola ikasi zuen (AZK-010/025)

Tabernan arkumea erretzen zuten. Elgoibartar bat joaten zen arkumea erretzera urtean behin eta burduntzi bat oparitu zion Manueli eta halaxe ikasi zuen arkumeak erretzen. Neskak neskametzatik etxera bueltatzean hasi ziren tabernara sartzen, baina mostradoreraino bakarrik sartzen ziren.

75. Emakumea zigortuta prakak jaztearren (AZK-010/026)

Garai hartan abarkekin ibiltzen ziren eta kalera jaitsi behar zutenean zapatak eskuan zituztela joaten ziren. Neskek ezin zituzten galtzak jantzi, bekatu zen eta. Prakak jantzi eta zigortu zuten emakume baten inguruko kontuak.

76. Erromerian, mutilak tabernan eta neskak dantzan (AZK-010/028)

Anaia zaharra soinujolea eta besteak panderojoleak ziren. Erromeria garaiz hasten zen orduan. Mutilak tabernan eta neskak dantzan aritzen ziren. Ilunbistan anjelu-kanpaia jo eta etxera joaten ziren. Dantza eskatzea eta orduko ibilerak aipatzen ditu.

77. Azkoitian ezkondu eta ezkon bidaira Zaragozara (AZK-011/025)

Azkoitian ezkondu ziren San Markos egunez eta ezkon bidaira Zaragozara joan ziren trenez. Garai hartan ez zen izaten kanpora joaterik. Orduko erdararen inguruan hitz egiten du. Ezkon bazkaria kalean egin zuten. Orduko banketeen inguruan hitz egiten du. Andreamen aurkezpena eta inguruko kontuak.

78. Pilota eta aizkoratako zaletasuna (AZK-011/027)

lloba pilotaria du eta bere gaztetako pilotarako afizioaz hitz egiten du. Atano pilotaria izendatzen du. Kirola izugarri gustatzen zitzaion, aizkora, besteak beste. Aizkolarien aipamena. Juan Josek 10 arroako bola etxean zuen eta hura jasotzen zuen. Ez zuten apusturako afiziorik.

79. Idi-probetan apustuan (AZK-011/028)

Etxeko idiekin Azkoitian eta Antzuolan idi-probak jokatu zituenekoa kontatzen du.

80. Fruituak landatzen zituzten; behorrak saltzen zituzten (AZK-011/031)

Gaztetan melokotoiak, txermenak, sagarrak, etab. landatzen zituen. Behorrak ere bazituen eta Zumarragan saltzen zituen. Urtean 2 txerri hiltzen zituzten etxeokoe eta zenbait baserritara "txerri erregalia" zeritzana bidaltzen zuten.

81. Erdarazko ateraldiak (AZK-012/018)

Erdaraz moldatzeko adina bazekien eta horren inguruko ateraldi bat kontatzen du.

82. Soldadutzako pasadizoa (AZK-012/019)

Azpeitiko lagunak tokatu zitzaizkion soldadutzan eta erdaldun bat ere bai. Haren inguruko kontuak kontatzen ditu. Egunero errezatzen zuten arrosarioa han ere.

83. Soldadutzako pasadizoa (AZK-012/020)

Lau hilabetez etxera etortzeko baimena gezurra esanda lortu zuen. Gezurra esan zioneko pasadizoa kontatzen du.

84. Gerra denborako bizipenak (AZK-013/001)

Gerra hasi zenean, Jose Marik bost urte zituen, eta zazpi hilabetez iraun zuen fronteak inguruetan. Bonba beren etxetik gertu jarri zutenekoa kontatzen du. Zaldunerien kontuak eta pasadizo bat kontatzen ditu. Trintxera edo atzeguardia Sukusu gainean zeukaten jarria. Ezagun batzuen izenak eta gerra denboran gertatuak kontatzen ditu.

85. Soldaduak etxera sartu zirenekoa (AZK-013/002)

Soldaduak etxera sartu zitzaizkien batekoa eta haiek amari esandakoak. Soldaduen inguruko iritzia ematen du.

86. 1942, gose urtea (AZK-013/003)

1942 urtea gose urtea izan zen eta errota guztiak itxi egin zituzten. Eibar aldetik irina erostera joaten zitzaien jendea, baina kontuz ibili behar izaten zuten, sarritan haietakoren bat izaten baitzen "txibatoa".

87. Taloa, urdaia eta morokila etxeko jaki nagusi (AZK-013/004)

Etxeko jaki nagusiak taloa, urdaia eta morokila ziren, besteak beste. Etxean urtean pare bat txerri hiltzen zituzten; aitak hil ohi zituen. Ez zuten etxean goserik pasa.

88. 25 urterekin Azkoitian ezkondu eta Donostiara bidia (AZK-013/005)

25 urterekin bizilagun zuen Kurutzeta baserriko alabarekin ezkondu zen Azkoitiko parrokiari, San Anton egunez. Ezkontzako soinujolea eta taxista aipatzen ditu. Elurra egin omen zuen. Ezkon-bidaian Donostiara joan ziren.

89. Ezkonbidaiko pasadizoak (AZK-013/007)

Donostiako bidaiako pasadizoa eta etxerako buelta.

90. Sei seme-alaben aita (AZK-013/009)

Ezkondu ondoren Sukusura joan ziren bizitzera. 6 seme-alaba izan zituzten. Beti ganadua izan dute etxean.

91. "Txakur zuloka" jolasa (AZK-013/011)

Garizuma egunetan ez zen soinurik izaten eta "txakur zuloka" deiturikoan jolas egin ohi zuten. Jolasaren nondik norakoa azaltzen du eta nola azkenerako hartan jolastea ere bekatutzat jarri zieten.

92. Orduko eta gaurko heziketa eta errespetua (AZK-013/012)

Orduan ia dena bekatu izaten zen. Etxean ere gaur baino errespetu gehiago izaten zen eta neska gazteek haurrak izanez gero, ezkutatu edo gordeka ibiltzen ziren.

93. Neska-laguntzearen inguruko kontuak (AZK-013/015)

Neska-laguntzera joandako pasadizoak kontatzen ditu. Etxera neska-laguntzera joateko, begiz jotako neskaengana hurbildu eta baimena eskatu ohi zieten. Orduan ez zen libertaderik gauzak nahi bezala egiteko.

94. Olinpus Zinema (AZK-013/017)

Azkoitian Floregan eskolan ibili zenean joan zen soilik zinera, ez zuen zinerako ohiturarik, erromeriara joaten ziren. Azkoitian Olinpus deiturikoa zegoen.

95. 17-18 urterekin gau-eskolara anaiarekin (AZK-013/018)

Gueko-eskolan ibili zen 17-18 urte zituela anaiarekin batera, ilundu arte lana egin eta gero joaten ziren. Hilabete egin zuten.

96. Etxean osaba harri-jasotzaileak zituen (AZK-013/019)

Osabak zituen harri-jasotzaileak eta bere semea haiei ikusita hasi zen. Apustuak bere garaian baino lehenago gehiago izaten ziren, aitak kontatzen zienez. Harri-jasotzaile batzuk izendatzen ditu; "Etxosta" eta "Usula".

97. Esaera zaharrak (AZK-013/020)

Bertsotan sekula ibili ez bazen ere, esaera zahar ugari dakizki eta hiru erdarazko aipatzen ditu eta bakoitzaren esanahiaren inguruan pasadizo bana.

98. Jolas nagusia, pilota (AZK-014/003)

Gaztetako jolasak aipatzen ditu: futbola, pilota, zapoka, txorro-morroka, etab. Orduan jendea lanetik atera orduko pilotara joan ohi zen. Desafio ugari izaten zen eta frontoian eta Kontzejupean txanda eman ezinda aritzen ziren pilotan.

99. 13 urterekin Juaristira errekadista ; 14 urterekin Zubillagara delineante (AZK-014/004)

13 urterekin bukatu zuen eskola eta orduantxe hasi zen lanera, "estudios primeros"eko titulua gero atera bazuen ere, soldadutza garaian. Juaristi lantokian hasi zen mandatari lanean eta astean 52 pezeta irabazten zituen. Bizikletaz ibiltzen zen. Irabazitako dirua amonari ematen zion. Bigarren astetik tornura pasa zuten gau-eskolan ikasi zuenari esker eta soldata ere igo zioten. Praka motzekin ibiltzen ziren orduan eta lantokian hastean buzo luzea eraman behar izan zuelako lotsa pasa zuela azaltzen du. 14 urte bete zituenean Zubillagara joan zen lanera; delineatzaile postuan lanean aritu zen eta gauez ikasi egiten zuen.

100. Soldadutza Donostian egin zuen (AZK-014/005)

Soldadutzara 20 urterekin joan zen Donostiara eta oso oroitzapen txarrak ditu. Ez zieten uzten etxera itzultzuten. Bulego topografoan lan egiten zuen, eta goizetik arraunean ibiltzen zen. Nafarroako Karraskaleko kanpamentuan 3 hilabete egin zituen eta han ere gaizki pasa zuen. Orduko pasadizo bat kontatzen du, kartzelan zigortuta egon zenekoa. Ez zuten goserik pasa. Berekin izan zituen lagunak aipamena egiten du.

101. Soldadutzako pasadizoak (AZK-014/006)

Soldadutzan kartzelan egon zen denboran gitarra bat omen zuen eta hura jotzen pasa ohi zuen denbora. Ez zuten oherik eta ohol batzuen gainean lo egiten zuten. 17 urterekin odola ematen hasi zen eta odol-emaileek hilabeteko baimena eta 400 pezeta izaten zituztenez etxera etortzeko, maiz hasi zen horretan. Baina antzeman egin zioten eta ez zioten gehiago odolik ematen utzi.

102. Tronpeta, klarinetea, tronpa eta saxofoia ikasia; bandan aritua (AZK-014/008)

Gazterik hasi zen musika ikasten: lehenengo tronpeta, 13 urterekin jo zuen lehenengo kalejira Azkoitiko bandarekin; gero klarinetea, tronpa eta jarraian saxofoia jotzen hasi zen. Etxetik zetorkion zaletasuna, aitak kitarra eta ahoko soinua jotzen zituen. Senide denek kitarra jotzen zuten eta anaia batek organoa.

103. Azkoitiko eta Azpeitiko musika-bandetan ibilia (AZK-014/009)

Saxofoia jotzen zuen bandan, eta, gero, Candido Beristainekin Dimas orkestran hasi zen. Azkoitiko Beti Alaira pasa zen, eta pare bat urtez han aritu zen. Urte batean, 136 emanaldi eman zituzten, eta lanean eta bandan aritu behar izaten zuen batera. Bolada batean utzi ere egin zuen banda, lana eta musika uztartu ezinda. Gero, Azpeitiko bandara joan zen. Azkoititik Azpeitira joateko arrazoiak azaltzen ditu. Ez zuten diru askorik kobratzen bandan.

104. Erromerietan han eta hemen (AZK-014/010)

Bandan zebilenean autobusez joaten ziren kanpora. Denboraldi batean banda utzita egon eta atzera Laja eta Landakanda soinu-joleekin hasi zen erromerietan. Azpeitiko bandan oso ondo hartua izan zen Azkoitia eta Azpeitiaren artean pikea egon arren.

105. Anaitasuna futbol taldeko atezain eta lehendakari (AZK-014/011)

Futbola ikaragarri gustatzen zaio. 14 urterekin hasi zen futboleko atezain postuan Azkoitiko Anaitasuna taldean eta kanpora asko ateratzen ziren. Gero futboleko zuzendari jarri zuten Anaitasuna futbol taldean eta urtebete egin zuen bertan.

106. Dantza lotua ere bekatu (AZK-014/012)

Gaztea zela, inguruko herrietan libre bazen ere, dantza lotua debekatua zegoen Azkoitian. Urrategi, Irukurutzeta eta beste erromeria toki batzuk aipatzen ditu. Orduan neska-laguntza egiteko ere beldurrez egon ohi ziren dena bekatu zela eta.

107. 1955ean aita alkate jarri zenekoa (AZK-014/013)

1955ean, Kruz Mariren aita alkate jarri zen eta gazteak herrian mantentzeko aukeretako bat zela eta, dantza lotua egitea baimendu zuen. Industria ere ekarri zuen Azkoitira. Lehenengo aldiz plazan dantza jarri zutenekoa kontatzen du. Luistarretatik bota zituzten bera eta anaia, aitak dantza lotua jarri zuelako eta jarraian baita arrebak eta beste zenbait herritar ere. "Forjas de Azkoitia" zeritzona zabaldu zuen bere aitak eta gazte askori eman zien lana.

108. Azkoitiko industria nagusia, abarkagintza (AZK-014/015)

Azkoitiko industria nagusia abarkak jostearena zen. Emakume zein gizon kalean aritzen ziren abarkak josten eta, lan hartaz lotsatuta, beste zenbait etxean aritzen ziren ezkutuan. Azkoitia herriari, 'Villa Alpargatera' ezizenez deitzen zioten.

109. Jaunartze txikia eta handia egiten ziren (AZK-014/016)

Jaunartze txikia zazpi urterekin eta handia hamabirekin egin zituen. Garai hartan jantziak elkarri utzi edo jostunen batek egin ohi zion jaunartzea egin behar zuenari. Emaztearen jaunartzeaz eta haren janzkeraz hitz egiten du.

110. Azkoitian ezkondu eta Madrilera ezkon-bidaia (AZK-014/017)

Emaztea taberna batean ezagutu zuen eta orduko kontuak kontatzen ditu. Etxeko aldaba jo eta Kruzekin dantza lotuan egitera jaitsi zenekoa. Azkoitian ezkondu eta ezkon-bidaian Madrilera joan ziren.

111. Erromeriak aldatuta (AZK-014/018)

Gaztea zela, Madariaga, Urrategi, Martirieta eta inguruko auzoetara joaten zen bandarekin jotzera nahiz erromeriara, baina gaur egungo festak aldatuta ikusten ditu, erromeriak bukatzeaz daude. Jende helduari lehengo dantza gustatzen zaio.

112. Grabatutako diskoak (AZK-014/019)

Letrak konposatzen aritu izan da. Sei disko grabatuak ditu Laja eta Landakanda, Jauregi, Berastegi eta Egurrola eta dultzaineroekin. Herriko plazetan aritzen da lehen aipaturikoekin saxofoia jotzen eta doan lekura doala, beti eraman ohi du dultzaina aldean.

113. Azkoitiko industria nagusia: abarketak eta txapelak (AZK-015/016)

Azkoitian hiru lantegi inguru ziren eta denak joste lanetan aritzen ziren: txapelak egiten, abarketak josten, etab.

114. Erlijioak garrantzi handia zuen Azkoitian (AZK-015/017)

Azkoitian guraso gehienak erlijioarekin oso lotuak zeuden eta seme-alabek elizara eta prozesio zein elizkizunetara joan behar izaten zuten.

115. 15 urtez dantza irakasle Azkoitian (AZK-015/018)

Herri-lanean ez zen aritu, baina bai dantza munduan Bilbora Urrategiko koronaziorako dantzak ikastera joanda. Trenez joaten zen Bilbora. Dantza irakasle ere aritu zen Azkoitian 15 urtez.

116. Azkoitiko jauregiak eta Urolako trena (AZK-015/019)

Azkoitian bi hiru familia aberats zeuden garai hartan. Jauregiak ere baziren, baina berak ez zituen haien istorioak ezagutu. Urolako trena martxan jarri zuten egunean bertan izan zen Julen, garai hartan ez zuten kotxerik.

117. Dantza txapelketan epaimahaiko (AZK-015/021)

Bideoz ikusi eta beste herrietako dantzak erakusten zituen. Dantzako bikoteak ez zuen gogorik jarraitzeko eta hala utzi zuten. Epaimahaiko egon zen dantza txapelketetan behin edo behin.

118. Zaldia eta karroarekin ogia banatzen (AZK-016/003)

Ogia kalera saltzen zuten eta hartatik bizi ziren. Errotan lan handia egiten zuten. Alea bota eta bi harrien artean xehetzen zen. Kotxerik ez zuten eta zaldia eta karroa hartuta banatzen zuten ogia kalera. Landakanda baserriaren kokapena azaltzen du.

119. 13 hilabetez soldadutza Gasteizen (AZK-016/007)

Gasteizen egin zuen soldadutza. Soinujole batzuk aipatzen ditu. Panderoa jotzen ibiltzen zen eta ezkutuan etortzen zen etxera erromeriak egitera. Soldadutza garaia ondo pasa zuen. Oroitzapen txarra ematen dion pasadizo bat kontatzen du. 21 urterekin joan eta 13 hilabete pasa zituen.

120. Panderoa jotzen hasi zeneko kontuak (AZK-016/008)

Oikiako gizon batek taberna batean Ramon panderoa jotzen ikusi eta izugarri gustatuta dolar bat eman zionekoa kontatzen du. Panderoa jotzen bere kabuz ikasi zuen; lehengusuak zituen pandero-jotzaileak eta haiek ikusita ikasi zuen. Errotan irina eta zahia banatzen zen bitartean aritzen zen panderoa jotzen. Eibarko Arruabarrena pandero-jotzailea aipatzen du.

121. Dantza lotuan egiteagatik luistarretatik bota (AZK-016/011)

Erromeriak arratsaldeko bostetan hasi eta gaueko 12etan bukatzen ziren. Abadeekin pasatako anekdota bat eta dantza lotua debekatua zeneko kontuak aipatzen ditu. Helduan dantza egiteagatik joan ohi zen Elosuara. Ramon soldadu zegoela jarri zen dantza lotua libre Azkoitian eta dantza egin zutenak, luistarretatik kaleratuak izan ziren apaizei boikota egitea omen zela hura eta.

122. Lantegiko lana utzi eta oilo-granjara lanera (AZK-016/014)

Lantegian 3 urtez ibili zen tornuan Azkoitian, baina ez zitzaion tailer barruko lana gustatzen eta arrebak oilo-granja jarri zuenean hara joan zen lanera. Tornuan dezente ikasi zuen. Baserrian baratzeke lana egiten zuten eta ama joaten zen egunero azokara saltzera, hasieran karroa hartuta eta gero bizikletan. Berdura salduta ateratzen zuen diruarekin amak arraina erosten zuen eta gustura izaten zen.

123. Estrapeloa eta gosea (AZK-016/015)

Bi esne-behi, zaldia eta txerriak zituzten etxean. Errazionamenduko ogia izaten zen orduan eta estraperlokoa. Ramonek okindegia etxean izanda ez zuen goserik ezagutu, baina bere lagunek bai. Estraperloko garia Nafarroatik ekartzen zuten kamioietan eta etxean ehotzen zuten. Sabaian belar ondutan ezkutatzen zuten garia eta Guardia Zibilei ere ematen zieten, ez zituzten estraperloagatik salatzen.

124. Arrebaren oilo-granjan lanean (AZK-016/016)

Granjako lana oiloak zaintzea izaten zen. Arrebarena zen granja eta tailerreko lana baino nahiago zuen Ramonek.

125. Trikiti txapelketak eta soinujoleak (AZK-016/017)

Trikiti bikote izan zituen soinujoleak eta parte hartutako txapelketak aipatzen ditu. Laja soinujolearekin ibili zen gehienbat. Txapelketetako kontuak; miloi

erdi pezeta ordaintzeraino iritsi ziren txapelketetan. Tapia, Maltzeta, Pikua, Zendoia, Sakabi eta beste hainbatekin ibili zen. Panderojole gutxi ziren orduan. Sakabi oso ezaguna zen, eta gustura joaten zen harekin.

126. Panderojole izanak neskatan egiteko bidea erraztu (AZK-016/018)

Orduko erromeriak ganbaretan eta kanpoan izaten ziren. Sakabirekin Arrigorriagara jaialdi batera joan zenekoa kontatzen du. Panderojole izateak neskatan egiteko bidea errazten zuen.

127. Grabatutako diskoak (AZK-016/019)

Lau disko ditu grabatuak Laja soinu-jolearekin, eta grabazio haietako kontuak kontatzen ditu. Lehenengo diskoa Madrilen grabatu zuteneko anekdota bat kontatzen du. Miloi erdi inguru pezeta eman zieten, eta ordurako dirutza zen. Gero, Ramon gaixotu egin zen, eta bolada batean erromeriak alde batera utzi zituen.

128. Gerra denboran errazionamenduko ogia eta sakarina (AZK-016/022)

Gerra-denboran Ramonek lau urte zituen. Orduan asmatu zen azukrearen ordeztako sakarina. Ogirik ez zen izaten, errazionamendukoak bakarrik, eta urtean bitan txerria hiltzen zuten etxean. Ez zuten jateko faltarik izaten.

129. Txerri-boda etxean (AZK-016/023)

Txerria hiltzera osaba joaten zen Ramonen etxera eta hura hildako gauean txerri-boda antzeko festa egin ohi zuten.

130. Egunero bazkalondoan arrosarioa (AZK-016/024)

Bazkalondoan arrosarioa errezatzen zuten etxean, ohitura sakratua zen.

131. Garotara Aizpurutxo eta Urrategi auzoetara (AZK-016/025)

Aizpurutxo eta Urrategi auzoetara joaten ziren garotara eta behin pasatako anekdota bat aipatzen du. Basoa txukun utzi behar izaten zuten auzokoek zer esango zutenaren beldur.

132. Azkoitiko lantegiak (AZK-016/026)

Azkoitiko garai bateko lantegiak izendatzen ditu. Zakua, abarketak eta txapel-lantegia ziren garrantzitsuenak.

133. Pilota eta ehiza zaletasun (AZK-016/027)

Pilotan ibilia da. "Atanillo" pilotari ospetsua kuadrillakoa du, eta haren eta anaiaren aipamena egiten du. Ehiza gogoko du, umetatik hasi zen ehizan. Txakurrak atsegin ditu eta haiengatik hasi zen ehizan. Ehizako txakurren inguruko kontuak kontatzen ditu. Oilagorretan haritzea du gustukoan. Anaiaren eskopetarekin hasi zen, eta 20 urterekin berea erosi zuen. 14 urterekin mendiko zaindarien ezkutuan ibiltzen zen ehizan.

134. Emaztea ezagutu zueneko eta ezkontza (AZK-016/030)

Emaztea Elosuan ezagutu zuen lagun baten bidez eta 26 eta 24 urte zituztela ezkondu ziren Azkoitiko parrokian. Ezkon-bidaian Bartzelonara joan ziren trenez.

135. Orduko janzkera (AZK-016/033)

Kongregaziora traje eta gorbataz jantzita joaten ziren. Kanean abarka eta botak jantzita ibiltzen ziren. Txapela janzten hasi zeneko anekdotak kontatzen ditu.

136. Soinu txikia elizak gaizki ikusia (AZK-016/034)

Orduan soinua infernuko hauspoa zela eta, abade batek soinua konfiskatu zienekoa azaltzen du. Erromerietako beste zenbait kontu ere kontatzen ditu. Neskak ez ziren tabernetara sartzen. Arriaga antzokian soinua jo zutenekoa.

137. Azkoitiko zinemak; zine mutua (AZK-016/035)

Azkoitian Olinpia eta frontoiko zineak ziren. Bi pezetako sarrera ordaintzen zuten eta zine mutua ere ezagutu zuen. Azpian subtitulatu izan ohi zen eta apaiz batek askotan berak euskaratzen omen zituen.

138. Prozesioetan parte hartzen zuen (AZK-016/036)

Azkoitiko prozesioetan parte hartzen zuen; derrigorra ez bazen ere etxeoak eliza munduari oso lotuak zeuden.

139. Idi-probetara aitarekin; aizkolari apustuak (AZK-016/037)

Apustu mundua gertutik ezagutu zuen, aitarekin idi-probak ikustera joaten zen eta. Aizkoran ere apustu garrantzitsuak izan ziren Azkoitian; Luxia aizkolariaren apustua aipatzen du.

140. Mendigoikoa jatetxean gertatutako pasadizoa (AZK-016/039)

Sarri joan izan dira Atxondoko (Bizkaia) Mendigoikoa jatetxe ezagunera trikitixa jotzera. Han ezkontza baten gertatutako pasadizoa kontatzen du. Mendigoikoa jatetxera kanpoko jende asko etorri izan da. Honen inguruko kontuak.

141. Erromerietako anekdotak (AZK-016/040)

Frantziara eta toki askotara joaten ziren soinua jotzera. Bere trikiti bikotearekin gertatutako pasadizoak kontatzen ditu.

142. Azkoitiko eta Bergarako lantegietan lanean jardundakoa (AZK-017/005)

Azkoitiko Danobat kooperatiban ibili zen montaje lanean eta gero Bergaran manulean aritu zen. Lantegia eta baserriko lana biak egin behar izaten zituen. 20 urte egin zituen lantegiko lanean.

143. 300 ardi ingururekin, Irukurutzetan eta Elosuan artzain (AZK-017/006)

Artzaintza mundua gustatzen zitzaion eta artzain-txakur txapelketetan ere ibili zen. Osaba zuen artzaina eta harengandik sortu zitzaion ardietarako zaletasuna. Irukurutzetara eta Elosura joaten zen ardiekin eta neguan etxean egoten zen. Etxetik gertu zuen mendia eta egunero egiten zuen buelta, ez zuten bordarik mendian. 300 ardi izatera heldu zen bolada batean.

144. Ardi latxak zituzten eta eskuz jaisten zituen egunean bitan (AZK-017/007)

Ardi latxak izaten zituen Ramonek, musu beltzak. Etxeko eta auzoko ardiei ilea mozten zien, gerora kanpoko norbait eramaten zuten arren lan horretara. Ardiak eskuz jaisten zituzten eta gerora "kaiola" diturikoan, aberastasun handia izan zen berrikuntza hau. Egunean bitan jaisten zituzten ardiak.

145. Gaztak egin eta kalera saltzera (AZK-017/008)

Ardi-esnearekin gazta egin eta kalera saltzen zuten etxez etxe, asteburuetan; arrebarekin joaten zen behorra hartuta. Hiru kilometro pasa zituzten etxetik kalera. Inguruan baziren artzain gehiago ere. Ardiak ez zituzten saltzen eta erosi ere han-hemendik egiten zituzten.

146. Ardi-larrua saldu egiten zuten (AZK-017/009)

Ardi-larrua saldu egiten zuten 800 pezetan, eta sekula ez zuten jakin zertarako erabiltzen zuten erosleek.

147. Artzain-txakur txapelketetan parte-hartzaile (AZK-017/010)

Artzain-txakur txapelketetan hastearen nondik norakoak aipatzen ditu. Oñatiko txapelketan hirugarren postua irabazi zuen. Txapelketetan egin beharreko lana aipatzen du. Beste txapelketa batzuk ikusi eta berak ere ateratzea pentsatu zuen txakurra gai zela ikusita.

148. Frantzia eta Bartzelonako artzain-txakur txapelketetan ibilia (AZK-017/011)

Txakurraren arrazari ez zitzaion garrantzirik ematen eta bera artzain-txakur gorriekin ateratzen zen. 6 txapel irabaziak ditu eta kanpora Bartzelona eta Frantziara ere joana da. Kanpoko txapelketetan lan berdina egin behar izaten da.

149. Arkume garaiko lanak (AZK-017/013)

Gazta egiten aritzen zen. Arkume garaia astuna izaten zen, urtarril eta otsailean izaten zen eta gau eta egun haien gainean egon behar izaten zuen. Beste etxeetatik deitu izan zioten Ramoni arkumea gaizki jaiotzen ari bazen hura ateratzen laguntzera joateko. Aita zenak erakutsi zion horretan.

150. Artalde ezberdinak nahasian (AZK-017/015)

Artzain asko ibiltzen ziren orduan eta lagun artean biltzen ziren. Elkarren ardiak nahasian ibiltzen zituzten askotan. Artaldeak nahastu arren norberarena erraz bereizi ohi zuten

151. Ganadua eta soroko lana (AZK-017/016)

Lanean 48 urtera arte aritu zen eta lantegitik gehiago irabazten zuen, artzaintzatik ere dirua bazegoen ere. Etxean idiak eta behiak ere izan zituzten eta baratzean eta soroan lanean aritzen ziren.

152. Errota eta ogia (AZK-017/017)

Etxean ogia amak egiten zuen eta taloak ere egiten zituzten. Ogia nola egiten zen azaltzen du. Errotara joaten ziren auzora eta irina eramaten zuten etxera. Elgoibar aldetik joaten zen jendea irina hartzera errotara.

153. Soldadutza Arakan eta Donostian egin zuen (AZK-017/018)

Soldadutzara 22 urterekin joan zen 13 hilabeterako Arakara (Gasteizera) eta handik Donostiara. Tabernan egoten ziren denbora luzez eta ez zitzaion gogorra egin. Erdaraz hitz egin behar izaten zuten, baina lagunartean euskaraz egiten zuten.

154. Erromeriara Martirieta, Madariaga eta Urrategira (AZK-017/019)

Gaztetan erromeriara Martrietara, Madariagara eta Urrategi bertara joaten ziren. Orduan garaiz etxeratu behar izaten zuten, soinua amaitzearekin batera. Neskek ez zuten tabernara sartzerik izaten.

155. Dantza lotua Urrategin onartua eta Martirietan ez (AZK-017/020)

Dantza lotua debekatuta zegoen Martirietan eta Urrategin berriz libre zegoen. Neska laguntzeak oinez izaten ziren.

156. Mezara igandero eta hilean behin konfesatzera (AZK-017/021)

Mezara igandero joaten ziren Urrategira eta hilean behin konfesatzea derrigorra zen. Jaunartzeak Urrategin egin zituen marinel jantzita; neska-mutilek batera egiten zuten. Elosutik ere Urrategira joaten ziren umeak jaunartzea egitera.

157. Urrategira bidea auzolanean egin (AZK-017/022)

Kalera ez ziren festara jaisten, oinez joan behar izaten baitzen. Urrategira bidea egin zutenekoaz oroitzen da; auzolanean egin, bere aita ere tartean zela.

158. Pol-pol eta Irukurutzetako erromeriak (AZK-017/023)

Urrategiko Pol-pol mendiko jaiak aipatzen ditu. Osintxu eta Bergara aldetik joaten zen jendea. Irukurutzetan ere izaten zen erromeria. Azkoitiko festak hastean mendiko erromeriak galdu egin ziren.

159. Artzain-txakurren entrenamendua (AZK-017/024)

Artzain-txakurra entrenatzeko bandera lana jartzen zaie, haien tartetik pasa behar du txakurrak. Etxean ere arditan egin behar izaten dute. Txakurrak non erosten dituen. Ez du etorkizunik ikusten artzain gazteengan.

160. Txerri-hiltzea eta sagardoa (AZK-018/009)

Txerria hiltzen zutenean bost lekutara eramaten zituzten solomo, urdai eta odolkiak. Sagardoa betidanik egin zuten etxean. Auzoan zuten dolarea eta urtero egiten zuten etxerako sagardoa. Ardoa otordu berezietan edaten zen, dirurik ez zuten izaten eta.

161. Diru eskasiaren garaiko pasadizoa (AZK-018/010)

Diru eskasian zeuden garaian, txahalak saltzera joan zeneko anekdota kontatzen du.

162. Lixiba nola egiten zen (AZK-018/011)

Arropa garbitzeko lixiba egiten zuten; nola egiten zen azaltzen du. Amak erakutsi zion lixiba egiten, 3 eguneko prozesua izaten zen. Ura bazuten etxean.

163. 11 urterekin Beizamara neskame (AZK-018/012)

11 urterekin Beizamara joan zen neskame. 5 umeko familia hazten aritu zen han. Handik etxera bueltatu eta berriro amaren jaiotetxera joan zen neskame lanetara. Artajorran, egurretan eta baserriko lan gehienetan aritzen zen. Neskame egon zen lekuan ez zuten urik eta ura nola eramaten zuten azaltzen du. Anekdota bat.

164. Erromerietan dantza lotua debekatua (AZK-018/013)

Igandeetan egiten zuten jolas; sokadantza eta dantza sueltoa egiten zuten. Aitak ahoko soinua eta txistua jotzen zituen. Erromeriara joaten ziren, bazkalondoan abiatu eta iluntzerako etxeratzen ziren. Dantza lotua debekatua zegoen.

165. Elizaren debekuak (AZK-018/015)

Dantza lotuan harrapatuz gero, kongregaziotik botatzen zituzten. Mariak dantza soltean bakarrik ikasi zuen.

166. Mezetara Elosiaga auzora (AZK-018/016)

Mezetara igandero joaten ziren Azpeitiko Elosiaga auzora eta doktrina eta errezoak hantxe ikasi zituen. Jaunartzea Errezilen egin zuen.

167. Artxiolatik Errezilera ordu eta erdi oinez (AZK-018/017)

Artxiola, Mariaren etxea, Errezilgo azkenengo baserria zen. Ordu eta erdiko bidea zegoen etxetik Errezilera. Etxeko terrenoak Azpeitia eta Errezilgoak ziren.

168. Jaunartzera baraurik (AZK-018/018)

Konfesatzea derrigorrezkoa zen. Jaunartzea egiteko derrigorra zen baraurik joatea. Errezilen egin zuen jaunartzea. Hiru egun lehenago apaizarekin elkartzten ziren. Jaunartze txikia zazpi urterekin eta handia hamaikarekin egin zituen. Soineko urdina eraman zuen; abituaren ohitura gerora jarri zuten.

169. Arrosarioa gauero (AZK-018/019)

Gauero ganadua bildu aurretik eta arto-zuriketa egin bitaretan arrosarioa errezatzen zuten, aita hasita.

170. Eskolako zigor gogorrak (AZK-018/020)

Eskolan 10 urterekin hasita urtebetean ibili zen Elosiaga auzoan. Aitonak idazten eta kontuak ateratzen erakutsi zien etxean. Azpeitiko maisua zuen eta neska eta mutilek batera ikasten zuten. Maisuak jo egiten zituen zigor bezala, gogorra zen. Pasadizo bat kontatzen du.

171. Euskaraz hitz egiteagatik isuna (AZK-018/021)

Euskaraz ikasi zuen. Gerora euskaraz hitz egiteagatik isuna jarri zuten, debekatu egin zuten.

172. Hernioko erromeria eta gurutz-bidea (AZK-018/023)

Hernioko erromeriaren eta gurutz-bidearen inguruko kontuak kontatzen ditu. Soinujole ugari izaten zen Hernio azpiko Zelatunen, kuadrilla askok beren soinujolea eramaten zuten eta.

173. Errezildik Azpeitira oinez, idi-proba jokatzera (AZK-018/024)

Errezil apustu leku handia zen, idi eta sega apustuak jokatzeko ziren. Segalari baten aipamena egiten du. Aitak idiak zituen eta idi-proba jokatu zuen. Idi-probak Azpeitian jokatzeko ziren eta Errezildik joaten ziren oinez idiak hartuta. Behin irabazi zuen proba bat eta elkarren artean jokatzeko zuten dirua izaten zen sari bakarra.

174. Sukaldaritza ikasten Donostian (AZK-018/026)

Sukaldaritza ikastera Donostiako tanerna batera joan zen. Astea Donostian pasatzen zuen ezagun baten etxean. Egun osoa pasatzen zuen tabernan eta astean libre zuen egunean Igeldora joaten zen. Nagusi euskaldunak zituen. Bi hilabetetik behin bueltatzen zen etxera eta urtebete egin zuen bertan.

175. Gurasoak ez ziren ezkontzara gonbidatzen (AZK-018/027)

Donostiatik etxera itzuli eta lasterrera, 20 urterekin, Azkoitira joan zen bizitzera. Errezilen ezkondu zen senar azkoitiarrarekin. Ezkontzara ez ziren gurasoak eramaten. Ezkon-bidaian Bilbora joan ziren; jende gutxi egiten zuen orduan bidaia. Ezkontzako jantziak deskribatzen ditu; 500 pezeta ordaindu zuen soinekoa egiteko tela.

176. Azpeitiko azokara saltzera (AZK-018/028)

Ezkondu ondoren Azkoitian jarri zen gizonaren etxean bizitzen. Soroko lan ugari egiten zuten. Ez zuen inor ezagutzen Azkoitian. Aitaren ama joaten zen azokara saltzera eta gero Maria hasi zen. Azokan ateratako diruarekin asteko erosketa egiten zuten. Azkoitian zerbait saltzen bazuten ere, ez zen azoka handia izaten eta Azpeitira joaten zen.

177. Urolako tren; "tren gosie" (AZK-018/029)

7 seme-alaba izan zituen. Urolako tren artajorran ari zirela entzuten zuten eta "tren gosie" deitzen zioten merienda orduan pasatzen zelako. Gizonak etxean lan egiten zuen, handik bizi ziren. Zubillaga lantegia aipatzen du; jende ugari joaten zen Azkoitira lanera trenez.

178. Diru pixka baten truke, alpargatak josten (AZK-018/030)

Azkoitian alpargata industria handia zegoen. Maria ibili zen alpargatak josten, etxean josi eta entregatu egiten zituzten herrira eta trukean diru pixka bat ateratzen zuten.

179. Neskametzan, larruzko abarkekin (AZK-018/033)

Neskame garaian larruzko abarkak erabiltzen zituen eta ez zituen batere gogoko. Neskame egon zen tokiko gizonak berak josten zituen abarkak ganadu larruarekin. Lehenagoko abarkak gurrpil gomaz egindakoak izaten ziren.

180. Baserritarrei kaletarrek burla (AZK-018/034)

Gaztetan baserritarrak tontotzat hartzen zituzten kaletarrek.

181. Aita bertsoan zekiena (AZK-018/036)

Errezil bertso munduari oso lotua zegoen eta Mariari ere aitarengandik etorri zitzaion zaletasuna. Irratirik ez zuen ezagutu Errezilen; Azkoitira joan zenean irratia eta telebista erosi zituzten. Anekdotak bat kontatzen du.

182. Garai bateko Azkoitiko kalea (AZK-018/039)

Garai bateko Azkoitian ereitetik bizi zen jende asko. Etxe gutxi zegoen, haietako batzuk eta palazioak aipatzen ditu.

183. Egin Zaharrera bidea, auzolanean egina (AZK-018/040)

Egin Zaharrera bidea auzolanean nola egin zuten azaltzen du. Ez zuten bidea egiteko diru-laguntzarik izan. Senarra txoferra zuen, baina Mariak ez zuen karnetik atera. Seme-alabek bazekiten traktorea gidatzen.

184. Lotuan dantza eginez gero, kongregaziotik kanpora (AZK-019/013)

Erromeriara oinez joaten ziren, 15-16 urterekin hasita, Urrategira, Martirietara, Pol-polera eta inguruetara. Soinua izaten zen eta Azkoitian helduan dantza egitea debekatuta zegoen. Dantza lotuaren inguruko pasadizo bat kontatzen du. Neska-mutilak Luistarrak edo Mariatarren kongregaziokoak izaten ziren. Kongregaziotik botatzen zituzten lotuan dantzan harrapatuz gero. Erromeria bukatzeko iluntzean "aramaitakoa" deituriko kanpaiak jotzen ziren. Kaleko festak erromerietatik ezberdinak ziren.

185. Soldadutza egitetik libratu zen (AZK-019/014)

Soldadutza egitetik libratu egin zen, seme bakarra izanda, aita ziantzen geratu behar zelako.

186. Elosura Azpeitiko medikua joaten zen (AZK-019/015)

Elosura Azpeitiko medikua joaten zen eta kaletik hara denbora dezente egiten zuen. Biderik ez zegoen eta gaixoa larri bazegoen, eskuetan hartuta jaitsi eta Donostiara eramaten zuten.

187. Elosuko auzoak (AZK-019/016)

Elosun 4 auzo daude eta izendatu egiten ditu. Baserri asko zeuden auzoan 35-40 inguru.

188. Elosuko kooperatibako arduradun izana (AZK-019/017)

Lana utzi eta Elosura bueltatu zenean Elosuko kooperatibako kargua hartu zuen eta bertan hasi zen lanean. Pentsua eta gai garrantzitsuenak saltzen zituzten. Pentsu bila idi edo astoan bertara joaten zen jendea. 16 sozioren artean egin zen kooperatiba. Jaietan hamarretakoa ematen zuten bertan eta jende ugari joaten zen. Astean, hiru egunetan zabaltzen zuen. Pentsua Zaragozatik eta baba Nafarroatik ekartzen zuten.

189. Kooperatiban lagun asko egin zituen (AZK-019/018)

Kooperatibako lana bertan ikasi zuen bere kasa. Matematiketan ona zen eta erraz moldatzen zen. 23 urterekin hasi eta 28ra bitartean aritu zen bertan eta jornal laguntza bat zen etxeko lanetik aparte. Lagun asko egin zituen eta karta-jokoan ere aritzen ziren sarri.

190. Lagunartean Elosuko tabernan kartetan (AZK-019/019)

Elosuan bazen taberna eta gazteek hara joateko ohitura zuten. Otorduak 14 pezetan egiten zituzten. Jokoan egiteko zaletasuna zuten eta tabernan elkartzen ziren. Bere semea harri-jasotzailea den arren, bera ez zen sekula langintza horretan aritu.

191. Mutilek neskek baino libertate gehiago (AZK-019/020)

Asti handirik ez zuten izaten kalerako, goizean meza, baserriko lanak eta etxean egon beharra izaten zuten. Orduko zaharrak gogorak ziren. Igandetan, 16:00etan atera eta garaiz erretiratzen ziren. Mutilek neskek baino libertate gehiago izaten zuten.

192. Orduko janzkera (AZK-019/021)

Orduko janzkera: botak eta abarkak eta prakak urdinak.

193. Telefonorik ez eta neska-lagunarekin gutun bidez egoten zen (AZK-019/023)

30 urterekin ezkondu zen Loiolan. Orduan ere, gaur bezala, banketea egiten zen eta gizonak trajez eta andrazkoak zuriz janzten ziren. Ezkondu ostean Korta baserrian jarri ziren bizitzen eta umeak eskolara hasi zirenean emaztea kaleko pisuan egoten zen. Nobiotan emaztea Kukuerrri auzoan bizi zen eta biderik ez zegoenez, Elosutik oinez joaten zen neskarengana. Emaztea neskame egon zen Donostian eta asteaz zehar ez zuten elkar ikusten; telefonorik ez eta kartak idazten zizkioten elkarri.

194. Ama Azpeitia eta Zumarragara azokara saltzera (AZK-019/026)

Ama Azpeitira jaisten zen azokara eta Zumarragara ere bai. Azpeitira Urolako trenean joaten zen eta arkumeak ere trenean eramaten ziren.

195. Artzaintzako garaiak (AZK-019/027)

Etixerako arkumeak hiltzen zituzten. Arrautzarekin diru asko irabazten zen. Ardiekin etxetik gertueneko mendira joaten ziren. Arkume garaian iluntzetan begiratzen zen ia nola zeuden. Ardi-larrua traperoei saltzen zieten eta zapatak egiteko erabiltzen zuten.

196. Andrea abarketak josten (AZK-019/028)

Garai hartan Azkoitian abarketak egiten ziren eta Eliasen andrea ere aritzen zen diru pixka bat ateratzeko. Tela eta zorua eman eta berak josten zituen.

197. Belarreta garaia (AZK-019/029)

Pentsuaren aldaketa garai batetik hona. Orduan pentsu naturala izaten zen. Ardiei baba eta artoa egosita ematen zitzaizkien. Belarretan aritzea zen gutxien gustatzen zitzaion lana, traktorea erosi bitartean idiekin aritzen ziren eta. Ekainean egiten zen belarretan eta etxekeok egiten zuten; belarra sabaian gordetzen zuten.

198. Garotan egiteko sasoia (AZK-019/030)

Garoarekin meta egiten zuten. Nola egiten zen azaltzen du, etxetik gertu egiten zuten normalean. Garo sasoia gogorra izaten zen, udazkeneko lana izaten zen. Auzolanean aritzen ziren.

199. Elosurako bidea auzolanean egindakoa (AZK-019/033)

Elosuko bidea auzolanean eginga da, bera ere tartean zela. Diru asko balio zuen eta baserritar bakoitzak terrenoen arabera hainbesteko bat jarri behar izan zuen. Eskuz egin zen eta denbora asko pasa zuten bidea egiten. Bi kontratistak hartu zuten lana eta Elosuko mutil asko aritu ziren lanean.

200. Elosuko lehenengo kotxea; lehenengo irratia etxean (AZK-019/034)

Elosuko lehenengo kotxea ezagutu zutenekoa kontaktzen du. Etxean lehenengo irratia 11 urte zituela erosi zuten. Erdaraz izaten ziren programa gehienak eta pilota partiduak. Trikitixa gutxi entzuten zen lehen irratian.

201. Arrosarioa egunero errezatzen zen (AZK-019/035)

Arrosarioa egunero errezatzen zuten afalondoan, bost misteriokoa izaten zen. Arto-zuritzen ari zirela ere errezatzen zuten.

202. Lixibaren inguruko azalpenak (AZK-019/036)

Orduko etheen egitura aipatzen du. Lixiba ontzi handi batean egiten zuten eta albergan arropa jotzeko lekua izaten zen bi aldeetara.

203. Artilezko koltxoiak eta harizko izarak. (AZK-019/037)

Koltxoiak ardi-ilezkoak izaten ziren eta tarteka ilea atera, garbitu eta egur batekin jo behar izaten zen harrotzeko. Izarak harizkoak izaten ziren. Arropa

erosi egiten zuten eta galtzerdiak etxean egiten zituzten. Mutilek txapela janzteko ohitura handia zuten eta etxeko lanetarako, berriz, kapela.

204. Erdaraz ikastera Burgosko jesuitetara (AZK-020/006)

Sakristauaren etxean hiru neska zeuden eta alaba haietako bat jarri zen irakasle, baina Blasek berehala utzi zuen eskola irakasleen jakinduria falta zela eta. Ikasi egin nahi zuen eta 17 urterekin Burgosera joan zen erdaraz ikastera jesuitetara eta, Azkoitia-Azpeitia inguruko jende gehiagorekin batera, 13 hilabete egin zituen bertan.

205. Etxean egiten zuten ogia (AZK-020/007)

Burgostik etxera bueltatu zenean baserriko lanetan jarraitu zuen. Artoa egiten zuten eta taloa noiznahi jaten zuten. Ogia egiten zuten etxean. Landakandan, Elosun eta Aizpurutxon zeuden errotak erreka urarekin ibiltzen ziren eta bailarakoa, aldiz, argindarrek, motorrek, ibiltzen ziren.

206. Errotaren funtzionamendua (AZK-020/008)

Errotaren funtzionamendua azaltzen du. Irina etxera astoan hartuta eramaten zuten. Ez ziren urte errazak izan. Eskuz egin beharreko lana zen, eta gogorra.

207. Ogia nola egiten zuten etxean (AZK-020/009)

Ogia nola egiten zuten azaltzen du. Kalera ez zuten saltzen etxean falta izaten zutelako. Arto-orea egin eta palarekin labean sartzen zuten gero esnearekin jateko.

208. Esnea saltzera kalera (AZK-020/010)

Bost urte zituela idiak erosi zituzten eta aurrez behiekin egiten zuten soroko lana, ganadua uztartuta. Behiak, txekorrak, eta abar zituzten. Gazta amak egiten zuen; nola egiten zen azaltzen du. Esnea saltzera kalera joaten ziren, astoa hartuta, etxez etxe. Astean behin, igandean, kobratzen zuten esne-dirua.

209. Txerri-hiltzea etxean (AZK-020/011)

Orduan txerri gizenduna nahi izaten zen, koipe hura erabili egiten baitzuten. Blasek aitona ezagutu zuen txerri-hiltzen, gero berak ikasi bazuen ere. Odolkiak egiten emakumeak aritzen ziren eta auzoko zazpi-zortzi etxetara banatzeko ohitura zuten.

210. Haragia kontserbatzeko moduak (AZK-020/012)

Okela kontserbatzeko gazitu egiten zuten. Lukainkak egiten zituzten makinaz haragia txikituta eta baratxuria erabiltzen zuten gustura emateko. Makila batean zintzilika jarri eta lehortzen uzten zituzten. Haragia kontserbatzeko beste modu bat, oliotan ontzietan edukitzea izaten zen.

211. Etxean aurrerapenik ez; lixiba (AZK-020/013)

Argindarrik ez zuten. Garbigailua ezkondu ondoren ezagutu zuen. Arropa garbitzeko lixiba egiten zuten lehenago, baina Blasek urte gutxian ezagutu zuen lixiba, arraskan egiten zen garbiketara eta. Neguan ganbaran jartzen zen arropa lehortzen.

212. 58.urtean erosi zuten lehendabiziko irratia (AZK-020/014)

Irratia 58. urtean jarri zuten etxean. Martite auzoko apaizak bazuen irratia eta Blasek gustuko zuen.

213. Kongregazioak, "apostolado de la oración "eta "tercera orden franciscana" (AZK-020/015)

Jaunartzea Martirieta auzoan bertan egin zuen. Bi jaunartze izaten ziren orduan: txikia eta handia. Jaunartze handia Luistarren edo Mariatarren kongregazioan sartzea izaten zen. Hilean behin konfesatzera joan behar. Ezkontzean kongregaziotik atera eta "Apostolado de la oración" deiturikoa izaten zen hileko bigarren astean eta eskapularioa janzten zen. "Tercera orden franciscana" ere bazen, baina hau Martirietan ez zegoen, Azkoitiko parrokian izaten zen hileko laugarren igandean.

214. Elizan irakurketak egiten (AZK-020/017)

Erromerietan Azkoitian 56an baimendu zen dantza lotua. Igandetako mezak, arrosarioak eta ospakizunak aipatzen ditu. Blas elizako irakurketetan aritzen zen, apaizak idatzitakoa irakurtzen zuen.

215. Maiorazkoaren abantailak (AZK-020/018)

Etxean lan egin behar izaten zen. Maiorazkoa izaten zen etxeko zaharrena eta kargu hori zuenak neskatan egiteko ere erraztasun handiagoa izaten zuen. Etxean ez zen lanik falta izaten.

216. Fruta-arbolak; sagardoa etxean egiten zen (AZK-020/019)

Fruta-arbolak zituzten etxean: sanjuan sagarra, gerezia, aranak, eta abar eta plazan saltzen zituzten. Sagardoa egiten zuten etxean "patxekoa" zeritzona, baina ez zen gaur egungoa bezalakoa, zortzi egunetarako izaten zen. Orduan ez zen dolarerik. Emaztearen etxean sagardo asko egiten zuten. Ardoa izaten zen Blasen etxean.

217. Gerra denbora Azkoitian eta Elgoibarren (AZK-020/020)

Gerra denbora 8 urte zituela ezagutu zuen; beraiei ez zien galera handirik eragin. Azkar pasa zen frontea; eta, Elgoibar pasata, pareko mendian geratu ziren. Aita, idiak zituenez, munizioa jasotzera derrigortu egin zuten; eta Elgoibarko San Migeldik Kalamua mendira joan behar izan zuen. Bala eta morteroak izaten ziren, eta beldurrez egoten ziren.

218. Estraperloaren inguruko azalpenak (AZK-020/021)

Estraperloa ezagutu zuen, aita eta baita bera ere Aizpurutxora eta emaztearen baserrira (Martiteko Monte baserrira) joaten ziren eta. Lasai ibiltzen ziren, Guardia Zibilen beldurra izaten zuten soilik. Irina garesti izaten zen, 10 pezeta balio zuen kiloak.

219. Azkoitian, tela, zakua, alpargatak eta txapela ziren langai nagusiak (AZK-020/022)

Famili dena baserritik bizi zen. Orduan ez zen dirurik lanerako ofiziorik ikasteko ere. Azkoitiko industria diru iturri urrikoa zen. Gehienak alpargatak

egiten lan egiten zuten eta tela, zaku eta txapel fabrika ere baziren. Burnia sartzan hasi zenean aberastasun handiagoa etorri zen.

220. Auzolanean egiten ziren lanak (AZK-020/023)

Martite azoan 36 baserri inguru ziren garai hartan. Auzolan asko izaten zen, belarretan eta idiekin lanean aritzen ziren. Belar meta edo zuhatzak nola egiten zituzten azaltzen du. Belarretarako garaia San Juanetan hasten zen eta auzolanean egiten zuten. Baita gari-jotzea ere.

221. Martitera bidea auzolanean egin zutenekoa (AZK-020/024)

59an hasi ziren Martite auzora bidea egiten Blas eta auzotarrak. Eskuz egin zuten, diputazioak lagunduta. Diru-laguntza zerbait lortu zuten apaizak lagunduta, baina eskulan gehiena beraiek egin zuten. 23 hilabete pasa zituzten bidea egiten.

222. 22 urterekin soldadutzara Donostiara (AZK-020/025)

Soldadutzara 22 urterekin Donostiara joan zen eta urte eta erdi egin zuen bertan. Guardia asko egin zituen, batez ere Martuteneko kuartelean. Sukaldean eta garbiketan ere aritu zen eta euskaldun asko ziren. Ez zuen kalabozorik sekula probatu. Trenez joaten zen Urolako trenean eta zapatutik astelehenera eta urtean beste 4 alditan izaten zuten etxera itzultzeko baimena.

223. Neska-lagunak eta erromeriak (AZK-020/026)

Izan zituen neskalagunak aipatzen ditu. Emaztea ere Martite auzokoa zuen eta hango erromerietan ezagutu zuten elkar. Orduko erromeria bostetan arrosarioarekin eta ondoren soinuarekin izaten zen eta dantza suelta egiten zuten. Iluntzerako etxeratzen ziren.

224. Tabernan musean eta boletan aritzen ziren auzoan (AZK-020/027)

Neskek ez zuten tabernara sartzeko ohiturarik, dirurik ere ez zuten. Zerbeza eta pattarra edan ohi zen. Musean jokatzan zuten launaka. Martite auzoan taberna zegoen. Udaran boletan jokatzan zuten.

225. Azkoitiko parrokian ezkondu zen; ezkon-bidaia (AZK-020/028)

31 urterekin ezkondu zen Azkoitiko parrokian eta Olaberri tabernan egin zuten bazkaria. Orduko ezkontzetako janaria aipatzen du. Ezkon-bidaian Bilbora eta Madrilera joan ziren. Amusatagira ezkondu eta 6 seme-alaba izan zituen.

226. Elgoibarren jaio eta bederatzi urterekin Azkoitiko Kukuerrira bizitzera (AZK-021/001)

1914an jaio zen Elgoibarren eta handik bederatzi urterekin Kukuerriko Letetxora joan zen. Gurasoak elgoibartarrak zituen, ama Bailederrekoa eta aita Antxietakoa zituen.

227. 14 urterekin zerbitzari Duque de Granada-renera (AZK-021/002)

Elgoibartik Kukuerrira bizitzera joan zirenean ganadu eta guzti joan ziren; txahalak eta behiak zituzten orduan. Etxejabeak Loiolara joan ziren bizitzera eta beraiek jarri ziren bertan. 14 urterekin Duque de Granada-renera joan zen zerbitzari lanetara.

228. Eskolan neska-mutilak elkarrekin Elgoibarren (AZK-021/003)

Eskolan Elgoibarren ibili zen zazpi urterekin hasi eta 11 urtera bitartean. Idazten eta irakurtzen eta doktrina ikasten zuten. Gustuko zuen irakurketa. Neska-mutilak batera joaten ziren eskolara. Elgoibarko maistrak izan zituen. Kukuerrira joan zirenean ama-alaba batzuk irakatsi zioten. Jaunartzea egin zuen egunean utzi zuen eskola.

229. Jaunartzea egin aurretik doktrina ikasi behar (AZK-021/004)

Jaunartzea egin aurretik doktrina ikasten zuten, derrigorra zen eta. Bi jaunartze egiten ziren orduan.

230. Neskame Duque De Granada-renean eta Donostian (AZK-021/005)

Etxetik kalera ordubeteko bidea zuten. 14 urterekin Duque De Granada-renean hasi zen neskame lanetan eta geroago Donostiara joan zen. Donostian 8 neskame egon ziren lanean; etxe hartako kontuak eta egin beharreko lanak kontatzen ditu. Goizean goiz jaiki eta gauean 12etan oheratzen ziren.

231. Errotan gariaren truke irina (AZK-021/006)

Soroan artoa, garia eta arbia egiten zituzten. Ogia askotan egiten zuten etxean, masa egin eta labean sartzten zuten. Kalera gutxitan joaten ziren eta etxean egin behar izaten zuten jatekoa. Errotara garia eraman eta truken irina hartzen zuten. Astoa hartuta ibiltzen zen eta bakarrik joan ohi zen gehienetan.

232. Artzain eta gaztak egiten (AZK-021/007)

10 senide ziren etxean eta eskolatik irteterakoan etxerako bide sail luzea izaten zuten eta ez zuten askorik jolasten. Artzain egoten zen etxetik gertuko mendira, 18 ardi inguru zituzten. Ardi jeizten eskuz aritzen zen anaiarekin; gazta egiten zuten bai amak eta baita Antoniak berak ere. Gazta nola egiten den azaltzen du.

233. Baserriko lanetan (AZK-021/008)

Ardi-larrua saldu egiten zuten eta diru pixka bat atera ohi zuten. Arkumeak saltzen zituzten eta harakinak hiltzen zituen. Sagardoa egiten zuten etxean. Arbia jorratzen eta bestelako lanetan ere aritzen ziren idi eta behiekin lagunduta.

234. 40 urtez kalera etxez etxe esnea saltzera (AZK-021/009)

Esne-behiak zituzten eta esnea kalera saltzen ibili zen 40 urtez. Etxez etxe saltzen zuen, astoa lagun hartuta. Diru gutxi lortzen zuten.

235. Neskek ere baserrian mutilek bezalaxe egiten zuten lan (AZK-021/010)

Josten ez zen askorik aritu eta zekien apurra amak erakutsi zion. Neskek baserrian mutilek bezalaxe lan egiten zuten. Antonia anai-arrabetan zaharrena zen.

236. Etxean urik ez eta erre kara joan behar (AZK-021/011)

Etxean ez zuten urik eta marmita hartuta joaten ziren ur bila; ontziak garbitzera ere erre kara joaten ziren. Arropak garbitzeko lixiba egiten zuten 15 egunean behin. Baziren xaboiak orduan ere: "txinbo" eta "lagarto".

237. Neskame zegoenean festarako astirik ez (AZK-021/013)

Erromeriara 3-4 aldiz joan zen bakarrik Martirietara, ez zitzaion dantza gustatzen eta. Neskame egon zenean jai bakarra izaten zuen libre eta ez zuten festarako astirik izaten.

238. Hilean 10 duroko soldata neskame lanean (AZK-021/014)

Neskame egon zeneko jabeak aberatsak ziren eta 10 duro irabazten zituen hilean. Gaztelaniaz hitz egiten zuen eta ondo moldatzen zen. Gaztelaniaz hantxe ikasi zuen, eskolan ez zuen batere ikasi eta.

239. Dukeen etxean neskame (AZK-021/015)

20 urterekin etxekoandreak Madrilgo etxera eraman nahi zuen neskame, baina ez zuen nahi izan. Oso aberatsak ziren nagusiak, dukeak ziren.

240. Mendizabalgo semearekin ezkondu zen Azkoitian (AZK-021/016)

22 urterekin Mendizabal baserriko semearekin ezkondu zen. Ezagutu zueneko kontuak kontatzen ditu. Azkoitiko parrokiari ezkondu ziren. Banketea tabernan egin zuten eta ez ziren ezkon-bidaiara joan etxean lana zegoelako.

241. Gerra denborako bizipenak (AZK-021/018)

Gerra garaian, ezkondu eta 4 hilabetera, gizona gerrara eraman zioten urte eta erdirako. Etxe inguruan pasatako soldaduak eta tiro-hotsak gogoan ditu. Ganadua ukuiluan izaten zuten, kanpora ateratzeko beldurrez. Gosea pasa zuten dirurik ez zutelako, eta ogia etxean egiten zuten.

242. Otorduetako janaria: babak eta txerriak (AZK-021/020)

Orduko eguneroko otordua baba, taloa eta txerriak izaten ziren. Aitonak hiltzen zuen txerria eta gazi kutxetan mantentzen zuten okela. Odolkiak eta txorizoak berak egiten zituen. Arrainik ez zuten jaten. Odolkiak eta mondejuak auzora eramaten zituzten.

243. 20 baserri inguru bailaran (AZK-021/021)

Gizona auzolanean askotan aritzen zen garia jotzen, belarretan eta bestelako lanetan. 20ren bat baserri zeuden bailaran eta denak baserritik bizi ziren.

244. Mezetara igandero; arrosarioa egunero erreztatzen zen (AZK-021/024)

Igande goizean zazpietarako joaten zen mezetara eta gizona beranduago joaten zen. Etxean arrosarioa egunero erreztatzen zuten bost misteriokoa. Konfesatzera joaten ziren.

245. Orduko janzkera (AZK-021/026)

Soineko eta jertseak erabiltzen zituzten, kalerako zapatak eta etxean abarkak. Kalera abarkekin jaitsi eta han aldatu ohi zituzten. Arropak kalean erosten zituzten. Baserritar jantzirik ez zuen erabiltzen.

246. Azkoitiko prozesioak eta "Mariaren alabak" kongregazioa (AZK-021/027)

Azkoitiko prozesioetara joaten zen. Arantzazura egindako bidaiak aipatzen du. Azkoitian santu asko izaten ziren eta mutilek eramaten zituzten. Anekdotak bat aipatzen du. "Mariaren alabak" kongregaziokoa izan zen. Hilero zinta jantzi eta mezetara joaten ziren eta ez zuten lotuan dantza egiterik izaten.

247. Erromeriak; neska-laguntzea (AZK-021/028)

Martirietan izaten ziren erromeriak eta garai hartan goiz izaten ziren, gainera. Neska-laguntzeak zer izaten ziren azaltzen du. Berak bakarrik hazi zituen 10 seme-alabak.

248. 100 ardi inguru eskuz jezten zituen (AZK-022/015)

Artzaintzan hasi zenetik beti etxe inguruan ibiltzen zen. 100 ardi inguru zituen. Ardiak jezten eskuz aritzen ziren. Gerora kaiolak azaldu ziren lan horretarako eta 5.000 duro balio zuten. Ordubetetik gora pasa ohi zuen ardiak jezten.

249. Gazta nola egin (AZK-022/016)

Gazta egiten zuten etxean, anaiak gehienez. Ramonek azaltzen du gazta nola egiten zen. Hilabete inguru eduki behar izaten da gazta, egiten den unetik jaten den arte.

250. Ardi-larrua eta ardi-moztearen inguruko azalpenak (AZK-022/017)

Orduan ardi-larrua saldu egiten zuten 800 pezetatan eta gaur egun ez du batere balio. Arkumearen prezioa ez da aldatu urte askoan. Ardi moztea guraizeekin egiten zuten etxeok. Moztailea kanpotik ekartzea garesti ateratzen da.

251. Arkume garaiko gorabeherak (AZK-022/018)

Arkume garaia nolakoa izaten zen azaltzen du. Arkumea jaiotzerakoan gaizki bazetorren bazekiten nola lagundu, ibilian ikasi zuten horretan.

252. Azpeitiko azokara arkumeak saltzera autobusez (AZK-022/019)

Azokara Azpeitira joaten zen Jose arkumeak saltzera; Azkoitiraino oinez eta handik autobusean eramaten zituen. Josek ardi mutur-gorriak eta Ramonek beltzak izaten zituzten. Mutur-gorriak ardi gogorragoak dira eta beltzak, berriz, esnetsuagoak, Joseren ustez.

253. Urki hostoa, pentsua eta belar ondua ardiertzat (AZK-022/020)

Ardiak beti ezagutu zituen etxean, baina inguruko baserrietatik ere erosten zituzten. Beti kanpoan izaten zituzten ardiak eta urki arbolaren hostoa ematen zien jateko neguan. Pentsua almazenetik erosten zuten eta udan belar ondua ganbaran gordetzen zuten ardiei emateko.

254. Belarretaren inguruko azalpenak (AZK-022/021)

Belarretan urtero egiten zuten eta ekainaren aurrenean ebakitzen zuten, segaz moztu ohi zuten eta idiekin garraiatu. Segala zorrotzen zuten azaltzen du.

255. Erromeria Martirietan (AZK-022/022)

Festara Martirietara joaten zen. Erromeria handiak egiten ziren gerra-denboran soinua debekatu zuten arte. Dantza lotua bekatu zen. Erromeria goizago hasten zen lehen eta soinua izaten zen normalean.

256. Jaunartze txikia eta handia (AZK-022/023)

Jaunartzea Martirietan egin zuen. Doktrina ondo ikasi behar izaten zuten. Bi jaunartze egiten ziren lehen: txikia eta handia. Adin bereko neska-mutilek batera egiten zuten. Partikular egindako traje batekin egin zuen jaunartzea.

257. Arrosarioa errezatzeko ohitura; errezoak (AZK-022/024)

Etxean arrosarioa errezatzeko ohitura handia zuten. Errezo ezberdinak aipatzen ditu. Ez errezatzea gaizki ikusia zegoen. Bezperetara joaten ziren jai arratsaldeetan. Konfesatzera hilero joaten ziren kongregazioan egoten baitziren, luistarretan.

258. Erramu bedeinkatua etxe atarian (AZK-022/025)

Erramua ur bedeinkatuan busti eta etxe atarian zabaldu ohi zuen Joseren amak, etxean gauza txarrik gerta ez zedin trumoi eta tximistak zirenean.

259. Argi eta urik ez etxean gaztetan (AZK-022/026)

Gaztetan argirik ez zuten eta kandela, karburoa eta petrolioarekin moldatzen ziren. Karburoa eta petrolioak zer ziren azaltzen dute. Ura iturritik eramaten zuten. Etxean lixiba egiten zuten; honen inguruko azalpenak.

260. Orduko oheak (AZK-022/027)

Orduko oheek arto-malutarekin egindako azpia eta ardi-larruzko koltxoia izaten zuten.

261. Larruzko abarkak (AZK-022/028)

Larruzko abarkak erabiltzen zituzten, behi-larruz egindakoak. Deserosoak ziren eta etxean nola egiten zituzten azaltzen du.

262. Martirietarako bidea auzolanean egina (AZK-022/029)

Martirietara bidea egin zenean Jose eta auzotarrak auzolanean aritu ziren. Eskuz egin zuten eta beste auzoetako jendea ere eraman zuten laguntzera. Hiru urte behar izan zituzten bidea egiteko. Apaizak bideratzen zuen dirua eta inork ez zuen ordaindu beharrik izan.

263. Artzain-txakur txapelketetan hasi zeneko kontuak (AZK-022/032)

Artzain-txakur txapelketetan hasi zen garaiko anekdotak eta lehenengo txapelak irabazi zituenekoak kontatzen ditu.

264. Artzain-txakur txapelketen inguruko kontuak (AZK-022/033)

Gorbeako txakurra erabili ohi du. Txakurrari erakusteko berari lan eginarazi behar zaio eta etxean ere ardietan berarekin ibili. Txapelketetako proba ezberdinak aipatzen ditu. Artzain-txakur txapelketen inguruko kontuak aipatzen ditu.

265. Udan mendiko bordan ardizain (AZK-022/037)

Oleta mendian zuen borda Josek eta osaba eta auzotar batekin batera egoten zen bertan; ohe berean lo egiten zuten hirurek. Auzotarren ardiak eta bereak nahasian ibiltzen zituzten, baina erraz bereizten zituen bakoitzak bereak. Udaran San Isidro ondorenean joaten ziren mendira. Ia baserri guztietan zegoen artaldea lehenago.

266. Azeriak arkume lapurretan (AZK-022/038)

Azeriekin komeriak izaten zituzten arkume jaioberriak eramaten baitzituzten. Diru-laguntzarik ez zuten jasotzen. Ardiek orduan ez zuten gaur bezala kanpainarik pasa behar izaten.

267. Pilotan enpresan hasi zenekoa (AZK-023/014)

Pilota enpresakoek aurrez irabazten zuena baino gehiago eskaini zioten beraiengana jokatzera joateagatik eta bi urterako kontratua egin zuen. Eskuz banakakoa jokatzera zuenean beste hainbesteko bat ordaintzen zioten. Anaiak atzera geratu ziren Luxiano enpresan hasi zenean. Kanpora jokatzera joandakoan taxian joaten ziren. Frantziako pasadizo bat kontatzen du.

268. Frantziara pilotan jokatzera; mugan gertatutakoak (AZK-023/015)

Partiduak jokatzera Frantzia aldera joaten zirenean, mugara baten bat joan behar izaten zitzairen bila, dibisen arazoren bat zela eta ez baitzieten pasaportarik ematen. Apaiz bati esker pasaportea atera zuenekoak kontatzen du.

269. Frantzia eta Gipuzkoako pilotaren alde (AZK-023/016)

Frantziako eta Gipuzkoako pilotaren ezberdintasunak aipatzen ditu. Montevideora joan zenekoa.

270. Osaba botilero (AZK-023/017)

Barberito, Ogeta, Soroa, Tapia, Andueza... pilotari ezagunak. Afizionatuetan ez zuten saririk ere izaten. Osabarekin urte askoren alde bazuen ere, bera izan zuen botilero.

271. 15 urte profesioletan (AZK-023/018)

Profesioletan 27 urterekin hasi eta 42ra arte aritu zen eta bakarka hobea zen. Bere garaiko pilotariak izendatzen ditu. Retegirekin gertatutako anekdota bat aipatzen du.

272. Frontoietan apusturako joera (AZK-023/020)

Frontoietan apusturako zaletasun handia zegoen, diru asko jokatzen zen. Jokoan galdu xamar egon zen lagun baten aipamena egiten du, eta pasadizo bat kontatzen du.

273. Artekari eta botileroak (AZK-023/021)

Artekarien lana zein izaten den azaltzen du. Anduezaren botilero izan zen, baina usadioa hala delako soilik, berak ez baitu federik botileroengan. Azkoitian 10 pilotari inguru ziren bere sasoian, baina osaben garaian 20 edo gehiago izango ziren.

274. Pilota uztearen zergatia (AZK-023/023)

42 urterekin utzi zuen pilota; eskuetako arazoa izaten zuen eta utzi beharra tokatu zitzaion. Azkeneko partidua Bergaran jokatu zuen.

275. Soraluzen, kanoi-lantegian lanean (AZK-023/024)

Gerra hasi zenean, lau urte zituen eta gose handia pasa zutela dauka gogoan. Arrandegia utzi eta abarketak egiten aritu zen lanean, Soraluzera joan zen arte. Soraluzen kanoi-lantegi batean hasi zen ofizioa ikasteko asmotan. Gerrarako kartutxoak neurrira jartzen aritzen zen.

276. Astea Soraluzen, eta zapatuan etxera (AZK-023/025)

Soraluzen lanean ari zela, astea bertan pasatzen zuen eta zapatuan bueltatzen zen oinez etxera. Pasadizo bat kontatzen du.

277. Laneko lagunekin gertatuak (AZK-023/026)

Asteburuetan ez zen erromeriara ateratzen. "Sueltoan" bakarrik egiten zen dantzan. Lantegian 6 hilabete pasa ondoren ebentual lanean ari ziren 8 lagun etxera bidali zituzten. Lanean berarekin ibilitako lagun batzuekin gertatutako pasadizo bat kontatzen du.

278. Zaku eta tela lantegian lanean (AZK-023/027)

Pilotan hasi zenean lana utzi zuen. Pilotan zebilela, Epelde y Larrañaga lantegian ibili zen lanean eta lagunei ordaintzen zien bera partiduak jokatzeraz joaten zenean bere ordeaz lana egiteagatik. Pilotan baino diru gehiago irabazten zuen lantegian; zakua eta tela lantzen zuten.

279. Partidu bateko pasadizoa (AZK-023/028)

Pilotan diru dezente irabazten zuten. Afizionatu gisa zebilela, Donostiara partidu bat jokatzera joan eta kobratzerakoan pasatako anekdota bat kontatzen du.

280. Soldadutzara Gasteizera (AZK-023/029)

Soldadutzan, "excedente de cupo" zeritzona tokatu zitzaion, eta 3 hilabete eginda libratu zen. Gasteizen egotea tokatu zitzaion; eta, bitartean, partiduak jokatzeko aritu zen kapitainari esker, laguna baitzuen. Irabazitako dirua, etxera bueltatzean, amari ematen zion. Behin diru harekin etxean gertatutako pasadizo bat kontatzen du.

281. Ezkon-bidaian Valentziara (AZK-023/031)

Emaztea Azkoitian ezagutu zuen eta 28 urterekin ezkondu zen Loiolan. Ezkon-bidaian Iruñea eta Valentziara joan ziren. Valentzian osaba bat zuen eta berarekin egon ziren gotzaindegian. Lehengusu batzuek autoa bazuten eta haiekin ibili ziren Espainian zehar.

282. Pilota munduaren aldaketa (AZK-023/032)

Lehenengo eta gaurko pilotarien bizimodua eta pilota mundua alderatzen ditu. Bere pilotari gustukoena izendatzen du: Julian Retegi.

283. Arriaran eta Akarregirekin pilotak aukeratzen (AZK-023/033)

Arriaran eta Akarregirekin batera pilota aukeratzen urte askoan aritu zen eta gero bere ilobak hartu zuen kargu hori. Gaur ere pilota partidu batzuetara joaten da. Botilero modura hasteko askok eskatu dioten arren, ez du kargu hori hartu nahi izan.

284. Pilotako maisu bat (AZK-023/034)

Pilotak aukeratzen maisu aritzen zen bati buruzko azalpenak ematen ditu.

285. Azkoitiko lehenengo etxeak eraikitzen (AZK-023/035)

Garai batean etxe berririk ez zen egiten Azkoitian eta ordutik gaur egunera zenbat aldatu den aipatzen du. Lehenengo egin ziren etxeak Luxianok eta beste 15 lagunek egin zituzten elkarri lagunduta, 1961 urte inguruan, eta 105.000 pezeta ordaindu zuten. Orduko baserriak aipatzen ditu.

286. Azkoitian abarketak, Azpeitian altzariak (AZK-023/036)

Azkoitian lan gehiena abarketekin egiten zen eta herri pobrea zen. Azpeitian altzariak ziren diru-iturri eta horregatik aberatsagoa zen. Azpeitiarrak ikasketak egitera erraz iristen ziren; Azkoitian, aldiz, diru-iturri urriak aukera gutxi ematen zuten horretarako.

287. Oiartzunen jatetxea eduki zuen (AZK-023/038)

Azkoititik Oiartzunera joan zen, han jatetxe bat eduki baitzuen 26 urtean, eta hango gaztelaniaz hitz egiteko joeraren aipamena egiten du. 66an pilotako txapeldun izan zenean, Oiartzunera joan eta Mitxelena bertsolariak erretegia jartzeko ideia nola eman zion azaltzen du.

288. Oihartzuna lanera (AZK-024/001)

Oihartzunera lanera joateko nola konbentzitu zuten kontatzen du. 28 urte eman zituen han. Semea ere jatetxean ibili zen lanean. Eta azkenean uztea erabaki zuten, bestela erantzukizun handiegia izango zela eta semearentzat.

289. 63 antzerki obra (AZK-025/005)

Antzerkia egiten zen eta lagun bati antzerkien izenburuak eskatzen zizkion eta 63 obra egin ziren. Antzerkiak asko laguntzen zien gaztelania ikasten. Lanetik atera eta gaueko 10etan joaten ziren. Salesianoetan ikasitako gizon bat zuten erakusle eta saloi batean antzezten zuten.

290. Eleizara joanez gero, antzerkirako txartela (AZK-025/006)

Igande goizean 8etarako meza eta komunioa izaten zuten hurrek, eguerdian meza nagusia eta gero beste elizkizun bat izaten ziren. Elizkizunetara joaten zirenek baleak lortzen zituzten arratsaldeko antzerkia edo zinea ikusteko.

291. Mancisidor-enean mekanikari (AZK-025/007)

Azkoitian Olinpia zinea zegoen eta garestia zelako ez ziren askotan joaten. 16 urterekin hasi zen lanean mekanikari lanetan Mancisidor Larra y C^o antegian. Hasieran pintxe lanetan eta gero ajustadore gisa aritu zen. Gosete garaia zen eta jateko adina ere ez zuen irabazten.

292. Azkoitira tropak sartu zirenekoa (AZK-025/008)

Gose handia pasa zuten gerra garaian. Irailaren 20an tropak nola sartu ziren gogoratzen du, gaur balitz bezala. Anekdotak bat aipatzen du. Etxetik gertu sagasti batera sagarrak jasotzera joan eta bonbak nola bota zituzten aipatzen du. Gasolindegira botatzen ere ahalegindu ziren. Gerrak bi hilabete iraun zuen Azkoitian. Tropak sartzen zirenean frontoia kuartel modura erabiltzen zuten.

293. Floreagako eskola ospitale bihurtu zuten gerratean (AZK-025/009)

Azkoititik tropak Elgoibarrera joan ziren, eta handik Eibarrera. Bitarte horretan, gerra geldirik egon zen hiru hilabetez eta Floreagako eskola ospitale modura jarri zuten. Ospitaleko kapilaua Carmeloren irakaslea zen. Carmelo laguntzen aritzen zen akolito gisa.

294. Aita hil eta akolito hasi zen (AZK-025/010)

Bederatzi urte zituela, aita hil zitzaion, bi urtez gaixo egon ondoren. Arreba bederatzi urte zaharragoa zen. Aita hil zenean hasi zen akolito lanetan. Anekdotak bat kontatzen du. Egunero meza eta funtzioetan laguntzen zuen. Kapila bota zenean, Urrategira hasi zen igandero, akolito lanetan laguntzera.

295. Umetatik eliza munduari lotua (AZK-025/011)

Urrategiko elizara laguntzera oinez joaten zen. Bi meza izaten ziren, 9etan eta 11etan. Umetatik hasi zen eliza munduan eta ez zuen hortik dirurik irabazten, borondatezkoa izaten zen.

296. Ezkon-bidaian Fatimara eta Lisboa (AZK-025/012)

49 urte egin zituen lantegian. Koinatua eta bera batera ezkondu ziren eta bidaian nora joan ziren azaltzen du. Ezkon-bidaia joateko lantegian baimena eskatu behar izan zueneko eta jubilatutako lan urteak aipatzen ditu.

297. Alpargatagintza nagusi Azkoitian (AZK-025/013)

Azkoitiko orduko lantegiak aipatzen ditu. Azkoitia alpargataren herria zen. Karmelok ere josi ohi zituen. Jositakoak entregatu egin behar izaten zituzten eta dirua jasotzen zuten trukean.

298. Umetatik koadro eta figurak margotzen (AZK-025/014)

Umetatik margotzea atsegin izan du, bere kasa aritzen zen etxerako koadro eta figurak egiten. Salesianoetako zuzendariak Carmelori eta beste lagun bati deitzen zien eskola orduetatik kanpo dekorazioan aritzeko.

299. Jaunartzea marinel jantzita (AZK-025/016)

Jaunartzeak Azkoitian egin zituen. Marinel jantzita joan zen eta zinta bat eramaten zuten.

300. Aizkorri gertatua (AZK-025/018)

Aizkorri mendira joan zireneko pasadizo bat kontatzen du.

301. Aste Santuko prozesioa (AZK-025/020)

Aste Santuko prozesioa galduta egon zen, baina lagun talde batek berreskuratu zuen. Ostegun Santu egunean Jesus gurutziltzatu eta ostiralean jaitsi eta prozesioa egiten zen.

302. Jauna hartzera, baraurik (AZK-025/021)

Igande goizean, mezara joaten ziren; konfesatzea nahitaezkoa izaten zen. Luistarren kongregazioan egon zen. Elizara baraurik joan behar izaten zuten jauna hartzera. Behin, baraua hautsi zuen, eta orduan gertatutako pasadizoak kontatzen du.

303. Azkoitiko eliza, komentu eta ermitak (AZK-025/022)

Azkoitiko eliza, komentu eta ermitak izendatzen ditu. Azkoitiko lehenengo eliza San Martingoa izan zen. Errezil eta inguruetatik zaldiz joaten zen jendea mezara.

304. Urrategiko elizarako egindako lanak (AZK-025/023)

Urrategiko elizako aldarean Carmelok eskuz landutako aldarea eta mahaia daude, besteak beste.

305. Gaurko euskara; 'Basarri'ren aipamena (AZK-025/027)

Irakasle erdaldunak izan zituen eta euskaraz egitea debekatua zuten. Gaurko euskara zaila egiten zaio irakurtzeko eta ulertzeko. Euskararen aipamena. Basarri bertsolaria.

306. Juin dorrean jaioa 1924an (AZK-026/001)

Azkoitiko Juin dorrean jaio zen 1924an. Gurasoak ere azkoitiarrak zituen, eta sei anai-arrebako familiakoa da.

307. Mojetan eta Floreagan ikasia (AZK-026/002)

Eskolan Karitateko mojen eskolan ibili zen zazpi urtera arte. Jaunartzea egin ondoren Floreagan hasi ziren eta handik batxilergora. Gerra zela-eta, 12 urterekin eskola utzi behar izan zuten.

308. Abarketagintzan lanean (AZK-026/003)

15 urterekin abarketak egiten hasi zen Arrizabalaga lantegian eta ondoren Epelde y Larrañaga lantegira joan zen. Abarketentzako materiala Azkoitian bertan egiten zuten. Abarketak egiteko prozesua azaltzen du.

309. Azkoitia, abarketaren herria (AZK-026/004)

9-10 orduko laneguna izaten zuen eta ondo irabazten zuen. Epelde y Larrañaga lantegian arduradun izan zen. Abarketagintzako 54 lantegi izatera iritsi zen Azkoitia. Erdi kalean aritzen ziren emakumeak abarketak josten. Anekdotak bat kontatzen du.

310. Umetan, pilotan (AZK-026/005)

Umetan pilotan aritzen ziren, pilotaleku asko zeuden Azkoitian. Soldadu zegoela pilotan egin zuenekoak kontatzen du; 16tik laugarren geratu ziren.

311. Juin jauregiko zaintzaile (AZK-026/007)

Etxe ingurua deskribatzen du. Baratzea eta untxiak zituen etxean. Konde batzuk ziren Juin jauregiko nagusiak eta gutxitan joaten ziren Azkoitira. Julianek eta etxekeok zaintzen zuten jauregia eta trukean beraien etxeagatik ez zuten ezer ordaindu behar izaten.

312. Erromeriara Madariagara eta Martitera (AZK-026/009)

Erromeriara Madariaga eta Martirietara joaten ziren, besteak beste. Oinez joaten ziren, herrian hiru auto besterik ez zeuden-eta. Erromeria angelusa jo arte izaten zen eta trikitiaren doinuz dantzan aritzen ziren.

313. Azkoitiko zinemak (AZK-026/010)

Azkoitiko zinemak aipatzen ditu; Baztartxo, Olinpia. Mutilak tabernan eta neskak pasiatzen ibiltzen ziren kalean; elkarrengandik aparte ibiltzen ziren. Neskek debekatua zuten tabernan sartzea.

314. Igandeetan meza eta bezperak (AZK-026/011)

Igande goizetan meza nagusira, arratsaldean bezperetara eta ondoren pilotan jokatzera joateko ohitura izaten zuten.

315. Azkoitia eta inguruko alpargatagileak (AZK-026/012)

Epelde y Larrañ lantegia itxi zenean sozio batekin lanean hasi eta ondoren berak bakarrik jarraitu zuen. Inguruko alpargatagileak aipatzen ditu.

316. Soldadutzara 20 urterekin Burgosera (AZK-026/013)

Soldadutzara 20 urterekin joan zen Burgosera trenez. Zalditeriako kide izan zen. Tiroetan onena izan zelako bera izan zen lehenengoa etxera bueltatzeko baimena lortu zuena. Azkoitiko lagun asko izan zituen eta euskaraz hitz egiten zuten.

317. Juin jauregia, gerra garaian, kartzela (AZK-026/014)

Gerra denboran Azkoitiko Juin jauregia kartzela modura erabili zuten. Bonbak bota eta berak ikusitakoa kontatzen du.

318. Errazionamenduko ogia eta olioia (AZK-026/015)

Gerra-garaian errazionamenduko ogia ezagutu zuen, eta ez zen jateko modukoa izaten. Olioia oso garestia izaten zen errazionamenduan.

319. Ezkon-bidaian Gijonera osabarengana (AZK-026/016)

Emaztea lantegian ezagutu zuen. Azkoitian ezkondu zen 36 urte zituela. Ezkon-bidaiara Gijonera joan ziren osaba jesuita bertan baitzuten.

320. Elizara ez joatea bekatu (AZK-026/017)

Elizara ez joatea bekatu zela esaten zuten eta astero joaten ziren. Luistarren kongregazioan egon zen maisu. Arrosarioa egunero errezatzen zuten. Jauna hartzera baraurik joan behar izaten zen. Bi jaunartze egin zituen eta haiek egiteko doktrina ikasi behar izaten zuten aurrez.

321. Karlistak eta nazionalak Juin jauregian (AZK-026/018)

Juin jauregian, Loiolako jesuitak eta moja frantziskotarrak egon ziren, besteak beste. Kartzela izan zenean, karlistak eta nazionalistak egon ziren, eta Julian kartzela barruan ibiltzen zen askotan. Julianen amari eta berari deklaratzera joateko abisua bidali zieteneko pasadizoa kontatzen du.

322. Erromerietara alpargatak jantzita (AZK-026/023)

Erromerietara alkandora zuria, praka meheak eta abarketak jantzita joaten ziren.

323. Azkoitiko jauregiak (AZK-026/024)

Azkoitian baserri asko zegoen. Jauregiak izendatzen ditu; jabeak kanpotarrak izaten ziren. Juin jauregia deskribatzen du. Aberatsena izan arren jauregia, arropak xaboi-hautsarekin eskuz garbitzen zituzten eta plantxak ohol batean sutan berotutakoak izaten ziren.

324. Andra Mari jaiak, prozesioak eta dantza lotua (AZK-026/025)

Azkoitiko Andra Maria jaien aipamena egiten du. Dantza lotuan eginez gero kongregaziotik botatzen zituzten. Prozesio ugari egiten zen Azkoitian eta Julianek estandarte eraman ohi zuen bizkarrean.

325. Eskolan Mixerikordian, Kontsejupean eta fraideetan (AZK-027/002)

Eskolan Mixerikordian, Kontsejupean eta fraideetan ibili zen. 14 urterekin utzi zuen eskola. Neskak eta mutilak bereizita ibili ziren eskolan.

326. Eskolatik piper egin eta Altzibarko presara (AZK-027/003)

Eskolatik piper egiten zutenean Altzibarko presara joaten ziren bainua hartzera. Txorro-morroka eta beste zenbait jolasetan jolasten zuten.

327. Eskola ondorengo lantokiak (AZK-027/004)

14 urterekin eskola utzi eta Eibarren hasi zen mekanikari lanetan. Handik Soroluzera, Zumarragako Orbegozora eta Elgoibarrera joan zen lanera. Lan ezberdinak azaltzen ditu. Lantokietara trenez eta bizikletaz joaten zen.

328. 20 urterekin Madrilera soldadu (AZK-027/005)

20 urterekin Madrilera joan zen 3 urterako boluntario modura. Egurra txikitzen eta sukaldari lanetan aritu zen soldadutzan. Ez zuen goserik pasa eta diru asko irabazten zuen. Euskaldun asko suertatu zitzaizkion Madrilen. Kalabozoan egon ez bazen ere, zigorra probatu zuen. Etxera urtean behin bueltatzen ziren, trenez.

329. Landetako fundizioa eta beste lantoki batzuk (AZK-027/006)

Soldadutzan lizentziatu eta etxera itzuli zenean, Azpeitiko Landetako lantegi batean hasi zen fundizioan lanean. Hura gustatu ez eta beste zenbait lanetan ibili zen gerora.

330. Alpargatak josten etxean (AZK-027/007)

Alpargatak josten aritzen zen etxean, lantegian lanean aritu arren. Alpargatak jositakoan entregatu eta dirua jasotzen zuten trukean.

331. Luistarren kongregazioko maisu (AZK-027/009)

Jaunartzea 11 urterekin egin zuen. Elizara igandero joaten ziren eta jauna hartzeko baraurik joan behar izaten zuten. Konfesatzera derrigorrez joan behar izaten zuten. Luistarretako maisu izan zen. Maisuek zinta zuria eramaten zuten soinean eta kongregazioko mutilen dirua jaso eta elkartera eramaten zuten.

332. Zinea eta erromeriak (AZK-027/011)

29 urterekin ezkondu zen. Emaztea Azkoitian bertan ezagutu zuen. Zinera joaten ziren; hiru zine zeuden. 10 zentimo balio zituen sarrerak eta filmak erdaraz izaten ziren. Bi funtzio izaten ziren. Erromerietara joaten ez bazen ere, inguruetako erromeriak izendatzen ditu. Helduan dantzatzea debekatua zegoen. Tabernetan txikiteoa egin eta tutean eta musean apustuak egiten zituzten.

333. Otorduetako jakiak (AZK-027/012)

Garagardoa eta pattarra edan ohi ziren eta otorduetan potajea eta berdura jaten zuten. Bizilekua aipatzen du. San Martinen bizi zenean oilo eta untxiak zituen.

334. Ezkontza eta ezkon-bidaia (AZK-027/013)

Azkoitian ezkondu zen eta senitartekoekin ospatu zuten. Ezkon-bidaian Donostiara, Zaragozara, Santanderrera eta Bilbora joan ziren. Ezkondu ostean,

kalean txabola erosi zuen 10.000 pezetan eta untxiak jarri zituen bertan. Gero azokara eta harategira saltzen zituen.

335. Estraperloko irina (AZK-027/014)

1941ean ez zegoen ogirik eta arto-zopa, morokila eta artoa jaten zituzten. Taloa nola egiten zen azaltzen du. Irina estraperloan eramaten zuten eta honen inguruko pasadizo bat kontatzen du. Azkoitiko errota aipatzen ditu.

336. Gerra hasierako bizipenak (AZK-027/016)

Gerra atera zenean, arrebarekin Madariagan ari zen dantzan eta kalera ihes egin behar izan zuten. Erreketeeek herria nola hartu zuten eta orduko bizipenak kontatzen ditu. Eskolatik piper egin eta Alzibarko presara joaten ziren bonbak nola botatzen zituzten ikustera.

337. 50 urterekin ehorzle lanetan (AZK-027/017)

50 urte zituela ehorzle lanetan hasi zen. Umetan askotan joaten ziren hilerrira burezurak jasotzera. 16 urte eta 10 hilabete egin zituen lan horretan eta zenbat lagun lurperatu zituen kontatzen du.

338. Anaitasuna futbol taldeko kontserje (AZK-027/018)

Anaitasuna futbol taldeko zuzendaritzan egon zen eta bertako kontserje lanetan ere aritu zen 45 urtez. Ehorzle lanetan eta futboleko lanetan seme-alabek eta emazteak asko lagundu zioten. Lagunak lurperatzea suertatu zitzaion. 4 seme eta alaba ditu.

339. Ehorzle lanaren inguruko azalpenak (AZK-027/020)

Emaztearen gurasoak eta lagun ugari berak lurperatu zituen. Ehorzle lanetarako lurra nola lantzen zuen azaltzen du. Lehengo ehorzleek aitzurra erabiltzen zuten eta gaurkoek kutxara. Anekdotak bat aipatzen du. Hildakoei arropak kendu behar izaten zizkien lurperatzerako.

340. Hainbat lanetan aritua (AZK-027/021)

Egin izan dituen hainbat lan aipatzen ditu: udaletxeko masero, buruhandiak eramaten, idi-probetan, butano eta limonada banatzen...

341. Prozesioan santua eramaten (AZK-027/022)

Aste Santuko prozesioan santua eraman ohi zuen. Arropa beltza jantzen zuten santua eramateko.

342. Sokatiran eta txirrindulari (AZK-027/023)

Azkoitiko Andra Mari jaietan eta San Andresetan idi-probak izaten ziren. Kaskaretan eta sokatiran ere aritzen ziren eta Pablito txirrindulari eta korrikalari ere ibili zen.

343. Boxeolari izan zenekoa (AZK-027/025)

Palaz jokatzeko zuen lagunekin eta baita eskuz ere. 4 seme eta alaba izan zituen eta bizitzaren aldaketaz hitz egiten du. Boxeoan ere ibili zen Zestoan.

344. Urrategira erromeriara (AZK-029/010)

26 urtera arte baserrian aritu zen lanean. Anekdota bat kontatzen du. Jai arratsaldeetan erromeriara joaten zen Urrategira. Erromeria arratsaldean hasi eta iluntzean bukatzen zen.

345. Eliz-kanpai klaseak (AZK-029/011)

Garai batean kanpai ugari jotzen zen elizan eta kanpai ezberdinak aipatzen ditu: matutixe, angelusa, etab.

346. Lotuan dantza egiteagatik ogerleko bateko isuna (AZK-029/012)

Soinujolea aritzen zen erromerian eta dantza soltean egiten zuten. Irukurutzetako bertso bat abesten du. Azkoitian dantza soltean bakarrik egin zitekeen, bestela ogerleko bateko isuna izaten zuten.

347. Mariatarren kongregazioan (AZK-029/013)

Mariatarren kongregazioan egon zen Manuela. Hilean behin konfesatzera joaten ziren. Lotuan dantza egiteagatik kongregaziotik botatakoak baziren.

348. Aita idi-probetan itzain (AZK-029/015)

Idi pare bat izan zuten etxean aita itzain ibiltzen baitzen probetan. Inguruko herrietako probetan ibiltzen zen eta oinez joaten zen. "Ittulan" idiekin egiten zuten. Idiei etxeko belarra ematen zitzaaien jateko. Belarretan eta garotan aritzen ziren Madarixa gainera joanda.

349. Auzolana; txerri hiltzea (AZK-029/016)

Auzolanean aritzen ziren gari-jotzen eta orbela biltzen, besteak beste. Gari-jotzea nola egiten zuten azaltzen du. Etxean txerria hiltzen zuten, baina ez zitzaion lan hori batere gustatzen. Odolki eta txorizoak egiten zituzten eta urteko janari nahikoa izaten zuten.

350. Haragia mantentzeko gazi-kutxa eta olioia (AZK-029/017)

Haragia gazi-kutxa eta oliotan mantentzen zuten. Eguneroko otorduetan baba gorria eta sagarrak jaten zituzten. Arraina ere jaten zuten.

351. Umetako jolasak: sokadantza, diaboloa... (AZK-029/019)

Umetako jolasak: sokadantzan, diabolorekin, kortabanaka...

352. Igandero mezetara; arrosarioa (AZK-029/020)

Igandero joaten zen mezetara Azkoitira. Etxean arrosarioa erreztatzea ia derrigorra zuten; arrosarioko errezoak eta etxeko ohitura erlijiosoak aipatzen ditu. Hilean behin joaten zen konfesatzera. Jauna hartzera baraurik joan behar izaten zen.

353. Neskek debekatua galtzak janzteia (AZK-029/022)

Neskek debekatua zuten galtzak janzteia. Azkoitian prakak jantzita joan zen baten anekdota kontatzen du.

354. Ezkontza eguna eta eztei-bidaia (AZK-029/023)

Azkoitian ezkondu zen, soineko urdin batekin. Banketea Errexil tabernan egin zuten. Ezkon-bidaiara trenez joan ziren Donostiara. Alaba bat izan zuen 29 urterekin eta kalean jarri ziren bizitzen. Gizona Azkoitiko Santa Kurutz auzokoa zuen.

355. Azkoitiko prozesioak (AZK-029/025)

Azkoitiko prozesioetan ateratzen zen. Gizona Aste Santuan santuak eramaten ibili zen urteetan. Garai batetik hona santu asko daude. Kalbarioak hilerrira egiten ziren, errezoa egiten zen gurutze bakoitzaren ondoan eta 14 ziren denera.

356. Anaiak ahoko soinua eta ahizpek panderoa jotzen zuten (AZK-029/028)

Manuelaren anaiak ahoko soinua jotzen zuen. 3 ahizpek panderoa jotzen zuten eta jai arratsaldeetan dantzari aritzen ziren. Anekdotak bat kontatzen du.

357. Iruñean jaio eta Azkoitira bizitzera (AZK-030/001)

1917an jaio zen Iruñean. Ama Androndegi baserrikoa, Elosukoa eta ama Urretxuko Beain baserrikoak zituen. Gurasoak Iruñetik Azkoitira joatearen nondik norakoa eta anai-arreben aipamena egin eta izendatu egiten ditu.

358. Aitak bertan lana aurkitu eta Azkoitira bizitzera (AZK-030/002)

Sei urtera arte Iruñean bizi izan zen. Aita Azkoitian lanean hasi zen eta Azkoitian jarri ziren bizitzen.

359. Eskolara mixerikordiara eta plaza berrira (AZK-030/003)

Eskolara mojetara mixerikordiara eta ondoren plaza berriko eskolara hasi zen. 13 urtera arte ibili zen eskolan. Aritmetika, gramatika, historia... denetik ikasten zuten. Erdaraz ikasten zuten, baina Manuela Iruñean jaiotakoa zenez, ondo moldatzen zen.

360. Azkoitian nagusiaren etxean errentan (AZK-030/005)

Azkoitiko Errebal kalera joan ziren bizitzera eta etxearen deskribapena eta kokapena aipatzen ditu. Lantegiko nagusiarena zen etxea eta Manuela eta sendikoak bezala langile gehiago bizi ziren eraikin hartan, denak errentan.

361. Jaunartzea sei urterekin egin zuen Azkoitian (AZK-030/007)

Iruñean doktrina erdaraz ikasten hasi zen eta Azkoitian euskaraz ikastera pasa zen. Jaunartzea sei urterekin egin zuen Azkoitian. Behar baino lehenago egin zuen jaunartzea, nahikoa doktrina zekiela eta.

362. Erditu ostean elizatik pasa gabe ezin kalera atera (AZK-030/009)

Haurra izandako emakumeek zeremonia bat egin behar izaten zuten elizan, hori egin ezean ez zuten etxetik ateratzerik. Manuelaren amak ezin zion

jaunartzera lagundu aurretik aipatutako zeremonia hori egin behar zuelako lehenbizi.

363. Umetako jolasak (AZK-030/010)

Umetako jolasak: tortolosean, orratzekin, etab. Iruñean ikasitako kantuak kantatzen zituzten jolasetan erdaraz eta Azkoitiko umek harrituta begiratzen zieten.

364. Mariatarren kongregazioko maistra (AZK-030/011)

Elizara igandero joaten ziren gurasoekin, oso elizkoiak ziren. Mariatarren kongregazioko maistra izan zen, eta ezin izaten zuen helduan dantzarik egin Azkoitiko partean.

365. 20 urtez Intsausti lantegian lanean (AZK-030/012)

15 urterekin hasita 20 urtez Intsausti lantegian aritu zen lanean. Mazurka betetzen aritzen zen eta hura nola izaten zen azaltzen du

366. Lantegian enkargatu kargua (AZK-030/015)

Manuela enkargatu modura egon zen lantegian ezkondu bitartean, ez zuen makinarik probatu. Azterketa bat egin zieten kargu hura hartzeko. Lantegiko kontuak kontaktzen ditu.

367. Josten ikasten (AZK-030/018)

Josten ikasten partikular eskolaz kanpo neska batzuekin aritu zen eta ezkondu ondoren mojekin. Josten egiten zituzten lanak aipatzen ditu.

368. Azkoitira tropak sartu zirenekoa (AZK-030/021)

Hemeretzi urte zituela sartu ziren tropak Azkoitian; ordurako, anaia gerrara joanda zegoen. Aitaren inguruko anekdota bat kontaktzen du. Abertzalea zelako lanetik bidali zuten denbora batez.

369. Gerra denbora Azkoitian (AZK-030/023)

Gerra-denboran, herritik jende ugari egin behar izan zuen alde, baina Asuncion eta etxeokak karlista bati esker geratu ziren. Orduko kontuak aipatzen ditu.

370. Azkoitiar jostun batekin ezkondu zen (AZK-030/024)

Gerra ondoren lanean jarraitu zuen eta handik gutxira azkoitiar jostun batekin ezkondu zen. Gizonaren inguruko kontuak eta ezkontza egunekoak kontaktzen ditu. Ahizpa bat Bartzelonan zuen eta harengana joan zen ezkon-bidaian. Ahizparen inguruko kontuak.

371. Bizikletaz nagusiari lantegiko kartak eramatera (AZK-030/025)

Bizikletan ikasi zueneko kontuak kontaktzen ditu. Lantegiko kartak nagusiari eramaten zizkion bizikletaz correosetik.

372. Erromerietara inguruko auzoetara (AZK-030/026)

Erromeriara Madarixa, Martite eta Elosu auzoetara joaten ziren, besteak beste. Madarixan dantza lotua libre zegoen, baina Asuncionek kongregazioko maistra

izanik ez zuen dantzarik egiten. Erromeria garaiz bukatzen zen. Loiola aldera pasioan joan eta lagunartean egoten ziren kontu-kontari. Frontoia egin zenean inguruko herrietatik bertara joaten zen jendea dantzara. Zinera ez ziren askotan joaten garestia baitzen.

373. Azkoitiko prozesioak (AZK-030/028)

Azkoitiko prozesioak eta bezperak aipatzen ditu. Madarixa auzoraino joaten ziren prozesioan eta hilerrira kalbarioak egiten ziren. Kale bakoitzak bere santua izaten zuen.

374. Aitaren bizipenak gerratean (AZK-030/030)

Aitaren inguruko gerra-denborako kontuak kontatzen ditu.

375. 11 urterekin Getariara ume-zain (AZK-031/007)

Ez zen eskolara joan, aita irakatsi zion etxean. Madrildik etxera bueltatu zenean, 11 urterekin, Getariako etxe batean hasi zen lanean ume bat zaintzen.

376. Alpargatak josten etxean (AZK-031/008)

Getariatik etxera bueltatu eta etxeko lanetan aritu zen. Aitak erakutsi zien alpargatak josten eta txortak eramaten zizkien etxera josteko. Madariaga auzotik astoa otarrekin hartu eta txortak eramaten zituen josita kalera.

377. Eguneroko otorduak (AZK-031/009)

Txiroak izan arren ez zuten behin ere goserik pasa. Eguneroko otorduetan babarrun gorria jaten zuten eta patata frijituak eta arto-esnea gehienetan. Aitak kooperatiban erosten zituen etxerako jakiak.

378. 15 urterekin txapel lantegian lanean (AZK-031/012)

15 urterekin Hurtado de Mendoza txapel lantegian hasi zen lanean eta 12 urtez aritu zen bertan. Lantegian bertan ikasi zuen langintza eta bobinadoran lan egiten zuen. 8-10 orduz aritzen zen lanean eta soldata oso murrizta izaten zen; aitak barre egiten zion 10 erreal haiengatik.

379. Txapela, alpargata eta zakua nagusiki Azkoitiko industrian (AZK-031/013)

Azkoitiko lantegi nagusiak: txapel, alpargata eta zaku lantegiak. Txapel lantegiko nagusien aipamena eta txapela nola egiten zuten azaltzen du. Gazteak ere txapela jantzita ibili ohi ziren garai hartan.

380. Madariagara bidea 11 urte zituela (AZK-031/014)

Madariaga auzotik oinez jaisten zen lanera; 8 kilometro inguru zituen eta ahizparekin jaisten zen. Kanean izeba baten etxean geratzen ziren lotan. 11 urte zituela egin zuten Madariagarainoko bidea eta orduan ezagutu zuen lehendabiziko autoa.

381. Umetako jolasak (AZK-031/016)

Madrilen zegoela hiru gurpileko bizikletan ibiltzen ikasi zuen. Umetan "itsu-itsuka", tortoloxetan eta halako jolasetam jolasten zuten. Jolasen nondik norakoak azaltzen ditu. Madariagako frontoian pilotan aritzen ziren.

382. San Isidro jaiak Madariagan (AZK-031/018)

Madariagako jaiak San Isidroetan izaten ziren eta haien inguruko aipamena egiten du. Taberna auzokoek edukitzen zuten txandan eta neskak dantzan eta mutilak jokoan aritzen ziren gehienez.

383. Hilean behin konfesatu behar (AZK-031/019)

Madariagara Azkoitiko apaiza joaten zen. Meza igandeetan izaten zen, bi txandatan. Hilean behin konfesatu behar izaten zuten.

384. Auzoko lehen telefonoa Jacintaren etxean (AZK-031/021)

Jaunartzeak Madariagan egin zituen, zazpi urterekin txikia eta handia bederatzirekin. Egun berezietan, arkumea jaten zen eta etxeko labean erretzen zen. Orduko plantxa nolakoa zen azaltzen du. Lehenengo auzoko telefonoa Jacintaren etxean jarri zuten eta auzoko guztiek handik deitzen zuten.

385. Madariagan ezkondu zen (AZK-031/024)

Madriren ezkondu arte egon zen bizitzen. Azkoitiko txapel lantegian lan egin zuenean ezagututako mutilarekin ezkondu zen Madariagan. Ezkon-bidaian Madrilera joan ziren trenez.

386. Gaztelaniaz bazekien umetatik (AZK-031/025)

Madriren gaztelaniaz hitz egiten zuen. Berak bazekien, aitik erakutsi zion umetan eta. Gerra denboran, 21 urte zituen eta orduko oroitzenak gogoratzen ditu. Gerra garaian ez zuten goserik pasa.

387. Ardi-ilezko koltxoiak nola garbitu (AZK-031/027)

Arropak etxean eskuz garbitzen zituzten; errekarra joaten ziren. Ardi-ilezko koltxoiak zituzten eta haiek garbitzeko astindu egin behar izaten ziren.

388. Ardi-moztea (AZK-032/010)

Ardiak eroatera, auzoko baserrietara joaten zen; 7 pezeta palio izaten zuten. Pasadizo bat kontatzen du. Ardi-mozten guraizeekin aritzen zen, lagun bakarrak mozten zuen hankak lotuta jarrita. Ardi-ilea traperoari saltzen zioten kiloko duro batean.

389. Sagardoa, babak eta su labean egindako ogia (AZK-032/011)

Baratzea etxerako lantzen zuten. Fruta-arbolak zituzten: gerezia, sagarra, etab. Sagardoa nola egiten zuten azaltzen du. Eguneroko jatorduetan baba gorria jaten zuten. Labe suan ogia egiten zuten. Gerora okina joaten zen Aizpurutxora saltzera.

390. Txerri-hiltzea (AZK-032/012)

Ogia nola egiten zuten azaltzen du. Larunbatean egiten zuten aste guztirako ogia. Igande eta egun berezietan garbantzua eta haragia jaten zuten. Urtean bi txerri hiltzen zituzten; ilbeheran hil ohi zuten. Inaziok aitari ikasi zion txerria nola hiltzen zen. Emakumeek egiten zituzten odolkiak eta auzora banatzeko ohitura handia zegoen.

391. Lixiba nola egiten zuten (AZK-032/013)

Argia petrolioarekin egiten zuten indarretxea jarri zuten arte. "Petroleoa" pote batean metxari su emandako ontzi bat izaten zen. Ura beti izan zuten, atariko putzuan garbitzen zituzten arropak. Lixi-putzuan lixiba egiten zuten arropak garbitzeko. Atariko harrian astintzen zituzten arropak.

392. Ardi-ilez eta oilo-lumaz egindako koltxoiak (AZK-032/014)

Etxean ez zuten irratirik edo telefonorik. Aizpurutxon apaizaren etxean zegoen telefonoa. Oheek ardi-ilez eta oilo-lumaz egindako koltxoiak izaten zituzten. Noizean behin, harrotzeko, koltxoa astindu behar izaten zen.

393. Belarra ebakitzen oinutsik, abarkak ez hondatzeko (AZK-032/015)

Atorra eta jertsea janzten zituzten normalean eta mutil guztiek txapela eramaten zuten. Abarkak ganadu larruarekin eginak izaten ziren; Inaziok ere ikasi zuen haiek egiten. Belarra ebakitzen oinutsik aritzen ziren abarkak ez hondatzeagatik.

394. Mezara eta konfesatzera joatea derrigorra (AZK-032/016)

Mezara igandeetan joaten ziren Aizpurutxora. Bi meza izaten ziren, goizeko zazpitan etan eta hamaiketan. Derrigorra zen mezara eta konfesatzera joatea. Luistarren kongregazioan egon zen; medaila bat eta zinta eramaten zituzten seinale modura.

395. 21 urterekin soldadutzara Palentziara (AZK-032/017)

Soldadutzara 21 urterekin joan zen sei hilabeterako Palentziara. Gaztelaniaz ez zekien eta komeriak izan omen zituen. Azkoitia eta inguruko lagunak suertatu zitzaizkion bertan. Vasquito ezizenez deitzen zioten erdaraz ez zekielako. Kartzela probatutakoa da; orduko pasadizoa kontatzen du.

396. Tiro onena botatzeagatik etxerako baimena (AZK-032/018)

Soldadutzan kalera atera eta txikiteorako ohitura zuten. Palentziatik Alcala de Henaresera zalditeriara joan zen. Han Eibarko lagun bat izan zuen eta harekin gertatuak kontatzen ditu. Etxera hilabeterako bueltatzeko baimena gerra atera bezperan lortu zuen, tiro onena botatzeagatik.

397. Soldadutzatik bueltan, gerra hasiera (AZK-032/019)

Soldadutzatik etxera baimenarekin bueltatu zenean, bezperan gerra aterata zegoen eta anaiak eman zion horren berri. Herriko jauntxoek udaletxera aurkezteko eskatu zieten soldadutzatik herrira bueltatuta zeudela, eta orduan gertatutako pasadizoa kontatzen du.

398. Espiak zirelakoan kartzelara (AZK-032/020)

7 egunez kartzelan egon zen beste lagun batekin batera, espiak zirelakoan. Kartzelatik kuartelera eramane eta egunero hartzen zieten deklarazioa; handik kartzelara sartu zituzten. Fusilatzeke zorian egon zirela azaltzen du.

399. Artillerian gertatutako pasadizoak (AZK-032/021)

Artilleriara eraman zituztenekoa kontatzen du; 18 hilabete egin zituen Bizkaian. Artillerian egon zen hilabeteetako pasadizoak.

400. Itsasontzitik kanoikadak (AZK-032/022)

Artillerian zegoela, itsasontzi bati kanoikada bota eta huts egindakoan pasatako estutasunak aipatzen ditu.

401. Artillerian, Otxandiotik Galiziaraino (AZK-032/023)

Donostiatik Bilboko kuartelera joan ziren, eta artilleriarako boluntario aurkeztu ziren. Otxandion hasi, eta 18 hilabeteen Galiziaraino iritsi ziren.

402. Gerra denboran errotak gauzez eta ezkutuan (AZK-034/011)

Errotara Monte baserrira joaten ziren; bertako aitona egoten zen errotaren kargu. Errotan, ordain gisa, eramandako gariaren hainbesteko bat kentzen zen; "laka" deitzen zitzaion. Gerra denboran gauzez aritzen ziren errotetan eta Montekoek ikuilura pasa zuten Guardia Zibilek ez harrapatzeko. Zumarragatik ere jende asko joaten zen.

403. Ardi-ilea traperoari saltzen zitzaion (AZK-034/013)

Ardi-ilea traperoari saltzen zioten. Ardi moztea ekainean izaten zen eta guraizeekin mozten zituzten. Guraizeak zorrotzen zekienik ez zen izaten. Luis Marik aitari begira ikasi zuen ardi-mozten.

404. Oilasko onenak apaiz eta kaletarrentzat (AZK-034/015)

Oilaskoak saltzen zituzten azokan eta onenak apaizek eta kaletarrek eramaten zituzten. Lehengo baserritarrak miresten ditu.

405. Urtean bi txerri hiltzen zituzten etxerako (AZK-034/016)

Urtean bi txerri hiltzen zituen aitak eta festa izaten zen txerria hildako egunean. Amak egiten zituen odolkiak. Txerrikoa gatza eman eta egurrezko aska batean gordetzen zuten, eta behin ateratakoan, gatza kendu eta piper-hautsa ematen zioten lehortzeko.

406. Ataritik dei eginda auzokoekin harremanetan (AZK-034/019)

Irrati haundi bat zuten, eta Radio Andorra entzuten zuten. Irratsaioak erdaraz izaten ziren. Martirietan apaizak zuen telefonoa eta behar izanez gero, hara joaten ziren. Baserri batetik bestera ataritik dei eginda jartzen ziren harremanetan.

407. Atariko albergan arropak garbitzen (AZK-034/020)

Arropak atariko albergan garbitzen zituzten; lixiba egiten zuten. Xaboa pusketetan izaten zen.

408. Mediku eta sasimedikuak; etxeko sendabideak (AZK-034/021)

Amak zauriak sendatzeko botika bat egiten zuen belarrak nahasita. Tifus garaian, hilzorian egon zen. Sakabi zen inguruan sasimediku ezagunenetakoa, eta Azkoitian Trukuman medikua. Zauria egindakoan, txakurrari jartzen zitzaion miazkatu zezan, sendatzeko. Norbait gaixotuz gero, medikua etxera joaten zen. Umetan gaixotu zeneko pasadizoa kontatzen du.

409. Otsalarrera bidea egin zutenekoa (AZK-034/022)

Otsalarretik kalera ordu eta erdiko bidea zegoen. 1975ean egin zen bidea Otsalarrera eta auzo-lanean egin zuten Luisek eta auzokoez. Materiala Zubillagatik eraman zuten.

410. Basoan lanean "Atano" eta "Luxia" ezagunekin (AZK-034/023)

14 urterekin, basoan hasi zen lanean eta etxeko basoa bota zuen lehenengo anaiarekin, trontzaz. Anaia trontza zorrotzen abila zen. Egurra saldu egiten zuten eta idiekin garraiatzen zuten. "Atano X."a eta "Luxia" aizkolaria zituen nagusi basoan, eta haiekin ikusi zuen lehenbizikoz motozerra. Pasadizo bat kontatzen du.

411. Basoan astean 900 pezeta; torloju lantegian 200 (AZK-034/024)

Basoan lanean zebilela astean 900 pezeta irabazten zituen eta jan-edana debalde izaten zuen. Anekdotak bat kontatzen du. Basoa utzi eta torloju lantegi batean hasi zen lanean Azkoitian; 200 pezeta irabazten zituen astean, baina basoko lana baino arinagoa zen.

412. Laneko soldata otorduetan gastatu behar (AZK-034/025)

34 urte egin zituen torloju lantegian lanean. Hiru errelebotan egiten zuen lana eta irabazten zuena bazkari eta afaritan joaten zitzaion, tabernan jaten baitzuen beti. Irabazitako dirua ez zuen etxean entregatu beharrik izaten.

413. Probako idiekin apustuan ibilia (AZK-034/026)

16 urte zituenetik taberna giroan ibili izan da. Bega tabernan egiten zituen otorduak. Idi-probetan ibili zen, probarako idiak eduki zituen beste bi sozioarekin batera. Idiak harria lotuta entrenatzen zituzten astean hirutan. Jokatu izan dituen apustuak aipatzen ditu.

414. Azkoitiko azoka (AZK-036/014)

Azokara goizean goiz joaten ziren Azkoitira eta 11etarako dena saltzen zuten. Bakoitzak bere postua izan ohi zuen plazan. Kanpotarrak joaten ziren arropa saltzera. Azpeitira ere joaten ziren azokara autobusez.

415. Mariatarren kongregazioa; jaunartzearen inguruko kontuak (AZK-036/015)

Mezara Azkoitiko parrokiara joaten ziren. Mariatarren kongregazioan egon zen eta hilero konfesatzera joan behar izaten zuten. Konfesalekua nolakoa zen azaltzen du. Bi jaunartze egin zituen: txikia eta handia. Jaunartzeak egiteko doktrina ondo jakin behar izaten zen. Bakoitzak nahi zuen arropa eramaten

zuen jaunartze egunean. Neskek eta mutilek bananduta egin ohi zuten jaunartzea.

416. Tximistarik ez izateko kandela piztu eta gurutzeak jarri (AZK-036/016)

Afalondoan iluntzero errezatzen zuten arrosarioa; amak esan eta besteek errepikatu egiten zuten. Tximistarik eta okerrik izan ez zedin kandela pizten zuten, baita ate eta lur-sailetan gurutzeak jarri ere.

417. Olaso auzoko baserriak (AZK-036/018)

Lur-sailak banatzeko mugarriak jartzen zituzten. Olaso auzoko baserriak izendatzen ditu.

418. Dantza lotua debekatua (AZK-036/022)

Ahizparekin eta lagunekin joaten zen igandetan erromeriara. Lehenbizi elizan "funtzioa" izaten zuten eta ondoren trikiti-hotsera dantzara joaten ziren. Madariaga auzora joaten ziren erromeriara. Han debekatua zegoen dantza lotua eta baita Azkoitian (kalean) ere. Dantza lotuan harrapatuz gero, kongregaziotik botatzen zituzten.

419. Senideren bat hiltzen zenean, lutoa (AZK-036/024)

Azkoitiko kooperatiban bazkide ziren eta handik egiten zituzten erosketak. Jositako arroparik ez zen izaten eta arropak neurrira egiten zizkieten jostunek. Lutoa zegoen garaian arropak tindatzera eramaten zituzten. Hiltzen zen senidearen hurbiltasun-mailaren arabera lutoa denbora gehiagoan edo gutxiagoan eramaten zen.

420. Aste Santuko prozesioa eta ohiturak (AZK-036/025)

Norbait hiltzen zenean apaizak kanpai bat jotzen zuen. Hiletak egiten zirenean Alameda tabernan ematen ziren otorduak. Aste Santuan Azkoitiko prozesioa ikustera joaten ziren; santu ugari eramaten zituzten. Aste Santuan erromeriak, kantuan egitea eta halako entretenimenduak debekatuta egoten ziren.

421. Tortolos eta poxpolinekin jolasean (AZK-036/027)

Umetako jolasak aipatzen ditu: tortolosak, poxpolinak, etab.

422. Garai bateko txanponak (AZK-036/030)

Txanpon ezberdinak aipatzen ditu: xemeikoa, hiru-kuartokoa, pezetak, etab. Emakumeak ez ziren tabernara sartzen.

423. Behiekin "ittulan" eta egurra eramaten (AZK-036/032)

"Ittulan" aritzen ziren behiekin. Egurra ere behiekin eramaten zuten kalera saltzera. Baserriaren egitura azaltzen du.

424. Mediku eta apaizei berorika (AZK-036/034)

Azkoitiko kalean zeuden baserriak izendatzen ditu. Anai-arreben artean hika egiten zuten eta mediku eta apaizei berorika. Gurasoek umeei hika egin arren, beraiek zuka egiten zieten gurasoei, errespetuz. Ogia lurrera eroriz gero, jaso eta muin ematen zioten; aiztoa ere ezin izaten zen ogian sartuta utzi.

425. Igitaiaren erabilerak (AZK-037/001)

Garia mozteko igitaia zer den erakusten du. Baserriko edozein lan egiteko balio zuen: auzolanetarako, garia ebakitzeko, meta txikiak egiteko...

426. Gurdiaren egitura eta erabilerak (AZK-037/002)

Lehen otarrean, eta geroago gurdian jasotzen zen lastoa. Idiek gurdia nola eramaten zuten azaltzen du. Gurdia egurrezkoa zen, eta gurpilak burdinazkoak izaten zituen. Nola gidatzen zuten gurdia azaltzen du.

427. "Narraka"ren funtzionamendua eta ezaugarriak (AZK-037/003)

Idiei "narraka" sartzen zitzaien gurdia eramateko. Nola sartzen zitzaien erakusten du. "Narraka"nola funtzionatzen zuen azaltzen du. Burdinazkoa eta egurrezkoa izaten zen "narraka". Osaba arotz ona zen, eta tresna ugari egiten zituen. Ahal zuten gehiena etxean egiten zuten, ez erosi behar izateko.

428. Trongotarako txingoen erabilera (AZK-037/004)

Trongotarako txingak erakusten ditu, eta zertarako balio zuten eta nola lotzen zituzten azaltzen du.

429. Orduko bideak, eta elurra zenean nola irekitzen zituzten (AZK-037/005)

Idiekin zer bide egin behar izaten zuten azaltzen du. Mezara joateko, bidea idiekin zabaltzen zuten, elurra bidetik kentzeko. Nahitaez joan behar zuten mezetara. Bidetik elurra kentzeko zer tresna erabiltzen zuten eta nola funtzionatzen zuen deskribatzen du.

430. Elurretan arbiak ateratzen (AZK-037/006)

Elurra zenean arbiak nola ateratzen zituzten.

431. Azaoa nola erabiltzen zen (AZK-037/007)

Pinua zuritzeko azaoa erakusten du. Orain dela gutxi arte asko erabiltzen zen. Nola erabiltzen zen azaltzen du. Nekez kamusten ziren.

432. Gurdiaren dragak nola funtzionatzen zuten (AZK-037/008)

Gurdiaren draga erakusten du, eta nola funtzionatzen zuen azaltzen du.

433. Karga gurdian lotuta eramateko tresna (AZK-037/009)

Gurdiko karga eramateko tresna bat erakusten du, eta nola erabiltzen zuten azaltzen du. Gaztainaren edo hurritzaren egurra erabiltzen zuten horrelakoak egiteko, errazago tolesten zirelako.

434. Gaztainak biltzeko motxardak eta gaztainekin egiten zutena (AZK-037/010)

Motxarda nolakoa zen, eta gaztainak biltzeko balio zuela azaltzen du. Bildutako gaztainak ez zituzten saltzen. Abereak gizentzeko oso onak ziren. Erreta jaten zituzten gaztainak.

435. Esaga-zotzak eta gurdiaren ezpatak zertarako balio zuten (AZK-037/011)

Esaga-zotza erakusten du, eta zertarako balio zuen azaltzen du. Gurdiaren ezpatak zer diren argitzen dute.

436. Daratulu eta trintxearen erabilerak (AZK-037/012)

Daratulua erakusten du, eta zertarako erabiltzen zen azaltzen du. Trintxea zer den eta zertarako erabiltzen den deskribatzen du.

437. Bribilinen erabilerak eta materiala (AZK-037/013)

Bribilina erakusten du, eta nola erabiltzen den azaltzen du. Tresnen materialari buruz hitz egiten dute.

438. Zepilo eta garloparen erabilerak (AZK-037/014)

Zepiloa erakusten du, eta garlopa aipatzen du. Biak alderatzen ditu. Zertarako balio duten azaltzen dute.

439. Gurdiaren zatiak eta denen arteko funtzionamendua (AZK-037/015)

Gurdiaren zatiak, eta guztiek batera nola funtzionatzen zuten deskribatzen du.

440. Txondorgintza eta ikazkintza nola izaten zen (AZK-037/016)

Ikazkintza eta txondorgintzaz hitz egiten du. Lan hori nola egiten zuten azaltzen dute.

441. Ikatza egiteko egur klaseak (AZK-037/017)

Ikatza egiteko zer egur klase erabiltzen zuten aipatzen dute. Egur klase gutxi nahastea komeni izaten zen. Normalean pagoa izaten zen.

442. Txondorra zaindu beharra (AZK-037/018)

Txondorraren inguruan gau eta egun egon behar izaten zen, ikatza egiten zen arte. Zaindu egin behar izaten zen txondorra, egurra erre baino, egosi egin behar baitzen. Txondorra egiteko, 15 egun inguru behar izaten zituzten.

443. Arponaren nola eta zertarako erabiltzen zen (AZK-037/019)

Egurak etxera ekartzean, etxean zerratzen zituzten batzuk arponarekin. Arpona nolakoa zen eta nola erabiltzen zen azaltzen du. Zerra elektrikorik ez zuten etxean.

444. Katana motak eta haien funtzionamendua (AZK-037/020)

Katanaz hitz egiten dute: bi motatakoak zeuden, eta bakoitzak nola funtzionatzen zuten azaltzen dute.

445. Gurteria zer den (AZK-037/021)

Gurteria zer den azaltzen dute.

446. Otarrak eta haien garraioa (AZK-037/023)

Otarrak eta saskiak desberdinak izaten ziren lan bakoitzerako. Otarra bizkarrean eramaten zen normalean. Baina buru gainean eramaten zenerako, sodolkia egoten zen: lihoa trapu batekin bildu, eta haren gainean jartzen zen karga.

447. Otar motak eta haien materiala (AZK-037/024)

Lur-otarrak, eta otar handiak aipatzen dituzte. Otar guztiak zumitzarekin egiten ziren. Egurra nola lantzen zen azaltzen dute.

448. Artilea lantzeko moduak (AZK-037/025)

Artilea ere egiten zuten, eta hura egiteko makinaz hitz egiten dute, tornuaz. Lehen txabilarekin egiten zen eta lan asko eskatzen zuen horrek; baina beren garairako, makina bazeukaten. nbsp;

449. Artilearekin galtzerdiak egiteko prozesua (AZK-037/026)

Galtzerdiak beren amak egiten zituen. Ardi-ilea putzuan garbitzen zuten, eta gero lehortu egiten zuten. Era askotako ileak zeuden: lantzeko zailak eta errazak.

450. Abarkak eta abarka-sokak egin edo erosi (AZK-037/028)

Ez zuten inoiz egin abarka-sokarik etxean. Bizilagun batek bai, ordea. Beraiek erosi egiten zituzten beti abarka-sokak. Anai zaharragoek egiten zituzten abarkak etxean, baina beraiek ez zuten egiten, erosi baizik.

451. Etxeko alfonbrak egiteko materialak (AZK-037/029)

Alfonbrak ahuntzaren eta ardiaren ilearekin egiten ziren. Baita untxiaren larruarekin ere. Larrua nola lantzen zen azaltzen dute.

452. Ganbara eta sabaiaren erabilera (AZK-037/030)

Ganbara eta sabaia zertarako erabiltzen ziren azaltzen dute. Han kontuz ibili behar izaten zuten ez erortzeko. Ikulatxurra zer zen azaltzen dute.

453. Arka eta kutxen arteko aldea (AZK-037/031)

Arkak eta kutxak zertan desberdintzen ziren eta zertarako balio zuten azaltzen dute. Egurrezkoak izaten ziren, gaztainarekin egindakoak, luxua baitziren. Duela gutxi, pertsona batzuek bizilagunengana joan ziren, eta kutxa bat erosi zieten zuena baino balio txikiagoagatik, jabeak ez baitziren konturatzen zenbaterainoko balioa zuen.

454. Baserriko erloju zaharrak eta argimutilak (AZK-037/032)

Baserrian, erloju zaharrek balio handia izan dute, baina baserri inguruan zeuden erloju guztiak bildu zituzten erosle batzuek. Argimutilak, petrolio-farolak, ere izaten ziren baserrietan, baina balio gutxi ematen zieten, jendeak oso merke saldu zituen.

455. Garia neurtzeko imila eta imilauna (AZK-037/033)

Imila eta imilauna aipatzen dituzte. Garia neurtzeko neurriak zirela azaltzen du.

456. Txabolatako teilatuen egitura eta materiala (AZK-037/034)

Txabolatako teilatuari eusteko, zer jartzen zitzaion azaltzen dute. Teilatuak zerezkoak izaten ziren aipatzen dute.

457. Argindarraren posteak eta arriskua (AZK-037/035)

Argindarraren posteetan kontakturik ez izateko, kikerak nola erabiltzen zituzten azaltzen dute. Etxetik gertu samar egoten ziren argindarraren posteak.

458. Baserriaren inguruan izandako tximistak (AZK-037/036)

Etxetik gertu zegoen tximistorratz bati buruz hitz egiten dute. Behin tximista etxe barruan sartu zitzaienekoa kontaktzen dute.

459. Tximistaren indarra eta arriskua (AZK-037/038)

Beren aitari ere tximistak igitaian jo, eta urrutira bota zioneko eguna kontaktzen dute. Beren aitaren lehengusu bat ere tximistak jota hil zela kontaktzen dute.

460. "Pelagiaren" erabilerak eta materiala (AZK-037/039)

"Pelagia" erakusten du, eta zertarako erabiltzen zen azaltzen dute. Egurrezkoa izatearen egokitasuna aipatzen dute.

461. Irina egiteko makinaren funtzionamendua eta erabilera (AZK-037/040)

Arta alea eta baba txikitze makina erakusten dute. Garai batean, irina egiteko balio zuen. Nola funtzionatzen duen azaltzen dute. Ganaduarentzako janaria lortzeko ere balio dezake.

462. Artilea egiteko makina eta haren funtzionamendua (AZK-037/041)

Artilea egiteko makina erakusten dute. Nola funtzionatzen duen azaltzen dute. Makina hori koinatak ekarri zuen. 40-50 bat urte izango ditu.

463. Egurra zerratzeko makinaren funtzionamendua (AZK-037/042)

Egurra zerratzeko makina erakusten dute, eta nola funtzionatzen duen azaltzen dute.

464. Gurdiaren gorpila eta katanaren funtzioa (AZK-037/043)

Gurdiaren gorpila erakusten dute, eta katanaren funtzioa azaltzen dute.

465. Egurrak ateratzeko polearen erabilera (AZK-037/044)

Egurrak eta ateratzeko polea erakusten dute, eta nola erabiltzen zuten azaltzen dute.

466. Gurdia lehen eta orain (AZK-037/045)

Gurdia erakusten dute. Lehen kaxa gurtesia izaten zen, dena zumetzekin egiten baitzen. Gurdia pixka bat berrituta dagoela azaltzen dute, eta lehen nolakoa izaten zen deskribatzen dute. Nola funtzionatzen duen azaltzen dute.

467. Ikatz-galbahea nola erabiltzen zuten (AZK-037/046)

Ikatz-galbahea erakusten dute, eta nola erabiltzen zuten azaltzen dute.

468. Imilaunaren erabilera (AZK-038/001)

Imilaunak erakusten ditu, eta zertarako erabiltzen ziren azaltzen dute.

469. Txerria eramateko kaiola nola erabiltzen zen (AZK-038/003)

Txerria etxera ekartzeko kaiola erakusten du. Nola erabiltzen zuten azaltzen du.

470. Txokolatera eta sutarako zintzilikarioa (AZK-038/004)

Lehen beheko suan laratzean zintzilik jartzen zen tresna bat erakusten du, eta hor lapikoa jartzen zen. Txokolatera erakusten dute.

471. Plantxaren funtzionamendua (AZK-038/005)

Plantxa erakusten dute. Ikatzarekin berotzen zen. Nola funtzionatzen zuen azaltzen dute.

472. Treberak zertarako balio zuen (AZK-038/006)

Trebera erakusten dute. Taloak egitean erabiltzen zen suaren ondoan, taloak puzteko.

473. Behi-premioetako kanpaia (AZK-038/007)

Behi-premioetarako kanpaia erakusten du. Behi-premioak noiz izaten ziren azaltzen du.

474. Doktrina eta "kantzela" (AZK-039/003)

Doktrina eta "kantzela" ematen zituzten; igandeetan beraien mezak izaten zituzten, uniformeak jantzita.

475. Gaztetatik abarketen zoruak josten (AZK-039/004)

Arratsaldeetan laborea ematen zuten eta josten aritzen ziren eskolan bertan mojekin. Azkoitia alpargatengatik zen ezaguna. Bera ere gaztetatik hasi zen alpargaten zoruak josten, amari laguntzen. Zoruak dendetan hartzen zituzten eta josi ondoren entregatu eta dirua jasotzen zuten ordainetan. Etxe atarietan aritzen zen jendea abarketen zoruak josten.

476. Baztarrikaldean denda (AZK-039/005)

16 urterekin josten ikasten hasi zen Azpeitian; Azpeitiko emakume bat zuten irakasle. Bizikletaz joaten zen beste bi lagunekin batera. Baztarrikaldean denda eduki zuten eta Argik han lan egiten zuen; denetarik saltzen zuten. Argiren ahizpa plazan egoten zen postuan saltzen.

477. Arropak astintzera Baztarrikaldeko albergara (AZK-039/006)

12 urterekin, artean eskolan zebilela, etxe bateko garbiketa lanetan ibili zen goizez. Garbiketak eskuz egiten zituzten. Arropak astintzera gasolindegi atzera eta Baztarrikaldeko albergara joaten ziren; 6 aska zeuden. Etxean bazuten garbigailua eta xaboi-hautsa erabiltzen zuten.

478. Etxeko zoruaren garbiketa (AZK-039/007)

Etxeko zorua astero garbitzen zuten belauniko jarrita eta lurrari distira argizariarekin ateratzen zioten.

479. Dendarako fruta autobusez Donostiatik (AZK-039/008)

"Txantonenekua" izenez ezagutzen zen euren denda, etxekoen gaitzizena horixe baitzen. Hala ere, denda ez zen beraiena, errentan zeukaten. Non zegoen denda azaltzen du. Argi egoten zen dendan lanean eta amak laguntzen zion tarteka. Dendako janaria merkatariak eramaten zieten eta fruta Donostiatik ekartzen zuen Argik berak autobusez joanda.

480. Gaztetatik dendari lanetan; orduko txanponak (AZK-039/009)

Gazte-gaztetatik hasi zen dendan lanean eta jende ugari ezagutu zuen. Baserritarrak joaten zitzaizkion gehien dendara. Orduko txanponen aipamena egiten du. Astelehenetik igandera lan egiten zuen, ez zuten denda ixten.

481. Kontzesioko bederatziurrenak (AZK-039/010)

Lagunak azkoitiarrak zituen, baina dendako lana zela eta ez zen ateratzen. Elizara igandero joaten ziren. Anai-arreben aipamena egiten du. Kontzesioko bederatziurrenak eta "ejerzizioak" zer izaten ziren azaltzen du. Baltsean dantza eginez gero kongregaziotik botatzen zituzten.

482. Konfesio, errezo eta eliz-ohiturak (AZK-039/011)

Konfesatzera goizetan joaten ziren hamabostean behin Don Domingo apaizarengana. Zigorrek errezoak izaten ziren; neskek eta mutilek era ezberdina zuten konfesatzeko. Etxean afalondoan errezzatzeko ohitura zuten, Argiren aita oso fededuna baitzen. Eliza atarian pasatuz gero, aitaren egiteko ohitura zuten.

483. Garai hartako lutoa (AZK-039/014)

Gurasoak hilez gero, beltzez jantzi behar izaten ziren, lutoaren arabera, eta beste senitartekoren bat hiltzen zenean zuri-beltzez jantzen ziren. Garai hartan bi jaunartze egiten ziren; bakoitzak nahi zuen arropa eramaten zuen jaunartze egunean.

484. Dantza lotua bekatu (AZK-039/015)

Madariaga auzoko lagun bat zuen eta bertako jaietan oinez joaten zen erromeriara. Trikitixan dantza egiten zuten, dantza lotua debekatua baitzegoen. Bi taberna zeuden.

485. Aitaren diziplina zela eta goiz etxeratu behar (AZK-039/018)

Azkoitiko zinemak Olimpia zuen izena; bera ez zen askotan joaten. Aitak diziplina handia jartzen zien etxean eta garaiz etxeratu behar izaten zuten.

486. 18 urterekin mutil-lagunarekin hasi zenean (AZK-039/020)

18 urterekin hasi zen mutil-lagunarekin, azkoitiarra zen. Konfiteriara edo paseatzera joan ohi ziren. Aste Santuan debekatua egoten zen mutilarekin ateratzea. Argi dendan egoten zen lanean eta senargaia bertara joaten zitzaion, ez zuten telefonorik izaten elkarri deitzeko.

487. 22 urterekin ezkondu zen Urrategin (AZK-039/021)

22 urterekin ezkondu zen Urrategin. Ezkontzako janzkera deskribatzen du. Alamedan egin zuten bazkaria sendikoekin. Ezkon-bidaian Madrilera joan ziren izeba batengana, trenez.

488. Orduko janzkera eta orrazkerak (AZK-039/025)

Eguneroko bizimoduan erabiltzen zituzten arropak deskribatzen ditu. Kontxitarren ile-apaindegira joaten zen eta permanentea egiten zuen.

489. Lagunartean puntua egiten (AZK-039/026)

Azkoitiko dendak izendatzen ditu. Arropak dendan erosi edo izeba jostun batek egiten zizkien. Argik umetatik ikasi zuen josten eta bera ere aritzen zen jantziak egiten. Kalera poltsan puntua egiteko orratzak hartuta ateratzen ziren eta lagunartean berriketan aritzen ziren laboreak egiten.

490. Berdura plazara saltzera (AZK-039/028)

Azkoitiko kalean jendea abarketak josten aritzen zen. Argi eta etxeoak berdura plazan egoten ziren barazkiak saltzen. Bakoitzak bere postua izaten zuen eta udaletxean hainbesteko bat ordaintzen zuten postuarengatik.

491. Fideoa, makarroiak eta sakarina kontrabandoan (AZK-039/030)

Gerra denboran janaria errazionamenduan egon zen, eta txartel batekin erosten zen jana. Dendako kontuak eskuz egiten zituen. Argiren aita fideo, makarroi eta sakarina kontrabandoan ibiltzen zen Elgoibarko fundizioan lanean zebilen garaian. Guardia Zibilekin kontuz ibili behar izaten zuten, zaintzen ibiltzen ziren eta.

492. Otorduetako jakiak (AZK-039/031)

Eguneroko otorduetan talo-esnea, baba... jaten zuten. Igande eta egun berezietan, garbantzuak eta jaki bereziak jaten zituzten. Erregenetan normalean ez zuten oparirik jasotzen.

493. Saltoki ezberdin asko azokan (AZK-042/002)

Azoka egunero egiten da, baina larunbatetan berezia. Dozena bat saltoki zeuden lehen eta alondegia ere bai. Arrandegiak, harategiak, frutategiak... denetik zegoen lehen.

494. Baserritarren saltokiak azokan (AZK-042/004)

Erdian baserritarrak eta bueltan dendariak egoten ziren. Baserritarrek jeneroa lurrian edukitzen zuten. Goizez egiten zen eta oso jendetsua izaten zen.

495. Erosle asko plazan (AZK-042/005)

Jende guztia plazara etortzen zen erosketak egitera. Inguruko dendetara ere bai. Ez zegoen arazorik baserritarren eta dendarien artean. Jeneroa "epelenie" izeneko kale bitartean deskargatzen zuten.

496. Dendarako jeneroaren jatorria (AZK-042/006)

Biltegi handietatik ekartzen zen dendarako jeneroa. "Almacen de coloniales". Saltzaileak eta garraiolariak arduratzen ziren horretaz.

497. Fruta eta bakailaoa salgai nagusiak (AZK-042/008)

Fruta eta bakailaoa saltzen zuten asko. Bakailaoa beratuta, lehorrean, puskatuta, denera. Bilbotik ekartzen zuten.

498. Pisuak eta prezioa (AZK-042/009)

Nolako pisuak erabiltzen ziren dendan. Bazuten mekanismo bat prezioa markatzeko. Dendariak ondo hartzen zuten elkar jeneroak elkarri uzteko eta prezioak adosteko orduan.

499. Produktuak soltean edo potoetan (AZK-042/010)

Lehen ez zegoen iraungitze-datarik. Produktu gehienak ontziratu gabe edo ontziratuta etortzen ziren. Nola saltzen zen olioak. Otarrak erabiltzen ziren erosketetarako.

500. Ogiak saltzen (AZK-042/011)

Lehen hiru okinen ogiak saltzen zituzten, baina denak antzekoak. Orain ogi normalak saltzen dituzte, eta astebukaeran baserrikoak ere bai.

501. Estraperlo garaia (1) (AZK-042/013)

Beldur handia zieten "delegaduei", inspektoreei. Beti isunen beldur. Ezagun bati gertatutakoa. Guardia zibilen emazteak ziren txarrenak, egoeraz aprobetxatzen zirelako.

502. Estraperlo garaia (2) (AZK-042/015)

Guardia zibilen emazteen pasadizoarekin jarraitzen du. Azukrea, olioak, patata, estraperloko gauza asko egoten zen. Edozein saltzailek ekartzen zituen.

503. Dena euskaraz (AZK-042/016)

Dena euskaraz egiten zuten. Amak ez zekien ia erdararik.

504. Arrain-saltzaileak Azkoitiko kalean (AZK-042/017)

Ez zuten ohiturarik beren jeneroa ozen iragartzeko; bai, ordea, arrain-saltzaileek: kalez kale ibiltzen ziren, kostatik trenean etorruta.

505. Edariak eta olioak ontziratu gabe (AZK-042/018)

Olioak, koka eta abar ontziratu gabe saltzen ziren. Orain ezin da. Isunaren arriskua. Baserriko arrautzarik ere ezin dute saldu. Orain dela hiru urte gertatu zitzaion pasadizo sinestezina.

506. Prezioak erdaraz (AZK-042/019)

Erdaraz ikasi zituzten zenbakiak eskolan eta erdaraz esaten zituzten prezioak plazan.

507. Txorizo-panplona eta urdaiazpikoa (AZK-042/020)

Txorizo-panplona eta urdaiazpikoa ziren saltzen ziren hestebete bakarrik.

508. Eskolan dena erdaraz (AZK-042/021)

Eskolan dena erdaraz. Sorkunde izena zutenei ere "Concepciøn" deitzen zieten. Bere alaba Aintzneri ere "Gloria" deitzen zioten zenbait mojek Franco hil arte.

509. Eskolako oroitzapen ona (AZK-042/022)

Lau urterekin hasi zen "Nazionaletan". Gustura ibili zen. Neskak eta mutilak aparte.

510. Kalean paseatzen neskak (AZK-042/023)

Emakumeak ezin ziren tabernetara sartu. Kale Nagusian gora eta behera ibiltzen ziren, mutilak txikiteoan ari ziren bitartean.

511. Denda asko Azkoitian (AZK-042/024)

Herrian denda asko zegoen, batez ere janari-dendak. Arropa-dendak gutxiago. Berdura-plazan ez zen arroparik saltzen. Kanpoan bai, azokan.

512. Josten ikasten (AZK-042/027)

Antonia Cámararekin ibili zen josten ikasten. Denetik ikasi zuten. Patrioiak egiten ere bai, "Corte y Confección".

513. Abarketagintzan laguntzen (AZK-042/028)

Ez du abarketagintzan lan egin baina umetan amamari laguntzera joaten zen eta asko gustatzen zitzaion hango giroa. Nolakoa zen kontaktzen du.

514. Eliz giro handia gaztetan (AZK-042/029)

Maiatzeko Loreak, San Inazioaren Bederatziurrena eta abar, gaztetan eliz giro handia zuten. Gero kalean paseatu... Hori zen orduko beren zoriona.

515. Jolasak: txintxerriñe, tortoloska.. (AZK-042/031)

Txintxerrinen, tortoleska eta abar ibiltzen ziren. Tortoleska nola jolasten zen azaltzen du. Alaba bakarra izanda, panpina, bizikleta eta horrelako gutiziatxoak izan zituen.

516. Eskola eta maistrak (AZK-043/002)

Gaztetan herriko eskola nazionalean eta Miserikordiako mojan ikasi zuen; baina geroago, Donostiara joan zen ikastera merkataritzako eskolara. Eskola nazionalean egunero abesten zuten "Viva España", baina beraien garai hartan ez ziren konturatzen zer esan nahi zuen abestiak. Eskola hartan maistrak izan zituen, eta oso onak gainera: bata iru eta beste bat ziren, eta paregabea zela dio; bestea, ordea, maistra ona bazen, baina asko jotzen zituen umeak.

517. Eskolan ikasitakoa (AZK-043/004)

Eskolan ez zuten azterketarik egiten, ikasturtean zehar egiten zituzten lan batzuk. Garai hartan denetik ikasten zuten, baita "Urbanidad" ere (jendearekin nola portatu, hezibidea). Liburu bakarra izaten zuten, eta handik gai ugari ikasten zituzten.

518. Eskolan nazionalaren eta mojen arteko aldea (AZK-043/005)

Eskola nazionala plazan zegoen, eta goizero jartzen zuten han bandera. Geroago, Miserikordiako mojan ibili zen ikasten. Hura eta eskola nazionala berdin samarrak ziren. Eskolatik meza nagusira joaten ziren, eta uniformeak eramaten zuten orduan. Sarritan errezatzen zuten. Nazionaletan neskek eta mutilak ibiltzen ziren, baina bananduta egoten ziren. Mutientzat Floriako eskola ere bazegoen. Mojak ez ziren gogorak; bai, ordea, nazionaletako maistrak.

519. Eskola nazionala (AZK-043/006)

Eskola nazionaletan zer-nolako zigorrak izaten zituzten, eta eskola haiek nolakoak ziren azaltzen du. Eskolara goizez eta arratsaldean joaten ziren, eta ostegun arratsaldetan jai izaten zuten. Noizean behin, piper egiten zuten eskolatik.

520. Txikitako jolasak (AZK-043/007)

Bere lagunak azkoitiarrak ziren eta dira. Zer jolasetan ibiltzen ziren azaltzen du: txintxirinen, altreska, "guardias y ladrones", sokadantzan (abestu egin du jolasaren doinua), zapoka... Jolas guztiak euskaraz egiten zituzten, eskolatik kanpo ez baitzuten hitzik egiten erdaraz.

521. Gerra garaiko kontuak (AZK-043/009)

Gerra garaian, hegazkinak zetozela esaten zutenean, ibaiko zubiaren azpian ezkutatzen ziren. Eskolan, gorri harrapatutako laranja banatzen zizkieten. Herriko eskolan, botoi-zuloak josten zituzten soldaduen alkandoretarako.

522. Donostian ikasten (AZK-043/015)

Donostian Merkataritzako Eskolan ikasi zuen 5 urtez. Bitarte horretan, amaren lehengusu batzuen etxean egon zen bizitzen, eta oporretan etortzen zen etxera. Merkataritza-peritu izateko ikasi zuen 13-18 urte bitartean.

523. Donostiara trenez (AZK-043/017)

Donostiara joateko, Urolako trena hartzen zuen. Azkoitiko tren-estazioa lehen non zegoen azaltzen du. Zumaian trenez aldatzen ziren, eta Donostian Amarara iristen ziren. Merkataritza Eskola estaziotik gertu zegoenez, leihotik ikusten zuen Azkoitiko jendea tren-estazioan, eta penatan egoten zen.

524. Azkoitia eta Donostiako eskolen arteko aldea (AZK-043/018)

Donostian oso irakasle onak izan zituen: katedratikoak ziren, oso jakintsuak. Zer irakasgai izan zituen aipatzen du. Alde handia nabaritu zuen Azkoitiko eta Donostiako eskolen artean: Donostian neskak eta mutilak batera ibiltzen ziren klasetan, dena erdaraz egiten zen, atzerriko hizkuntzak irakasten zituzten...

525. Irakasle bizi osoan (AZK-043/020)

Merkataritza-perituari esker, Jesuitetako Profesionalean irakasle izateko behar zen titulazioa zuen, eta lanpostua mantentzea lortu zuen. Gerora, bertako zuzendari izan zen zenbait urtez. Karrera bukatu eta berehala, ordea, klase partikularrak ematen hasi zen, eta ikasle asko izaten zituen. Zer irakasten zien azaltzen du.

526. Funtzionamendua Eskola Profesionalean (AZK-043/023)

Dena erdaraz irakatsi izan du Eskola Profesionalean. Beste irakasleek zer gai ematen zuten eta zer liburu erabiltzen zuten azaltzen du. Ikasleak kanpotik ere etortzen ziren.

527. Azkoitiko Eskola Profesionaleko zuzendari (AZK-043/025)

20 urtez lan egin zuen Azkoitiko Eskola Profesionalean eta zuzendari izan zen lau urtez. Ez zen samurra izan zuzendari izan zeneko garaia: azterketak zirenean, bonba-abisua jasotzen zuten. Ia beti gezurra izaten zen, baina behin benetakoa izan zen. Halako egoeretan zer protokolo bete behar izaten zen azaltzen du.

528. Mekanografiatzeko makinak (AZK-043/027)

Berak administraritzari lotutako gaiak ematen zituen. Mekanografiatzeko makina onak izan zituzten eskolan, ordenagailuak sartu aurretik.

529. Abarketak nola josi (AZK-043/038)

Abarketak nola josten ziren azaltzen du.

530. Azkoitiko merkataritza (AZK-043/040)

Etxean josten zituzten abarketak abarketa-denda zuen norbaiti saltzen zizkioten. Beraiek abarketaren zer zati josten zuten azaltzen du. Lehen denda asko zeuden Azkoitian. Kooperatiban diru-kontuak nola eramaten ziren azaltzen du.

531. Txikitako gaiztakeriak (AZK-043/042)

Txikitan egiten zituzten gaiztakeriak kontatzen ditu: aldabak jo, hildakoez barre egin...

532. Hiletan inguruko ohiturak (AZK-043/043)

Norbait hiltzen zenean, kanpaia jotzen zuten. Desberdina zen umeak edo helduak hil: kanpaia era batera edo bestera jotzen zen, eta hileta ere desberdin egiten zen. Hiletak lehenengo, bigarren eta hirugarren mailakoak izaten ziren, ordaintzen zen diru kopuruaren arabera. Meza-dirua lehen ere bazegoen. Hiletaren ostean, familia batzuek otordua ematen zuten. Lutoa nolakoa izaten zen azaltzen du.

533. Artoa eta irina (AZK-044/011)

Artoa ganaduantzat eta oiloentzat erabiltzen zuten. Ogia egiten zuten etxean. Garai batean, hala ere, errota itxita egon ziren, eta irinik ezin zuten lortu, ogirik ere ezin izan zuten egin. Orduan, estraperloan ibiltzen ziren, irina ekarri eta labesua egin ahal izateko. Zortzi eguneko ogia egiten zuten aldi bakoitzean. Okinik ez zen joaten beren baserrira bera han bizi izan zen bitartean.

534. Baserriko fruta-arbolak (AZK-044/012)

Fruta-arbolak izaten zituzten baserrian: brinoi asko, gereziak... Zuhaitzak ez zituzten ia zaintzen, beharrik ere ez zegoelako. Lortutako brinoiak etxerako izaten ziren, ez saltzeko.

535. Sagardoa egiten (AZK-044/013)

Sagarrak ere bazituzten, sagar geza gorriak; eta haiekin sagardoa egiten zuten. Dolarea Izarre baserrian zegoen. Sagardoa nola egiten zuten azaltzen du. Umetatik, otordutan sagardoa edaten zuten, eta oso gozoa izaten zen.

536. Baserriko argia (AZK-044/015)

Baserrian ez zuten argirik: petrolio ontzia, argizaria eta kandelak erabiltzen zituzten. Hura oso tristea zela dio. Eskolara ilunpetan joan behar zutenean, linternak eramaten zituzten.

537. Haurrak etxean (AZK-044/017)

Etxean norbait gaixotzen bazen, Azpeitiko medikuarengana joaten ziren. Kontxak berak umeak etxean izan zituen. Bikiak izan zituen, eta haiekin nola moldatu zen kontatzen du.

538. Umeen inguruko gauzak (AZK-044/018)

Umeek ez zuten fardelik erabiltzen: galtzak jartzen zitzaizkien, eta zikintzen zituztenean, aldatu. Mantalak erabiltzen zituzten umeek. Sehaskak nolakoak ziren azaltzen du.

539. Bularra emateko emakumeak (AZK-044/020)

Umea eduki berritan, ama hil eta Kontxaren ahizpak umeari bularra eman zionekoa kontatzen du. Hori egiteagatik, ordaindu egiten zioten.

540. Artoa zuritu bitartean errezatzen (AZK-044/021)

Artoa ganbaran zuritzen zuten bitartean, arrosarioa errezatzen zuten gurasoekin.

541. Lehengo sinesmenak eta ohiturak (AZK-044/022)

Tximistei beldur handia zieten, bedeinkatutako kandela jartzen zuten haren aurka, eta ateetan gurutzeak jartzen zituzten. Erramuak edo hartarako eramaten zen beste edozer bedeinkatu egin ohi zuten. Lehen erremintak hortzez behera jarri ohi zituzten. Ogia ere modu berezi batean jarri behar zen. Lehen fede handiagoa zegoen.

542. Erromeria eta harako janzkera (AZK-044/023)

Gaztetan Martirietako erromeriarra joaten ziren. Gustura egiten zuten dantzan. Arratsaldean goiz hasten zen erromeria, baina beraiek askotan berandu iristen ziren, baserrian beti zegoelako lanen bat egiteko. Erromeriarra joateko, oso gona motzak erabiltzen zituzten, eta Kontxari amak bi soineko luze egin zizkion gona motza erabil ez zezan. Abarketak janzten zituzten, eta nola lotzen zituzten azaltzen du. Abarkak galtzerdiekin ere janzten zituzten.

543. Erromeriak eta aisialdia (AZK-044/024)

Martirietako erromerian ez zen dantza loturik egiten; bai, ordea, Urrategiko erromerian. Kukuerrin taberna txiki bat eta frontoia zegoen; auzoko etxe batean jolastokia zegoen, eta han abestu egiten zuten instrumenturik gabe.

544. Taberna eta tabakoa (AZK-044/025)

Neskak ez ziren tabernara sartzen. Emakumeek zigarrorik ez zuten erretzen; mutilek, berriz, gogortutakoan bakarrik, eta orduan ere ezkutuan.

545. Mutilak eta neska-laguntzea (AZK-044/026)

Kontxaren ahizpa ezkondu zenean hasi zen Kontxa erromeriarra joaten. Neska-laguntzeak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Beraiek ez zuten dantza lotua egiten.

546. Inguruko herriekin harremana (AZK-044/027)

Zumarragako Santa Luzia festara joaten ziren, eta han dantza lotua egiten zuten han. Trenz joaten ziren, eta behin trenan galdu zutela kontatzen du. Etxeko gauzak erosteko, Azkoitiko edo Azpeitiko azokara joaten ziren.

547. Jostunak (AZK-044/028)

Arropak egiteko, Azkoitiko jostun bati eramaten zizkieten telak. Kontxak 2-3 hilabete eman zituen josten ikasten Azkoitian. Orduan baziren josteko makinak, hankarekin eragin behar izaten zitzaientakoak. Abarketak josten ere ibili zen amaginarrebarekin batera, eta abarketa horiek gero saldu egiten zituzten.

548. Etxea erre zitzaienekoa (AZK-044/029)

Gerra garaian, Gabonetan, etxea erre zitzaien, eta harekin batera barruan zegoen garia. Orduan, etxe erre batzeari esker, auzokoek diruz lagundu zieten etxea konpon zezaten.

549. Gerrako oroitzapenak (AZK-044/030)

Gerra garaiko oroitzapenak kontatzen ditu. Behin gorriak gertu zeudela gertatutakoa kontatzen du. Garai hartan, guardia zibilek oiloak eskatzen zituzten, eta haien trukean dirua ematen zuten. Beldur handia pasa zuten

garai hartan. Orduan ijito asko ibiltzen zen inguruan, baina gaur egun ez daude.

550. Alpargatagintza (AZK-045/004)

Jende ia dena langilea zen. Hiru fabrika inportante zeuden, ehungintzakoak, baina denak itxi ziren. Ia herriko andre gehienek egiten zituzten alpargatak etxean. Zoruak nola josten zituzten, kalean. Txorta zer den. Emakumeen eta gizonen lanak alpargatagintzan.

551. Anaia harakin (AZK-045/008)

Lau neska eta mutil bat ziren. Anaia harakin bati laguntzen ibiltzen zen Azkoitian; gero Donostian jarri zuen harategia. Iñaki Gabilondo kazetaria eta Angel Gabilondo politikaria haren semeak dira.

552. Aita, Extremaduran ikasia (AZK-045/011)

Martitteko apaizak ikastetxe batera bidali zuen aita. Azkoitik joan zen Extremadurara, ezkondu artean egon zen han. Oso gizon jantzia zen. Horregatik, elkarteetan presidente lanetan jartzen zuten.

553. Juana karta egilea (AZK-045/014)

Inork ez zekienean idazten, Juana karta egilearengana joaten zirela dauka entzunda. Neskamearekin bizi zen. Herrira iristen ziren eskutitzak hari ematen zizkioten denak.

554. Doña Rufina (AZK-045/016)

Eskolako maistrak, doña Rufinak, egundoko pazientzia zuen; jo ere egiten zituen, baina asko ikasi zuten. Herrian botazioa egin zen behin, eta Mateo Mujika joan zen. "Estatuto sío no" zen bozkatu beharrekoa. "Mateo Mujika es un cabrón" agertu zen boto-paperen artean, eta doña Rufinak desagerrarazi egin zuen papera, karlistak gaizki uzten zituelako horrek. Aizarnakoa zen doña Rufina, eta karlista zen. Gogorra zen, zorrotza, baina irakasle ona.

555. Soineko barrena askatu (AZK-045/017)

Doktrinara joaten ziren, eta egun batean soinekoko barrena askatu zioten, oso motza zela esanez.

556. Errepublika garaian, doktrina (AZK-045/018)

Elizan eta eskolan ikasten zuten doktrina hasieran. Errepublika garaian, elizako sakristian bakarrik. Ama Birjinaren irudia eta Kristoa kendu egin zituzten eskolatik.

557. Errepublika ondoren, gerra (AZK-045/021)

Errepublika garaian, umeak ziren. Gorri-hori-morea jarri zuten han-hemen, eta ikurrinak ere bai. Batzokiak ere orduan jarri ziren. Nazionalak erraz hurreratu ziren, eta Elgoibar inguruan geratu zen frontea. Hildako abertzaleen alde mezarik egiten ez zuten uzten.

558. Herritik bota zituzten (AZK-045/022)

Etxera karlistetako mutil bat joan zitzairen, aita etxean ager zedila esanez, bestela herritik botako zituztela eta. Maltzagara eraman zituzten hainbat

familia, autobusez, eta frontean utzi zituzten. Airera tiroak bota zituzten, beldurtzeko. Oinez joan ziren Eibarrera, euri zaparradetan. Oso ondo hartu zituzten han.

559. Bilbotik Santanderrera (AZK-045/023)

Aita Bilbon zegoen, apaiz baten etxean, eta apaizak etxe bat ipini zien. Ez zuten denbora asko egin Bilbon, baina josten ikasten ibili zen. Beste bi ahizpak erizainei laguntzen ibili ziren, ospitalean. Bilbotik Santanderrera joan ziren, eta han lurrean egin zuten lo bi egunez, etxe huts batean.

560. Aitaren lagun karlista (AZK-045/025)

Frantziatik bueltan, Guardia Zibilengana joan behar zuten egunero. Etxea gorde zieten. Baina aita ez zen atrebitzen etortzen. Donostian zegoen, Mirakruz kalean, eta egun batean lankide bat joan zitzaion, karlista, abisua ematera, alde egiteko handik. Igeldoko baserri batera joan zen. Bizitza salbatu zion. Aitaren lagunik onena hil egin zuten, Azkoitian geratu zelako. Urrestilla aldean hil zuten.

561. Mespretxuzko begiradak (AZK-045/027)

Bueltan etorritakoei, mespretxua. Guardia zibilaren alabari nola erantzun zion. Jende ona ere bazegoen: tximiniatik ke beltza ikusten zela abisatu zien bizilagun karlistak. Paperak erretzen ari ziren. Jende asko hil zen gerran.

562. CNTkoek zazpi fusilatu (AZK-045/029)

CNTkoek zazpi mutil hil zituzten herrian, karlistak.

563. Azkoitiko kartzela (AZK-045/032)

Aitaren laguna nazionalista zen, aita bezalaxe. Atxilotu egin zuten Azkoitian, eta gero handik hil. Udaletxean jarri zuten kartzela narras bat. Handik eraman zuten. Juin jauregian sartu zituzten nazionalak errepublikanoek, eta gero alderantziz. Karlistak Juinen zeudela, CNTkoek Bilbora eraman nahi zituzten presoak; nazionalistek gerarazi zituzten.

564. Frontoian, kuartela (AZK-045/033)

Frontoian kuartela jarri zuten. Hiru konpainia egoten ziren Azkoitian. Atzeguardiako herria zen. Jangela plazako Zelaia jauregian jarri zuten, eta frontoian egiten zuten lo. Taberna bat eta pisu bat... karlistek nahi zituztenak hartu zituzten. Errekisatu. Gero batzuek barkamen eske ere joan ziren. Baina inork ez zuen gerra irabazi.

565. Anaia Langileen Batailoietan (AZK-045/034)

Anaia gerran ibili zen; eta, harrapatu zituztenean, Langileen Batailoietara eraman zuten. Kamioiarekin ibili zen. Zikinarekin, azaleko gaixotasuna zuten askok, azkura, eta karearekin erreta "sendatzen" ziren.

566. Gose garaian, baserriarren laguntza (AZK-045/035)

Gogorra izan zen buelta. Jatekorik ez zegoen, diruarekin ere ezin lortu. Ezagun asko zituzten baserrietan, eta eskerrak horri. Batzuek beraien etxean aldatzen zituzten oinetakoak, mezetara joateko. Patata eta babarrunak ematen zizkieten. Anaiak harategia jarri zuen. Ogirik ez zegoen, eta amamak taloak egiten zituen.

567. Etxea gorde bizilagunak (AZK-045/037)

Etxea ez zieten kendu. Gorde egin zien etxearen jabeak; esan zuen errenta pagatzen zutela, eta altzariak bere etxean gorde zizkien, inork ez lapurtzeko.

568. Josten ikasten (AZK-045/039)

Bilbon ikasi zuen josten, eta gero militarren arropa josten ipini zituzten. Herrian jostun batengana joan zen, Julianarengana, eta gero bere kasa hasi zen. Umetatik gustatzen zitzaion jostea. Panpinei soinekoak egiten zizkion.

569. Ezkontzeko, soineko ilunak (AZK-045/043)

Josten hasi zen, etxean, eta Azpeitiko nobioa topatu zuen. Ispilu handi bat zeukan. Baserriko neskak joaten ziren josten ikastera. Soinekoak egiten zituen, ezkontzetarako ere bai, baina zuririk ez. Ilunak, beltzak asko. Buruan mantila jartzen zen. Berari Donostian egin zioten soinekoa, egiteko denborarik ez zuelako.

570. Josten, ondo irabazi (AZK-045/044)

Gizonek lanean irabazten zutena baino gehiago irabazten zuen berak. Baina lana ere asko izaten zen: goizaldera arte josten, askotan. Nobioarekin paseatzera irteten zen, hala ere, takoiak jantzita.

571. Bederatzietarako etxean (AZK-045/046)

Gaztetan, neguan zinemara joaten ziren, eta bestela paseatzera Loiola aldera. Tabernetara ez zen joaten. Zestoara ere joaten ziren, eta Madariaga auzora; jazbana jotzen zuten han. Oinez joaten ziren. Laurak alderako joan, eta iluntze arte gelditu ere egin gabe. Nobioak laguntzen zion etxera, eta aldaba jotzen zuen, amari iritsi zirela esateko. Ordua zuten etxera joateko. Azpeitiko lauzpabost mutilek zuten andregaiia Azkoitian: haiek afaltzen geratzen ziren, eta neskak etxera. Bederatzietan etxera, eta arrosarioa erreztatzeko.

572. "Baltzeun" eginda, kongregaziotik bota (AZK-045/047)

Azkoitian sueltoan egiten zen dantza, plazan. "Baltzeun" eginez gero, kongregaziotik bota! Etxean ere errieta... Nazionalak sartu zirenean, egin zuten baltseoan plazan. Hijas de María kongregazioa. Hondartzara ere kaltzetekin joan behar.

573. Lakutera neska laguntza (AZK-045/049)

Hiru neska ziren Lakuteko lehengusuak, eta hirurek zuten nobioa. Beste mutil bat ekarri zioten, dantzaren ostean baserrira etxe laguntza egiteko (Sanjoanetan). Eskua bizkarrean jarri zion hark, eta larritu: "Maritxuuuu!", hasi zen laguntza eske.

574. Apaiz nazionalistak, herritik bidali (AZK-045/051)

Apaiz nazionalistak bidali egin zituzten herritik. Meza bukatzean, hiru Agur Maria errezatzen zituzten. Nazionalak sartu zirenetik, dena erdaraz. Don Jose Antoniori esan zioten erdaraz egiteko, eta azkenean herritik bidali zuten.

575. Sermoiak erdaraz (AZK-045/052)

Mezetara igandero joaten ziren, eta astegunean ere bai, eta sermoiak erdaraz ziren beti. Dena erdaraz, eta herrian jendearen erdiak ez zekien euskara

besterik. Amak bazekien, Donostian egon zelako neskame. Konfesatu euskaraz egiten ziren.

576. Ejerzizioak (AZK-045/054)

Sermoi beldurgarriak egiten zituzten. Azpeitira ezkondu zenean, ejerzizioetara ere joan zen, gizonaren amarekin eta.

577. Bizkiak izatera, Donostiara (AZK-045/056)

Umeak Paristik zetozela esaten zieten. Gero, berak izan zituenean, amamak ekartzen zituela esaten zuen. Bizkiak izan zituenean Donostiara joan zen. Mayor Orejaren aita zen medikua, eta esan zion ume bakarra izango zuela, baina handia.

578. Errazionamenduko kartila (AZK-045/058)

Errazionamendua egoten zen. Bandoa jotzen zuten, abisua emanez. Kartila izaten zuten. Lagun bati gertatutakoa: Aizarnan "baltzeun" egin zuelako, apaizak errazionamenduko kartila kendu zion.

579. Gabonak bizilagunekin ospatu (AZK-045/061)

Gabonak oso ederki pasatzen zituzten. Atano IV. pilotari famatua eta haren andrea igotzen ziren etxera. Haragia lotuta jarri, eta saltsan. Konpota. Intxaur saltsa egiten zuen amonak; botilekin puskatzen zituen intxaurreak.

580. Gabonetan, kantuan (AZK-045/066)

Urte berria ondo pasatzen zuten. Afaldu ondoren, kantari ibiltzen ziren mutilak, Jaiotzarekin. Mutilak mutilekin eta neskek neskekin ibiltzen ziren kantuan. Lehen-lehen, mutilak bakarrik ibiltzen ziren.

581. Aste Santuko prozesioak (AZK-045/067)

Aste Santuan prozesio ikaragarriak egiten ziren, eta elizkizunak. Ohitura zen azkenengo egunean Jesu Kristoren hilkutxa entierro batean bezala eramateko... Argi denak itzali, eta farola txikiak jartzen dira. Chopinen hileta martxa jotzen dute; bertakoa zela uste zuen berak. Eta Ama Birjina doa Jesusen atzetik.

582. Bizikletan ibiltzea, bekaturako bidea (AZK-045/069)

Bizikletan ibiltzen ziren, eta kongregaziotik deitu zioten. Bizikletak alokatzen zituzten bere lagunaren dendan; euria zenean, beraiek erabiltzen zituzten. Sakristiara deitu, eta esan zioten bekaturako bidea eragiten duela bizikletan ibiltzeak.

583. Zinemara (AZK-045/071)

Zinemara joaten ziren jaietan. Zinema bi-hiru pezeta kostatuko zen. Zinema parrokiara egoten zen, argumentu handirik gabekoa. Abellanak erosi... Beste zinera ez ziren nobioarekin hasi arte joaten hasi. Bi zinema areto zeuden bera ezkondu zenean.

584. Mugan atxilotuta (AZK-045/073)

Ahizpa Frantziara joan zen ezkontzera, nobioa han zegoelako, bueltatu ezinik. Legez kanpo pasatu behar zuen muga, baina berak ez zekien. Anaia eta bera joan ziren laguntzera. Guardiak zain zeuden, eta Irunera eraman zituzten atxilotuta. Hurrengo egunean pasatu zuen muga, eta ezkondu zen; sozialista batekin, baina elizaz.

585. Musikarik ez garizuman (AZK-045/078)

Garizuman bandak ez zuen jotzen. Musikalari herria zen Azkoiti. Bijilia egiten zen. Kanpai asko jotzen zen ostiralean, eta hiruretan Kredoa errezatzen zen, hil kanpaien antzekoak jotzean, Jesus hil zelako. Hil kanpaiak eta erre kanpaiak.

586. Apaizaren aurrean belauniko (AZK-045/080)

Elizakoak ematera joaten zen apaiza hilzorian zeudenengana, akolitoarekin, kalean kanpaitxoaz joaz. Belauniko jartzen ziren denak.

587. Arrosarioa egunero (AZK-045/082)

Arrosarioa egunero errezatzen zen parrokan, udan eta neguan ordutegi diferentearekin. Etxean ere egunero, denek batera. Ordurako joaten ziren etxera. Mutilak askoz libreago bizi ziren.

588. Labaderoak eta ibaia (AZK-045/085)

Labaderoak bazeuden Azkoitian, hiru edo. Beraiek iturriko ura erabiltzen zuten. Ibaian harriak zeuden, eta hara ere joaten ziren emakumeak, mantak-eta garbitzera. Tabernetako neskameak ere bai.

589. 1916an jaio zen Elgoibarren (AZK-046/001)

1916an jaio zen Elgoibarko Juaristiaundi baserrikoa. Aita Juaristiaundikoa eta ama Aranbeltzekoa zituen. 5 anai-arrebatan bigarrena zen. Aita hil zenean 5 urte zituen eta baserria eta ganadua saldu eta Elgoibarrera joan ziren bizitzera.

590. Orduko gonek ez zuten tapatzen (AZK-046/004)

Juaristiaundin zeudela, neskek ipurdia bistan zutela ibili behar izaten zuten, orduko soineko eta galtzek parpaila eraman ohi zuten baina gona motz haiekin zaila zen tapatuta ibiltzea. Kalera jaitsi zirenean amonak arropa horiek bota egin zituen, ez ziren bere gustuko. Gomadun alpargatak eta abarkak erabiltzen zituzten.

591. Baserritik bizi ziren (AZK-046/006)

Gurasoak baserriko lanetatik bizi ziren, morroia zuten etxean. Baratzea etxerako lantzen zuen amak. Labe suan astero egiten zuten ogia eta kaletik opila eramaten zuten. Ogia nola egiten zuten azaltzen du.

592. Idiekin egurretan (AZK-046/007)

Idiak zituzten etxean eta egurra eta beste karga batzuk haiekin eramaten zituzten, aldapa handia zuten ama ezkondu zen etxera iristeko.

593. "Txerri erregalao" banatzen zuten auzora (AZK-046/009)

Eguneroko otorduetan baba jaten zuten. Neguan taloak eta arto-esnea jaten zuten. Urtean pare bat txerri hiltzen zituzten eta amak egiten zituen odolkiak. Gero, auzora banatzen zituzten;"txerri erregalao" deitzen zitzaion ohitura horri.

594. Ama Donostian inude (AZK-046/011)

Aita hil zenean ama Bergaretxe mediku ospetsuaren etxera joan zen inude Donostiara Juana eta anai-arreben eskola ordaintzeko. Mojen eskola zen eta maistra Elgoibartarra zuen. Irakurri eta idazten sei urterekin ikasi zuen. Euskara-erdaraz egiten zuten, euskara gerora debekatu zuten eta multak jartzen zituzten.

595. Konfesioko zigorrak (AZK-046/016)

Konfesatzera joaten ziren, zigorrak errezoak eta norbere gauzaren bat apaizari entregatu beharra izaten ziren.

596. Arrosarioa gauero (AZK-046/018)

Iluntze aldera errezatzen zuten arrosarioa. Juanari ganaduak beldurra ematen zion eta baserrian baino kalean bizitzea nahiago zuen.

597. Donostiako eskolan (AZK-046/020)

Ama Donostian zegoela Juana eta anai-arrebak berarekin eraman zituen eta hango eskolan ibili ziren. Donostiako kaleak aipatzen ditu. Eskolako lagunekin ibiltzen ziren, erdaraz hantxe ikasi zuten. Mojen zaintzapean zeuden eta haiek ez zieten hondartzara joaten uzten.

598. Ume zain, hilean hiru ogerlekoko soldata (AZK-046/022)

Hamabi urterekin Elgoibarren egon zen jostundegi bateko alaba zaintzen. Hiru ogerleko irabazten zituen hilabetean, soldata ona zen ordurako eta amari entregatzen zioten. Ez zuten goserik sekula pasa.

599. Plantxa elektrikoaz ohea berotzen (AZK-046/024)

Ama Kataolatzara ezkondu zen eta bide luzean oinez ibili behar izaten zuten, ez zuten bizikletarik. Kataolatzako aitona-amona ordean aipamena egiten du. Neguan plantxa elektrikoa entxufatu eta ohea berotzen zion aitona ordeari. Argia eta ura bazuten etxean.

600. Madarixan, denda bat eta bi taberna (AZK-046/026)

Telefonorik ez zuten etxean, Madarixako abade-etxean zegoen eta baita denda ere. Bi taberna zeuden eta izendatu egiten ditu. Erromeria egiten zen eta Juanaren anaiak jotzen zuen soinua. Juanari ez zitzaion dantza egitea gustatzen eta mutilei ihesi ibiltzen zen.

601. Mutilei "poterik" ez zien ematen (AZK-046/028)

Amari ez zion graziaz egiten alabak mutilekin dantzaz egiten zuela jakiteak baina Juanak ez zuen gustuko inori "potea" ematerik.

602. Senargaia Azkoitiko konfiterikoa (AZK-046/031)

Senargaia Madarixako erromerian ezagutu zuen, Azkoitian gozotegia zuen senargaiak. Pasetazera joaten ziren eta muxu ematera ere justuan iristen ziren, etxeok zer esango zuten beldur.

603. Lagunekin erdaraz egiten zuen (AZK-046/039)

Elgoibarren lagunekin erdaraz egiten zuen eta etxean aldiz euskaraz. Zuka hitz egiten zuten beti.

604. Hika hitz egitea errespetu falta (AZK-046/041)

Hitanoa konfiantza gehiagokoa izaten zen, baina zuka hitz egiteak errespetu eta gozotasun gehiago ematen zuen. Irratia bazuten etxean eta bertsoak entzuten zituen. Anaia soinujolea zuen.

605. Madarixako baserriak (AZK-046/043)

Azkoitian alpargata lantegiak eta txapel lantegia ziren, besteak beste. Garai hartan mutil danak txapela janzten zuten. Elgoibarren kale erdian ganadua zuen baserri bat zegoen. Madarixako baserri batzuk izendatzen ditu eta bere etxea kokatzen du.

606. Amona hegazkinean ibilitakoa (AZK-059/004)

Elisabethen osabak luzaroan ibili ziren gerran. Amona hegazkinez joan omen zen Bartzelonara osabak bisitatzen. Garai hartan, ez zen ohikoa hegazkinez bidaiatzea.

607. Auzo-eskolan, ume mordoak (AZK-059/005)

Auzo-eskola Koategi baserria baino goragoko baserri batean zegoen. Inguruko baserrietako ume mordoak ibiltzen ziren. Sei urte inguru zituela hasi zen eskolan Elisabeth. Anaiaren eskolako pasadizo bat kontaktzen du.

608. Etxean eskolak jasotakoa (AZK-059/007)

Urretxuko senide baten bidez neska bat hartu zuten baserrian, eskolak emateko. Etxean ematen zien eskola. Aitonak euskaraz ez egiteko ordena emana zien: "orduak erdara behar zen!" dio. Mahai biribil baten bueltan jarrita hartzen zituzten eskolak. Denentzako entziklopedia bat edo bi omen zituzten.

609. Maistra nafarra etxean (AZK-059/008)

Urretxuko senide baten bidez neska bat hartu zuten baserrian, eskolak emateko. Berarekin pasatzen zuten egun guztia. Maistra nafarra zen: Jesusa Garralda. Etxekotzat zuten: "beste ahizpa bat balitz bezala tratatzen genuen". Larunbatetan, etxera joaten zen Jesusa, eta astelehenetan bueltatzen omen zen Koategira. "Maistraren pagamentua": treneko biletea ordaintzeko dirua eta arto-irin edo ogi-irin pixka bat etxerako. Koategiko eta hurbileko beste baserri bateko umeak bakarrik ibiltzen ziren maistra horrekin. Egunez baserriko lanetan aritzen baziren, iluntzean ematen zien eskola.

610. Sokasaltoan eta pilotan (AZK-059/009)

Sokasaltoan eta pilotan aritzen ziren auzoko neskek eta mutilak. Elisabethen anaia bat aldrebesa omen zen sokasaltoan.

611. Komunio txikia, Urrategin (AZK-059/010)

Olano baserriko neska bat eta Elisabeth Urrategira joaten ziren doktrina esatera. Ordubeteko bidea zuten oinez. Doktrina erdaraz ikasten zuten. Zazpi urte zituela egin zuen komunio txikia Urrategiko elizan.

612. Komunio handia, "Madarixan" (AZK-059/011)

11 urte zituela egin zuen komunio handia "Madarixan" (Madariagan). Umetan, hara joaten ziren igandetako mezara. Meza aurretik, doktrina ematen zien auzoko maisuak. Auzoari buruzko azalpenak ematen ditu.

613. Ardiak eta behiak baserrian (AZK-059/012)

Koategi, bi bizitzako baserria. 12 ganadu-buru inguru zituzten. Elisabethenean, 54 ardi inguru; ondoko bizitzan, gutxixeago. Umetatik hasi zen ardiak gobernatzeko. Gazta asko egiten zuten; etxerako gehiena. Santioak arte jezten zituzten ardiak. Zumagarrako gizon bati erosten zioten ardientzako pentsua.

614. Baserriko jatorduak (AZK-059/015)

Gosaritarako, kafea. 10:00ak aldera, baratxuri zopa eta urdai puska bat. Bazkaritan, berriz, babak, azak edota bainak eta urdai puska bat izaten zen. Gerra ondorenean, merienda garaian, lapikokada txokolate egiten zen etxean. Afaritan: porru-patatak. Gaztaina denboran, gaztainak erretzen zituzten danbolinean.

615. Behiak (AZK-059/016)

Nolako behiak zituzten. Behi-esnea etxerako izaten zen; etxekoentzat eta txahalentzat. Ez zuten kalera saltzera.

616. Bildotsak (AZK-059/017)

Ardiak ondo gobernatzeko zituzten. Umea izaten zutenean, txapeletik ematen zien jaten artoa. Bildotsak astoan hartu eta bizirik jaisten zituzten herrira. Azkoitiko harakin bati saltzen zizkien bildotsak.

617. Zortzi behin, Azpeitira (AZK-059/018)

Zortzi egunean behin, asteartetan, joaten ziren Azpeitiko plazara salmenta egitera. Baserritik Azkoitira ordu laurdeneko bidea egin, eta Katuingo zubi parean, kamino hegalean, hartzeko zuten Azpeitira joateko autobusa. Amona joan ohi zen otarrarekin.

618. Jaietan, "letxoarekin" herrira (AZK-059/019)

Jaietan, herrira mezara joaten zirenean, Nuarbeko "letxeroaren" automobileran egiten zituzten hiru kilometro inguru. Ahal zen moduan sartzen ziren automobileran.

619. Mezak eta Mariaren kongregazioa (AZK-059/020)

Meza kontuak. Urrategira urtean behin joaten ziren mezara, Urrategiko Ama Birjinaren Egunean. Igande normaletan, "Madarixako" (Madariaga) ermitara joaten ziren mezara. Oinez, ordubeteko bidea zuten baserritik "Madarixara". Jende asko biltzen zen bertan: Lastur aldetik ere joaten omen zen jendea. Hilaren lehenean edo bigarrean, berriz, Mariaren kongregazioko bileretara joaten ziren herrira.

620. Domu Santu eta Arimen Eguneko mezak (AZK-059/022)

Domu Santu eta Arimen Eguneko mezak eta ospakizunak. Domu Santu bezperan, sermoia izaten zen elizan. Arimen Egunean, berriz, hiru meza izaten ziren, bata bestearen atzetik.

621. Olaberri tabernan, hiru hilabetez (AZK-059/023)

Ezkondu aurretik, hiru hilabeterako joan zen Azkoitiko Olaberri tabernara sukaldean ikaste aldera. Sukaldean ikastera joan zen, baina oheak egiten aritu zen Elisabeth. Laneko kontuei buruz hitz egiten du.

622. Zigarroa erre eta mutu (AZK-059/024)

Ezkondu aurretik, hiru hilabeterako joan zen Azkoitiko Olaberri tabernara sukaldean ikaste aldera. Sukaldean ikastera joan zen, baina oheak egiten aritu zen Elisabeth. Garai hartan, 19 urte zituen Elisabeteh. Pasadizoa: lankide batek eta Elisabethek zigarro bana erre, eta Elisabeth mutu geratu zen lau egunean, "boza gastatu" zitzaion.

623. Argindarra eta ura Koategin (AZK-059/027)

Harraskan bazuten ura, gutxi izan arren. Erreka ondoan depositu handi bat zegoen, eta hango turbinara joaten zen urarekin Koategiko bi bizitzetan "indarra" zuten. Zerbait izorratzen bazen, Elisabethen etxekeok zuten hura konpontzeko ardura. Auzoan, ez zen argirik. Gero, Zelaia izeneko batek jarri omen zuen argia.

624. Atariko putzua eta auzoko "albergea" (AZK-059/028)

Arropa garbitzeko putzua ataria zuten. Ura gutxitzen zenean, erreka ondoko auzoko "albergera" (garbitokira) joaten ziren arropak garbitzera. Estali gabeko garbitokia zen.

625. Lixiba nola egiten zen (AZK-059/030)

Lixiba nola egiten zuten azaltzen du. Txapazko barreño handi batean ipintzen zuten arropa "xaboi moduko" bat emanda. Oihal batekin estaltzen zuten ontzia. Ondoren, sutarako hautsa botatzen zen oihal horren gainean, eta, segidan, ur beroa botatzen zen haren gainera. Egun erdi batez uzten den arropa ontzian, gutxi gorabehera. Arropa jo eta esekitzen zen gero.

626. Erromeriak eta dantzak (AZK-059/033)

Igandero, Kurutzetako erromeriara joaten zen dantzara. "Madarixan" (Madariaga) erromeria "galanta" egiten zen. Mutilek ordaindu egin behar izaten zuten dantza egiteagatik; ordaintzen zutenei papertxoak jartzen zien paparrean. Kanpaiak entzutean edo ilunkeran, etxera joan behar.

627. Sarguteko erromeria (AZK-059/034)

Urtean behin, Santio Egunez hasita, Elgoibar eta Azkoitia arteko mugan (Sarguten) hiru eguneko erromeria egiten zen. Auzoek egindako gurutzea jarri zutenekoa gogoratzen du Elisabethek. Inguruko lau herritako jendea biltzen zen Sarguten: Azkoitia, Azpeitia, Elgoibar eta Soraluze.

628. Lizundiatxabolara ezkondu (AZK-059/038)

20 urte zituela, Elgoibarko Lizundiatxabola baserrira ezkondu zen. Elisabeth senarra, arreba eta aita alarguna bizi ziren bertan. Lizundiatxabolan 60 ardi inguru eta 12-15 behi inguru zituzten.

629. Ezkon urtean, uzta ona (AZK-059/039)

Lizundiatxabolara ezkondu zenean, lau ziren baserrian. Ez zuten esnerik saltzen kalean, baina baba eta sagarra bai. Elisabeth ezkondu zen urtean, uzta ona izan zen: "eneroaren 27an, sagarra lodi zen lurlean" dio; 39 zaku leka baba gorri bildu zituzten. Baba aletzeko "irubiurra" (irabiurra) erabiltzen zuten: tresna hori nola erabiltzen den azaltzen du. Elisabeth edota senarren aita joaten ziren plazara.

630. Astoak eta idiak, lanerako (AZK-059/040)

Abereak: sei asto, idiak... zituzten Lizundiatxabolan garai batean. Lanerako erabiltzen ziren animaliak.

631. Elgoibarko ferratzaileak eta idiak (AZK-059/041)

Idiak kalean ferratzen zituzten. Elgoibarko ferratzaileak: bata, Markinako bidegurutzean; bestea, Txarriduna inguruan. Lizundiatxabolakoek idiak ferratzen zituzten, behiak ez. Behiak ez ziren lanerako erabiltzen.

632. Amona, emagina (AZK-059/046)

Elisabethen amona "partera" (emagina) zen. Amonak berak 16 seme-alaba erditu zituen. Pasadizoa: amonak motxaile bati erditzen lagundu zionekoa kontatzen du. Jaioberriari Joxe Mari izena jarri omen zioten.

633. Loiolara, izeba moja bisitatzera (AZK-059/048)

Umetan, ordu eta erdiko bidea egiten zuten oinez Loiolan moja zegoen izeba bisitatzeko. Komentuan, disekatutako animaliak ikusten ibiltzen omen ziren.

634. Aitona, osaba eta aita bertsolariak (AZK-059/050)

Elisabethen aitona, osaba eta aita bertsolariak ziren. Berak, ordea, ez du bertsolarako dohairik izan. Herriko jai eta ospakizunetan bertsolan aritzen ziren. Etxean asko aritzen ziren bertsolan.

635. Ezkontzako gorabeherak I (AZK-059/053)

Ezkontza eguneko kontuak. Elurte handia izan zen, eta hainbat gorabehera izan zituzten. Taxiak ezin igo baserrira, Elisabethen trajea berandu iritsi... Eztei-bidaian, Donostiara joan ziren. Lehenengoz orduan joan zen Donostiara, eta hiru egun egin zituzten han. Ez zen itsasoa ikusten zuen aurreneko aldia: umetan Deban egona zen.

636. Ezkontzako gorabeherak II (AZK-059/055)

Ezkontzako kontuak. Koategin bi bizitza ziren. Alboko bizilagunak eta Elisabethek batera egin nahi zuten ezkontza, baina ez zien utzi. Bi abade behar izan zituzten. Eliza eta ordu berean ezkondu baziren ere, ezin izan zuten batera egin elizkizuna. Bat, kaperan; bestea, aldare nasugian... Banketea ere jatetxe berean egin zuten, baina aparte. Lore-sorta Donostiatik ekarri zien.

637. Koategiko maiorazkoaren ezkontza (AZK-059/057)

Koategiko aldameneko bizitzako maiorazkoa ezkondu zeneko oroitzapenak. Auzotik ekarri zituzten sukaldaria eta bazkaria prestatzeko kazolak. Txahala hil zuten baserrian. Laranjak eta arraina erosi zituzten bazkaritarako. Elisabeth bazkaria zerbitzatzen aritu zen.

638. Txikiteoa, eliz ataritik gorako tabernetan (AZK-060/005)

Garai batean Azkoitiko txikiteo gunea eliza ataritik gorakoa zen. Goiko kalean 3-4 taberna zeuden: Korta, Xapatero, Bolante... Inguruan eta plazara bitartean zeuden tabernak. "Cículo" a plazan zegoen.

639. Paseorako ibilbidea; taberna batzuk itxi eta besteak ireki (AZK-060/007)

Bikoteek edo lagunek beti ibilbide bera egiten zuten paseatzera irteten zirenean: eliz ataritik Goiko tabernaraino. "Barrio Gros" esaten omen zioten. Gero pixkanaka eliz ataritik behera ere tabernak irekitzen hasi ziren: Etxehaitz, Koxka, Alameda, Bodega... eta goikoak, berriz, ixten joan ziren.

640. Azkoititik Elgoibarrerako autobusa: "El correo de la muerte" (AZK-060/008)

Azkoititik Elgoibarrera autobusa egoten zen goizeko zazpitan. Ordu bete tardatzen zuen ibilbidea egiten. "El correo de la muerte" esaten zioten. Frenorik gabe gelditzen zenez, kobratzaileak autobusetik salto egin eta tako bat sartzen zion gurpil ondoan, gelditu ahal izateko.

641. Azkoititik Gasteizera joateko egin beharreko ibilbidea (AZK-060/010)

Azkoititik Elgoibarrerako autobusa. Jendeak Gasteizera joateko egiten zuen ibilbidea; Azkoitia-Elgoibar autobusez, handik trenez Maltzagara eta han beste tren batean (Anglo-Vasco) Gasteizera. Bera Gasteizko kolegioan egon zenean, aita goizeko zazpitan irten zen Azkoititik eta 12ak inguruan iritsi Gasteizera.

642. Lanera joan aurretik xanpaina edo bermuta edateko ohitura (AZK-060/011)

Langile askok Azkoititik Elgoibarrera zihoan autobusa hartzen zuten goizean. Zenbaitek Bodegara joateko ohitura zuten goizean goiz eta han xanpain merkea edo bermuta edaten zuten, lanera joan aurretik. Atano familiako bat goizeko lauretan irtenda oinez joaten omen zen lanera.

643. Azkoitiarrak Eibarrera lanera; Elgoibarrerako autobusaren gorabeherak (AZK-060/013)

Azkoititik Elgoibarrera joaten zen autobusak Aldazabal baserri inguruan egiten zuen geldialdia, aldaparik handiena zegoen lekuan. Autobusa gelditzeko eta martxan jartzeko nola ibiltzen ziren. Jende asko joaten zen Eibarrera lanera, eskopeta lantegietara eta GAC-ra.

644. Kanpotarrentzat "prestatutako" pilota partidak (AZK-060/015)

Udaran Zestoako bainuetxera etortzen ziren kanpotarrentzat pilota partidak antolatzen ziren. Askotan pilotariak aurrez hitz egiten zuten partida nork

irabazi edo galdu, dirua irabaztearren. Kanpotarrak ez ziren horretaz jabetzen. Behin bi pilotariak galtzeko asmoz irten zirenean, tanto baten zer gertatu zen.

645. Kontzejupean pilota apustu ugari (AZK-060/016)

Azkoitiko kontzejupean pilota apustu asko egiten ziren eta diru asko jokatzeko zen lagun artean. Lantegitik irten orduko kontzejupea joaten ziren asko pilotan jokatzera. Gerora, ohiturak aldatzen joan ziren.

646. Garai batean baloiek estimazio handiagoa (AZK-060/018)

Mutikotan soka-dantzan ibiltzen ziren plazan. Pilotaren bat inguratzea zaila izaten zen. Orduan ez zen ikusten baloirik ibaian; baloiren bat azaltzen bazen, denak korrika joaten ziren hura jasotzera.

647. Eskolatik piper eginda karta-jokora; ezkutuan erretzen (AZK-060/020)

Bera gaztetxoa zenean, pezeta batekin sagardo botila eros zitekeen. Sekulakoak egiten zituzten pezeta hori lortzeko. Gero, eskolatik piper egin, Aldazabalenerako tabernara joan eta karta-jokoan eginez sagardoa edan. "Ideales" zigarroak erosten zituzten, merkeenak zirelako. Zigarro usaina eskuetatik kentzeko zer egiten zuen. Arto-bizarrak ere erretzen zituzten.

648. Zigarroak egiteko makina eta zigarroak prestatzen zituen emakumea (AZK-060/021)

Gaztetan zigarroak egiteko makina bat inguratu zuten. Tabakoa erosteko dirurik ez zutenez, lurreko zigarro-mutxikinak batu, haien hondarrak nahastu eta harekin egiten zituzten zigarroak. Herrian zigarroak egiten zituen emakume bat ere bazegoen. Tabako pakete handia eman eta berak zigarroak prestatzen zituen.

649. Ardagaia lehortu eta erre (AZK-060/024)

Zigarroak egiteko makina nolakoa zen. Lurrean aurkitutako hondarrak sartzen zizkioten. Hura erre orduko, izerdia ateratzen omen zen. Beste batzuetan ardagaia lehortu eta hura erretzen zuten. Oso gogorra omen zen.

650. Fraideen zigorra, euskaraz eginez gero (AZK-060/027)

Floreagako eskolan mesedeetako fraideek jo egiten zituzten euskaraz eginez gero. Denak kanpotarrak ziren. Plazan eskola nazionalak zeuden.

651. Avilatik etorritako maistrak auzo-eskoletan (AZK-060/030)

Bere emaztea eta beste hiru emakume Avilatik etorri ziren herriko auzo banatara, maistra lanera. Auzo batetik bestera aldatzen zituzten gero. Bere emaztea Olaso auzoan egon zen hasieran. Elkar ulertu ezinda ibiltzen ziren: berak ez zekien tutik euskaraz eta umeez gaztelaniaz ere ez. Astelehenetik larunbatera (larunbat goizean ere eskola izaten zen) auzoan bertan egoten ziren apopilo, urtean baserri batean. Eguneroko jatekoa zein izaten zen baserrietan.

652. Igandeetan Musika Banda plazan; ligatze kontuak (AZK-060/031)

Emaztearekin nola ligatu zuen. Musika Bandak hiru pieza hiru txanda jotzen zituen igandeetan plazan. Azkenengoan pasodobleak jotzen zituzten eta bera orduantxe irteten zen, dantzan ez zelako abila eta dantzarik errazena horixe zelako (aurrera eta atzera egin eta listo!). Neskak tragoa hartzera gonbidatu behar izaten ziren. Ez zieten uzten etxeraino laguntzen, eta baserritarrek are gutxiago! Haiek baserritarrentzat izaten ziren.

653. Kaleko mutikoen arteko jolas eta liskarrak (AZK-060/033)

8-9 urterekin auzoetako lagun-taldeak izaten zituzten. Prozesioa egiten zenean, ihiak botatzen ziren lurrian. Mutikoak haiek hartu, ezkutura eraman eta jolasean ibiltzen ziren gero. San Juan sua egiten zenean, elkarri materiala lapurtzen ibiltzen ziren, zeinek surik handiena egingo.

654. Lagunekin jatekoa trukatzeko; herriko txokolategileak (AZK-060/034)

Goserik ez zuen pasatu. Batzuetan lagun batekin jatekoa trukatzeko zuen, bai ogia edo bai merienda. Euren etxean egoten zen Maiztegi txokolateak ez zion graziarik egiten eta lagunari aldatzen zion beste zerbaiten truke. Herrian bertan ere egiten zen txokolatea. Hortik dator Txokolatero; gaitzizena.

655. Gerra sasoiaren Madrilgo eta Durangoko lehengusuak Azkoitia (AZK-060/035)

Gerra sasoiaren Madrilgo eta Durangoko lehengusuak euren etxean egon omen ziren. Entzunda duenez, hegazkinak zetozenean, sotoan gordetzen ziren. Herrian jendea gero eta argalago eta euren etxean gero eta gizenago. Ogia etxean egiten zuten. Azukrea falta izaten zen eta lehengusuek kafesnea gatzarekin hartzen ikasi zuten. Azukre beltza.

656. Olioaren Cascante herritik estraperloan (AZK-060/036)

Elikagairen bat herrira ekartzen zenean, alondegira eramaten zen zuzenean eta han tasa ordaindu behar izaten zen. Olioaren Cascante herritik ekartzen zuten estraperloan. Kamioian ezkutuan nola eramaten zuten. Serenoarekin tratua egin behar izaten zuten.

657. Soldata osoa etxean ez entregatzeko tranpak (AZK-060/039)

1960an batez beste 1500-2000 pezeta irabazten ziren hilean. Eskuan kobratzen zen astero. Diru hura etxean entregatu behar izaten zenez, batzuek paperean kopuru txikiagoa adieraztea nahi izaten zuten, zati bat eurentzat gordetzeko. Behin hori egiten zuen gizon batek baja luze bat hartu behar izan zuen. Familiakoak harridura etorri zitzaizkien, bajaran egonda nola irabazten ote zuen gehiago galdetuz. Jendea ordu estrak sartzera joaten zen, diru hura eurentzat gordetzeko.

658. Denek Juaristi lantegiko lan-baldintzak nahi (AZK-060/040)

18 urterekin "Epelde y Larrañaga" lantegian hasi zen lanean. 1980. urtean, 40 urte zituela, lantegia itxi egin zen. Lantegia non zegoen. Sasoirik onenean 350

langile inguru izan zituen. Alberdi lantegian jende gehiago ibili zen, baina soldatak txikiak ziren. Denek Juaristi lantegiko soldata nahi izaten zuten, han doble kobratzen zen eta. Gainera, grebak ere egiten zituzten.

659. "Epelde y Larrañaga" egindako zakuak Groenlandiara (AZK-060/042)

"Epelde y Larrañaga" lantegian abarketak egiteko materiala (oihala, trentzak...) eta zakuak egiten zituzten. Bakailaoarentzako zakuak nolakoak izaten ziren. Asko saltzen zuten. Groenlandiara bidaltzen ziren.

660. Lantegian denetarik egin beharra (AZK-060/043)

Denetarik egin behar izaten zuen "Epelde y Larrañaga" lantegian: fakturak egin, kamioia kargatzen lagundu... Eta batzuetan baita enkarguak ere. Euren lantegian ezin zen erre, su hartzeko arriskua zegoelako, eta jendeak aldageletan erretzen zuen. Bergarara eta Gasteizera saltzen zuten asko, baina lantegi haiek pikutara joan ziren.

661. Serenoak ez zien uzten gauetz kalean jolasten (AZK-061/005)

Gauean jolasera irteten ziren. San Martinen beheraxeago bizi zen Ramonak serenoa bidaltzen zien, denak etxera joan zitezten. "Las diez y sereno" esaten zuen.

662. "Matutixa"rekin esnatu eta seiatarako fabrikara (AZK-061/006)

Maiatzean 14 urte bete eta ekainean Intxausti fabrikari hasi zen lanean. Ez zuten erlojurik eta parrokiako kanpaiarekin ("matutixe" esaten zitzaionarekin) esnatzen ziren. Seiatarako lantegira. Handik irtendakoan, abarketak josten. Ahizpa jostunari laguntzen ere ibiltzen zen. Elizara egunero joan behar izaten zuten, goizean edo arratsaldean, laneko erreleboaren arabera.

663. Aita Santa Agedan (AZK-061/010)

Aitarekin denbora gutxian bizi izan zen, Santa Agedan egoten zen eta. Ahizpa zaharrenak batzuetan eramaten zuen hara bisitan. Gogoan du aita etxeratuta ere egon zela bolada batez, baina anaia zaharrenak "zorue" esan ziola pentsatuta, aiztoarekin mehatxu egin zion eta berriz eraman zuten.

664. `Kale´nekoen eta `Hurto´koen zalgurdiak; kotxerik ez (AZK-061/011)

`Kale´nekoak zalgurdian ibiltzen ziren. `Hurto´koak (Hurtado de Mendoza) ere zalgurdian joaten ziren egunero mezetara. Kotxerik ez zegoen orduan. Etxe Beltzekoak (Idiakez dorrea) etortzen zirenean, haiek ekartzen zuten kotxea. Plaza Berria nolako zen.

665. Eskolatik piper asko (AZK-061/013)

Eskolan gutxi ibili zen. Miserikordian ibili zen, sor Felisarekin. Gero, gerra sasoiaren beste eskola batera joatera derrigortzen zituzten (gaur egun Ertzaintza dagoen lekuan). Askotan piper egiten zuen eta Baztarrikaldean zegoen ate handi batera igotzen zen.

666. Ume bihurria; bizikletan ibiltzen non ikasi zuen (AZK-061/015)

Ume bihurria zen. Baztarrikaldean, iturria dagoen inguruan, erre kara salto egiten zuen. Etxean asko ibiltzen zen anaiaren bizikletarekin. Olinpian Gabinorenekoak bizikletak alokatzen zituen eta hantxe ikasi zuen bizikletan ibiltzen.

667. Igandeetan Altzibarrera, futbola ikustera (AZK-061/016)

Igandeetan Altzibarko futbol zelaira joaten zen amarekin, futbola ikustera, ama oso futbolzalea zen eta. Futbol zelaiaren aurrean komentua zegoen. Izeba hango kapilauarekin egoten zen eta hara joaten ziren. Orduko argazki bat ba omen du. Izeba batek baratzak zeuzkan han inguruan eta han ere ibiltzen zen.

668. Olinpiako txurreria (AZK-061/017)

Umetan ez zen geldik egoten. Olinpia eraikinaren atzeko aldean txurroak egiten zituzten. Diru gutxi izaten zuten, baina oso txurro goxoak egiten omen zituzten.

669. Alfonso XIII.a trenez Azkoitira (AZK-061/018)

Lanean hasi zenean, erlojurik ez zuten esnatzeko. Trenak bozina jotzen omen zuen. Behin Alfonso XIII.a etorri zen trenean eta ahizpak hura ikustera eraman zuen. Intxausti lantegian 15 urte inguru egin zituen.

670. Madrilera, osaba-izebei laguntzera (AZK-061/019)

Izeba bat Madrilen bizi zen ezkondata. Ez zeukaten umerik eta, izebak ezintasuna zuenez, Maitxo joan zen, laguntzera. Hogeita hamaika urte egin zituen han. Gustura bizi izan zen Madrilen. Etxekoek udaletxe azpian zegoen zentraletik deitzen zioten telefonoz. Trenez egiten zuten Madrilera joan-etorria. Azkoitiar asko joaten ziren euren etxera, bai senideak eta baita senideak ez zirenak ere. Bizilagunekin harreman oso ona zuten eta, artean telebistarik ez zegoenez, tertulia ederrak egiten zituzten.

671. Ahizpak soldaduentzat alkandorak josi behar (AZK-061/024)

Gerra sasoiaren ahizpa jostunak astero bi alkandora josi behar izaten zituen soldaduentzat eta berak lisatu egiten zituen. Anaiak kanpora joanak ziren. Bera izebaren etxera joaten zen eta, lanen bat egitearen truke, bazkaria ematen zioten. Izebaren azpiko etxean obispoa bizi omen zen.

672. Madrilgo lagunarekin Hendaian (AZK-061/028)

Madrilen etxepe berean bizi zen emakume batekin harreman estua zuen. Osaba hil eta gero harekin asko ibili zen. Azkoitira ere etorri izan zen eta Hendaia ere joan ziren, Maitxoren anaia han bizi zen eta. Biziko egunik ederrenak Hendaian pasatu zituela esaten zuen Madrilgo lagunak.

673. Azkoitira itzultzeko erabakia (AZK-061/029)

Madrilen bere etxeko atea ireki eta lapurretara sartzen ahalegindu ziren. Bera goian zegoen, bizilagunaren etxean, eta lapurraren zarata entzun zuten. Gau osoa beldurrez pasa zuen eta handik aurrera urduri ibiltzen zen. Orduan erabaki zuen Azkoitira itzultzea.

674. Umetako entretenimenduak (AZK-061/035)

San Martinen arbolak zeuden eta hara igotzen ibiltzen zen. Anaia soka-dantzan ibiltzen zen. Aldakoneko etxean sukaldeko leihotik kanpora eta barrura saltoka ibiltzen ziren.

675. Emakume kuadrilla San Martinen, abarketak josten eta tertulian (AZK-061/036)

Emakumeak, ezkondukoan, ez ziren lanera joaten. Koinatak hamar seme-alaba izan zituen. Diru pixka bat irabazteko, "abarketan" lan egiten zuten, abarketak josten. Neguan etxeetan elkartzen ziren, baina uda partean emakume kuadrilla elkartzen ziren San Martinen eta tertulia ederrak egiten zituzten. Pilar `Etsaixe´ren inguruko kontuak.

676. Gizon eta emakume abarketak josten (AZK-061/038)

Abarketa-dendak. Gizonek txortan jarduten zuten, abarketei zorua josten. Emakumeek gaineko tela josten zuten. Ez du gogoan zenbat ordaintzen zieten, baina ez zela asko izango dio. Osaba ezkongabeak igandeetan zentimo bateko paga ematen zien.

677. Intxausti lantegian emakumezkoak haria egiten (AZK-061/039)

Intxausti lantegian gehienak emakumezkoak ziren, baina baziren hiru gizonezko ere. Pantxike izeneko emakume batek sekulako kantuak egiten omen zituen. Gerra garaiko pasadizoa. Haria egitea izaten zen euren lana. Erreleboetan lan egiten zuten. Goizean "matuti"arekin esnatzen ziren, seietarako lanera joateko.

678. Lantegian irabazitakoarekin ilobari jertsea erosi (AZK-061/042)

Maitxoren gazte-denboran emakume askok lan egiten zuten lantegietan. Hasieran lantegietan ez zegoen araurik, nagusiek agintzen zuten. Gerora lan-baldintzak hobetzen joan ziren. Gogoan du behin diru dezente jaso zuela batera eta diru harekin `Taita´renean jertse bat erosi zion ilobari. Zortzi ordu egiten zituzten lantegian.

679. Neskek prakarik ez; bizikletan ere gonarekin (AZK-061/044)

Pertxungoak ziren Intxausti lantegiko nagusiak. Klean zer arropa erabiltzen zuten. Prakarik ez. Bizikletaren ere gonarekin. Behin on Domingo abadeak neskatala bati elizan esan ziona. Elizara buruko zapiarekin joan behar izaten ziren emakumeak. Bankuen orde, aulkiak egoten ziren. Gauzak asko aldatu dira.

680. San Martingo etxeak egin zireneko kontuak (AZK-061/047)

San Martingo etxeak egin berriak ziren, hara bizitzera joan zirenean. Zozketatu egin ziren etxeak. Orduko gorabeherak. Beraiei lehenengo ilaran tokatu zitzairen. Behean baratzeak zeuden. San Martinen arbola asko zegoen. Espaloia nola egin zuten. Azkoitia asko aldatu da. Intxaustikoen lurrak.

681. Aberatsen etxeetako neskameak (AZK-061/049)

"Hurto"rean (Hurtado de Mendoza) neskame zeuden neska azkoitiarrak Madrilen ere haiekin egoten ziren neskame. Lagun egin zituzten. Behin kafea hartzen zeudela, nagusiak kargu hartu zien. Orduan neska asko joaten zen neskame.

682. "Hurto"koan neskame zeudenekin harremana (AZK-061/051)

"Hurto"koan (Hurtado de Mendoza familiarenean) neskame egon zen neska bat laguna zuen. Leopoldo Hurtado de Mendoza Jausoro jauregitik aparteko beste etxe batean bizi zen. Umetan hango umeren baten zapatak ("señorita"ren zapatak) bidaltzen zizkion bertan neskame zegoen batek.

683. Zapata pare bakarrarekin moldatu behar (AZK-061/052)

Umetan abarketekin ibiltzen ziren normalean. Euria zenean, zapatak. Behin lanera joan behar, euria goitik behera, eta zapatak konpontzera eramanda. Ahizpa joan behar izan zen zapaten bila.

684. Anaia Eibarrera oinez lanera gerra sasoiari (AZK-061/057)

Gerra sasoiari anaia bat kartzelan egon zen. Bestea Eibarrera joaten zen lanera, oinez. Azkoitiar batzuen etxean pasatzen zuen astea, apopilo.

685. Igandeetan mendira I (AZK-061/061)

Igandeetan mendira joaten ziren. Gogoan du gerra hasi zen egunean ere halaxe joan zirela eta bueltan Madariagako erromerian gelditu ziren. Dantza lotuan eginez gero, neskak kongregaziotik botatzen zituzten.

686. Igandeetan mendira II (AZK-061/063)

Igandeetan mendira joaten zen ahizpa nagusiagoarekin eta haren lagunekin, ogitarteko txikiren bat hartuta. Erlo ingurura joaten ziren normalean. Gerra hasi zen egunean ere halaxe joan omen ziren eta bueltan Madariagako erromerian geratu. Abarketekin joaten ziren mendira. Igande arratsaldean futbolera.

687. Antzerkiak Olinpian (AZK-061/064)

Bera gaztea zenean antzerkiak egoten ziren Olinpian. "Txakalanekuek" omen ziren artista onak. Zinema geroago. Behean butakak egoten ziren eta goian bankuak. Behekoa garestiagoa izaten zenez, gora joaten ziren.

688. Aurrezkiak Plaza Berriko "Correo"ra (AZK-061/066)

Plaza Berrian "Correoa" omen zegoen eta gogoan du hara joaten zirela aurreztutako dirua "kartillan ipintzera". Zentimoren bat izango zela dio. Osabak zentimo bateko paga ematen zion eta harekin opila erosten zuen "Kakunekoan". Bere amamak-eta hantxe egiten omen zuten karta-jokoan egunero zentimo batekin.

689. Billetea aurkitu zuenekoa (AZK-061/068)

San Juaneneko taberna ondoan Erriberaneko emakumea egoten zen saltzen. Behin billete bat topatu zuen Maitxok eta lehengusuak esan zion etxera joandakoan amari emateko. Pregoia atera zuten, norbaiti galdu bazitzaion, jakinarazteko esanez. Baina ez zen jaberik azaldu.

690. Ahizparen jornaleko dirua hartu zuenekoa (AZK-061/069)

Behin ahizpak fabrikatik jornaia jaso eta, etxera joandakoan, leiho ondoan zegoen amari entregatu zion. Geroago dirua falta zela konturatu ziren eta, haizeak eramango zuelakoan, sekulakoak egin zituzten diruaren bila. Handik egun batera berak estampa ederra zuela esan zienean konturatu ziren dirua berak zeukala!

691. Aitita maisua eta amama emagina (AZK-061/072)

Ama Jausoron jaioa zen. Haren aita maisua omen zen, baina berak ez zuen ezagutu. Amama, berriz, emagin lanetan ibiltzen zen etxerik etxe. Haren etxera joandakoan, ardoa ematen zien, baina gogoan du edalontzia beti zikina egoten zela.

692. Eskolara ordubeteko bidea; soldaduekin pilotan (AZK-062/004)

Bere jaiotetxetik (Arozpidetik) Madariagara ordubete behar izaten zuten oinez. Auzoko neska-mutilak maisu batekin ibili ziren bertako eskolan, baina errezatzen eta "firmie botatzen" bakarrik ikasi omen zuten. Gerra sasoiari soldaduak etortzen ziren Azkaratetik eta haiekin pilotan jarduten zuten, eskolatik irtendakoan.

693. Madariagako on Juan abadea (AZK-062/006)

Neguan farolarekin argi eginda joaten ziren Madariagara, mezara. On Juan abadea bertan egoten zen neskamearekin. Pilotan jokatzeari gustatzen zitzaion eta sotana eta guzti jarduten zuen. Abadearen txakurra pilota bila nola joaten zen. Gerra sasoiari, meza ematen ari zela, preso hartu zuten eta Teruelen hil omen zen gero. Oso euskaltzalea zen. Ehiztaria ere bazen.

694. Juan Joxe Garmendia, Madariagako maisua eta sakristaua (AZK-062/008)

Madariaga auzoko maisua, Juan Joxe Garmendia, sakristaua ere bazen. Bertan bizi zen eta bederatzi seme-alaba hazi zituen hantxe. Maisu lanaz gain, "abarketan" ere (abarkak egiten) egiten zuen. Eskola-orduan lo hartzen zuen eta, hura lo zegoen bitartean, ume guztiak jolasean. "Manuskrituak" edukitzen zituzten eskolan, irakurketarako. Hilean behin konfesatu egin behar izaten ziren.

695. Garai bateko koltxoiak (AZK-062/012)

Bera umea zenean etxean bazuten ura, baina argirik ez. Ilundutakoan, ohera eta goizean argitu arte lo. Garai bateko koltxoiak. Koltxoiaren azala garbitu eta ilea harrotzeko bi makilaz osatutako tresna batekin jotzen zen. Arto-malutarekin egindako koltxoiak ere ezagutu zituen.

696. Logelak "erraldoia"rekin nola garbitzen ziren (AZK-062/013)

Logelak "erraldoia"rekin garbitzen ziren. Sortak egin, lotu eta hari makila bat sartuta, harekin garbitzen ziren gelak. Usain ederra izaten zuen. Gainera, arkakusoak uxatzeko ona zela esaten zen.

697. Emakumeek elkarri laguntzen zioten, haurrak izaterakoan (AZK-062/015)

Garai batean umeak etxean jaiotzen ziren. Berak ere etxean izan zituen bi seme-alabak, etxeko amak (amaginarrebak) lagunduta. Garai batean ume asko izaten zirenez, emakumeek bata besteari laguntzen zioten. Hala ere, haurrak nola izaten diren isilean gordetzen zen. Baita hilerokoaren inguruko kontuak ere. Horri buruz hitz egitea bekatua izango ote zen dio.

698. Madariagako erromerian dantza lotua debekatuta (AZK-062/016)

Madariaga auzoko erromerian debekatuta zegoen dantza lotua. Herriko emakume batzuk zelatan egoten ziren, gainera. Gero erromeria handik kendu eta Elgoibar parteko Gurutzetan ipini zuten, han libre zelako. Baina beraiek ezin joan, urrun geratzen zitzairen eta. Madariagan Sakabi soinu-jotzailea egoten zen.

699. Larraskandako erromeria; Pagaolatzako emakume soinujolea (AZK-062/017)

Larraskandan soinua jotzen zuen emakume elbarri bat zegoen. Izatez Pagaolatza baserrikoa zen eta ondo jotzen omen zuen. Madariagako erromeria kendu zutenean, hara joaten ziren. Han ere dantza lotua debekatuta zegoen, baina ezkutuan jarduten zuten. Inguruetako neska-mutilak elkartzen ziren. Ardoa ematen zuten.

700. Garai batean mantzanilla gehiago mendietan (AZK-062/020)

Umetan auzoko neskak inguruko zelai batera joan eta hantxe jolasten ziren, mantzanillak biltzen. Garai batean askoz ere mantzanilla gehiago zela dio. Orain asko galdu da. Zerk eragin ote du?

701. Umetako jolasak: "tximili-kortetan", soka-dantzan eta "etxeakoandrezketan" (AZK-062/021)

Umetan egiten zituzten jolasak. "Tximili-kortetan" ibiltzen ziren, batek kontatzen zuen bitartean, besteak ahal zuten lekuan ezkutatuta. Soka-dantzan ere bai; "Al corro de la patata" abesten zuten. Panpinarik ez zuten izaten. "Etxekoandrezketan" nola ibiltzen ziren harriekin eta tomate poteekin.

702. Madariagako bi frontoietan pilotan (AZK-062/023)

Pilotan aritzen ziren Madariagako frontoian, eskolara joaten zirenean. Bi frontoi daude. Eguraldi onarekin frontoi handian jarduten zuten eta, euria zenean, goikaldekoan, estalitakoan. Orain hiru etxe hutsik daude.

703. Aititak abarkak eta abarka-sokak egiten zituen (AZK-062/025)

Baserrian lan asko izaten zuten. Ganadua, ardiak eta txerria izaten zituzten. Txerrikumeak jai behar zirenean, aitita txerria zaintzen egoten zen gauean. Ardien ile zuriak eta beltzak nahastu eta, kardarekin landu ostean, haria egiten zuen aititak. Abarka-sokak egiten zituen gero. Abarkak ere berak egiten zituen ganaduaren larruarekin. Lehorrean ibiltzeko onak ziren, baina bustirako ez.

704. Zakuarekin egiten zituzten gonak edo soinekoak (AZK-062/026)

Zakuarekin egiten zituzten gonak edo soinekoak. Horretarako, tindatu egiten zituzten lehenbizi. Zaku onak egoten ziren. Barruko arropak. Amak josten zituen arropak. Galtzerdiak amamak egiten zituen. Abarkak eta abarka-sokak, berriz, aititak. Orduan ez zen dirurik eta etxean zegoenarekin moldatu behar.

705. Umetan jarritako belarritako parearekin nagusitu arte (AZK-062/028)

Belarritako pare bat izaten zuten, umetan jarritakoa. Uztai txikiak izaten omen ziren, atzean lotzen zirenak. Sendagarriak ziren. Neska handi egindakoan ere haretzekin.

706. Abarketa asko egiten zen Azkoitian (AZK-062/029)

Etxean egindako larruzko abarkekin ibiltzen ziren, ez zuten izaten gomazko abarkarik edo zapatarik. Azkoitian abarketak erabiltzen ziren asko. Egin ere asko egiten ziren. Plaza Berrian jende ilarak egoten ziren kalean, denak abarkak josten. Txapel fabrika ere bazegoen herrian. Lehen ohikoa zen txapela janzteia; mutilek oso gaztetatik erabiltzen zuten.

707. Arropak nola garbitzen zituzten; aurrerapenen onurak (AZK-062/031)

Arropak etxeko harraskan garbitzen zituzten, etxean ura bazuten eta. Ura beheko sutan berotzen zuten, laratzean ontzi handi bat ipinita. Ekonomia jarri zutenean, sekulako aurrerapena! Chimbo edo Lagarto xaboiak izaten zituzten. Etxean xaboa eman eta kanpoko askan astintzen zituzten arropak. Gero, bihurritu eta eseki. Senide batzuen etxean ez omen zen argindarrik eta urik eta 9 seme-alaba hazi zituzten. Bizimodua nola aldatu den. Gaur egungo aurrerapenei esker zenbat lan aurreratzen den.

708. Etxean egiten zuten ogia (AZK-062/032)

Ortuan porruak eta azak izaten zituzten, besteak beste. Soroan artoa, baba, garia... Ogia etxean egiten zuten, hasieran ekonomikan eta gerora labean. 12-13 ogi erretzen zituzten batera.

709. Garia igitaiarekin ebaki, lehortu eta txanketa-harrian jo (AZK-062/033)

Gariaren inguruko lanak. Igitaiarekin ebakitzen zen. Gero, tolestuta ipini eta lotu. Ihartzen zenean, txanketa-harrian jo. Ganbaran egoten ziren txanketa-harriak. Gari-aleak lurrera erortzen ziren. Gari-metak. Gero "dornuan", garia garbitzeko makinan, garbitu. Gari aleak kutxan gordetzen ziren. Errotara nora joaten ziren. Urruti egon arren, astoari zorroak lotu eta joan egin behar.

710. Eguerdian baba gorriak eta iluntzean zuriak (AZK-062/035)

Artoaren inguruko lanak. Artaburuak lehortutakoan, aletu egin behar. Gero, errotara. Harekin taloak egiten zituzten. Goizean taloa eta esnea jaten zituzten. Eguerdian baba gorriak eta iluntzean baba zuriak. Ardiren bat hiltzen zenean, haren haragia izaten zuten. Bestela, urtean txerri bat edo bi ere hiltzen ziren. Arrainik ez zuten jaten. Edateko sagardoa edo ura.

711. Nolako sagardoa egiten zuten etxean (AZK-062/036)

Sagardoa etxean egiten zuten. Kutxa handi batera sagarrak bota eta mazoarekin jotzen zituzten. Pats hura barrikan sartu eta ura gaineratzen zioten gero. Zer sagar klase izaten zituzten: Errezil sagarra, San Juan Sagarra, "mokoluzia", San Pedro sagarra... Denak nahasten zituzten sagardoa egiteko.

712. Haizeak inguruetako aran arbolak txikitu (AZK-062/037)

Aranak izaten zituzten baserrian. Inguruetan asko omen zen, baina haizeak txikitu zituen arbolak. Aran anpolai-gorria zeukaten etxe ondoan, baina hura ere txikitu egin omen du haizeak.

713. Bi orduko bidea kalera jaisteko (AZK-062/038)

Ama Elgoibarko azokara joaten zen saltzera, elgoibartarra zen izatez eta. Azkoitira ere jaisten ziren. Oinez joan behar, astoa hartuta. Pare bat ordu behar izaten zituzten. Bera ere joaten zen azokara, Elgoibarrera, goizeko zortzietarako. Bidean Gurutzeta parean itzaltzen zitzaion argia eta ilunpean joan behar. Plazan jartzen ziren eta postuagatik ordaindu egin behar izaten zuten. Gero, behar ziren erosketak egin eta bi orduko bidean etxera buelta.

714. Kanean erosten zituzten jakiak (AZK-062/039)

Kanean zer elikagai erosten zituzten: kafea, olio, azukrea, txokolatea... Soltean erosten ziren. Olio klase bakarra egoten zen.

715. Abadeak mahats moskatela eman zionekoa (AZK-062/040)

Abadeari oilasko pare ematen zitzaion, soroetan egiten zituen bedeinkazioen trukean. Behin oilasko pare eramanean zionean, mahats moskatela eman zion probatzeko eta izugarri gustatu zitzaion. Amak ere eramaten zuen mahatsa, baina beltza eta txiki-txikia.

716. Abadea baserririk baserri soroak bedeinkatzen (AZK-062/041)

Udaberrian abadea baserririk baserri joaten zen sakristauarekin, soroak bedeinkatzera. Larraskandan beheko baserriraino ez joatearren, goitik egiten zuen bedeinkazioa. Bedeinkatzera joaten zenean, arrautzak eta gazta ematen zizkieten abadeari eta udazkenean oilasko pare. Jaiero bi meza egoten ziren Madariaga auzoan, zortzietan eta hamaiketan. Abadea bertan bizi zen neskamearekin. Haren etxean lapiko txikia baina gozoa zegoela dio.

717. Hildakoa kalera eramateko, zortzi gizon behar (AZK-062/043)

Hiletarik ez zen egiten Madariagan. Norbait hiltzen zenean, gorputza oinez eraman behar bi orduko bidean. Zortzi gizon behar izaten ziren, bidean txandak egiteko. Nondik zehar joaten ziren. Gizon haiei hamarretakoa eman behar izaten zitzairen gero. Aittolako gizona eramaten pasatu zuela traturik txarrena esaten zuen auzoko gizon batek. Bideak ere ez ziren batere onak orduan.

718. Ezkontutakoan, arreoan gurdian (AZK-062/046)

Norbait ezkontzen zenean, arreoan etxerako gauzak eraman behar izaten ziren: koltxoia, izarak, barruko arropak... Bera ezkondu zenean ere gurdikada eraman zuten. Gurdiak irrintziz ipintzen ziren nahita, norbait ezkontzen zela jakinarazteko. Suziriak ere botatzen ziren. Bi eguneko ospakizunak egin zituzten etxean, bera ezkondu zenean. Txahala hil zuten etxean eta legatzak ere ekarri zituzten kaletik.

719. Sendabelarrak eta enplastoak (AZK-062/050)

Asun-ura eta lahar-puntaren ura omen ziren onak. "Garduelak", zelaietan egoten diren belar latzak. Marrubi-belarren ura ere ona omen da odola mehetzeko. Enplasto asko egiten ziren garai batean, arrautza, ardoa eta zahiarekin.

720. Umetan zapoka eta txorro-morroka jolasean (AZK-063/004)

Umetako jolasak. Zapoka: ezkutatu eta bilatzen. Txorro-morroka nola jolasten zuten.

721. La Salleko fraideak, maisu onak (AZK-063/007)

Ume-umetan, 3 urte ingururekin, Miserikordiako eskolan hasi zen. Gero La Salleko fraideekin ibili zen Floreagan. Berak ez zuen ezagutu, baina La Salleko fraideak aurretik eliza aurreko eraikin batean egon omen ziren. Maisu onak ziren La Sallekoak, baina herriko jauntxoei hori ez zitzaien gustatzen eta kendu egin zituzten. Askok bazekiten euskaraz, baina eskolak gaztelaniaz ematen zituzten.

722. 1937an on Migel abadegaia izan zuen irakasle (AZK-063/008)

Gerra sasoiari La Salleko fraideek alde egin zuten eta handik aurrera hainbat irakasle izan zituzten. On Migel abadegaiarekin ibili ziren udaletxean 1937an. Irakaslearen arretoa erakarri zuen Manolok, ikasketetan azkarra zelako, eta handik urte batzuetara Azkoitira etorri eta Nafarroako herri txiki batera berarekin joateko gonbita egin zion. Ordurako Lizarrako abadea zen on Migel. Ez du gogoan zein zen herria, baina bai nola joan zen, maleta txikia hartuta. Etxerakoan, maleta irinez eta bestelakoak beteta ekarri zuen.

723. Gerraosteko gosetearen eragina erakusten duen anekdota (AZK-063/010)

Gerraostean ez zegoen jatekorik eta gosea pasa behar. Orduko gosetearen eragina erakusten duen anekdota bat kontatzen du, bere amaginarrebaren ingurukoa.

724. Elizako horman pilotan aritzearren, bost pezetako isuna (AZK-063/013)

Atanotarrek pilotari ona izatearen fama dute eta berari ere hortik etorriko zitzaien agian zaletasuna (aitita zuen Atanokoa). Garai batean ez zegoen beste aukerarik: futbola edo pilota. Edozein hormatan egiten zuten pilotan. Elizako horman pilotan arituz gero 5 pezetako isuna jarriko zela esaten zuen kartela ezagutu zuen.

725. Herriko pilotagileak; mutikoek biguntzen zituzten pilotak (AZK-063/015)

Herriko pilotagileak: Eugenio `Atano´, `Txikito III´.a eta "Caballo Rojo" (hau geroago Kataluniatik etorria). Pilota zuriak belztu egin behar izaten omen ziren. Horretarako, mutil gazteei ematen zizkieten pilotak, pezeta batzuen truke, pilotak erabiliz biguntzeko.

726. Garai bateko piloten eta gaur egungoen arteko aldea (AZK-063/016)

Pilotak egiteko, goma jartzen zitzairen barruan, gero hariarekin bildu eta gainetik larrua josi. Garai bateko piloten eta gaur egungoen arteko aldea. Gaur egun indar handiagoa behar dela uste du eta pilota lehen baino azkarrago etortzen dela iruditzen zaio.

727. Gaztetxoek kontzejupean pilotan jokatzeko aukerarik ez (AZK-063/017)

Helduak ibiltzen ziren kontzejupean pilotan eta gaztetxoek ez zuten han jokatzeko aukera askorik izaten. Goiko Losan ere aritzen ziren, baina han ezin aritu euria zenean. Gurea pilotalekuan ordaindu egin behar izaten zen.

728. Pilotari profesionala izana; eskuekin arazoak (AZK-063/020)

Zaharragoei begiratuta ikasten zuten pilotan. Hemezortzi urte ingururekin hasi zen partidak jokatzeko, lehenengo afizionatu moduan eta gerora profesionaletan. Eskuetatik txarto ibiltzen zen eta beldurrez irteten zen frontoira. Orduan ez zen takorik erabiltzen, esparatrupa bakarrik. Gaur egun takoak beharrezkoak direla uste du. Eskua zaintzeko, izotza erabiltzen zuen.

729. Pilota apustu asko kontzejupean (AZK-063/022)

Pilotako apustu asko egiten ziren kontzejupean. Lagunarteko apustuak izan arren, ez zen diru asko edukitzen eta serio jarduten zuten. `Atano III.a´ zen abilena kontzejupean jokatzeko.

730. Kontzejupeko pilotariak; Sebastian Larrañaga `Koskor´ (AZK-063/024)

Kontzejupean pilotan nortzuk aritzen ziren bere garaian. Atano VIII.a. Sebastian Larrañaga `Koskor´ ere sarri ibiltzen zen. Pilotaleku handian ez zen hain ongi konpontzen, baina kontzejupean abila zen. Bikote ona osatzen zuten biek. Berak atzean jokatzeko zuten.

731. Pilota partidak zuriz jantzita eta abarketa zuriekin (AZK-063/028)

Gehienbat Eibarren jokatzeko zituen pilota partidak. Uda partean Zarautzen, hango frontoi txiki batean. Logroñora edo Gasteizera ere joaten ziren. Ordaindu egiten zieten, baina ez zela asko izango dio. Arropa zuria eta abarketa zuria erabiltzen zituzten. `Atano III´.ak txapelarekin jokatzeko zuen; berak ez du besterik ezagutu.

732. Pilota partida txarra egindakoan, txistuak (AZK-063/030)

Hiru epaile egoten ziren pilota partidetan, aulkian eserita. "Botilleroak". Jendeak txistua jotzen zuen pilota partidetan tanto batzuk galtzen zituztenean. Oraingo ikusleak zintzoagoak direla dio. Garai batean trabes asko egiten zen.

733. Umetatik elizako koruan eta solfeoa ikasten Jose Izurategirekin (AZK-063/035)

6-7 urterekin elizako koruan hasi zen. Mutikoak bakarrik joaten ziren. Emakumezkoek korura igotzea ere debekatuta zuten. Abestu izan zuten neskekin batera, baina mutilak goitik eta neskak behetik. Jose Izurategi organista zen koruaren arduraduna. Solfeoa ere irakasten zien.

734. Meza nagusian kantuan (AZK-063/037)

Koruan zebiltzan mutikoek igandeko meza nagusian abesten zuten. Orduan meza nagusia oso luzea izaten zen, abadeek sermoi luzeak egiten zituzten eta. Meza zer kantatzen zuten. Kredo ere abestu egiten zuten eta horrek ere meza luzatzen zuen.

735. Musikazaletasuna aitarengandik (AZK-063/039)

Oso gazterik hasi zen "rekinto" jotzen Azkoitiko Udal Musika Bandan. Musika tresnak herriak jartzen zituen. Anaia nagusiagoak ere Musika Bandan ibiliak ziren. Anaietako bat "Los Xey" taldeko kidea izan zen. Aita zen musikazalea.

736. Azkoitiko Musika Banda; Aranguren zuzendaria (AZK-063/041)

Bera hasi zenean, Aranguren zen Azkoitiko Musika Bandaren zuzendaria. Gero Zestoara joan zen. Organista zen eta bere eskuen inbidia omen zuen, esku finak zituelako. Aste bi entsegu egiten zituzten. Non entseatzen zuten.

737. Udal Musika Bandaren kalejira eta kontzertuak (AZK-063/042)

Azkoitiko Musika Bandak egun zehatz batzuetan kontzertuak eskaintzen zituen kontzejupean: Andramarietan, Pazko egunean... Andramarietan goizeko seietan jotzen zuten diana. Kalejirak Kale Nagusian egiten ziren batez ere. Nolako abestiak jotzen zituzten.

738. Igandeetako dantzaldian dantza solteko piezak jo behar (AZK-063/043)

Igandeetan dantzarako piezak jotzen zituen Udal Musika Bandak plazan, baina dantza lotua debekatuta zegoen eta solteko piezak jo behar. Udala izaten zen debekua jartzen zuena, nahiz eta agian elizatik etorri agindua. Kontzertuak eskaintzeko, egun zehatzak izaten zituzten egutegian, baina alkateak beste egunen bat gehitzeko eskubidea zuen. Hilean zenbat ordaintzen zieten.

739. 16 urterekin Udal Musika Banda utzi eta `Txanbolin´ekin itzuli (AZK-063/044)

Airezko hainbat instrumentu jo izan zituen. 16 urte ingururekin utzi egin zuen Udal Musika Banda, pilotan aritzeko txarra zela esan ziotelako. `Txanbolin´ zuzendari lanean hasi zenean, itzultzeko eskatu zion. Berari ez zitzaion gustatzen igandetako dantzaldietan jotzea eta halaxe egin zuten tratua: entsegu eta kontzertuetara joan eta erdia ordainduko ziotela.

740. Iraurgi abesbatzaren sorrera 1979an (AZK-063/046)

1979an Iraurgi abesbatza sortu zuten elizako koruan zebiltzanek. Kanpora ere joan nahi zuten eta, horretarako, elizatik kanpoko beste koru bat sortu behar. Elizako koruko zuzendariari esan zioten berak zuzentzeko korua, baina hark ezin zuenez, Manolo izan zen zuzendaria lehenbiziko urteetan.

741. Iraurgi abesbatzarekin munduan zehar (AZK-063/048)

Iraurgi abesbatzaren inguruko kontuak. Era guztietako kantak abesten zituzten: elizakoak, atzerrikoak... Parrokoak alemanez zekien, urte luzez han egondakoa zelako, eta alemanez abestu behar zenean, hark irakasten zien nola ahoskatu. Zer herrialdetara joan izan ziren. Alemaniara joan ziren batean meza lau hizkuntzatan eman zuten.

742. Garai batean tabernetan edo elkarteetan abesteko ohitura (AZK-063/051)

Garai batean gizonzkoek tabernetan kantatzeko ohitura handia zuten. Beraiek elkarteetan abesten zuten asko. Otxote bat ere osatu zuten, gainera. Halako taldeek indarra zuten orduan. Anaia Kontrapuntoak taldeko kide izan zen. Gogoan du behin elkartetik irten eta kantuan hasi zirela kolean. Amaitu zutenean, jendeak txaloak jo zizkien leihoetatik.

743. "Elurra mara-mara ari da... " kanta (AZK-063/053)

"Elurra mara-mara ari da... " kanta errusiarraren zati batzuk abesten ditu. Asko abesten zela dio.

744. Azkoitiko ikastolaren sorrera (AZK-063/056)

Raimundo Alberdi izan zen ikastolaren sorreran eragile nagusia. Manoloren anaia hari laguntzen ibili zen. Beste herri batzuetako mugimendua ikusita hasiko ziren beharbada, baina euskaltzaletasuna handia zen orduan. Gurasoak eta euskaltzaleak izan ziren ikastolaren bultzatzaileak.

745. Herritarren laguntza ikastola sortzeko (AZK-063/059)

Ikastolako diruzain lanean ibili zen, borondatezko lanean. Gurasoek dirua ipini behar izan zuten. Laguntzaile bila ibili ziren eta herritarrek asko lagundu zuten, euskararen alde egitearren. Denborarekin gauzak garestituz joan ziren;

borondatez dirua ematen zutenei ezin gehiago eskatu eta, ondorioz, ikastola gero eta okerrago.

746. Ikastolaren diru-iturriak; Goiko taberna (AZK-063/062)

Ahal zen lekutik lortzen zen dirua ikastolarentzat. Goiko tabernak jaietan ez zuela irekiko eta taberna utzi zion ikastolari. Gerora guztiz itxi zen.

747. Garai bateko Azkoitia (AZK-063/068)

Garai batean "Espiritu santua" esaten zitzaion kalean bi etxe berdin-berdin zeuden eta "etxe berriak" esaten zieten. Kalean bertan ere baratza asko ziren orduan. Katalango etxea. Geltoki inguruan ez zegoen ezer. Kotxerik ez zen pasatzen kalean eta mutikotan non jarduten zuten futboleak.

748. Azkoitiko kale-baserriak; Kiruri eta Etxaluz (AZK-063/069)

Eliza ondoan Kiruri baserria zegoen. Baserritarrak kalera joaten zirenean, hango ukuiluan gordetzen zituzten astoak. Non zegoen azaltzen du. Etxaluz kale-baserria non zegoen. Handik eramaten zieten esnea euren etxera.

749. Aitak inguruko neska-mutilei igerian irakasten zien (AZK-063/072)

Aitak auzoko neska-mutikoei igerian irakasten zien, arratsaldeetan, lanetik irtendakoan. Ibaira joaten ziren (Landakanda parean), puxikak puztuta gerrian jartzen zituzten (flotagailu moduan) eta harekin ikasten zuten. Orduko bainujantzia; "igeriko frakak" esaten zioten.

750. 1933ko izar-aldaketa harrigarria (AZK-064/003)

1933an (1913 esaten du, baina 1933 esan nahi zuen) izugarrizko izar-aldaketa egon zen. Ordubetea zortzi mila izar aldatu omen ziren. Ikusgarria izan zela dio. Aurrekoek esaten zuten halakoren bat gertatzen zenean, gerra etortzen zela eta halaxe gertatu zen: handik hiru urtera Gerra Zibila hasi zen. Gerora liburuetan irakurri izan du gertaera horren inguruko azalpena.

751. Miserikordian, Eskola Nazionalean eta La Salleko fraideekin (AZK-064/006)

Miserikordian ibili zen lehenbizi eskolan. Gero, La Salleko fraideen eskolan lekuri ez zegoenez, plazako Eskola Nazionaletan ibili zen, han lekua egin bitartean. Neskak eta mutilak aparte egoten ziren. La Salleko fraideekin mutilak bakarrik ibiltzen ziren. Maisuak.

752. La Salleko fraideek eraztuna, gaztelania ikastearren (AZK-064/007)

La Salleko fraideek doktrina euskaraz ematen zuten, baina eskolak gaztelaniaz. Gainera, euskaraz hitz egiten zuenari eraztuna jartzen zioten. Jendeak esaten du hori zigortzearen egiten zutela, baina bere ustez jendeak gaztelania ikas zezan egiten zuten. Euskarazko liburuak ere ekarri zituzten, `Xabiertxo´ eta ´Txomin ikasle´;, besteak beste.

753. La Salleko fraideak Floreagatik bidali zituzten (AZK-064/008)

Azkoitiko Udalean zegoen idazkaria La Salleko fraideen kontra zegoen. Fraideek euskarazko liburuak ekartzea ere ez omen zitzaion gustatu. Salesiarrak ekarri nahi zituzten, haiek "Artes y oficios" irakasten zutelako. Hitzartutako epea bukatu zitzairenean, bete ezindako klausulak jarri zizkieten La Sallekoei eta Floreagatik alde egin zuten. Gurasoek ordainduta, bi urtez jarraitu zuten Azkoitian. Bi urte horietan Andaluziatik etorritako fraideak ("maisu beltzak") egon ziren Floreagan, Salesiarrak ezin zirelako etorri herrian beste ordena batekoak zeuden bitartean. Gerra hasi zenean, hospitala ipini zuten Floreagan. Gerraostean hainbat ordenatako fraideak egon ziren.

754. Fraideen liburutegitik astean liburu bat hartzen zuen irakurtzeko (AZK-064/009)

La Salleko fraideek 1go mailakoentzat ekarri zuten 'Xabiartxo' liburu eta bera ordurako goragoko mailan zebilenez, ez zuen erabili. Lehenengo lau urteak doakoak ziren eta beste hiru ordainpekoak. 14 urtera arte ibili zen bera. Liburutegia zuten fraideek eta etxeko pagarekin astean liburu bat hartzen zuen irakurtzeko, 10 zentimo ordaindu behar izaten zen eta. Gaztelaniazko liburuak izaten ziren. Kuadernoak ere izaten zituzten, erosita.

755. Bilboko Santiago kolegiara morroi (AZK-064/010)

14 urterekin ikasketak bukatu zituenean, ez zegoen lanik eta Bilboko Santiago kolegiara joan zen morroi. Hara joateko, lehenbizi Elgoibarrerako autobusa eta ondoren trena hartu behar. Gabonak arte handik herrira itzuli ere ez, orduan ez zegoen erraztasunik eta. Han zegoela, gerra hasi zen.

756. Taxisean Palentziara, gerran zauritutako lehengusua bisitatzera (AZK-064/011)

Egunean bi autobus egoten ziren Azkoititik Elgoibarrera, goizean bat eta iluntzean bestea. Herrian oso kotxe gutxi zeuden. Lantegietako nagusienak izaten ziren. Bi taxi ere bazeuden. Gerratean, 1938an, negu gogorra pasa zuten Teruelen borrokan ibili zirenek. Lehengusu bati hanka izoztu zitzaion eta moztu egin zioten. Taxian joan ziren Palentziara, hura bisitatzera.

757. Palentziatik Valladolidera, izeba moja bisitatzera (AZK-064/012)

Bi aldiz joan ziren Palentziara, lehengusua bisitatzera. Amak hiru ahizpa moja zituen eta horietako bat Valladoliden. Behin, izeba bisitatzeko asmoz, Palentziatik Valladolidera joan zen trenez. Komentuko atea jotzen jardun arren, inork ez zion ireki. Izebak pena hartu zuen, kartaz han egon zela azaldu zionean.

758. Bost urte soldadutzan (AZK-064/013)

Gerraren bukaeran soldadu joan beharra tokatu zitzaion, baina bi hilabetera gerra bukatu zen. Hala ere, bost urte gehiago egin behar izan zituen soldadu. Hasieran hiru urte eta erdi egin zituzten, baina Algerian lehorreratzea egon zela eta, berriz deitu zieten eta beste urte eta erdi egin zuten. Espainia osoan zehar ibili zen. Gaztelaniaz bazekien hara joaterako, baina asko praktikatu zuen.

759. Azkoitian gaitzizenak jartzeko ohitura (AZK-064/015)

Aita baserri horretan jaio zelako `Imuntzo´ deitu izan diote. Azkoitian gaitzizenak jartzeko ohitura handia dago. Batzuk itsusiak direla dio, `Kakaberde´, esaterako. Animalia izenak ere ohikoak dira. Behin batek eskolan perretxikoen inguruko olerkia egin zuela eta `Perretxikos´ gaitzizena jarri zioten.

760. Ez zen egoten umeen arteko pike handirik (AZK-064/017)

Gogoan du behin kaleko umeek San Martin auzokoekin gerra egin nahi zutela, harrika. Guardia kalean ume asko zen eta jolasean ibiltzen ziren.

761. Umetako jolasak: zapoka, karabeka, lapurka... (AZK-064/019)

Erremotarekin ibiltzen ziren umetan. Zapoka nola jolasten zuten. Lehenbizi, itsu nor geratuko zen zotz egiten zuten: "Arriola, marriola...". "Karabeka" eta "Lapurka" jolasak.

762. Intxaurrekin egiten zituzten jolasak (AZK-064/020)

Intxaur sasoian poltsikoak intxaurrez beteta izaten zituzten, jolaserako. Intxaurrak hormako zuloetan ("entruk" esaten zieten) sartzen jolasten zuten. "Porrotean" nola jolasten zuten intxaurrekin. Batzuek kanikak ere izaten zituzten.

763. Erregetan piku melatua edo gozokiren bat (AZK-064/021)

Zeukatenarekin jolastu behar umetan. Erregetan zerbaiten esperantza izaten zuten, baina piku melaturen bat edo gozokiren bat bakarrik jasotzen zuten. Sei ume eta lantegiko soldata txikia.

764. Neskak soka-dantzan eta tortoloretan; "txintxerriñean" (AZK-064/022)

Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren jolasean. Neskak normalean soka-dantzan edo tortoloretan ibiltzen ziren. Tortoloretan nola jolasten zuten. "Txintxerriñean" nola jolasten zuten; laukiez gain, karakol formakoa ere egiten zuten. Lurrean marrazkia egiteko "marka-harrix" erabiltzen zuten.

765. "Kurutze barrun" pilotan kontzejupean (AZK-064/024)

Jendeak eguerdian lantegitik irten eta berriz sartu bitarteko denbora aprobeztatzen zuen pilotan aritzeko. Zakuan sartuta jokatuako apustu bat gogoratzen du. Kontzejupean ohikoa izaten zen frontoiaren laurden batean jokatzeari; "Kurutze barrun" esaten zioten. Garrantzitsua zen eskubiko ateko zuloan sartzea pilota, tanto egiteko. Lagunarteko apustu asko egiten ziren.

766. Kontzejupeko apustua bertan behera utzi zuten pilotariak (AZK-064/025)

Pilotari asko zen Azkoitian, baina batzuk bereziki kontzejupean ondo moldatzen zirenak. Behin bi herritarrek ogerleko bateko apustua egin omen zuten. Jo ta jo ari ziren, baina ezin bukatu. Biak "peto" zeudela eta azkenean uztea erabaki zuten.

767. Azkoitiko trenbidea eta geltokia egin zituzteneko oroitzenak (AZK-064/028)

San Martin auzoko etxeak inauguratu zirenean eta trena martxan jarri zenean, 1926an, Alfontso XIII.a etorri zen. Berak sei urte zituen orduan, baina gogoan du non ibili zen jolasean. Trenbidea eta geltokia egiten jardun zuteneko oroitzenak ere baditu. Lokomotora etortzen zen materialarekin; "tren mutur beltza" esaten zioten. Langile gehienak galiziarrek zirela uste du.

768. Diligentziak; bera jaio aurretik "elektrobia" (AZK-064/030)

Bera umea zenean, Arroara eta Elgoibarrera joaten zen diligenza (zalburdia) egoten zen. Arroan trena har zitekeen gero. Errexilenekoek zeukaten diligenza. Autobusa zegoen Donostiara eta geroago Elgoibarrera ere bai. Bera jaio aurretik "elektrobia" esaten zitzaion garraioa zegoen Azpeititik Zumarragara. Aitari entzun izan zion sekulako zarata ateratzen zuela.

769. 1953ko uholdea Alberdi lantegian (AZK-064/035)

1953ko uholdea nola bizi izan zuen. Misericordia aurrean zegoen Alberdi lantegian zegoen. Ura gora zetorrela ikusi zuen. Etxera joan ezinda gau osoan hantxe geratu behar izan zen.

770. Alberdi lantegian abarketentzako gaiak (AZK-064/036)

Alberdi lantegian abarketak egiteko gaiak egiten zituzten (haria, trentza...). Kotoizko oihalak ere egiten zituzten. Eta gero, aparte, zakuak.

771. Alberdi lantegia; 1968an erre ostean, altzairugintzanak egiten (AZK-064/037)

1968an erre egin zen Alberdi lantegia. Lur-saila langileentzat utzi zuten eta handik aurrera altzariak egitea pentsatu zuten. Makina egokiak ekarri eta ikastaroak egin zituzten. Danonaren aholkularitza izan zuten. Hasieran landutako altzari dotoreak egin zituzten, baina konturatu ziren denbora gehiegi pasatzen zutela haiek egiten eta ez zutela dirurik irabazten.

772. Ameriketarako literak egiten; Gurolaren sorrera (AZK-064/038)

Alberdi lantegian literak egiten hasi ziren gerora. Ameriketara bidaltzen zituzten kontenedoretan. Baina azkenean gaizki joan zen kontua, bidalketa bat egin zutelako eta hangoek ordaindu ez. Denbora tarte batean Danonarekin ibili ziren, baina gero euren lantegia sortu zuten: Gurola. Handik hartu zuen erretiroa.

773. Irrati eta telebista montaketa ikastaroak; Baztartxon filmak botatzen (AZK-064/040)

Lantegia erre zenean, beste lanbide batzuk ikasteko ikastaroak izan zituzten Eskola Profesionalean eta berak "radio-televisión" egin zuen. Ordurako irratiak montatzeko ikastaro bat egin zuen 1950ean, "korrespondentziak", Madriletik. Baztartxo zinema martxan jarri zutenean, bera izan zen lehenengoa filmak botatzen. Hamahiru urte egin zituen han. Irratiak konpontzen ere lan egin zuen.

774. Baztartxo zinemako lehenengo langilea (AZK-064/041)

Bera izan zen Baztartxo zineman filmak botatzen zituen lehenengoa. Aurretik Zarauzko Modelo zineman jardun zuen ikasten. 1959an jarri zen martxan Baztartxo bazkide askoren artean: Zabala, Romarate, Cuende... Bera Cuendegatik hasi zen bertan, Bilboko kolegioan morroi egon zenetik laguna zuen eta.

775. Baztartxoko filmak; aurretik zeuden "zinemak" (AZK-064/042)

Baztartxo zinemaren hasieretan botatzen ziren filmak. Lola Floresen film asko bota zirela du gogoan. Zinema batzuen artean film bat alokatzen zuten eta gero batetik bestera ibiltzen zen. Aurretik Olinpian botatzen ziren filmak eta baita Floreagan (mutilentzat) eta "kantzelin" (neskentzat) ere.

776. "Sindikau"ko zinema (AZK-064/043)

Bera gaztea zenean, hamabost zentimo ordaintzen zen zinema. "Sindikau"ko zineman oihal bat jartzen zuten erdian. Alde batekoek, ondo ikusten zutenek, hamar zentimo ordaintzen zuten eta beste aldekoek, letrak alderantziz ikusten zituztenek, erdia. Zine mutua izaten zen orduan.

777. Olinpiako antzokia (AZK-064/045)

Olinpia antzokia nolakoa zen. Beheko solairua eta goian anfiteatroa. "Gallineroa" esaten zioten. Goikoa merkeagoa zen. Antzerkiak ere egiten ziren, bai gerra aurretik eta bai ondoren. Hamahiru urtez ibili zen Baztartxon filmak botatzen, baina inoiz ez zien arretarik jarri artistei.

778. Dantza lotua baimendu eta plaza gero eta hutsago (AZK-064/048)

Dantza soltea bakarrik egiten zen garai batean plazan. Periko alkateak baimendu zuen dantza lotua. Baina pixkanaka gero eta jende gutxiago joaten zen dantzara plazara, dantzalekuak ere orduantxe hasi ziren eta. Dantza lotua debekatuta zegoenean, Aizpurutxon, Antzuola partean egiten zuen dantza jendeak, han libre zen eta.

779. Andra Mari jaiak; Santa Krutzko txirrindulari lasterketa (AZK-064/050)

Garai batean Azpeitiko jaietara kinkila-sailtzaile mordoa joaten zen eta Azkoitira bakarra: Goiko Losa inguruan egoten zen "tiro-pitxoia". Nolako suzko erroberak egoten ziren. Mutikoak txinparten bueltan ibiltzen ziren, jaka buruan jarrita. San Roke egunean aureskua eta prozesioa Aizkibel kale aldetik. Hirugarren egunean Santa Krutzko txirrindulari lasterketa; txirrindulari onenak etortzen ziren. Cepedak irabazi zuen bi urtean. Hirugarren urtean Frantziako Tourrera joan eta bertan hil zen.

780. "Kinkillero"ak; gozoki eta barkillo saltzaileak (AZK-064/052)

Azpeitiko jaietara joaten zen, hango kinkila-saltzaile bat ikustearren. Hezitako txori bat edukitzen zuen eta txori hark horoskopoa ateratzen zuen. Azkoitira ez zen kinkila-saltzailerik joaten. Gozoki-saltzaileak piruliak saltzen zituen. Barkillo-saltzailea herrian bertan zegoen. Erruleta bat izaten zuen, baina behin ere ez zen erortzen zenbaki onean. Barkillo saltzailearen semea gerran hil omen zen.

781. Azkoitiko txurro eta izozki saltzaileak (AZK-064/053)

Olinpia atzealdean txurreria egon zen. Gerora Eustakia `Herrero´ hasi zen. Gozo-denda zuen eta txurroak ere saltzen zituen. Eper kalean bizi ziren eta han egiten zituzten txurroak, ke asko ateratzen zelako. Gero dendan saldu. Izozki saltzaileak. Santandertik etorritako Ortizek izozki oso onak egiten zituen.

782. Azkoitiko Alaska izotz fabrikan lanean I (AZK-064/054)

1948-1949 inguruan izotz lantegia jarri zuten Azkoitian. Guardia kalean zegoen, Guardia Zibilen kuartelaren ondoan. Izotza egiteko prozesua. Egunean 42 barra egiten zituzten (1000 kilo pasa). Gero hozkailu handi batean mantentzen zituzten.

783. Azkoitiko Alaska izotz fabrikan lanean II (AZK-064/055)

Tabernariak joaten ziren izotz lantegira izotz bila. Kanpora ere saltzen zuten. Zestoako bainuetxeak jaietan 30 barra eraman izan zituen. Goizeko bostetan geltokira eraman behar izaten zituen izotz barrak, karroan hartuta, eta handik trenez bidali. Hamabi orduan egiten zen izotza eta gero zaintzen egon behar. Hamar urte inguruan egongo zen lantegia, hozkailuak hasi ziren arte. Alaska jarri zioten izena.

784. Plaza Berri ingurua; dendak, tabernak eta Genara maistra (AZK-065/006)

Bera umea zenean Plaza Berrian zeuden taberna eta dendak: "Azpillkue", "Esperantxanekue"... Genara maistraren eskola ere bertan zegoen. Zapata dendaren ondotik atzeko kalera pasadizoa zegoen. Atzeko kalean "Ospeletxik" esaten zitzairen etxeak zeuden. Han ondoan artoak egin eta saltzen zituzten.

785. Herriko arropa dendak eta jostunak (AZK-065/022)

Arropa egin egiten zen normalean, baina bazeuden arropa dendak. Plaza Berrian "Mari Txistunekue", "Sofianekue". Margarita `Axpel´; egindako arropak ere edukitzen zituela dio. Denda non zegoen. Jostunak ere bazeuden. Bera Joxepa Larrañagarekin ibili zen josten ikasten. Oinetakoak. Bizimodua asko aldatu da.

786. Bizimodua "erreportzaketan" (abarketak josten) (AZK-065/023)

Bizimodua "erreportzaketan" (abarketak josten) atera zuela dio. Makinatxo bat izaten zuen. Oihala josi behar izaten zion zoruari. Ezkondu ostean ere lan horretan jarraitu zuen. Goizeko bost eta erdietan jaiki eta, umeak eskolara joaterako, dozena josi izan zuen maiz.

787. Abarketak dozenaka (AZK-065/025)

Frantziatik ekartzen zuten abarketak egiteko materiala eta beraiei banatzen zieten gero. Oihala zoruari josi ostean, abarketak itzuli eta ordaindu egiten zieten. Dozenaka ordaintzen zieten. Kolore desberdinetako oihalak egoten ziren.

788. Kalean abarketak josten, kuadrillan (AZK-065/026)

Kalean ere josten zituzten abarketak, kuadrillan. Kontu-kontari jarduten zuten, abarketak josi bitartean. Baziren abesten zutenak edo ipuinak kontatzen zituztenak ere. Lanean, baina giro ederrean jarduten zuten. Argazkia ere badutela kontatzen du. Plaza Berrian egiten zen "erreportzaketa".

789. Gizonek abarketen zoruari forma eman (AZK-065/027)

"Erreportzaketa" emakumeen lana zen. Gizonek abarketen zorua josten lan egiten zuten, zoruari forma ematen. Horretarako, eztena erabiltzen zuten. Bere aitak eta osabak lan hori egiten zuten, esaterako. Abarketa dendak non zeuden.

790. Misericordiko eskolan sor Mikaela eta sor Felisarekin (AZK-065/034)

Misericordian ibili zen eskolan, mojekin. Lehenbizi sor Mikaelarekin eta gero sor Felisarekin. Liburu bakarra zuten. Matematikako oinarrizko kontuak ikasi zituzten. 11-12 urterekin umezain joan zen.

791. Bi jaunartze: txikia eta handia (AZK-065/037)

Bi jaunartze egiten ziren: txikia 6-7 urterekin eta handia 10-11rekin. Orduan ez zen ospakizunik egiten. Euren etxean egun berezietan barkillodun galletak izaten omen zituzten. Zer arropa izaten zuten neska-mutilek jaunartzean.

792. Madariagara txangoan joateko "dirurik" ez (AZK-065/040)

Oso pobreak izan zirela dio. Behin doktrinako umeek txangoa zuten Madariagara. Ogitartekoa eta fruta aleren bat eramane behar zuten. Amak garbi esan zion ezingo zela joan, ez zeukalako horretarako lain. Ez zen kexatu, bazekielako zein zen etxeko egoera.

793. Umetako lanak baserrian; itulan (AZK-066/004)

Umetan baserrian egiten zituzten lanak: behiak zaindu eta itulan egin. Itulan egitea zer izaten zen. Pixka bat koskortutakoan, baratzeko lanak ere bai.

794. Urrategiko eskolak: Irizarretxetxon eta elizpean (AZK-066/005)

Sei urte ingururekin hasi zen eskolan Aurora, auzoko Irizarretxetxo baserrian. Bertako alaba izaten zuten irakasle. Gerraostean Urrategin bertan egon zen auzo-eskola, elizaren goiko aldean, eta hantxe ibili zen Pilar. Bere bi izeko izan zituen maistra hasieran: Kontxa eta Manuela. Gerora, Aurora hasi zen auzoko maistra moduan.

795. Plaza Berriko Genara Aranbarriren eskolan (AZK-066/006)

Auzoko eskolan urte batzuk egin eta gero kalera joan ziren biak, eskola gehiago ikastera. Plaza Berrian eskolak ematen zituen Genara Aranbarri maistrarekin ibili ziren. Irakasle ona zen. Haren ahizpa Juanitak organoa jotzen irakasten zuen.

796. Irakurtzeko zaletasuna, amarengandik jaso (AZK-066/008)

Pilarrek irakurtzeko zaletasuna jaso zuen amaren aldeko senideengandik. Bai amak eta baita osabak ere asko irakurtzen zuten. Etxean liburu asko zutela dio, asko fraideek edo moja zeuden senideek ekarritakoak. Garai bateko bertso zaharren liburuak eta bestelakoak ere izaten zituzten.

797. Eskolan eraztuna, gaztelaniaz ikastearren (AZK-066/010)

Eskolan euskaraz hitz egiten zuten gerra aurretik. Gerraostean, eraztuna izaten zuten, euskaraz egiten zuenari pasatzeko. Eguna bukatzean eraztuna zeukanak, zigorren bat izaten zuen. Gaztelaniaz ikastearren izaten zen. Gerraostean maistra erdaldunak etorri ziren auzoko eskoletara ere.

798. Gerraostean kanpotik etorritako maistrak (AZK-066/012)

Gerra aurretik eskolan euskaraz egiten zuten. Gerraostean aldatu zen egoera, kanpoko maistrak etorri zirenean. Urrategi baserrian taberna zegoen eta han egoten ziren apopilo. Pilarrek gogoan du euren etxean ere egon zela bat. Eskola itxi zen arte maistra asko pasatu omen ziren.

799. Josten ere irakasten zieten eskolan (AZK-066/014)

Eskolan zer ikasten zuten: kristau ikasbidea, irakurtzen eta kontuak ateratzen. Goizez eta arratsaldean joaten ziren. Josten ere irakasten zieten; "eskuko lanak". Eskolan egindako lan batzuk aipatzen dituzte: tapiza, orrazia gordetzeko poltsa, umeentzat jertsea...

800. Oihala erosi eta arropa etxean josi; oihal-dendak (AZK-066/016)

Garai batean dendetan ez zen jositako arroparik egoten. Oihala erosi eta etxean josten ziren arropak. Pilarri amak ekartzen omen zizkion oihalak azokatik eta "beti prakak josteko". Oihal-dendak: Sofianekoa, Esperantxanekoa... Non zeuden. Inaxio `Putre´ren dendan barruko arropak eta jositako prakak ere egoten ziren.

801. Gizonezkoen prakak; plantxa (AZK-066/017)

Gizonezkoen prakak mahoizkoak izaten ziren. Marradunak ere baziren, dotoreagoak, jaietarako edo. Lisatzeko txarrak omen ziren. Beheko sutan berotzen zuten plantxa eta, ondo garbitzen jardun arren, batzuetan, berarekin berriz arropa zikindu! Lan asko izaten zen lehen. Apurtutako prakak konpontzen jarduten zuten, eta gaur egun apurtutakoak erosten dira!

802. Barruko arropak ere etxean eginak (AZK-066/018)

Neskatilatan soinekoekin ibiltzen ziren. Prakarik ez zuten erabiltzen emakumezkoek. Zakuekin egindako soinekoak ikusi izan dituzte, baina erabili ez. Pilarren etxean egon zen neskame batek bazuen zakuzko soinekoa, baina tindatutakoa. Barruko arropak, azpiko gonak eta barruko elastikoak, erosi ere egingo ziren, baina baita etxean egin ere. Bularretakoak ere egiten ziren etxean.

803. Garai bateko andreek buruko zapia eta mantala (AZK-066/020)

Aurora hazi zuen amak buruko zapia eta mantala erabiltzen zituen beti. Kalera joateko, gordeta izaten zuen zapi bat. Errezildarra zen izatez, baina Usula baserrian egon zen neskame. Urrategira erromeriara ere mantalarekin joaten omen zen eta, etxeratutakoan, ongi tolestu eta ohe azpian gordetzen zuen, plantxarik ez zuelako. Euren sasoirako jada ez zen erabiltzen buruko zapirik.

804. Ile-apaindegiak domeketan ere zabalik (AZK-066/021)

Euren aurrekoak ez ziren joango, baina eurak 14-15 urtez gero, ile-apaindegira joaten ziren. Permanentea egitea zen orduko moda. Maiatzaren lehenengo domekan kongregaziora parrokiara. Handik bueltan ile-apaindegira. Orduan igandetean ere zabalik egoten ziren. Azkoitiko garai bateko ile-apaindegiak.

805. Erromeriara joateko, bizikleta alokatu (AZK-066/022)

Aitak emandako paga gorde egiten zuen Aurorak. Gero, bizikleta alokatzen zuen auzoko lagun batekin batera erromerietara (Urrestilara, Aizpurutxora...) joateko. Bizikleta itzuli ostean, oinez Urrategira igo eta hango erromeria ere harrapatzen zuten. Beste erromeria askotara (Martirietara, Elosura, Madariagara...) oinez joaten ziren. Euria zenean, gomazko abarkak erabiltzen zituzten eta eguraldi onarekin, abarketak. Bizikleten alokiarua non zegoen.

806. Urrategi auzoan erromeria igandero (AZK-066/023)

Urrategi auzoan igandero egiten zen erromeria. Artean errepiderik ez zegoen eta oinez joaten zen jendea kaletik eta beste auzo batzuetati. Erromeria ederra egiten zen. Hasieran kaletik joaten ziren soinu-jotzaileak; gerora auzokoak ere bai: Kortatxoko Tomas, Eugenio...

807. Guruzetako erromeriara, baltseoan egitera (AZK-066/024)

Azkoitian dantza lotua debekatuta zegoen. Elgoibar aldean, berriz, libre zen. Maiatzean, maiatzeko loreak zirenez, bostak alderako Urrategira joan behar. Gero mendian gora, Guruzetako erromeriara, baltseoan egitera.

808. Umetan kalean lasai jolasean (AZK-066/026)

Umetako jolasak: ezkutaketan, soka-dantzan, "txintxerriñin"... Kalean klarionarekin marrak egin eta "txintxerriñin" ibiltzen ziren. Balda plaza inguruan ezkutaketan ere bai. Orduan lasai jolas zitekeen kalean, ez zen kotxerik ibiltzen eta.

809. Neskak mutilak baino hobeak pilotan (AZK-066/029)

Urrategin pilotan ere aritzen ziren. Neskak mutilak baino hobeak zirela pilotan diote. Banaka edo binaka jokutzen zituzten partidak.

810. Etxe "onak", argindarra eta ura zutelako (AZK-066/031)

Arropak etxean garbitu eta uraskan astintzen zituzten. Pilarren etxean teilatudun uraska zuten, alde batean arropak astintzeko lekua eta beste aldean ganaduarentzat askak zituena. Ura auzoko 3-4 etxeren artean zuten. Argindarra ere bazuten etxean. Orduan hori ez zen ohikoa etxe guztietan eta Pilarren amak etxe onera joan zela esaten zuen.

811. Etxean ere egiten zen xaboa (AZK-066/033)

Arropak garbitzeko, xaboi-pastillak egoten ziren. Baina Pilarrek dio etxean ere egiten zela xaboa; harategian seboa erosi eta urarekin eta hauts batekin egosi egin behar izaten zen. Gero, hoztutakoan, zatiak egin.

812. Etxea garbitzeko erabiltzen ziren landareak (AZK-066/034)

Etxea garbitzeko, udaran, "iluntzixe" batzen zuten. Ganbara garbitzeko, txilarrarekin egiten zituzten erratzak. Pilarrek dio beste landare bat ere ona izaten zela zikinik handienak kentzeko. Logelak "bendiekin" (menda-belarrarekin) garbitzen ziren, usain ona uzteko. Baserrietako emakumeek batu egiten zituzten, kalean saltzeko.

813. Denek ontzi batetik jateko ohitura; eguneroko jakiak (AZK-066/036)

Aurorak dio ontzi batetik jaten zutela denek euren etxean. Pilarrek ere ezagutu zuen hori, baina ume-umetan. Lurrezko platerak izaten zituzten. Bazkaltzeko, egunero babak. Igandeetan garbantzuak. Afaltzeko, baratxuri-zopa edo, arto sasoiari, artoa edo taloa eta esnea. Postrean sagar edo gaztaina erreak, sasoiaren zenean. Arroz-esnea ere egiten zen. Aurorak umeei ahia egiten zien.

814. Garai bateko lapikoak (AZK-066/039)

Garai bateko lapikoak nolakoak ziren. Lurrezko lapikoan egindako baratxuri-zopa gozoagoa izaten zela dio Aurorak.

815. Doktrina eta jaunartzea Urrategin (AZK-066/044)

Bi jaunartze egiten ziren: txikia zazpi urterekin eta handia 10-11rekin. Ordurako kristau ikasbidea ondo ikasi behar. Apaiza joaten zen Urrategira, doktrina irakastera. Jaunartzea ere bertan egin zuten. Orduko apaizak.

816. Amari ikasitako otoitza (AZK-066/046)

Amari ikasitako otoitza: "Ama, Santa Ines, bart egin dut ames..."

817. Altzibarko komentuko "Niño de praga" (AZK-066/048)

Altzibarko komentuan "niño de praga"ren irudia zegoen. Atzamarrak eraztunez beteta izaten zituen eta otoitz bat egiten omen zion on Primitibo apaizak. Umeen zaindaria zela eta, hango kofradian sartu zituen umeak Aurorak.

818. Haurdun zeudenak Urrategira, San Ramon Nonatori eskaria egitera (AZK-066/051)

Haurdun zeuden emakume asko Urrategira joaten ziren, San Ramon Nonatori dena ondo joan zedin eskaria egitera. Garai batean elizako horman zegoen

santuaren irudia margotuta. Nolakoa zen azaltzen dute. Horma berriz margotzean, irudia estali zuten. Aurorak pasadizo bat kontaktzen du.

819. Abadea eta Guardia Zibilak etxerik etxe (AZK-066/053)

Abadea etxerik etxe ibiltzen zen soroak bedeinkatzen eta trukean gero arrautzak eta oilaskoak jasotzen zituen. Guardia Zibilak ere joaten zitzaizkien etxera, firma behar izaten zuten eta, eta haiei ogitartekoak ematen zizkieten.

820. Fraide eta mojak, etxerik etxe, eskean (AZK-066/054)

Arantzazuko fraideak joaten zitzaizkien eskean eta baita mojak ere. Askotan lotsagabe portatzen zirela diote. Adibide batzuk azaltzen dituzte.

821. Gerraostean eskeko asko (AZK-066/055)

Gerraostean jende asko ibiltzen zen eskean. Aldameneko etxeko ama oso ona omen zen eta etxean eskale asko hartzen zituela kontaktzen du Aurorak.

822. Gernikako bonbardaketaren hotsa Azkoitiraino (AZK-068/004)

Gernika bonbardatu zutenean, aitarekin mendian zegoen eta hango zaratak entzun zituzten.

823. Urnobietan aireplanoa erori zenekoa (AZK-068/006)

Azkoitiar askok Elgoibarren lan egiten zuten. Autobusa baino merkeagoa zela eta `Mikoleta`ren kamioian joaten ziren asko. Elgoibarrera lan bila joan ziren batean aireplanoa ikusi zuten erorita Azkarate gainean, Urnobietan. Logro`oko baseko aireplanoa omen zen. Gogoan du hildakoak Azkoitiko udaletxera eraman zituztela gero.

824. Leopoldo eta Trino Hurtado de Mendoza (AZK-068/008)

Leopoldo Hurtado de Mendozak bi seme zeuzkan: Leopoldo eta Trino. Trino laguna zuen Justinok.

825. Lanera bizikletan; herriko txirrindulariak (AZK-068/010)

Garai baten jendea bizikletan asko ibiltzen zen. Azpeitira hogeitaz laguneko taldea joaten ziren, lanera. Ahal bazen, kamioiren bati helduta. Bi buelta egiten zituzten egunero lantegira, bi pezeta bakarrik jasotzeko. Txirrindulariak ere baziren herrian: Luis Gabino eta Santi `Luziano`. Behin Luzianori nola kontatu zioten bere semea lasterketan azkena zihoala.

826. Langileen greba eta "lockout" a Bizkargi lantegian (AZK-068/012)

Aitak kontaktzen zuen I. Mundu Gerra sasoian trintxeretarako lur-zakuak egiten zituztela Bizkargi lantegian. Asteren batean urrearekin ordaindu omen zituzten zakuak. Langileek greba egin zuten orduan. Orduko sindikatuak: UGT, CNT eta "Amarilluk", azken hau nagusien alde egiten zuena. Hasieran sindikatuek ordaintzen zieten langileei, baina dirua gastatu zenean, nagusiak itxi egin zuten lantegia; "lockout". Orduko kontuak.

827. Lantegietako nagusiek ekarri zituzten guardia zibilak herrira (AZK-068/013)

Garai batean Azkoitian ez zegoen guardia zibilik; Arroan egoten ziren. Greba sasoiari, Intxausti eta Bizkargi lantegietako nagusiek kuartela egin zieten guardia zibilei (gaur egungo Guardia kalean) eta orduan etorri ziren herrira. Gogoan du tiroketak ere izaten zirela grebetan. Guardiaren prozesioetan ere parte hartzen zuten.

828. Bizkargi lantegia; oihalgintzako aurrerapenak (AZK-068/016)

Bizkargi lantegian zakuak eta abarketak egiteko materiala egiten zen (haria, oihala, trentza...). Gerra sasoiari ez zegoen dirurik pitazko zakuak egiteko eta espartzuarekin hasi ziren. Bera ezkondu zen sasoiari, lantegia berritzaia pentsatu zuten eta Ingalaterratik makina berriak ekarri zituzten, pita egiteko. Oihalgintzan egon ziren aurrerapenak azaltzen ditu.

829. Bizkargiko kotoi fabrika itxi egin zuten (AZK-068/017)

Bizkargi lantegiaren alde batean haria egiten zuten. Baina kalitate txarreko kotoia ekartzen omen zuten eta itxi egin behar izan zuten azkenean. Gero txapelak egiten hasi ziren han.

830. Jose Mari `Kastillanua´ (AZK-068/019)

`Urtain´en osaba Jose Mariaren inguruko anekdota: zergatik esaten zioten Jose Mari `Kastillanua´.

831. Oihalgintzako lantegien arteko harremana; materiala Indiatik (AZK-068/020)

Bizkargi lantegirako materiala (kotoia eta pita egiteko jutea) Indiatik etortzen zen. Lantegietako nagusiek prezioak adostu egiten zituzten, konpetentziarik egon ez zedin. Intxausti lantegia itxi zeneko kontuak. Oihalgintzako lantegiek trusta osatzen zuten eta Intxausti lantegiak diru asko jaso zuen handik, istearren. Diru harekin kotoi fabrika jarri zuten gero. Alberdik Sevillako Dos Hermanas-en zeukan beste lantegi bat eta hura hango ganaduzale bati saldu zion.

832. Alberdi edo `Gaztan´ familiaren kontuak (AZK-068/022)

`Gaztan´en (Alberdi) jauregiak Zarautzen. Bere lurretan arrapala egiten uztearren, dirua jaso omen zuen. Esaten zuten Alberditarren aita Hurtado de Mendozaren lantegian aritu zela lanean, mekaniko gisa, eta han lanbidea ikasi ostean ireki zuela Alberdi (Bizkargi) lantegia.

833. Azkoitiko lurak noraino? Munategi eta "Bentazixo" (AZK-068/024)

Dukearen (Granada de Egako dukea) administratzaileak jasotzen zituen haren errentak. Loiolako basilikan leku berezia zuen dukeak. Azkoitiko lurak Loiolaraino iristen zirela esaten omen zuen. Munategi baserria non zegoen. Hango familia gaur egun Munategi esaten zaion etxera joan zen bizitzera, baina lehen "Bentazixo" esaten zioten etxe hari, benta zegoelako bertan.

834. Dukearen lurretatik Azkoititik Zarautzeraino (AZK-068/025)

Dukearen (Granada de Egako dukea) administratzaileak jasotzen zituen haren errentak. Ondoan biltegia zuen eta opariz beteta egon ohi zen (artoa, baba...). Jendeak esaten zuen Azkoititik Zarautzeraino joan zitekeela dukearen lur-sailetatik. Inguruko baserri asko harenak ziren. Gerora, baserriar askok baserria erosteko aukera izan zuten. Irizarko jaunaren jabetzak.
`Trokotxo´`;

835. Rekalde etxea karta-jokoan irabazitakoa (AZK-068/026)

`Errezil´ek Rekalde etxea karta-jokoan irabazi zuela kontatzen du. Errezilenekoek zalgurdiak zituzten, jendea garraiatzeko. Etxearen jabeak zorrak zituen eta etxea jokatu omen zuen karta-jokoan; eta galdu. Xabier Arzallus etxe horretan jaioa dela dio. Hango familiaren inguruko pasadizoa.

836. Lur-sail baten salerosketaren gorabeherak (AZK-068/029)

Bizkargi lantegia erre zenean, 600 metro karratuko lur-saila erosi zioten Silberiori, Zubillaga ondoan, lantegi berria egiteko behar zutela eta. Gartziak lur-sail hura behar zuela esan zien, baina ezin zuten saldu, eskrituretan lur-sailaren erdia era altruistan eskuratu zutela jartzen zuelako. Orduan, desjabetze gisa egin behar izan zuten. Bera ibili zen Agustin Cuenderi laguntzen salerosketan.

837. Txapelak nola egiten zituzten txapel fabrikan (AZK-068/031)

Txapel fabrikan txapelak nola egiten zituzten. Lehenbizi, artilea kardatu. Gero, beste makina batek haria egin eta bihurritu. Zaharkitutako makinak zeudela lantegian dio. Txapela egiteko prozesua azaltzen du: ehundura "batandu" eta manta antzekoa nola bihurtzen zen, forma nola ematen zitzaion, tindatzea... Bertan lan egiten zuten zenbait pertsona izendatzen ditu. Dirua galdu egiten zuten txapelekin.

838. Txapelgintzaren inguruko kontuak (AZK-068/032)

Garai batean, oihalarekin gertatzen zen antzera, txapelak ere urak hartzen zituen, bustiz gero. "Inpermeabilizazioa" asmakizun handia izan zela dio. Txapelak fabrikan bertan tindatzen ziren. Normalean beltzak egiten zituzten. Batzuek txapelaren ertzean larrua jartzea nahi izaten zuten. Forrua jartzen zitzaion gero, izenarekin. Eskuz egiten zen lan gehiena. Emakumezkoak aritzen ziren batez ere. Gero, emakume haietako asko oihalgintzara bideratu zituzten.

839. Txapel lantegian gizonezko gutxi (AZK-068/033)

Txapel lantegian ez ziren 40 langilera iritsiko. Gizonezko gutxi zegoen; nortzuk ziren eta bakoitzak zer postu zuen azaltzen du. Julian `Enbortxo´ zen txapel fabrikako arduraduna. Gainontzeko langileak emakumeak ziren.

840. Emakumezko asko oihalgintzan (AZK-068/034)

Bere ardurapean oihal-lantegian lanean ibili ziren emakumeak. Bi-hiru gizonezko kenduta, beste guztiak emakumezkoak. Bizkargi lantegian, berriz,

bietatik asko. Oihalgintzan edo zakuak egiten emakumezkoak egoten ziren, baina trentzak egiten edo haria egiten gizonezkoak.

841. Juaristi, Azkoitiko lehenengo burdina-fabrika (AZK-068/036)

Azkoitiko lehenengo burdina-fabrika Juaristi izan zen. "Azule" esaten zioten, bertako langileen arroparengatik. 1000 pezetako soldata zutela esaten zen. Langileren bat nahi baldin bazen, hango soldata eskaini behar.

842. Txapel lantegiek dirua galdu (AZK-068/040)

Dozenaka saltzen ziren txapelak, forrua jarrita eta ondo plantxatuta. Lanik gehiena eskuzkoa izaten zenez, ez zen dirurik irabazten. Tolosako Elosegik ere dirua galtzen zuen, baina lantegia leku onean zegoen eta lur-sailaren balioak salbatzen zuen. Burgosko Pradoluengo herrian ere egiten ziren txapelak. Txapelaren erabilera gainbehera joan zen.

843. Txapelaren gainbehera (AZK-068/042)

Bere sasoian jada gazteek ez zutela txapelik erabiltzen eta hortik etorri zela txapelaren gainbehera dio. 40 urte ingururekin edo behin ezkonduetakoan hasten omen ziren txapela janzten. Aurrekoek gehiago erabiltzen zuten. Era desberdinetako txapelak hasi ziren gerora, baina ordurako txapelak egiteari utzita zeuden.

844. Gaztetan erromerietara; baltseoan egiteko debekua (AZK-068/046)

Gaztetan inguruko erromeria guztietara joaten ziren. Martirieta auzoan jaiero egoten zen erromeria eta Madariagan ere bai. Horrez gain, Pazkoak, Elosuko jaiak, Aittolako gurutzeko eguna... Oinez joaten ziren hasieran; gerora kotxean. Baltseoan egiten zuena kongregaziotik botatzen zuten. Aizpurutxon zati bat Bergarakoa da eta alderdi hartan egiten zuten baltseoan, han ez zegoen debekurik eta.

845. Garai batean identifikatzeko dokumenturik ez (AZK-068/048)

Euren sasoiko gauza aldrebes bat identifikatzeko dokumentaziorik eza zela dio. Tarragonako unibertsitatara zihoan batean dokumentazioa eskatu zion poliziak trenean eta kongregazioko txartela eman zien. Garai batean nonbaitera joan behar zenerako, zedulak izaten ziren, identifikatzeko, baina ez zuten argazkirik. Zedula elkartrukatu zuten batzuen inguruko pasadizoa. Bere lagunak Iruñera joan zireneko pasadizoa ere kontatzen du. Guardia zibilek eskuak begiratu zizkieten eta ea zer lanbide zuten galdetu.

846. Mutikotan fruta-arboletatik lapurretan (AZK-068/051)

Mutikotan txermenak lapurtzen ibiltzen zen. Gogoan du Urrategiko Amabirjinaren koroazio egunean lagun bart eta biak Irizar jauregiaren aurreko piku arbola gainera igo eta erdi-erditik apurtu zela. Kale aldera ez ziren joaten, dirurik ez zuten izaten eta; beti mendirantz, ea zerbait harrapatzen zuten. Gerra sasoian eskola gabe egon ziren.

847. Ezkurak batzen, gero irinarekin nahasteko (AZK-068/052)

Errekalde azpian Apasagasti baserrikoen harizti handi bat zegoen. Oso perretxiko leku ona ei zen. Ezkur sasoian, ezkurak batzen zituzten eta Aranburuk kiloko ordaintzen zien. Ezkurak birrindu eta irinarekin nahasten zituen. Euria zenean, zakua hartzen zuten burutik behera, bestelako estalkirik ez zegoen eta. Kale aldera ez ziren joaten, ez zuten dirurik izaten eta.

848. Ibaira, ahate arrautzak harrapatzera (AZK-068/056)

Plaza Berriaren barren aldean Cuenderen etxea zegoen. "Aberketeria" zeukan etxe azpian eta ukuilua ere bai. Ahateak edukitzen zituen eta ibaira jaisten ziren. Baina, ur handia zenean, ahateak ezin izaten ziren igo eta ibaian geratzen ziren, Justinoren etxe aurrean. Orduan, Errebaleko beste zubitik ibaira jaitsi eta ahate arrautzak harrapatzen zituzten.

849. Herriko zakarrak Mataderiko presara (AZK-068/057)

Herriko zakarrak batu eta Mataderiko presara botatzen ziren egunero. Geroago Jauregi baserri inguruan zakarrak erretzeko labea jarri zuten, baina, antza denez, ez zuen funtzionatu.

850. Presa eta osinetan igerian (AZK-068/058)

Mutikotan Mataderi inguruan ibiltzen ziren igerian, Ugarte aldera zegoen osinean. Baina Azkoitiko igerileku onenak Altzibarko eta Landakandako presak ziren. Presen inguruko kontuak.

851. Gaztetako ibilerak; neska-laguntzeak (AZK-068/062)

Gaztetako ibilerak. Erromeriara joan eta gero oinez itzuli behar. Neska-laguntzen inguruko kontuak. Behin Bravo autobus gidaria Madariagara joan omen zen Elgoibarrera joan beharrean.

852. Ogerlekoarekin egun osoko gastua; kiloko ogia pezeta baten (AZK-068/063)

Garai batean Goiko taberna zen Azkoitiko taberna famatuena. Hango nagusiak, Txominek, egun guztikoak (bazkaria, edatekoa...) ematen zizkion jendeari ogerlekoaren truke. Txomin alkate izan zeneko esaera. Kiloko ogia pezeta batean zegoen Justino mutikoa zenean. Bizkargi lantegiko soldata.

853. Tabernetako ohiturak; lau lagun edalontzi batetik (AZK-068/065)

Agustin Baztarretxek bodega eduki zuen Plaza Berrian. Lau lagunek edalontzi batetik edaten zuten, txandaka. Adineko gizonak, lanetik irtendakoan, litro erdi edo litro bat ardo hartu eta mahaian eserita pasatzen zuten arratsaldea, kontuak esanez. Ardoa asko edaten zen orduan. Kafea gutxi. Sagardoa Aldazabal tabernan bakarrik.

854. Erlijioaren indarra eta debekuak; kongregazioa (AZK-069/002)

Jesuitek agintzen zutela Azkoitian dio. Debekuak. Dantza eginez gero, kongregaziotik botatzen zituzten. Eskolara joaten ziren guztiak izaten ziren kongregazioko kide. Abadea eskolara joaten zen "ejerzizioak" egitera. Beraiek

ez zutela kongregazioko kide izan nahi erabaki zuten eta abadeari esan zioten. Beste abade batek esaten ziena: "Pecadora, alerta, que la muerte se acerca..."

855. Euskaraz egitearren, isuna ordaindu behar eskolan (AZK-069/003)

Eskolan erdaraz hitz egin behar. Euskaraz eginez gero, isun modura, dirua eraman behar izaten zuten. Berak mojari garbi esaten zion ez zuela dirurik eramango. Amarekin erdaraz egiten zuten, baina bestela beti euskaraz. "Señoritas" edo emakume aberats antzekoek erdaraz egiten zuten, dotoreagoa zelakoan.

856. Euskaldunen azentuaz harro (AZK-069/004)

Donostiako Arrieta gestorian lan egin zuen hogeitun urtean. Hango langile bat Valladolideko zen eta gaztelaniaz hitz egitean azentua zuela esaten zion Maria Angelesi. Euskaldunoi barre egin izan digutela dio. Eskiatzera edo mendira joaten zirenean ere jendeak igartzen zien euskaldunak zirela.

857. Gaztetatik mendira; Europa osoan zehar (AZK-069/005)

Gaztetatik mendira joan izan dira batera eta bestera. Etxean ez zieten inoiz debekatu hala ibiltzea. Maria Jesusek gidatzeko baimena atera zuenean, Europa osoa pasa zuten. Mendiko botak eta motxila beti aldean eramaten zituzten badaezpada. "Montaña sagrada"n egon ziren. Lehenengo botak Chiruca markakoak; aurretik abarkekin eta ferradun botekin ere ibiltzen ziren.

858. Aita mendizalea; zaletasuna ingurukoei kutsatu (AZK-069/006)

Aita zen mendizalea. Ama Donostiako Parte Zaharrekoa. 21 urterekin ezkondu eta berehala haurdun geratu zen. Aitak ama lehenengo aldiz mendi puntara eraman zueneko, handik itsasoa ikusten zela eta. Beste behin Kakute mendira igotzerakoan, amak bidean esan zuena. Gurasoak eta lehengusua joaten ziren asko mendira, baita nagusitu eta gero ere. Beraiei ez zieten inoiz ezer esan bidaiatzearen. Orduan turismoa ez zen ohikoa eta ingurukoak kutsatu zituztela dio Maria Angelesek.

859. Praken gainetik gona jantzita mendira; leizeetara sartzeko zaletasuna (AZK-069/007)

Azkoitiko mendizaleak abarketekin joaten ziren mendira. Neskak gona zuriekin. Prakak jantzi zituzten lehenengo emakumeak eurak izan omen ziren. Askotan praken gainetik gona jantzita irteten ziren etxetik, jendeak ezer ez esateko. Leize-zuloetan sartzea gustatzen zitzaien eta prakak praktikoagoak ziren horretarako. Aralarko leize-zuloan sartu zirenean, artzainak begira egon zitzaizkien.

860. Tximinia garbitzaileak uzten zizkien eskalatzeko sokak (AZK-069/008)

Mendira joaten zirenean, pixka bat eskalatzea ere gustatzen zitzaion Maria Angelesi, batez ere rappela eginez jaistea. Euren bizilaguna tximiniak garbitzen ibiltzen zen eta hark uzten zizkien sokak. Amari ez zitzaion gustatzen eta ezkutuan eramaten zituzten sokak.

861. Monte Perdidora igo zuen lehen emakume azkoitiarra (AZK-069/010)

Mendizaletasuna herrian. Umeentzako kanpamentuak antolatzen ziren. Beraiek izan omen ziren herrian praka "babaroak" jantzi zituzten lehenak. Maria Angeles 1959an Monte Perdidora igo zen; lehenengo emakume azkoitiarra izan omen zen. Balaitus mendia ere igo zuen. Hasieran anaien laguntzarekin joaten ziren, baina gerora hiru ahizpak bakarrik. Inoiz ez zieten debekurik jarri.

862. Himalaiara joateko proposamena (AZK-069/011)

Maria Angelesi bere bulegoko gizonetzko batzuek eurekin Himalaiara joateko proposamena egin zioten, baina ezetz esan zien. Beste behin, Chamonix-en zeudela, Mont Blanc-era igotzeko proposamena egin zioten.

863. On Domingo abadea, umeei "mamuxak" banatzen (AZK-069/013)

On Domingo abadeak "mamuxak" (pasak) banatzen zizkien umeei eta denak haren atzetik ibiltzen ziren. Umetako kontuak; non jolasten ziren.

864. On Domingo abadea, gizon ona (AZK-069/016)

On Domingo abadearen inguruko kontuak. Errezilen serora egondako izeba bat bizi izan zen beraiekin. Oso fededuna eta itxia zela diote. On Domingo goizeko sei eta erdietarako jauna ematera joaten zitzaion. Abadeak goizean goiz gaixoen arropak garbitzen zituen ibaian. Oso maitea zen herrian eta omenaldia ere egin zioten.

865. Emakume asko neskame edo inude Espainia aldera (AZK-069/018)

Aitita katalana zen: Domenech. Amama eta ahizpa neskame joan ziren Bartzelonara eta bertan ezkondu. Neska asko joaten ziren neskame edo inude, euren umeak etxean lagata. Gaztelaniaz ez zuten tutik jakiten eta egoera gogorak bizi behar, nahiz eta normalean ondo hartzen zituzten.

866. Erribera baserria (AZK-069/019)

Amamari Eustakia `Erribera´ esaten zioten, aita Erribera baserrikoa zuelako. Kukuherri auzoan dago baserria. Garai batean pobreenetakoa omen zen. Abadeak mendi puntatik baserria bedeinkatu zuela eta bertakoak zer erantzun eman zion.

867. Esnegorriak Kataluniara bidali, han saltzeko (AZK-069/020)

Amama, Eustakia `Erribera`, Bartzelonara joan zen neskame eta han ezkondu. Amama tratulari ona zen eta hemengo pinudietan batutako esnegorriak ("robelloiak") Kataluniara bidaltzen zituzten, han saltzeko. Zergak ez ordaintzearren, iritsi baino kilometro bat lehenago trenetik botatzen zituzten perretxikoak. Beraiek ere biltzen zituzten, baina etxerako. Orduan eurak bakarrik jaten zuten perretxiko klase hori Azkoitian.

868. San Andresetan Eustakia `Erribera´ren zozketa (AZK-069/021)

Amamak, Eustakia `Erribera´k, zozketa postua jartzen zuen San Andres jaietan. Portzelanazko ontziak eta bestelako gaiak edukitzen zituen eta kartak banatuta egiten zuen zozketa. Amama emakume bizia zen eta kalean zebiltzan ume guztiak zaintzen ibiltzen zen.

869. Familiako gozogintzaren hasiera amamaren erroskillekin (AZK-069/022)

Amama emakume bizia eta tratularia zen. Mendaroko lehengusuren bati mesedea egin zion eta hark trukean erroskillen errezeta eman zion. Hortik hasi zen amama erroskillak egin eta saltzen. Gerora, euren aitak ikasi zuen eta baita beraiek ere. Aitak karameluak eta "malbabiskoak" ere egiten zituen. Amamak ireki zuen familiako lehenengo denda. Hasieran sindikalisten etxe azpian zegoen. Mari Consuelo jaio zenean, 1938an, Kale Nagusiko 49. zenbakira pasa ziren. Cuenderena zen lokala.

870. Donostiako Arrieta gestoriara lanera (AZK-069/026)

Maria Angeles 1960an Donostiara joan zen bizitzera, osabarena zen Arrieta gestorian hasi zen lanean eta. Espainiako gestoria inportanteenetakoa zen. Ordurako hogeitaka langile zituen. Arrietarrek hainbat negozio zituzten Donostian: arropa denda, bitxitegia... Bitxitegia famatua zen.

871. Emakumeen eskubideen alde lanean (AZK-069/027)

Arrieta gestorian hogeitik gora langile ziren. Garai baten sindikatu bertikala zegoen. Aukeratzeko askatasuna izan zutenean, lankideek Maria Angeles aukeratu zuten sindikaturako, beti denen eskubideen alde jarduten zuelako. Behin nagusiari kontuak eskatu zizkion gizonetzko bati berari baino gehiago ordaindu ziotelako. Emakumezkoek hainbat eskubide kentzen zizkieten eta berak horren aurka egiten zuen.

872. Emakumeak, langile finagoak (AZK-069/028)

Arrieta gestorian emakumezkoak gehiago ziren gizonetzkoak baino. Bulegoetan emakumezko gehiago egoten zela diote, finagoak eta merkeagoak (gutxiago ordaintzen zitzaielako) zirelako. Gizonetzkoak azkarrago entretenitzen direla beste kontu batzuekin diote. Lantokian enkarguak egiten zituen mutikoa hondarrez beteta etortzen zela kontatzen du Maria Angelesek.

873. Dendan ordutegirik ez; jendea zuzena egunkariak ordaintzen (AZK-069/029)

Maria Angelesek goizeko zortzietatik eguerdiko ordu bietara lan egiten zuen Arrieta gestorian. Baina etxeko dendan ez zuten ordutegirik. Salvador, anaia, goizeko bostetan jaikitzen zen, bost eta erdietarako egunkariak iristen zitzaizkielako. Herrian lapur fama zuten batzuek egunkaria fin-fin ordaintzen zutela diote. Anaia hil zenean, Unidad egunkariaren aleak mahai gainean utzi zituzten eta alboan diru kutxa. Jendeak txintxo-txintxo ordaindu zuen.

874. Denerako denda zen eurena (AZK-069/030)

Euren dendak denerako balio zuela diote. Jendea dendara joaten zitzaien nor hil zen galdezka edo bestelako kontuak jakitera. Kanbioak eskatzera ere jende asko joaten zitzaien. Edozein ordutan azaltzen zitzaien jendea.

875. Dendako banku famatua; denetarik saltzen zuten (AZK-069/031)

Bikoteak zinemara joaten zirenean, batzuetan, umeak euren dendan uzten zituzten. Banku luze bat zegoen eta han egoten zen jendea eserita. Neska-mutil gazteak banku hartan eseri eta mahatsa jaten egoten ziren, kontuak esanez. Denetarik saldu izan dute: egunkariak, nobelak, fruta... Euren amama izan omen zen platanoak Azkoitira ekarri zituen lehenengoa.

876. Egunkari asko saltzen zituzten (AZK-069/032)

Egunkari asko saltzen zuten; larunbatetan 1000 ale. Azkoitiarrak irakurzaleak direla diote. Orduko egunkariak: "La voz de España", "Diario Vasco", "La Gaceta del Norte"... "La voz de España" saltzen zen gehien. Zer prezio izaten zuten. Hileko lehen astelehenean garestiago.

877. Anaiaren lan ezbeharrak (AZK-069/034)

Anaiak Deustun ikasi zuen mekaniko elektrikari lanbidea. Forjas-en lantegi buru egon zen. Harreman oso ona zuen bertako langileekin. Bajan egon ostean, lanera itzuli eta istripuz hil egin zen. Ofizialki bihotzekoak jota hil zela esan zuten, baina jendeak ez zuen sinesten, mutil osasuntsua zelako.

878. Dendako erakusleihoan zinemako afixak eta albiste zatiak (AZK-070/002)

Zineko "koadroak" edukitzen zituzten dendako erakusleihoan. Pelikularen eszenen irudiak izaten ziren. Horren truke Olinpiako zinema dohain edukitzen zuten. Albiste interesgarriak ere erakusleihoan jartzen zituzten eta jende asko joaten zen haiek ikustera. Lehen euskalduna Everestera igo zenean, ospatu egin omen zuten.

879. Jendea ilaran zain, euren txurroak jateko (AZK-070/003)

Hasieratik saltzen zituzten gozokiak euren dendan. Txurroak ere egiten zituzten, hasieran etxean eta gero dendan bertan. Nola egiten zituzten. Valladolidetik ekarri zuten makina automatikoa. Erdaldunek "La Churrería" esaten zioten euren dendari. Goizeko meza ostean, jendea ilaran egoten zen zain. 11k aldera egoera baretzen zenean, mendira joaten ziren.

880. Anaitasuna Mendi Bazkuna; kuotak ahizpak jasotzen zituen (AZK-070/004)

Anaitasuna Mendi Bazkunaren kuotak Encarnita ahizpak jasotzen zituen dendan. Herriko mendizale onenaren izendapena eman zioten. Anaitasuna Mendi Bazkunaren sortzaileak. Hasieran lagun-talde bat zen. Gerora hasi zen elkarte indarra hartzen. Mari Lurdes ahizpak Mendi Bazkunaren ibilbidearen inguruko bideo bat egin zuen.

881. Maria Angeles hasi zen argazkilaritzarekin eta ahizpak jarraitu (AZK-070/006)

Maria Angeles, bera argazkietan ez azaltzearren, argazki kamera bat erosi eta argazkiak ateratzen hasi zen. Diapositibak egiten zituen. Anaiak Madrilgo "rastro"an erositako kamera txiki batekin hasi zen 50eko hamarkadan. Maria Angelesekin ahizpa gazteagoari pasa zion zaletasuna eta hura gero argazkietatik bideoetara pasa zen.

882. Anaitasuna Mendi Bazkuna; hasieran ibilaldi neurtuak, gero Zazpi Kurutze (AZK-070/010)

Anaitasuna Mendi Bazkunak kolpetik indarra hartu zuen eta ehundik gora bazkide egin ziren berehala. Urteko kuota ordaintzen zuten bazkideek. Encarnita ahizpak jasotzen zituen. Txangoak edo ibilaldiak antolatzeko gobernadoreari esan behar izaten zitzaion. Maria Jesusek egiten zituen paperak, Udalean lan egiten zuen eta. Hasieran ibilaldi neurtuak egiten hasi ziren. Nola antolatzen zuten. Geroago Zazpi Kurutze; hasieran lau urtetik behin egiten zen.

883. Umeentzako mendiko kanpamentuak (AZK-070/011)

Anaitasuna Mendi Bazkunak umeentzako kanpamentuak antolatzen zituen, Larraskandan, Martirietan... Azkenengo egunean festa egiten zuten, jolasak eta bestelako ekintzak antolatuta. Begirale moduan nortzuk ibiltzen ziren. Kanpamentuei esker herrian mendizaletasuna bultzatze zela diote. Hernanitik etorritako talde batek behin laguntza eskatu zien. Haiekin izandako tirabirak.

884. Kakuteko gurutzea auzolanean jarria; dirua batzeko ekitaldiak (AZK-070/013)

Kakuteko gurutzea egiteko jaialdi bat antolatu zen. Jaialdian parte hartu zutenek ere sarrera ordaindu zuten. Mendizaleen korua Gabonetan eta Santa Agedetan ere kantuan irten ziren, dirua batzeko. Herri osoak parte hartu omen zuen, jaiero-jaiero, gurutzea eraikitzen. Kanpotik etorritako mendizaleek ere laguntzen zuten. Inaugurazioa egiteko, apezpikutzara joan zen Maria Angeles, meza eman zezaten eskatzera.

885. Goi-mendiko kanpamentuetara joaten ziren (AZK-070/020)

Goi-mendiko kanpamentuetara joaten ziren. Maria Angelesek gogoan du behin Asturiasko mendietara joan zirela eta azkenengo egunean sagardo festa egin zela. Gaiteroekin argazia atera zuten hiru ahizpek eta gero egunkarian azaldu ziren. "Las vascas" famatuak zirela dio. Katalunian kanpamentuan bizi izandako kontuak. Astebete irauten zuten. Neska bakarrenetakoak izaten ziren.

886. Neska bakarrenetakoak goi-mendiko kanpamentuetan (AZK-070/021)

Neska gutxi egoten zen goi-mendiko kanpamentuetan. Behin eskalatzaille famatu batek Maria Angelesi berarekin eskalatzera joateko proposamena egin nahi izan zion. Gizonek errespetuz tratatzen zituzten, sekula ez zitzaien asmo txarrik pasa burutik. Mendizaleen artean harreman oso ona zuten. Behin neska bat eurekin ibili zela kontatzen dute.

887. Lehenengo kanpin denda abarketan oihalarekin egina (AZK-070/024)

Lehenengo kanpin denda abarketak egiteko oihalarekin egin zuten. Lehenengo gauean denda osoa jaso eta bera artean lo egon zela gogoratzen du Maria Angelesek. Gerora Frantzian eta Alemanian erosi izan zituzten kanpin dendak. Lo zakuak beti onak eduki izan dituztela diote.

888. Ahizpak antolatzen zituen bidaiak (AZK-070/026)

Beti lasai lo egin izan duela kanpinean dio Maria Angelesekin. Sekula ez zieten lapurretarik egin. Atzerrira joandakoan ondo konpontzen ziren, ahizpa gazteenak ingelesa eta frantsesa zekizkielako. Turismo ikasketak egin zituen eta hark antolatzen zituen bidaiak.

889. Neska trans bat dela nola kontatu zuen (AZK-074/003)

Rina neska trans bat da. Beti jakin du neska zela. Anaiari, gurasoei, lagunei, irakasleei... nola kontatu zien azaltzen du.

890. Irainak eta begirada txarrak trans izateagatik (AZK-074/005)

Batzuetan baztertuta sentitu izan da eta irainak eta begirada txarrak ere jaso ditu. Ezjakintasunak beldurra sortzen duela uste du Rinak.

891. NANean izena eta sexua aldatzeko prozesua (AZK-074/006)

Nortasun Agirian izena eta sexua aldatzeko betebeharrak zeintzuk diren kontatzen du Rinak. Nahitaezkoa da bi urtez hormonak hartzea.

892. Genero aldaketaren prozesua: hasiera (AZK-074/007)

Genero aldaketaren prozesua hasteko, familiako medikuarengana joan behar da eta handik Gurutzetako Ospitaleko Genero-Unitatera eta gero Endokrinora bideratzen zaituzte, hartu beharreko hormonak zeintzuk izango diren zehazteko. Bere kasua kontatzen du. Nortasun Agirian izena aldatu du eta eskaera bidali duen arren, sexua aldatzeko zain dago.

893. Aldaketa prozesua: hormonak (AZK-074/008)

Itxura-aldaketa prozesua hasteko, hormonak hartu behar dira eta Rinak bere esperientzia kontatzen du: umore aldaketak, gorputzeko ilean aldaketak, bularrak haztea... Gustura dago hormonekin eman duen aldaketekin, baina emakume trans bakoitzak aukeratzen du prozesua nola egin.

894. Aldaketa prozesua: ebakuntzaren zain (AZK-074/009)

Rina genitalen aldaketa egiteko ebakuntzarako itxaron-zerrendan dago. Oraindik ez dauka datarik. Gogotsu dago, baina beldurrez ere bai. Emakume trans batzuek ez dute ebakuntza egiteko beharrik.

895. Transexualitatearen inguruko heziketa (AZK-074/010)

Prozesua hasi zuenetik pertsona trans asko ezagutu ditu eta laguntza ematen ere saiatu da. Ikastetxeetan hitzaldiak ematen ditu. Haurrek aurreiritzi gutxiago dituzte eta galderak modu naturalago batean egiten dituzte.

896. Rina Cabeza Ipuin eta Olerki Lehiaketa (AZK-074/011)

Azkoitiko Xabier Munibe ikastetxean, "Rina Cabeza Ipuin eta Olerki Lehiaketa" sortu dute. Egoera normalizatzen laguntzen badu, pozik dago Rina.

897. Langabezia tasa altua transen artean (AZK-074/012)

Familia eta lagunartean babesia izan arren, pertsona transek oraindik ez dute gizartearen babesik. Langabezia tasa altua da transen artean.

898. Trans pertsonen despatologizazioa (AZK-074/014)

Trans Legeak trans pertsonen despatologizazioa ekarriko du: hormonak hartzea behartua ez egotea NANA aldatzeko, babes soziala, txosten psikologikoak kentzea... Askotan identitate sexuala eta orientazio sexuala nahasten dira.

899. Trans pertsonak eta suizidoa, gazte eta haurren artean (AZK-074/015)

Pertsona transek bere buruaz beste egiteari buruz hitz egiten du Rinak. Zoritxarrez oraindik entzuten dira horrelako kasuak.

900. Mikele Grande (AZK-074/016)

Rinaren helburua trans izatea zer den erakustea eta kontzientzia sortzea da. Mikele Granderi eta hark esandakoei buruz hitz egiten dute. Transmititzen duen mezua oso positiboa da. Transexualitatearen etiketa.

901. Trans izatea, hedabideen ustez (AZK-074/018)

Hedabideetan trans izatea sexu-aldaketarekin lotzen da eta ez da horrela izaten.

902. Naizen, adingabe transexualen familien elkarteak (AZK-074/019)

Haur eta nerabe transei eta beren gurasoei aholkularitza eta laguntza eskaintzen dieten elkarteak. Naizen elkartera joan zen Rina prozesua hasi zuenean.

903. Transexualei eta haien familiei laguntzeko elkarteak (AZK-074/021)

Transei eta haien familiei laguntzeko elkarteak. Bidelagun bezala ikusten ditu Rinak. Elkarteak: Naizen, Gehitu, Plataforma Arrosa...

904. Feminismoa eta transexualitatea (AZK-074/022)

Rinak ez du zehazki bere burua kolektibo batean edo beste batean jartzen. Feminismoaz eta trans izateaz hitz egiten du.

905. Etiketak: transexuala, transgeneroa, trabestia... (AZK-074/023)

Transexualitateaz, transgeneroaz eta trabestismoaz hitz egiten du. Rinarentzat denak etiketak dira. Identitate eta orientazio sexualaren ezberdintasunez hitz egiten du.

906. Elkarte transfoboak (AZK-074/025)

"Hazte Oir" elkarteak atera zuen autobus laranja transfoboari eta elkarteari buruz hitz egiten du.

907. Erljio katolikoa eta transfobia (AZK-074/027)

Erljio katolikoak gaur egun homofobia eta transfobian eragin gutxiago duela uste du Rinak. Orain dela 20 urte indar handiagoa zuela uste du.

908. Emakumeen edertasun kanonak (AZK-074/029)

Gizarteak oso zehaztuta ditu emakume eta gizonen blokeak eta bakoitzak bere rol eta kanonak ditu. Emakumeen artean kanon horietan ez sartzeak kritikak sortzen ditu. Moda jarraitzeak ez du laguntzen kanon horiek geldiarazten.

909. Transexualitatea egunero aldarrikatzen (AZK-074/030)

2019ko Azkoitiko Andramari jaietako txupinazoa bota zuen Rinak. Berak defendatzen duena urte osoan aldarrikatu beharreko zerbait dela azaltzen du, ez egun konkretu batean bakarrik.

910. Sexu-askapenaren eguna; emakumeen hipersexualizazioa (AZK-074/031)

Rinak Azkoitiko Maxixatzen aldizkarian artikuluak idazten ditu. Sexu-askapenaren egunaren inguruan hitz egiten du. Emakumeen hipersexualizazioaren ondorioz, bisexual edo lesbianetan oso normalizazio gutxi dagoela uste du Rinak.

911. Hezkuntza sexuala eta pornoa (AZK-074/032)

Pornoak indarkeria sustatzen duela azaltzen du Rinak.

912. Teknologia berrien erabilpena (AZK-074/034)

Haurrek oso umetatik izaten dute smartphonetara jotzeko aukera eta askotan ez zaiela erabilera onik ematen uste du: pornoa, bullying-a...

913. Euskararen erabilera egunerokotasunean (AZK-074/035)

Rinak euskara erabiltzen du eguneroko bizitzan. Unibertsitateko ikasketak euskaraz egiten dituen arren, ikaskide batzuekin gaztelaniaz egiten du. Donostian Azkoitian baino gaztelania gehiago egiten da.

914. Trans izatea pertsonaren beste ezaugarri bat da (AZK-074/037)

Trans izatea ezaugarri bat gehiago da bakarrik. Harro dago horretaz, baina ez du pertsona bezala horrek definitzen. Aniztasunak gizartea aberasten du.

915. Jauregitik oinez Miserikordiako mojen eskolara (AZK-075/004)

Jauregi baserritik oinez jaisten ziren eskolara umetan. Abarkak edo botinak Uxer aldean sasi artean gorde eta zapatak janzten zituzten eskolara txukun joateko. Miserikordiako mojen eskolan hasi zen 6-7 urterekin.

916. Aparteko eskolak Trino Uriaren etxean (AZK-075/005)

Gogoan du aparteko eskolak ematen zituztela Trino Uriaren etxean. Adin ezberdinetako hamar ume inguru elkartzen ziren. Gabonetan jaiotza jartzen laguntzen zioten eta une berezia izaten zen beraiantzat.

917. Eskola nazionalean, euskaraz egitearren, zigorra (AZK-075/006)

Eskola nazionaleko irakasleak erdaldunak ziren, asko euskara entzuterik ere nahi ez zutenak. Behin baino gehiagotan jaso izan zuen zigorra eta berriz ez zuela euskaraz egingo idatzi behar izaten zuen 100 aldiz. Lehenbizi plazako eskolan ibili zen eta azken urteetan Floreagako eraikinean. Maisuak eskolaren gainaldean bertan bizi ziren.

918. Eskola profesionaletik Arrasatera, "maestría industrial" a egitera (AZK-075/007)

Gaur egun Elkargunea dagoen lekuan zegoen eskola profesionala eta bertan ibili zen 16 urte ingurura arte. Aita Madinabeitia izan zen lehenbiziko zuzendaria eta gerora baita Mari Paula (Mengual) azkoitiarra ere. Handik Arrasatera joan zen eta "Maestría industrial" egin zuen bi urtez.

919. 18 urterekin murgildu zen euskalduntze-alfabetatzean (AZK-075/008)

18 urterekin ikasketak amaitu zituenean, krisia zegoen. Ordurako euskararen inguruko kontzientzia ere piztua zuen eta euskalduntze-alfabetatzean murgildu zen. Gau-eskoletan eta Gasteizen AEKn urtebete egin ostean, IRALEN hasi zen lanean. 38 urtez Sakontze ikastaroak ematen lan egin eta gero, erretiroa hartu zuen.

920. Kanpotik etorritako batzuk euskalduntzen ziren, beste batzuk ez (AZK-075/010)

Eskolan dena gaztelaniaz egin arren, beraien artean euskaraz egiten zuten eta zigortu egiten zituzten horregatik. Trino Uriaren eskolan ez zeukaten debeku hori eta eskola atseginagoak izaten ziren. Kanpotik etorritako jende gehiena "Franconeko" etxeetan jarri zen bizitzen, herrigunetik aparte. Batzuk euskalduntzen ziren (Diego Garcia, esaterako), baina ez guztiak. Umetan Martinez guardia zibilaren semearekin izan zuen erlazioa. Geroago sortuko zen distantzia harreman horretan, egoeraz kontzientzia hartutakoan.

921. Etxean noka zen nagusi (AZK-075/012)

Gurasoek hika egiten zieten umetatik. Alabei agian gutxiago, gazterik etxetik alde egin eta urruntze horrek hizkeran ere aldaketa eragiten zuelako, antza. Anai-arreben artean hika egiten zuten eta, bost arreba zituenez, noka entzuten zen gehien etxean. Behin arreba txikiak osabari ere noka egin omen zion, artean ikasten ari zela.

922. Goi aldeko baserrietan -dx e bukaera (AZK-075/014)

Gurasoak biak Izarraitzpekoak ziren, baina Azpeitia aldekoak. Agian horregatik egingo dute -ye bukaera eta ez Azkoitian gaur egun zabalduen dagoen -xe. Hala ere, Jauregitik gorako baserrietan -dx e egiten dela uste du Xabierrek. Azkoitiko beste auzo batzuetan ere entzuten da -ye bukaera, Martirietan, adibidez.

923. Kuadrilla-giroan hika, bai mutilekin eta bai neskekin (AZK-075/016)

Kaletarren artean bazeuden gaztelaniarako joera zuten kuadrillak ere, agian tartean euskaraz ez zekien bakarren bat zegoelako. Hala ere, mutilen artean

hika erabiltzen zen normalean. Neskekin ere erabiltzen zen, gutxixeago izan arren. Ezkondutakoan ez zen izaten ohikoa bikotearekin hika egitea.

924. Gaztelaniarako joera handitu egin da Azkoitian eta Azpeitian (AZK-075/018)

Bera gaztea zenetik gaur egunera Azkoitian eta Azpeitian gaztelaniarako joera handitu egin dela pixkanaka uste du Xabierrek. Askok euskaraz egiten dutela pentsatu arren, erdia gaztelaniaz egiten dute.

925. Garai batean euskarari edo gaztelaniari emandako balioa (AZK-075/020)

Euskarari balioa kendu izan zaio eta askok oso sartuta zuten hori. Gogoan du Zumeta baserriko gizona nola harritu zen bera euskarazko eskolak ematetik bizi zela jakin zuenean. Izan ere, beraiek gaztelaniaz egitera behartzen zituzten. Gaztelaniaz ikasteko aukera gutxien izan zutenek, baserritarrek esaterako, balioesten zuten gehien gaztelania.

926. Seme-alabei hika eta azkoitiarez (AZK-075/024)

Seme-alabei hika egiten die, baina, Azkoitian bizi izan balitz, agian lehentxeago hasiko zela uste du. Berak lanean eta seme-alabek eskolan euskara batua darabilenez, etxean berea (Azkoitikoa) irakastea erabaki zuen, Azkoitira etortzen zirenerako belarria ohituta eduki zezaten.

927. Donostiako gazte kuadrilletan euskaraz aritzearekin nahikoa (AZK-075/026)

Familiako whatsapp taldean berari ere hika zuzendu izan zaizkio noizbehinka semea edo alaba, txantxa-giroan. Nahiz eta hori garai batean ez zegoen ondo ikusita, egokia iruditzen zaio, ikasi dezaten balio badu. Nahiz eta kuadrilla batetik bestera aldea egon daitekeen, gazteek Donostian ez dute hika aritzeko aukerarik eta euskaraz aritzea bera ere ez da izaten erraza batzuetan.

928. Hikaren erabilera egokia, hika jakitearen barruan (AZK-075/028)

Hitanoa era naturalean jaso dutenek erabilera-ohiturak ere jaso izan dituzte oharkabeen. Ez du uste "araurik" dagoenik, hika jakitearen barruan sartzen da egoki erabiltzea. Gogoan du behin mutil batek bere aitari toka egin ziola, hogeit bat urte gazteagoa izanik. Aitak mutil hark ez zekiela euskaraz esan zuen.

929. Emakumeek euren buruari toka ala noka? (AZK-075/029)

Animaliei hika egin izan zaie. Orokorrean toka egin arren, kasu zehatz batzuetan baita noka ere, animalia emea denean. Hika aritzen direnek euren buruari ere hika egiten diote. Emakume batzuk esaten dute euren buruari toka egiten diotela. Xabier kontu horren inguruan hainbat emakumeri galdezka ibili omen da eta esaldi jakinetan bakarrik izango dela iruditzen zaio.

930. Hika, komunikazio-tresna (AZK-075/031)

Hikak patxada ederra ematen duela dio. Gauza bitxitzat hartzen da, baina komunikazio-tresna ohikoa izan da. Gaztelaniazko tratamenduekin egiten du konparaketa.

931. Hika irakasteko beharra ikusi zuten IRALEn (AZK-075/033)

IRALEn irakasle lanean ibili zen lehen urteetan ez zuten ikusten hika irakasteko beharrik. Baina azken urteetan, hika galbidera zihoala ikusita, euskara bera bezalaxe hika ere irakastea, lantzea eta zuzentzea komeni zela ikusi zuten. Eman izan dituen ikastaroetan hika batua erabili izan duenez, ia herrikoan baino erosoago sentitzen da. Ikastaroetan batuko formak landu arren, beti esaten die irakasleei, euren herrietako formek ere ekartzeko, egokiak diren bitartean.

932. Hikaren galera ostikada handia litzateke euskararentzat (AZK-075/034)

Hitanoa galtzea hizkuntzarentzat ostikada handi bat izango litzatekeela uste du, hizkuntzak bere osotasunean egoten direlako osasuntsuen. Euskararen ajeak, era askotakoak.

933. Neskak nagusi hitano ikastaroetan (AZK-075/036)

IRALEn hasi zen hitanoa lantzeko ikastaroak ematen, baina gerora handik kanpo ere eman izan ditu hainbat ikastaro Donostian, Oiartzunen... Emakumezkoak izan dira nagusi eman izan dituen ikastaroetan eta gehienak 40 urte ingurukoak. Oiartzunen gazteak animatu ziren, 14 urtetik 20ra bitartekoak, baina han ere gehienak neskak. Neskak hitano ikastaroetan hasteko arrazoiak.

934. Noka, mutilek ere jakin beharrekoa (AZK-075/037)

Gaur egun noka bultzatzeko hainbat proiektu jarri dira martxan, baina arrisku bat ikusten du Xabierrek: mutilak alde batera geratzea. Hitanoa bi norabidetakoa da eta mutilek ere jakin behar dute tokarekin ez dela nahikoa hika jakiteko. Berari tokatu izan zaizkio hika zekitelakoan toka bakarrik zekiten mutilak.

935. Gazteei hitanoaren inguruan azaldu beharrekoak (AZK-075/039)

Hitanoa duela gutxira arte komunikazio-tresna ohikoa izan dela azaldu behar zaie gazteei bere ustez. Horrekin batera, bi norabidetakoa dela irakatsi behar zaie, egoeran jarriz. Eta, azkenik, erabiltzen den hitanoan egiten diren akatsak zuzendu beharko lirateke. Inork ez dienez irakatsi, hitano markak jartzen dituzte jarri behar ez diren lekuetan ere.

936. Ahozkotasuna, herriko hizkera eta hitanoa, batera lantzeko proposak (AZK-075/040)

Garrantzitsua litzateke ikastetxeetan hitanoa txertatzea. Horretarako, kasu batzuetan, lehenengo irakasleak prestatu beharko lirateke. Bere ustez ahozkotasunarekin batera landu beharko litzateke hitanoa, era praktikoa, herriko euskararekin batera. Herri bakoitzean bertako aditz-formak landu beharko liratekeela uste du.

937. Hitanoaren egoera; lanketaren beharra (AZK-075/044)

Hitanoaren egoera euskararen egoerarekin doa pixka bat, baina euskara eskoletara edo komunikabideetara iritsi da euskara batuari esker eta lagunartekoa edo hitanoa atzera geratu da. Hitanoa orokorrean, baina, batez

ere noka, gaitzetsi egin izan dira. Garai batean bertsolaritza ere garai bateko kontuekin, gizonaekin eta baserritarrekin lotzen zen, baina egoera asko aldatu da.

938. Hikaren eremua oso murriztuta (AZK-075/045)

IRALEko irakasleek hainbat topaketa egiten zituzten ahozkotasuna nola landu eta beste hainbat kontu elkarbanatzeko. Topaketa horietako batean Gasteizen irakasle zebilen batek esan zion hikaren kontua gipuzkoarrentzat uzten zuela. Gipuzkoara joanda, askok esan izan diote hikaren kontua Azpeiti-Azkoitikoentzat uzten dutela. Azkoitira joandakoan, neska gazteak hika "mutilen kontua" dela esaten entzun izan ditu.

939. Hitanoa Bizkaian; hiketa adierazteko hitz edo espresioak (AZK-075/046)

Hitanoa Bizkaian. Bizkaitar ezagun batzuk ikusi izan ditu telebistan hika, esaterako, Marino Lejarreta edo Amets Txurruka. Aulestin hitanoari "eztona ta baidona" esaten omen diote. Duela 19-20 urte azkoitiar bati "hitato" forma jaso zitzaion. Etimologiari begiratuta, egokia iruditzen zaio Euskaltzaindiak "hitano" hitza aukeratu izana.

940. Hitanoa biziberritzeko zer egin beharko litzatekeen (AZK-075/050)

Hitanoa biziberritzeko zer egin beharko litzatekeen: irakasleak eta gurasoak kontzientziatu, beharrezkoa balitz, formakuntza eman, eredu onak eman...

941. Hitanoa etxean jaso dute (AZK-076/004)

Inguruan asko entzun izan dute hika, etxean batez ere. Iratik dio irakasleen artean ere entzun izan duela eta, bestela, eskolan mutilen artean. Leireri zuzenean jende askok egiten dio hika, batez ere ingurune jakin bateko jendeak. Amak ere egiten die etxean. Beraiek anaiari egiten diote hika eta batzuetan amari ere bai.

942. Hika bultzatzeko proiektuan parte hartzeko erabakia (AZK-076/007)

Azkoitiko hitanoa bultzatzeko proiektuan parte hartzeko erabakia nola hartu zuten. Iratik eskolan izan zuen proiektuaren berri. Leire, berriz, Iratiren bitartez sartu da proiektuan, hikaren erabilera beharantz doala ikusten duelako eta hitanoa aberasgarria iruditzen zaiolako. Noka emakumezkoen ahalduntzeko tresna gisa ere ikusten dute.

943. Hitanoak zer transmititzen duen (AZK-076/009)

Hikak gertutasuna eta goxotasuna adierazten dituela iruditzen zaie. Ohituraz egiten den zerbait ere bada. Pena handia hartuko lukete hika galduko balitz. Euren ama hika entzuten duten moduan, gustatuko litzaie euren ondorengoek ere beraiek hika entzutea.

944. Lagunek hitanoarekiko duten jarrera (AZK-076/011)

Lagunen artean hitanoarekiko jarrera ezberdinak ikusten dituzte. Hika etxean entzun edo jaso dutenek errazago egiten dute hikarako jauzia, baina etxean oinarririk jaso ez dutenentzat askoz zailagoa da hika hastea.

945. Toka bakarrik dakien jendea (AZK-076/013)

Toka eta noka antzera erabiltzen dituzte, biak entzun izan dituztelako. Baina ezagutzen dute toka bakarrik dakien jendea. Beraiei ere noizbait egin izan diete toka. Mutil askok kalean ikasi dute hika eta kalean gehien toka entzuten denez, askok ez dakite noka badenik ere.

946. Mutil gazte gehienek hika; neska gazteek kontzienteki (AZK-076/017)

Azkoitian hika asko entzuten da. 50 urte ingurutik gora emakume zein gizonek egiten dutela hika dio Iratik. Gazteen artean mutilek egiten dute batez ere. Badaude hika egiten duten neska gazteak ere, baina normalean kontzienteki erabaki hori hartu dutenak izaten dira.

947. Neska gazteen hitanorako ohitura (AZK-076/019)

Beraien adineko mutilek hika egiten dute. Neskek, berriz, askoz gutxiago egiten dute. Leirek dio lagun batzuekin whatsapppe hika jarduten duela, baina aurrez aurrekoa zailagoa izaten dela. Iratik dio neska batzuk elkarrekin toka ere entzun izan dituela, noka badagoela jakin arren, errazago ateratzen zaielako. Mutilak oso umetatik hasten dira hika eta neskak geroago, kontzientzia hartzen dutenean.

948. Hika mutilekin lotzearen arrazoiak (AZK-076/022)

Hikak ez die ezer berezirik ematen mutilei; haientzat ere, neskentzat moduan, komunikatzeko tresna bat da. Baina zaharragoek hika egiten dutenez, beraiek ere hala egiten dute. Kasu horretan transmisioa lagunartean edo kalean egiten da. Hika mutilekin lotu izan da, baina neskekin ez. Arrazoiak zeintzuk izan daitezkeen. Hitanoa baserritarrekin ere lotu izan da. Beraiek ez dute zuzenean halako mezurik jaso izan.

949. Hitanoa bultzatzeko puntu garrantzitsuak (AZK-076/027)

Hitanoa eta, batez ere, noka bultzatzeko, lehenbizi sentsibilizazioa edo kontzientziazioa egin behar litzateke, jendeak hikaren egoera zein den jakiteko. Gero, eskoletan lantzea ere garrantzitsua litzateke, erabilera egokia lortzeko. Gaur egun oso gutxi lantzen da eskoletan. Gainera, euskara batuko formak beharrean herriko adizkiak landu beharko liratekeela uste dute. Aisialdiko guneeetan ere hitanoa bultzatzea garrantzitsua litzateke.

950. Irakasleen jarrera hitanoarekiko (AZK-076/028)

Irakasleen artean badaude hitanoaren inguruko kontzientzia eta interesa dutenak ere. Batzuek euren artean hika egiteko erabakia hartu dutela dio Iratik. Biek izan dute noizbait hika egin dien irakasleren bat. Hala ere, irakasle batzuek mutilei hika egiteko joera handiagoa dute eta, hori eginez, ezberdintasunak markatzen ari dira.

951. Azkoitian euskaraz bizi daiteke (AZK-076/030)

Azkoitian euskaraz bizi daitekeela eta alde horretatik zortea dutela diote. Leirek dio unibertsitatera joaten denean jabetzen dela batez ere zorte horretaz.

952. Euskararen hutsunea sare sozialetan (AZK-076/031)

Sare sozialetan gaztelania izaten da nagusi, "influencer"ek hizkuntza hori darabiltelako. Iratiren ustez sare sozial batzuetan errazagoa da euskara erabiltzea beste batzuetan baino. Leirek dio norberaren hautua ere garrantzitsua dela.

953. Unibertsitatean euskalki ezberdinetakoak eta hitano gutxi (AZK-076/032)

Leirek azkoitiarrez egiten du unibertsitateko lagunekin. Hasieran ulertzea kostatu egiten zitzaiera eta euskara batua ere tartekatzen zuela dio. Euskalki ezberdinak entzutea eta euskararen egoera ezberdinak ezagutzea aberasgarria dela uste du. Hika oso jende gutxi egiten du, mutil gutxi batzuk bakarrik. Zenbait zonaldetakoek hika zer den ere ez dakite ia.

954. Gaztelaniaren eragina gazteen hizkeran (AZK-076/034)

Herri askotan gazteek gaztelaniara jotzen dute, gazte-hizkerako euskarazko eredurik ez dutelako. Iratik dio berak nabaritzen duela joera hori lagunene artean. "Erderakadak" sartzeko ohitura ere handia da, bai hitzak eta baita esamoldeak ere. Aiton-amonek erabiltzen dituzten hitz asko ez dituztela ezagutzen konturatzen da Leire. Esaterako, duela gutxi entzun du lehenengoz Azkoitiko "ezkur-umie" espresioa. Beste euskalki batzuetatik ere hartu izan dituzte espresioak.

955. Euskararen egoera aldatu egin da (AZK-077/003)

Herriko giroa oso euskalduna zen bera umea zenean. Kanpotik etorritakoek elkarrekin batzeko joera zuten. Hala ere, badira guztiz euskaldundu direnak ere. Egoera aldatu egin da ordutik, jatorri euskalduna ez duten familiak ugaritu egin dira eta. Xabier Munibe ikastolan, esaterako, garai batean oso gutxi ziren gaztelaniaz egiten zuten umeak eta gaur egun askoz gehiago dira.

956. Hitanoa Azkoitian: ohikoa izatetik "mutilena" izatera (AZK-077/004)

Inguruan beti entzun izan du hitanoa, gurasoek euren anai-arrebekin hala hitz egiten dutelako. Ez daki berak noiz hartuko zuen hikaren kontzientzia. Mutilek hikarako ohitura hori errazago hartzen dutela uste du, oso umetatik hasten dira hika. Azkoitian mutilek hika egiten dute, baita atzerritik etorritako familietakoek ere. Nesken artean etena hasi zen bere adinekoetan eta gaur egun gero eta gehiago mutilen kontutzat hartzen dute neskek hitanoa.

957. Etxean jaso du hitanoa (AZK-077/006)

Amak hika egiten dio; nerabezaroan hasi zitzaian ahizpari eta biei hika. Aitak ez dio egiten. Lagun batzuekin hika egiten du. Bere garaian noka ondo zekiten mutilek, nahiz eta beti egon izan den neskei toka egiten dienen bat. Ahizparekin ez du hika egiten, agian ez dutelako ume-umetatik jaso. Mutilei txikiagotan egiten zaie hika, neskentzat ez dela fina pentsatu izan delako. Hikaren konnotazio txarrak.

958. Bikotearekin hika egitea, errespetua galtzea (AZK-077/007)

Amamak bost- seme alabetan txikienari zuka egiten zion. Beste familia batzuetan ere gertatzen zen hori. Bera mutil-lagunarekin hasi zenean, hika

egiten zuten, baina amamarentzat izugarritzko errespetu falta zen hori. Azkenean pixkanaka zuka-rako joera hartu zuten.

959. Nokaren galera genero-ikuspegitik (AZK-077/009)

Noka galtzea hizkuntza ikuspegitik galera izango litzatekeela dio, baina genero-ikuspegitik galera handiagoa izango litzatekeela iruditzen zaio. Neskek lagunarteko komunikaziorako tresna bat galduko lukete batetik eta, bestetik, ezberdintasun bat sortuko litzateke neska eta mutilen artean. Hizkuntza garrantzitsua da genero-rolak puskatzeko.

960. Hika tratamenduaren bilakaera (AZK-077/013)

Haur Hezkuntzako Gradu Bukaerako Lana egiteko, hitanoa hartu zuen gaitzat eta, lana egiterakoan, sorpresak hartu dituela dio. Garai batean zuka errespetuzko trataera zen eta hika herri xehearen arteko hizketa-modua. Gerora, gertukoaren arteko trataera bihurtu zen hika. Gaur egun mutilen kontua bihurtzen ari dela uste du. Adibidez, tokaren adibideak ikus daitezke telebistan, baina nokarenik ez.

961. Gradu Bukaerako Lanerako hitanoaren ikerketak eta erabilera-datuak aztertzen (AZK-077/014)

Haur Hezkuntzako Gradu Bukaerako Lana egiteko, hitanoa hartu zuen gaitzat. Azkoitiko Floreaga ikastetxerako egin zuen proposamena, bertako irakasleak azkoitiarrak, emakumezkoak eta noka erabiltzen dutenak direlako. Lanaren lehenengo urratsa hitanoaren bilakaera eta herri desberdinetan hitanoaren inguruan egin izan diren lanak aztertzea izan zen. Azpeitiko erabilera-datuak ere aztertu zituen. Azkoitian eta Azpeitian hitanoa ez dela galtzen ari dio, noka ari da galtzen.

962. Hitanoa Haur Hezkuntzatik lantzen hasteko proposamena (AZK-077/015)

Umetatik ez bada jasotzen, zaila da adin batekin zuka-tik hika-rako jauzia egitea. Hori dela eta, Haur Hezkuntzako Gradu Bukaerako Lanean hitanoa haur hezkuntzatik lantzen hasteko proposamena egin zuen, familietan egin ez den transmisio hori eskolan egiteko eta umeei hitano eredu onak emateko (kaleko ereduak tokarena eta hiper-hitanoz josia delako).

963. Hitanoa ipuinetan (AZK-077/016)

Haur Hezkuntzan hitanoa txertatzen hasteko, hainbat ipuin aztertu zituen, baina oso ipuin gutxitan aurki daiteke hitanoa. Mitologiarekin lotuta agertzen da batzuetan, baina egunerokotasunean hika normaltasunez erabiltzen duten ipuinik ez dago ia. Tradiziozko ipuinetan toka azaltzen da, beharbada pertsonaiak ere gizonezkoak direlako.

964. "Hi" zela forma ohikoena jakin behar luke jendeak (AZK-077/019)

Gradu bukaerako lana hitanoaren inguruan egin ostean, asko aldatu zaio ikuspegia. Jendeak hika nondik datorren jakin beharko lukeela iruditzen zaio: garai batean "hi" zela forma ohikoena eta "zu" plurala zela. Konnotazio txar asko eman izan zaizkio hitanoari eta askok zatarra dela eta ez dutela nahi esaten dute.

965. Gaur egun tokari eta nokari ematen zaien irudia (AZK-077/022)

Neska gazte batzuek toka egiten omen dute elkarrekin Azkoitian. Ainarak dio agian irudi zehatz batekin lotzen direlako izan daitekeela: noka "atsoen" hizketa, jada erabiltzen ez dena, eta toka, berriz, modakoa, kalean erabiltzen dena. Bere amari ahizparekin hika egitea gauza normala iruditzen zitzaion, baina bere alabarentzat mutilen kontua da. Mutilen profil zehatz batekin lotzen da, gainera. Noka indartzea inportantea litzateke estereotipoekin apurtzeko.

966. Tradizioz jasotako hitanoko erabilera-ohiturak (AZK-077/031)

Tradizioz hikaren erabileraren inguruko ohitura batzuk jaso izan dira. Norbaiti hika hitz egiteko, baldintza batzuk bete behar dira. Berari, esaterako, asko kostatzen zaio bere irakasle izandakoei edo dendako bezeroei hika egitea.

967. Hika norekin? (AZK-077/033)

Ezezagun bati ez lioke hika egingo. Berarentzat garrantzitsua da herritarra edo hika egiten den herri batekoa izatea. Mutilen errazago egiten die hika eta horrekin kontzientzia hartu beharra duela dio. Zaharragoei ez lieke egingo. Hikak pertsona horrekin zenbaterainoko gertutasuna duzun adierazten du. Seme-alabei hika egiten hasi da kontzienteki eta orain hika egiteko aukerak gehiago aprobetxatzen dituela dio.

968. Adin batetik behera noka gutxi (AZK-077/036)

Hika galtzeak pena handia emango lioke, euskararen berezitasun bat galduko litzatekeelako. Bere adinekoen artean oraindik noka asko erabiltzen da, baina gazteagoen artean asko galdu da. Noka dakiten mutil gazteak ere ez dira asko izango, baina noka egiten dion bezero bat aipatzen du.

969. Hitanoa bultzatzeko zer egin behar litzatekeen (AZK-077/041)

Hitanoa indartzeko zer egin beharko litzatekeen. Batetik, gurasoak kontzientziatu beharko liratekeela uste du. Eta etxetik jasotzen ez dutenentzat, eskolan lantzea garrantzitsua litzateke, txiki-txikitatik hasita. Literaturan eta telebistan erreferenteak izateko, Euskal Herri mailan eragin behar litzateke. Telebistan lehen gehiago erabiltzen zen hika.

970. Gurasoak ere azkoitiarrak (AZK-078/003)

Gurasoak biak azkoitiarrak ditu. Aita "Erromaldo" familiakoa. Ama baserrikoa, Zuhutzu baserrian bizi izandakoa. "Erromaldo" gaitzizena nondik datorren.

971. Umetan dena euskaraz; ikastetxeetako giroa (AZK-078/004)

Hiru urterekin Artxamendiko eskolan hasi zen eta gero Xabier Munibe ikastetxeko eraikinera pasa ziren. Umetan dena euskaraz egiten zuten ikastolan. Kanpotik etorritakoen seme-alabak Floreaga ikastetxera joaten ziren. Euskaraz ikasten zuten eskolan, baina gero euren arteko harremanetan gaztelaniarako joera zuten. Ikastolako neskek eta Floreaga ikastetxeok harreman gutxi izaten zuten. Mutilek zerbait gehiago, futbolaren edo eskolaz kanpoko ekintzen eraginez.

972. Nerabezaroan hasi zen hika, kontzienteki (AZK-078/005)

Bera umea zenean, mutilek txiki-txikitatik hika egiten zuten, baina neskek ez. Bera gerora hasi zen hika, nerabezaroan, modu kontzientean, harremanak hika izan nahi zituela erabakita. Anaia gazteagoari hika hasi zitzaion, baina hark ez zuen asmatzen berari hika erantzuten, lagunekin hika egin arren, noka ez zekielako .

973. Lagun minari haserretzen zenean hika (AZK-078/006)

Lagunei hika egiten hasi zen garaian, lagun min batek esan zion haserretzen zenean egiten ziola hika.

974. Anaiarekin eta kuadrillakoekin hasi zen hika (AZK-078/009)

Kuadrillakoei hika egiten die, baina denek ez diote hika erantzuten. Gertukoenekin bakarrik duela hikako harremana uste du. Anaiarekin eta kuadrillakoekin hasi zen hika eta pixkanaka naturalki irteten zitzaiola konturatu zen. Ezezagun batzuk harritu egiten dira hika eginez gero, bereziki azkoitiarrak ez badira.

975. Gurasoek seme-alabei hika ala zuka? (AZK-078/010)

Ez daki ziur gurasoek nola hitz egin izan dieten umetatik berari eta anaiari, baina ziurrenik anaiari hika eta berari zuka. Hala ere, hika hasi zenean, ez zitzaion arrotza egin noka, agian amari eta izekori edo zaharragoei entzuten zielako.

976. Eskolan euskara batua; hika eremu informaletan soilik (AZK-078/011)

Azkoitiko Xabier Munibe ikastolan badaude andereño azkoitiarrak, hika hitz egiten dutenak. Ikastetxearen erabakia eskolan euskara batua erabiltzea izan zenez, andereño hauek hitanoa eremu informaletan erabiltzen dute soilik. Bestela, neskei eta mutilei berdin egingo dietela hika uste du, aurreko belaunaldikoek hala egiten zutela uste du eta.

977. Egiten duena baino hitano gutxiago jasotzen du (AZK-078/015)

Kontzienteki hasi zen hika, gertukoekin. Gaur egun barneratuta du eta normalean lehen hitza hika egiten du. Hala ere, beste pertsonaren euskara maila kontuan izaten du. Berari hika egiten diotenak gutxiago direla dio, gertuko lagunak batez ere, hala ohitu direlako. Anaiak eta bikoteak zuka egiten diote, berak hika egin arren. Mutil askok hika egiten dute euren artean, baina gero ez dakite neskei egiten. Tokatu izan zaio mutilen batek toka egitea ere.

978. Hika egiteak gertutasuna ematen dio (AZK-078/017)

Hika egiteak gertutasuna eta laguntasuna edo intimitate handiagoa ematen dizkiola dio. Zuka egitea hotzagoa iruditzen zaio.

979. Bere belaunaldiko mutilek jada noka gutxi (AZK-078/019)

Azkoitian gaur egun mutilek toka egiten dute, baina noka gutxi entzuten da. Bere belaunalditik beherako neskek gutxi erabiliko dutela uste du, nahi lagun-talde bakan batzuetan oraindik ere eutsi. Noka egiten duten mutilak are gutxiago direla iruditzen zaio. Bere belaunaldiko mutilek jada ez diotela hika egin izan dio.

980. Beste herrialde batzuetatik etorritakoen semeak toka (AZK-078/021)

Garai batean neska-mutilek lagunartean hika egiten zuten. Gero bazituzten beren erabilera-ohiturak: zaharragoei ez, gurasoei ez... Gaur egun ez da erabiltzen neska-mutilen harremanerako. Mutilek gehienek egingo dute hika. Beste herrialde batzuetatik etorritakoen semeek ere hika erabiltzen dute, lagunartean hala ikasita.

981. Semei hika egin izan die txiki-txikitatik (AZK-078/022)

Mutlak oso txikitatik hasten dira hika, jada haur hezkuntzan hasiko direla iruditzen zaio. Berak semei hika egin izan die beti eta oso txikitatik egin izan dute. Neskak izan balira ere berdin egingo liekeela uste du.

982. Hikak harreman-mota deskribatzen du (AZK-078/025)

Hika galtzea altxor bat galtzea litzatekeela uste du. Beretzat hika ez da komunikatzeko tresna bat bakarrik, harreman-mota deskribatzen du, harreman hori gertukoa dela adierazten du. Noka galtzeak emakume bezala garrantzia handia izango lukeela iruditzen zaio eta kontzienteki eragin behar dela uste du, hori aldatzeko.

983. Ikastolan ama-hizkuntza euskara ez duten umeak lehen baino gehiago (AZK-078/030)

Ikastolan euskararen egoera asko aldatu da bera umea zenetik. Gaur egun gela guztietan daude gutxienez lau ikasle ama-hizkuntza euskara ez dutenak. Hala ere berehala hasten dira euskara erabiltzen euren arteko harremanetan. Kanpotik etorritako bi anaia elkarrekin euskaraz ikusi zituela kontatzen du. Azkoitia oraindik euskalduna dela erakusten duen beste adierazgarri bat.

984. Hitanoa Xabier Munibe ikastetxean lantzeko aukera (AZK-078/031)

Xabier Munibe ikastetxea publikoa da eta handia, gainera. Irakasleak asko aldatzen dira eta asko kanpotik etorritakoak dira, baina badaude bertako edo inguruetako irakasleak ere. Hori dela eta, ikusten du hitanoa eskolan lantzeko aukera. Bestela zaila litzateke, beste herri batzuetakoek ez dutelako hika erabiltzen.

985. Olotza, puntu garrantzitsua sasoi batean (AZK-079/004)

Olotzan jaio zen, Azkoititik Zumarraga aldera trenbide ondoan zegoen baserrian. Trenaren geralekua zuten etxe ondoan eta inguruetako baserriar guztiak hara jaisten ziren, gero han bizikleta hartzeko. Garrantzia handiko puntua zen. Aurreragoko sasoiaren erromeriak ere egiten omen ziren eta baita

bola-jokoa ere. Amak urrezko txanpon bat aurkitu zuen behin baratzean. Bederatzi anai-arreba izan ziren, baina hirukiak jaio eta gero hil egin ziren. Halako kontuak ezkutatu egiten ziren.

986. Etxeko atea beti zabalik Olotzan (AZK-079/006)

Etxeko atea beti zabalik egoten zen Olotzan. Baserritar batzuek Intxausti edo Bizkargi lantegietan gau ez egiten zuten eta Olotzatik pasatzen ziren bizikleta hartzera eta, bueltan, lagatzera. Ama alarguna zen eta bere kezkatxoa izango zuela dio.

987. Olotzatik pasatzen ziren trenak; ikatzaren garraioa (AZK-079/007)

Tren asko pasatzen ziren Olotzatik. Ikatzaren garraiorako zen berez tren, baina jendea ere erabiltzen zuen, esaterako, Zumarragara Orbegozo lantegira lanera zihoazenak. Tren berezia izaten zen Zumaiatik Zumarragara ikatza garraiatzen zuena.

988. Aizpurutxo, puntu garrantzitsua: zalgurdiaren pasabidea (AZK-079/008)

Errepidea ere bazegoen Olotzan, hegoaldeko Zumaiarantz zihoana. Berak ez zuen halakorik ezagutu, baina garai batean zalgurdiak ibiltzen zirela kontatzen du. Aizpurutxo puntu garrantzitsua zen sasoi batean eta 4-5 taberna omen zeuden bertan.

989. Aizpurutxoko errepidean kotxe gutxi (AZK-079/010)

Garai batean Aizpurutxoko errepidea garrantzitsua izango zela dio; hegoaldeko kostaldera joateko pasabidea zen. Autobusik ez zen ibiltzen, trenak zen garraioa. Kotxeak ere gutxi. Errepidean ibiltzen ziren pilotan.

990. Ameriketatik itzultzean, Olotza erosi zuen aitak (AZK-079/012)

Aita Ameriketara joan zen artzain. Hogeita hamar urte inguru pasatu ostean, Azkoitira itzuli eta Olotza baserria erosi zuen. Baserri txikia zen eta lur-sail gutxikoa. Ez dira baserritik bizi izan, baina amak bazituen bere baratza txikia, oiloak... Ogia eta xaboia egiten ziren etxean.

991. Gerraostean etxeko gaiak kentzeko beldurrez (AZK-079/013)

Amak esaten zuen gerra garaia baino txarragoa izan zela gerraostea. Gose sasoi izan zen. Beraiek ez zuten garirik hartzen, baina baserritarrek lagundu egiten zieten, bizikletak han uztearen truke. Amari entzun izan zion gerraostean gari-zakua hartu eta mendialdera joan izan zirela aita eta biak, zakua han lurperatzeko, inork kendu ez ziezaien.

992. Apaizak baserririk baserri konjuruak egiten; fraideak (AZK-079/014)

Garai batean apaizak baserririk baserri ibiltzen ziren konjuruak egiten. Beraien etxean beti egoten zen bedeinkatutako erramua eta sutara botatzen zen ekaitza zetorrean. Fedea baino gehiago beldurra zela iruditzen zaio. Fraideak ere asko ibiltzen ziren eta arrautzak biltzen ziren haientzat. Karetan edukitzen zituzten arrautzak etxean.

993. Eskolan gaztelaniaz, bai plazan eta baita Floreagan ere (AZK-079/016)

Kontzejuko eskolan ibili zen, plazan. Gaztelaniaz ematen zituzten eskolak, baina irakasle batzuk behintzat bertakoak zirela uste du: Maria Jesus, Rufina... Eskolara hasi zenean gaztelaniaz tutik ere ez zekien eta ez zuela ezer ikasten dio. Gero Floreaga ikastetxera. Han irakasleak Zamora aldetik etorritako fraideak ziren eta larri ibili zirela hizkuntzarekin dio.

994. Extremadurako gaztelania ikasi zuten azkoitiar askok (AZK-079/017)

Azkoitiar askok Extremadurako gaztelania ikasi zutela aipatzen du, izan ere, Extremadurako asko etorri zen Zubillaga lantegira lanera eta bertakoek gaztelaniaz zuten harreman bakarra lankide haiekin izaten zen. Euskaldunoi edukazioz besteen hizkuntza egin beharra sartu digutela eta horrek beti mendeko egin gaituela dio.

995. Gaztelaniaz ez jakitearren jasandako zapalkuntza (AZK-079/018)

Barruraino sartuta du gaztelaniaz ez zekitelako jasandako zapalkuntza. Esaterako, guardia zibilek amari barre egiten zioten, zenbait gauza esaten ez zekielako. Euskaldunok beti mendeko izan garela eta ez dugula gure hizkuntzan sinistu iruditzen zaio.

996. Floreagako fraideek egurra ematen zieten (AZK-079/019)

Floreaga ikastetxean fraideek oso gogor hartzen zituzten. Bere ikaskide bat sasoia baino lehen ogitartekoa jaten ari zelako, gertatu zitzaiona. Erregelarekin edo zumitzezko makilarekin jotzen zituzten. Beraiek bidaltzen zituzten zumitz bila Aretxabaleta baserri ingurura. Zamora ingurutik etorriak ziren mesedeetako fraide horiek.

997. Emakumezkoei zuka egiteko joera (AZK-079/023)

Umetan neskei ez zien hika egiten. Gaur egun ere askok ez dietela emakumezkoei hika egiten uste du. Bere lagun-kuadrilla jartzen du adibide gisa. Berak kontzienteki egin zuen beti hika egiteko hautua.

998. Edozeini hika egiteko kezkatan (AZK-079/024)

Hikaren aurkako iruzkin txarrak entzun izan dituela dio, baina ez du gogoan adibide zehatzik. Oraindik ere kalean edozeini hika egiten ez dela ausartzen dio, buruan sartu digutelako ez dela edukazio onekoa.

999. Hikak konfiantza eta gertutasuna ematen du (AZK-079/026)

Hika egiteak konfiantza ematen du, hurbiltasuna. Ez da erraza ezagun bati hika hastea. Euskaldunon izaera ere halakoxea da, gainera: kostatu egiten zaigu konfiantza hartzea.

1.000. Hikaren egoera gaur egun Azkoitian (AZK-079/027)

Hikaren egoera gaur egun txarra dela eta okerrera doala iruditzen zaio. Azkoitian oraindik ere gazteek egiten dute, baina ez daki ziur zein den uneko egoera. Bere alabak eta semeak hika egiten dute lagunekin. Penagarria litzateke hika galtzea.

1.001. Hika gutxiago inguruko herrietan (AZK-079/029)

Bera Eibarren egon zen garaian, 60ko eta 70eko hamarkadetan euskara oso egoera txarrean zegoen han eta Elgoibarren ere antzera izango zela uste du. Elgoibarren bere adinekoek ez dakitela hika dio, familia oso euskaldunetakoak izan arren. Hikaren egoera txarra dela iruditzen zaio, zaila ikusten duelako Urolatik jada askoz galduago dagoen herrietara zabaltzea.

1.002. Eibarrera joan zenean, aldaketa izugarria (AZK-079/030)

Floreaga ikastetxetik Eskola Profesionalera joan zen. Han ikasturte osoa egin aurretik Eibarrera joan zen, han bizi zen arrebak bultzatuta, Armeria Eskolak fama ona zuela eta. Sarrerako azterketa ez zuen gainditu lehenengoan eta urtebete pasa zuen hura prestatzen. Eskolan atzera geratutako jende aldrebes guztiekin elkartu zela dio. Aldaketa handia izan zen berarentzat zentzu askotan. Eskola profesionaleko zuzendaria zen aita Madinabeitiak bere amari Eibar herriaz eman zion ikuspegia.

1.003. Eibarren pasatako denbora (AZK-079/031)

Eibarren egon zen denboran arrebaren etxean bizi izan zen. Arreba oso zorrotza zen berarekin. Esaterako, pilotan ondo jokatzeko zuela eta, herriarteko txapelketan irten nahi izan zuen Eibarko taldearekin, baina arrebak ez zion utzi. Gogoan du behin eskolatik joanda, Roberto Marzanaren praka zuriak jantzita jokatu zuela. Orduan, zuzen onartzen ziren zaharragoen esanak.

1.004. Eibarren euskara gutxi, hara joan zenean (AZK-079/032)

Bera Eibarrera joan zen sasoiari, eibartarrek ez zuten euskaraz egiten. Gerora, Armeria Eskolan euskaldun batzuk aurkitu zituen, baina inguruko herrietakoak eta baserri ingurukoak: Elgeta, Itziar... Eibarko familia batzuetan gurasoek seme-alabei euskaraz egiten zieten eta seme-alabek gurasoei gaztelaniaz. Abuztuan autobus pila bat irteten ziren Eibartik, kanpoko jendea euren herrietara itzultzen zen oporretan eta.

1.005. Azkoitia eta Eibar, herri desberdinak (AZK-079/034)

Eibar eta Azkoitiaren arteko ezberdintasuna. Azkoitian santu guztiak ospatzen ziren eta Eibarren ez. Eskolan oporrak hartu eta San Juan festak izaten ziren Eibarren. Azkoitira itzuli eta Musika Banda ibiltzen zen kalean. Aste osoa Eibarren pasatu ostean, herrira itzultzeko gogoz egoten zen. Hala ere, Eibar maite duela dio. Ia 12 urte egin zituen han bizitzen.

1.006. Roberto Perez Jauregi, lagun eibartarra (AZK-079/035)

Roberto Perez Jauregi eibartarra lagun handia zuen. Euskaraz jakin ez arren, defendatu egiten zuen bera. Gogoan du behin Rialto zinemara helduen film bat ikustera joateko, haren aitaren buzo bat jantzi zuela. Gazterik hil zuten,

Burgosko prozesuaren aurkako manifestazioan. Orduko bizipenak. Lantokian greba egin zuten.

1.007. Azkoitiar asko Elgoibarko Danobat-era lanera (AZK-079/041)

Eibartik Azkoitira joan zen lanera eta hamabost urte inguru pasa eta gero Elgoibarrera. Azkoitiko Retimac enpresa itxi egin zen. Orduan Egikor kooperatiba sortu zen eta berehala Danobat-ek hartu zuen. Artezgailuak egiten zituzten. Izarraitz lantegian zerrak egiten ziren eta hura ere Danobat-ek hartu zuen. 120 lagun inguru joan ziren Azkoititik Elgoibarrera, Danobat lantegira, eta Elgoibar euskalduntzera joan zirela dio.

1.008. Danobat lantegian euskararen aldeko jarrera (AZK-079/042)

Danobat lantegiak lan asko egin izan du euskararen alde. Felix Etxeberria izan zen sortzaileetako bat. Gerora, gazteagoek beste bultzada bat eman ziotela dio. Berak garai batean ez zuen sentitzen euskararekiko harrotasun hori, galtzaile sentitzen zela dio, baina gazteek ikuspegia aldatzen lagundu zioten.

1.009. Herri batetik bestera hizkera ezberdina (AZK-079/043)

Lantegian azkoitiarrak beren hizkera itxian hasten zirenean azkoitiar gazteek ere ez ziotela ulertzen dio. Gaur egun nahaste handiagoa dago hizkeran. Lantegian hizkeragatik jakiten zuen azkoitiarra nor zen. Elgoibartar edo eibartarrei ere igarri egiten zaie.

1.010. Euskaraz alfabetatzen lagundu diotenak (AZK-079/045)

Bera ez zen ibili Maxixatzen euskara elkartearen sorreran, baina Maxixatzenek asko lagundu ziola euskarazko alfabetatzean dio. Nahiz eta euskaraz idazten ondo jakin ez, lantegian eta bestelako lekuetan eskutitzak, mezuak, aktak... euskaraz idazten saiatu izan da beti. Emaztea irakaslea izana da eta hark ere asko laguntzen zion.

1.011. Maxixatzen elkartearen lan garrantzitsua (AZK-079/046)

Maxixatzen Euskara Elkarteak lan handia eta garrantzitsua egin izan duela iruditzen zaio, nahiz eta agian ez den behar beste baloratu. Lantalde oso ona izan du, gehiena emakumez osatua. Elkarteak beherakada izan zuenean, laguntzera sartu zen bera ere. Garrantzitsua da herriaren ahots ezberdinak agertzea, edozein eratakoak izanda ere.

1.012. Ikastolaren sorreran, laguntzaile moduan (AZK-079/048)

Garai batean kartoiak biltzen ibiltzen ziren, ikastolarentzako dirua ateratzeko. Ikastolako batzordean gurasoak eta laguntzaileak zeuden eta bera laguntzaile moduan ibili zen, artean ez zuen umerik eta. Gogoan du 100.000 pezetako abalak sinatu zituztela.

1.013. Hautu kontzientea egin beharra dago euskararekin (AZK-079/052)

Penagarria litzateke hika galtzea, gurea den gauza bat galduko litzatekeelako eta aberastasun bat galduko litzatekeelako. Gauzak hobetzeko, jendea kontzientziatu beharko litzateke. Euskararekin ere gauza bera: hautu kontziente bat egin beharra dago.

1.014. Ondo ikusten du gazteagoek berari hika egitea (AZK-079/054)

Garai batean ez zegoen ondo ikusita zaharragoei hika egitea eta oraindik ere ohitura horrek badu indarra. Berak, esaterako, errazago egiten die hika gazteagoei zaharragoei baino. Hala ere ez du gaizki ikusten gazte batek berari hika egitea. Hika gehiago egingo luke, baina batzuetan muga bat sentitzen du, besteek zer pentsatuko ote duten edo.

1.015. Eskolan zigorrak, euskaraz egiteagatik (AZK-080/002)

Bizkargiko etxe zaharretik Miserikordiako mojen eskolara joaten zen umetan. Sei urterekin jaunartzea. Gero, Floreagako mesedeetako fraideen eskolara. Euskaraz eginez gero, zigortu egiten zituzten. Norbaitek gaztelaniaz zerbait oker esandakoan, elkarri barre egiten zioten. Oso zigor gogorrak jartzen zizkieten. Fraideak Zamora ingurukoak izaten ziren asko.

1.016. Zumarragako institutuko aldaketak: euskara gutxi eta neskekin batera eskolan (AZK-080/003)

Umetan neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren, bai eskolan eta baita jolasetan ere. Euskaraz egiten zuten beti. Mutilen artean beti hika. Pertsona helduei zuka. Zumarragara institutura joan zenean, han jende gutxi egiten zuen euskaraz eta azkoitiarrei "kaxeros" deitzen zieten. Hantxe ibili zen lehen aldiz neskekin batera eskolan eta arraroa egiten zitzaion hasieran.

1.017. Emaztearekin hika (AZK-080/006)

Gaur egun bere emaztea dena ezagutu zuenean, hika hasi ziren elkarri. Lagun bat eta biak kuadrilla bereko neskekin hasi ziren eta ezkontzera iritsi. Beste bikoteak elkarri zuka egitea erabaki zuen eta ohitu ere bai. Beraiek ere saiatu ziren, baina ezin. Bere andreaki zuka eginda, beste pertsona batekin ari dela hizketan iruditzen zaio. Gurasoengana joandakoan sortzen ziren arazoak, bikotearekin hika egitea gaizki ikusita zegoen eta.

1.018. Zuka edo gaztelaniaz egitea "finagoa" zelakoan (AZK-080/007)

Hika jardutea baldarkeriarekin lotzen zen garai batean. Bere emaztearen kuadrillakoek hika egiten zuten elkarrekin, baina baserri ingurukoak ziren. Garai hartako heziketak eta euskararen kontrako neurriek eragina izan zutela uste du. Neska askok zuka egiten zuten "finagoa" zelakoan eta beste batzuek gaztelaniarako joera ere hartzen zuten arrazoi beragatik.

1.019. Kostako herrietakoek zuka (AZK-080/009)

Hikaren erabilera konplexua dela dio. Kuadrillan bere emazteari hika egiten dioteneke beraien emazteei zuka egiten diete, esaterako. Azpeitian ere hika entzun izan du, baina kostako herrietako jendeari ez omen dio hitanorik entzun izan.

1.020. Hika edo zuka hitz egiteko ohitura aldatzea zaila (AZK-080/011)

Pertsona batekin hikatik zukara aldatzea, edo alderantziz, oso zaila egingo litzaioke. Hika galtzeak pena emango lioke, aberasgarria dela iruditzen zaio eta. Anaitasuna futbola taldearen bitartez harremana izan du gazteekin eta mutilen artean asko entzuten dela hika dio. Mutil gazteei hika egiten die normalean; neskei, berriz, ez. Hor ere ohitura aldatzea kosta egiten dela dio.

1.021. Aititari hika egin ziolako, errieta (AZK-080/013)

Semeak batzuetan hika egiten dio. Hori garai batean ez zegoen ondo ikusita. Gogoan du, umea zela, errieta egin ziotela behin aititari hika egin ziolako.

1.022. Garai batean alkateei eta abadeei berorika, koska bat gorago zeudelakoan (AZK-080/015)

Bere ustez jendeak ez du berari hika egiteko ohitura aldatu, herriko alkatea delako. Garai batean alkateari, abadeari edo medikuari berorika egiten zitzairen, koska bat gorago zeudela uste zelako. Zorionez egoera horiek aldatu egin direla dio eta berari herritarrak erraz hurbiltzen zaizkiola iruditzen zaio.

1.023. Nokaren egoera Azkoitian (AZK-080/016)

Gaur egun nesken artean zuka dela nagusi Azkoitian iruditzen zaio. Berak zenbait emakumezkorekin hika egin izan du eta beste zenbaitekin zuka. Hala ere, bere garairako jada hikaren beherakada hasia zen emakumezkoen artean.

1.024. Jendearen harridura emaztearekin hika egiten duelako (AZK-080/019)

Emaztearekin hika hitz egiten du. Beste batzuk ezagutu izan dituen arren, garai batean ez ziren asko izango hika egiten zuten bikoteak. Gaur egun oraindik ere jendea harritu egiten da.

1.025. Eskolan mojekin gaztelaniaz (AZK-081/003)

Mojen eskolan ibili zen eta dena gaztelaniaz ematen zuten. Hori dela eta, lagunekin ere gaztelania erabiltzen zuen asko, nahiz eta gertukoenekin hika egin.

1.026. Hikaren kontrako jarrera gutxi (AZK-081/005)

Nagusiagoei hika egitea gaizki ikusita zegoen garai batean, ez zen errespetuzkoa. Hika baldarra iruditzen zaielako edo beraientzat egokia ez delako hika gustatzen ez zaien gutxi batzuk badaudela dio. Kontrakoak ere bai, hika jakin ez eta gustura egingo luketenak.

1.027. Ezkondu ostean ere bikotearekin hika (AZK-081/006)

Gaztetan kuadrillan batzuekin hika eta beste batzuekin zuka egiten zuen, bakoitzarekin hartutako ohituraren arabera. Gaur egun hika gehiago egiten

dutela dio. Mutil-lagunarekin hika hasi zen eta hala jarraitu zuten ezkondu ostean ere. Garai batean ez zegoen ondo ikusita eta adineko jendeak noizbait egin izan die komentarioren bat.

1.028. Alabei zuka (AZK-081/007)

Alabei ez diete hika egin eta hor akatsa izan dutela dio. Iloba mutilei hika egiten die eta neskei zuka, baina ez daki horren arrazoa. Alabek etxean beti entzun izan dute hika eta badakite, baina hitz egiteko ohitura falta.

1.029. Haserretutakoan, hika (AZK-081/010)

Bere buruari hika egiten dio, sarritan haserre. Alabekin ere haserretutakoan errazago egiten die hika.

1.030. Hika, hika dakienari (AZK-081/012)

Hika dakienari errazago egiten dio hika. Azkoitia-Azpeitia ingurukoei normalean hika egingo die, baina beste herrietakoei lehen hitza, normalean, zuka.

1.031. Hikak gertutasuna eta konfiantza ematen du (AZK-081/014)

Betidanik hitz egin izan du hika eta gorde beharrekoa iruditzen zaio. Errespetuarekin lotu izan du: gurasoei edo nagusiagoei ezin zitzaien hika egin. Adineko jendearekin gertutasuna eta konfiantza ematen du hikak.

1.032. Ikasle gutxi batzuekin hika (AZK-081/016)

Irakaslea da eta helduekin lan egiten du. Tokatu izan zaio ikasleren batekin hika egitea, gelatik kanpo hala egiteko ohitura hartuta, baina ikasle gutxirekin egin izan du hika.

1.033. Hika kontzienteki nori? (AZK-081/017)

Batzuetan ezezagunei hika egin izan die eta haien erreakzioaren arabera hika jarraitu edo zuka-ra aldatu. Zenbaitekin gertatu izan zaio gerora ohartzea badakiela hika eta biek elkarrekin adostea hika egingo diotela elkarri. Orain alabei kontzienteki hika egin beharko diela komentatzen dute. Ez luke gaizki hartuko alabek berari hika egitea. Ohitura kontua iruditzen zaio, ez errespetu kontua.

1.034. Inork gutxik egin izan dio hika (AZK-081/019)

Hika ez duela asko entzun izan dio. Aita eta ama entzun izan ditu hika, bai elkarrekin eta baita lagunekin ere. Lagunartean ez dute hika egiten. Inork gutxik egin izan dio zuzenean hika, irakasle batek bakarrik. Bere adineko mutilek hika egiten dute, baina mutilen artean bakarrik, neskei ez diete egiten. Neska batzuek ere toka egiten diote elkarri.

1.035. Lagunartean hika hasteko nahia (AZK-081/021)

Lagunartean askotan pentsatu izan dute hika hasi behar direla, baina gero kostatu egiten zaie ohitura aldatzea. Batzuek gaizki egiteko beldurra dute. Adineko mutilek toka ondo egiten dutela uste du, baina noka agian ez dute jakingo.

1.036. Noka bakarrik galtzeak zer pentsatua ematen du (AZK-081/028)

Hika euskararen berezitasun bat da eta pena litzateke galtzea. Azkoitiko hikan noka bakarrik ari dela galtzen ikusteak ere zer pentsatua ematen duela diote. Askotan konturatu ez arren, mutilei errazago egin izan zaie hika, neskak finagotzat hartu izan direlako eta hika hizkera zakartzat hartu izan delako. Mutil gazteek euren artean hika egiten dute helduengandik hori jasotzen dutelako; neskek, berriz, ez.

1.037. Hika bultzatzeko zer egin (AZK-081/035)

Hika bultzatzeko, norberak egin behar duela ahalegina dio Jaionek, hitz eginez. Araitzek dio Azkoitiko hitanoa bultzatzeko proiektuaren barruan badituztela zenbait ideia, sare sozialetara begira. Telebistan hitanoa txantxarako erabili izan da, baina interesgarria litzateke elkarrizketetan edo bestelakoetan ere txertatzea. Eskoletan lantzea ere egokia litzateke, baina horretarako irakasleek hika jakin behar lehenbizi.

1.038. Hika gehien Azkoitian eta Azpeitian (AZK-081/036)

Azkoitian eta Azpeitian asko egin izan da hika. Bizkaitar batzuk Jaioneri esan zioten inbidia ematen ziela, beraiek ez zekitelako hika. Kostaldean (Zarautz, Orio...) ere egiten dela diote. Elgoibar aldera gutxi eta Urretxu-Zumarraga aldera ere bai.

1.039. Azkoitian kalean ikasitako euskara: toka (AZK-081/041)

Azkoitian asko hitz egiten da euskaraz, beste herri batzuekin alderatuz gero. Jaione umea zenean, gaztelaniaz ikasten zuten eskolan eta kanpotik zetozenek agian ez zuten euskaraz ikasi beharrik sentitzen. Gaur egun denek ikasten dute euskaraz eskolan. Mutilek hika ere ikasten dute kalean. Jaioneri ikasle batek toka egiten dio, dakien euskara bakarra hori delako.

1.040. Aita Larrabetzukoa eta ama azkoitiarra (AZK-082/002)

Aita Larrabetzukoa zen, basomutila. Arrebarekin eta ilobekin batera joan zen Azkoitira bizitzera eta Zubillaga lantegian hasi zen lanean. Berak bost urte zituela hil zen aita. Gurasoek elkarrekin zuka egingo zutela uste du. Baina amak seme-alabei hika egiten zien eta hiru anai-arrebek halaxe egin izan dute elkarrekin.

1.041. Eskola nazionalean Aizarnako irakasle euskaltzalea (AZK-082/003)

San Martin kalean bizi izan zen 9 urtera arte. San Martingo txaran eta ibaian ibiltzen ziren jolasean. Udaran karramarroak, aingirak eta ezkailuak harrapatzen. Eskola nazionalean ibili zen. Giro oso erdalduna zegoen, baina bazuen Aizarnako irakasle euskaltzale bat. Oso zorrotza zen eta "Bai, andrea" esan behar izaten zioten. Alondegiairen bi alboetatik gora zeuden eskolarako eskailerak. Nesken bi gela zeuden. Gela erdian berogailua. Goizetan ikasgaiak eta arratsaldean josten. Arrosarioa errezatu eta elizako kantak ikasi eta irakaslearekin egunero elizara joaten ziren.

1.042. Moja bati esker ikasketekin jarraitu ahal izan zuen (AZK-082/004)

Ama alargun geratu zenez hiru umerekin, ahizpa eta biak Azpeitiko Esklabetara joaten ziren eskolara, han jangela zegoelako. 13 urtera arte ibili zen han. Mojek esan zioten ama alargunari laguntzeko lanean hasi beharko zela. Ahizpa Azpeitiko Jesuitinetan matrikulatzera joan zirenean, hango moja batek ikastearen truk lan batzuk egitea proposatu zien eta horrela jarraitu ahal izan zuen ikasketekin. Moja haren bitartez udaran klase partikularrak jasota ikasturte bat aurreratzea ere lortu zuen. Gero Tolosara joan ziren ikastera, barneko ikasle gisa, eta, azkenean, Magisteritza egitea lortu zuen.

1.043. Magisteritza ikasten ari zela, euskal kontzientzia piztu (AZK-082/005)

Donostian egin zituen Magisteritza ikasketak eta euskal kontzientzia piztu zitzaion han, besteak beste, Martxelo Otamendi ikaskideari esker. Irakasleek ez zuten euskararekiko jarrera onik, baina leku askotako ikasleak zeuden eta euskaraz egiten zuten beraien artean. Hika ere erabiltzen zutela dio.

1.044. Ikasleei gela barruan euskara batuan eta zuka (AZK-082/006)

Magisteritza ikasi eta berehala Azpeitiko Karmelo Etxegarai ikastetxean hasi zen lanean. Irakasleen artean hika erabiltzen zuten, baina zalantza zuten ikasleei nola zuzendu. Gelatik kanpora erabiltzen zuten hitanoa, baina gela barruan euskara batua eta zuka. Gogoan du elkarrizketa batzuk hitanoz zituen Nemesio Etxanizen antzerki bat irakurri izan zutela eskolan, baina, horrez gain, ez zuten lanketa berezirik egiten. Herriko euskara ere ez da landu izan.

1.045. Atzerritik etorritako ikasle mutilak hika (AZK-082/007)

Duela 20 urte inguru hasi zirela atzerritik ikasleak etortzen dio. Mutil pakistandarrek, bertakoekin nahastean, hika ikasten dute. Neskek, berriz, bertakoekin harreman gutxiago izaten dutela eta gutxiago ikasten dutela uste du. Mutilek toka ikasten dute lagunartean eta berari ere halaxe egin izan diote noizbait. Hegoamerikarren kasuan, ez dutela euskara ikasteko hainbeste behar sentitzen iruditzen zaio.

1.046. Kanpotik etorritakoen jarrera euskararekiko (AZK-082/008)

Kanpotik etorritako jendeak jarrera desberdina izan du euskararekiko. Batzuek bizi ia osoa Azkoitian pasa arren, ez dute ikasi. Beste batzuek euskara ikasteko urratsa eman dute euskaltegira joanda. Hainbat kasu aipatzen ditu. Herrira etorritako lehenengo etorkinek errazago ikasten zuten euskara.

1.047. Donostian eta Bergaran euskaraz alfabetatzen (AZK-082/011)

Donostian EUTGn ibili zen euskaraz alfabetatzen. Andu Lertxundi izan zuen irakasle eta txundituta utzi zuela dio. Irakurzaletasunari garrantzia handia ematen zion eta zaletasuna transmititu zion. EGAKo azterketa prestatzeko, Bergaran egoten ziren Sakontze mailako eskolak, larunbat goizetan. Gerora ere hainbat ikastaro egin izan du, formakuntza osatzeko.

1.048. Bertsolaritza ikastaroa Juanito Dorronsorekin (AZK-082/012)

1978an hasi zen lanean. 1983an ikastetxetik bertsolaritza ikastaro bat egiteko aukera eman zioten. Juanito Dorronosoro izan zuen irakasle. Orduan jabetu zen bertsolaritzak dituen baliabideez: hiztegia, errimak, hitz gutxitan gauza asko esatea... Azkoitiko gizon bati bertso batzuk grabatu zizkion eta Juanitok partitura egin zuen. Bertso horien inguruko azalpenak.

1.049. Bertsolaritza, ikasgelarako baliabide aproposa (AZK-082/013)

Bertsolaritza asko erabili izan du baliabide moduan ikasgelan, batez ere euskara lantzeko. Bertsolari askorekin harremana zuenez, edozer gauza lantzeko, bertsoak eskatzen zizkien. Kanpotik etorritako ikasleekin euskara lantzeko ere egokiak direla bertsoak iruditzen zaio. Bere esperientzia azaltzen du.

1.050. Azkoitiko bertso-eskola eta Erniarraitz Elkartearen sortu zituen (AZK-082/014)

1987 inguruan bertso-eskola sortu zuen Azkoitian. Mikel Mendizabalen bitartez Goierri aldeko irakasleak etortzen ziren hasieran eta, gerora, bertako ikasleak hasi ziren irakasle lanetan. 2000. urtean Erniarraitz Bertsozale Elkartearen sortu zuten Azkoitia, Azpeitia, Zestoa eta Errezilgo bertsozaleen artean. Bertsoekin ez da euskara bakarrik lantzen, argudiatzen, iritziak ematen eta testuak antolatzen ere ikasten da bertsolaritzari esker. Bertso-ekolak non eman izan diren.

1.051. Erniarraitz Bertsozale Elkartearen izena eta logoa (AZK-082/015)

Bere ikasle izandako mutil batek egin zuen Erniarraitz Bertsozale Elkartearen logoa. Hernio eta Izarraitz mendien izenen baturatik dator izena. Elkarteko diru-kontuak eraman zituen 13 urtez. Floreaga ikastetxeko bertso-eskola bultzatu zuen Mailu Irizar izan du lagun bertsolaritza kontuetan.

1.052. Bertsozaletasuna nondik datorkion (AZK-082/017)

Meza ostean bertso-paperak banatzen ziren garai batean. Amaren aldeko aitona Errazti baserrikoa zen eta badirudi han bazutela bertsozaleen zaletasuna. Baina amak ez zuen bertso kontuetarako astirik, 36 urterekin alargundu eta beti lanean aritzen zelako. Beraz, zaletasuna ez zuen etxetik jaso, gerora baizik. Zer bertsolari jarraitu izan dituen.

1.053. Urepelera, Xalbadorren etxea ikustera (AZK-082/018)

Xalbador bertsolariaren jarraitzaile sutsua zenez, udara baten haren etxea ikustera joan zen senarrarekin eta alabarekin. Urepelen bizitako kontuak. Xalbadorren senideek etxeko ateak ireki zizkieten eta gustura bueltatu zen. Xalbadorren bertsoak eta lantzen dituen gaiak gustuko ditu. Hasieran Urepeleko euskara ulertzeko arazoak zituen.

1.054. Amaginarrebari gustatu ez arren, senarrarekin hika (AZK-082/022)

Umetatik hika egin izan du lagunekin, nahiz eta beti egon lagun bat egiten ez zuena edo erraztasun gutxiago zuena. Nobioarekin eta haren lagun azpeitiarrekin ere beti hika. Amaginarrebak bikoteak elkarrekin hika egitea ez zela egokia esan arren, ohitura horrekin jarraitu zuten. Ahizpak senarrarekin zuka egiten du. Seme-alabei hika egiten diete.

1.055. Seme-alabei hika egin arren, euren artean zuka (AZK-082/023)

Alabak ez du lagun guztiekin egiten hika. Bakoitzarekin duen harremanaren arabera izango dela uste du. Seme-alabei hika egin izan diete txikitatik, baina euren artean zuka egiten dute. Senarrak eta semeak elkarrekin hika egiten dute. Garai batean naturalago irteten zela hika uste du. Gaur egun kontzienteki egin beharra dago.

1.056. Hitanoa telebistan eta literaturan (AZK-082/025)

Garai batean telebistan hika eredu onak ematen ziren hainbat telesailetan, baina gaur egun ez dago halakorik. Goazen! telesailean, esaterako, gazteek hikako testuak berdin-berdin ikasiko lituzketela uste du. Literaturan badaude elkarrizketetan hika sartzen duten idazleak.

1.057. Hikaren gertutasuna; kontzientziaren beharra (AZK-082/027)

Hikak gertutasuna eta konplizitatea ematen duela eta zuka harreman-mota ezberdina sortzen dela dio. Lankide berri bati zuzentzean, lehenbizi ea euskaldun zaharra ala euskaldun berria zen begiratzen zuen, hika egiten hasteko. Baina euskaraz ondo moldatzen zirenekin, normalean, hika. Gaztetan ere, amari dendan laguntzen ziotenean, bezero askorekin hika. Hika egiteko kontzientzia eduki izan du beti, batez ere seme-alabak izan eta gero.

1.058. Euskal kulturaren aldeko apustua (AZK-082/030)

Hainbat egunkari eta aldizkaritako harpidedun da eta garbi du euskal kulturaren alde egin beharra dagoela. Beharrezkoa iruditzen zaio kultura gaietan jantzita egotea, nork bere iritzia garatzeko. Ikasleei ere horixe esan izan die.

1.059. Gazteen euskara zabartzen eta testuak pobretzen (AZK-082/031)

Gazteen hizkera asko ari dela zabartzen iruditzen zaio. Idazkera aldetik, nork bere hizkuntza menderatu behar du ongi lehenbizi, gero beste hizkuntza bat ikasi ahal izateko. Ongi idazteko, asko irakurri behar da. Gaur egun gazteek ez dakite iruzkin sakonak egiten, idazkera arina erabiltzen dutelako sare-sozialetan. Testuak ulertzeko ere zailtasunak dituzte, ez dutelako ganoraz irakurtzeko patxadarik hartzen. Umeez ez dakite patxadan eta isiltasunean egoten.

1.060. Ikasleak nola motibatu izan dituen, irakur dezaten (AZK-082/033)

Audio liburuak entzutea ez dela liburuak irakurtzearen parekoa iruditzen zaio. Ikasleei askotan aipatu izan die liburuak irakurri, mundutik aldendu eta

istorioak pelikula bat bezala ikusi behar dituztela. Ikasleak nola motibatu izan dituen. Garai batean galderak egiten zitzaizkien ikasleei, liburua irakurri ostean. Alabak bere ikasleei buruz kontatutakoak, irakurzaletasunaren inguruan.

1.061. Ipuin asko kontatu izan dizkie seme-alabei (AZK-082/034)

Ipuin asko kontatu izan dizkie seme-alabei. Ipuina kontatzerakoan, nola girotzen zuen, seme-alabak ipuinean murgiltzeko. Ipuinak bizitzen dituztenek gero giro hori gogoan izaten dute testuak sortzerakoan ere.

1.062. Irakurtzearen inguruko hausnarketak (AZK-082/035)

Umeei nekagarriak iruditzen zaizkie liburuak, irakurtzeak esfortzua eskatzen du eta. Gainera, bakardadean egin beharrekoa da eta jendeak bakarrik egote hori ez duela oso gustuko iruditzen zaio. Irakurtzen dutenei eta ez dutenei aldea nabaritzen zaie hitz egiteko eran edo idazkeran.

1.063. Emakume eta gizonezkoen ezberdintasunak, baita hizkuntzari lotuta ere (AZK-082/038)

Garai batean gizonezkoak gehiago sozializatzen ziren eta horregatik eutsiko zioten hobeto hitanoari. Bertsotan ere gauza bera gertatzen zen, emakumeek etxean ikasten zuten bertsotan. Gizonak ausartagoak ere izaten dira: ondo edo gaizki, aurrera. Emakumeek gehiago exijitzen diete euren buruei, gizarteak ere gizonen parean egoteko gehiago eskatu izan dielako. Entzun izan du hika emakumezkoentzat ez dela fina. Azken urteetan emakumezko batzuk ahalduz tresna gisa hasi dira hitanoa bultzatzen.

1.064. Zukatik hikara aldatzeak esfortzua eskatzen du (AZK-082/039)

Askotan ez du ulertzen nolatan ari den galtzen noka, beraiek hain naturalki erabili izan dutenean. Seme-alabek ez dute elkarrekin hika egiten. Hizkuntza-ohitura aldatzeak esfortzua eskatzen du.

1.065. Euskaldun berriekin mintzapraktika, esperientzia aberasgarria (AZK-082/041)

Zortzi urte inguru daramatza euskaldun berriekin mintzapraktika egiten. Euskaltegian ibili ostean joaten direnekin ongi, baina zuzenean mintzapraktikara doazenek arazo gehiago izaten dituzte. Zenbait esperientzia kontatzen ditu. Hizkuntza, erabili ezean, herdoildu egiten da. Esperientzia aberasgarria iruditzen zaio.

1.066. Emakumeak komunikatzaileago (AZK-082/042)

Jende berria ezagutzea, harremanak eta komunikazioa gustatzen zaizkio, aberasgarria delako. Emakumeek gehiago komunikatzen dutela uste du. Emakume eta gizonezkoen arteko aldea; emakumeen izaera. Interesgarria litzateke emakumeen arteko komunikazio hori noka izatea.

1.067. Kultura ezberdinak ezagutzearen eta transmisioaren garrantzia (AZK-082/043)

Kultura-transmisioaren garrantzia. Irizartarrak, familia aberatsa kultura-transmisioan. Beste kultura batzuk ezagutzeak ematen duen aberastasuna. Kultura ezberdinen arteko antzekotasunak. Txinan emakumeek sortutako hizkuntza.

1.068. Adjektibo ezkorak: zanpana, zarbua, txolina... (AZK-082/045)

Bere buruari hika egiten dio. "Hi haiz zanpana" espresioa. "Zarbua" izateak zer esan nahi duen. Mutilentzat erabiltzen da batez ere. Neskentzat kalifikatzaile gehiago daude: zanpana, txolina, zontzona... Bakoitzaren adiera.

1.069. Amamaren inguruko kontuak: ezkon-bidaia, inude joan beharra... (AZK-082/046)

Nagusiagoa den lehengusuarengandik jakiten dituzte garai bateko hainbat kontu. Euren amama 19 urterekin ezkondu zen. Ezkon-bidaian Donostiara joan ziren zalgurdian. Errazti baserrian maizterrak zirenez, Igeldon bizi zen baserri jabearenera joan ziren bazkaltzera. Hark Toribio Alzagaren antzerki bat ikustera joateko sarrerak oparitu zizkien, baina aitonak ez zuen antzerkia ikusi nahi eta saldu egin zituzten. Amama haurdun geratu zenean, inude gisa kanpora bidali zuten. Garai bateko emakumeen bizimodu gogorra.

1.070. Berdintasunik eza etxeko lanetan, haurren heziketan... (AZK-082/047)

Emakumearen egoera asko hobetu da, baina oraindik ere asko dago egiteko. Duela 38 urte ikasgelan galdetu eta ikasle bakar batek esan zuen aitak etxeko lanak egiten zituela. Seme-alaben heziketan amek eta aitek izaten duten papera. Gaur egun etxeetan ez dago elkarrizketarako astirik.

1.071. Hizkuntza pobretu egiten da erabili ezean (AZK-082/049)

Hizkuntza pobretzen ari da, praktika ezagatik. Lazkano bertsolariak esaten zion berarentzat eskolarik onena Errezilera joatea zela. Hango baserri guztietan egongo zen bertsolariren bat. Praktikak egitera hara joandako irakasle batek kontatutako pasadizoa. Hizkuntza hobetzeko, hitz egin egin behar da.

1.072. Ikasleen gurasoekin, normalean, zuka (AZK-082/051)

Amaren dendan bezeroekin hika egiten zuen gaztetan. Irakasle bezala, normalean zuka egin izan du gurasoekin, baina batzuekin hika ere bai, salbuesenez, batez ere gazteagoekin edo ikasle ohiekin.

1.073. Baserriko lanetan gutxi (AZK-083/002)

Anaia zutenez, baserriko lan asko egin beharrik ez zuten izaten. Olatzi gustatzen zitzaizkion kanpoko lanak; Itziarri, berriz, etxeakoak gehiago. Baratzean egin behar izaten zituzten lanak: babak edo lekak bildu, tomateak jaso... Gari-jotzea auzolanean.

1.074. Inguruko baserrietako neska-mutilak elkarrekin jolasean (AZK-083/005)

Inguruko baserrietako neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren jolasean: futbolean, pilotan, sagarrak eta txermenak harrapatzen, ibaian... Errepidean ibiltzen ziren dantzan edo jolasean. Aste Santuan bekatu zela, baina beraiek pilotan aritzen ziren. Pendizean jarri eta pasatzen ziren bikote azpeitiarrak amorrarazten ere jarduten zuten.

1.075. Mutilak neskei dantza eskatzera (AZK-083/007)

Erromerian neskak hasten ziren dantzan eta gero mutilak dantza eske joaten zitzaizkien. Auzoetako erromeriez gain, plazan ere egiten zen dantzan. Olatz gehiago ibiltzen zen erromerietan Itziar baino.

1.076. Dantza egiteagatik, kongregaziotik kanpora (AZK-083/009)

Itziar kongregaziotik bota zuten mutil batekin dantza egin zuelako plazan. Auzoetako erromerietan ere zaintzen zuten jendea.

1.077. Bikotea ukitzea bekatu; bidera irteten ziren mutilak (AZK-083/010)

Garai batean bikotea ukitzea ere bekatu zen. Etxera bidean Intxausti lantegi ondotik pasa behar izaten zuten. Hango gizona leihoan egoten zen eta biharamunean euren amari kontatzen zion norekin pasa ziren. Etxera bidean beldurra pasatzen zuten. Orduan ez zegoen argirik eta mutilak irteten ziren bidera batzuetan. Olatzi behin gizon bat irten zitzaion eta denbora luzez beldurtuta ibili zen. Beste pasadizo batzuk.

1.078. Olatz, prakekin eta gona motzarekin (AZK-083/012)

Olatz goiz hasi zen prakak janzten, baina Itziarrek dio berak berandura arte ez zuela prakarik jantzi. Garai batean prakak janztea bekatu zela esaten zuten. Olatzi gona motzak janztea ere asko gustatu izan zaio.

1.079. Arropa eskuz garbitu behar (AZK-083/014)

Garai batean arropa eskuz garbitu behar izaten zen. Olatzek ez du arropa errekan edo askan garbitzen zeneko oroitzapenik, baina Itziarrek bai. Garbigailua aurrerapen handia izan zen.

1.080. Etxean hika jaso arren, seme-alabei ez diete egin (AZK-083/015)

Beraiei hika egiten zieten, eta anai-arreben artean halaxe egin izan dute beti. Baina beraiek seme-alabei edo ilobei zuka egin izan diete. Itziarrek dio errieta egiteko bakarrik erabili izan duela hika seme-alabekin.

1.081. Auzoko lagunekin hika; kalean zuka (AZK-083/016)

Ezagutzen dituzte elkarrekin hika aritzen diren senar-emazteak, baina ez zaie oso egokia iruditzen. Beraiek hika ohitu ziren eta halaxe egin izan dute. Hika beraiekin batera bukatu dela uste dute, ondorengoei zuka egin izan diete eta. Auzoko lagunekin hika egiten zuten, baina kalera joandakoan zuka, batez ere ezezagunekin. Itziarrek gizonezkoei hika egiteko joera.

1.082. Hika edo zuka egitea, ohitura kontua (AZK-083/018)

Seme-alabei umetatik zuka egiten ohitu dira eta bilobei ere beti halaxe egin izan diete. Itziarrek dio haserretutakoan egiten duela hika, barrutik halaxe ateratzen zaiolako. Hika egitea ohitura kontua dela iruditzen zaie.

1.083. Mixerikordiako eskolan eta eskola partikularretan (AZK-083/020)

Mixerikordiako eskolan ibili ziren, mojekin. Eskolak gaztelaniaz izaten ziren. Plazan ere bazegoen eskola. Eskola partikularretan ere ibili ziren Trino Uriarekin eta Maria Paularekin.

1.084. Seme-alabak ikastolara bidaltzeko hautua (AZK-083/021)

Seme-alabak ikastolara bidali zituztenean, batzuek harritu egiten zirela kontatzen du Itziarrek. Berak euskara dela gure hizkuntza eta euskara ikastera bidaltzen zituela esaten zien. Seme zaharrena hasi zenean batez ere horren inguruko eztabaidak izaten zituzten.

1.085. Azpeitian Azkoitian baino gaztelania gehiago (AZK-083/025)

Azkoitian euskararen erabilera asko jaitsi dela uste dute. Garai batean Azpeitian egiten zen gaztelania gehiago, azpeitiarrek "kategoria" handiagoa zutelako euren ustez. Esaera batek zioen Azpeitian zegoela jende inportantea, baina Azkoitian dirua. Azpeitiarren fama. Azpeitiar eta azkoitiarren arteko pikea.

1.086. Elizaren neurri zorrotzekin elizkoiak "hoztu" (AZK-083/028)

Olatzi gona motzekin ibiltzea gustatzen zitzaion, baina abadeek ez zioten inoiz ezer esan, ez zen elizkoiia eta. Itziarrek harreman gehiago izan du elizarekin. Plazan dantza egin zuelako, kongregaziotik bota zuten. Doña Kontxa zen kongregazioko buru. Halako neurriekin jendeari elizara joateko gogo kentzen ziotela uste dute.

1.087. Lanera joan aurretik elizara, gogo-jardunetara (AZK-083/030)

Garai baten derrigorra zen mezetara joatea. Mixerikordiako eskolan zebiltzanean, igandero joaten ziren, ilaran jarrita. Bederatziurrenak. Gogo-jardunak zeudenean, goizeko zazpietarako joaten ziren elizara eta gero zortzietarako lantegira. Garai bateko bizimodua.

1.088. Erromeriatik goiz etxeratu behar (AZK-083/031)

Olatz asko joaten zen erromerietara, baina iluntzeko bederatzietarako etxera itzuli behar. Amak auzoko bat jartzen zien eredu gisa, beraiek baino lehenago etxeratzen zelako. Arratsaldean izaten zen erromeria. Inguruetako erromeria garrantzitsuenak Martirietakoa, Urrategikoa eta Madariagakoa. Kotxea egoten zen Martirietara joateko. Hantxe ezagutu zuen senarra Itziarrek.

1.089. 40 urtetik gora lantegian lanean (AZK-083/033)

Intxaustiko kotoi-lantegian ibili zen lanean Olatz. Handik Kelmi lantegira joan zen eta 40 urte inguru egin zituen han, harik eta itxi zen arte. Emakumeek lan

egitea ohikoa zen, lantegian gehienak emakumezkoak ziren. Askok lana utzi egiten zuten ezkondutakoan eta gero damutu.

1.090. Ez du inoiz egin hika, ez zaiolako gustatu izan (AZK-084/001)

Olatzek eta Itziarrek hika egiten dute elkarrekin, baina ondorengoei zuka egin diete. Yolandak ez du inoiz hika egin, espresio solteetan bakarrik. Anaia hika hitz egiten hasi zitzaion 11-12 urterekin eta berak negar egiten zuen, ez zuelako nahi. Inguruan eduki ditu hikaren erreferente onak, baina sekula ez zaio gustatu izan. Ez dute entzun inoiz hika ez dela emakumeentzat aproposa.

1.091. Neskekin hika gutxiago (AZK-084/002)

Sekula ez dute entzun izan hika ez dela emakumeentzat egokia. Yolandak dio neska batekin hika egitekotan, espresio solteetan bakarrik erabiliko lukeela. Semeak lagunartean hika ikasi zuen eta aitari hasi zitzaion hika. Mutil gazteek erabiltzen dute elkarrekin, baina neskek ez. Joneri ia inork ez dio hika egin izan.

1.092. Zuka ohituta, baina hika gustuko (AZK-084/004)

Jonek beti zuka hitz egiten du, umetatik halaxe ohitu delako. Gustatzen zaio hika. Saiatuz gero, hika egiten asmatuko lukeela uste du, nahiz eta kostatuko litzaiokeen eta hanka sartuko lukeen zenbaitetan.

1.093. Non eten da hikaren transmisioa? (AZK-084/005)

Itziarrek harakin batekin lan egiten zuen. Berak hika egiten zion, baina hark sekula ez zion hika erantzun. Itziarrek gizonezkoei hika egiteko ohitura du. Olatzek dio lagunekin beti hika egiten duela. Transmisioa non eten den komentatzen. Bi aldeetako aiton-amonek hika egiten zioten Yolandari, baina gurasoek ez.

1.094. Hikaren erabilera-ohiturak (AZK-084/006)

Yolandaren senarrak ez zekien hika, baina behin bere aitonari hika hasi zitzaion, hark halaxe egiten ziola eta. Garai batean edukazio falta zen zaharragoei hika egitea. Ume txikiei hika egitea ere gogorra iruditzen zaio Yolandari. Senar-emazteen artean ere gaizki ikusita zegoen. Jonek ez duenez hika etxean jaso, ez zaio gaizki iruditzen edonori hika egitea. Itziar eta Olatzen gurasoek hika egiten zuten parekoekin eta ondorengoekin. Aitaren aldeko osaba-izebek hika egiten diote Yolandari. Itsusia ote den eztabaidatzen. Ohitura kontua izaten da.

1.095. Noka gainbehera (AZK-084/010)

Mutilen hitanoa erabiltzen da, baina neskena galtzear dago. Toka zakarragoa da noka baino. Tokak (gizonezkoenak, alegia) "irabaziko" balu, emakumezkoena izango litzatekeela errua dio Yolandak, bere burua erruduntzat jota. Xabier Euzkitzek aspaldi esan omen zuen hika indartu beharra zegoela.

1.096. Euskara beherantz Azkoitian (AZK-084/013)

Beste herrialde batzuetatik Azkoitira jendea etortzen hasi zenean, etorkin horiek euskara zuten bigarren hizkuntzatzat. Gaur egun gaztelaniarako joera handiagoa dutela uste du Yolandak. Azkoitia herri oso euskalduna izan da, baina euskararen erabilera beheraka doa.

1.097. Azkoitiko euskarako hitzak galtzen (AZK-084/014)

Gazteek gero eta gutxiago erabiltzen dituzte Azkoitiko euskararen bereizgarri diren hitzak. "Antxintxike" eta "merixue" hitzak aipatzen dituzte. Esaerak erabiltzeko orduan ere gaztelaniara edo ingelesera jotzen da gero eta gehiago.

1.098. Azkoitian -xe; Azpeitian eta Martirieta auzoan -ye (AZK-084/015)

Herri batetik bestera desberdin hitz egiten da. Azpeitian -xe beharrean -ye darabilte, esaterako. Han beti tartekatuta izan dute gaztelania gehiago. Azkoitia oso-oso euskalduna izan da. Azkoitiko auzo batzuetan ere nabaritzen da aldea euskararen. Berezieta Martirieta kasua da, han ere -ye egiten baitute, Azpeitian bezala.

1.099. Hika indartzeko aukerarik bai? (AZK-084/018)

Itziarrek eta Olatzek zaila ikusten dute hika indartzea. Yolanda ikusten du aukera, baina horretarako instituzioek, ikastetxeek... ahalegin handia egin beharko luketela uste du. Garai batean irakasleak azkoitiarrak ziren eta denek zekiten hika; gaur egun irakasle askok ez dakite eta zailagoa da.

1.100. Mutil batzuek neskei ere toka (AZK-084/020)

Mutil batzuek neskei ere toka hitz egiten diete. Ez zaiela egokia iruditzen diote denek. Joneren ustez askok ezjakinean egiten dute.

1.101. Nagusiari, abadeari eta medikuari berorika (AZK-084/023)

Itziar bederatzi urtean neskame egon zen familia batekin. Nagusiei euskaraz "berori" esan behar izaten zieten eta gaztelaniaz "usted". Gaztelaniaz errazago moldatzen zirela dio, berorika gehiago kostatzen zitzaielako. Abadeari eta medikuari ere berorika. Abadeak soroak bedeinkatzera joaten zirenean, hamaiketako onena eta "poltsa"rik onena haientzat.

1.102. Neskak "beldurtzera" irteten ziren gizonezkoak (AZK-084/025)

Kaletik baserrira bidean ez zen gaur beste argi egoten eta ezkutatze leku asko egoten ziren. Batzuetan mutilak ateratzen zitzaizkien bidera eta beldurrez joaten ziren. Itziarri behin 14 mutil azaldu zitzaizkion. Garai bateko egoerak eta gaur egungoak. Halako egoeretan gorputzean sartzen den beldurra betiko izaten da. Beste zenbait gertaera.

1.103. Abadeak kontu intimoak jakin nahi (AZK-084/026)

Garai batean haurdun geratzen ziren emakume ezkongabeak gogor hartzen zituzten. Abadeei konfesatu behar izaten zitzaien dena. Itziarrek dio behin abadeak mutil baten ondoan eserita ikusi zuela eta ea zer sentitu zuen galdetu ziola.

1.104. Lagunartean hika (AZK-085/002)

Elkar ezagutu zutenean hasieran zuka egingo zuten, baina behin konfiantza hartutakoan, hika. Etxean entzun izan dute hika. Kuadrillakoezin egiten dute hika batez ere. Asierrek esaten du gero eta gehiago egiten duela, batzuetan aitari ere bai. Tabernara joandakoan, lehenengo hitza hika. Bestela adinak eta neska edo mutila izateak baldintzatzen du zuka/hika hastea.

1.105. Hika egitea ere errespetuzkoa (AZK-085/003)

Zuka hitz egitea omen da errespetuzkoa, baina Asierrek dio hika egitea ere errespetuzkoa dela, konfiantza handiagoa ematen duelako. Behin pertsona batekin zuka ohitutakoan, kosta egiten da ohitura aldatzea. Osabekin hika egiten dute.

1.106. Noka beherantz, ez delako erabiltzen (AZK-085/004)

Noka hitz egiten badakitela uste dute. Julenek erabiltzen du berari hika egiten dioten zenbait neskarekin. Asierrek dio ez duela erabiltzen. Noka galtzen ari da, ez delako erabiltzen; baina ez da mutilen kontua soilik, neska askok ez dute hika egiten eta. Nagusiagoen artean noka eta toka bizirik daude oraindik.

1.107. Xabier Munibe ikastolan Floreagan baino hika gehiago (AZK-085/007)

Kaletarrak dira, nahiz eta bien aitak baserri-girotik etorri. Gurasoak azkoitiarrak dituzte. Asier Floreaga ikastetxean ibili zen eta Julen ikastolan. Beraiek hika egiten dute, baina Asierri iruditzen zaio Floreaga ikastetxeok hika gutxiago darabiltela ikastolakoek baino.

1.108. Hika noiz hasi ziren (AZK-085/008)

Ez dakite ziur noiz hasiko ziren hika hizketan, baina kuadrillan hasiko zirela uste dute. Julenek osaba bati txiki-txikitatik egin izan dio. Asierri aitak eta osabek hika egin izan diote, baina Juleni osabak bakarrik. Anaia gazteagoari gehienbat hika egiten dio Julenek.

1.109. Matematikako irakasleak hika (AZK-085/010)

Batxilergoan eduki zuten matematikako irakasleak hika egiten zien ikasle guztiei eta berari ere hika egiteko eskatu zien. Goiazkoa zen.

1.110. Kuadrillan denek hika (AZK-085/012)

DBH 1 edo 2. mailan hasi ziren elkarrekin kuadrillan. Adin bereko 40 mutil inguruk osatzen dute lagun-taldea eta denek egiten dute hika. Euren adineko neskek gero eta gehiago egiten dutela hika iruditzen zaie. Hala ere, mutilei zuzentzerakoan erabiltzen dute hika batik bat; beraien artean gutxi.

1.111. Hika ondo erabiltzen ote duten zalantzak (AZK-085/013)

Eskolan hikako adizkiak ikasi zituztela eta noka ere ikasi zutela diote. Hala ere, gutxi erabiltzen dutenez, ahaztu egiten da. Julenek dio ez dakiela ziur ondo ala gaizki erabiltzen duen. Toka ondo erabiltzen ote duten ere zalantzak dituzte.

1.112. Kuadrillako "zuzentzaileen" laguntza (AZK-085/015)

Hika hitz egiterakoan, askotan egiten duten akatsa: "iguel zik" esatea "iguel zitek" esan beharrean. Badituzte kuadrillan pare bat lagun halako akatsak zuzentzen dizkietenak.

1.113. Belaunaldi gazteagoek euskara gutxiago darabilte (AZK-085/018)

Belaunaldi gazteagoek euskara gutxiago darabiltela iruditzen zaie. Beraiek euskarazko produktuak kontsumitzen zituzten (eitb aipatzen dute), baina gaur egun youtube edo bestelako produktuak eskura dituzte umeez eta gaztelaniazko saioak ikusten dituzte. Hori aldatzeko, ezinbestekoa litzateke sare sozialetan edo youtuben euskarazko ereduak ere egotea.

1.114. Ikaskide oñatiarrekin hika (AZK-085/020)

Asierrek Arrasaten ikasi du eta han ez dakitela hika dio. Ikaskide oñatiarrekin hika egiten zuen eta besteek ez zieten ulertzen. Julenek dio oñatiarrek euren hizkera oso barneratuta dutela eta hika erabiltzen dutela. Azpeitian ere hika asko egiten da, baina kosta aldera joanda, gero eta gutxiago. Beraiek kanpora joandakoan, tabernetan hika egiten dute eta baita adintsukoak diren mutilekin ere, ezezagunak izan arren.

1.115. Elkarrekin ezin zuka egin (AZK-085/022)

Hika egiteak "soltura" eta konfiantza ematen die. Zuka oso formala iruditzen zaie zenbait egoeratarako. Lagunarteko hizketa propioa sortuta izango balute moduan iruditzen zaie. Elkarrekin ezingo lukete zuka egin, oso "robotikoa" edo oso "faltsua" gertatuko litzaieke.

1.116. Nokaren beherakada, aurreko belaunaldietatik datorren arazoa (AZK-085/027)

Hika lotsagabea dela esan izan da. Julenek dio nokaren beherakada aurreragoko belaunaldietatik datorrela, baina ez du ulertzen zergatik galdu den noka eta toka ez. 30 urte inguruko neska talde batzuk oraindik egiten dute elkarrekin hika, baina hortik behera gutxi.

1.117. Euskaraz sortutako espresioak; gaztelaniarako joera (AZK-085/031)

Azkoitian euskara ez dago galtzeko arriskuan, baina erabilera asko jaitsi dela iruditzen zaie. Asierrek dio euskara batuan hitz egiteko gehiago pentsatzen dutela, baina azkoitiarrez egitean, berez irteten zaie eta edozein hitz sar dezakete. Lagun-taldean sortzen dituzte euskarazko espresio propioak. Hala ere, gaztelaniakoak hartzeko joera handia dagoela diote. Zenbakiak edo hilabeteen izenak gaztelaniaz esaten dituzte, baina ez dakite zergatik.

1.118. Azkoitiko hitz jatorrei eutsi nahian (AZK-085/032)

Azkoitiko hitz jator asko galtzen ari dira, ez dituztelako ezagutzen. Hala ere, saiatzeko aurrekoek erabiltzen zituzten hitzak erabiltzen. Zenbait hitz aipatzen dituzte. Maxixatzen-en azaldu izan dira Azkoitiko euskarako hitzak. Kuadrillan beti komentatu izan dituzte halako kontuak.

1.119. Hikaren etorkizuna; noka nola bultzatu (AZK-085/034)

Hika galduko balitz gertutasuna galduko luketela iruditzen zaie. Zuka egitea "oso robotikoa" izango litzateke. Beraiek bizi diren artean hika ez dela galduko diote. Noka bultzatzeko, irakatsi eta ekintzak antolatu beharko liratekeela dio Julenek. Asierri iruditzen zaio lehenbizi neskak hasi beharko liratekeela elkarrekin hika.

1.120. Bestelako familia eredia (AZK-086/003)

Beraien familiaren berri ematen du.

1.121. Harreran hartutako umeak ezagutu zituen ikasle garaian Bilbon (AZK-086/005)

Bilbon ikasten ari zela, ikasle-egoitzan, harreran hartutako neska-mutilak ezagutu zituen. Ez zuten beraien guraso biologikoengana joan nahi izaten eta mojekin geratu ahal izateko, gaiztakeriak egiten zituzten. Bizipena barnean geratu zitzaion.

1.122. Ume bat harreran hartzeko prozesua (AZK-086/006)

Ume bat harreran hartzeko prozesua nolakoa izaten den kontatzen du zehatz. Adopzio prozesuarekiko antzekotasunak eta desberdintasunak aipatzen ditu. Azkenengo hitza familiak izaten du.

1.123. Larrialdi bategatik, umea harreran hartu zutenekoa (AZK-086/007)

Umea harreran hartu zuten garaian, ez zegoen larrialdiko harrera familiarik. Ume txikiak ere pisu handietan hezitzaileekin egoten ziren. Larrialdi bategatik, etxean hartu zuten hilabeteko umea. Hasiera oso pozgarria eta naturala izan zela kontatzen du.

1.124. Harrerako umea hartu aurretik eta ondoren (AZK-086/008)

Umearen bila joan zirenean, umearen izenaren kontua izan zuten hizketagai, urduritasunarengatik. Hain azkar izateko, oso ederra izan zela dio.

1.125. Harrerako umeak izaten du familia biologikoarekin harremana (AZK-086/009)

Harrerako semeak badu harremana anai-arrebekin eta aita biologikoarekin, eta normal bizi du bere egoera. Nondik datorren badakiela dio, adopzioan hartutakoen aldean, eta adinaren arabera erantzunak ematen dizkiotela bere galderi.

1.126. Guraso biologikoak eta harrerakoak (AZK-086/010)

Azalpen handirik gabe ere, umeek nabaritzen dituzte guraso biologikoen eta harrerakoen arteko desberdintasunak.

1.127. Harrera iraunkorra edo denbora baterakoa aukeran (AZK-086/011)

Harrerako prozesuan erabakitzen da harrera iraunkorra edo denbora baterakoa aukeratzen duzun. Eraikitako harremana mantendu egingo

litzateke, umea bere guraso biologikoengana itzuliko balitz ere. Aldundiarekin eta hezitzaileekin harremana iraunkorra izaten da.

1.128. Umea familia biologikoarengana itzultzea, ederra (AZK-086/012)

Harreran sartzen den familiak barneratuta izaten du denbora baterako izan daitekeela. Bere ustez, bukaera zoriontsua litzateke berezko aita eta amarengana itzultzea ere.

1.129. Jaioberria hilabete batzuek harreran izan zutenekoa (AZK-086/013)

Larrialdiko egoera batean, ume jaioberria hartu zutenekoa kontatzen du. Asko gozatu zuten. Osaba-izeba batzuek eraman zuten hilabete batzuen ondoren eta agurra oso ederra izatea lortu zuten. Ume harekin harremana mantentzen du eta oso harro dagoela dio.

1.130. Harreraren gaia gizarteratzeko beharra (AZK-086/014)

Harrera familiena tabua zela konturatu zen, eta aurreiritzi asko zeudela. Jendeak harrera behar duten umeak ezagutuko balitu, harrera familien zerrenda luzea egongo litzatekeela dio.

1.131. ZuOndoan, harrera-familien berri emateko (AZK-086/015)

ZuOndoan programaren berri ematen du. Kontatzen du etxekoei azaldu zirenean umea harreran hartzeko prest zegoela, beldurra eta kezka adierazi zizkiotela, eta oso bestelako iritziak izan zituztela Itziarren beraren amak eta ahizpak umea harreran hartu ondoren. Mezu hori zabaldu nahi izan dute: harrera familiek natural bizi dutela egoera eta beldurra kanpotik datorren begiradak izaten duela.

1.132. Familia guztiak dira desberdinak (AZK-086/019)

Aita, ama eta bi umez osatutako familiak existitzen duela eta prototipoa dela dio, baina bestelakoak ere badaudela. Pena edo harridura ematen dio seme-alaba kopuruarengatik kritikak jasotzea. Anekdotak bat kontatzen du. Aipatzen du askotan familia perfektu bakarraren irudia mantendu nahi izaten dela baina etxe bakoitzean oso modu desberdinean funtzionatzen dela benetan.

1.133. Amatasuna arduraz eta gustoz (AZK-086/024)

Jaso izan dituen komentario batzuk aipatzen ditu: "ama zarela? buff...", "laugarrena? ez didazu inbidiarik ematen..." eta horrelakoak. Ama izatea arduraz handia dela dio baina berak gustoz egiten duela. Lehenengoarekin baino prestatuago sentitzen da laugarrenarekin.

1.134. Antzerkia, barruak askatzeko (AZK-086/026)

Antzerkia eskolan egin zuen lehenengo aldiz. Denbora batez lagata izan zuen eta ondoren Azpeitiko taldearekin hasi zen. Ama izatearren geldialdia egin zuen eta gero Iñigo Aranberrirekin hasi zen harrerarena lantzen. Gero serioago hartu zuen eta horretan jardun du. Bere barrukoa ateratzeko erabili izan du antzerkia sarri.

1.135. "Eskutitzak" antzezlanaren sorrera (AZK-086/027)

"Eskutitzak" antzezlanari buruzkoak azaltzen ditu. Aitona-amonen gaztetako maitasuna deskubritu zuen haien gutunak topatu zituenean. Errealitate hartatik fikzioa sortu zuten. Gidoia berak sortu zuen, hasieran zinemarako, eta lehiaketa batera aurkeztu zuen. Izaskun Arandia zegoen epaimahaian eta istorioa gustatu, elkarrekin berridatzi eta lehiaketara berriz aurkeztu zuten. Saria irabazi eta antzezlanari bideratu ahal izan zuten.

1.136. "Eskutitzak" antzezlanari buruzkoak aipatzen ditu. Amonarena berak egin zuen antzezlanean. Ahotsak.eus-eko informazioa erabili zuen antzezlanari girotzeko.

"Eskutitzak" antzezlanari buruzkoak aipatzen ditu. Amonarena berak egin zuen antzezlanean. Ahotsak.eus-eko informazioa erabili zuen antzezlanari girotzeko.

1.137. Antzerkia eta ahozko transmisio lantzeko, Ahotsak.eus (AZK-087/002)

Donostia 2016 saria irabazi zuten antzezlanari prestatzeko. Luhusoko antzokian prestatu zuten eta hango ikastoletan klase batzuk ematea zen ordaina. Ahozko transmisioa landu zuen ikasleekin, ahotsak.eus baliatuz. Eskatu zien ikasleei ingurukoei bigarren mundu gerrari buruz galdetzeko eta bildutako informazioa gelara ekartzeko. Euskalkiak ere landu zituen.

1.138. "Bizimina" antzezlanari buruzkoak (AZK-087/004)

Bizimina antzerkiaren aurretikoak. Osaba ETAk hil zuen eta etiketatu egin dutela sentitu izan du. Beldurra zer den ikasi du eta amorrus ez jokatzeko ere bai. Elkarrizketak egin zituzten eta antzezlanean txertatu.

1.139. Emakume aktoreen perfil fisiko zehatzen eskaera (AZK-087/008)

Orokorrean, aktoreak eskatzen direnean, emakumeen perfil fisiko oso zehatza eskatzen da, eta gizonena ez. Iruditzen zaio gizonezko zuzendari batzuek emakume aktoreak panpin moduan erabiltzen dituztela, umetan ez zutelako panpinekin jolastu, eta ez du jasaten.

1.140. Emakumeak badu hitza euskal antzerkian (AZK-087/009)

Euskal Herriko antzerkian oso gutxi direnez, denek ezagutzen dute elkar. Emakumeek gaur egun hitza badaukatela uste du. Hala ere, gauza asko lantzeko daudela dio, eta emakume zuzendari gutxi daudela oraindik. Amatasuna eta antzerkia uztartzea zaila dela dio, baina egin daitekeela.

1.141. Antzerkian, gizonak pixkanaka emakumeei leku egiten (AZK-087/010)

Antzerkian, gizonezkoek kostatu egin zaie emakumeei lekua egitea. Bide bat dela dio, egunerokoan aldaketak eginez egin behar dena.

1.142. Euskal telebistan, emakume aurkezleen irudia beti antzekoa (AZK-087/012)

Batzuetan, gustokoak ez diren lanak egin behar izaten dituzte, nahi den lekuan eta moduan lan egiteko aukerarik beti ez delako izaten. Euskal Telebistako adibidea jartzen du; emakume aurkezlea beti takoiekin eta itxura batekin agertzen dela azaltzen du.

1.143. Aurrerantzean, adineko emakume gehiago antzerkian (AZK-087/013)

Antzerkian lantzen denaren arabera, adineko emakumeek presentzia irabaz dezakete. Orain artean, oso antzerki komertziala egin dela dio, eta azken hamarkadan aldaketa handia sumatu du. Adin batetik aurrera, antzerkian oso emakume gutxi dabilzala uste du, baina aurrerantzean aldatuko dela.

1.144. Bere gaztetako eta oraingo nesken moda (AZK-087/016)

Gaztetan gorputza estali egiten zuten bere belaunaldiko emakumeek. Oraingo neska gazteak alde hortatik libreago ikusten ditu. Gaur egungo modan denetariko aukerak izaten dira.

1.145. Mutilek ere estetika zaintzen zuten eta dute (AZK-087/017)

Lehen eta orain, denak berdin jantzita joatea ohikoa da gazteengan. Mutilek ere, lehen eta orain, estetika zaintzen dutela uste du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2024-05-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com